

ANE LARRINAGA RENTERIA

KULTURGILEAK ETA
KULTURAREN ESPARRUA

II

EUSKAL KULTURGILEAK
EUSKALGINTZA MUGIMEN-
DUAREN ERAIKUNTZAN



ANE LARRINAGA RENTERIA

KULTURGILEAK ETA
KULTURAREN ESPARRUA

II

EUSKAL KULTURGILEAK
EUSKALGINTZA MUGIMEN-
DUAREN ERAIKUNTZAN

Utriusque Vasconiae

© Ane Larrinaga Renteria

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2007ko Azaroa

ISBN: 978-84-935757-2-4

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

*Etxeko mutilei,
Ramon eta Peruri*

AURKIBIDEA

HITZAURREA	11
KULTURGILEA GIZARTE MUGIMENDU BERRIETAN: KULTURAREN ETA POLITI- KAREN ARTEKO LOTURAREN BERRERAIKUNTZA BERANDUKO MODERNITATEKO GIZARTEETAN	
1. Gizarte mugimenduei buruzko interpretazio teorikoak	15
1.1. Ikuspegi klasikoak	15
1.2. Ikuspegi garaikideak. Baliabideen Mobilizazioaren Teoria	23
1.3. Ikuspegi garaikideak. Gizarte Mugimendu Berrien Teoria	27
1.4. Paradigma teorikoen joera kontrajarriak	32
2. Gizarte mugimenduen jardun sinbolikoa ulertzeko tresna analitikoaren bila	36
2.1. Interpretazio markoen azterketa. Aurrekariak	37
2.2. Interpretazio markoen analisisa gizarte mugimenduetan: egoeraren definizio alternatiboaren eraikuntza	39
2.3. Interpretazio markoak: mugimenduen nortasun iturri ...	42
2.4. Arazo sozialaren definizioak: prozesu gatazkatsuak mugimenduen esparruan	46
3. Kulturgileak: interpretazio markoen sortzaile pribilegiatuak ...	52
3.1. Gizarte mugimendu berrien oinarri soziala	53
3.1.1. Gizarte gatazkaren adierazpen berriak	56
3.2. Gizarte mugimenduak, ezagutza berrien sorkuntza gune: mugimendu intelektualak	61
3.2.1. Paradigma subjektibisten hutsuneak	67
3.3. Harremanezko ikuspegia gizarte mugimenduetako intelektualen azterketan: tradizio intelektualak mugimenduetan txertatuz	71
3.3.1. Akademikoak gizarte mugimenduetan	73
3.3.2. Adituak gizarte mugimenduetan	78
3.4. Ezagutza eta egintza: kultura eta politika gizarte mugimenduetan	83

4. Kultura eta hizkuntza gutxituen aldeko gizarte mugimenduak Beranduko Modernitatean: mendeko kultur-gileak mugimenduetan	90
4.1. Mendeko kulturak eta hizkuntzak	90
4.2. Kultura eta hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduak . .	94
4.3. Mendeko kultur-gileak kultura eta hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduetan	99

KULTURGILEEN TRADIZIOAK SORTZEN, KULTURA ESPARRUAREN AUTONOMIA GAUZATZEN: EUSKAL KULTURGILEAK EUSKALGINTZA MUGIMENDUAREN ERAIKUNTZAN

1. Euskalgintza: historian zehar gizarte aldaketarako euskal kultur-gileek osaturiko esparru kognitiboa	115
1.1. Euskal kultur-gileen erresistentzia kognitiboa: kapital sinbolikoaren metaketa historikoa Eusko Pizkundearen garaian	122
1.1.1. Hizkuntza kontzientziaren sorrera eta hizkuntzari buruzko lehen teorizazio nazionalista. Campion eta Arana	131
1.1.2. Pizkundearen modernotasuna	135
1.1.3. Eusko Pizkundearen argi-ilunak	139
1.2. Euskal kultur-gileen erresistentzia kognitiboa: kapital sinbolikoaren metaketa historikoa 1960ko hamarraldiko kultura susperraldian	143
1.2.1. Euskara eta nazioari buruzko interpretazio marko berria	146
1.2.2. 1960ko hamarraldiko kultura berpizkundea	156
1.2.3. 1960ko hamarraldiko kultura pizkundearen ondarea. Euskalgintzaren oinarri berriak	165
2. Euskal kultur-gileak frankismo osteko euskalgintzaren eraikuntzan: kultura esparruaren autonomia gauzatzen, kultur-gileen tradizioak sortzen	173
2.1. Hego Euskal Herriko marko politikoaren eraldaketa. Instituzionalizazio autonomikoa eta euskal nazionalismoaren zatiketa	174
2.2. Euskalgintzaren esparru intelektuala euskal kultur-gileen pertzepzioan	182
2.2.1. Euskal kultur-gileen irudikapen ideala: konpromisoaren aldeko intelektuala, nagusi	183
2.2.2. Euskal kultur-gileen eta euskal kultura esparruaren berezitasunak kultur-gileen pertzepzioan: mendekotasunaren zantzuak	189

2.2.3. Euskal kulturgileei esleitutako eginkizuna euskalgintzaren esparru kognitiboaren osaketan	203
2.3. Autonomia/politizazio binomioaren aurrean. Bi interpretazio markoren arteko lehia sinbolikoa euskalgintzaren esparruan	215
2.3.1. 80ko hamarraldiko instituzionalizazio autonomikoaren ondorioak euskalgintzan	216
2.3.2. 1987-1995: Euskalgintza gune kognitibo gisa berrantolatzen. Mugimendu intelektualaren eredu arketipikoa jardunean	224
2.3.3. Mugimendu esparruaren zatiketaren adierazpenak	241
2.4. Instituzionalizazioaren ondorioak. Mugimendutik sortutako kultura esparruak eratzen eta tradizio intelektualak moldatzen	250
2.4.1. Mugimendutik unibertsitatera: tradizio akademikoa osatzeko zailtasunak	250
2.4.2. Mugimendutik administrazioa: hizkuntza arloko teknikariak	272
AZKEN HITZAK	305
BIBLIOGRAFIA	317

HITZAURREA

Errealitate soziala ulertzeko saio guztiek argitu beharreko iker-gune bat irekitzen diote aztertzaileari. Gune ilun horri buruzko galdera ahalik eta egokienak egiten saiatu behar da aztertzailea, ulerkuntza lanari hasiera eman ahal izateko eta, galderei erantzunak bilatuz, gizarte funtzionamenduaren mataza askatuz joateko. Ildo horretatik, ondoren datozen orrialdeetan aurkezten den intelektualei buruzko lanean ere zenbait galdera hartu ditugu abiaburutzat.

Gaur egun pentsamendu soziologikoan nagusi diren diagnostikoen arabera, Beranduko Modernitatean intelektual ilustratuak oraintsu arte izan duen estatusa erabat ahuldu duten prozesuak gertatu dira: besteak beste, ezagutza legitimoaren sekularizazioa, politikagintza modernoari zentzua eman zioten emantzipazio proiektuen gainbehera eta kultura industrialaren indar gero eta handiagoa kultura esparruan. Ondorioz, argudio ildo horrek dioenez, kulturgilearen jarduna ahalbidetu zuten ohiko tradizioak eta instituzioak ere indargabeturik gertatu dira, hein handi batean.

Dena den, gure ustetan kulturgileen eginkizunak –haien rola, nortasunak eta, oro har, tradizio intelektualei lotutako jarduera ereduak– gune sozial, politiko eta kultural jakinetan txertaturik ulertu behar dira. Hartara, sortzen zaigun galderetako bat honako hau da: ba al dago gaur egungo gizarteetan lan intelektualerako gune egokirik, intelektualen egintzarako aukerak eskaintzeaz gain emantzipazioaren tradizioa berreraikitzeke aukerak ematen dituen?

Bestalde, botere harremanak aintzat hartzen baditugu jakin badakigu kulturgile guztiek ez daukatela kokapen objektibo berbera kultura esparruan, denek ez baitituzte metatzen baliabide legitimo

berberak esparru horretan jarduteko. Asimetria horiek kulturen arteko desberdintasunetan ere islatzen dira zenbaitetan, harremanezko esparruan mendeko intelektualak eta intelektual nagusiak ez ezik kultura nagusiak eta mendekoak ere bereizten direlako. Beraz, zer nolako agertokietan eta zer nolako baliabideekin dihardute kultura esparru erabat osaturik ez daukaten mendeko kulturgileek?

Aurreratu ditzagun, bada, erantzunak. Lan honetan gizarte mugimendu garaikideak aztertu ditugu Beranduko Modernitateko kulturgileen jarduerarako gune gisa. Bertan garatu ditzakete kulturgileek beraien eginkizun intelektualak –eta politikoak– eta berriz interpretatu ditzakete, oraingoan egoera berrietan, konpromisoari lotutako aspaldiko tradizioak. Liburuaren lehen atalean gizarte mugimenduen buruzko analisi teorikoari ekingo diogu. Ildo horretan, Beranduko Modernitatean gertatu diren egiturazko aldaketa batzuen hausnarketa egingo da: batik bat, Gizarte Mugimendu Berrien garapena ahalbidetuz duten eraldaketak hartu dira gogoan.

Izan ere, ikusiko dugunez, gizarte industrial garatuetan indarrean dauden razionaltasun moldeek ohiko esparru ekonomiko eta politikoetan ez ezik gizarte interakzio informalararen azpiegitura sinbolikoan ere eragina izan dute, eta azken horietan burutzen den esanahiaren sorkuntza baldintzatu dute. Bestela adierazita, gure aroan menderapena koakzio fisikoan baino mekanismo sinbolikoen kontrolean oinarritzen da gero eta gehiago. Hartara, boterea esanahia sortzen den gune sinbolikoak kontrolpean jartzera iritsi da gizarte garaikideetan. Hori dela eta, ez soilik egintza kulturala, baizik eta egintza politikoa ere menderapen eredu berrien interpretazioa ahalbidetzen duten kodeen ezagutzari loturik dago gaur egungo gizarteetan. Testuinguru horretan kokatu dugu gizarte mugimenduen garapena. Ildo horretan, gizarte mugimenduak ohiko ikuspegitik jorratu beharrean, eragile anitzek osaturiko gune kognitibo gisa aztertzen saiatu gara. Uste dugu, ororen gainetik, gizarte mugimenduak ezagutza ekoizle direla, esparru kontzeptual eta intelektual horietan indarrean dauden errealitatearen definizioen ordeko interpretazio markoak artikulatzen baitira. Baliabide asko sortzen eta mobilizatzen dute mugimenduen euren helburuak lortzeko, alegia, errealitatearen interpretazio marko berriak eraikitzeko. Baliabideon artean, gizarte garatuetako lehia sinbolikoetan ezinbestekoak diren kulturgileak agertzen zaizkigu.

Liburuaren bigarren atalean, berriz, azterketa enpirikoaren sailera eramango dugu eraikuntza kontzeptualean landutako hipotesi nagu-

sia, alegia, kulturgileen krisiaren diagnostikoa gorabehera, gure gizarteek, jarduera intelektualerako gune egoki bilakatu dituztela gizarte mugimenduak, eta agertoki instituzional horiek zenbait tradizioan txertaturik dauden kulturgileentzako partaidetza guneak izateaz gain tradizio intelektual berrietarako haztegi ere badirela. Euskalgintza deritzan mugimenduko zenbait kulturgileri egindako sakoneko elkarrizketetan oinarriturik, landa lan horretan mendeko kultura esparru batean kokatutako kulturgileek mugimenduan egin duten rolen eraikuntza eta frankismo osteko garaian Hego Euskal Herriko euskalgintzan sortu dituzten interpretazio marko gatazka-tsua aztertuko dira.

Bigarren atal horretan azaltzen den landa lanari dagokionez, zenbait ohar metodologiko azaldu beharrean gaude. Lehenik, atal horren helburua euskalgintzan ari diren kulturgileek mugimenduan eraikitako rolak eta sortutako interpretazio markoak ulertu ahal izatea izan denez, helburu hori lortzeko metodologia kualitatiboan oinarritutako teknika erabili da datuak eskuratzeko. Izan ere, teknika kualitatiboak, orokortzeari eta eredu estatistikoari baino lotuago daude esanahien ularkuntzari eta interpretazioari. Ildo horretatik, hautatutako teknika Sakoneko Elkarrizketa izan da –zehazki adierazita, Elkarrizketa Estandarizatu Irekia–. Bigarrenik, euskalgintzako hamar kulturgileri egin zaizkie sakoneko elkarrizketak. Laginaren diseinurako Laginketa Estrategikoa erabili da, hau da, lagina osatu duten unitateen hautaketa ikerketarekin bat datozen irizpideen arabera egin da. Irizpideak honako hauek izan dira: 1. Elkarrizketatuak euskalgintzako erakunde baten edo gehiagoren kide izan dira iraganean edo erakunde baten kide dira gaur egun 2. Horietatik batzuek unibertsitatean eta beste batzuek administrazioan –euskara teknikari gisa– dihardute profesionalki 3. Lan intelektualtzat hartzen diren zereginak egiten dituzte eskuarki –dibulgazioa, sortze-lanak, ikerketak eta abar– euskalgintzaren esparru publikoan. Azkenik, laginaren unitateen hautatze prozedura amaitutzat jo da “asetze teorikoa” gertatu den unean, alegia, informazio berririk jaso ez eta informazio hori errepikakorra izaten hasi denean.

Azken ohar bat irakurlearentzat. Irakurleak eskuetan daukan *Euskal Kulturgileak Euskalgintza Mugimenduaren Eraikuntzan* izeneko liburu honek doktore tesi batean dauka bere abiapuntua. Funtsean, doktore tesi horren atal enpirikoa dago jasota ondorengo orrialdeetan. Tesi beraren lanketa teorikoa, berriz, *Tradizio Intelektualak Beranduko*

Modernitatean izenburuko liburuan bilduta dago. Bi liburuak bereizita irakurriak izateko taxututa daude. Izan ere, gaien aurkezpenaren alde-tik lan independenteak dira. Baina, aldi berean, nabarmenak dira bien arteko loturak ere, bai edukietan bai erabilitako metodologian. Esan dugunez, bigarren liburu honetan, gizarte mugimenduen tradizio intelektualetan jarriko da arreta, zehazki, euskal kulturgileek euskalgintzaren mugimenduan egindako eraikuntzan. Lehenengoan, berriz, azterketa teorikoari heltzen zaio: aro historiko bakoitzak eginkizun intelektualerako ezarri dituen baldintzak eta baldintza horien arabera kulturgileek sortu ahal izan dituzten agertoki instituzionalak eta tradizio intelektualak aztertzen dira bertan. Lotura horiek adierazteko, lehen izenburu bera daukate bi liburuek azalean: *Kulturgileak eta Kulturaren Esparrua*.

LEHEN ATALA

**KULTURGILEA GIZARTE MUGIMENDU BERRIETAN:
KULTURAREN ETA POLITIKAREN ARTEKO
LOTURAREN BERRERAIKUNTZA BERANDUKO
MODERNITATEKO GIZARTEETAN**

“En un mundo de desconfianza generalizada, no nos fiamos de los intelectuales. Han llevado a la modernidad hasta el patíbulo porque, enloquecidos por la megalomanía de la razón, creyeron que tenían la solución definitiva para los males de la humanidad. Se sintieron iluminados, y se convirtieron en enemigos de la sociedad abierta, por usar expresivos términos de Popper. Pero, al mismo tiempo, la contumacia del género humano sigue reclamando su presencia porque necesitamos saber a qué atenernos. ¿Cómo podríamos recuperar esa figura, tras las lecciones aprendidas? ¿Cuáles podrían ser las características de un nuevo intelectual y cuáles sus relaciones con el poder?” (Marina, 2003: 33-34).

“A necessary condition for the formation of a social movement is the generation of movement intellectuals” (Eyerman eta Jamison, 1991: 99).

1. Gizarte mugimenduei buruzko interpretazio teorikoak

1.1. Ikuspegi klasikoak

Gizarte mugimenduei buruzko azterketa garaikideen aurrekariak aurkitzeko XIX. mendean masen egintza aztertzen zuten pentsamen-

du tradizioetara jo behar dugu. Tradizio garrantzitsuenen artean, XIX. mendeko masen jokabide irrazionalak azpimarratzen zituzten teoriak dauzkagu. Teoria horiek langile mugimenduaren aurkako tresna politiko-intelektual modura erabili izan ziren maiz. Pentsamendu ildo horretan, XIX. mendeko pentsalari batzuk izututa agertu ziren masa fenomeno berrien aurrean. Izan ere, uste zuten iraultzak, istiluak eta masen egintzen bestelako adierazpenak gizarte ordenarako mehatxuak zirela. Hala, Ilustrazioaren aurkako ikuspegi kontserbadorean kokatutako hainbat autorek susmatzen zuen ezen europar gizartea, zibilizazio maila gero eta gailenagoetara iritsi beharrean, krisi gero eta sakonagoan murgilduta zegoela. Haien iritzitan, bilbe sozialean hedatzen ari ziren gertakariak kalte nabarmena eragiten zuten: indibidualismoa, moral tradizionalaren gainbehera, hiri degradazioa, krimena, eta, ororen gainera, langile mugimenduari lotutako ideien indar gero eta handiagoa –sozialismoa, komunismoa, anarkismoa– aipatzen ziren maizenik horien artean. Horiek guztiak, jakina, ordena liberalaren eta bere instituzioen krisiaren adierazletzat ez ezik, Mendebaldeko zibilizazioaren beraren krisiaren erakusletzat jo ziren zenbait testuinguru intelektualetan.

Aldi berean, pentsalari horien ustetan, mundu modernoak aukera geroz eta handiagoak eskaintzen zituen masen egintzarako. Urbanizazioak, tradizioaren beherakadak, migrazioak, lan aldaketak, eta hedabideen eragin gero eta nabarmenagoak Mendebaldeko gizarteetan nagusitutako joera jakin baten adierazpenak ziren: hain zuzen ere, joera horren arabera masen pentsamoldearen hedapena finkatzen ari zen. Hartara, masak euren protagonismoa sendotzen ari ziren hala ideien zabalkuntzan nola egintzen esparruan.

Nortzuk ziren masen egintzetako partaideak? Nola uler zitekeen eskuarki legeekin begirunea zeukaten herritarrak bat-batean gizarte ordena hausten zuten egintzetan parte hartzeko gai izatea? Galdera horiei erantzuna ematen saiatu ziren pentsalariak masen psikologiaren sortzaileak izan ziren, Le Bon eta Tarde, besteak beste –nahiz eta gero Freud eta psikoanalisi ere erantsi zitzaizen haiei–. H. A. Taine historia-lariaren eraginpean, autore horiek masen egintza kolektiboaren ikuspuntu erabat ezkorra landu zuten.

Tradizio horretan dauden pentsalariak bat datoz gizarte mugimenduen sorreraren auziari erantzun psikosoziala ematerakoan. Beraien iritzitan, masen jokabidearen gehiegikeriak egintzan parte hartzen dutenen kutsatze emozionalean dauka bere jatorria. Hartara,

gizabanakoak jasaten duen eraldaketa –haren zentzu kritikoaren galeran adierazten den aldaketa, esaterako– sugestioaren emaitza izan ohi da.

“Dans certaines circonstances données, et seulement dans ces circonstances, une agglomération d’hommes possède des caractères nouveaux forts différents de ceux de chaque individu qui la compose. La personnalité consciente s’évanouit, les sentiments et les idées de toutes les unités sont orientés dans une même direction. Il se forme une âme collective ...” (Le Bon, 1975 [1895]: 48)¹.

Zalantzarik gabe, Le Bon eta Tarde ildo “irrazionalistaren” barruan kokatzen dira (Casquette, 1998: 41), masen egintzak eta ohiko bizitza arrunta ezaugarritzen duten egintza “razionalak” bereizten saiatzen baitira etengabe. Beraien azterketan, masen egintza eragiten duen faktore nagusia gizakien arteko hurbiltasun fisikoa da, baina, erabakigarriak izan daitezke zurrumurrua, harremanak eta komunikabideak ere. Masa egoeretan, dena den, borondateak deusezturik geratzen dira eta gizabanakoak masa asaldatzaileen iradokizunen eta erretolikaren mende geratzen dira zeharo. Hortik ondorioztatzen da masaren errealismo falta eta haren fedea mugarik gabeko aukeretan².

Masen psikologoek aurkezturiko ideien esanahi politikoa oso nabaria da: haien lanetan ezinezkotzat jotzen da masen egintza interes edo premia errealei emandako erantzuna izan daitekeenik. Aitzitik, uste dute egintza kolektiboa lider karismatiko baten sorkuntza artifizialaren emaitza besterik ez dela. Horiek horrela, gutxietsi egiten da masek jarduteko izan ahal duten ahalmena eta, era berean, zalantzatan jartzen da haien eskarien zilegitasuna. Bestalde, kontuan hartzen badugu diskurtso irrazionalista nagusi izan zen garaian –hau da XIX. mendeko azken hamarraldietan eta XX. mendeko lehen urteetan– masen egintzaren eroale nagusia langile klasea izan zela, egintza kolektiboa jarduera irrazional modura kalifikatzeak ondorio politiko argiak zeuzkan. Bada, kontzeptualizazio horrek gero eta indartsuago ageri zen gizarte mugimendu baten ahalmenak baliogabetu nahi zituen. Hain zuzen ere, legitimitate itxura oro kendu gura zien langileriaren asmoei. Hartara, masen tradizio irrazionalista langile klasearen aurka sortutako pentsamendua zen, bere adierazpen politikoari zegokionez bederen. Azken batean, gizarte ordenatik at kokaturiko egintza kolektiboetarako razionaltasuna ukatzen zien modu nabarmenean³.

Dena den, XX. mendeko 30eko hamarralditik aurrera gutxi izan ziren egintza kolektiboa azaltzeko tradizio irrazionalistara jo zuten

autoreak. Halaz ere, egintza kolektiboaren fenomenoen ikuspegi horrek eragin handia izan du beste bide intelektual batzuen bitartez: Chicagoko Eskolan 40ko eta 50eko hamarraldietan gaturiko “Jokabide Kolektiboa” deritzon ikusmoldearen bitartez eta “Masa Gizartearen” ikusmoldearen bitartez, hurrenez hurren.

Jokamolde Kolektiboaren ikuspegia irrazionalisten masa psikologia baztertu zuen gizarte mugimenduen azterketaren paradigma nagusia dugu 40 eta 50eko hamarraldietan. Ildo horren adierazleen artean Park eta Burgess, Blumer, Turner eta Killian ditugu⁴. Jokamolde Kolektiboaren ikuspegiak ohiko jokabide konbentzionalaren eta jokabide kolektiboaren arteko bereizketa zurruna egiten jarraitzen du. Jokabide kolektiboa, jakina, instituzioetatik eta gizarte arauetatik at kokatzen du. Korrante teoriko horretako autoreen ustez, kulturak eta indarrean dagoen eraketa sozialak zuzentzen dute jokabide konbentzionala. Hartara, jokabide konbentzionala nagusi da gizakien bizitza sozialean. Gizarteak ohiko egintzarako irizpide zehatzak emateari uzten dionean eta indarrean dauden bizimoduek gizabanakoen bulkadak eta nahiak asetu ezin dituztenean, ordea, une horretan bertan sortzen da jokabide kolektiboa. Beraz, jokabide kolektiboaren jatorria instituzioen eta kulturaren krisian dago —adibidez, migrazioen ondorioz, hondamendi naturalen eraginez eta urbanizazioaren nahiz eraldaketa sozial azkarren ostean bizi izandakoak horrelako egoera kritikoak izan ohi dira sarritan—. Krisialdiek ahalegin ez-instituzionalak eragiten dituzte urratutako gizarte egiturak eta partekaturiko esanahiak berriz eraikitzeko. Baldintza horietan gizabanakoek desorekak jasaten dituzte beraien ohizko bizimoduetan. Ondorioz, frustrazioa, segurtasun eza, alienazioa, bakardadea eta antzeko sentipenak adierazten dituzte behin baino gehiagotan. Barne tentsio horiek guztiak arintzeko baliabide arauturik egon ezean, ausazko jarduerak ager daitezke, alegia, jokabide arautu gabekoak. Zenbaitetan, egonezintasuna dinamika zirkular batean sartzen denean kutsakor bihurtzen da. Halakoetan, sosegurik eza gizartera zabaltzen da uhin handi baten moduan.

Irrazionalisten masa jokabidearen kutsu nabarmena atzematen da Parkek eta Burgessek definituriko jokabide kolektiboaren kontzeptuan, batez ere hura jokabide instituzionalizatutik bereizita agertzen delako. Haatik, badago desberdintasun garrantzizkorik bien artean. Horrela, Chicagoko pentsalarien iritziz, jokabide kolektiboaren adierazpenik bortitzenak ere osagai onuragarriak izan ditzake, azken buruan, jardun arautuaren sorrerarako oinarriak eskaini ahal baititu betiere.

60ko hamarraldiak aldaketa batzuk ekarri zituen egintza kolektiboaren azterketara. Dударik gabe, ordura arteko lanak beste norabide bat hartu zuen Neil Smelserren *Theory of Collective Behavior* obrarekin (1963)⁵, ekarpen horrek aurreko tradizioarekin erabateko haustura ekarri ez bazuen ere. Smelserrek bide berriak urratu zituen jokabide kolektiboaren azterketan: besteak beste, ikuspegi psikologizistak baztertu zituen eta protestaren baldintzapen sozialei lehentasuna eskaini zien. Horrela, soziologo amerikarrak arreta berezia jarri zuen egiturazko tentsioetan eta partekaturiko sinesteen garrantzian, eta ez sugestioan Le Bonen, Tardek eta haien jarraitzaileek egin zuten bezala. Ikuspegi berri horretan, Smelserrek jokabide kolektiboaren faktore baldintzatzaileen sekuentzia bat egin zuen; sekuentziaren atal bakoitzari aurreko atalei buruzko balio erantsia esleitu zion. Halaz ere, ikuspegi orokorrari zegokionez aldaketa proposatzen zuen arren, Smelserrek ez zuen lehenagoko ildoak guztiz eten. Jarrera horren adierazgarri dira egintza kolektiboaren oinarrian dauden sineste kolektiboak esleitutako ezaugarri irrazionalak:

“El comportamiento colectivo está guiado por diversas clases de creencias: evaluaciones de la situación, anhelos y expectativas. Sin embargo, estas creencias difieren de las que guían a muchos otros tipos de comportamiento. Implican la creencia en la existencia de fuerzas extraordinarias –amenazas, conspiraciones, etc.– que funcionan en el universo. También implican una evaluación de la consecuencias extraordinarias que acarrearía el triunfo del esfuerzo colectivo de reconstitución de la acción social. Así pues, las creencias que sirven de base al comportamiento colectivo (las llamaremos creencias generalizadas) se asemejan a las creencias mágicas” (Smelser, 1989: 20-21).

Garrantzi handia bazeukan ere, Smelserren ikuspegi estruktural-funtzionalista ez zen mundu akademikoan gizarte mugimenduei buruz indarrean zegoen azalpen bakarra 60ko hamarraldian. Harekin batera, Masa Gizarteari buruzko teoriatik eratorritako beste azterketa batzuk –gerra ostean arrakasta handikoak– gero eta arreta handiagoa jarri zuten protesta egintzen parte-hartzaileen ezaugarrietan. Esparru horretan egindako ekarpenik ezagunenetakoa W. Kornhauserren *The Politics of Mass Society* (1959)⁶ da. Masa gizartearen beste teorizatzaile batzuen antzera, Kornhauserrek ezaugarri jakin batzuen bitartez deskribatzen du gizarte eredu hori: gizabanakoen isolamendua, talde

independenteen desagerpena eta erabakien zentralizazioa aipatzen ditu, besteak beste. Hark irudikaturiko masa gizartean, bitarteko taldeen desagerpenak erakunde burokratikoek hazkundera eta gizabanakoen atomizazioa eragin ditu. Era horretako karakterizazioetik diagnostiko ezkorrak ondorioztatzen dira gizakien jokabide ahalmenei dagokienez. Izan ere, ikuspegi horretan, eliteen kide ez direnak, hau da, “masak” deritzetenak, aise mobilizatzen dira eliteen eraginez. Elkartasuna eta integrazioa ahalbidetzen duten komunitate lokalik, bitarteko talderik eta elkarte boluntariorik ezean, gizabanako alienatuak eta sustrairik gabekoak muturreko erakunde antidemokratikoen mende erortzeko arriskutan daude, euren egoera dela eta modu errazean bilakatzen baitira haien aktibista. Zinez, masa-gizarte eredu horrek eragiten dituen masen egintzak ez dira inolaz ere modu positiboan ezaugarritzen Kornhausarren azterketan.

Halaz ere, protesta egintzak “jokabide desbideratuaren” kategoriarren barruan kalifikatzea –ikusitako azterketa guztiek neurri batean egiten zuten bezala– gero eta lan intelektual zailagoa zen 60ko hamarraldian herrialde garatu askotan burutu ziren egintza kolektiboek oldarra kontuan hartuta. Hamarraldi horren bukaeran, indarkeria kolektiboari buruz politologoek egindako azterketetan oinarriturik, bestelako formulazio teorikoa gailendu zen agertoki intelektualean. Bigarren Mundu Gerra baino lehenago ezaguna zen “frustrazio-eraso” teoria hartzen zuen arren abiapuntu modura, orain “Gabezia Erlatiboaren” izenpean ezagutu zen kontzeptualizazio teoriko berria.

Eraberritutako teoria horren defendatzaileen arabera –Ted Gurr, adibidez–, Gabezia Erlatiboak eragiten du egintza kolektiboa. Gabezia hitzak zerbaiten falta edo eskasia adierazten du hizkera arruntan. Haatik, gabezia erlatiboa ez da errealitate objektibo hutsaren ondorioa, ezpada askotariko subjektuek errealitateaz duten pertzepzioaren emaitza. Beste modu batera adierazita, gabezia, teoria horretan erabiltzen den eran, ez da inoiz pobrezia edo miseriaren pareko egoera izaten, ez behintzat gure gizarteetan. Aitzitik, itxaropenen eta errealitatearen artean sortutako desberditasunek sortzen dute, balio kolektiboek hornidurari dagokionez “izan beharra” eta benetako izatea bat ez datozenean agertzen baita. Bestalde, kontuan hartu behar da azterketa mota horretan itxaropenak eta gaitasunak ez direla soilik ondasun materialen gainean sortzen –nahiz eta horiek ere garrantzitsuak diren–. Gizarte garatuetan, esaterako, gaitasun materialak bezain inportanteak

izan ohi dira partaidetza politikoa, garapen indibidualerako ahalmena eta antzeko aukerak.

Gabezia Erlatiboaren Teoriaren arabera, ez dago harreman zuzenik gabeziaren eta protesta egintzaren artean, areago, gabeziaren eta indarkeriazko egintzaren artean. Izan ere, teoriaren ordezkariak erakusten duten bezala, nahigabe sozial gehienak ez dira iraultzaileak izaten. Zenbaitetan, ordena naturalaren osagaitzat jotzen delako gabezia. Beste zenbaitetan, bortxazko egintzari alferrikakoa edo kaltegarria irizten zaiolako (Pérez Ledesma, 1994: 77). Horregatik, indarkeria zabaltzea bi faktoreren mende egon ohi da: gabezia sentimenduen indarraren mende, batetik –tokian tokiko nahigabearen sakontasuna hainbat eratakoa izan baitaiteke– eta erasanik dagoen taldearen tamainaren mende, bestetik.

Zalantzarik gabe, bere konplexotasuna kontuan hartuta formulazio teoriko horrek aurrerapausoa ekarri zuen lehenagoko azalpenen aldean. Izan ere, ez zuen frustrazioaren eta erasoaren arteko koerlazio automatikorik ezartzen –doktrina beraren lehen bertsioak egiten zuen bezala– eta esplotazioa edo gabezia irizpide objektibo soiltzat jotzen ez zituenez, gizarte egoera batek hobera egiten zuenean ere biolentzia gertakariaren zioa azaldu ahal izateko aukera ematen zuen. Formula hori egokia izan zitekeen, bestalde, 60ko hamarraldian jazotakoa ulertzeko. Halaz ere, alderdi psikologikoetan jarritako arretak –Smelserrek eta ikuspegi estruktural-funtzionalistak egiturazko determinatzaileei emandako garrantzia alde batera utzita– eztabaida handiak sortu zituen.

1970eko hamarraldiak paradigma aldaketak ekarri zituen gizarte mugimenduen azterketara. Aldaketa horiek ez ziren izan garai hartara arte indarrean egondako doktrinen kritikaren emaitza soil. Hein batean, Mendebaldeko gizarteetan buruturiko eraldaketek eragindako ondorioztat ere hartu behar dira. Halatan, mundu intelektualaren barneko faktoreak eta mundu sozialaren kanpoko gertakariak nahasi ziren gaur egun nagusi diren eredu teorikoen sorrera unean (Pérez Ledesma, 1994: 82). Ezaguna da Europan eta Estatu Batuetan 60ko hamarralditik aurrera sortu zen mugimendu eta protesta uholdea. Mugimendu horien behaketa zuzenak bertan behera utzi zituen ohiko ikuspegi teorikoen interpretazioak. Une hartan ezinezkoa zen protesta egintzetan parte hartzen zuten gizakiak gizabanako anomiko eta irrazionaltzat jotzea. Aitzitik, adituek ikusten zuten gizaki razionalak zirela, gizartean ondo integratuak, erakundeetako kideak. Bestalde, beraien egintzetan helburu zehatzak bilatzen zituzten, ez zegoen

zalantzarik. Hartara, egintza kolektiboetan gero eta argiago sumatzen zen interesak razionalki antolatzeko helburu estrategikoak gailentzen zirela. Estatu Batuetan sortutako Baliabideen Mobilizazioaren Teoriak eta Europan garaturiko Gizarte Mugimendu Berrien Paradigmak, hots, gaur egun gizarte mugimenduen azterketan nagusi diren eredu teorikoek, ezaugarri horiek guztiak azpimarratu dituzte modu oso nabarmenean azken urteetan.

“All collective-behavior theorists stress psychological reactions to breakdown, crude modes of communication, and volatile goals. This indicates an implicit bias toward regarding collective behavior as a nonrational or irrational response to change. It is this bias, most explicit in the mass-society and Smelserian approaches, that triggered the criticism of contemporary theorists. It is also this bias that precludes any examination of innovations or learning on the part of collective actors.

The inadequacies of the classical tradition became obvious in the sixties and seventies when massive social movements emerged in the United States and Europe. The development of movements in politics characterized by pluralists as democratic and in civil societies with a multiplicity of voluntary associations belied the mass-society version of the collective-behavior paradigm. So, too, did the fact that actors in the New Left hardly conformed to the image of anomic, fragmented, underprivileged, and irrational deviants. Nor was the Smelserian model (structural strain/generalized belief/short circuiting) adequate to explain the timing, cognitive character, conduct, or goals of movement actors. The movements of the sixties and seventies were not responses to economic crises or breakdown. They involved concrete goals, clearly articulated general values and interests, and rational calculations of strategies. Clearly, a new theoretical approach to the analysis of social movements was needed. In the United States the theoretical response involved the emergence of the “resource-mobilization” paradigm; in Western Europe the “identity-oriented” paradigm became the dominant approach.

Despite crucial differences (...), both paradigms assume that social movements involve contestation between organized groups with autonomous associations and sophisticated forms of communication (networks, publics). Both argue that conflictual collective action is normal, and that participants are usually rational, well-integrated members of organizations. In short, collective action involves forms of association specific to the context of a modern pluralistic civil society” (Cohen, 1985: 673).

1.2. Ikuspegi garaikideak. Baliabideen Mobilizazioaren Teoria

“All versions of the resource-mobilization approach analyze collective action in terms of the logic of strategic interaction and cost-benefit calculations. In this respect, they all operate with a “Clausewitzian” understanding of politics” (Cohen, 1985: 675).

Orain arte ikusi den bezala, gizarte mugimenduei buruzko ohiko ikuspegiak (alegia, jokabide kolektiboaren ikuspegiak, masa gizartearen ikuspegiak eta gabezia erlatiboaren ikuspegiak) gizarte eraldaketa bizkorrek eragindako egiturazko tentsioak hartu zituzten abiapuntu komun gisa. Modernizazioak ekarritako tentsio horiek, arrazoibide klasikoaren arabera, gizabanakoaren oreka psikologikoa hausten dute eta anomia, alienazioa eta gabezia sentimenduak sortzen dituzte haren baitan. Horrela, hipotesi espezifikoak aldatu egiten diren arren, ikuspegi horiek argi azaltzen dute gizakiek mugimenduetan daukaten parte-hartzea alienazio eta gabezia sentimenduen emaitza izaten dela. Ondorioz, ezohiko edo noizbehinkako partaidetza sortzen da gehien jota, alegia, aldi bateko nahigabea adierazten duen partaidetza. Egintza instituzionalizatuen aldean, gizarte mugimenduen barruan burutzen diren egintzek partaideen irrazionaltasuna daukate ezaugarri nagusi modura. Horixe da ikuspegi klasikoan gailendu den interpretazioa.

Halaz ere, XX. mendeko 60ko hamarraldian agertu ziren gizarte mugimenduek eta haiek sorrarazi zituzten ikerketek aldatu egin zuten erabat ikuskera hori. Une horretatik aurrera, hain zuzen ere, zalantzatan jarri zen ikuspegi klasikoaren interpretazioa. Besteak beste, mugimenduen egintzen eta egintza instituzionalizatuen artean dagoen jarraipena nabarmendu zen. Baliabideen Teoriaren Paradigmak ekarpen handiak egin ditu arlo horretan. Alde batetik, paradigma horretan mugimenduen aktoreen razionaltasuna onartu da eta, horrekin batera, mugimenduek beraien jardunean jasaten dituzten arazo estrategikoen garrantzia ere azpimarratu da.

“[La teoría de la Movilización de Recursos] pone un especial énfasis en las continuidades entre el movimiento y las actuaciones institucionales, en la racionalidad de los actores de los movimientos, en los problemas estratégicos que afrontan y en el papel de los movimientos como agentes de cambio social. Más concretamente (...): (a) las actuaciones de los movimientos son respuestas racionales de adaptación a los costos y beneficios de diversas líneas de acción; (b) los objetivos básicos de los movimientos se definen por conflictos de

intereses que se construyen como relaciones de poder institucionalizadas; (c) los agravios que dichos conflictos generan son suficientemente ubicuos como para que la formación y la movilización dependa de cambios en los recursos, en la organización del grupo y en las oportunidades para la acción colectiva; (d) la organización formalmente estructurada y centralizada de los movimientos es más típica de los movimientos sociales modernos, y resulta más eficaz que las estructuras descentralizadas e informales de cara a la movilización de recursos y al incremento continuado de los desafíos; (e) el éxito de los movimientos está determinado de forma importante por factores estratégicos y por los procesos políticos en los que éstos tienen lugar” (Jenkins, 1994: 7).

Beraz, Baliabideen Mobilizazioaren Teoriak bide horiek urratu ditu⁷. Baita arrakastaz urratu ere. Bada, mende hasieran nagusi izan ziren ereduak ordezko paradigmaztat agertzen da azken urteotan teoria hori. Baliabideen Mobilizazioaren teorizatzaileek proposaturiko azterketan hiru faktoretan jartzen da arreta, alegia, mugimenduen baliabideetan, antolaketan eta aukera politikoetan, nahiz eta ez den guztiz baztertzen deskontentuaren ohiko hipotesia –alegia, deskontentuak mobilizazioaren pizgarri gisa daukan eragina–. Orientazio berri horrek alde nabarmenak dauzka ikuspegi klasikoaren ondoan. Izan ere, interpretazio klasikoetan, egiturazko tentsioak, sinesteak eta gabeziak faktore erabakigarriak ziren gizarteko zenbait talderen nahigabeak egintza kolektibo bilakatzerakoan. Aldiz, Baliabideen Mobilizazioaren Teoriaren barruan, motibazio ideologikoak, egiturazko tentsioak eta gabeziak gizarte orotan agertzen diren faktoretzat jotzen dira. Horrela, nonahi egonik, ez dira berez elementu erabakigarri modura aintzat hartzen. Aitzitik, gizartean eskuragarri diren baliabideek garrantzi handia hartzen dute azalpenean, egintza kolektiboaren sorrera eta garapena baldintzatzen dutelakoan. Ikusker horren arabera, baliabide berrien erdiespenari esker mobiliza litezke bidegabekeria egoera baten biktima taldeak; hitz batean, baliabideen arabera eskura lezaketetik politikoki jarduteko gaitasuna une jakin batean injustiziaren mende sentitzen direnek.

Baliabideen Mobilizazioaren teorizatzaileak bat datoz egintza kolektiboaren azterketan erakundeari ematen zaion garrantzian. Ildo horretatik, Mobilizazioaren ereduaren interesa gizabanakoaren azterketatik erakundearen azterketara aldatu da. Izan ere, paradigmaren kezka nagusia ez da jakitea zergatik parte hartzen duten gizakiek

egintza kolektiboetan. Horren ordez, gizarte mugimenduaren erakundeek helburuak lortzeko eskuragarri dauzkaten baliabideak nola erabiltzen dituzten aztertzen da. Alberto Meluccik dioen bezala, Baliabideen Mobilizazioaren Teoria gizarte mugimenduen “nolakotasunean” oinarritzen da, teoria horrek mobilizazioan eta egintzarako baliabideen eskuratzeko prozesuan arreta jartzen baitu. Baina, mobilizazioaren nolakotasuna soilik azpimarratzean, mobilizazioaren zergatiak ahazten ditu aipatu ereduak. Ondorioz, mugimenduaren egintza datu huts bilakatzen da ikuspegi horretan, ez baitira aintzat hartzen egintzaren esanahia eta orientazioa (Melucci, 1985: 792). Hain zuzen ere, sakoneko esanahiak saihestu ondoren egintza kolektiboan jartzen da indar guztia. Bestalde, erakunde jarritako gehiegizko arretak ere egintza kolektiboan gertatzen diren prozesu kulturalen ahanztura dakar, autore batzuen ustez (Fillieule eta Péchu, 1993: 88). Halatan, Baliabideen Mobilizazioaren teoria gizarte mugimenduei buruzko ikusmolde teknokratikoa eta funtzionala dela dio J. Casquettek (Casquette, 1998: 63).

Eredu amerikarrak ikuspegi klasikoaren aldean agertzen duen beste desberdintasun nabarmen bat egintza kolektiboa testuinguru politiko konbentzionalan ulertzeko eta kokatzeko modua da. Aurreko azterketek masen egintza kolektiboa jokabide irrazionaltzat jotzen zuten. Zehazkiago esateko, ohiko jokabide politiko eta soziale-tatik at kokatzen zuten hura. Zenbaitetan, jokabide desbideratuaren kategorietan ere sartzen zen egintza kolektiboa. Aldiz, Baliabideen Mobilizazioaren teorizatzaileen ustean, mugimenduak politika konbentzionalaren jarraipena besterik ez dira, nahiz eta beste bitarteko batzuekin gauzatzen diren. Ildo horretatik, interes gatazka askoren eroaletzat jo daitezke gizarte mugimenduak, interes taldeak eta alderdi politikoak bezalaxe. Horiek horrela, maizenetan gizarte mugimenduak gainerako aktore politikoekin harremanetan diharduten ohiko aktore modura hautematen dira, sistema politikoan ondo integraturik.

Bistakoa denez, teoriari izena ematen dioten oinarritzko bi kontzeptuak mobilizazioa eta baliabideak dira. Biak zeharo argigarriak ditugu. Lehenengo kontzeptuari dagokionez, Tillyren ustez, mobilizazio prozesuaren bitartez gizabanakoen multzo pasiboa gizabanako parte-hartzaile izatera igaroten da bizitza publikoan (Tilly, 1978: 69). Bestalde, Jenkinsen hitzetan, mugimenduaren mobilizazioa egintza kolektiborako baliabideen kontrola bermatzen duen prozesua izango litzateke:

“La movilización es el proceso mediante el cual un grupo se asegura el control colectivo sobre los recursos necesarios para la acción colectiva. Las cuestiones principales que se plantean son, según esto, el control de los recursos previo a los esfuerzos de movilización por parte del grupo, el proceso mediante el cual el grupo selecciona los recursos y los dirige hacia el objetivo de cambio social, y el nivel de contribución por parte de las personas ajenas al grupo en lo referente al incremento del abanico de recursos disponible” (Jenkins, 1994: 14).

Mugimenduen baliabideei dagokienez, bitarteko materialez gain –dirua, egoitzak, eta abar– Beranduko Modernitatean garrantzi handia hartzen dute antolakuntza gaitasunak, ezagutza teknikoak eta giza baliabideek. Oro har, ikuspegi horretan uste da mugimenduaren esku- ra dauden baliabideek mugimenduaren beraren sorrera eta bideraga- rritasuna baldintzatzen dutela. Joera gisa, gure aroko gizarteetan klase ertain dirudunek eskaintzen dizkiete mugimenduei baliabiderik ga- rrantzitsuenak. Beraien egoera ekonomiko erosoak eta astia bitarteko izateak mugimenduetatik hurbil jartzen ditu klase ertainak talde sozial gisa. Halatan, gizarte sektore horietatik oso baliabide baliotsuak jasotzen dituzte mugimenduek: dirua, aktibisten ardura eta atxiki- mendua, eta ezagutza, besteak beste. Baliabide horiek guztiek ahal- bidetzen dute mugimenduek antolakuntza nahikoa izan dezaten beraien helburuen aldeko jardunari ekiteko. Azkenik, ez da ahaztu behar baliabideen mobilizazioa mugimenduaren protesta erraztu edo zaildu egiten duen testuinguu politiko batean gertatzen dela beti. Hori dela eta, baliabideen mobilizazioaren ikuspegitik, egintza kolekti- boaren sorrera azaltzean aintzat hartzen dira lehenik, gizarte taldeek eskuragarri dauzkaten baliabideak, bigarrenik, egintza politikoari begira antolatzeke daukaten gaitasuna eta, hirugarrenik, mugimenduarentzat lagungarria den aukera politikoaren egitura.

Hortaz, hirugarren faktore hori ere erabakigarria da Baliabideen Mobilizazioaren Teoria ulertzeko, gizarte mugimenduak ohiko aktore politikotzat jotzen baitira sistema politikoaren barruan. Halatan, testuinguru politikoan nola txertatzen diren eta beste aktore poli- tikoekin zer nolako harremanak dituzten aztertu ohi da paradigma horretan. Izan ere, mugimenduen arrakasta ez dago soilik beraien ba- liabideen, antolaketaren eta erabaki estrategikoen mende. Aitzitik, sis- tema politikoan zabaltzen diren aukerek mugimenduaren ibilbidea baldintzatzen dute. Ildo horretatik, elite politikoeekin, alderdiekin edo

interes taldeekin dauzkaten koalizio/oposizio harremanak funtsezkoak izan daitezke mugimenduen helburuak erdiesteko bidean. Ez dira garrantzi gutxiagokoak sistema politikoaren egitura instituzionalak mugimenduen partaidetzarako eta eraginerako eskaintzen dituen zirriki-tuak. Testuinguru horretan sortu da “Aukera Politikoaren Egitura” deritzon kontzeptua, hain zuzen ere, mugimenduarekin elkarrekintzan dagoen esparru politikoak mugimenduari eskainitako aukerak lantzen dituen azterketa ildo⁸.

1.3. Ikuspegi garaikideak. Gizarte Mugimendu Berrien Teoria

“Le lieu central des rapports et des conflits sociaux s’est déplacé du champ du travail vers le champ plus large de la culture” (Touraine, 1982: 19).

“Los conflictos se desplazan del sistema económico-industrial hacia el ámbito cultural” (Melucci, 1994a: 128).

60ko eta 70eko hamarraldietan planteamendu klasikoei Europan emandako erantzunak amerikar eredutik aldentzen diren bideak urratu zituen. Ikusi den bezala, Baliabideen Mobilizazioaren Teoriaren arabera gizarte mugimenduen bizitza hiru ardatzen inguruan azaldu behar zen, hots, egintza kolektiborako sortutako baliabideak, egintza kolektiborako antolaketa ereduak eta haren aukera politikoak. Gizarte Mugimendu Berrien europar ikuskerak, ordea, gizarte kapitalista garatuetan gertaturiko egiturazko aldaketetan oinarritzen du egintza kolektiboaren molde berrien sorrera.

Badago bigarren desberdintasun bat bi paradigmen artean. Amerikar ereduak gizarte mugimendu guztiak aztertzen ditu, inolako be-reizketa historikorik egin gabe mugimenduaren kontzeptua aplikatzean. Aldiz, Gizarte Mugimendu Berrien ereduak mugimendu mota espezifiko bat hartzen du aztergaitzat: hain zuzen ere, 60ko hamarraldian Mendebaldeko gizartean agertzen diren gizarte mugimenduen esparrua. Izan ere, ikerketa eremu horretan uste da zenbait gatazka-gune, lehentasun estrategiko eta kosmoikuspegi partekatzean, mugimendu horiek konfigurazio espezifikoa osatzen dutela. Kategoría espezifiko horretan sartuko lirateke mugimendu feminista, mugimendu bakezalea eta antimilitarista, mugimendu ekologista eta antinuklearra, hainbat hiri mugimendu (auzo mugimenduak, okupak, eta abar), giza eskubideen aldeko mugimenduak eta mugimendu zibilak,

sexu gutxiengoaren eskubideen aldeko mugimenduak eta beste gutxiengo batzuen aldekoak, Hirugarren Munduaren aldeko elkartasun mugimenduak eta, zenbait autoreren ustez –Melucci eta Offe, kasu–, mugimendu etnonazionalistak ere (Casquette, 1998: 100).

Gizarte mugimendu berrien azterketan aritu diren autoreek –Touraine, Melucci, Cohen, Offe, Inglehart, Eder eta beste batzuk daude horien artean–⁹ ez dute “eskola” edo pentsamendu korronte bateratu bat osatzen, tradizio teoriko bat baino gehiagotik abiatzen baitira. Halaz ere, beraien azterketak hainbat puntutan elkartzen dira. Izan ere, gizarte mugimenduen sorreran eragiten duten eraldaketa sozioestruturalak ikertzen ahalegindu dira, alegia, mugimendu horiek agertzen dituzten baliabideetatik haratago aztertzeko saioak egin dituzte den-denek. Halatan, autore horien arabera, gizarte kapitalista garatuek modernizazio prozesuan bizi izandako eraldaketari lotuta legoke gizarte mugimendu berrien sorrera. Ikuspegi horretan, gizarte mugimendu berriak gizarte postindustrialetakoa berariazko mugimenduak izango lirateke, mugimendu burgesa XVIII eta XIX. mendeetako baldintzen ondorio izan zen modu berean eta langile mugimendua XIX eta XX. mendeetakoena izen den modu bertsuan.

Ikusirik historiako gizarte egitura bakoitzak bere mugimenduak sorrarazi dituela, gizarte mugimendu berriak kapitalismo garatuaren kontraesanen emaitza logikoa direla ondorioztatzen da Gizarte Mugimendu Berrien ikuskeran. Horrela, gizarte mugimenduen eta egintza kolektiboaren azterketa haien sortzaile den ordena sozialaren azterketa bilakatu da europar ikuspegian. Modernizazioak iraun duen arorik luzeenean –industri iraultzatik Bigarren Mundu Gerra bukatu arte, behinik behin– Mendebaldeko gizarte mugimendu nagusia langile mugimendua izan da. Baina, gatazka belikoaren ostean Ongizate Estatuak hedatu den heinean, bestelako aktore politikoak sortu dira langileriaren ondoan. Mugimendu horiek eta langile mugimendua hainbat gauzatan bereizi dira: kokapenean –lehenengoek gizarte zibilean daukate beraien tokia esparru hertsiki politikoan baino gehiago–, egintza moduetan –mugimendu berriek egintza zuzena eta berrikuntza kulturala bultzatzen dituzte– eta oinarri sozialetan –klase ertainak dira mugimendu berrien gizarte euskarri nagusia–, besteak beste.

Gizarte mugimendu berrien sorrerari buruzko egiturazko azalpenak era askotakoak izan dira. Azalpen horiek guztiak, haatik, gauza batean datoz bat: mugimenduak modernizazioak oldarka sustatu dituen indarren aurka sortu direlako ideia, modernizazioak berarekin

ekarritako makroegiturazko eraldaketei egindako erantzun defentsibo gisa agertzen baitira. Berbarako, ikuspegi horretan, gizarte mugimenduak bestelako nortasun sozialak eraikitzeko saiakerak dira, aurreko gizarteetan identitateen sortzaile nagusiak izan diren instituzioak –klase soziala, erlijioa, familia– dagoeneko desegite prozesuan murgildurik daudelako identitateen hornitzaile gisa.

Argi dago gure garai honetan eratzten diren elkarteak –eta haiei dagozkien identifikazioak– ez direla klasea eta antzeko kode sozioekonomikoen ondorio; maizenetan ez dira kode politiko eta ideologikoen ondorio ere. Izatez, ikertzaile askok nabarmendu dute gizarte garaikideen ezaugarri erabakigarri hori, alegia, aipatu ditugun ohiko nortasunen ahulezia. Dieter Ruchterrek azaldu bezala, XX. mendearen bigarren zatian Europako Mendebaldean gertaturiko zaharpen ekonomikoaren ondorioz, sektore ekonomiko tradizionalak produkzio eredu kapitalistan integratu dira, lehenagoko gune proletarioak disolbatu egin dira eta klase ertainak, berriz, hazi egin dira modu gero eta aipagarriagoan. Aldaketa horiek direla eta, “gizakiak eta beraien hurbileko testuinguru sozialak elkartzen zituzten loturak hautsi egin dira apurka-apurka, eta populazioaren gehiengoa aske da dagoeneko klasearen, erlijioaren eta familiaren ohiko lokarrietatik”. Dena den, askapen horrek ondoren ekarritako indibidualizazioak laster erakutsi ditu bere mugak: askatasun pertsonalaren hazkundearen ordeztu, dependentsia eta mendekotasun loturak agertu dira berriz ere. Lotura zaharretatik askaturiko gizakiak, Hanspeter Kriesiren esanetan, egituraz ezarritako baldintza berrien mende daude orain ere:

“They find themselves free only to choose among alternatives prestructured by large, anonymous corporate actors, and they slowly discover that they are threatened by new types of unintended consequences of the decisions made by those anonymous corporate actors. Threats to individual autonomy by corporate actors articulating systemic imperatives (the “iron cage” of Max Weber) and new, invisible risks affecting people in more or less the same way irrespective of their social position (radioactivity or AIDS, for example) have replaced the dependence on traditional bonds and the deprivation stemming from inequality of resource distribution” (Kriesi, 1988: 356).

Modernizaziotik eratorritako arrisku horien ondorioz –Habermasen hitzetan “sistemaren logikak bizitza munduan eragindako kolonizazioaren” ondorioz– sortzen da gizarte mugimendu berrien batasun

negatiboa. Horregatik erutzen dira mugimenduak defentsa-erantzun modura, botereguneek gero eta bitzta esparru zabalagoak berenganatu dituztelako gizakien eta gizarte taldeen autonomiaren eta askatasunaren kaltetan.

“En la actualidad, son objeto de control social y de manipulación unas dimensiones de la vida que eran tradicionalmente consideradas como “privadas” (el cuerpo, la sexualidad, las relaciones afectivas), o “subjetivas”, (procesos cognitivos y emocionales, motivos y deseos) e incluso “biológicas” (la estructura del cerebro, el código genético, la capacidad reproductora). Sobre estos campos detenta el poder el aparato tecnocientífico, las agencias de información y comunicación y los centros de decisión política. Y es precisamente en relación con esos aspectos de la vida donde surgen las demandas de autonomía que impulsan la acción de individuos y grupos, donde éstos plantean sus búsqueda de identidad al transformarlos en espacios reapropiados donde se autorrealizan y construyen el significado de lo que son y lo que hacen” (Melucci, 1994a: 119-120).

Horrela, paradigma horren arabera mugimenduen egintzak ez daude halabeharrez ohiko sistema politikoan emaitza zuzenak lortzera bideratuta, gatazkak ez baitira beti esparru horretan adierazten. Aitzitik, gizartearen nagusi diren kultura kodeentzako erronka gisa dihardute gaur egungo mugimenduek. Halatan, gizarte garaikideetan agertzen diren botere adierazpenek gero eta zerikusi handiagoa daukate menderatze molde berriak interpretatzeko gaitasunekin. Mugimenduen egintza bera gizartearen zabaltzen den mezu bat da; mezu horrek bestelako eredu sinbolikoak eta esanahiak ezagutarazten ditu aparatu tekno-burokratikoek ezarri nahi dituzten moldeen –eta haiek isilarazten dituzten errealitateen– aurka.

“Los movimientos funcionan ante el resto de la sociedad como una clase especial de medium cuya función principal es la de sacar a la luz lo que el sistema no dice por sí mismo, la cuota de silencio, de violencia, de arbitrariedad que siempre subyace a los códigos dominantes” (Melucci, 1994a: 145).

Bestalde, Gizarte Mugimendu Berrien ikusmoldetik, mugimenduak sor daitezten defentsa erantzunak ez ezik nortasun kolektiboak ere eraiki behar dira desagertutako identitateen ordez. Modu horretan ahalbidetzen da elkarregintza. Hain zuzen ere, auzi horretan jartzen du arreta Meluccik. Italiar autoreak abiapuntu bat hartzen du gogoeta-

gune gisa: gizarte mugimendua ez da *datum* bat, aldez aurretik ezarritako gauza bat, prozesua baizik. Are gehiago, prozesu kolektiboa da; prozesu horretan parte hartzen duten aktoreek etengabe negoziatzen dituzte egintzaren gorabehera guztiak. Horrela, prozesuan zehar aktoreen nortasun kolektiboa definitzen duten bestelako kultura kodeak eta aukera sinbolikoak sortzen dira.

Horiek horrela, Melucciren azterketa biderik egokiena da aurreko zenbait interpretazioen mugak gainditzeko. Hala nola frustrazio-eraso bikotean oinarriturikoak. Izan ere, italiarraren ikuspegiak kate-maila bat sartzen du tarteko prozesu horietan. Hori egin ezean, argi dago egintza kolektiboa ez diren ondorioak eragin ditzakeela frustrazioak –pasibotasuna, esaterako–. Ildo beretik, Melucciren planteamenduak partaidetzaren kostuen eta etekinen kalkulu hertsian oinarritutako doktrina murriztaileak gailentzen ere laguntzen du, azken horiek nortasun kolektiboak itsatsita dituen osagai emozionalak ahantzita uzten dituztelako (Melucci, 1994b: 173). Osagai horiek, jakina, zentzuz hornituta daude, hau da, ez dira irrazionalak, nahiz eta ezin diren murriztu “razionaltasun instrumentaler” edo kalkuluaren logika hutsera.

Melucciren azterketaren arabera, nortasun kolektiboaren eraikuntza prozesuak hiru urrats egiten ditu mugimenduetan. Lehenengoa baliabideen mobilizazioaren teorizatzaile amerikarrek gutxi zaindu duten arlo batean kokatzen da, sinestean arloan, hain zuzen ere. Helburuekin eta bitartekoekin zerikusia duten egitura kognitiboaren formulazioa gauzatzen da lehen urrats analitiko horretan. Hitz batean adierazita, mugimenduaren eraketan parte hartzen duten baliabide kognitiboek lotuta dago prozesuaren atal hori. Prozesuaren bigarren urratsa, berriz, harreman sozialen sarean kokatzen da: testuinguru horretan elkarrekintzan dauden aktoreen arteko harremanak sustatzen dira. Beraien artean komunikatuz, negoziatuz, elkarri eraginez eta erabakiak hartuz jarduten dute aktore horiek. Hartara, bigarren atal horrek zerikusia dauka egintza kolektiboaren harremanezko baliabideekin. Dena den, prozesuan badago, egon, hirugarren urrats bat, garrantzizkoa bera. Izan ere, kalkulu hutsezko logika hori guztia hausten duen osagaia da. Ildo horretatik, baliabide kognitiboak eta harremanezkoak sortzeaz gain, egintza kolektiboan “inbertsio emozionalak” egiten dira. Inbertsio horiei esker, egintza kolektiboan parte hartzen duten gizakiak kolektibitate jakin bateko kide bilakatzen dira (Melucci, 1995: 44-45).

Era askotako gizakiek nortasunaren definizio horretan parte hartzeko duten gaitasunaren araberakoa –hau da, elkarrekintzan parte hartzen duten baliabide kognitibo eta harremanezkoen eskuratze bereizgarrian oinarritutakoa– izango da betiere gizarte mugimenduan daukaten partaidetza eta beraien konpromisoaren indarra eta iraupea. Gizarte mugimendu berriei dagokienez, ikerketa enpiriko zenbaitek erakutsi duen bezala, klase ertain berriaren sektore nagusi batzuek –“giza kapitalaren” sektoreek– eta ikasleek, klase ertainetako emakumeek eta antzeko “marjinal aberatsek” hornitu dituzte militanteak eta aktibistak mobilizazioaren hastapenetako faseetatik. Izan ere, horietan dira aurretiko erreklutatze sareetan ondoen integraturik dauden taldeak, baita nortasun berria eskuratzeko aukera kognitibo eta harremanezko gehien daukaten taldeak ere.

“Los estudios de militancia y participación muestran que los militantes y activistas de los movimientos son siempre reclutados entre los que están altamente integrados en la estructura social, juegan un papel central en las redes a las que pertenecen y tienen a su disposición recursos cognoscitivos y relacionales sustanciales. Estos estudios también clarifican las diferencias entre los militantes y los individuos pertenecientes a grupos sociales marginales, privados o decadentes. El segundo grupo se implica en momentos avanzados, durante cortos períodos de tiempo y en los niveles de participación que tienen costes más bajos” (Melucci, 1994b: 174).

1.4. Paradigma teorikoen joera kontrajarriak

Gaur egun gizarte mugimenduen azterketan nagusi diren eredu teorikoek –alegia, Baliabideen Mobilizazioaren Teoriak eta Gizarte Mugimendu Berrien Teoriak– bi muturreko oposizio modura aurkeztu dute egintza kolektiboaren ulermena, ia ezinbestean aurkeztu ere: politika *versus* kultura, estrategia *versus* nortasuna, interesen gatazka *versus* balioen gatazka... Horrela, gizarte mugimendua estrategia gisara ulertzen duten ikuspegiak, populazioaren sektore baten jarduerara eta mobilizazioa aztertzen dute. Labur esanda, mugimenduaren erakundean jartzen dute arreta. Alta, ikuspegi horiek ez dira arduratzen erakundeen jatorriaz edo banaketatik kolektibora egin beharreko jauziaz. Gizarte mugimendua nortasun modura ulertzen duten ikuspegiak, ordea, mobilizazioaren zergatia aztertzen dute bereziki. Hartara, mugimenduaren sorreraren egiturazko baldintzapenak

agertzen dira gogoeta horretan eta –ia inoiz ere– ez mobilizazio prozesuaren nondik norakoak.

Zenbait autorek nabarmendu dute badaudela, batetik, botereari buruzko orientazioa daukaten mugimenduak eta, bestetik, orientazio kulturala daukatenak. Ildo horretatik, Ruchtek, esaterako, lehen ereduaren barruan sailkatzen ditu mugimendu ekologistak eta bakezaleak eta bigarrenean kokatzen du, aldiz, mugimendu feminista (Rucht, 1988; 1992)¹⁰. Dena den, gaur egun aztertzaile gehienek onartzen dute, azken buruan, mugimendu orok nahasten dituela bere barnean boterera bultzatzen duen logika instrumentala eta nortasunaren eraikuntzara bultzatzen duen logika adierazkorra (Revilla, 1994: 200).

Idea bateratzaile hori asko zabaldu da gizarte mugimenduei buruzko literaturan 1985ean Jean Cohenek *Strategy or Identity* artikulua argitaratu zuenetik. Izan ere, bi paradigmak ezaugarritzen dituzten dikotomiak saihestu nahian, amerikar eta europar ereduak funtsean bateragarriak direla argudiatzen saiatu zen Cohen. Bere ustetan, enfasi arazo bat besterik ez dago bien artean. Horrela, Cohenen arabera, amerikar ikuspegiak mugimenduen estrategien eta alderdi instrumentaltan sorreran jartzen du arreta, hots, mugimenduen erakundeek helburuak lortzeko dauzkaten moduak aztertzen ditu bereziki; europar ikuspegia, aldiz, nortasunaren eraketaz arduratzen da, hau da, aintzat hartzen ditu batik bat nola sortzen dituzten mugimenduek nortasun historiko berriak egungo gizarteetan. Desberdintasunak desberdintasun, Habermasen kontzeptuak erabiliz, Cohenek sintesi ikuspegi bat proposatu zuen, mugimenduak aldi berean instrumentalak eta komunikatzaileak zirela iradokiz, alegia, baliabideen mobilizatzaileak eta baliabideen sortzaileak¹¹. Orduetik aurrera, gero eta gehiago izan dira ezinezkotzat jo dutenak egintza instrumentalaren eta egintza adierazkorren arteko banaketa gizarte mugimenduen azterketaren eremuan. Lehenengo egintza motak mugimenduaren interesen defentsa ahalbidetuko duten baliabideen lorpena dauka helburutzat. Bigarren egintza mota talde barruan burutzen den identifikazio prozesuari lotuta dago. Bata eta bestea elkarloturik agertuko lirakeke edozein gizarte mugimenduren jardunean.

Bi ereduaren arteko zubia eraikitzeko beste ahalegin bat Klandermans, Kriesi eta Tarrowen jorraketa batean aurkitzen dugu (Klandermans, Kriesi, Tarrow, 1988). Lan horren funtsa konparazio azterketan datza. Bertan aitortzen da bai europar ikuspegiak bai amerikarrak aurreritziak dauzkatela gizarte mugimenduei dagokienez. Klander-

mansen eta Tarrowen esanetan, mugimenduen parte-hartzaileen erreklutamendua aztertzen dute amerikarrek, hau da, baliabideen mobilizazioa; bestalde, arazo sozialak nola bilakatzen diren mugimendu ikertu dute europarrek. Horregatik, mobilizazioaren potentzialak identifikatzen saiatzen dira Atlantikoaren alde honetan. Horiek horrela, eremu komuna bilatzeko saiakera egin dute autoreek bi ikuspegien sintesia burutzeko asmoarekin. Bide horretan, Klandermansek eta Tarrowek egindako proposamenak baliabideen mobilizazioa eta aukera politikoaren egitura bildu gura izan ditu, azken hori ezaguna baita europarren artean ere (Klandermans, Tarrow 1988a) (Kriesi, 1988). Amerikar ereduaren mikroikuspegiak eta europar ereduaren muturreko makroikuspegiak sailhestu nahian, esparru ertaineko azterketa planteatzen dute; azterketa horretan mobilizazioa bilakatzen da bi eskolen interesak bil dezakeen gune komuna. Halatan, Klandermansek eta Tarrowek “adostasunaren mobilizazioa”¹² deritzoten lan eremua sortzen dute bi ikuspegienezko bilgune izan dadin: hain zuzen ere, mugimenduek parte-hartzaile izan litezkeenengan eragiteko daukaten modua laburbiltzen baita kontzeptu horretan. Horrela, hasierako bateraezintasuna gaingitu asmoz, tamaina ertaineko teoria mertoniarra eraikitzen dute ikuspegi bateko eta besteko elementuak jaso ondoren.

Batzuen ahalegina ikuspegi teknokratikoa eta ikuspegi kulturala bateragarri egitea izan bada ere, beste batzuen ustez, bide horretan egindako urratsak antzuak izango dira halabeharrez. Iritzi horretakoak dira Eyerman eta Jamison (Eyerman eta Jamison, 1991). Izan ere, euren ustetan, gizarte mugimenduei buruzko azterketak testuinguru intelektualetan eta kultura politiko jakin batzuetan sustraiturik daude eta ezin dira haietatik kanpo ulertu. Zehazkiago esanda, faktore historiko eta kulturelekin eragin handia izan dute bai gizarte mugimenduek hartu duten moldeetan bai haiek aztertzeko sorturiko eredu intelektualetan ere. Hartara, testuinguruko faktore horien eraginek ezinezkoa egiten dute mugimenduen esperientzia desberdinak modu berean bizi eta ulertu ahal izatea gizarte eta kultura guztietan. Eyerman eta Jamisonen ustez, aintzat hartu behar da berezkotasun hori azterketa teorikoei dagokienez ere, bi paradigmetan nagusi diren askotariko ikuspegi, azalpen estrategia eta metodologiak ongi ulertu ahal izateko eta, ondorioz, euren arteko bateraezintasuna onartzeko¹³. Iritzi bera agertu dute beste autore batzuek ere. Halatan, Casquettek adibidez, uste du bi paradigmak batzearen aldeko saio intelektualek porrota besterik ezin

dutela ekarri, hainbat kultura eta tradizio politikori lotuta egotean eredu bakoitzean atzematen diren gatazka motak bateraezinak dire-lako. Ildo horretatik, mugimenduak interesen eroale modura ulertzen ditu Baliabideen Mobilizazioaren Teoriak eta europar ikuspegiaren barruan, berriz, gizarte garatuen sakoneko balio markoari ezarri dioten erronka hartzen dute abiapuntu mugimenduek.

“A nuestro juicio, estos ensayos sintetizadores están abocados al fracaso, pues juzgamos improbable que una misma teoría, con las mismas herramientas analíticas y con las mismas premisas (p. ej. acerca de por qué las sociedades generan los movimientos sociales o sobre su significado último), se pueda aplicar indistintamente en los contextos europeo y americano. A continuación, nos fijaremos en la que, a nuestro juicio, es la principal razón que dificulta la síntesis entre los enfoques “americano” y “europeo”. Dicha razón se resume del siguiente modo: la naturaleza del conflicto que tiene a los movimientos sociales como portadores es radicalmente distinta en ambos modelos; mientras que la TMR entiende los movimientos sociales como agentes envueltos en conflictos de interés o distributivos, el enfoque de los NMS prefiere interpretar los movimientos sociales bien como actores orientados a intervenir en el cambio social en un sentido emancipatorio que cuestiona radicalmente los fundamentos del sistema occidental, bien como actores en busca de un reconocimiento de su identidad distintiva con respecto a la sociedad más amplia, aspecto este último que es fuente de conflictos en sociedades, las occidentales, crecientemente multiculturales. La primera y más importante enseñanza de la sociología del conocimiento es que toda teoría, con independencia de su objeto de reflexión, emerge en coyunturas históricas determinadas y puede, por consiguiente, ser interpretada como un esfuerzo de racionalización tanto de las contradicciones existentes en esos contextos históricos como de las praxis correspondientes. La TMR y el enfoque de los NMS no son una excepción a esta regla sociológica” (Casquette, 1998: 144).

Hortaz, Ameriketako Estatu Batuetako merkatu politikoan berezkoa den interes gatazka, batetik, eta European kultura aldetara orientaturik dagoen balio gatazka, bestetik, horiexek dira eredu teoriko bakoitzak ardatzat hartu dituen interes guneak. Guneok hainbat marko analitikotan garatu dira, eta ia elkartezin bihurtu dituzte ikuspegi politikoa eta kulturala azterketa teorikoan. Nola gainditu binomio baztertzaila hori?

2. Gizarte mugimenduen jardun sinbolikoa ulertzeko tresna analitikoaren bila

Ezin dugu ezkutatu lan honetan nagusitzen diren azterketa interesguneak gizarte mugimenduen dimentsio kognitibo-kulturallean biltzen direla, inolako zalantzarik gabe. Halatan, hemendik aurrera dugun helburua gizarte mugimenduen barruan kulturgileek sortzen dituzten kultura kodeen eta ezagutzen garrantzia nabarmentzea izango da. Aldi berean, baina, ez ditugu erabat alboratuta utzi nahi, azterketa askotan gertatu ohi den bezala, kulturak gizarteko egiturazko esparruekin –besteak beste esparru politikoarekin– ezinbestean dauzkan harreman estuak. Ildo horretatik, *Frame Analysis* delakoa jorratuko da batik bat ondoko orrialdeetan. Uste dugu *frame analysis* deritzonak, mugimenduen alderdi kulturalak azpimarratzen dituen arren, kultura esparrua gizarteko egitura politikoekin elkarrekintzan jartzeko aukerak ematen dituela¹⁴. Ildo horretan, aipatu ikuspegiak mugimenduaren proiektuaren eduki ideologikoetan jartzen du arreta, eta zehazki azaltzen du mugimenduak nola eraikitzen dituen errealitatearen eza-gutza- eta interpretazio-markoak diskurtsiboki¹⁵, bai barnera begira bai kanpora begira, testuinguruarekin harremanetan.

Ildo horretatik, “interpretazio markoen analisiaren” arabera mugimenduak errealitatearen definizio alternatiboak egiten ahalegintzen dira euren bilakaeran. Hori egitean, baina, egitura politikoaren aukera objektiboarekin egiten dute topo¹⁶, eta haren arabera jardutera behartuta egoten dira. Litekeena da mugimenduaren dinamika enmarkarzaileak eta aukera politikoaren egiturak elkarri eraginez jardutea agertoki sozialean: batetik, aukera politikoak hertsapenak jartzen dizkio mugimenduaren estrategia diskurtsiboari, hau da, errealitatearen definizio alternatiboak ezartzeko daukan gaitasun sozialari; bestetik, mugimenduaren estrategiak ere eraginen bat izan dezake aukera politikoaren egituran – mugimenduak gizartean aliatuak sortzen dituztean, eta abar–. Diskurtsuoen sortzaile pribilegiatuak –kulturgileek– baliabide sinboliko eraginkorrak erabiltzen dituzte borroka sinboliko horietan, hala mugimenduen nola beste eragile sozial batzuen mesedetan. Lehenago langile mugimenduetan atzeman zuten bezalaxe, Beranduko Modernitateko kulturgileek ere gune egokia aurkitu dute gizarte mugimendu berrietan euren eginkizun intelektuala betetzeko. Hori egitean, ohiko tradizio intelektualak berriro definitzeko aukera zabaldu dute gizarte mugimenduen agertoki publikoan.

2.1. Interpretazio markoen azterketa. Aurrekariak

Gizarte Mugimendu Berrien ikusmoldea Europan garatu da batik bat. Halaz ere, Estatu Batuetan egindako hainbat ekarpen teoriko garrantzitsuak izan dira ildoak osatzeko. Arestian esan den moduan, egiturazko kausalitatearekin batera ideiek eta kultura prozesuek egungo mugimenduen eraketan izan duten eragina azpimarratu du gizarte mugimenduen europar paradigmatik. Bigarren alderdi horretan sakondu nahi izan dute, hain zuzen ere, Estatu Batuetan landu diren “egintza kolektiboaren erreferentzi markoen” azterketek. Izan ere, neurri batean, gaur egun gizarte mugimenduen analisisan diharduten ildo teoriko nagusi guztiek onartu dute dagoeneko egintza kolektiboaren oinarrian dauden funts kulturalen eta lanketa ideologikoaren garrantzia eta ezinbestekotasuna¹⁷.

Gizarte mugimenduen azterketari dagokionez, “marko” kontzeptuaren lehen aipamena Gamson, Fireman eta Rytinak¹⁸ egin zuten, egintza kolektiboa suspertzen duten “bidegabekeriaren edo injustiziaren markoak” hitz egitean. Geroztik, laurogei eta laurogeita hamargarren hamarraldietan zehar, Snow, Benford eta Huntetek modu sistematikoan jorratu dute ideia, eta eragin handia lortu dute mugimenduen azterketa esparruan. Oro har, denek hartzen dute Erving Goffmanen “frame” kontzeptua abiapuntu gisa (Goffman, 1986).

Shütz, Garfinkel, Austin eta Wittgensteinen lanetan oinarrituz, Goffmanek errealitatearen gizarte eraikuntzan esku hartzen duten oinarritzko ariketak aztertzen ditu markoaren kontzeptuaren bitartez. Zehazki esanda, gizabanakoa hartzen du aztergai, banakoen esperientziaren eraketa azaldu nahi baitu gizarte eraikuntza, eta ez gizartearen antolakuntza. Haren ustez, inguruan burutzen diren gertakariak bereizteko eta zentzuz hornitzeko, gizakiek interpretazio eskemak erabili behar dituzte. Horiexek dira markoak Goffmanen terminologian. Marko primarioak, horrela, gertakarien pertzepzioa, identifikazioa eta sailkapena ahalbidetzen diote gizakiari.

“When the individual in our Western society recognizes a particular event, he tends whatever else he does, to imply in this response (and in effect employ) one or more frameworks or schemata of interpretation of a kind that can be called primary. I say primary because application of such a framework or perspective is seen by those who apply it as not depending on or harking back to some prior or “original interpretation”; indeed a primary framework is one

that is seen as rendering what would otherwise be a meaningless aspect of the scene into something that is meaningful. Primary frameworks vary in degree of organization. Some are neatly presentable as a system of entities, postulates, and rules; others –indeed, most others– appear to have no apparent articulated shape, providing only a lore of understanding, an approach, a perspective. Whatever the degree of organization, however, each primary framework allows its user to locate, perceive, identify, and label a seemingly infinite number of concrete occurrences defined in its terms. He is likely to be unaware of such organized features as the framework has and unable to describe the framework with any completeness if asked, yet these handicaps are no bar to his easily and fully applying it” (Goffman, 1986: 21).

Goffmanen aburuz, markoek une batean gertatzen ari dena azaltzeko balio digute, nahiz eta era askotako markoen arteko mugariak ez diren beti oso argiak izaten. Labur adierazita, markoak errealtatearen interpretazio eskemak dira. Norbaitek, toki eta une zehatz batean gertatzen dena identifikatzen duenean, egoera mota horri dagokion jokamoldea jarri ahal izaten du abian, testuinguruaren xehetasun guztiak ezagutu gabe bada ere. Hein batean, gizarte talde baten oinarritzko interpretazio eskemek edo markoek, multzoan hartuta, taldearen kulturaren muina osatzen dute. Halatan, interpretazioaren barruan kategoriak eta eskemak agertzen dira nahasirik, baita haien arteko harremanak eta indar eta eragileen multzo zehaztugabeak ere. Baina, marko guztien arteko “marko nagusia” osatzen duen kulturak berak ez du Goffmanen arreta jasotzen, inondik ere (Goffman, 1986: 27).

Izan ere, ikuspegi soziologikotik begiratuta, Goffmanen ekarpenaren ahuldade nagusia gizabanakoaren esperientzian, eta horretan soilik, jartzen duen enfasia da. Bada, ez du harremanik ezartzen marko ikusezinen eta gizakien esperientziaren makroguneen artean. Gehien jota, banakoek –iruzurgileek eta adarjotzaileek– eragiten duten markoen manipulazioa hartzen da aintzat Goffmanen adibideetan. Baina gizakien esanahi sortak kontrolatzen dituzten marko sozio-politiko zabalagoak (generoa, arraza, etnizitatea, klasea edo marko instituzionalak) zeharka baino ez dira aipatzen haren lanean. Hartara, marko nagusi horien erabilpena isiltzean, Goffmanek autonomia indibidualaren ilusioa sustatzen du (Rivas, 1998; 186; 1999: 243). Bestalde, indarrean dauden definizioen eta marko indibidualen azterketa dauka

helburu Goffmanek; ez du baliatzen markoen sorreraren eta aldatetaren ulermena bideratuko lukeen ikuspegi historikoa. Hortaz, ondorio politiko kontserbadoreak dauzka haren ikusmoldeak.

Halaz ere, Goffmanek egindako ekarpena gizarte mugimenduen analisiari aplikatutako zenbait teoria garaikideren abiaburu nagusia izan da. Jakina, dagoeneko teoria horiek atzean utzi dute esperientzia indibidualen gune zehatza. Horren orde, ikuspegi berriek markoen eraikuntza kolektiboari erreparatu diote, alegia, gizarte mugimenduen marko ihardukitzailen eraketari. Horrenbestez, gaur egungo egintza kolektiboari esleitu zaion jardueretako bat gaiak eta gertakariak marko alternatiboan barnean kokatzea izan da. Jardun horrek ahalbidetzen du, hain zuzen ere, errealitatearen interpretazio berrien sorrera mugimenduen barruan.

2.2. Interpretazio markoen analisia gizarte mugimenduetan: egoeraren definizio alternatiboan eraikuntza

Frame Analysis delakoak¹⁹ interakzionismo sinbolikoan dauka bere jatorria. Gizakien egintza kolektiboa abiaburu hartuz, haien parte-hartzea eragiten duten faktore kognitiboan azterketa egiten du. Ikusmolde teoriko horrek zubi epistemologikoak eraiki nahi izan ditu gizarte mugimenduen analisisan bereizi diren bi joera nagusien artean. Alde batetik, amerikar ikuspegiaren estrategiazko ildo politiko murriztailea kultura eta identitate elementuez osatu gura izan ditu, eta, bestetik, makroegiturazko europar eredia ideien eraikuntzari buruzko mikroprozesuez hornitzeko ahalegina egin du (Snow, Benford, 1988: 197-198; 1992: 134).

Mugimenduek mobilizazioaren aldeko sinestean eta ideien eroale eta igorle funtzioa betetzen dute, ezbairik gabe. Baina, horrez gain, gizakientzako –parte-hartzaile, arerio nahiz behatzaileentzako– esanahiaren ekoizpenean modu aktiboan diharduten eragileak ere badira mugimenduak. Ekoizpen lan hori dela medio, mugimenduek sortu ez ezik moldatu eta egituratu ere egiten dituzte sarritan gizartean dauden esanahiak eta diskurtsoak. Prozesu hori kontzeptualki adierazteko “enmarkatu” aditza (*to frame*) darabilte Snowek eta Benfordek (Snow, Benford, 1988: 198; 1992: 136)²⁰, gizarte mugimenduek horixe bera egiten baitute: “enmarkatu” edo esanahia erantsi, alegia, garrantzizko gertaerak eta egoerak interpretatu eta diskurtso-testuin-

guru zehatzean kokatu, jarraitzaileak mobilizatzeko, gizartean euren aldeko laguntza edo jarrera ona lortzeko edota arerioak gelditzeko asmoz. Gertaerak era batean edo bestean enmarkatzean, gizakien –hau da, jarraitzaile izan daitezkeenen– orientazio indibidualak eta mugimenduaren interpretazioak elkartzeko helburua bilatzen da, interes, balio et sineste indibidualak mugimenduaren ideologia eta xedeekin bat etorri daitezen (*frame alignment*). Horrela, nortasun indibidualak eta kolektiboak sintonia berean jartzera zuzendurik daude mugimenduen diskurtso-estrategiak.

Markoen analisiak gizarte errealitatearen sorkuntza ahalmenak utzi nahi ditu agerian. Izan ere, gizartean burutzen diren lehia sinbolikoetan, gizarte errealitateari buruzko denetariko enmarkatze eta interpretazioak sortzen dira era askotako eragileen baitatik. Gizarte mugimenduak prozesu kognitibo –eta politiko– horretan kokatzen dira, modu oso kontziente eta aktiboan kokatu ere. Hortaz, gizarte mugimenduak gizarte errealitateari buruzko definizioen inguruan hezuramaitzen diren borroka sinbolikoetan murgildurik agertzen zaizkigu bete-betean.

“A cultural-level analysis tells us that our political world is framed, that reported events are preorganized and do not come to us in raw form. But we are active processors and however encoded our received reality, we may decode it in different ways. The very vulnerability of the framing process makes it a locus of potential struggle, not a leaden reality to which we all inevitably must yield. On most political issues, there are competing interpretations, ways of framing information and facts in alternative ways. Indeed, one can view social movements actors as engaged in symbolic contest over which meaning will prevail. Particular frames ebb and flow in prominence and require constant updating to accommodate new events” (Gamson, 1992: 67).

Horrenbestez, honako hau esan daiteke “erreferenzi markoaren” kontzeptuaz: “kanpoko mundua” sinplifikatzen eta laburtzen duen interpretazio eskema da, objektuak, egoerak, gertaerak eta gizakien orainaldiko zein iraganeko ingurunean gertatutako esperientziak eta egintzak nabarmentzen eta kodifikatzen dituen eskema, hain zuzen ere (Snow, Benford, 1992: 137; Hunt, Benford, Snow, 1994: 228). Gizarte mugimenduen esparruan, egintza kolektiboaren markoak errealitatearen zenbait alderdi azpimarratzeko tresna ez ezik esanahien esleipenerako oinarri ere badira. Modu horretan ulertuta, egintza

kolektiboaren erreferentzi markoek problema modura interpretatzen den egoera berezi batean jartzen dute arreta, zenbait pertsona, erakunde edo gertakariri leporatzen diote arazo horren erantzukizuna eta proposamen alternatiboak aurkezten dituzte, hots, mugimenduaren jarraitzaileek egin beharrekoa zehazten dute, gauzak alda daitezzen. Eginkizun horiek kontuan hartuta, mugimenduen lanketa sinbolikoak hiru “markoren” osaketa dakar berarekin: diagnostiko markoa, pronostiko markoa eta egintzaren markoa, hurrenez hurren (Snow, Benford, 1988: 199-204; 1992: 136-138; Hunt, Benford, Snow, 1994: 227-230). Azken finean, errealitatearen interpretazio eskemen bitartez, arazo bat diagnostikatu, ebaluatu eta deskribatu egiten dute gizarte mugimenduek, modu zoli eta inplizituan bada ere (Maiz, 2003: 107)²¹.

Lehenengo urratsari dagokionez, mugimenduek gertakari edo egoera batzuk arazo modura identifikatzen dituztela adierazten dute diagnostiko markoek. Are gehiago, gizarte eragile jakin batzuei egozten dizkiete haien erantzukizuna. Gizarte mugimenduek sortzen dituzten interpretazioak bidegabekeriaren pertzepzioetik abiatzen direnez, lehen diagnostiko horiek injustizia markoak izan ohi dira. Horrelako irakurketak egitean, beraz, gizartean –esparru politikoan bereziki, baina baita mundu sinboliko-kulturalean ere– indarrean dagoen definizio nagusiari aurre egin behar izaten diete mugimenduek. Hartara, gizartean dagoen interpretazio hegemoniko baten zilegitasuna jartzen dute zalantzatan.

“Collective action frames are injustice frames. They face a field of combat that is already occupied by a competing legitimating frame that is established and quiescent rather than emergent and action-oriented. When truly hegemonic, the legitimating frame is taken for granted. Would-be challengers face the problem of overcoming a definition of the situation that they themselves may take as part of the natural order. It is an achievement, then, for a challenger to force the sponsors of a legitimating frame to defend its underlying assumptions. The sheer existence of a symbolic contest is evidence of the breakdown of hegemony and a major accomplishment for a challenger” (Gamson, 1992: 68).²²

Eskuarki, arazoaren edo bidegabekeriaren identifikazioari buruzko adostasuna aise lortzen bada ere, erruaren esleipenak –kausaltatearen finkatze prozesuak– askoz ere gorabehera handiagoak sortu ohi ditu. Edozelan ere, erru egozte hori garrantzizko zeregin bilakatzen

da, horren arabera “bestearen” irudikapena –aurkariaren rola– eraikitzen delako eta, hein batean, harekin elkarrekintzan mugimenduaren beraren nortasuna definitzen delako.

Pronostiko edo iragarpen markoaren arabera, arazo modura definitu den egoera zuzentzeko egitasmoa ezartzen da. Bigarren urrats horretan, irtenbideak iradokitzeaz gain, jarraitu beharreko estrategia, taktika eta mailakako helburuak asmatu behar dira. Gehienetan, auzien aurrean proposaturiko konponbideak aldez aurretik egindako kausa egoztetik ondorioztatzen dira.

Nolanahi ere, “adostasunaren mobilizazioa” bultzatzeko (Klandermans, Tarrow, 1988a: 12-13; Klandermans, 1988b; Klandermans, 1992; 1994: 187), diagnostiko eta pronostiko markoak dagoeneko ezarrita edukitzea beharrezkoa den arren, egoeraren definizioari buruzko akordioetatik ez da modu automatikoan sortzen egintza kolektiboa. Bidegabekeria modura hautemana den arazoa konpontzeko asmoarekin gizakiek egintzan murgiltzeko erabakia har dezaten, premiazko arrazoi larriak aurkitu behar dituzte mugimenduek.

Hartako, motibazio markoak –edo egintza marko deritzonak– arrazoi egokiez hornitzen du kausa baten aldeko egintza, eta egintzarako azken akuiluak edo pizgarriak eskaintzen dizkie gizarte eragileei. Diagnostiko markoek arerioei leporatutako nortasunak eta motibazioak sortzen dituzte –baita mugimenduaren aldaketa helburuei egotzitakoak ere–. Motibazio markoek, berriz, gizarte eraikuntza-prozesu nabarmenagoa pizten dute, protagonisten motiboen eta nortasunen pertzepzioa ahalbidetzen baitute. Denbora igaro ahala, gero eta nabarmenkiago partekatzen diren motibazio eta nortasun horiek egintza kolektiborako bulkada bihurtzen dira. Hortaz, gizarte mugimenduetako aktoreek gertakariak interpretatzeko eta kolektiboki jarduteko ahaleginak egiten dituzten neurrian, markoen sortze prozesuak eta nortasunaren eraikuntza prozesuak era dinamikoan eta errepikarian elkarlotuta egon ohi dira. Bada, egintza kolektiboari zentzua emateak, alde batetik, egoerak enmarkatzea eskatzen du eta, bestetik, egoera horiekin zerikusia daukaten gizaki eta taldeei nortasunak esleitzea.

2.3. Interpretazio markoak: mugimenduen nortasun iturri

“La cultura y los productos culturales son herramientas necesarias en la lucha formativa para construir una identidad colectiva,

alrededor de la cual evoluciona aquello que llamamos movimientos sociales” (Eyerman, 1998: 154).

Arestian aipatu den moduan, mugimenduen ikuspegi politikoetan egintza kolektiboaren helburu estrategiko-instrumentalen garrantzia azpimarratzen da eta ikusmolde kulturalaren testuinguruan, aldiz, nortasun kolektiboaren eraikuntza dugu egintza kolektiboaren eginkizun nagusia; eginkizun hori berez baliotsua da bigarren ikuspegiaren arabera. Nortasun kolektiboa helburua izanik, egintzan jorratzen da, ez da aldez aurretik finkatuta datorren errealitatea. Aitzitik, prozesu negoziatua izan ohi da; prozesuan zehar, egintza kolektiboan inplikaturik dagoen “gu” delakoa lantzen da. Horrela, apurka-apurka, esanahia hartzen du “gutusunak”. Ildo horretatik, gizarte mugimenduen aztertzaileek haien erreflexibitatea azpimarratzen dute, alegia, nortasunaren inguruko galdera zuzenak eta esplizituak –“nor gara gu?”– egiteko daukaten joera. Auzi horrek, jakina, zerikusia dauka Beranduko Modernitateko gizarteetan nortasunari atxikitzen zaion izaera gero eta ezegonkorragoarekin. “Gu”-aren zentzuaren eraikuntzari, hortaz, etengabeko prozesuan ekin behar zaio gure aroan.

Nortasun kolektiboaren sentimendu sendo bat, zalantzarik gabe, bitarteko garrantzitsua da egintza kolektiboaren arrakasta erdiesteko. Baina, ikuspegi estrategiko horrez gain, Meluccik eta beste autore kulturalista batzuek azpimarratu gura izan dute nortasunaren eraikuntza tresna ez ezik egintza kolektiboaren helburu dela berez. Horren kariatara, egintzaren alderdi “instrumentalean” oinarritutako ikuspegi politiko murriztailea kritikatzan dute ikusmolde kulturalan kokatzen diren autoreek. Izan ere, abiapuntu politiko konbentzional hutsek bazterrekotzak jotzen dituzte mugimenduek burututako inbertsio autoerreflexiboak (Melucci, 1989: 73-74).

Parte-hartzaileen leialtasuna eta konpromisoa elikatzen duen etengabeko nortasun kolektiboaren sorkuntza lorpen kultural garrantzitsua da berez, nahiz eta helburu politikoan eta antolakuntzazkoen erdiespenerako bitarteko modura ere jarduten duen. Halatan, mugimenduek eraikitako “gu” delakoak gizarte lehiari begira egindako ezaugarriak dauzka. Bereizgarri horiek, halaz ere, ez dira beti eta ezinbestean eduki politiko esplizituetan oinarritzen. Aitzitik, kultura ordena nagusiaren logikari desafio egiten diote sarritan. Aldaketa pertsonala eta kanpoko egintza uztartzean, egintza kolektiboak agerian uzten ditu nagusi diren kultura kodeen osagai arbitrarioak eta zabaldu egiten ditu haien ordezkio aukerak (Melucci, 1989: 23, 63).

Erreferentzi markoen sorkuntza prozesua eta nortasun kolekti-boaren eraikuntza modu estuan lotuta daude gizarte mugimenduen barnean. Are gehiago, erreferentzi markoen osaketari dagokion jarduera da nortasunen eraikuntza, –nahitakoak zein nahigabeak izan daitezke eraikitzen diren nortasun horiek–. Horrenbestez, gizakien eta taldeen arteko lotura ideologikoak ezartzeaz gain, interpretazio markoen ezarkuntza prozesuek nortasunak proposatu, sendotu eta hornitu ere egiten dituzte. Eraiki daitezkeen nortasunak, bestalde, mugimenduen parte-hartzaileei ez ezik haiekin harremanetan dauden beste kategoria sozial batzuei ere badagozkie. Horrela, gizarte mugimendu baten balio eta praktikekin bat egitean talde batzuk protagonista modura identifikatzen dira. Haiei aurre egiten dieten gizakiek eta taldeek, aldiz, gizarte mugimenduaren aurkari gisa ezagutzen dira. Azkenik, ez batzuekin ez besteekin nahasirik dauden behatzaile neutralak ere egon ohi dira. Multzo bakoitzak nortasun esparru bat osatzen du (Hunt, Benford, Snow, 1994: 221-223). Nortasun esparruak euren talde eroaleek egindako interpretazio lehiakideen inguruan eratzen dira.

Horiek horrela, mugimenduaren jarduera esparruan era askotako gizarte eragileei egiten zaien ezaugarri egoztea izan ohi da markoen osaketaren oinarritzko alderdia. Egotzitako ezaugarriak era askotakoak izaten dira: talde jakin baten kontzientziari dagozkionak edo taldearen nolakotasuna aipatzen dutenak maizenetan. Nolanahi ere, bereizgarrien esleipen horretan, kontzientzia edo ezagutza motaren bat eransten zaie mugimenduetako eragileei eta haien balioak, printzipio moralak eta estrategiak ere azpimarratzen dira. Esanahi egozte, haatik, nortasun kolektiboaren osagaia ez ezik egintza kolektiboaren ezinbesteko elementua ere izaten da. Besteak beste, esanahi esleipenak eragile kategoria batzuk identifikatzen ditu egintzaren helburu modura.

Mugimendu baten kausaren defendatzaile bihurtuko direnei esleitutako esanahi multzoek osatzen dituzte “protagonisten nortasun esparruak”. Eskuarki nortasun esparru horiek barnean hartzen dituzte mugimenduaren eta erakunde aliatuen nortasunari buruzko baieztapenak. Banakoen nortasun egozteak ere egin ohi dira, besteak beste, mugimenduaren boluntarioei buruzkoak, buruzagiei buruzkoak, jarraitzaile arruntei buruzkoak eta ospe handiko zaleei buruzkoak. Azken horien artean, gaur egun gero eta ohikoagoak dira, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, kulturgileen aipamenak ere. Baina, protagonisten nortasun esparruak mugimenduak ordezkatu nahi

dituen talde “kaltetuen” identitate esleipenak hartzen ditu bereziki barnean.

Diagnostiko, pronostiko eta egintza markoak lantzen dituzten une berean, hots, ideologia proiektuak azaleratzen dituztenean, mugimenduko eragileek euren nortasun asmoen edukia aurreratzen dute. Markoen sorkuntza prozesuan, beraz, eragileek egintza kolektiborako esparru zehatz batean kokatzen dituzte euren erakundeak eta iritziak. Hartako, taldearen barruan eta taldetik kanpo dauden arteko bereizketak finkatzen dira, norbere taldea eta besteak eremu ideologiko, geografiko eta estrategikoetan sailkatu ondoren (Melucci, 1989). Geroztik, mugimenduko kideei etengabe gogorarazten zaizkie kide ez direnengandik bereizten dituzten ezaugarriak, taldea talde gisa osatzen duten elementu bereizgarriak behin eta berriro berresteko asmoz.

Interpretazio markoak ezerezetik sortzen ez diren bezala, nortasunak ere ez dira deusetik eraikitzen. Mugimenduek lantzen dituzten errealitatearen interpretazioak iraganetik hartutako elementu kultural eta kognitiboen gainean eratu ohi dira. Azken horien berrirakurketak osatzen du, hain zuzen ere, gizarte mugimenduak proposaturiko berrikuntzaren eta aldaketaren muina. Aldi berean, errealitatea modu jakin batean irakurtzean, mugimenduko kideek ezaugarri moral, kognitibo, estrategiko edo afektibo batzuen adierazpen modura interpretatzen dituzte egintza indibidualak nahiz kolektiboak. Beste era batera adierazita, interpretazioek eta identitateek elkar elikatzen dute; mugimenduek gizartean gertu dauden material kulturalak baliatzen dituzte batzuk eta besteak lantzeko.

Mugimendu baten parte-hartzaileei eta jarraitzaileei nortasun esleipenak egiten zaizkien modu berean leporatzen zaie zenbait ezaugarri mugimenduen aurkariei ere. Mugimenduetako eragileek askotariko markoak sortzen dituzte arerioen nortasun esparruak ezartzeko. Ildo horretatik, protagonisten nortasunekin eta haiek defendatzen dituzten printzipioekin bat ez datozen gizaki, talde, balio eta praktiken identifikazioa egitea izan ohi da maiz erabilitako jardunbidea. Arestian esan bezala, erreferentzi markoen sorkuntzak gizarte arazoan erantzukizuna eta erruduntasuna zehazteko ahaleginak hartzen ditu tartean. Halatan, auzien erantzulea finkatzean mugimendu bateko eragileek euren buruaren ezaugarriak eta arerioarenak aldarrikatzen dituzte aurkaritza harreman horretan. Mugimenduek aurkarien nortasunen inguruan egiten dituzten gizarte eraikuntzak garrantzitsuak dira; eraikuntza horiek arerioen ahulguneen eta indarren neurketara

zuzentzen dute mugimenduetako eragileen azterketa. Hartara, jar-duera horiek mugimenduaren estrategia eratzen laguntzen dute.

Mugimenduaren jarraitzaileen eta arerioen identitateekin batera, behatzaile inpartzialtzat edo axolagabetzat jotzen diren gizarte taldeen nortasun esparruak osatzen dira. Multzo zabal horretan, unean uneko eta tokian tokiko ezaugarri sozialen arabera, era askotako gizarte eragileak egon daitezke kokatuta. Mugimenduaren kideko diren erakundeak, hedabideak, elite politikoak, bazterreko jarraitzaileak edo zehaztugabeko “kaleko jendea” izan ahal dira horietako batzuk. Desberdintasunak desberdintasun, mugimenduaren entzuleria osatzeko gaitasuna onartzen zaie behatzaileei, alegia, mugimenduaren jarraitzaileen mezuak jasotzeko prestasuna.

Audientzien identifikazio prozesuak bidea ematen die mugimenduetako eragileei behatzaileengan oihartzuna izan dezaketen interpretazio markoak definitzeko. Izan ere, erabaki egin beharko da mugimenduaren barnean zer nolako “froga” eta arrazoibideak erabili entzuleriaren aurrean mugimenduaren eskariak legitimatzeko eta zelan baliatu haien kultura sinboloak eskari horiek bultzatzeko. Hartara, entzuleriari egotzitako nortasunek ere eragin nabarmena daukate mugimenduaren estrategia eta taktiken lanketan.

2.4. Arazo sozialen definizioak: prozesu gatazkatsuak mugimenduaren esparruan

Zalantzarik gabe, “interpretazio markoen” ikuspegia ekarpen interesgarria izan da gizarte mugimenduen azterketaren arloan. Izan ere, *frame analysis*aren bitartez agerian geratu da egiturazko faktore objektiboez gain egoeraz egiten den definizioak mugimenduaren sorrerarako eta eraketarako daukan garrantzia –batik bat indarrean dagoen ordena sinboliko-kulturala beste era batera ulertzeko saioak egiten diren uneean–. Markoen azterketak sinesteen eta ideien ekoizpenaren fenomenoan jartzen du arreta bereziki, faktore soziopolitiko soiletan jarri ordez. Ekarpen horren ondorioz, gaur egun inork ez du eztabaidan jartzen mugimenduak ideia berrien eroale direnik ezta parte-hartzaile eta gizartekideentzat esanahi berriak sortzen dituztenik ere. Eginkizun horretan beste eragile sozial eta politiko batzuekin lehiari aritzen dira gaur egun. Ekoizpen lan hori *framing* modura kontzeptualizatu dugu.

Baina, *frame analysis* delakoaren ekarpenak handiak diren arren, hutsune nabarmenak agertzen ditu bere ohiko zenbait planteamendutan. Alde batetik, interpretazio markoen eraikuntza nabarmendu nahi izan dute Snowek eta bere lankideek interakzio prozesuen bitartez. Ildo horretatik, azpimarratu dute gizarte mugimenduek euren aliatuekin nahiz arerioekin elkarreaginean eraikitzen dituztela beraien ideiak eta errealitatearen interpretazioak, dagoeneko existitzen diren kultura materialetan oinarrituta. Alta, mugimendua erakunde edo organizazio baten baliokide egiten dutenez, haien ikusmoldean ez dituzte aintzakotzat hartzen bai egoera interpretatzeko bai mugimenduaren beraren nortasuna zehazteko mugimenduaren barnean gauzatu ohi diren borroka eta zatiketa guztiak²³.

Haatik, eskuarki gizarte mugimendu bakoitza ikusmolde eta interes anitzez osaturik egoten da. Azken horiek lankidetzat edo lehia harremanak dauzkaten erakunde askotan ordezkaturik egon daitezke. Jakina, erakundea eta mugimendua ez dira gauza bera. Mugimenduaren barnean erakunde asko egon ohi da. Hartara, interpretazio markoen ikerketak ezin ditu saihestu, orain arte egin duen bezala, mugimenduaren barruan sortzen diren planteamendu desberdinak, ezta haien arteko elkarrekintzak eta gatazkak ere.

Gai horri lotuta oinarritzko arazo bat aurkitzen dugu gizarte mugimenduen analisisan. Izan ere, azterketa ikuspegi epistemologiko egoki batetik abiatu nahi badugu, ezin dugu jada gizarte mugimendua unitate empiriko modura aztertu, esparru gisa baizik. Esparru modura definituta, mugimendu batek era askotako eragilez hornituriko unitertsoa osatzen du, ez entitate bateratua. Gizarte mugimenduari buruzko ikerketek, hizkuntza ohitura okerren ondorioz, besteak beste, gehienetan aktore bakar eta homogeen modura erakutsi digute mugimendu bakoitza²⁴. Ikuspegi hori sinplifikazio epistemologiko eta linguistikoko baten emaitza tamalgarria besterik ez da izan. Bada, mugimendu kontzeptuak, singularrean adierazitako izenaren atzean, maizenetan errealitate konplexua hartzen du barnean.

Mugimendua esparru gisa ulertzen bada, mugimenduaren barnean egiten den errealitate interpretazioen sorkuntza ezin da modu sinple batean aztertu. Gizarte errealitatearen definizioez ari garela, zehaztu egin behar da beti mugimenduko zein aktore sozialek edo zein eragilek sortu eta bultzatu duen interpretazio marko jakin bat. Izan ere, gutxitan gertatzen da mugimendu baten barnean interpretazio marko bakar bat egotea, nahiz eta aniztasunetik abiatutako bateratze

eta adostasun prozesuak ere gauzatzen diren batzuetan. (Gamson, Meyer, 1999: 402).

Nolanahi ere, mugimenduen barneko interpretazio markoen eraikuntza era askotako ikuspegiak defendatzen dituzten eragileen arteko prozesu gatazkatsuaren emaitza dela pentsatu behar dugu. Ikuspegi askoren lehiaren ondorioz, gehienetan interpretazio nagusi bat gailentzen da²⁵. Horrek ez du esan nahi, halere, beste definizioak desagertu egiten direnik. Interpretazioei itsatsita, bestalde, talde eta erakunde jakinen interesak eta egintzarako aukera estrategikoak egon ohi dira. Mugimenduaren esparruan hainbat eragilek lehiari dihardute maiz askotariko estrategiak bultzatzen, urrunduta dauden errealitate-irakurketetatik abiatzen baitira euren jardunean. Noiz edo noiz mugimendu berak estrategia bat baino gehiago erabiltzen du une berean –esaterako, parte-hartze instituzionala eta instituzioz kanpoko mobilizazioak–; baina, kasu horietan eragileen eta definizioen inguruko oinarritzko adostasuna egoten da –aldi baterako adostasun modura ulertu behar bada ere–. Azken buruan, beste edozein esparrutan bezala, mugimenduaren esparruan ere interpretazio markoei buruzko adostasun aldakorra eragile askoren artean sortutako etengabeko lehiaren bidez baino ez da zehazten.

Dena den, interpretazio marko jakin baten arrakasta ez da soil-soilik mugimenduaren esparruan erabakitzen. Gizarte mugimenduak testuinguru sozialaren barnean kokatzen dira. Zehatz esateko, mugimenduaren esparruan nagusitzen diren diskurtso enmarkatzaileak, testuinguru sozialak eta politikoak ezarritako mugarrietara makurtu behar dira²⁶. Mugarri politikoak, bereziki, mugimenduaren parte-hartzaileek plazaratu nahi dituzten arazoei buruzko aukerak zabaltzeko nahiz murrizteko gai izaten dira (McCarthy, Smith, Zald, 1999: 415). Arestian ikusi dugun moduan, “Aukera Politikorako Egitura” (*Political Opportunity Structure*) izenpean ildo teoriko ezagun batek sistema politikoei gizarte mugimenduen garapenean daukaten eragina nabarmentzen du²⁷. Baina, faktore politikoei mugimenduen ibilbidea baldintzatzen badute, kultura testuinguruak ere behin baino gehiagotan haien aukerak murrizten dituelakoan gaude. Lehenik eta behin, mugimenduek gizartearen *stock* kulturalera jotzen dute eskuarki irudi eraginkorren bila, arau haustea edo injustizia definitu ahal izateko (Zald, 1999: 377). Bada, bidegabekeriari buruzko interpretazioak kultura marko jakinaren barruan hartzen du esanahia eta ez kultura arrotzaren testuinguruan. Hartara, kultura testuinguruak ematen

dizkio edo kentzen dizkio aukerak mugimenduaren interpretazio lanari.

Horiek horrela, aukera politikoez nahiz kulturalak bidea ematen diote mugimenduen egintza sinbolikoari. Bigarrenik, gizartean indarrean dagoen ordena sinbolikoa zalantzatan jarri nahi duten heinean, aukerak baliatzeaz gain, mugimenduak aukera sortzaile izaten ahalegintzen dira. Izatez, “aukera” kontzeptuan, “interpretazio marko” kontzeptuan bezala, egiturazko eta egintzazko osagarriak nahasten dira (Gamson, Meyer, 1999: 391). Zer esan nahi dugu horrekin? Alde batetik, interpretazio markoek mintzo garenean, mundu sozialean dagoeneko eginda dauden osagarriez ari gara, gizakiek jasotzen eta pairatzen dituzten elementu objektibatu, pasibo eta egituratuak. Beste alde batetik, baina, markoek hitz egitean berresten ari gara gizakiek modu aktiboan sortu edo aldatu ahal dituztela elementu horiek. Bada, gizarte errealitatearen dialektika bete-betean hezurramitzen da errealitateari buruzko definizio- edo enmarkatze-ariaketetan. Hartara, munduko gertakariak gure testuinguru soziokulturean jasotako markoen laguntzaz interpretatzen ditugun arren, aldi berean gizakion etengabeko jardunaren ondorioz interpretazio berriak sortzeko gaitasuna daukagu.

Beraz, aukera egitura batek –dela politikoa, kulturala edo soziala– errealitatearen interpretazio oro hertsatzen duen era berean, interpretazio marko batek ere, indar sozial garrantzitsu bat atzean daukatean, aukerak zabaldu ditzake. (Gizarte mugimenduei dagokienez oso ohikoa da, adibidez, aitzindariak irekitako aukerak edo ildoak baliatzea ondorengo mugimenduek). Ez da ahaztu behar, auzi formalaz at, aukeraren esanahia bera eztabaidagai bilakatu nahi dutela mugimenduek gizartean, eta liskar sakonak sortu ahal direla aukerari buruzko interpretazio lehiakideen artean. Horrela, une batean dauden aukera politikoak eta kulturalak mugimendu batentzat errealitate guztiz finkoak eta hertsatzaileak diren arren –azterketa askotan agertzen diren bezala– mugimenduak zalantzatan jarri nahi dituen definizio berri baten elementuak ere badira. Aukeraren kontzeptua bera, eta beste antzeko kontzeptu batzuk ere, berriz interpretatzen dituzte mugimenduaren esparruko eragileek; horretarako interpretazio marko alternatiboak sortzen dituzte. Ondorioz, behin baino gehiagotan aukerei nahiz estrategiei buruzko barne desadostasunak sortzen dira mugimenduan.

Arestian adierazi den bezala, gizarte mugimenduen analisisan aukera politikoaren egitura lehenetsi da bereziki; horrela, luzaroan mugimenduen egintza kolektiboa baldintzatu duen testuinguru politiko-

instituzionalaren azterketari ekin zaio mugimenduei buruzko lan eremuan. “Baliabideen Mobilizazioaren” paradigmatik eta “Prozesu Politikoaren” paradigmatik, alegia, Estatu Batuetan gizarte mugimenduen analisian nagusi izan diren ikuspegi teorikoek, ez dute arreta handirik jarri mugimenduen dimentsio kultural eta kognitiboetan. Ondorioz, mugimenduen azterketak norabide razionalista eta estrategiko soilak hartu du; ikuspegi horrek kultura elementuak erabat baztertu ditu denbora luzez²⁸. Ildo horretatik, aukeraren kontzeptua aukera politikoaren baliokide izan da. Aukera politikoak, sistema politikoak mugimenduei buruz erakutsi duen zurruntasun edo malgutasun maila adierazi du, ez besterik. Ikuspegi horretan, mugimendua sistema politikoarekin elkarrekin dagoen aktore razional eta estrategiko modura azaldu da.

Ikuspegi murriztaile hori gainditu nahian, aukeraren kontzeptuak ohiko adiera politikoa izateaz gain osagarri kultural garrantzitsua daukala nabarmendu gura dugu lan honetan. Brandek zehazten duen moduan, aro bakoitzak badu *zeitgeist* bat, alegia, “kultura giro” nagusi bat edo “jarrera sozial” bat, non mundu ikusmolde, ideia eta emozio, bildur eta itxaropen, sineste eta utopia, krisi- edo segurtasun-sentimendu multzo bat gailentzen den. *Zeitgeist* delako horrek sentiberatasuna sortzen du arazo batzuei buruz, areago, zilegitu egiten ditu sozialki eta politikoki bideragarri agertzen diren aukerak. Modu horretan, iritzi publikoaren barnean kultura testuinguruak mugimenduen aldeko erantzuna eragiten du zenbaitetan eta haien kontrako jarrera pizten du beste zenbaitetan (Brand, 1992: 51-52).

Mugimenduaren esparruan egiten diren arazoaren definizioek arrakastatsu izateko aukera handiagoa izaten dute gizarteko kultura nagusian “oihartzuna” daukaten neurrian, alegia, proposaturiko interpretazioak kulturaren oinarritzko arau eta balio zenbaitetan txertatu ahal diren heinean (McAdam, 1999b: 479). Interpretazio markoen sorrera, horrela, “konexio” arazo modura planteatzen da sarritan.

“El objetivo [de los movimientos] consiste en proponer una visión del mundo que legitime y motive la protesta y parte de su éxito depende de la resonancia cultural de los marcos de referencia promovidos por los organizadores. Sus esfuerzos, en este sentido, para crear el marco adecuado pueden ser considerados como actos de apropiación cultural, en los cuales los líderes de los movimientos tratan de asociar sus reivindicaciones a controversias públicas de gran resonancia en la sociedad en general (o en una subcultura en particular) para activar la protesta” (McAdam, 1994: 45).

Gizarte batean dauden idealen eta errealitate kulturalen arteko kontraesanek, beraz, aukerak irekitzen dizkiete batzuetan mugimenduei bidegabekeriak salatzen eta ustez kulturalki onartutako esku-bideak aldarrikatzeko.

Gizarte mugimenduen interpretazio markoek zabaltzen dituzten aukerak beste barneko faktore batzuen mende ere badaude. Dagoeneko badakigu Beranduko Modernitateko baldintza kulturalen diskurtso mota guztiek ez dutela eragin berbera sortzen gizartean; alegia, diskurtso jakin batzuek oihartzun handia izan ohi dute gure aroan nagusi den kulturaren. Horrela, adituen definizioek eta kutsu zientifiko-teknikoa daukaten diskurtsoek, esaterako, zilegitasun kultural handiagoa erdiesten dute beste interpretazio sozial batzuen aldean.

Definizio sozialen arteko botere sinboliko bereizgarri horrek desberdintasunak ezar ditzake gizarte mugimenduen esparruan. Izan ere, baliabide kognitiboan presentziak edo gabeziak lerro argi batez banatzen ditu lehiatzeko lanabes egokiekin eta lanabesik gabe dauden mugimenduak. Hartara, interpretazio markoak baliabide kognitibo sendoen gainean eraikitzen dituzten gizarte mugimenduek modu errazagoan zabaltzen dituzte aukera politikoak eta kulturalak, euren errealitate irakurketak egungo kultura irizpideekin sintonian lerratzen direlako. Ildo horretatik, garrantzitsua da marko horien eraikuntzan gizarteko kulturgileek, adituek, zientzialariek, akademikoek eta bestelako kultura eliteek izan ohi duten parte-hartzea²⁹. Eta ez soilik langile anonimo gisa, ezpada gizarteak berak onartutako rol intelektualetan. Rol horiek betetzean, kulturgileek euren legitimitatea transferitzen diete sortutako interpretazioei, alegia, gizarte mugimenduen interpretazioei. Horrela, korronte teoriko batzuek bestelako baliabideak nabarmendu badituzte ere, gure ustetan baliabide intelektualak –giza baliabide mota berezi modura– ezinbestekoak dira gizarte mugimenduen jardueran, batik bat, Beranduko Modernitateko baldintza kognitiboetan, mugimendu horiek indarrean dauden kultura kodeak zalantzatan jarri nahi badituzte.

“Los intelectuales (...), ocupados profesionalmente en la producción de ideas o en la manipulación de símbolos, tienen un papel central en la emisión de significaciones y definiciones. Son ellos principalmente los que acuñan los términos que conforman las diferentes visiones de las realidades sociales. Concretamente, los intelectuales vinculados a las organizaciones de los movimientos sociales

están interesados en movilizar a los individuos bajo la perspectiva por ellos marcada, articulando las necesidades más compartidas y construyendo –mediante discursos, artículos en prensa y libros– identidades colectivas” (Cruz, 1997: 21).

Jakina da elite politiko eta mediatikoekin batera, kulturaren profesionalek errealitatearen interpretazioak sortzeko eta zabaltzeko ahalmen bereizgarria agertzen dutela gizarte garaikideetan, batetik, ahalmen hori agente sozialez hornituta dagoelako eta, bestetik, esparru publikoan burutzen delako. Hori horrela izanik, gaurko gizarte mugimenduen jardueran eraikitzen diren definizioak eta mundu interpretazioak ezin dira, inondik ere, aktore horien eraginetik kanpo ulertu. Hartara, Beranduko Modernitateko kulturgileek ere, intelektualaren funtzioan arituz, agertoki ezinhobea atzeman dute gizarte mugimendu berrietan ideia ekoizle eta sinbolo manipulaztaile modura euren ohiko zereginak betetzeko.

3. Kulturgileak: interpretazio markoen sortzaile pribilegiatuak

“Lo más evidente es que los símbolos culturales no están inmediatamente disponibles como símbolos de movilización, sino que requieren la intervención de un agente para convertirse en marcos de acción colectiva” (Tarrow, 1997: 232).

“Los intelectuales letrados, como especialistas de la interpretación, desempeñan un papel de suma importancia en cualquier Movimiento Social: contribuyen a la definición y a la sistematización del descontento nacido de causas estructurales, así como al desarrollo de propuestas de solución; elaboran y reelaboran idearios e ideologías. Pero tienen también sus propios intereses de poder” (Riechmann, 1994: 85-86).

Aurreko orrialdetan gizarte mugimenduen jarduera kognitibokulturala nabarmendu da. Halaber, azpimarratu da ekoizpen sinboliko horretan burutzen den egintza bikoitza, alegia, mugimenduek daukaten gaitasuna –barrura begira– talde identitateak eta –kanpora begira– definizio sozial alternatiboak sortzeko. Nolanahi ere, mugimenduen esparruan egiten den ekoizpen sinbolikoa ez da haien baitan modu desberdindu gabeen eta abstraktuan egiten. Hala burutuko balitz, horrek esan nahiko luke gizarte mugimenduak ezaugarri sozial berberak

dauzkaten parte-hartzailez osaturik daudela, areago, habitus kultural berbera partekatzen duten gizakiek hornitzen dituztela gaur egungo mugimenduak. Baina, ez da inola ere horrela gertatzen.

Egia da egitura berdinzalea eta parte-hartzaileen prestakuntza maila jaso azpimarratu direla sarritan gizarte mugimendu berrien ezaugarri modura; bereizgarri horiek mugimenduen irudi erromantikoa eraikitzen lagundu dute. Aipatu berezitasunek, halere, ez dute alor homogeen baten eraketa bermatzen ikuspegi sozialari edo kognitiboari dagokienez. Ondoren ikusiko dugunez, gizarte mugimenduen esparruaren barne bereizketak ulertzeko beharrezkoa izango da mugimenduen oinarri sozialak aztertzea eta, gizarte asimetria berriei lotuta, baliabide kognitiboek Beranduko Modernitateko gatazka adierazpenetan daukaten garrantzia kontuan hartzea.

3.1. Gizarte mugimendu berrien oinarri soziala

“La evidencia empírica comparativa contenida en las investigaciones sobre “nuevos” movimientos sociales confirma la naturaleza plural de los actores implicados. La base social de estos movimientos está localizada en tres sectores de la estructura social: [el primer sector es] la nueva clase media o “clase de capital humano”, es decir, los que trabajan en sectores tecnológicos avanzados basados en la información, las profesiones de servicios humanos y/o el sector público (en especial educación y asistencia) y los que mantienen altos niveles educativos y disfrutan de una relativa seguridad económica (...) La “nueva clase media” se compone de, al menos, dos grupos distintos: nuevas élites que están emergiendo y desafían a las élites ya establecidas, y los profesionales de “capital humano”, que experimentan tanto el excedente de potencialidades ofrecido por el sistema como sus restricciones. Estas personas están integradas en actividades e instituciones sociales, han participado en formas políticas y redes sociales tradicionales, son relativamente jóvenes y tienen niveles altos de educación. Todas estas características nos hablan de la posición central de estos individuos, su adhesión a los valores más modernos y su relación con las estructuras centrales de la sociedad. Su capacidad para la construcción de una identidad está arraigada en el conjunto de recursos disponibles, recursos que pueden percibir porque están expuestos al conocimiento y la información disponibles en la sociedad. El giro desde una posición de conflicto al papel de “contra-élite” es fácil para este grupo de individuos, ya que los procesos de

institucionalización ocurren frecuente y rápidamente” (Melucci, 1994b, 174-175).

Gizarte mugimendu berrien baliabide kognitiboen azterketari heltzeko argigarria da egungo mugimenduen oinarri sozioestruturala nolakoa den ulertzea. Izan ere, Beranduko Modernitateko mugimenduen oinarri sozialak eta XX. mende hasierako mugimenduetako parte-hartzaileen ezaugarriak zeharo desberdinak dira, ikuspegi sozialetik, politikotik zein kognitibotik begiratuta. Horren lekuko dira duela berrogeita hamar urte landu ziren Jokabide Kolektiboari buruzko teoriak utzi zizkiguten deskribapenak.

50eko hamarraldian eta 60ko lehen urteetan arrakasta handia izan zuten Jokabide Kolektiboaren teoriak³⁰. Arestian azaldu den moduan, mobilizazio sozialak, alegia, egintza politiko ez-konbentzionalak, jokabide sozial desbideratuen pareko jo zituzten ikuspegi horiek. Ildo horretatik, Jokabide Kolektiboaren teoriaren ustez, modernizazio ekonomikoak, politikoak eta kulturalak populazioaren zenbait alderditan sortutako kalteak eragin zuten sistemak ezarritako erakundeetatik at burutzen zen “masen” jokabide desbideratua –gizarte mugimenduen fenomeno gaurko hizkeran–. Bada, teoria horren arabera modernizazio azkarrak era askotako galerak sortu zituen babes gutxiko gizarte taldeetan: zehazki esateko, talde horien estatus ekonomikoan, eragin politikoa sortzeko zeukaten ahalmenean, haien eraketa sozialean eta balio kultural tradizionalen onarpenean. Gizartearen modernizazioa bereizketan eta egintza esparruen desartikulazioan baldin badatza, mugimendu horiek kutsu anti-modernista erakutsi zuten sarritan, bizitzaren ohiko batasuna gordetzen ahalegindu baitziren. Hartara, Jokabide Kolektiboaren azalpenaren oinarria modernizazio prozesuak sortutako talde baztertuen eta alienatuen ideien inguruan eratzen da.

Smelserren planteamendu ezagunean, esaterako, “masa” jokamoldea modernizazioaren onurak jaso ordez kalteak pairatzen dituztenen erantzun tipikotzat jo behar da. Modernizazioaren aurkako matxinadak irrazionaltzat hartzen dira haren interpretazio klasikoan: uste du egintza kolektibo masiboak antsietateak eta adierazpen premiak eraginda sortzen direla, eta, hartara, porrot egitetik gertu daudela ezinbestean. Jokabide kolektiboa, Smelserren ustez, erantzun irrazionala da beti, historikoa. Jokabide kolektiboak errealitatea nahiarekin nahasten du; azken buruan, –modernizazioak sortutako baldintzak

kontuan hartzen baditugu– jokabide desegokia da kognitiboki (Smelser, 1989).

Azken urteetako datu enpirikoeek nabari erakutsi dutenaren ostean gizarte mugimenduei buruzko tankera horretako teorizazioari ezin zaio inolaz ere eutsi gaur egun. Dagoeneko inork ez du zalanztatan jartzen gizarte mugimendu berrien oinarri soziala batik bat klase ertainek osatzen dutenik. Gizarte mugimendu berriei buruzko lanketa enpiriko ugari dago hori frogatzeko, eta horren inguruko gogeta teorikoren bat ere egin da³¹. Mugimendu berrien talderik esanguratsuen osatzen duten klase ertainak, jakina, ez dira gizartetik at bazterturik bizi. Aitzitik, trebakuntza politiko sakona daukate eta indarrean dauden erakunde politiko eta ekonomikoekin elkarreaginean dihardute etengabe. Azterketa enpirikoetan aski frogaturik geratu da gaur egun gizarte mugimenduetan eta egintza politiko molde ez-konbentzionaletan parte hartzeko prest dauden populazioaren sektorerik garrantzitsuenak politikaren bide konbentzionalen jakitun daudela. Hortaz, mobilizazio ahalmenak, gaur egungo ikuspegitik, ez dakar berarekin politika “ortodoxotik” urruntzea; bi jarrerak bide osagarriak dira erabat, egintza politikoari dagokionez. Halatan, mobilizazio politikaren atzean dauden talde sozialak, ez dira ezelan ere gizarteko behartsuenak eta baztertuenak izaten. Oro har, segurtasun ekonomikoa izan ohi dute eta, sarri askotan, gizarteko kiderik babes-tuenetarikoen artean egoten dira (Offe, 1988: 201).

Beraz, gaur egungo mugimenduetako kideen ezaugarriak ikusita, indargabetuta geratu dira zeharo garai bateko argudioak. Interpretazio “erromantikoek” batzuetan kontrakoa uste izan badute ere, mugimenduetan parte hartzen, populazioaren talde ertainek ez dute sekula gizarte eraketa aurremoderno eta aurrezientifikoaren aldeko aposturik egin. Aitzitik, berariazko balio modernoek lotutako proiektuak defendatu dituzte. Bestalde, mugimenduei ezin zaie gaur egun irrazionaltasuna egotzi. Alderantziz, euren oinarri sozialek oso goitik gainditzen dute gizartearen batezbesteko kultura kognitiboaren maila, hau da, gizartean dagoen ezagutza eta informazioa. Hori erakusten du, behinik behin, gizarte mugimendu berrien parte-hartzaileen hezkuntza maila jasoak (Offe, 1988: 202).

Egintza kolektiboaren ohizko argudioak baliogabetuta, bestelako galderak agertzen zaizkigu. Izan ere, zerk azaltzen du heziketa handiko klase ertainetako gizakien presentzia eta partaidetza mugimendu berrietan? Zerk bultzatzen ditu gizartean bazterturik ez dauden

taldeak bide ez-konbentzionaletan edo ez-instituzionaletan jardutera, hainbestean non, egintza politiko eta sinboliko alternatiboak aurkeztera iristen diren? Zalantza izpirik gabe, galdera horien guztien erantzuna Beranduko Modernitateak berarekin ekarri dituen aldaketetan eta gatazka mota berrien ondorioetan bilatu behar da.

3.1.1. Gizarte gatazkaren adierazpen berriak

“Interest in cultural analysis has grown in the past two decades together with an extraordinary cultural transformation of planetary society. We are witnessing, with mixed feelings of amazement and fear, the impressive development of communication technologies, the creation of a world media system, the breakdown of historical political cleavages, the impact of cultural differences on national societies and at the world scale. Never before have human cultures been exposed to such a massive reciprocal confrontation, and never has the cultural dimension of human action been directly addressed as the core resource for production and consumption. It is not surprising therefore that social sciences are rediscovering culture, that a new reading of the tradition is taking place through the lens of this key concept, and that a wave of interest in cultural analysis is bringing a new vitality to theoretical debates in sociology.

Social movements, too, seem to shift their focus from class, race, and other more traditional political issues toward the cultural ground. In the past twenty years emerging social conflicts in advanced societies have not expressed themselves through political action, but rather have raised cultural challenges to the dominant language, to the codes that organize information and shape social practices. The crucial dimensions of daily life (time, space, interpersonal relations, individual and group identity) have been involved in these conflicts, and new actors have laid claim to their autonomy in making sense of their lives” (Melucci, 1995: 41).

Orain arte adierazi den bezala, gizarte industrial garatuetan indarrean dauden razionaltasun ekonomikoaren eta politikoaren moldeen ondorio kaltegarriak ez dira honezkero klase baten barnean biltzen. Kalteak denboran eta espazioan hedaturik daude, eta era askotako adierazpenak daukate. Horrela, gizarteko kide guztiak agertzen dira birtualki afektaturik, eta modu askotara gainera. Beranduko Modernitatean, gabeziaren esperientzia ez da dagoeneko langilearen rolari lotuta dagoen bizipena soilik, ezta bereziki haren baitatik sortzen den erre-

litatea ere. Esperientzia horrek hiritar oro hartzen du bere eraginpean. Foucaultek, hain zuzen ere, sakabanatze prozesuaren ondorioz, botereak gaur egun agertzen duen izaera berri hori nabarmentzen du. Halatan, autore horrek esaten duenaren harian, ez dago boterearen sortzaile bakarra den mekanismo zentral bat, ekoizpen industrialara esaterako. Aitzitik, haren ustez, botereak gizarte esparru guztiak inbaditu ditu gaur egun.

Botereak sortzen dituen kalteen sakabanatze sozialaren ondorioz, aldaketa kualitatibo izugarria gertatzen da menderatze sozialaren esparruan eta gizarte kontrolaren metodoetan. Gizarte kontrolaren mekanismoen eragina zabalagoa izanik, haren ondorioak orain arte gizarte kontrol esplizitutik at gelditutako bizitza eremuetan ere nabarmendu dira, bereziki bizitzaren eremu pribatuetan edo intimoetan. Ildo horretatik, Habermasek “bizitza-munduaren” kolonizazioaz hitz egin du, adierazteko erregulazio ekonomikoa eta politikoa ez dela mugatzen jokabide indibidualaren kanpoko hertsapenetara. Hori gutxi balitz, razionaltasunaren eta arau teknokratikoen izenean, gizarte interakzio informalaren azpiegitura sinbolikoan eragiten du sistemaren razionaltasunak eta esanahiaren sorkuntza baldintzatzen du. Nolatan gertatzen da hori? Bada, besteak beste, medikuntza teknologiak, teknologia psikiatrikoak, teknologia legalak eta hedabideak baliatu izan ditu gizarte-agindu eredu berriak. Hartara, Beranduko Modernitatean koakzio fisikoan baino mekanismo sinbolikoen kontrolean oinarritzen da menderapena. Izan ere, “kanpotik barrura” igaro da hertsapen moldea.

“Los mecanismos de acumulación ya no se alimentan de la simple explotación de la fuerza de trabajo, sino más bien por medio de la manipulación de sistemas organizativos complejos, por medio del control sobre la información y sobre procesos e instituciones de generación de símbolos, y por medio de la intervención en las relaciones interpersonales ... La producción está pasando a ser la producción de relaciones sociales y de sistemas sociales, está pasando incluso, a ser la producción de la identidad biológica e interpersonal del individuo... El control y la manipulación de los centros de dominación tecnocrática están penetrando cada vez más en la vida diaria” (Melucci, 1980: 217)³².

Gaur egungo gizarte mugimendu berrien eragileengan arreta jartzen badugu aise ikusten da aipatu diren irrazionaltasunen izaera

ezagutzeko aukera gehien daukatenak eta irrazionaltasun horien eraginak modu kontzienteenean pairatu ahal dituztenak direla mugimenduetako eragile izan litezkeenak, hots, prozesu horien nondik norakoa interpretatzeko baliabide kulturalen jabeak.

Arestian esan den bezala, hezkuntza maila gizarte mugimendu berrietako aktibismoa baldintzatzen duen faktore erabakigarria da. Halatan, gizarte mugimenduei buruzko literaturan klase ertain berrien partaidetzaren fenomenoaz azpimarratu den arren, datu hori gizarte talde baten gaitasun kognitiboak adierazten dituelako baino ez zaigu hemen garrantzitsua iruditzen. Beste modu batera adierazita, klase ertainei buruz hitz egiten denean, hirugarren esparruan, zerbitzuetan, administrazioaren lanbide berrietan eta ongizate sisteman lan egiten duten gizarte sektoreei buruz hitz egiten da. Gizarte taldeok osatzen dituzten gizakiek, trebakuntza kognitibo maila jakin bat behar dute euren lana burutu ahal izateko. Gure ustez, ezaugarri horrek bereizten ditu beste ezerk baino gehiago beranduko gizarte modernoetako “klase ertainak”. Beraz, ez ditugu hemen klase modura definituko, gaitasun kognitiboak partekatzen dituen talde gisa baizik³³.

Hartara, hezkuntza mailaren eta mugimenduetako partaidetzaren arteko korrelazioa nabarmena egiten da gizarteko zenbait taldeei dagokienez. Alde batetik, heziketa formalaren maila jasoarekin batera, auzi “sistemiko” konplikatu eta abstraktuei buruzko iritziak emateko gaitasuna eskuratzen da, arlo ekonomiko, legal nahiz teknikoetan. Bestetik, goi mailako heziketak independentziaz gogoeta egiteko —eta jarduteko— gaitasuna areagotzen du, eta besteengandik munduari buruz jasotzen diren interpretazioak eta teoriak modu kritikoa eztabaidatzeko ahalmena ematen du. Esan nahi baita, iritzi propioa sortzeko baliabide gehiago izateaz gain, gizaki heziak ez dauka inolako mendekotasun mekanikorik besteen iritziei buruz.

Razionaltasun modernoak sortzen dituen gabeziak ulertzeko, gaitasun kognitiboari erantsi egin behar zaio, maiz, horrelako habitusa daukan gizakia, lanbidez, gizarte zerbitzuetan, hezkuntza sisteman eta informazioari lotutako lan eremuetan kokaturik egoten dela. Klase ertainen lan kokaleku horiek dira, hain zuzen ere, irrazionaltasun eta gatazka gune berrietatik hurbilen dauden esperientzia eremuak. Halatan, ez da harrigarria azterketa enpirikoetan zenbait aldagai batera agertzea gizarte mugimendu berrien aldeko planteamenduak babesten dituztenen artean eta haien egintzetan parte hartzen dutenen artean —hala nola, heziketa maila, lanbidea (bereziki administrazioan, ongiza-

tean edo sektore publikoan) eta kategoría soziala-. Izan ere, lanbide sisteman ere aldaketak gertatu dira hirugarren iraultza teknologikoaren ostean. Baina, Beranduko Modernitateko gizarteetako lan egituraren aldaketa ez ezik, oro har, sistema ekonomiko osoaren iraultza sumatzen da mugimenduen fenomenoaren atzean.

Meluccik dioten bezala, gizarte postindustrialek ez daukate gaur egun oinarri erabat ekonomikoa. Egitura ekonomikoen, politikoen eta kulturalen integrazio gero eta handiagoari esker ekoizten dute gizarte garaikideek. Ondasun "materialak", esaterako, sistema informatiko eta sinboliko izugarriak direla medio produzitzen eta kontsumitzen dira. Hori dela eta, gatazka sozialak ere sistema ekonomiko industrialetik kulturaren esparrura lekualdatu dira: horrela, gatazka horiek nortasun pertsonalean eta kolektiboan eragiten dute, eguneroko bizitzaren denboran eta espazioan sartzen dira oldarka, eta egintza indibidualaren motibazioak eta kultura ereduak desitxuratzen dituzte.

Gaur egungo gizarte konplexuak funtsezko kontraesanen etengabeko sortzaile dira. Alde batetik, barne bereizketa handiko sistema konplexu diren heinean gero eta baliabide gehiago sortzen eta banatzen dute gizakiaren indibidualizazioa burutu dadin. Bestela adierazita, gizakiaren autogarapenerako eta nortasun pertsonal nahiz kolektiboaren eraikuntza autonomorako bitarteko franko jartzen dute gizakien esku. Izan ere, informazioan eta ezagutzan oinarrituriko sistema konplexuek ezin dute iraun ez badute euren atal indibidualen -neurri bateko- ahalmen autonomoa onartzen; hala, gizarte garaikideetan banakoek gai izan behar dute informazioa sortzeko eta jasotzeko. Ondorioz, sistemek banakoen nahiz taldeen autonomia hobetzeko ahaleginak egin behar dituzte, eta haien ahalmena ondu informazio sareetara iritsi daitezten.

Alta, unitate osagarrien autonomiarekin batera sistema konplexuek azken horien gero eta integrazio handiagoaren premia ere badaukate. Horrela, euren funtzionamendua ahalbideetzen duten baliabideetara zabaldu behar dute kontrola. Hartara, Beranduko Modernitateko gizarteetan botereak ezinbestean eragin behar du gizakien eguneroko bizitzan, ezinbestean urratu behar du egintza indibidualaren sakoneko motibazioa eta ezinbestean manipulatu behar du esanahiaren sorkuntza prozesua, zeinaren bitartez gizakiek zentzua ematen dieten gauzei munduan (Melucci, 1985: 695). Menderatze sinbolikoa beste menderatze eredu batzuek eraginkortasuna galtzen dutenean agertzen da -indarrean oinarritu diren ereduak, batik bat-.

Halarik ere, oraingo sistemaren helburua –integrazioa– aurreko menderatze ereduaren berbera da. Azken batean, menderatze sinbolikoak eraginkorra behar du izan gizakien egintzak aurrez ikusteko modukoak izan daitezen. Ildo horretatik, gaur egungo menderatze sinbolikoak tarte handia kendu dio bortxari, bortxa erabat ordezkatu ez badu ere.

Deskribatu dugun prozesu bera azaltzeko era askotako kontzeptuak erabili izan dira hizkera soziologikoan, hala nola “boterearen mikrofisika”, Foucaulten ildoan, edo “hertsapenaren lekualdaketa” –gizakiengandik kanpo ezarritako hertsapenetik, hots, indarkeria hutsetik, gizakien barneko hertsapenerako iraganbidea burutu baita–. Funtsean, baina, gauza berdintsua adierazten dute kontzeptu horiek hitz desberdinak baliatuz. Laburbilduta esateko, boterea esanahia sortzen den gune sinbolikoak kontrolpean jartzera iritsi da gizarte garai-kideetan. Bada, barne bereizketa handiko gizarte konplexuetan, kontrol mekanismoek esanahiak eraikitzen diren egintzaren gune sinbolikoak urratu dituzte.

Hori dela eta, ez soilik egintza kulturala baizik eta egintza politiko bera ere menderatze eredu berrien interpretazioa ahalbidetzen duten kodeen ezagutzari loturik dago gero eta gehiago. Gaur egungo gizarteetan metatuta dagoen ezagutza eta informazio multzoa handia da, baina ezagutza horretarako sarbidea ez da unibertuala. Aitzitik, gizarte mailakaturik dago. Baliabide sinbolikoen sarbide bereizgarriak baldintzatzen du, hartara, pentsamendu kritikoaren gaitasuna eta egintza politiko eraginkorraren ahalmena. Rifkinek *the Age of Access* deitu duena –haren ustez “sarbideak” jabetzaren lekua hartu du gure gizarteetan (Rifkin, 2000)– gordintasun osoz aplikatu daiteke kulturaren esparruan eta kultura baliabideen banaketan.

Inglehartek ustez gizarte konplexuetako jarduera politikoak trebetasun batzuk eskatzen ditu. Haren iritzitan, gizarte modernoetan arazorik larrienak egoteak ere ez du lortzen gizaki taldeak mobilizatzea, azken horiek analfabetoak badira edo egoera behartsuan baldin badaude (Inglehart, 1991: 420). Inglehartek, azken finean, heziketa mailari loturako gaitasun politikoek jardun politikoan daukaten garrantzia azpimarratzen du, horiek ahalbidetzen baitute parte-hartze politiko eta komunikazio politiko hobetzea. Gaitasunok “mobilizazio kognitibo” kontzeptuarekin izendatzen ditu (Inglehart, 1991: 374-381; 404-412; 1992: 72).

Arestian esan den bezala, Beranduko Modernitatean botere forma berriak eta baliabide berriak banatzen diren guneetan sortzen dira gatazkak. Gatazka eredu horien berri dauzkaten gizakien habitusa bat dator literatura soziologikoan “klase ertain berri” modura izendatu diren talde sozialen gaitasunarekin. Izan ere, klase ertainen baitan biltzen dira menderatze eredu horiek interpretatzeko beharrezkoak diren gaitasun kognitiboak. Inglehartek mobilizazio kognitiboa deitzen duen ahalmen multzoa, gizarte mugimenduetako parte-hartzaileek ongi adierazten duten habitus mota bat da; habitus hori heziketa mailak ematen dituen baliabide kulturaleri eta politikoei dagokie, hain zuzen ere³⁴. Horrenbestez, baliabide kognitibo horietan jarriko dugu arreta hemendik aurrera, aipatu bitartekoak baitira mugimenduen esparruetan sortzen diren ezagutzak eta interpretazio markoak erai- kitzeko oinarritzko materialak.

3.2. Gizarte mugimenduak, ezagutza berrien sorkuntza gune: mugimendu intelektualak

“La producción de conocimiento se ha difundido, no sólo en sus teorías y modelos, sino también en sus métodos y técnicas, pasando desde el mundo académico a todas aquellas instituciones que buscan legitimación social a través de una competencia reconocible e incluso más allá” (Gibbons *et al.*, 1997: 202).

“One key category of culture is the ensemble of concepts, assertions, precepts, presumed facts, and other cognitions labeled “knowledge”. This body of knowledge is mostly created by people who work at that task with continuity and diligence. They are therefore “knowledge workers”, otherwise called intellectuals, artists, and scholars. So, too, the products of knowledge workers divide roughly into items that are more scientific, or analytic, versus more artistic, or humanistic. The former are said to produce analysis or science, while the latter provide art and literature.

Institutions of higher education and journalism, along with the wealth of foundations and individuals, have created an infrastructure on which has risen a social class of intellectuals. Portions of this social class function as the continuing culture creators (and elaborators) of many social movements” (Lofland, 1995: 25-206).

Gizarte mugimenduen jarduerak oinarritzko dimentsio kognitiboa dauka, orain arte ikusi dugunaren arabera. Mugimenduen esparruan

errealitatearen interpretazio markoak eraikitzen direnean, baliabide kognitiboak sortzen eta erabiltzen dira etengabe eraikuntza ariketa horretan. Beste modu batera adierazita, mugimenduen jardunean oinarritzkoa da ezagutzaren kategoria. Izan ere, Bergerrrek eta Luckmannek aspaldi adierazi zuten bezala, ezagutza funtsezko kategoria dugu errealitatearen gizarte eraikuntza orotan. Gizartea, betiere, ezagutzaz eta ber-ezagutzaz osaturik baitago.

Sarritan jakintza akademiko eta formalarekin parekidetzen da ezagutzaren kontzeptua. Halaz ere, era askotako ezagutzak daude. Gure gizarteetan bi adiera nagusi hartu ditu kontzeptuak. Eskuarki ezagutza formala eta informala bereizten dira, hots, ezagutza profesionala eta herritarra. Alde batetik, ezagutza zientifikoa gailendu da Beranduko Modernitateko gizartean legitimaturik dagoen ezagutza eredu gisa. Beste aldetik, eguneroko bizitzako ezagutza dago, ezagutza arrunta, oinarri zientifikodun zein zientifikorik gabeko sinesteetan funtsatutakoa. Ekoizpen sistema desberdinen emaitzak dira bi ereduak, baina badaude bien arteko loturak ere. Izan ere, Beranduko Modernitatean lehenengo ezagutza motak gero eta gehiago elikatzen du gizakien sen oneko ezagutza edo ezagutza arrunta deritzona.

Gizarte mugimenduek, hain zuzen ere, bi mota horietako ezagutza sortzen eta baliatzen dute. Lehenik sen oneko ezagutza erabiltzen dute, ezinbestean erabili ere, gizartean une historiko jakin batean nagusi den ezagutza baita. Baina, horrekin batera, jakintza berezituak eta landuak ere baliatzen dituzte, kulturgileek, zientzialariek eta adituek mugimenduaren esparruan sortutakoak edo landutakoak. Zenbait autorek adierazten duten bezala, gizarte garaikideetan aldaketak gertatu dira ezagutzak ekoizteko moduetan. Hala, ezagutza zientifikoa diziplinarteko egoera gero eta irekiagoan sortzen dira eta, aldi berean, gero eta gehiago dira, ahalmenez, ezagutza horiek ekoizteko gai diren guneak –Aipatu aldaketek, jakina, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenek gizartera ekarri dituzten ondorioekin eta, hartara, piztu duten interes publikoarekin zerikusia daukate (Gibbons *et al.*, 1997: 11-19)–. Nolanahi ere, mugimenduen barnean ezagutza berezituak bultzatzen dituzten interes sozial indartsuak agertzen dira maiz, arestian azaldu den moduan, kultura kapital handia metatzen duten testuinguru sozial trinkoak eratzen baitira mugimenduen esparruan. Interpretazio marko berriak aldarrikatzen dituztenean, mugimenduak ahalegintzen dira kulturgileek landutako jakintza berezitu horiek gizarteak onartutako sen oneko ezagutza bihur daitezen. Azken

batean, ezagutza arrunta eztabaidan jartzen ez den ezagutza da. Bestela adierazita, ezagutza horrek garai historiko batean eta indarrean dagoen kultura batean mundu guztiak jakintzat ematen duena jasotzen du. Transfigurazio hori egiteko asmoz, gure gizarteetako ideien merkatu lehiakorretan baliabide zientifikoak eta berezituak erabiltzen dira; kultur-gileek, zientzialariek eta adituek gune horietan dihardute ezinbestean. Bada, sen oneko ezagutzaren –hau da, ebidentziaren– estatua lortzeko lehia dauden definizio sozialak asko dira eta legitimitatea erdiesteko lehia sinbolikoak korapilo handiak dauzka gizarte konplexu batean. Hori dela eta, gizarte eragile guztiek –gizarte mugimenduek barne– baliatzen dituzte ahalik eta lanabes sinboliko eraginkorrenak.

Azken urteetan zabalduko prozesuaren ondorioz, arrazoiaren kritikak auzitan jarri ditu jakintza legitimoak. Zehatz esanda, kritika horrek ezagutza zientifikoaren zilegitasunaren erlatibizazioa ekarri du. Zientziaren soziologoez ezagutza zientifikoa sozialki eraikitzen dela erakutsi nahi izan dute. Hori frogatu asmoz, antropologoez kultura ezezagunak aztertzean hartutako rol berbera berenganatu dute soziologoez esparru zientifikoan eta, etnometodologoen antzera, zientzialarien jokabide erritualizatuak behatzera hurbildu dira laborategietara. Modu horretan argitara eman dute zer nolako negoziaketan bitartez ezartzen den ikerketa zientifikoaren egia eta nolatan manufakturatzen diren kontzeptuak eta teoria zientifikoak. Maila epistemologikoan, kontstruktibismo sozialak egia zientifikoaren erlatibizazioa ekarri du berarekin batera.

Halaz ere, ezagutzaren gizarte eraikuntzari dagokionez guztiz garrantzizkoak diren galderak geratu dira erantzunik gabe planteamendu horietan. Nondik sortzen dira ideia zientifiko berriak? Beti eta ezinbestean sortzen al dira komunitate zientifikoaren baitan? Non dago orduan gizartearen eragina ezagutzaren garapenean? Zientzialariez gain, ez al daukate beste gizarte eragile batzuek –eta beste gizarte prozesu batzuek– inolako eraginik zenbait une historikotan gerta-uriko ezagutza aldaketetan?

Eyermanek eta Jamisonen uste dute ezagutza zientifikoaren eraikuntza sozialean galdutako kate-maila aurkitu dutela gizarte mugimenduetan (Eyerman, Jamison, 1991). Bi autore horien iritzitan, ezagutza zientifikoa gizarte mugimenduen eraginpean dago, era askotan egon ere. Haien aburuz, XVII. mendeko zientziaren ideia bera, filosofia experimental modura, Britainia Handia Iraultzailearen garaiko

erlijio mugimenduen testuinguruan sortu zen. Geroago, XVIII. eta XIX. mendeetan, zientzia eta diziplina guztiak gizarte mugimenduek natura eta gizarteari buruz egindako galderen ondorioz sortu ziren. Eyerman eta Jamisonen ustez, gure garaian ere gizarte mugimenduen barnean garatutako ezagutza interesei egotzi ahal zaizkie zuzenean ezagutza esparru berriak, egitura kontzeptual berriak, rol intelektual berriak baita arazo zientifiko berriak ere (Eyerman, Jamison, 1991: 54).

Eyermanek eta Jamisonen ikuspegi zeharo interakzionista eta horizontala eskaintzen dute gizarte mugimenduen barneko ezagutzaren sorkuntzari dagokionez. Horrela, uste dute gizarte mugimenduen partaidetzak gizarte ikasketa bat jartzen duela abian; ikasketa hori kognitiboa da, funtsean. Mugimenduetako partaide guztiak daude ikasketan horretan murgilduta, inolako bereizketarik gabe. Beraz, gizarte mugimenduetako aktibistek “eginez” eta jardunez ikasten dute, ingeniari profesionalen bezainbesteko mailan bederen. Ildo horretatik, gizarte mugimenduak “praxi kognitibo” gisa aztertzen dituzte autoreek, mugimenduek sortutako ezagutza jardun kolektibo horren emaitza baita. Eyermanen eta Jamisonen ikusmoldean, ezagutza ez da dohain indibidualaren ondorioa, ezta Ikerketa eta Garapen sistemaren elkarreagin sistematikoen etekina ere. Aitzitik, mugimenduen barnean, mugimenduen artean eta mugimenduen eta aurkarien artean burututako elkartzeko sozialen emaitza da ezagutza, haien ustetan.

“The collective articulation of movement identity can be likened to a process of social learning in which movement organizations act as structuring forces, opening a space in which creative interaction between individuals can take place (...) Looking at social movements as cognitive praxis means seeing knowledge creation as a collective process. It means that knowledge is not the “discovery” of an individual genius, nor is it the determined outcome of systemic interactions within an established Research and Development system. Knowledge is instead the product of a series of social encounters, within movements, between movements, and even more importantly perhaps, between movements and their established opponents” (Eyerman, Jamison, 1991: 57).

Ikasketa sortzaile hori (“praxi kognitibo” deritzetena) mugimenduen parte-hartzaileek aurretik ezagut ezin ditzaketen elkarreaginaren gauzatzen da; esaterako, euren jarduerak eztabaidatzen dituztenean, egintzak prestatzen dituztenean, etorkizunaz mintzatzen direnean eta

iraganaz gogoeta egiten dutenean garatzen da. Era berean, mugimenduen eta aurkarien arteko elkarrekintzan ere hezurramitzen da, alegia, aurkaritza eta elkarrizketa esparruak osatzen direnean. Azkenik, gizarte mugimendu garaikide eta gizarte mugimendu zaharren arteko interakzioan ere eratzen da praxi kognitiboa. Bada, gizarte mugimenduak bizirik daude iraganeko mugimenduen eraberriketara eta tradizioaren interpretazioan. Maila kognitiboan, horrek kontzeptuen eta markoen bestelako formulazio bat eskatzen du, bai eta rol eta praktika intelektualen interpretazio molde eraberritua ere.

Ikuspegi interakzionista batetik abiatuz, Eyermanek eta Jamisonen baxterrean utzi nahi dituzte planteamendu bipolarrak, alegia, gizarte mugimenduetako aktibistak bi kategoriatan banatzen dituzten planteamenduak: hala nola, “liderrak” eta “mendekoak”, “antolatzaileak” eta “kide indibidualak”, “intelektualak” eta “ezjakinak”. Irizpide horren arabera, maila kognitiboan ere, haien ustez mugimenduaren parte-hartzaile guztiak dira, hein batean, mugimenduaren “intelektualak”, euren aktibismoaren bitartez mugimenduaren nortasun kolektiboaren eraikuntzan jarduten dutelako³⁵. Izan ere, mugimenduaren barruan burutzen den jardura intelektualen sorta oso zabala da, liderrek eta intelektual legitimoek modu ikusgarrian egiten dituzten ohiko egintza intelektualak baino askoz ere zabalagoa. Haatik, autoreek azpimarratu nahi dute azterketa gehienetan mugimenduaren eguneroko jardura intelektualen multzo hori ez dela modu egokian jasotzen, arreta guztia liderren, bozeramaileen eta antolatzaileen zuzendaritza intelektualean jartzen delako. Horregatik, mugimenduari esparruan diharduen ohiko intelektual profesionalaren aurrean Eyerman eta Jamison “mugimendu intelektualaz” mintzo dira.

Nor da haien ustetan “mugimendu intelektual”? Orain arte ikusi dugu kulturgilea testuinguru sozial eta instituzional jakin batean eratzen dela intelektual gisa, hau da, tradizio batean txertatuta agertzen dela eta tradizio horrek definitzen dituela hark bete beharreko ezagutza teknikoak, ebaluazio irizpideak eta kontsakarzio arauak. Eyermanen eta Jamisonen aburuz, mugimenduei buruzko ohiko azterketetan mugimenduetatik at eratutako intelektualak baino ez dira aintzat hartu eta haien lidergoa baino ez da ikusi mugimenduen jardura kognitiboa landu denean. Halatan, mugimendutik kanpo sortutako kulturgileak bere kultura zilegitasuna eta aintzatespena unibertsitatean, zientziaren esparruan edo ikerketan irabazi ditu bere zerbitzu

sinbolikoak mugimenduaren alde jarri baino lehen; ez da mugimenduaren garapenarekin batera trebatutako intelektuala izan.

Gehienetan era horretako intelektuala baino ez da kontuan hartu gizarte mugimenduei buruzko azterketetan. Ez da zaila horren arrazoia aurkitzea. Tradizio marxistatik datorren intelektualei buruzko “klase analisi” inplizitu bat dago ohiko ikuspegi horietan guztietan. Zehazkiago esateko, XIX. mende amaierako alderdi sozialdemokraten osaketaren garaitik datorren intelektual ereduaz mintzo gara, orduan intelektual askok parte hartu baitzuen langileriaren mugimenduan. Kautskyk Alemanian eta Leninek Errusian funtsezkotzat jo zuten intelektuala langile mugimenduaren kontzientzia iraultzailea garatzeko. Intelektualak, termino leninistetan, bere burua ordezkatu ezin duen klase baten interesak “ordezkatzen” ditu, gizateriaren interes unibertsalak ideologia sozialistan adieraziz. Izan ere, langileek “langile klasearen kontzientzia” besterik ezin dute azaldu. Leninisten ildoan –eta Eyermanen eta Jamisonen iritziz, intelektualen gaur egungo ikertzaile gehienak daude tradizio horren eraginaren mende– aktibistek berez adierazi ezin dituzten balio-nagusi multzo bat ordezkatzen dute intelektualek.

Bai mugimenduen ezagutzaren sorkuntzari dagokionez bai mugimenduetan diharduten intelektualei dagokienez, eskema dualista batetik abiatzen dira Eyerman eta Jamison. Mugimenduetan parte hartzen duten ohiko intelektual “profesionalak” eta kontsakratuak daude alde batetik eta, beste aldetik, “mugimendu intelektualak”. Autoreen azterketan azken horiek hartzen dute izugarritzko garrantzia; lehen kategoria, intelektual kontsakratuena, berriz, analisitik bazter uzten dute. Izan ere, euren ustetan, mugimenduek berrikuntza intelektualerako guneak zabaltzen dituzte, besteak beste, kultur gile berriak trebatzeko esparru kognitiboak eraikitzen dituzte. Prozesu sozial eta politiko diren heinean, gizarte mugimenduak eguneroko bizitzak ezarritako ohiturak eteteko gune egokiak izan ohi dira; halatan, nortasun eta rol sozial berriak frogatzeko aukerak ematen dituzte. Praktika kognitiboari dagokionez ere, ezarritako jarduera intelektualak ez ezik jarduera intelektual berritzaileak trebatzeko esparru bilakatzen dira mugimenduak. Hartara, intelektual berriak, zehazki mugimendu intelektualak, sor daitezten aukerak irekitzen dituzte. Nolatan gertatzen da hori? Mugimenduek esparru publikoak sortzen dituztenean, adierazpen publikorako gune bilakatzen dira. Haien barnean, prestakuntza formalik edo aintzatespen ofizialik gabeko gizakiek –gizaki guztiek

potentzialki- gaitasun berriak eskuratzeko era daukate, baita gaitasun horiek praktikan jartzeko ere. Horrenbestez, Eyermanek eta Jamisonek berdintasunezko jarduera intelektualen ahalmena aurrirakusten dute mugimenduen barnean.

Hartara, Eyermanek eta Jamisonek aztertzen duten mugimendu intelektualek mugimenduaren testuinguruan eratzen dute euren eginkizuna. Eginkizun horrek gehienetan ez du batere legitimitaterik izaten beste testuinguru intelektualetan. Intelektual horiek, beren zereginen bitartez, aldi berean gizarte mugimenduaren ezagutza interesak eta beren nortasun kognitiboa antolatzen dituzte. Halatan, mugimendu intelektualek mugimendua osatzen den une berean osatzen dute intelektualaren rola ere: euren nortasun indibiduala mugimenduaren nortasun kolektiboa eraikitzen den prozesu interaktibo berean eraikitzen da. Ezaugarri horrek bereizten ditu beste intelektual batzuegandik.

“We use the term movement intellectual to refer to those individuals who through their activities articulate the knowledge interests and cognitive identity of social movements. They are movement intellectuals because they create their individual role at the same time as they create the movement, as new individual identities and a new collective identity take form in the same interactive process.

By movement intellectuals we do not in the first instance mean those established individuals who perform their intellectual functions in the context of a social movement, or who represent some kind of transcendental intellectual “role” within the space created by social movements. Rather, by identifying intellectual roles and activities within different social movements, and by focusing on the formative processes of movements themselves, we want to develop a different conception of intellectuals altogether. By conceiving of intellectual activity as process rather than product, we also want to uncover the significance of social movements in the societal formation of intellectual activity” (Eyerman, Jamison, 1991: 98).

3.2.1. Paradigma subjektibisten hutsuneak

Ekarpen interesgarriak egiten dituzten arren, Eyermanek eta Jamisonek ezagutzaren sorkuntza eta intelektualen partaidetza azaltzeko baliatzen duten eredu interakzionistak eta konstruktivistak hutsune nabarmenak ditu, batik bat kultur gileek egungo gizarte mugimenduetan betetzen duten eginkizunari dagokionez. Ekarpenean

artean ohiko eskema leninisten kritika aipatu behar da; egiazki, parte-hartze intelektualaren proposamenak ezin dira dagoeneko eredu horretan oinarritu.

Izan ere, XIX. eta XX. mende hasierako ohiko intelektual konprometitua goi mailako kulturaren hezitako elite bateko kide dugu. Intelektual horrek eskuarki formakuntza humanista zeukan, eta “historiaren eta gizartearen legeen” ezagutza aitzaki hartuta “besteen gaineko ikuspegia” erabiltzen zuen behin baino gehiagotan. Hartara, langile mugimenduko intelektual gisa zeukan zeregin praktikoa mugimenduko beste eragileen adimenean eta egintzetan eragitea zen, testu idatzi eta mintzatuen bitartez, baita antolakuntzaren bitartez ere. Marx eta Engels ditugu horren adibide klasikoak. Haien antzera, langile mugimenduko intelektual engaiatuak ideologo eta maisu gisa ziharduen; askotan berak erabakitzen zuen zer zen eztabaidagai eta nor zen gauza eztabaidan parte hartzeko.

Ildo horretatik, egokia da autore amerikarrek egiten duten kritika. Bada, gaur egungo mugimenduetan parte hartzen duten kultur-gileak hemeretzigarren mendeko “ideologoak” baino askoz ere mugatuago daude ustezko zuzendaritza eginkizunetan. Euren zeregin intelektuala berezituagoa da ezinbestean. Arestian ikusi dugun bezala, egungo gizarte mugimenduen oinarri soziodemografikoak kontuan hartuta, aktibisten heziketa mailari erreparatzen badiogu esan dezakegu gizarte mugimendu garaikideak “intelektualen mugimenduak” direla, alegia, kultura kapital handia metatzen duten gune sozial izugarri garrantzitsuak direla. Hartara, buruzagi hezien eta “mendeko eskolagabeen” artean behinola zegoen ustezko aldea gutxitu egin da gaur egun –desagertu ez bada egin– gizarte mugimendu berrietan.

Baina, ez deritzogu guztiz egokia kritikaren ondorioari. Planteamendu erabat elitistari beste muturreko ereduak kontrajari diote Eyermanek eta Jamisonek. Halatan, eurek proposaturiko ereduak, mugimenduen esparruari dagokionez behinik behin, baliabide kognitiboan banaketa guztiz berdinzalea dela ematen dute aditzera, hau da, mugimenduen esparruan gizaki orok dauzkala aukera berberak rol eta jarduera intelektualak burutzeko inolako mugarik gabe.

Maiz, gizabanakoen ahalmen sortzaileak eta eraikitzaileak nabarmendu nahian, paradigma konstruktibistek eta interakzionistek albo batera uzten dituzte esparru sozialean diharduten egiturazko hertsapenak. Izan ere, ikusmolde horietan gizakien gaitasun sortzailea jarri nahi da agerian. Eyermanek eta Jamisonek ere gizarte mugimenduetako

parte-hartzaileek euren jardunean eraikitzen duten gune kontzeptual eta kognitibo berrietan jartzen dute arreta. Azpimarratu nahi dute, bestalde, eraikuntza hori, ez dela soilik elite batzuen lanaren emaitza, ezpada parte-hartzaile guztiena, mugimenduaren jarduera multzoan era askotako gintza intelektualak burutzen baitira.

Azken urteotako soziologian indar handiz aldarrikatu da gizabanakoaren gaitasun sortzailea, alegia, agentziaren lehenetasuna egituraren aurrean. Halaz ere, nabarmendu nahi dugu zeharo desberdinak diren bi ideia nahasten direla hemen. Alde batetik, gizon-emakumeen izaera ontologikoari dagokion sorkuntza sinbolikorako gaitasuna ez da besterik gabe hezurramitzen edozein egoera sozial eta historikotan bizi diren gizabanakoaren baitan. Orain arte ikusi dugun bezala, gizaki bakoitzak bere baldintzapen sozialen arabera kultura kapital bat eskuratzen du. Kultura kapitalak eta habitusak ezartzen dituzte gizabanakoak garatu ahal dituen jarduera intelektualen mugak eta baldintzak. Beraz, gauza bat da ahalmen ontologikoa eta beste gauza bat da gizarte baldintzek berezko ahalmen horri ematen dioten moldea edo egokitzapena; azken hori habitusean hezurramitzen da.

Soziologian eta, oro har, gizarte zientzietan, agentziaren eta egituraren artean sortzen den etengabeko eztabaidak sormena eta determinazioa jartzen ditu aurrez aurre. Bien arteko tentsioa gizakia eta gizartearen kontrajartzen dituen oposizio berbera da. Nolanahi ere, gizartean bizi beharrik gizakiaren uestezko ahalmenak murriztu egiten ditu; zehazkiago esanda, ildo batzuetatik bideratzen ditu ahalmen horiek. Bestalde, auzi korapilatsu horretan nahasita dago menderatzearen arazoa. Izan ere, gizarteak ezartzen duen determinazioa garai eta une historiko jakin batean indarrean dagoen gizarte ordenarena izan ohi da; determinazio hori inkontziente modura jasotzen du gizakiak. Hartara, gizarte zientzietako paradigma subjektibistetan determinazio eta egiturazko hertsapen horiek baztertzen direnean, gizabanakoaren uestezko gaitasun sortzaileak soilik aintzat hartuz, gizartetik at dauden gizabanako ez-errealak irudikatzen dira: parte-hartzaile politiko idealak diren hiritarrak edo gaitasun intelektual uestez unibertsalak dauzkaten gizakiak, esaterako. Horrelakoetan, ordea, ezkutatu egiten dira gizarteko esparru berezikiak —esparru politikoak, kultura esparruak eta abar— eskatzen dituzten habitus landuak eta prestakuntzak. Hona hemen, adibide modura, hiritar gaituak behar duen prestakuntzari buruz (habitus politikoari buruz) Ariñok dioena:

“En la medida en que somos sujetos, somos seres capaces de acción, de producción y de reproducción y, por tanto, tenemos poder, en este sentido muy básico. ¿Del reconocimiento de esta constitución como sujetos podemos inferir que nuestra creatividad ontológica es un reto para el sistema dominante y el orden establecido? No, porque, en condiciones de modernidad, la gestión política de las sociedades está especializada, constituye un campo específico de acción, integrado por instituciones, movimientos y redes de relaciones específicas que se rigen por principios igualmente específicos. Para resistir al orden de la dominación es preciso actuar en ese campo o en referencia a ese campo” (Ariño, 1997: 210).

Ariñok esparru politikoari buruz adierazitako guztia esan daiteke kulturaren esparruari dagokionez ere. Paradigma subjektibistek ez dute zehazten zer nolako baldintza sozialak bete behar diren “berezko” giza gaitasunak burutu ahal daitezen. Bada, orain arte ikusi dugunez, gizartean era guztietako baliabide berezituak izan ohi dira urriak: baliabide ekonomikoak, politikoak nahiz kulturalak. Urritasunak sozialki baliotsu egiten ditu bitarteko horiek eta haien gizarte banaketa asimetrikoa eragiten du. Urritasun hori, jakina, ezin da modu kuantitatiboan ulertu, logika sozial baten barruan baizik. Esaterako, gaur egungo kulturaren esparruan ezagutza eta informazioa izugarri zabaldu dira, baina, ezagutza baliabideen eskurapen bereizgarriak sortzen eta birsortzen dira etengabe. Hartara, baliabide kulturalak modu bereizgarrian banaturik dauden gizarte ordena batean, ezin da pentsatu demokrazia kulturalik egon daitekeenik praktika kognitiboetan. Irizpide hori baliagarria da edozein gizarte esparrutan, baita gizarte mugimenduetan ere³⁶.

Egia da gizarte mugimenduak eskuarki eraketa molde horizontalak izaten dituztela eta, salbuespenak salbuespen, hierarkia sistema ahulak baliatzen dituztela antolakuntza moduetan. Bestalde, arestian esan bezala, parte-hartzaileen kultura maila ez da nolana hikoia izaten. Haatik, harremanen berdinketak eta giza baliabideen kultura trinkotasunak ez dakarte berez kultura parekidetasuna mugimenduen barnera. Heziketa maila jasoak ez du esan nahi partaide guztiek ahalmen intelektual berberak eduki behar dituztenik, are gutxiago, jarduera intelektual berezituak burutzeko gauza izango direnik. Kontuan hartu behar da, Beranduko Modernitateko sistema konplexuetan arazo sozialen formulazio eta ekoizpen tresnak sofistikatua eta berezituak direla zeharo. Gizarte mugimenduetan ezagutza berezituaren eskari

handia sortzen da, hain zuzen ere, mugimenduak arazo sozialen eraikuntza esparruak direlako euren interpretazio markoak sortzen dituztenean. Baina, lehia sinbolikoen testuinguruan, arazo publiko legitimoak eraikitzeko dauden zailtasunek agerian uzten dituzte prozesuaren oztupoak. Legitimitatearen gatazka irabazteko, gizarte mugimenduek ezinbestean daukate kulturgileen laguntzaren premia, egungo gizarteetan beste edozein erakundek irauteko daukan bezalaxe. Hartara, kulturgilea, aktibista nahiz profesional modura, ez da edozein parte-hartzaile gizarte mugimenduaren barruan, Eyermanek eta Jamisonen planteatzen duten bezala.

Bestalde, bat gatoz Estatu Batuetako autoreekin mugimendu baten praktika kognitiboa gauza konplexua dela onartzen dutenean. Hori horrela bada, era askotako jarduera intelektualak burutzen dira mugimenduen barnean: eguneroko zereginetan txertaturik dauden egintza kognitibo xumeenak nahiz lanketa sinboliko sofistikatuena barnean hartzen dira haien jardunean. Halatan, egintza batzuen eta besteen egileak ez dira berberak eta ez daukate aginte sinboliko maila berbera ere. Halaber, egintzen eragina ere ezin da parekoa izan mugimenduaren norabide estrategikoan. Nola jaso aniztasun hori muturreko eredu murriztaileak baztertzeko baditugu, alegia, kulturgileen ohiko eskema elitista, batetik, eta eskema interakzionista guztiz horizontala, bestetik, albo batera uzten baditugu?

3.3. Harremanezko ikuspegia gizarte mugimenduetako intelektualen azterketan: tradizio intelektualak mugimenduetan txertatuz

Gure ikusmoldean gizarte mugimenduek ez dute barne entitate homogeen eta berdintasunezkoa osatzen. Aldiz, harremanezko gune modura eratzen dira; hitz batean, esparrua eratzen dute. Mugimenduei buruzko azterketa askotan antolakuntzaren dimentsioa azpimarratu da. Hartara, ikusgaitasunari dagokionez, azterketa horietan mugimenduen osatutako erakundeak izan ohi dira esparruko osagarririk garrantzitsuenak. Luzaroan, mugimenduen antolakuntzaren ikuspegia gailendu da azterketa askotan; organizazioak izan dira analisisirako elementurik hurbilenak eta agerikoenak. Halarik ere, gure analisisian mugimenduen dimentsio sinbolikoa eta kognitiboa nabarmentzen ahalegintzen garenez, definiziorik ematekotan esango dugu, maila sakonago

batean, gizarte mugimenduak eragile anitzez osturiko gune kognitiboak direla, hots, askotariko gizaki, talde eta erakundeek eraikitzen dituzten esparru kontzeptualak eta intelektualak direla, eta horiek indarrean dauden errealitatearen definizioen ordezko markoak artikulatzen dituztela. Hartara, gizarte mugimenduak ezagutza ekoizle dira. Baliabide sinboliko asko sortzen eta mobilizatzen dute helburu hori erdiesteko, alegia, errealitatearen bestelako interpretazio markoak eraikitzeko. Baliabide horien artean, gizarte garatuetako lehia sinbolikoetan premiazkoak diren era guztietako kultur-gileak eta kultura bitartekoak daude.

Mugimenduaren nortasuna –behin-behinekoa betiere– esparruan parte hartzen duten eta elkarrekintzan dauden eragile eta erakundeen arteko gatazken eta tentsioen bitartez osatzen da, gune kontzeptual horren inguruan definizio bat baino gehiago egoten baita lehian maizenetan. Horrenbestez, mugimenduaren batasuna, lortzen denean, lehia horien emaitza izan ohi da, alegia, hainbat eragileren arteko behin-behineko adostasunaren ondorioa. Zenbaitetan, mugimenduan gailentzen den definizio nagusia besterik ez da publikoki ezagutzen, beste interpretazio batzuk mugimenduaren barnean isilduta geratzen baitira. Nolanahi ere, arrakasta daukanean, ideia, pentsamendu eta interpretazio marko berrien sorrera eta artikulazioaren bitartez definitzen da mugimendua gizartearen aurrean. Bestalde, ez da ahaztu behar mugimenduan arrakastatsu bilakatu den errealitate definizioa hala izan dela, behin baino gehiagotan, aukera politikorako egitura jakin bat (*political opportunity structure* delakoa) mesedegarri izan duelako.

Esparruaren kontzeptuak modu egokian uzten digu irudikatzen jarduera intelektuala eta kultur-gileen egoera aniztasuna gizarte mugimenduen barnean. Alde batetik asimetriak, hierarkiak eta desberdintasunak jasotzeko aukera ematen du, hartara, “intelektual elitista”/“ezjakin” eredu bipolarren eskema murriztaileak ipinitako muga estuak gainditzeko aukera ere. Bestetik, esparruaren kontzeptuak eragile guztien arteko harreman konplexuak, gatazka eta tentsioak behatzeko beta eskaintzen du. Hartara, mugimenduaren barnean kultur-gile bakoitzak daukan kokapenaren, kapitalaren eta kontsakrazio prozesuen berri ematen digu.

Illo horretatik, mugimenduetan dagoen ekoizpen kognitiboaren premia handia izaten denez, era askotako tradizio intelektualetan txeraturik dauden kultur-gileak parte hartzen dute gizarte mugimendu berrietan. Modu berean, mugimenduek molde askotako baliabide sin-

bolikoak erabiltzen dituzte euren jardun intelektualean. Gaur egun unibertsitateko kulturgilearen tradizioa, adituaren tradizioa, komunikatzailearen tradizioa eta mugimenduetan jaiotako intelektualarena bildu daitezke sortzen ari den gizarte mugimenduen jarduera intelektualean. Euren eragina zuzenean edo zeharkako ondorioetan jasotzen da.

Tradizio horiek, jakina, moldatu eta egokitu egin dira mugimenduen barneko eginkizunean. Kulturgilearen jokabidearentzat erreferente diren tradizio intelektualaren kontzeptuak barnean hartzen ditu bai kultura jarduerak eskatzen dituen berariazko gaitasun eta ezagutza teknikoak bai egintza politiko-kulturalen nagusi diren ereduak ere. Hartara, kulturgilearen egintza kulturalaren nahiz politikoaren testuinguru aldaketa gertatzen denean –gizarte mugimenduen testuinguru “soziopolitiko” dugu orain kulturgilearen agertoki berria– egoera horretatik tradizioaren egokitzapena ondorioztatzen da ezinbestean. Gizarte mugimendu berriak, hain zuzen ere, ohiko tradizio intelektualen birmoldaketaren testuinguruetako bat izan dira Beranduko Modernitatearen gizarteetan. Beste era batera adierazita, kulturgileek tradizio intelektualak birdefinitu eta aldatu dituzte euren interes berrien arabera eta, horrela, beste tradizio batzuei ateak ireki dizkiete gizarte mugimendu berrien barnean.

Zenbait azterketa enpirikok erakusten digu Mendebaldeko intelektualen kultura politikoak gizarte mugimendu berrien balioetatik gertu kokatzen dituela kulturgileak eta hurbiltasun horrek kulturgileen partaidetzarako joera bultzatzen duela. Partaidetza hori, askotan, buruzagitza roletan hezuramaitu da (Pinard, Hamilton, 1989)³⁷. Halaz ere, gizarte mugimenduetan parte hartzen duten intelektual guztiek ez dute jarduera kultural espliziturik betetzen; euren aktibismoa rol politiko soilera murrizten da batzuetan.

3.3.1. Akademikoak gizarte mugimenduetan

Mugimenduen esparruan rol kulturala betetzen duten kulturgileen artean, intelektual akademikoen eragina aipatu beharko genuke lehendabizi. Izan ere, akademikoek osatzen dute, bai modu kuantitatiboan bai kualitatiboan, talderik garrantzitsuena egungo kulturgileen artean. Kulturgile akademikoen itzala unibertsitateak eta bertan sortzen den ezagutza legitimoak gizartean daukaten nagusitasunetik ondorioztatzen da. Hala, unibertsitate esparruan biltzen dira egungo gizartearen iraupenerako oinarritzkoak diren era askotako jar-

duera intelektualak. Gizarte modernoaren birsorkuntzari lotutako zereginak unibertsitateak bereganatu ditu neurri handi batean, hala ezagutza eta kultura tradizioen transmisioa nola ikerkuntza zientifikoa; oro har, goi mailako ia ekoizpen sinboliko guztia haren barnean burutzen da gaur egun. Unibertsitateak prestatzen ditu kultura eliteak, eta kultura esparruan beharrezkoa den habitusaren eraikuntza hartzen du parte modu erabakigarrian.

Labur esanda, unibertsitatea boteregune bat da gizarte modernoaren osaketan. Horiek horrela, unibertsitateko akademikoen baliabide sinbolikoak, erantsita daukaten legitimitate balioa dela eta, eragin handikoak dira gizarte garaikideetan. Hartara, zilegitasuna erdiesteko lehian, kulturgile akademikoen premia larria sortzen da proiektu sinboliko orotan, baita gizarte mugimenduetan ere. Izatez, gizarte mugimenduen ezaugarri nagusia Beranduko Modernitatean indarrean dagoen gizarte ereduari erronka sinbolikoak ezartzea izan ohi da³⁸.

Kulturgile akademikoen parte-hartzea garrantzitsua izanik, ez da tentsiorik gabe burutzen mugimenduen barnean, mugimenduen ezagutza eskariek, sarritan, onartuta dauden kultura zilegitasunaren mugak gainditzen dituztelako. Dakigunez, kulturaren ekoizpena eta nortasunaren definizioa zeharo erabakigarriak dira gizarte mugimendu berrien osaketarako eta egintza kolektiborako. Kulturgileek programak, estrategiak eta jardueren interpretazioak egitean nortasun kolektibo horien eraikuntza laguntzen dute. Halaz ere, gizarte mugimenduek ordezkatzeko dituzten nortasunak eta aldarrikapenak ez dira beti aise onartzen gizartearen. Mugimenduek egiten dituzten errealitatearen definizioak behin baino gehiagotan gatazkatsuak izaten dira indarrean dagoen gizarte ordenarentzat. Are gehiago, mugimenduek eraturiko irudikapenak eta sortutako ezagutzak kultura legitimazioa daukaten erakundeetatik at geratzen dira maiz. Ezagutza berrien sorreran inplikaturiko kulturgileak gatazka horietan nahasirik egon ohi dira.

“Since the identities represented by these new social movements are not accepted by the society at large, many of the intellectuals who embark on the project of enunciating new collective representations operate outside the established institutions of cultural legitimation. In identity politics, as in nationalism, there is a strong emphasis on inventing a new language, a new vocabulary, and defining new bodies of knowledge. These new languages and knowledges are developed in order to replace the institutionalized forms of knowledge that oppress certain communities or social groups. And it

is by this means that identity politics provides social and symbolic resources for individuals to articulate the link between self-knowledge and the formation of social identities” (Escoffier, 1995: 21).

Mugimenduek egintza kolektiboa bultzatzeko izaten duten aukera ezagutza berrien eraikuntzaren mende egon ohi da. Premia horrek maiz unibertsitatean sortzen diren ezagutza molde batzuen kritika eragin du mugimenduen barnean. Gizarte mugimenduen eta unibertsitatearen arteko tentsioek era askotako adierazpenak izan dituzte: kultur gile “legitimoen” eta mugimenduetan sortutako intelektuaren arteko ezatabaidak zenbaitetan, edo akademiako kultur gile nagusien eta mendekoen artekoak, beste zenbaitetan. Mugimenduen esparruetan gertatzen diren lehia sinboliko horiek gatazka kognitiboak eta politikoak dira aldi berean.

“While the validity (what might be called “the truth effect”, in Foucault’s terms) of knowledge is certainly one of the key concerns of both scholars and political activists, one fundamental issue typically dividing activist intellectuals from those in the university is the political effects (or “power effects”, for Foucault) of different forms of knowledge that are relevant (or potentially relevant) in the understanding and representation of those communities, movements, or political issues. By the power effects of different forms of knowledge I mean not only the impact of the legitimacy and validity of that knowledge in the social and political development of those communities or movements, but also their effects on the political and intellectual leadership of the movements and their strategic implications. The power effects of knowledge are important because they confer authority –different forms of knowledge legitimate different activities– on those who use that knowledge in their representations and interpretations of the communities, movements, or issues in the course of political or social life” (Escoffier, 1995: 22).

Mugimenduen eta haien aurkarien artean ezagutza lehia modura irudikatzen diren borroka politikoetan, zenbaitetan unibertsitateko kultur gileak izan ohi dira protagonista eta beste zenbaitetan mugimenduan sortutako kultur gileak. Baina, bi kategorien legitimitatea eta kultura agintaritzaz eskuarki ez dira maila berekoak izaten gizartean. Bestalde, unibertsitateko kultur gileen eta mugimenduetan sortutako intelektuaren arteko tentsioak mugimenduaren barruan ere gertatu daitezke, batzuen eta besteen interesak ez baitira berdinak izaten. Erabiltzen dituzten baliabide kognitiboak, besteak beste, ez dira maila

berekoak. Desberdintasuna kokapen sozialean eta baliabide materialak eskuratzeko ahalmen bereizgarrian ere islatzen da. Akademikoeak, aktibistek ez bezala, segurtasun materiala izaten dute gehienetan, eta unibertsitateko pribilegioak gozatzeko aukera paregabea.

Halarik ere, badira gizarte mugimenduetan partaide diren akademikoak, alegia, euren ezagutza berezituak baliatuta mugimenduen praxi kognitiboaren eraketan parte hartzen duten unibertsitate intelektualak. Gizarte mugimenduen ezagutza alorretan lan egiten duten kultur-gile akademikoeak maiz mendeko kokapena izan ohi dute unibertsitate esparruan eta ikerketa erakundeetan. Izan ere, mugimenduen interesei itsatsitako ezagutza alorrek ez dira ospe handikoak izaten akademiaren esparruan –batik bat, mugimenduak instituzionalizatuta ez daudenean edo indar politikorik irabazten ez duten bitartean–. Mugimenduek euren hastapenetan sortutako marko kognitiboek zalantzatan ipintzen dituzte gizartean nagusi diren definizio sozialak eta, aldi berean, kolokan jartzen dituzte ezagutza legitimoen oinarriak. Ondorioz, mugimenduen barnean betiko ezagutzen berrikuspina eta bestelako ezagutzen premia aldarrikatzen da marko horiek eraikitzeko. Betiko ezagutzak berrikustea eta ezagutza berriak mundu akademikoan integratzea lan nekeza izaten da. Integrazioa, egin ahal denean, unibertsitate esparruaren bazterretan hasten da, hau da, gunerik ahulenetan, eta akademiako eragilerik ahulenek bultzatzen dute. Hartara, ohikoak izaten dira akademiko nagusien eta kultur-gile engeiatuen arteko hierarkia desberdintasunak bai kultura erakunde legitimoetan –unibertsitateetan, ikerketa erakundeetan– bai gizartean. Gizarte mugimenduen ezagutza eskariei erantzuten dieten kultur-gile akademikoeak, beraz, ez dira unibertsitate esparruko diziplina eta erakunde botereguneetan egoten. Aitzitik, gune garrantzitsuetatik urrun kokatu ohi dira esparru intelektualari dagokionez.

Dakigunez, kultur-gileek kultura esparruan daukaten kokapenaren arabera garatzen dituzte kultur-gile gisa dauzkaten oinarritzko disposizio kognitiboak eta interesak, baita intelektual modura lantzen dituzten konpromisoak ere. Bada, posizio horrek baldintzatzen du euren habitusa –kokapenak munduko esperientzia aztertzeke interpretazio tresna batzuk eskaintzen dizkie–, bai eta kultura boterea ere. Kokapen horren ondorioz unibertsitatean oinarritutako ezagutzari eskaintzen zaion balio soziala eta mugimendu intelektualek sortutakoari eskaintzen zaiona ez dira mota berekoak izaten. Orobat, batari eta besteari bestelako kultura-agintaritza mailak onartzen zaizkio.

Kapital sinboliko desberdintasun horiek, jakina, botere eraginak dauzkate.

Mugimendu intelektualak ezagutzaren ekoizpenean konprometiturik daude mugimenduaren barneko elkartasuna erdiesteko proiektuan. Aldiz, intelektual akademikoak kultura legitimitatearen sorkuntzan konprometiturik daude; legitimitate hori unibertsitateak onetsi behar du, berari baitagokio gizarteko agintaritza intelektualak. Batzuek mugimenduaren komunitatearen agintaritza karismatikoa daukate, hots, agintaritza politikoagoa. Besteek, berriz, unibertsitatearen agintaritza epistemikoaren jabetza izan ohi dute. Halaz ere, bi intelektual ereduak uztartu egiten dira zenbait kasutan: hain zuzen ere, mugimenduan jasotako prestakuntza –eta kapital politikoa– akademiara iristeko lorbide denean kulturgileentzat.

Dena den, mugimendu intelektualek, kanpoko kontsakraziorik ezean, ez dute zilegitasun handirik izaten euren mugimendu testuinguruetatik at. Mugimenduarekin batera sortu diren intelektualak izan ohi dira, nahiz eta talde horretako kideen artean desberdintasun handiak egoten diren: mugimendu intelektualak eguneroko jarduera politikoan eta sozialean ideiak eta praktikak ezagutza multzo batean uztartzen jardun duten kazetariak, artistak edo aktibista xumeak izan ahal dira. Euren artean lan tekniko zehatza burutzen duten adituak nabarmentzen dira zenbaitetan, horiek ere ezagutza baliotsuak metatzen baitituzte mugimenduaren eraikuntzan. Edonola ere, baliabide politiko eta karismatiko garrantzitsuak dauzkate mugimenduaren jardunean metatuta.

Aintzatespen sozial maila handiagokoak dira mugimenduekin lotura daukaten unibertsitateko kulturgileak. Alta, adierazi den bezala, gizarteari begira baliabide sinboliko garrantzitsuagoen jabe diren arren, eskuarki mendeko lekua daukate unibertsitate esparruan. Hartara, zailtasunak izan ohi dituzte mugimenduen interes kognitiboak kultura erakunde nagusien ikerketa eta irakaskuntzaren alor legitimoetan ezartzeko. Aldi berean, behartuta daude kultura legitimoaren arauak beteko dituen lana egitera. Horrenbestez, unibertsitate esparruan lan egiteko bizitza akademikoaren eskariak eta euren konpromiso sozialak eta politikoak bateragarri egiten ahalegindu behar dute, euren lanaren sinesgarritasun intelektualak bermatu nahi badute.

Azken kulturgile horiek unibertso akademikoan daukaten egoera ahula gizarte mugimenduetan metaturiko kapital politikorekin orekatu dezakete hainbatetan. Kulturgileek jasotzen duten onespena,

jakina, ez dator beti berdinen aldetik. Orain arte ikusi dugun bezala, zenbait egoeretan, sozialki irabazitako aintzatespena beste testuinguru instituzional batzuetan erabili daiteke kapital politiko modura. Azken urteetan, esaterako, ohikoak izan dira bi norabidetan egindako transferentziak. Batetik, tradizio akademiko-zientifikotik datozen intelektual kontsokratuek, kultura kapital indartsua metatu ondoren, agintaritze sinboliko handia erdietsi dute gizartean. Ondorioz, mugimenduetan parte hartzean, haiei helarazi diete eskuratutako legitimitatea mugimenduek euren eskariak zilegi egin ditzaten. Bestetik, gizarte mugimenduen garapenaren ostean ezagutza esparru berriak integratu dira unibertsitateko ikasketetan eta ikerkuntza programetan. Beraz, akademiaren barruan “bazterrekoak” ziren kulturgile eta diziplina akademiko batzuen egoera hobetu egin da, mugimenduetan irabazitako kapital politikoari esker kontsokratuta geratu baitira³⁹. Ildo horretatik, ezagutza berrien sorgune izateaz gain, kulturgileen kontsakrazio esparru bilakatu dira gaur egun gizartean indartu eta instituzionalizatu diren gizarte mugimenduak, hots, mugimendu “arrakastatsuak”.

3.3.2. Adituak gizarte mugimenduetan

Zenbait kulturgile akademikoren kontsakrazioa ez ezik beste tradizio intelektual batzuen ere gertatzen da gizarte mugimenduen jardueran. Esan dugunez, adituen tradizioa eta komunikatzaileena modu estuan daude mugimenduen eginkizunei loturik. Izan ere, bi jarduerak txertatzen dira gaur egungo gizarteetan burututako egintza orok eskatzen dituen premia teknikoan koordenatuetan: komunikazio publikoa eta jakintza berezituak. Horrela, mugimendu intelektual asko bi tradizio horien inguruan eratzen dira batik bat.

Komunikatzailearen eta adituaren tradizioak, tradizio akademikoa ez bezala, mugimenduaren barne aktibismoari atxikirik daude; ildo horretatik, kutsu politikoa ematen diote kulturgileari. Kultura legitimazioari dagokionez ere, batzuen eta besteen egoera zeharo desberdina da. Definizio klasikoetan adierazten denez, adituak zeregintzat dauka beste batzuek –agintariek, boteredunek– erabakitako egitasmoetan bildutako helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean lantzea eta moldatzea. Eskuarki lanketa horretan sorkuntzari uzten zaion lekua murrizta da oso. Hartara, adituaren edo teknikariaren eginkizunean kulturaren berezko irizpideek garrantzia galtzen dute,

lan adituaren oinarrian goi mailako ezagutzaren eta kultura baliabideen erabilera txertaturik dagoen arren. Halatan, bere jakintzan funtsatutako argibideak eskatzen zaizkio adituari, botere esparruetan eta zuzendaritzan adierazitako ildo zehatzak bultzatuz.

Gizarte mugimendu berrien eraketari buruz egin diren zenbait deskribapen idealistari jarraituko bagenio, esan beharko genuke gizarte mugimenduetan dauden kulturgileak ezin direla erakunde politikoentzat lan egiten duten adituekin parekatu, mugimendurik gehienak ez baitira eredu hierarkikoa eta zuzendaritza egituratua daukaten erakunde formalak eta burokratikoak⁴⁰. Baieztapen horiek, haatik, zehaztasunak eskatzen dituzte gaur egun. Alde batetik, mugimenduaren kontzeptuak jariatortasunaren ideia darama itsatsita bere definizioan, baina, bestetik, mugimendu erreala, denbora igaro ahala, sorrera unearen ostean, instituzionalizazio maila jakinetara iristen dira euren bilakabidean. Horrela, gaur egun mugimendu gisa ezagutzen diren entitate batzuek enpresa egiturak dauzkate euren eraketan, eta eredu burokratikoak baliatzen dituzte antolaketan eta kudeaketan⁴¹. Horrek ez du esan nahi ezinbestean erakundea eta mugimendua gauza bera direnik. Mugimendu bat era askotako erakundez osaturik egon daiteke. Bestalde, mugimendu bakoitzak instituzionalizazio maila jakin bat erdiesten du bere ibilbidearen faseetan.

Osterantzean ere, esparru kognitibo modura hartuta, gizarte mugimenduetan dauden adituen tradizioak eta tradizio akademikoak bereizita agertzen dira. Behin baino gehiagotan, aurrez aurre kokatuta daude jardura intelektualari dagokionez. Izan ere, tradizio akademikotik datozten kulturgileek autonomia handiagoa daukate mugimenduei buruz. Aldiz, adituak, mugimendu aktibistak izan ohi dira zentzu hertsia goan. Akademikoen lan intelektualean, gizartean nagusi den kultura legitimitatea gailentzen da beste interes batzuen gainetik. Adituen ezagutza interesak, ordea, mugimenduen interes estrategikoei loturik daude modu estuan.

Halatan, “mugimendu intelektualak” deitu ditugun horiek –kulturale gisa gizarte mugimenduen barnean sortu diren kultura eragileak– gehienetan aditu gisa jarduten dute mugimenduaren erakundeetan, haren ildo estrategikoak lantzen eta betearazten. Horretarako, maiz, intelektual akademikoengandik jasotako oinarri teorikoak itzuli eta moldatzen dituzte, eta mugimenduaren premia eta aukera politikoetara egokitzen dituzte. Beste era batera adierazita, adituen itzulpen lanari esker, zientzia eta pentsamendua “kultura” –sen oneko

ezagutza– bilakatzen da mugimenduaren barruan. Horrela, kulturgile batzuek sortutako teoria praktikan hezurmamituta aurkitzen dugu mugimendu jardueran. Ildo horretan, adituak kultura dibulgatzaile garrantzitsuak dira gizarte mugimenduen testuinguruan, ez soilik maila teorikoan baita praktika sozialen arloan ere.

Ezin dugu ahaztu gizarte mugimenduak kultura kodeak eta gizarte praktikak aldatzeko laborategi sozialak direla Beranduko Modernitateko gizarteetan. Gizarte garaikideetako menderatze eta kontrol molde berriak eguneroko gizarte praktiketan txertaturik daude –gizakien habitus inkontzienteetan–. Laborategi horietan bestelako harreman eta kultura ereduak proposatu ez ezik esperimentatu ere egiten dira. Mugimenduetako adituek eskuragarri diren material kognitibo guztiak moldatu eta antolatu behar dituzte euren helburu dibulgatzaileak –eta estrategikoak– praxi gune horretan ezagutu eta gauzatu ere egin daitezten.

Definizioz, dibulgazio prozesuak jakintsuen eta ezjakinen arteko haustura kulturala gainditu ahal izateko jartzen dira abian (Roqueplo, 1983: 43-44). Hartara, maila ideal batean, dibulgazioari –eta bere eragileei– zientziaren eta ezjakinen arteko bitartekaritza funtzioa egin izana esleitu zaio zenbait planteamendutan (Roqueplo, 1983; Jacobi, 1986; Schiele, Jacobi, 1988; Beaune, 1988; Albertini, Béliste, 1988)⁴². Baina, benetan, dibulgazioak beti eragiten du aldaketaren bat hasierako mezuan. Irudikapen sistemen bitartez, dibulgazioak sen oneko munduarekin harremanetan jartzen du ezagutza berezitua. Zehazkiago adierazita, dibulgazioak egintzan integratzen du diskurtso zientifikoa edo intelektualek adierazitako pentsamendua. Prozesu horretan adituaren, teknikariaren, kultura “itzultzailearen” edo dibulgatzailearen lana txertatzen da. Itzulpen kognitibo hori guztia gizarteko toki askotan burutzen da gaur egungo gizarteetan, modu formal zein informal batean. Mugimenduen esparruan ere gauzatzen da etengabe, gizarte mugimenduek beraien interpretazio marko alternatiboak zientifikoki edo intelektualki oinarritzen dituztenean eta, marko horiek eraginda, praktika sozialen eraldaketa proposatzen dutenean.

Gizarte mugimenduen barruan egiten den ezagutzaren sorkuntza eta ondorengo dibulgazio lana egintza indibiduala eta kolektiboa zuzentzera bideratuta dago, baita gizakien barneko mapa kognitiboa aldatzera ere. Azken buruan, gizartearen benetako aldaketa politikoez mintzo garenean, sakoneko aldaketez, aldaketa kognitiboez eta habitus aldaketaz ari gara. Iraultza sinbolikoen azpiegituran horrelako eral-

daketa ereduak daude funtsean. Hartara, euren dibulgazio eginkizunetan teoria eta praktika uztartzeaz arduratzen direnez, mugimenduetako adituek eragin zuzena daukate mugimenduek bultzatzen duten gizarte praktiken aldatketan.

Beraz, mugimendu adituek bai unibertsitateetan eta bai kultura legitimoaren beste erakunde batzuetan sortutako proposamen teorikoen dibulgazioak eta egokitzapen estrategikoak egin behar izaten dituzte mugimenduen esparruan. Baina, eskuarki zaila izaten da bateragarri egitea ezagutza legitimoaren interesak –kulturgile legitimoen interesak– eta mugimenduen ezagutza interesak. Izan ere, proposamen teorikoak eta mugimenduaren eguneroko interes politikoak edo premia praktikoak ez dira bide beretik joaten. Mugimenduetako adituek, hain zuzen ere, azken horiei eman behar diete erantzuna. Horrela, ezagutza legitimoaren egokitzapenak burutzean tentsioak sortzen dira behin baino gehiagotan, batzuen lanketa teorikoak “desitxuraturik” hedatzen baitira mugimenduaren barnean dibulgazio interesen nahiz interes estrategikoen ondorioz. Hartara, teoriatik egingtzarako bidea, dibulgazioa tartean dela, ez da, zenbait intelektualek uste izan duen bezala, bide zuzena eta oztoporik gabekoa izaten. Hainbat intelektualen proposamenak, lanketak eta profeziak, oinarri zientifiko “zuzena” izanda ere, interpretatu eta egokitu egiten dira mugimenduen jarduera kognitiboan, eguneroko egintza politikoaren premiek hala eskatzen dutenean. Beraz, beste agertoki historiko batzuetan jazo diren bezalaxe, gizarte mugimendu berrien testuinguruan ere gerta litezke –eta gertatu gertatzen dira– borondate oneko kulturgile engaiatuak hainbeste atsekabetzen dituzten “traizioak”.

Oro har, ikusten ari gara denetariko tradizio kognitibo eta kulturalak biltzen dituzten esparru kognitibo gisa gizarte mugimenduek era askotako ezagutza sortzen eta egokitzen dutela etengabe euren ohiko jardueran. Alde batetik, sen oneko ezagutza eraldatzen dute, eta modu gero eta “profesionalagoan” sortzen dituzte ezagutza berezituak eguneroko premia praktikoei erantzuteko. Bestalde, kultura legitimoaren erakundeetan sortutako ezagutzak baliatzen dituzte –baita erakunde horietako kulturgileen laguntza ere–. Ezagutza horiek, jakina, mugimenduaren gizarte praktika berriak legitimatzeko egokitzen dituzte, kultura bihurtzeko asmoarekin. Aldi berean, euren ezagutza interesak direla eta, jakintza alor berrien eskaria eragiten dute unibertsitateetan eta ikerketa erakundeetan (Cramer, Eyerman, Jamison, 1987). Hartara, praktikan, gizarteko beste esparru batzuetan bereizirik

agertzen diren era askotako ezagutza ereduak sortzen eta konbinatzen dira mugimenduen barnean. Are gehiago, gizarte mugimenduetan ezagutza eta egintza uztarturik azaltzen dira beste gizarte eremu batzuetan baino askoz ere modu nabarmenagoan eta kontzienteagoan. Horregatik, Beranduko Modernitateko erreflexibitate ezaugarriak beste inon baino argiago adierazten dira mugimenduetan: haien barruan ezagutza egintza da; areago, ezagutza politika da, modu bereiztezinean. Beraz, mugimendu intelektualek –bereziki mugimenduko aktibistak diren adituek– rol kultural eta politiko garrantzitsua daukate oso.

Esan dugun bezala, mugimendu intelektualak, hau da, mugimenduekin batera kulturgile modura sortu diren eragileak mugimenduen erakundeen profesionalak izaten dira, hein handi batean. Halatan, mugimendua instituzionalizatu den neurrian garatutako adituak izan ohi dira gehienetan mugimendu intelektualak. Bada, mugimenduetan parte hartu duten kulturgileen eredu mugimenduaren bilakabide fasearen arabera aldatu da maiz. Horrela, mugimenduaren hastapenetan, haren nortasun oinarriak eta interes kognitiboak ondo zehaztu barik daudenean, kultura erakunde legitimoetako kulturgileen laguntza baliatzen duten jarduera intelektualak bultzatzen dituzte eskuarki mugimenduek. Kulturgile horien zeregina –kritiko sozial gisa– sortzen ari diren protesten interpretazio markoak diseinatzea eta zabaltzea izan ohi da, eta haiek esanahi egitura zabalagoetan kokatzea.

Denbora igaro ahala mugimenduaren nortasuna sendotu egin daiteke. Litekeena da erakunde berriak sortzea haren barnean. Horrelakoetan, mugimenduaren eta intelektualen arteko harremanak erro-errotik aldatzen dira. Erakunde berrien premiek bestelako kulturgileen eskaria eragiten dute. Azken horiek ez dute zerikusirik esparruko testuinguru ofizialetan kultura legitimitatea bereganatzen duten eragileekin, akademikoekin esaterako. Aitzitik, mugimenduen barne profesionalizazioak eta burokratizazioak bere adituen eta teknikarien prestakuntza dakar, are berezituagoa zenbat eta formalagoa eta eraginkorragoa izan erakundea bere helburuetan.

Halaz ere, mugimendu intelektual gisa diharduten adituak ez dira ezinbestean betirako gelditzen mugimenduari atxikitako kulturgile “organiko” modura. Mugimenduen barnean sortutako kulturgile horiek, maiz, kultura esparruan finkatuago dauden testuinguru intelektualetan bilatzen dute legitimitatea mugimenduetan aritu ondoren: unibertsitatean, hedabideetan eta enpresetan, besteak beste. Horrela,

mugimenduaren gune kognitiboa utzi ondoren, mugimenduan metatutako kapitalari jarraipena eman ahal dioten bestelako nortasun profesionalak garatzeko esparru egokiak bilatzen dituzte. Horrek erakusten du gizarte mugimenduak ezagutza esparru berriak sortzeko eta rol intelektual berriak eraikitzeko gune egokiak direla zenbait baldintzatan.

3.4. Ezagutza eta egintza: kultura eta politika gizarte mugimenduetan

“Una de las dificultades de la lucha política de hoy estriba en que los dominantes, tecnócratas o epistemócratas de derecha o izquierda, se han confabulado con la razón y lo universal: nos dirigimos hacia universos en los que cada vez serán más necesarias las justificaciones técnicas, racionales, para dominar y en los que los dominados, a su vez, podrán y cada vez más tendrán que emplear la razón para defenderse contra la dominación, puesto que los dominantes tendrán que invocar cada vez más la razón y la ciencia para ejercer su dominación” (Bourdieu, 1997a: 158).

“Más que en ningún otro momento anterior, nuestra sociedad es una “sociedad del conocimiento”, en la que lo específico es su crecimiento exponencial a través de procesos de investigación sistemática que se emprenden por primera vez con una tecnología intelectual ad hoc (esto es, no sólo con la metodología científica apropiada, sino con la coordinación, codificación y difusión necesarias para su inmediata multiplicación) (...) La investigación científica es una actividad social vinculada al desarrollo económico, que renueva constantemente las técnicas disponibles para la totalidad de las actividades humanas” (Beltrán, 2004: 80, 81).

Mugimenduetako adituez jardun dugunean ikusi dugu zein modu trinkoan elkartu diren gizarte mugimenduen barnean aktibismoarako edo egintzarako grina eta ezagutzaren erabilerrako premia. Ezagutzaren eta egintzaren arteko bereizketa fenomeno guztiz moderno dugu; bere funtsa *res cogitans* eta *res extensa* dualismo cartesiarrean dago. Ikuspegi modernoaren arabera, egintza portaera ikusgarria da, alegia, gauza baten parekoa. Hartara, egintza objektibatu eta behatu egin daitekeen zerbait dugu. Aldiz, oposizio horri jarraitzen badiogu, ezagutza egintzaren atzean dagoen buru ariketa besterik ez da (Melucci, 2001: 33).

Halaz ere, aipatu dugun binomio hori ez da hain argia Beranduko Modernitateko gizarteetan, alegia, ezagutzaren gizarte eredutzat hartzen diren horietan. Ezagutza, testuinguru horretan, beste egintza baten antzera planteatzen da. Izatez, dagoeneko ez dago ezagutzarik gabeko egintzarik ezta egintzarik eskatzen ez duen ezagutzarik ere. Hizkuntza kontzeptualari dagokionez ezagutza/egintza eskema dualistaren bitartez hitz egitera behartuta bagaude ere, praktikan ezagutza egintza bihurtu da, eta egintza bera ezagutzaz hornituta dago. Bada, gaur egun, behin eta berriro bere barnean eragiten duen gizarte sistema batean gaude; sistema horretan dagoen ezagutza orok dauzka ondorioak sisteman, halako moldez non, egintza bakoitzak ezagutza maila gero eta handiagoak hartzen dituen barnean. Halatan, ezagutza egintzaren zirkuituan –egintza sozialen nahiz indibidualen zirkuituan– sartu da modu iraunkorrean, eta hura aldatu du; aldi berean, egintzak ere ezagutza aldatu du, eta gurpil erreflexiboaren etengabeko jira-bira bultzatu du.

Zirkularitate hori gizarte praktika garaikide guztietan txertatuta ikusten dugu. Hain zuzen ere, gaur egungo gizarteetan mugimendu sozial berriak ezagutza eta egintzaren uztarduraren eredurik adierazgarrietakoak direlakoan gaude. Gizarte mugimenduen esparruan era askotako gizarte eragileek egintzara –eta zehazki, gizarte aldaketara– zuzendurik dauden errealitatearen interpretazio markoak eraikitzen dituzte. Horretarako, baliabide kognitibo garrantzitsuak baliatzen dituzte. Ildo berean, mugimendu esparruan tradizio askotako kultur-gileak –unibertsitate akademikoak, adituak eta mugimenduetan sortutako berariazko intelektualak– gizartearen eskuragarri diren ezagutzak moldatzen eta erabiltzen ahalegintzen dira mugimenduen alde. Horrela, ezagutza zientifikoak, ezagutza berezituak eta sen oneko ezagutza jorratuz, mundu ikusmolde alternatiboak sortzeko oinarri sinbolikoak lantzen dituzte, mugimenduek gizartearen ahalik eta legitimazio handiena lor dezaten. Izan ere, zenbat eta baliabide kognitibo aintzatetsiagoak eta landuagoak erabili gizarte definizioetan hainbat eta aukera gehiago izan ohi dute mugimenduek lehia sinbolikoetan definizio sozial arrakastatsuak erdiesteko eta sen oneko ezagutza gizartearen hedatzeko. Era berean, zenbat eta handiagoa izan eraikuntza sinbolikoan parte hartzen duten kultur-gileen ospea eta kontsakrazioa hainbat eta balio handiagoa eransten zaie euren lanei eta, ondorioz, mugimenduek berenganatzen duten sinesgarritasun sozialaren mailari.

Kultur-gileen lan kognitiboa eta mugimenduen egintza politikoa ezin dira bata bestea gabe ulertu gaur egun. Mugimenduek burutzen

dituzten mobilizazioek eta egintzek erabakiak, intentzioak, orientazioak eta esanahiak hartzen dituzte barnean; horien guztien artean, euren balio sinbolikoagatik, eragin handia izan ohi dute kulturgileek egindako ekarpenek, kulturgileen jatorrizko lanketak multzo horretan itzulita, moldatuta eta itxuraldatuta agertzen badira ere. Halaber, mugimenduek buruturiko egintzak kulturgileen aztergai bilakatu dira ezagutzaren gizaratean. Ikusten dugunez, horrelako gogoeta erreflexiboek berriz ere hasiera ematen diote ezagutza/egintza prozesuari. Azken urrats horren lekuko izan dira gizarte mugimenduei buruz aspaldi honetan sortu den azterketa multzoa eta literatura oparoa.

Lehengo harira itzuliz, gure gizarateetan paradoxa handia gertatzen ari da: gizarte harreman guztiak ezagutza berezituak harreman horiei buruz egindako irudikapenez elikatzen dira⁴³. Egungo sozialitatea gero eta gehiago berreraikitzen da egintzaren bitartez; errealitate hori areagotu egin da etengabe bere barnean jokatzeko ari den gizaratean. Gizarte mugimenduak ez dira salbuespena atzeraelikaduran oinarritutako sistema horretan. Pentsa dezagun, adibidez, mugimendu askotan gizarte zientziak –jakintza espezifikotzat hartuta– erabiltzen dituztela baliabide gisa, batzuetan modu murriztailean bada ere. Gizarte zientziek sortzen dituzten ezagutza molde berezituak gero eta integratuago daude era guztietako egintza, proiektu eta gizarte harremanetan, harreman sozialak gaur egun jakintza horietaz elikatzen baitira. Agian mugimenduek ez dituzte beti jakintza guztiz akademikoak baliatzen. Baina, egungo mugimendu gehienek jardunek gutxienek jakintza aplikatuetara jotzen dute. Horrela, jakintza tekniko zenbaiten laguntzarekin osatzen dira mugimenduaren interpretazio markoak; marko kognitibo horiek mugimenduaren nortasuna eraikitzen dute aherioen aurrean, mugimenduaren mundu ikusmoldea ezagutarazten dute eta egintzarako oinarriak jartzen dituzte. Eskuarki, mugimenduek gizarte harremanen irudikapen jakin batzuk plazaratzen dituzte, indarrean daudenekin bat ez datozen irudikapenak, alegia. Ikusi dugun moduan, hainbat erakunde eta tradizioetan jatorria duten era askotako kultur-gileak eta adituak arduratzen dira jakintza berriak moldatzeaz eta dibulgatzeaz. Prozesu horretan, euren ohiko rolak birdefinitzen dituzte, eta baldintza berrietara egokitzen dute intelektualaren eginkizuna bera.

Zenbaitetan, mugimenduaren parte-hartzaileen mobilizazioaren bitartez ezagutza sozial berriak praktika sozialetan txertatzen dira. Izan ere, mugimenduak laborategi sozialak izan ohi dira bestelako habitus

sozialak sortzeko. Praktika sozialak gizarte zabalera hedatzen direnean aldaketa sozialak jar daitezke martxan. –Halaz ere, aldaketa prozesu horiek oso motelak izaten dira–. Azken urteotan, ezagutzaren eta egintzaren arteko uztarduraren adibide franko daukagu. Teoria feministak, esaterako, emakumearen aldeko mugimenduak legitimatu ditu, soziolinguistikak oinarri kognitiboak eskaini dizkie hizkuntzak berreskuratzeko sortutako mugimenduei, eta bai biologiak eta bai ingurumenaren zientziek gizarte mugimendu ekologistetako egintza markoak elikatu dituzte. Mugimenduen dibulgazioaren eraginez, jakintza horien atal batzuk kontzientzia sozialean ainguratu dira –sen oneko ezagutzan– eta praktika sozialak aldatzera iritsi dira.

Gizarte garaikidea –honetan bat dator gaur egungo soziologo asko– ezin da dagoeneko bizi bere barnean ezarritako erreflexibitate maila handi bat aplikatzen ez bada. Hartara, behartuta dago etengabe berari buruzko irudikapenen ekoizpen sistema bat zirkulazioan jartzen. Ezagutzaren gizartean ekoizpen hori ezin da burutu agintaritzak kulturala daukan eragilerik gabe, alegia, kulturgilerik gabe. Kulturak elikatzen du egintza eta egintzaren ondorioak nabarmenak dira kulturaren. Halaber, ondorio horien etengabeko azterketa eta aurreikuspena egitea dagokio gaur egungo kultura erreflexiboari –Modu paradoxikoan, arriskua eta ziurtasunik eza nagusi diren gizartean, izan daitezkeen ondorioen etengabeko aurreikuspenari eta azterketari ekin zaie. Horren eraginez, zientziaren inplikazio gero eta handiagoa gertatu da erabaki politikoetan (López Cerezo, Luján, 2000: 103-105)–. Kulturgileak eta adituak, euren estatusa devaluatu egin bada ere⁴⁴, ezagutzaren ekoizpen-makineria horren egile nagusiak dira.

Ezagutzaren inplikazioak gizakien eguneroko egintzetan ondorio zuzenak dauzka aktore sozial indibidualen zein kolektiboen osaketan. Izan ere, aktore sozial horien jarduna askoz ere razionalagoa eta erreflexiboagoa da gure gizarteetan gizarte tradizioaletan baino. Ezagutzaren gizartea deritzan horretan sozialki jarduteko beharrezkoa den ezagutza multzoa gero eta handiagoa da gizarte eragileentzat. Sistema sozial eta teknikoei buruzko informazio zehatza eduki behar da gizartean aritzeko eta hori prestakuntza formal luze batez baino ez da eskuratzen. Horiek horrela, ezagutza zientifikoaren logikak sen oneko ezagutza inbaditu du eta, helburua zeinahi izanda ere –helburu altruistak, gizarte aldaketara edo iraultzara zuzenduak esaterako–, baliabiderik ahaltsuenak erabiltzen dira, baita razionalki erabili ere, hura lortzeko. Botere menderatzaileek nahiz haien aurka ari diren

mendeko aktore sozialek dihardute ezagutzaren eta arrazoiares tresnak baliatuz. Egungo gizarte mugimendu berrien egintza ereduetao bat bete-betea egokitzea Lamo de Espinosa deskribatzen dituen razionaltasun eta erreflexibitate molde horiei, nahiz eta egintza razionala ez den mugimenduek burutzen duten bakarra:

“Nos encontramos con actores notablemente sofisticados, críticos y reflexivos que, lejos de moverse por creencia íntimas o adhesiones antiguas, desarrollan sus objetivos vitales siendo muy conscientes del poderoso entorno social que controla sus vidas (...) La lógica de la ciencia es ya la lógica del sentido común porque los actores son crecientemente racionales (...) Es un actor racional, crítico, autocrítico y reflexivo, que analiza de forma sistemática su entorno y sus propias alternativas de conducta y persigue, por supuesto, maximizar sus beneficios, sean éstos riqueza, poder, prestigio o la revolución, la preservación del medio ambiente, la reivindicación de minorías o cualquier otro objetivo, pues es evidente que la conducta racional puede aplicarse a los objetivos egoístas pero también a los más altruistas” (Lamo de Espinosa, 1996: 145, 146).

Gizarte mugimenduen barnea ezagutzak eta egintzak daukaten uztardurak berriz planteatzen du kulturaren eta politikaren arteko harremanen inguruko gogoeta. Arestian ikusi dugunez, mugimenduen inguruko paradigma teoriko batzuek gizarte esparru politikoan diharduten aktore politiko gisara ulertzen dituzte mugimenduak –zenbait mugimendu, behinik behin–, eta, modu horretan, beste aktore politiko batzuen parean jartzen dituzte –alderdi politikoak, presio taldeak, eta abar–. Aldiz, beste eredu teoriko batzuen ikuspegian, gizarte mugimenduak esparru politikoarekin harreman zuzenik ez daukaten mugimendu kulturalak dira funtsean. Binomio horretan egiten den banaketaren arabera, bigarren eredu sailkatutako mugimenduei aitortzen zaizkien eragin politikoak murrizak dira zeharo. Areago, haien izaera “apolitikoak” aipatzen da zenbaitetan⁴⁵.

Hemen joratu dugun ildoan, mugimenduen dimentsio kulturala nabarmendu da, alegia, gizarte garaikideei egindako desafio sinbolikoen dimentsioa. Izari kultural horrek mugimenduen jardun politikoa ukatzen ez duelakoan gaude. Bada, gizarte mugimenduek, ezagutza berezituena laguntzaz euren interpretazio markoak sortzen dituztenean, –funtsean, errealtatearen definizio alternatiboak diren markoak–, indarrean dagoen ordena sinboliko-kultural jakin bat jartzen dute zalantzatan. –“El significado de la sociedad está en juego

en todos los movimientos sociales importantes” dio Eyermanek (Eyerman, 1998: 157)–. Ezin dugu ahaztu erasotako egitura kultural horretan integratzen direla gizartearen oinarrizko balioak, arauak, sinboloak, sinesteak eta ezagutzak. Bestela adierazita, gizarteko kultura sistema osatzen duten osagai funtsezkoenak, hau da, gizartearen eraketa normatiboa ahalbidetzen duten elementuak uzten dituzte agerian interpretazio berri horiek.

Orain arte behin baino gehiagotan aipatu dugu gizarte errealtatearen eraketa interpretazio lehiakorren arteko borroka sinbolikoen testuinguruan burutzen dela. Mundu sozialari buruzko irudikapenen sorkuntza borroka sinboliko horien atal garrantzitsua izanik, mundu-ikusmolde berriak sortzeko asmoz baliabide kognitibo eraginkorrak integratzen dituzte gizarte mugimenduek euren jardunean; hori egitean, uste dugu kulturaliki ez ezik politikoki ere badihardutela mugimenduek. Ez ohiko aktore politikoen antzera esparru politikoa –edo ez esparru horretan soilik–. Bai, ordea, kultura eragile modura⁴⁶. Izan ere, gizarte mugimenduen egintzaren jomugan dauden sistema sinbolikoak ez dira soilik egitura “neutralak”; gizarte ordena arbitrario eta historiko jakin batzuen integrazio soziala ahalbidetzen duten sistemak ere izaten dira. Hartara, sistema sinboliko horiek menderatze sinbolikorako erremintak eskaintzen dituzte, baina baita indarrean dagoen ordenaren desintegrazioa edo moldaketa bidera dezaketen lanabesak ere. Sistema sinbolikoaren arbitrariotasuna agerian uztean, gizarte aldaketaren eta aldaketa politikoauren aukerak zabaltzen dira maiz. Horixe izan ohi da iraultza sinbolikoen lorpena: hain zuzen ere, ezkurtuan zegoena erakustea, ixilduta zegoena jakinaraztea eta pentsaezina zena gogoetagai bihurtzea. Horrelako gertakari sinbolikoak daude sakoneko gizarte eraldaketa guztien muinean⁴⁷. Ezin da bestela izan, kultura eta gizarte egitura, hau da, gizartea bere osotasunean osatzen duten esparru guztiak, esparru politikoa barne, modu estuan lotuta baitaude⁴⁸. Ondorioz, gizarte aldaketa, izatekotan, ezinbestean izan ohi da aldaketa sinboliko ere. Halaber, sakoneko eraldaketa politikoa, ezinbestean izan ohi da iraultza sinboliko ere.

Horiek horrela, behartuta gaude kulturagintza eta politikagintza berriz definitzera Beranduko Modernitateko agertoki sozialetan. Hala egin ezean zaila egiten zaigu aurrean dauzkagun errealtateen berri ematea modu egokian. Dagoeneko gizarte mugimendu guztien egintzak ezin dira besterik gabe erkatu eragile politiko konbentzionalek –alderdi politikoez, estatu erakundeek nahiz gobernuek edo adminis-

trazioek– ohiko esparru politikoan burutzen dituzten egintzekin. Modu horretan ezin da gizarte mugimendu berrien esanahi politikoaren mataza askatu. Politikagintza, hein batean, ohiko erakunde politikoetatik at ere gauzatzen da gaur egungo gizartean. Izan ere, gizarteko eremu berriak politizatu egin dira. Zientziaren eta teknologiaren aplikazioek gizakiaren gorputzean eta haren ingurune fisikoan eta sozialean eragin dituzten ondorioek –bestelako menderatze eta kontrol mekanismoek– zerikusi handia izan dute aldaketa horretan. Hala, gizabanakoaren gorputza (sexualitatea, ugalketa, elikadura, osasuna), haren ingurune fisikoa (kutsadura, ingurunearen zaintza, ekologia, hazkunde iraunkorra, energia berriztagarriak, nekazaritza molde berriak) eta ingurune soziala (zientzia eta teknologiaren norabidea, berdintasunezko harremanak genero eta kulturen artean) politikagintza berriak barnean hartu dituen jarduera eremuak dira –elikatzea bezalako egintza ustez sinpleenak, esaterako, esanahi etiko eta politikoa hartu du gure garaian (Riechmann, 2003)–. Modu berean, eragile politiko berriak sortu dira Beranduko Modernitatean. Fenomeno horiei “azpipolitika” deritze Beckek:

“Por una parte, se extiende la vacuidad política de las instituciones, y, por otra, un renacimiento no-institucional de lo político (...) [es] un error categorial, la equiparación de política y estado, de lo político con el sistema político (...) La subpolítica [sub-politics] se distingue de la politics, en primer lugar, en que a los agentes externos al sistema político o corporativo se les permite aparecer en el escenario del diseño social (este grupo incluye grupos profesionales y ocupacionales), la intelligentsia técnica en fábricas, instituciones de investigación y cuadros de gestión, trabajadores cualificados, iniciativas ciudadanas, la opinión pública, etc.) y, en segundo lugar, en que no solo los agentes sociales y colectivos, sino también los individuos compiten con estos últimos y entre sí por el creciente poder configurador de lo político (...) Como consecuencia de la subpoliticización, grupos que hasta ahora no estaban implicados en el proceso de tecnificación e industrialización (grupos ciudadanos, la opinión pública, los movimientos sociales, los grupos de expertos, los trabajadores en su lugar de trabajo) tienen cada vez más oportunidades de tener voz y participación en la organización de la sociedad” (Beck, 1997: 32, 38, 39).

Testuinguru horretan, kulturaren esparruari zegozkion auziak politizatu egin dira erabat. Modernizazioaren ondorioei erreflexiboki

aurre egiten dien gizarteak, ezagutzazko baliabideak, bereziki zientifikoak, baliatzen ditu nagusi den ziurgabetasunari aurre egiteko. Aurreko orrialdeetan aipatu dugun bezala, gure garaiko gatazka sozialak dagoeneko nekez uler daitezke tartean dauden faktore sinboliko-kulturalak aintzat hartzen ez badira. Ildo berean, gizarte mugimendu berriak gizarte eredu horren ondorio zuzenak dira, euren izaera kulturala nabarmen geratzen baita egungo gatazken muina agerian uzten dutenean. Halaz ere, aro honen ispilu gisara, beste ezein eragile sozialek baino hobeto biltzen dute mugimenduek euren jardunean kulturaren eta politikaren arteko lotura estua, ezagutzak eta egintzak elkar elikatzen baitute mugimenduetan beste inon baino hobeto. Halatan, ikuspegi orotatik aztertuta, mugimenduak beranduko gizarte modernoetan gertatzen diren aldaketen behatoki pribilegiatu bilakatu dira⁴⁹.

4. Kultura eta hizkuntza gutxituen aldeko gizarte mugimenduak Beranduko Modernitatean: mendeko kulturgileak mugimenduetan

“El proceso de globalización reactiva aquellas formas de acción colectiva basadas en la etnia y la nación, que intentan conferir una base estable y reconocida a la identidad. Los viejos litigios sobre la nación, los procesos que fueron interrumpidos o históricamente reprimidos por el surgimiento del Estado-Nación son paradójicamente revitalizados por el desarrollo de un espacio global y transnacional. Los símbolos étnicos (...) constituyen una base real –por sus raíces en la lengua y la cultura– para la identidad de individuos y grupos en un contexto que ha perdido sus fronteras tradicionales” (Melucci, 1994a: 129).

4.1. Mendeko kulturak eta hizkuntzak

Jakina denez, kulturaren kontzeptuak dimentsio ontologikoa eta fenomenologikoa biltzen ditu barnean. Horrela, badago kultura generikoa –unibertzala, gizatasunari lotua– eta badaude talde kulturak –adierazpen anitzezkoak, alegia, aniztasunaren eta erlatibitatearen seinale modura nitxo etniko eta sozial askotatik azaleratzen direnak–. Bigarren zentzu horretan, giza talde oro bere berezko esangura mundua

ekoizten duen heinean osatzen da talde gisa, hau da, bere bilakaeran birsortzen eta eraldatzen duen mundu sinbolikoa eraikitzean. Ikusi dugu, bestalde, kulturaren produkzioa modu kontzientean bereizi eta areagotu dela gizarte konplexuetan; era horretan, gizarteko eremu guztietan eragiteaz gain, berariazko esparrua eratu du kulturak Modernitatean. Kulturaren berariazko esparru hori hainbat eragileren eta instituzioren bilbean oinarritu da; bertatik arautzen da gaur egun ordena sinbolikoaren sorkuntza eta birsorkuntza, ezagutza zientifikoaren produkzioa eta berrikuntza, bai eta horiek guztiek gizartean daukaten aplikazioa ere.

Halaz ere, gaur egun dauden kultura guztiek –eta haien eroale diren hizkuntzek–⁵⁰ ez daukate ziurtatuta euren biziraupena mundu globalizatuan. Izan ere, kulturen eta hizkuntzen iraupen aukerak kultura/hizkuntza komunitateen egoera sozialei loturik daude. Aro Modernoaren hastapenetan kulturen birsorkuntzaren aukerak estatuen ezarpenari loturik geratu ziren⁵¹. Horrela, estatu modernoak berak jarri zituen kultura bakoitzaren esparruaren eraketarako oinarritzko kondizioak, areago, kultura esparruaren ondorengo autonomiaren aurrebaldintzak. Izatez, Modernitatearen egoeran, komunitate politikoaren eraketak ahalbidetu zuen sistema sinboliko komunaren ezarpena, hau da, lokarri kultural sendoetan oinarrituriko gizartearen eraikuntza. Estatuak, maila goreneko botere instituzio izan diren heinean, sozializazio makineria eraginkor modura aritu dira azken mendeetan⁵². Bestela adierazita, errealitate soziala sortzeko izan duten eta duten gaitasuna beste edozein instituzio sozialena baino askoz ere handiagoa izan da.

Harrezkero, badakigu azken mendeotako estatuaren babespean kultura esparru batzuk garatu direla gizarte jakin batzuetan, beren erakunde eta eragile gaituez horniturik. Kultura esparru jakin baten osaketak inplikatzan du kultura horren eta –gehienetan– bere eroale den hizkuntzaren legitimazioa gizarte jakin batean. Hartara, denboran zehar, kultura legitimoek eta kultura legitimoen izenean aritu diren eragileek, kapital sinboliko handia metatu dute, beste era batera esanda, gizarte agintzarekin jarduteko eta hitz egiteko gaitasuna eskuratu dute testuinguru sozial batean. Halaber, kasu horietan, kultura esparruaren eraketak kulturaren dibertsifikatze prozesuan lagungarri izan den instituzionalizazioa ekarri du ezinbestean.

Prozesu historikoek giza taldeen arteko indar harremanen araberrako dinamikak ezartzen dituzte, eta talde horien egiturazko kokapen

soziala nahiz kokapen sinbolikoa baldintzatzen dute. Kultura eta hizkuntza jakinek ez daukate berezko bizitzarik; giza talde zehatzei lotuta dauden errealitate sinbolikoak izanik, talde horien gorabehera sozialei darraizkie⁵³. Aro Modernoan beren osaketa eta legitimazioa erdietsi duten kultura esparru eta hizkuntza “arrakastatsuak” dauden bezala, haien iruntzian, egoera horretara iritsi ez diren kultura eta hizkuntza debalutuak dauzkagu. Ildo horretan, hizkuntzek giza talde eroaleen indarra edo ahulezia soziala islatzen dute maila sinbolikoan. Horrela, gizarte taldeen arteko asimetriak sozialki definitzen diren modu berean sailkatu dira gizartean kulturak eta hizkuntzak ere⁵⁴. Kultura bati eta hizkuntza bati beti esleitzen zaio estatus jakinen bat, prestigio maila jakinen bat, azken finean, “gaitasunen” bat bere berezko zereginetan. Hala, badaude, botere politikorik ezean, historian zehar sozializazio urria edo deuseza izan duten kulturak eta hizkuntzak. Maizenetan euren egoera objektiboa makala izatera iritsi da, ez dutelako izan ez erakunde ez eragile nahikorik euren funtzioak eraginkortasunez betetzeko. Jasotzen duten pertzepzio soziala prozesu horren ondorio zuzena izaten da: hizkuntza eta kultura horiei buruzko balorazioak ezkorrak izan ohi dira, are ezkorragoak denbora igaro ahala, endekapena luzarora areagotu egiten baita. Aldiz, sozializazio normalizatua izan duten hizkuntzek eta kulturek, ohiko funtzioak eraginkortasunez eta normaltasunez betetzean, osasun sendoa agertzen dute eta epai sozial baikorra sortzen dute⁵⁵.

Haatik, gizartean nagusi den sen oneko ezagutzaren logikan, kultura/hizkuntza jakinei esleituriko ezaugarriak haien berezko nolakotasunetik sortutakoak izan ohi dira; ezagutza arruntean ezaugarri horiek ez dira inolaz ere baldintza historikoen eta sozialen ondorio zuzen modura hautematen. Aitzitik, historia ezabatu egiten da kontzientzia sozialean. Horrela, kultura eta hizkuntza batzuk bazterten dituzten definizio sozialak gailendu dira sarritan gizarte modernoetan, beste hizkuntza eta kultura nagusi batzuen mesedetan. Definizio nagusien ondorioz, hierarkiak ezartzen dira zenbait hizkuntza eta kultura ukipen egoeran dauden gizarteetan. Biolentzia sinbolikoaren mekanismoek, hain zuzen ere, naturalizatu egin dute bazterketa horien atzean giza talde batzuek bizi izan duten desjabetze sinbolikoa. Hartara, pertzepzio sozialarentzat ezkutuan geratu dira kulturaren eta hizkuntzaren biziraupena eta birsorkuntza ahalbidetzen duten baldintza sozialak eta politikoak⁵⁶.

Esan dugun bezala, taldeen mendekotasun kulturala mendekotasun politikoari erantsita egon da gehienetan. Izatez, Aro Modernoan baliabide sinbolikoen garapena estu lotuta agertu da baliabide politikoaren garapenari. Halatan, hizkuntza- eta kultura-komunitate bati bere kulturaren birsorkuntza baldintzak ukatu zaizkionean, beste gizarte talde batzuekiko mendekotasun politikoa egon da tartean. Zalantzarik gabe, dominazio politikoaren beste aurpegi bat izan ohi da menderatze sinbolikoa –besteak beste mendeko taldeen baliabide kulturalen desjabetze dinamikan ere gauzatu izan da gehienetan dominazio politikoa–. Hizkuntza eta kultura bereiziaz tartean egon direnean, desjabetze sozio-politiko horren ondorio historiko gisa hizkuntza/kultura nagusiekin harremanetan definitutako mendeko hizkuntzaren eta mendeko kulturaren errealitateak sortu dira.

Modernitatearen baldintzetan, mendeko kulturak nekez osatzen du esparru garatua, alegia, gizartean kultura birsortu ahal izateko eragile eta sozializazio erakunde ofizialez hornitutako esparrua. Horiek horrela, denboraren poderioz mendeko hizkuntzak gero eta komunikazio eraginkortasun gutxiago erakusten du eta hizkuntza nagusiak haren ohiko jardungune sozialak berenganatzen ditu⁵⁷. Transmittitzeko eta hedatzeko dauzkan zailtasunak kontuan hartuta, mendeko hizkuntzaren corpusa urritu egiten da. Era berean, haren estatus soziala degradatu egiten da mailaketa sinbolikoari dagokionez. Horrela sortzen dira, hizkuntza legitimoaren ondoan, hizkuntza aldaera ilegiti- moak: “baserritarrean mintzairak”, “ezjakinen hizkerak”, dialektoak, “patois” eta hizkuntza aurremodernotzat hartzen diren berbetak. Gaur egunera arte iritsi diren mota horietako hizkuntza gehienak hizkuntza gutxituak dira. Izan ere, transmisio zailtasunaren eta gutxiespen sinbolikoaren ondorioz, apurka-apurka jatorrizko hitzuna galtzen dituzten mintzairak ditugu. Beraz, euren historia modernoan kapital sinboliko eskasa metatu duten kulturak eta hizkuntzak dira gogoetagai ditugunak. Horregatik, sozialki devaluatuta agertzen dira ondasun sinbolikoen merkatuan. Hizkuntzen arteko ukipen egoeretan, hortaz, kultura eta hizkuntza nagusiari esleitzen zaizkien ezaugarri positibo guztiak bilakatzen dira zeinu kaltegarri mendeko kultura eta hizkuntzari dagokien karakterizazioan⁵⁸.

4.2. *Kultura eta hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduak*

Sarritan, mendeko hizkuntzen eroale diren hizkuntza komunitateak –haien eliteen ekimenez– gizarte mugimendu gisa antolatu dira Mendebaldeko historia modernoan zehar euren hizkuntzak eta kulturak aldarrikatzeko eta berreskuratzeko asmoz⁵⁹. Halaz ere, gehiengotan mugimendu horiek izaera politikoa eduki dute, kulturala baino gehiago⁶⁰. Zehazki esateko, gutxiengoen hizkuntza- eta kultura-aldarrikapena, Aro Modernoan, mugimendu nazionalisten esku egon da maizenetan. Bada, azken mendeetan oso ohikoa izan da hizkuntza/kultura komunitatea eta nazioa parekatzea:

“Todo el discurso nacionalista, si tiene alguna aceptación “popular”, o seguidores, o posibilidad de práctica política alguna, incide en la vida de las lenguas. Una parte muy importante de ese discurso en el siglo XIX –y hoy mismo–, identifica la nación a la comunidad lingüística; el resto a “comunidad” simplemente. Pero en la base de toda comunidad hay sobre todo un importante proceso de comunicación que no puede menospreciar la lengua como instrumento técnico y simbólico, o mejor ambas cosas a la vez” (Miranda, 1988: 259-260).

A. Smithi jarraiki, Mendebaldeko nazio identitatearen ereduak hainbat ideia biltzen dituela barnean esan behar dugu, hala nola, lurralde ikuskera bat, erakunde eta lege multzoa partekatzen duen komunitatearen ideia, ideologia eta kultura zibiko kolektiboa, baita osagai etniko-kulturalak ere. Zalantzarik gabe, osagai zibikoak eta etnikoak nazionalismo gutzietan agertzen dira, askotariko neurri eta formetan bada ere⁶¹. Haatik, Europako lehen nazio-estatuaren nazionalismotik at garatutako gainontzeko nazionalismoek modu nabarmenagoan baliatu dituzte elementu etno-kulturalak –bazterturik zeuden hizkuntza eta kultura, esaterako– eta komunitate sinbolo gisa aldarrikatu dituzte. Izan ere, estatu modura eratutako nazio komunitateek hizkuntza/kulturaren birsorkuntza instituzionalki bermatuta eduki dute –hizkuntzen batasuna, adibidez–, eta mendeko nazio komunitateek, aldiz, osagai etniko nabarmenak izanda ere, ahalegin berezia egin behar izan dute taldearen bereizgarri kulturalen balioa aldarrikatzeko eta haien sozializazioa mantentzeko.

“Los vínculos genealógicos y de presunta ascendencia, la movilización popular y las lenguas, costumbres y tradiciones vernáculas constituyen los elementos de una concepción de nación étnica alter-

nativa, concepción que representa un itinerario de “creación de naciones” muy distinto (...) en lo que fue un desafío político muy dinámico. Se trata (...) de un desafío que se ha ido repitiendo hasta el día de hoy en muchas partes del mundo y que refleja el profundo dualismo que entraña todo nacionalismo” (Smith, 1997a: 11).

Zalantzarik gabe, Aro Modernoan, bereziki XIX. mendetik aurrera, nazionalismoak izan zuen zabalkundeak hizkuntzei buruzko interesa piztu zuen. Nazionalismoak, beraz, hizkuntza guztietan izan zuen eragina. Baina, egin dugun bereizketaren arabera, eragin hori modu desberdinean hezurmamitzen da hizkuntza aldarrikatzen duen nazio komunitateak botere politikoaren jabetza eskuratu duenean eta hura atzeman ez duenean.

“La extensión progresiva del nacionalismo produjo en el siglo XIX una atención máxima a las diferentes lenguas. Prácticamente el proceso repercutió en todas ellas, pero con diferente intensidad, dependiendo sobre todo de la situación y fuerza política de la “nación” que la sustentaba. Podemos decir que estos movimientos nacionalistas y la repercusión en “sus” lenguas son de dos tipos diferentes y opuestos o enfrentados entre sí. El camino de la revitalización y extensión de aquellas lenguas que pertenecen a naciones que han conseguido poder político propio, frente al de aquellas lenguas que, sin instituciones que las protejan, iniciarán su declive sólo contenido mediante grandes esfuerzos en su mayor parte debidos igualmente a la nueva consciencia que propicia el nacionalismo” (Miranda, 1988: 261).

Egitura instituzionalik garatu ezinik egonda, estaturik gabeko nazionalismoek lan neketsua izan dute taldearen jatorrizko kultura/hizkuntza –azken batean, taldearen bereizgarri etnikoak mantentzen. Askotan etnonazionalismo gisa ezaugarritu dira era horretako mugimenduak, alegia, hemendik aurrera aztertuko ditugun egintza kolektibo ereduak. Kulturaren suspertze jarduerak hainbesteko garrantzia izatean, elite kulturalen eginkizunak handiak izan dira mugimendu etnonazionalisten barnean⁶². Gaur egungo mugimendu nazionalisten susperraldia, besteak beste, elementu tradizionalak gaurkotzeko gaitasuna duen *intelligentsiaren* garapenaren mende dago, baita kultura baliabide modernoan erabileraren mende ere:

“La pauta temporal de la resistencia nacionalista depende, en gran medida, de tendencias materiales y geopolíticas, entre las que se incluyen las siguientes:

La emergencia de una intelligentsia, capaz de traducir tradiciones etno-históricas, creencias étnicas y vínculos afectivos territoriales al lenguaje del nacionalismo moderno, lenguaje y simbolismo que se han convertido en moneda corriente en el mundo contemporáneo.

El desarrollo socio-económico y la infraestructura cultural (escuelas, universidades, libros, periódicos, idioma modernizado, cine y TV, las artes) de la comunidad designada por la intelligentsia y otras élites de la nación-en-proyecto y, por consiguiente, su capacidad para formar un movimiento nacionalista sostenido y combatir en una guerra (a menudo prolongada) contra los opresores extranjeros (...).

Muchos de los nacionalismos de los años noventa están al servicio de comunidades étnicas y categorías culturales con considerables recursos socio-culturales a su disposición y con intelligentsias capaces de movilizar a sus compatriotas étnicos” (Smith, 1997b: 62, 63).

Mugimendu nazionalisten eta hizkuntza/kultura gutxituen aldeko egintzen arteko harremanak estuak izan badira ere, mugimendu nazionalisten historia luzean aspektu politikoez eta kulturalak ez dute beti bizikidetzatza erraza eta gatazka gabekoa eduki. Izan ere, mendeko hizkuntzen egoera gutxituan, hizkuntza horiei esleitutako funtzio simbolikoez sarritan funtzio komunikatzaileak berak baino garrantzi handiagoa hartu dute mugimendu nazionalisten barnean⁶³. Halatan, behin baino gehiagotan auzitan egon da eliteen artean hizkuntzari/kulturari ala egintza politikoari eman behar zaion lehentasuna nazioaskapen prozesuan (Calvet, 1981: 125-146), alegia, hizkuntzaren berreskurapenean jarri behar diren indarrak ala ez (Fishman, 1991: 30)⁶⁴. Nolanahi ere, denbora igaro ahala, nazionalismoari lotutako mugimenduak dibertsifikatu eta instituzionalizatu egin dira. Horrela, mugimendu etnonazionalistek ezarritako erreferentzi-marko orokorrean kokaturik egonda ere, alde batetik, hizkuntzak berreskuratzeko mugimenduek autonomia irabazi dute mugimendu politikoetatik eta esparru berezia eraiki dute mugimendu kultural gisa. Bestetik, barne bereizketa baten ondorioz, gizarte eremu bat baino gehiagotan jardutea lortu dute.

Kulturaren eremuan jarduteak, halaz ere, ez die esanahi politikorik kendu mugimendu horiei. Bada, orain arte ikusi dugunez, hizkuntza/kultura gatazkak talde gatazkak dira; areago, mendekotasun harremanak hartzen dituzte tartean. Hartara, hizkuntza aldarrikapenen azken helburua gizartean iraultza simbolikoa burutzea izaten da eta gizarte taldeen arteko indar harremana aldaraztea.

“Las reivindicaciones lingüísticas, que son siempre como hemos dicho conflictos grupales, tienen por objeto dar la vuelta a las relaciones de dominación simbólica y a la jerarquía de valores asociada a las lenguas en concurrencia. Una tal revolución simbólica no es posible más que al precio de una profunda transformación de todo el campo de producción y de circulación de los bienes lingüísticos que supone una subversión de las relaciones de fuerza políticas” (Miranda, 1988: 315-316).

Hizkuntza/kulturaren aldeko mugimenduak rol intelektual berrien eraikuntzarako gune egokiak dira gizarte garaikideetan, bereziki azpiinstituzionalizaturik dauden kultura esparruetan. Arestian esan den bezala, kultura batzuek Modernitatearen garaian nozitzen duten azpiinstituzionalizazioa mendekotasun harremanen ondorioa izan da. Esparru autonomo propioarik garatu ezin izan duten mendeko kulturei dagokienez, gizarte mugimenduek kultura instituzioen tokia hartu dute eskuarki. Halatan, instituzio politikoek ekimenik ezean, mugimenduen ekimenez sortu dira sozializazio erakundeak –eskolak, akademiak, hedabideak– eta mugimenduen inguruan hezi dira mendeko kulturaren eliteak ere⁶⁵. Bestelako erakunde ofizialen gabezia egoeran, mugimenduek sortutako gune kultural alternatiboetan kontsaktatu dira kulturagileak holakoetan. Aldi berean, elite kultural horiek hizkuntza eta kultura gutxitua berreskuratzeko egitasmoen lidergoa bereganatu dute.

Beste gizarte mugimendu askok bezala, Beranduko Modernitatearen testuinguruan oinarri etno-kulturala duten mugimenduek baliabide kognitibo eraginkorrak dauzkate eskura euren helburuak betearazteko. Eta sustrai historiko zaharrak eduki arren, indartsu azaldu dira garai berrietako agertokian. Izan ere, bestelako identifikazio lokarriak ahuldu diren aroan, gaur egun identitate erreserba gisa darrai nortasun etnikoak edo linguistikoak. Iraupen horrek adierazten du iraganaren aztarna zaharkitua ez ezik gizarte konplexuetan gertatzen ari diren aldaketen ondorio ere badirela mugimendu horiek, eta gaur egungo gatazkak inplikaturik daudela haien garapenean.

“Los nuevos sentimientos de pertenencia étnica no son meras herencias de una tradición enraizada en la historia del Estado-nación: son el producto específico de los cambios que están aconteciendo actualmente en las sociedades complejas. La solidaridad étnica en la fase del capitalismo industrial se encontró a sí misma “dislocada” por la solidaridad de clase, entonces más relevante. Hoy en

día, esta solidaridad ha reemergido, como una fuerza autónoma. Mientras que otros lazos de membresía se han debilitado o disuelto, la solidaridad étnica responde a necesidades identitarias que operan no sólo en el plano material, sino también en el simbólico. La identificación con una diferencia particular –en este caso “étnica” y lingüística– refuerza las demandas y necesidades típicas de la sociedad compleja, como si la identidad étnica proporcionase un espacio simbólico para la expresión de fuerzas conflictivas que van más allá de la condición específica del grupo étnico en cuestión (...) La identidad étnica, con sus redes de solidaridad y su herencia cultural, demuestra que es capaz de proporcionar el lenguaje, los símbolos y los recursos organizativos mediante los cuales se pueden expresar nuevos conflictos” (Melucci, 1998: 28, 30).

Halatan, mendeko hizkuntza eta kulturaren aldarrikapena helburutzat daukaten mugimenduak bete-betean daude nahasita Beranduko Modernitatean nagusi diren gatazketan. Izatez, hizkuntza baztertuen defentsak gizakien autonomiaren eta kultura aniztasunaren balio modernoak hartzen ditu tartean. Ildo horretatik, Meluccik “izendapenaren gatazka” deritzana uzten dute agerian mugimendu etno-kulturalek:

“Una dimensión de los conflictos que atraviesa todos los movimientos étnicos y culturales es completamente novedoso y no pertenece de modo privilegiado a estos actores sociales: cobra forma como un conflicto de denominación, un conflicto sobre el significado de las palabras y las cosas en una sociedad en la que el nombre suplantata en grado creciente a la realidad. Precisamente por este motivo, el idioma, a través de la identidad étnica y lingüística, cobra tanta importancia: en la sociedad de la información de hoy, el modo en que denominamos a las cosas decide inmediatamente su propia existencia. El componente idiomático en los conflictos étnicos es, por lo tanto, no simplemente la reivindicación de un derecho tradicional. Ilumina la cuestión crucial de si es posible hoy en día denominar de un modo diferente. De este modo, el derecho de la autonomía en la construcción del mundo se afirma en la diversidad del idioma. Idiomas diferentes dan lugar a mundos diferentes, y el vínculo con la lengua (...) capacita al individuo para denominar el mundo como él o ella lo desea, resistiendo u oponiéndose al léxico estandarizado impuesto por los centros planetarios de la cultura de masas.

El idioma tradicional agrega la riqueza de su propia singularidad semántica a esta función lingüística general (...) La pérdida de esta riqueza es nada menos que una pérdida para la humanidad. Los

movimientos étnicos y culturales hablan para todos –afortunadamente– todavía en su propio idioma.

Cada vez más, los aparatos anónimos, que imponen los nombres y lenguajes a través de los cuales los individuos deberían entender y relacionarse con la realidad, configuran la cultura. Denominar al mundo de un modo diferente significa un desafío a esta homogeneización y a la imposición de códigos estandarizados. A este respecto, los conflictos étnicos y culturales se suman a otras formas recientes de acción colectiva que desafían a los nuevos poderes, aquellos que indican a la gente cómo denominar la realidad” (Melucci, 1998: 42-43).

4.3. Mendeko kulturgileak kultura eta hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduetan

Ikusi ditugun iritzien arabera, ezin da ukatu mendeko hizkuntzen eta kulturen aldeko egintza kolektiboaren gaurkotasuna, ezta egintza mota horrek erakusten duen gatazkaren izari eguneratua ere. Inoiz ahulduta egon badira, Beranduko Modernitateak zabaldutako testuinguru soziopolitikoak indartu eta zentzu berriz hornitu ditu mugimendu etno-kulturalak. Ildo berean, egungo ezagutzaren gizarteak baliabide kognitibo eraginkorrak eskaini dizkie mugimendu horiei. Horrela, mugimenduen eskura daude era askotako ezagutzak eta jakintza berezituak, egintza kolektiboa eratzeko eta mobilizatzeko lanabes modura. Bitarteko kognitibo horien erabilera dela medio, gaur egungo ezagutza legitimoen zilegitasuna mugimenduei –eta haien xedeei– transferitzen zaie.

Gauza bera gertatzen da mugimendu horietan parte hartzen duten kulturgileen zilegitasun sozialarekin. Izan ere, kulturgileen botere simbolikoa baliatzen dute mugimendu kulturalak. Alabaina, aipatu botere simbolikoa erlatibizatu egin behar da mendeko kulturez eta hizkuntzez ari garela. Izan ere bi esparruk definitzen dute mendeko kulturgileen kokapen simbolikoa. Batetik, barnera begira, bere jatorrizko kultura/hizkuntzaren esparruan nagusi diren indar harremanak hartu behar dira aintzat mendeko kulturgilearen definizioa egiteko; dakigunez, esparru hori guztiz hornitu gabe egon ohi da. Bestetik, kanpora begira, kontuan eduki behar dira mendeko kulturaren eta kultura nagusiaren artean ezarrita dauden harremanak, esparru nagusiaren eraginak mendeko esparrura zabaltzen baitira era askotara. Izan ere, mendeko

kultura/hizkuntzaren esparru intelektualean kokatzen den kultur-gilearen botere sinbolikoa, hau da, gizartean aginte kulturalarekin eragiteko ahalmen legitimoa, mendeko kulturaren indarraren arabera-koa izan ohi da. Bestela adierazita, egoera sozial gatazkatsuan ohikoa denez, kultura esparru hegemonikoaren logikak zalantzan jartzen ditu –erlatibizatuz– bai mendeko kultura adierazpenen balioa bai mendeko kultur-gileen botere sinbolikoa.

Horregatik, mendeko kulturetako kultur-gileek halako mugimendu-
duetan parte hartzen dutenean, “plus” bat eransten diote euren partaidetza intelektualari. Izatez, bazterturiko kulturaren eta hizkuntza gutxituaren egoerak erabat nahasten du kultur-gilearen rola bera: haren estatusa eta, oro har, kultur-gile gisa daukan eginkizuna lotu-loturik daude hizkuntzaren eta kulturaren ibilbideari. Hori dela eta, gutxitu-tako kulturaren eta hizkuntzaren estatus normalizatu aldarrikatzean, mendeko kultur-gileak aldi berean bere estatus intelektualaren normalizazioa eta onespena aldarrikatzen ditu. Horrela, partaidetza horren asmoen artean esparru intelektualen arteko hierarkiak azpikoz gora jartzea egoten da –esparru nagusiaren eta mendekoaren artekoak, batik bat–.

Halaz ere, askoz haratago doa mugimendu horiek mendeko kultur-gileentzat daukaten garrantzia. Esparru intelektual normalizatu batean sortzen den kultur-gileak eskura izaten ditu sozializazio erakunde egokiak eta gune intelektual ganorazkoak bere prestakuntzan –eskolak, unibertsitateak, liburutegiak–. Ordea, mendeko kultur-gileak osatu eta instituzionalizatu gabeko kultura esparrua eduki ohi du; askotan, garatu bako hizkuntza. Kultura gutxitu bat berreskuratzeko mugimendua osatzen denean asmoa izaten da kultura esparrua eratu-
tuko duten instituzioak mugimendu ekimenez kulturetara. Horiek izan ohi dira mendeko kultur-gilearen bitarteko nagusiak. Halatan, mugimenduak sortutako kultura guneen inguruan definitzen dituzte mendeko kultur-gileek euren tradizio intelektualak beste agertoki instituzionalik ezean.

Hartara, mugimendu etnolinguistikoen eta mendeko kulturetako kultur-gileen arteko uztardura oso berezia da. Alde batetik, baliabide kognitibo eta sinboliko garrantzitsuen ekarpena egiten dute kultur-gileek hizkuntzaren eta kulturaren berreskuratze lanetan. Maiz, mendekotasun kulturalaren testuingurua kontuan hartuta, lan horrek kutsu nabarmen politikoa hartzen du. Bestetik, mugimendu etnokulturalak kultur-gile gisa egiteko eta kontsakaratzeko gune soziala

eskaintzen dio mendeko kulturgileari: baliabideak, publikoa, baita –ahulak izan arren– premiazko erakundeak ere mugimenduaren inguruan eratutakoak izaten baitira.

Hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduen eta haien barnean engaiatutako kulturgileen arteko harreman berezi horien azterketan sakondu nahi da ondoren jorratuko den lan enpirikoan. Halatan, datozen orrialdeetan hizkuntza gutxitu baten berreskurapenaren aldeko gizarte mugimendua hartzen da gogoetagai. Euskalgintza deritzan mugimendu esparruaren osaketa historikoaren une garrantzitsuenak aipatu ondoren, frankismoaren osteko garaian Hego Euskal Herriko euskalgintzaren barruan euskal kulturgileek mugimenduaren norabide estrategikoa zuzentzeko sortutako interpretazio marko nagusiak aztertuko dira. Interpretazio marko horien ildotik, mugimenduak esparru politiko autonomikoari buruz definitutako harreman gorabeheratsuak ikusiko dira, kulturgileek kultura esparruaren autonomia eraikitzeko egindako ahaleginak, eta, azkenik, mugimenduaren instituzionalizazioak berarekin ekarri duen tradizio intelektualen finkapena.

Oharrak

- ¹ Patrice Mannek aipatua (Mann, 1991: 14).
- ² Honela mintzo da Tarde “foule” edo “masei” buruz: “Les foules se ressemblent toutes par certains traits: leur intolérance prodigieuse, leur orgueil grotesque, leur susceptibilité malade, le sentiment affolant de leur irresponsabilité née de l’illusion de leur toute-puissance, et la perte du sentiment de la mesure qui tient à l’outrance de leurs émotions mutuellement exaltées” (Tarde, 1901: 36) [Patrice Mannek aipatua (Mann, 1991: 15)].
- ³ Eguzki Urteagak gogorarazten duen bezala, “Le Bon eta Tarde-ren kasuan bereziki, jendetza-fenomenoak eta oro har akzio kolektiboak nahitaez irrazionaltzat jotzen dituzte, ordenaren koadroan sartzen diren ekintzak eta noski instituzioenak soilik razionalitatez osaturik baleude bezala” (Urteaga, 1995, 113).
- ⁴ Jokamolde Kolektiboaren tradizioan kokatzen diren autoreen ekarpenak zehazkiago aztertzeko ikus Chazel, 1992.
- ⁵ Gaztelaniazko bertsioan *Teoría del Comportamiento Colectivo*, Fondo de Cultura Económica, México. 1989.
- ⁶ Gaztelaniazko bertsioan *Aspectos Políticos de la Sociedad de Masas*, Amorrortu, Buenos Aires. 1969.
- ⁷ Ikerkuntza programa gisa Baliabideen Mobilizazioaren Teoriak beretzat hartzen dituen oinarrien azterketa egiteko, ikus Zald, 1992.

- ⁸ *Political Opportunity Structure*: Eisinger, Tarrow, Kriesi eta beste autore batzuek jorrratutako tresna kontzeptual honek gizarte mugimenduak sortzen eta garatzen direneko testuinguru politikoaren berri ematen digu. Eskuarki, Aukera Politikorako Egitura (APE) hiru aldagairen mende dagoela uste izaten da: sistema politikoaren egitura instituzionalaren eraketa, laguntza sistema (mugimenduaren alde joka dezaketean eragileek osatzen duten sistema) eta gatazka sistema (mugimenduaren aurka diharduten eragile sozialek osatzen duten sistema). Gazteleraz ikus: Kriesi, 1992; Tarrow: 1997; 1999; McAdam: 1988; 1998; 1999a; Della Porta: 1999; Oberschall: 1999. Kontzeptuaren aplikazioa euskaraz: Zubiaga, 1992.
- ⁹ Touraine, Melucci eta Offeren proposamenen berrikusketa lagungarria egiten du J. Apalategik (Apalategi, 1999a).
- ¹⁰ J. Raschkeren proposamenei jarraiki, antzeko sailkapena erabiltzen du J. Riechmannek ere: “El modelo de MS que intenta y realiza innovaciones simultáneamente en las esferas económica, política y cultural es un bello sueño. Lo real es un modelo secuencial con priorización de los cambios en uno de los subsistemas. La creciente diferenciación de las esferas o “subsistemas” sociales que caracteriza a la modernidad tiende a imponerse a los MS por dos razones: la general escasez de recursos que los caracteriza, así como la dinámica inercial propia de esa progresiva diferenciación social. Los subsistemas sociales relevantes para nuestras consideraciones son el socioeconómico, el político y el sociocultural. Así, y de acuerdo con sus intenciones estratégicas básicas, los MS modernos se dividirían en movimientos con orientaciones de poder, que intentan transformar sobre todo los subsistemas político o socioeconómico (sea conquistando el poder político estatal, sea logrando concesiones por parte de las autoridades), y movimientos con orientación cultural, que se orientan en el subsistema sociocultural (intentando transformar al individuo y las relaciones sociales, normalmente por suponer que tales cambios tendrán también repercusiones considerables en las esferas política y económica)” (Riechmann, 1994: 55). Zenbaitetan, mugimendu politikoen eta mugimendu sozialen arteko bereizketa bilakaera historikoaren ondorioztat aztertzen da, mugimendu “sozialak” beranduko faseetan agertzen baitira (Alvarez Junco, 1994).
- ¹¹ “It becomes clear that, although each tends to screen out the forms of action analyzed by the others, they all can inform the study of collective action. For it is perfectly conceivable that a concrete social movement can involve all the forms of action. This is clearest in the case of the contemporary collective action. The new dimensions of the NSMs, from feminism to ecology, involve a reflexive relation to the objective, subjective, and social worlds insofar as they thematize issues of personal and social identity, contest the social interpretation of norms, communicatively create and agree on new ones, and propose alternative ways of relating to the environment. There is thus no reason why the analysis of the various logics of collective action should be seen as incompatible, so long as they are not construed as the sole rationality of collective action to the exclusion of others” (Cohen, 1985: 708).
- ¹² “Adostasunaren mobilizazioaren” kontzeptua aztertzeko, ikus Klandermans, 1988b eta Klandermans, 1994.
- ¹³ Ikus Eyerman eta Jamison, 1991: 27-42.
- ¹⁴ Berriz ere zubiak eraiki nahian, bide hori urratzen saiatu dira Morris eta Mueller (Morris, Mueller, (eds.), 1992), (Morris, 1992) eta McAdam, McArthy eta Zald (McAdam, McArthy, Zald (eds.), 1999).

- ¹⁵ Zenbait autoreren ustez, interpretazio markoen egitura mugimenduen diskurtsoen azterketa eginez baino ezin da eskuratu. Ikus Johnston, 1995.
- ¹⁶ Ingelesezt *Political Opportunity Structure* deritzon egitura da hori.
- ¹⁷ Onarpen horrek lehenago baztertuta geratu ziren ikuspegi teorikoek ekarpenak atzera ikustea ere ekarri du. Gusfieldek, esaterako, Jokabide Kolektiboaren eta Masa Gizartearen Teorien berrikusketa egin du, eta teoria horiek gizarte mugimenduei buruz eskaini zuten azterketa kulturala azpimarratu du (Gusfield, 1994). Ildo berean aritu da E. Laraña ere (Laraña, 1996). Johnstonek eta Klandermansek, bestalde, gizarte mugimenduei buruzko ikusmolde kulturalaren azterketa bilduma bat argitratu zuten (Johnston, Klandermans (eds.), 1995).
- ¹⁸ Ikus W. Gamson, B. Fireman, S. Rytina (1982): *Encounters with Unjust Authority*, Dorsey Press, Homewood.
- ¹⁹ Azterketa mota horren hedapena, gizarte mugimenduen analisisan jatorri askotako paradigma teorikoek artean burutzen ari den integrazio prozesuaren testuinguruan ulertu beharko litzateke. Ildo horretatik, Klandermansek gizarte eraikuntzaren ikuspegiaren eremuan kokatu daitezkeen honako ekarpen hauek aipatzen ditu, bestekak beste: McAdamen "Askatze kognitiboa", Gamsonen "Diskurtso publikoaren eragina nortasun kolektiboetan", Klandermansen "Adostasunaren eraketa eta mobilizazioa", Snowen eta bere kideen "Markoen analisia" eta Melucciren "Nortasun kolektiboa". Desberdintasunak desberdintasun, bost proposamenek egintza kolektiboaren alderdi sinbolikoak hartzen dituzte aztergaitzat. Ikus Klandermans, 1994: 185-189.
- ²⁰ Snow eta Benfordek azaltzen dutenez: "We use the verb "framing" to conceptualize this signifying work precisely because that is one of the things social movements do. They frame, or assign meaning to and interpret, relevant events and conditions in ways that are intended to mobilize potential adherents and constituents, to garner bystander support, and to demobilize antagonists" (Snow, Benford, 1988: 198).
- ²¹ Modu honetan azaltzen du Neveu: "Con las nociones de "creencia generalizada" o de "norma emergente", la escuela del comportamiento colectivo subrayó que los movimientos sociales no nacían mecánicamente por una acumulación de frustraciones. El paso a la acción colectiva supone un trabajo sobre las representaciones que proporcionan un lenguaje al descontento (...) Dotar de lenguaje a la protesta significa transformar el malestar experimentado en injusticia, escándalo, legitimarlo con respecto a un sistema de normas y valores, en suma: "crecer en generalidad", transformar un caso en causa. En las sociedades democráticas, la categoría del "derecho a..." resulta particularmente propicia a este proceso, como también la referencia a un discurso de expertos, atribuida a la racionalidad técnica. Dar un lenguaje es también asignar responsables, formular reivindicaciones en forma de soluciones. Las dimensiones retóricas de este recurso al lenguaje son, por tanto, variadas. Hay una dimensión cognitiva en el hecho de aportar las palabras, las clasificaciones o las explicaciones que ordenan el mundo. Esta dimensión cognitiva no se reduce a ideología, considerada como ilusión o falsa creencia. El análisis de los nuevos movimientos sociales ha subrayado la componente reflexiva de las movilizaciones, su capacidad incluso de incorporar el discurso académico. Al designar causas y responsables, la dimensión simbólica es también normativa. Ella dice lo que está bien y lo que está mal, el "nosotros" y el "ellos", y tiene también por ello una componente identitaria. Por último, al hacer posible la formulación de quejas y demandas, abre también un registro expresivo" (Neveu, 2002: 139, 140).

- 22 “Injustizia markoei” buruz, ikus Gamson 1995 ere.
- 23 Larañak ere jasotzen du kritika hori eta azpimarratzen du markoen eraikuntzaren izaera gatazkatsua: “En lugar de concebirlo como una estructura cognitiva que es previamente compartida por los seguidores del movimiento y sufre escasas modificaciones, el consenso se construye a través de negociaciones y conflictos entre los seguidores del movimiento en torno a definiciones de la situación sobre las cuestiones que motivan su acción y la necesidad de intervenir en ellas (...) La actividad de creación de marcos de acción colectiva que desarrollan las organizaciones de los movimientos está en el origen de ese proceso de movilización cognitiva de los potenciales seguidores de un movimiento social” (Laraña, 1999: 117).
- 24 Meluccic sarritan salatu du gizarte mugimenduen ikerketan egiten den akats epistemologiko hori. Izan ere, beste fenomeno sozial garaikide askorekin gertatzen den bezala, mugimenduak objektu enpiriko bateratu gisa hartzen dira marko kontzeptual askotan: “Currently one speaks of a “movement” as a unity, to which one attributes goals, choices, interests, decisions. But this unity, if any, is a result rather than a point of departure; otherwise one must assume that there is a sort of deep “mind” of the movement, instead of considering it as system of social relationships. A collective action can’t be explained without taking into account how internal and external resources are mobilized, how organizational structures are built and maintained, how leadership functions are assured. What empirically is called a “social movement” is a system of action, connecting plural orientations and meanings. A single collective action, moreover, contains different kinds of behavior, and the analysis has to break its apparent unity and to find out the various elements converging in it and possibly having different outcomes. Only by separating different analytical elements can one understand how they are kept together by an “organizational” structure, how a collective identity is built through a complex system of negotiations, exchanges, decisions; how action can occur as a result of systemic determinations and of individual and group orientations. The field of social movements theory needs a shift away from empirical generalizations to analytical definitions” (Melucci, 1985: 793-794). Ikus, bestalde, Melucci 1994a:123-124.
- 25 Emaizta horretara iristeko garrantzi handia izaten dute limurketak eta Klandermansek “adostasunaren mobilizazioa” deitzen duen prozesuak (Klander-mans, 1988b; 1994).
- 26 Honela adierazten du Tarrowek: “El proceso de enmarcado está codificado culturalmente (...). Los líderes se apropian los símbolos heredados (...), pero de manera consciente y selectiva. Cuando la organización de un movimiento escoge símbolos con los que enmarcar su mensaje, establece un curso estratégico entre su entorno cultural, sus oponentes políticos y los militantes y ciudadanos de a pie cuyo apoyo necesita. Sólo inscribiendo nuestro análisis del discurso del movimiento en una estructura de relaciones de poder podremos comprender por qué los movimientos emplean determinadas prácticas simbólicas y no otras, y si tienen alguna posibilidad de éxito” (Tarrow, 1997: 216).
- 27 Testuinguru sozio-politikoak ez du soilik mugimenduen estrategia politikoa baldintzatzen, haien kultura aukeretan ere eragiten du: “The cultures of social movements are shaped by the institutions the movements confront. Different regime types and different forms of repression generate different kinds of social movements with differing tactics and internal cultures. Dominant institutions also shape the moventets’ deeper values” (Swidler, 1995: 37).

- 28 Dena den, azken urteotan ikusmolde estrategikoez ere gero eta gehiago hartzen dituzte aintzat kultura baliabideak. Halatan, ikusmolde horietan onartzen da kultura eraginkorra dela mugimenduek beraien helburu instrumentalak erdietsi ditzaten, kultura baliabideak, beste baliabide batzuen antzera, estrategikoki ere erabiltzen baitira –eta ez soilik maila sinboliko-adierazkorrean–: “A movement culture can be a powerful force promoting internal cohesion and group satisfaction, ultimately facilitating the conditions of action. An organizational idioculture provides a set of nonmaterial resources and rewards that allows movements to overcome the free rider problem. Culture can, at least potentially, be an effective tool by which social movements achieve their instrumental ends, while ostensibly serving expressive needs” (Fine, 1995: 141).
- 29 Eliteek gizarte mugimenduetan daukaten parte-hartze hori ez da kultura eliteetara mugatzen. Izan ere, aktore legitimo modura agertzeko, mugimenduek gizartean era guztietako aginte sinbolikoa –“sinesgarritasun soziala”– duten pertsona eta instituzioengana jotzen dute. Modu honetan azaltzen du Gerhards: “The initiators attempt to recruit “prominent” and at the same time “trustworthy” persons, and hope that their charisma can be transferred to the movement. Prominent persons who come from segments of society where universal interests are represented and questions of the meaning of life are posed and answered are especially likely to be trustworthy. Church representatives, scientists and artists are particularly important here, because credibility is virtually part of their professional standing. This effect does not hold true only for individuals, but for entire institutions as well” (Gerhards, 1995: 234).
- 30 Ikusmolde horren adibide dira Kornhauser (Kornhauser,1969) eta Smelser (Smelser,1989).
- 31 Ikus, adibidez, Eder (1985).
- 32 Melucci, A. (1980): “The New Social Movements. A Theoretical Approach”. *Social Science Information* 19, 2 zk. 199-226, Claus Offek aipatua. Offe, 1988: 210.
- 33 Honela adierazten ditu Meluccik kontzeptuari buruzko zalantzak: “En primer lugar, no considero adecuada la noción de clase media, y recorro a ella con una cierta arbitrariedad y consciente del hecho de que, igual que cuando empleamos distinciones tripartitas, el tercer término siempre permanece como una noción residual necesaria debido a nuestra incapacidad de generar conceptos más adecuados. El tercer término suele estar insertado entre los otros dos con el único propósito de articular ligeramente nuestros conceptos o teorías. La noción de clase media como tercer término es sin duda una categoría residual. Al añadir el adjetivo de “nueva” nuestra confusión no hace sino incrementarse. Los malentendidos son enormes, pero nos vemos impelidos a utilizar dichos conceptos a falta de otros más adecuados. Sin embargo, cobrar conciencia de sus límites inherentes nos obligará al menos a buscar herramientas conceptuales mejores (...) Pero, como digo, la noción de “nueva” clase media es vaga y, si sigo recurriendo a ella, es porque espero que en el futuro dispongamos de un nuevo concepto, que algún investigador halle la manera de generar conceptos más adecuados” (Melucci, 2001: 172, 173).
- 34 “Las consecuencias de la movilización cognitiva no son únicamente una propensión cada vez mayor a discutir de política. Por el contrario, la movilización cognitiva incrementa mucho la probabilidad de que uno se vea implicado en un amplio repertorio de acciones políticas directas de élites, que vayan desde peticiones hasta

manifestaciones o boicots, huelgas extraoficiales, ocupación de edificios o bloqueos de tráfico, para articular preocupaciones políticas y presionar a los políticos a ajustarse a las peticiones que se les hacen (...) La relación entre movilización cognitiva y acción política no-convencional es fuerte” (Inglehart, 1991: 406, 408).

- 35 Autoreen hitzetan: “All activists in social movements are, in some sense, “movement intellectuals”, because through their activism they contribute to the formation of the movement’s collective identity, to making the movement what it is” (Eyerman eta Jamison, 1991: 94).
- 36 Modu egokian adierazten du Loflandek: “While culture pertains to everyone, everyone does not have an equal relation to it or an equal role in its creation, elaboration, preservation, chronicling, performance, or dissemination. Instead, some people are likely to “do” culture much more than others and to do so in specialized roles. And movements differ in the degree, variety, and number engaged in such specialized roles. These specialized roles themselves divide into those that create (or elaborate) culture and those that are particularly occupied with disseminating it” (Lofland, 1995: 205).
- 37 Honela azaltzen dute Pinard eta Hamiltonek: “We have argued that the political culture of intellectuals in Western societies strongly predisposes them to a particularly high level of involvement in neoliberal (new left), neonationalist and women’s movements, because such movements well represent most of the tenets of their culture. Looking at the leadership roles assumed by intellectuals in a few movements of these types, we did observe a very high level of involvement on the part of intellectuals, and presumably of young intellectuals. What is particularly striking is the very high degree of regularity in our findings. Looking at educators alone, we found that in 8 of the 10 movements considered (counting the German Greens as one movement), their proportions among leaders were roughly between 30 and 45%, with an average of about 35%; when considering all intellectuals – something that could be done in the case of seven movements only – we found that their proportions were roughly between 40 and 55%, for an average of about 50%. With such high figures, it was not surprising to find that in these movements intellectuals dominated all by themselves” (Pinard, Hamilton, 1989: 100).
- 38 Modu honetan azaltzen du Meluccik mugimenduen erronka sinbolikoaren muina: “Si en las sociedades de la información el poder se ejerce mediante el control de los códigos, de los sistemas organizadores del flujo informativo, el conflicto antagonista radica en la capacidad de resistencia, pero todavía más en la capacidad de subvertir los códigos dominantes. Nombrar de modos distintos el espacio y el tiempo a través de la construcción de nuevos lenguajes que cambian las palabras empleadas por el orden social para organizar nuestra vida diaria, hacer lugar a la sabiduría más allá del conocimiento, ejercitar una reflexividad afectiva y no instrumental, son formas de organizar e interpretar de otra forma el flujo de información, de designar al mundo de otro modo en la práctica de los movimientos (...) Este conflicto antagonista se expresa en la estructuración del actor colectivo, es decir, en su modo de organizar la propia solidaridad. En ese proceso organizativo, la acción de los movimientos constituye una práctica del cambio y un reto al sistema” (Melucci, 1994a: 142).
- 39 Gizarte mugimenduek sortutako interes kognitiboen eraginez ezagutza esparru berriak eta ikuspegi berriak sortu dira zientzia legitimoaren barruan; horiek apurka-

apurka instituzionalizatu dira mundu akademikoan. Adibide modura, teoria feministen ekarpenek iraultza bat ekarri dute gizarte zientzien alorrera. Javaloyren hitzetan: “La influencia del feminismo no se ha limitado a conquistas en el terreno práctico, sino que se ha extendido al campo científico. Prueba de ello lo constituyen los Women’s y Gender Studies, que promueven la investigación universitaria sobre la mujer, y han tenido un vigoroso desarrollo en Estados Unidos, extendiéndose a universidades de otros países, principalmente occidentales. En facultades de sociología, psicología, historia y ciencias sociales en general se está realizando una revisión de nuestra cultura patriarcal y androcéntrica desde una perspectiva feminista, lo cual va descubriendo la otra cara de la realidad (la femenina) y está introduciendo cambios profundos en la casi ignorada imagen real de la mujer” (Javaloy *et al.*, 2001: 371). Gai beraren inguruan: Durán, 1996. Halaber, ingurugiroaren aldeko mugimenduek sustraitik eraldatu dute biologiaren eta sistemen ekologiaren azterketa esparru akademiko-zientifikoa (Ikus Cramer, Eyerman eta Jamison, 1987).

⁴⁰ Dalton, Kuechler eta Bürklin, esaterako, bereizgarri hori azpimarratzen dute gizarte mugimendu berrietan: “El esquema organizativo de los viejos movimientos sociales se suele identificar con una estructura centralizada y jerárquica como la que tienen los sindicatos obreros, la mayoría de grupos en pro de los derechos civiles y otras asociaciones de carácter económico. Una estructura así permite a estas organizaciones movilizar eficazmente a sus partidarios y encauzar los recursos de la organización. Tanto las teorías clasistas como la de la movilización de recursos consideran que se trata de la estructura organizativa óptima, cuya quintaesencia se recoge en el concepto weberiano de autoridad burocrática racional o en la noción de “ley de hierro de la oligarquía” de Michels. Por el contrario, la estructura interna de los nuevos movimientos sociales se menciona a menudo por su incumplimiento de la ley de hierro de Michels. Los teóricos de los nuevos movimientos sociales sostienen que estos grupos prefieren una estructura descentralizada, abierta y democrática, que está más en armonía con las tendencias participativas de sus partidarios. La fluidez de la estructura organizativa de los nuevos movimientos sociales adquiere su máxima visibilidad entre los grupos locales de acción ciudadana o en las secciones locales de organizaciones de ámbito nacional” (Dalton, Kuechler, Bürklin, 1992a: 33). Offek, bestalde, honako hau dio: “Es típico que en su modo interno de actuar, los nuevos movimientos sociales, en contraste con formas tradicionales de organización política, no se rijan por el principio organizativo de la diferenciación, ni en la dimensión horizontal (el de dentro frente al de fuera), ni en la dimensión vertical (dirigentes frente a gente común). Parece confiarse, al contrario, mucho en la des-diferenciación, por ejemplo, en la fusión de los papeles privados y públicos, del comportamiento instrumental y expresivo, de la comunidad y la organización, y en particular en que la línea de deslinde entre los papeles de los “líderes” formales y de los demás “miembros” esté desdibujada y todo lo más sea transitoria” (Offe, 1988: 178). Antzeko baieztapenak aurkitzen ditugu gizarte mugimendu berriei buruzko lehen azterketetan.

⁴¹ Gizarte mugimenduen eta beste ekimen sozial batzuen –adibidez, Gobernu Kanpoko Erakundeen (GKE)– esparru soziala barne bereizketa handiko mundu konplexua izatera iritsi da. Horregatik, ez dira egokiak orain urte batzuk egiten ziren azterketa errazak. Hein handi batean, gaur egun hain ohikoak diren GKEak behinolako gizarte mugimendu batzuen ondorenak dira. Gizarte mugimenduz, elkarte boluntarioz eta GKEz osatutako Hirugarren Esparrua izugarri hazi da gaur

egungo gizarteetan, bereziki Ongizate Estatuaren gainbeheraren ostean. Esparrua osatzen duten mugimenduen eta elkarteen funts ideologikoa hasierako gizarte mugimenduen ideal utopikoetan oinarritu bazen ere, gero estatu postkeynesiarraren berregituraketaren oinarritzko elementuak izan dira haietako asko. Zehazki esateko, mutur batean, hasierako gizarte mugimenduen idealari jarraitzen dioten elkarteak eta GKEak daude gaur egun: horiek, euren behin-behinekotasunean, ez diete uko egin asmo kritikoa eta eraldatzaileei. Beste muturrean, aldis, estatuarekin eta administrazio publikoekin lankidetzan diharduten elkarte ereduak kokatzen dira, honetzero sistema politiko instituzionalean aktore konbentzional gisa onartu direnak. Azken horietako asko ongizate sozialaren eta garapenaren arloetan aritu dira bereziki eta, elkartasunaren eta lankidetzaren diskurtsoaren izenean, politika sozialen zatiketa eta endekapena legitimatu dute. Mota horretakoek, barne eraketari eta finantzaketari dagokienez, enpresa egiturak osatu dituzte. Militantzia merkantilizatu ondoren (Dezalay, 2003), merkatu garailearen aurrean programa partzialak sustatzen dituzten eragile gisa dihardute. Ez dute izan, ordea, erabaki politikoen norabidea aldatzeko gaitasunik; are gutxiago, merkatuaren legeak eraldatzeko indarrik. Aitzitik, partaidetzaguneak izateko sortu ziren eta enpresa moduko kudeaketarako guneak izatera iritsi dira. Mugimenduen eta GKEen esparruan gertaturiko aldaketan berri jasotzen dute hainbat autorek. V. Sampedrok azpimarratzen duenez, GKEak bereziki joan dira, batzuk gatazkaren logikaren barruan jarduten dute, baina beste batzuk kudeatzaileak dira (Sampedro *et al.*, 2002). J. Errok, berriz, kultura edo razionaltasun “instrumentala” oinarritzat daukaten elkarteak eta mugimenduak bereziki ditu kultura “adierazkorra” daukatenetatik (Erro, 2003). GKEen bilakaerari buruz, ikus: Revilla, 2002a; Serrano Oñate: 2002; Díez Rodríguez: 2002. Hirugarren Esparruari buruz: Larrinaga, 2004.

⁴² Modu honetan azaltzen dute Schielek eta Jacobik bitartekaritza funtzio hori: “Une nouvelle fonction s’impose dans la société: celle de médiation. L’intercesseur sera responsable de la communication des éléments de pensée entre ceux qui les fabriquent, dans un langage abstrait mais nécessaire à un système hautement cohérent, et ceux qui, éventuellement, devraient après information avoir droit de regard sur les décisions qui en résultent (...), décisions qui ne sont trop souvent prises par des autorités lointaines, dont les oracles réputés infallibles ont seuls accès au “dossier”. Cet intercesseur ne peut se substituer à celui qu’il n’est pas. Sa fonction consiste à assurer une communication optimale au moindre “coût” entre créateur de culture et consommateur. Son objectif; offrir au récepteur la possibilité d’intégrer dans une structure de connaissance le contenu des messages produits (...) Il se trouve investi d’un double rôle de créateur et de médiateur” (Schiele, Jacobi, 1988: 16, 17).

⁴³ Ildo horretatik, aitortu beharra dago ezagutza zientifikoek aldatu egin dutela gizakien bizitza. Eguneroko ingurumena objektu material berriz betetzen duten bezalaxe bestelakotzen dute ezagutza zientifikoek ohiko esperientzia ere; halatan, harreman eta gertakari berriek egintzen eta hitzen esanahia aldatzen dute. Horrela adierazten du Moscovick: “[dans les sociétés modernes les sciences] inventent et proposent la majeure partie des objets, des concepts, des analogies et des formes logiques dont nous usons pour faire face à nos tâches économiques, politiques et intellectuelles (...) La réalité, ce qui s’impose, à la longue, comme donné immédiat de nos sens, de notre entendement, est en vérité un produit second, retravaillé des recherches scientifiques” (Moscovici, 1976: 24, 22).

- ⁴⁴ Arestian azaldu den moduan, kontuan hartu behar dugu kopuruaren hazkundeak estatusaren devaluazio erlatiboa dakarrela beti. Autore batzuek muturrera eramane dute argudio hori, adibidez Lamo de Espinosa: “La hipótesis que mantengo es fuerte: el intelectual no es el producto de una sociedad culta sino de una sociedad inculta, poco educada, sobre la que se levantan minorías educadas que generan grandes figuras. Ello explica la actual sensación de desvanecimiento de los intelectuales. Que es más bien resultado de su generalización que de su ausencia. Es decir, sostengo que es porque hoy hay muchos miles de intelectuales la razón por la que se percibe que no hay ninguno” (Lamo de Espinosa, 1996: 212).
- ⁴⁵ Iritzi horretakoak dira autore batzuk: “La excesiva insistencia de los nuevos movimientos sociales sobre la calidad de vida, ha podido engendrar un cierto “apoliticismo” en amplios sectores propios o incluso en todo el movimiento. Este aspecto sería observable en los objetivos del movimiento ecologista, centrado en reivindicaciones ambientalistas y de preservación de las especies, o del movimiento por la paz en Europa” (Pont Vidal, 2004: 133).
- ⁴⁶ Gizarte mugimenduek kultura eragile modura aldarrikatzen duten kultura eraldaketa, nolana ere, edozein aldaketa politikorako aurrebaldintza izan ohi da. Zuberoren hitzetan: “Los movimientos sociales actúan, a la manera de una horma, ensanchando el espacio cultural de las sociedades, mostrando las radicales insuficiencias derivadas de la “cultura normal”, del marco cultural dominante, que llegado un determinado momento se convierte en obstáculo para descubrir y aprovechar las posibilidades de transformación contenidas en la realidad. Por tanto, no pensemos en el espacio cultural como ajeno a los espacios político y económico, y mucho menos como enfrentado a ellos. No concibo esa aportación cultural como una aportación no-política o incluso anti-política, sino como una aportación pre-política, es decir, configuradora de unas nuevas condiciones de posibilidad para la acción política” (Zubero, 2001: 97-98). Ikus Zubero, 1996: 156-158 ere.
- ⁴⁷ Modu honetan azaltzen du Zubero mugimenduek gizarte ordena bere “biluztasunean” erakusteko daukaten gaitasun sinbolikoa –hortaz, politikoa–: “En esta tarea es fundamental la capacidad de los movimientos sociales de imaginar futuros posibles, de proponer “imaginarios colectivos” que contraataquen con sus propias seducciones, relativizando el poder de las imágenes dominantes (...) Rompen la apariencia de normalidad/naturalidad del orden social y proponen otra forma de mirar/concebir ese orden social, explicitando sus contradicciones, sus riesgos, sus debilidades. Son la mirada que permite descubrir y explicitar la desnudez del Emperador (...) De lo que se trata es de comprender el efecto de teoría que cumplen los movimientos sociales contemporáneos, efecto propiamente político que consiste, en palabras de Bourdieu, en mostrar una “realidad” que no existe completamente mientras no se la conozca y reconozca” (Zubero, 2001: 114, 115).
- ⁴⁸ Kultura eta gizartea gauza desberdinak direla onartuta ere, Beltranek honako hau dio bi kontzeptuei buruz: “En todo caso, la doble y mutua determinación implica la inseparabilidad de sociedad y cultura, puesto que, aunque no hayan de confundirse, una sociedad no puede concebirse sin cultura (...) entendida ésta, huelga decirlo, como diseño para la conducta (...) pero también y sobre todo, cabría añadir, como diseño para la sociedad. Y es en este sentido en el que la estructura social (...) que se articula básicamente sobre las dimensiones demográfica, cultural, económica, política e histórica, tiene como decisivo factor estructurante la cultura,

aunque ésta venga a su vez en buena medida determinada por la estructura social” (Beltrán, 2004: 55-56).

- ⁴⁹ Gogora ditzagun gizarte mugimendu berriei buruzko J.M. Mardonesen hitzak: “El tema de los NMS se ofrece como un lugar donde espiar lo que está pasando en nuestra sociedad moderna. La modernización está aquejada de contradicciones serias que incluso amenazan su supervivencia. Los NMS se presentan como una corriente socio-cultural donde se ha llegado a la conciencia –modernización reflexiva– de esta situación y la necesidad de un cambio no sólo de teorización explicativa, sino socio-político y aún civilizacional. Es la civilización, la cultura occidental, la que está enferma. Frente a esta situación proponen un cambio de perspectiva, de valores, de política, que supondría un giro radical (...) Los NMS suponen la corriente socio-cultural más crítica y original de nuestro presente y la más cargada de consecuencias para el futuro, tanto desde el punto de vista teórico social y cultural, como político. Las teorías de la modernidad como la reflexión sobre lo político en el momento actual pueden recibir numerosos impulsos creativos de los planteamientos de los NMS” (Mardones, 1996a: 42-43).
- ⁵⁰ Kultura eta hizkuntza zeharo elkarlotuta agertzen dira lehenago aipatu dugun zentzu fenomenologikoan; horregatik hemendik aurrera mendeko hizkuntzaz hitz egiten denean, mendeko kulturaren existentzia ere berekin duela onartuko da. Hizkuntza hiru modutan dago harremanetan kulturarekin, Fishmanen aburuz: “1- A language is indexically related to its culture (...) 2- A language is symbolically linked to its culture (...) 3- A language is linked to its culture in part-whole fashion”. Ikus Fishman, 1991: 20-24.
- ⁵¹ XVI. mendeko Europako hizkuntzen estatusa aipatuz, honela azaltzen du egoera Calvetek: “De hecho ya, o las lenguas están en el poder político o no son lenguas” (Calvet, 1981: 20).
- ⁵² Botere instituzio izateak, gizarte errealtatea ekoizteko almena inplikatzeko du, Berger eta Luckmanek gogorarazten dutenez: “El poder en la sociedad incluye el poder de determinar procesos decisivos de socialización y, por lo tanto, el poder de producir la realidad” (Berger, Luckman, 1979: 152).
- ⁵³ M. Cohenek honela aipatzen du hizkuntzen eta giza taldeen arteko harremana: “El lenguaje humano se presenta como un gran número de lenguas, subdivididas a su vez generalmente en dialectos y hablas, que se han formado y evolucionan en condiciones variadas. Estas condiciones se definen por relaciones de todas clases entre agrupaciones humanas más o menos extensas y complejas” (Cohen, 1974: 179). Ildo berean mintzo da Calvet: “Las relaciones entre lenguas se conciben como relaciones sociales; hay una jerarquía con su cúspide (y pocos elegidos) y una base donde se encuentra la masa. Esta organización piramidal de las lenguas, es decir, de los pueblos que las hablan, recuerda un poco la arquitectura de la torre de Babel, pero sobre todo lo que recuerda es la organización social” (Calvet, 1981: 20).
- ⁵⁴ Berriz ere Cohenen hitzak gogora ekarriz: “Las lenguas forman parte como elementos de las competencias y luchas, así como de las alianzas, esbozadas o relativamente bien realizadas, entre los pueblos y entre las naciones estrictamente organizadas. Sus destinos llevan la huella de los acontecimientos; sus fuerzas propias contribuyen a realizar algunos de esos acontecimientos. Del mismo modo que hay que tener en cuenta la situación de las potencias grandes y pequeñas, de los países impe-

- rialistas y de los países neutrales, hay que saber distinguir las grandes lenguas (vivas o conservadas), las menos grandes y las pequeñas” (Cohen, 1974: 233).
- ⁵⁵ Honela dio Fishmanek: “Los niveles o variedades lingüísticas alcanzan y pierden su valor simbólico conforme el rango de sus funciones más características y relevantes se va elevando o decayendo (...) La elevación paso a paso de las lenguas vernáculas europeas más modernas a sus actuales posiciones de lenguas de cultura y tecnología es sólo un ejemplo de cuán dramáticamente pueden variar las funciones operativas o simbólicas de las lenguas” (Fishman, 1982: 38).
- ⁵⁶ Sen oneko ezagutzak daukan pertzepzioa sarritan indartu egin da beste goi mailako ezagutza batzuek eskainitako argudioen ondorioz. Mendeko hizkuntzei buruzko ikuspegi nagusiei dagokienez, esaterako, garrantzizkoak izan dira luzaroan linguistikak egin dituen interpretazioak: “Salvo excepciones, la tendencia entre los lingüistas no es hacia una lectura histórica de las relaciones entre las lenguas, sino más bien hacia la disolución de la historia y hacia el endurecimiento en las posiciones adquiridas. Tanto la descripción como su teorización fijan las relaciones de fuerza existentes como relaciones de naturaleza: el azar histórico se convierte en necesidad” (Calvet, 1981: 46).
- ⁵⁷ Horrela ematen zaio hasiera *language shift* prozesua deritzonari (Fishman, 1991). M. Zalbidek “mintzaldatze” modura itzultzen du euskaraz prozesu hori. Fishmanen kontzeptuen berrikusketa egiteko ikus Zalbide 2004a, 2004b eta 2004c.
- ⁵⁸ Mendeko hizkuntzaren balorazio ezkorra eta gutxiespena ohikoak izaten dira, ez soilik hizkuntza nagusiaren hiztunen artean baizik eta mendeko hizkuntzaren hiztunen artean ere, azken horiek barneratuta baitaukat gizartean indarrean dagoen definizioa. Horrela, menderatze sinbolikoaren ondorioz, mendekoei menderatzailen irizpideekin ebaluatzen dituzte eurek sortutako produktuak. Calveten hitzetan: “La actitud despectiva hacia el “dialecto” no se da sólo entre aquellos para quienes pueda ser considerado como la lengua de los otros, sino que puede llegar a darse entre sus propios hablantes sometidos a la presión de la ideología (...) Efectivamente, la fuerza de la ideología es tal que los mismos que defienden sus lenguas oprimidas contra la centralización glotófaga son a veces sus víctimas. ¡Qué decir entonces de aquéllos que, por hablar su lengua, no han podido adquirir los medios para criticar la visión que de ella les da la ideología dominante! Su único refugio es la culpabilidad arrepentida: sí, es claro, hablamos esa lengua salvaje, ese dialecto, ese “patois”, pero nuestro mayor anhelo es hablar francés. Nuestros torpes labios aún no lo consiguen, habituados como están a balbucear nuestras extrañas palabras, pero al menos nuestros hijos aprenderán la lengua” (Calvet, 1981: 47, 48-49).
- ⁵⁹ Hau da, *Reversing language shift* (Fishman, 1991) delako prozesua hasi asmoz.
- ⁶⁰ Fishmanek azaltzen duen bezala, hizkuntzaren aldeko mugimenduak askotan beste mugimendu etniko eta nazionalista zabalagoen barnean kokatzen dira: “Conscious ethnicity movements are more than likely to become or incorporate conscious language movements as well. Together they seek to foster specific B–A resolutions and to undo others. Language loyalty movements are, therefore, normally part of larger movements to activate and use unconscious language-and-ethnicity linkages in order to attain or reallocate econotechnical, political and cultural/educational power. Such movements are normally part of much larger, more encompassing social change movements. They stress ethnic identity consciousness (and even eth-

nic identity change) in order to attain the ends defined by their proto-élites” (Fishman, 1989: 218).

- ⁶¹ Modu honetan azaltzen du Smithek: “En todos los nacionalismos hay, efectivamente, elementos cívicos y étnicos en diversos grados y formas; a veces predominan los elementos cívicos y territoriales, y en otros casos cobran mayor importancia los componentes étnicos y vernáculos. Por ejemplo, con los jacobinos el nacionalismo francés era fundamentalmente cívico y territorial, pues predicaba la unidad de la patrie republicana y la fraternidad de sus ciudadanos en una comunidad político-legal. A pesar de ello, se desarrolló un nacionalismo lingüístico que reflejaba el orgullo de la pureza y de la misión civilizadora de una cultura hegemónica francesa” (Smith, 1997b: 11). Ildo beretik, Lloberak ere nazionalismo etnikoaren eta nazionalismo zibikoaren arteko bereizketa egiten dutenen iruzurra salatzen du. Era berean, adibide historikoak erabiliz, Europako nazioak batik bat talde linguistikoen inguruan eraikitzen direla eta estatuek hizkuntza batasuna bultzatzen dutela erakusten du (Llobera, 2001).
- ⁶² Horrela azaltzen du Smithek: “El lugar que la ley ocupa en el modelo cívico (...) le corresponde en el modelo étnico a la cultura vernácula, fundamentalmente a la lengua y las costumbres. Por ese motivo, lexicógrafos, filólogos y folcloristas desempeñaron un papel fundamental en los primeros tiempos del nacionalismo en Europa oriental y Asia. Las investigaciones lingüísticas y etnográficas de la cultura presente y pasada del “folk” que llevaron a cabo suministraban el material para el proyecto original de la “nación-en-ciernes”, aunque los intentos de resucitar ciertas lenguas fracasaron. Al crear una conciencia generalizada de los mitos, historia y tradiciones lingüísticas de la comunidad, lograron que la idea de una comunidad étnica se sustanciase y cristalizase en la mente de la mayoría de sus miembros, incluso en los casos en que, como en Irlanda y Noruega, las antiguas lenguas entraron en decadencia” (Smith, 1997a: 11).
- ⁶³ B. Tejerinak, esaterako, hizkuntzaren funtzio sinbolikoaren garrantziaren berri ematen digu. Hizkuntza gutxituak komunitate sinbolo gisa sortzen duen atxikimendua, hizkuntza komunitatetik haratago zabaltzen da askotan, hiztun izan gabe ere taldekide sentitzen direnen lotura sinboliko-afektiboa eraginez: “La lengua puede adquirir así valor de símbolo para un grupo de individuos. En cuanto valor simbólico la necesidad de su conocimiento se vuelve prescindible, pasando a primer plano la mera aceptación de su valor, la relación afectiva con el símbolo, pues la adhesión misma a los valores simboliza, a los ojos del propio sujeto y de los demás actores, su participación en esta o aquella colectividad, en esta o aquella sociedad. De este modo, es posible comprender cómo un elemento no compartido –no poseído como código de comunicación– por todos los miembros de una comunidad, tal es el caso de la lengua, puede convertirse en el elemento definidor de la comunidad. La adhesión afectiva al símbolo es, ya, una forma de posesión. En la representación colectiva que los actores sociales mantienen de su comunidad la lengua se manifiesta como el rasgo “objetivo”, como elemento que posibilita la identificación de la diferencialidad de la identidad colectiva” (Tejerina, 1992: 233-234).
- ⁶⁴ “Some nationalist movements involve RLS-[Reversing Language Shift]-efforts too, but the overlap between the two is not nearly as great nor as important as the differences between them. Most RLS movements, particularly those that have been most active since World War II, are not as basically motivated by political aspira-

tions such as political separatism or even political autonomy. They generally seek not so much an impact on the general body politic, as, rather, a focus on “those of their own kind” and on their internal cultural order. Indeed, an RLS movement that has a surrounding nationalist movement to fall back upon already has an advanced organizational and ideological thrust, a clientele and a definition of its desired future. However, even such movements often find that independence is not enough to guarantee ethnocultural and ethnolinguistic distinctiveness and find it necessary, therefore, to institute “cultural policies” and “language policies” (viz. policies on behalf of French in Quebec, Flemish in Belgium, Irish in Ireland, even after the attainment of cultural autonomy or even political independence) calculated to provide the ethnolinguistic breathing space that small cultures always require for their coexistence in a world dominated by ethnolinguistic behemoths” (Fishman, 1991: 27-28).

- ⁶⁵ Dena den, aldarrikapenen lehen uneetan protagonismoa hartzen duten eliteak eskuarki kultura/hizkuntza nagusian prestatuturiko eta kontsakturaturiko kulturgileak izan ohi dira: “Estas minorías reciben su fuerza no sólo del grupo del que son portavoces, sino también, en gran medida, de la legitimación o consagración que han adquirido dentro del grupo dominante. Los teóricos y/o portavoces de prácticamente todas las reivindicaciones lingüísticas –sobre todo en el principio o en los momentos clave–, son generalmente expertos lingüistas (u otra actividad relacionada), consagrados necesariamente en la lengua dominante; habiendo obtenido en ella y por ello “el poder para consagrar” (Bourdieu) que da un brillante curriculum, por ejemplo; y por ello la credibilidad aumentada en el propio grupo. “Los nuevos entrantes que rechazan los caminos marcados, no pueden batir a los dominantes en su propio juego más que a condición de mostrar una sobredosis de consagración” (Bourdieu). Los conocimientos y autorizaciones adquiridos en esa consagración según las jerarquías y valores dominantes, serán una de las armas principales de construcción y legitimación de las nuevas jerarquías que se proponen” (Miranda, 1988: 316).

BIGARREN ATALA
KULTURGILEEN TRADIZIOAK SORTZEN, KULTURA
ESPARRUAREN AUTONOMIA GAUZATZEN:
EUSKAL KULTURGILEAK EUSKALGINTZA
MUGIMENDUAREN ERAIKUNTZAN

1. Euskalgintza: historian zehar gizarte aldaketarako euskal kulturgileek osaturiko esparru kognitiboa

“There is not, on the one side a discourse of power, and opposit it, another discourse that runs counter to it. Discourses are tactical elements or blocks operating in the field of force relations (...) We must make allowances for the complex and unstable process whereby discourses can be both an instrument and an effect of power, but also a hindrance, a stumbling block, a point of resistance and a starting point for an opposing strategy” (Foucault, 1980: 100-101).

“Nik esango nuke herri bat batez ere bere historia eta bere utopia dela” (Azurmendi, 1998: 115).

Euskal hizkuntzalaritzan nahiz euskararen historia lanetan, euskarari buruzko azterketa ugari egin dira euskararen atzerakada historikoa eta haren gutxitze prozesua azpimarratuz. Halaz ere, euskararen ordezkapenaren historia ezin da azaldu euskal hizkuntza komunitatearen iraupen ahaleginak aintzat hartu gabe. Bi prozesu horiek, ordezkapena eta iraupen saioa, elkarri estuki lotutako bilakabideak ditugu; hizkuntza komunitatearen baitan garatutako ahaleginak bereziki garrantzitsuak izan dira azken mende eta erdian.

Euskararari buruzko atxikimenduan eta, oro har, euskararen iraupenaren ideian sakondu nahi izan du Xabier Erize historialariak. Erizeren ustez, euskararen historian atzematen den gauzarik nabarmenena ez da hizkuntzaren atzerakada –faktore hori oso inportantea bada ere–, haren biziraupena eta mundu modernoko desafioei erantzuteko izan duen ahalmena baizik. Baina, Erizek salatzen duenez, euskararen eta herri hizkuntzen historiografian hamarraldi askotan nagusi izan den ikerkuntza programa edo paradigma moduko bat egon da indarrean. Programa hori atzerakadaren ideia-aren inguruan eratu zen eta ikerketa gehienak aipatu arazoa azaltzera bideratu ditu orain arte (Erize, 1997: 30-31). Horren aurrean, bestelako ikuspuntu bat finkatzeko premia ikusten du nafar autoreak. Ildo horretatik, ohiko moldeak gainditu eta euskararen historia euskaratik bertatik egitea proposatzen du, bilakabidearen subjektu edo protagonistatzat euskaldunak –euskal hizkuntza komunitatea– hartuz. Bere lanean erakutsi nahi duena, horrenbestez, euskal hizkuntza komunitatearen bilakabidea da, berez eta erdal komunitatearekiko harremanetan, horrela, hizkuntzari buruz erakutsi duen atxikimendua nabarmentzeko. Planteamendu horretatik ondorioztatzen du euskararen historia ez dela estatuen, elizaren edota irakaskuntza sistemaren euskararekiko egintza edo ideien historia, ez gizarteak orotara euskarari buruz erakutsi duen jarrera edo portaeraren historia, ez eta elite euskaldunen edo mugimendu euskaltzaleen historia ere, nahiz eta aipatutako guztiak aztertu beharreko gaiak izan. Euskal hizkuntza komunitatea bera iker-tu behar da Erizeren aburuz –haren portaera arauak, egitura, balioak eta mundu sinbolikoa– eta bigarren maila batera baztertu behar dira haren baitan eragina duten beste elementu batzuk. Laburbilduz, honako ondorio hau nabarmentzen du:

“Oro har, ez klabe politikoez ez klabe sozial orokorrek ez digute euskararen, hizkuntzaren historiaren gakoa argitzen. Muina erakusten diguna klabe linguistikoa da: hizkuntza komunitateen terminoetan egindako azterketa” (Erize, 1997: 32).

Gure ustetan, bi atal bereiz daitezke Erizeren arrazoibidean. Alde batetik abiaburua dago: alegia, euskarari buruzko azterketa historikoetan nahiz soziologikoetan hizkuntza komunitatearen iraupena –eta, hartara, iraupen faktoreak ere– ikertzeko premian arreta jartzen duen argudioa. Enfasi aldaketa hori –ordezkapenetik iraupenera doan balio handiko ekarpena da, zalantzarik gabe, eta ikerbide interesgarriak

irekitzen ditu. Bestetik, ikuspegi aldaketa horretatik haren lanean erakarrirako ondorioak daude: hizkuntza komunitatea subjektu bihurtzean, zokoratu egiten dira –gure ikusmolde soziologikoaren arabera, behar adina baloratu gabe– haren egituraketa linguistikokulturallean eragiten duten hizkuntzaz kanpoko faktoreak⁶⁶.

Hemen aurkezten den ikusmoldean bat etorri gitezke Erizerekin euskararen historia talde euskaldunaren historia dela baieztatzen duenean. Izan ere, hizkuntza gutxituen ikerketak dagoeneko ez du izan behar soilik hizkuntza ordezkapenaren sinonimo. Orobat, hizkuntza gutxituen hiztunak ezin dira objektu pasibo eta galtzaile huts gisara irudikatu historiaren bilakaeran. Aitzitik, aukerak eginez eta erabakiak hartuz elementu bizidunak eta aktiboak izan ohi dira, hala hizkuntzaren esparruan nola gizarte bizitzako beste edozein eremutan. Errealitate hori agerian uzteak, ordea, ez garamatza inondik ere hizkuntza komunitatearen eta hizkuntzaren bilakaeran eragiten duten faktore sozial, politiko eta kulturalen gaitasun erabakitzailea zalantzatzen jartzera.

Auzi horretan, beraz, bestelakoak izango dira gure abiapuntuak. Lehenik, uste dugu hizkuntza komunitatea hizkuntzaren arabera definitzeak eta hura subjektu gisa hartzeak ez duela atzerteka arazo linguistikoez gainera. Gaia paradoxaren muturrera eramanez, esan dezakegu ikuspegi soziologikotik begiratuta “auzi linguistikoa” auzia izan ohi dela beti baina linguistikoa soilik, inoiz ez. Eta baieztatzen hori baliagarria da bai hizkuntza komunitatearen barnean jazotzen diren arazoetarako bai hizkuntza komunitatearen arteko harremanetan gertatutakoak azaltzeko. Ezer izatekotan egitate soziala da hizkuntza (Durkheim, 1977). Halatan, praktikan harreman sozialetan gauzatzen da, hots, harreman asimetrikoetan. Asimetria horiek hizkuntza taldearen barnean eta –hizkuntzen arteko ukipena dagoenean– hizkuntzen artean ere hezurramitzen dira; sozialki definitzen dira holakoetan nagusitasun eta mendekotasun harremanak. Asimetriak, dakigunez, ez datoz inoiz hizkuntzen barneko berezkitasunetik gizarte harremanetatik baizik, alegia, botere harremanetatik.

Hizkuntzaren esparruan –hizkuntza baten barruan nahiz hizkuntzen artean– gertaturiko aldaketek eta gorabeherek izaera sozial hori daukate, halako moldez non, gizarte egituraren bilbe trinkoan elkarloturik diharduten osagai guztiek parte hartzen duten, zuzenean edo zeharka, hizkuntza fenomenoaren burutzapenean. Aztergaia hizkuntza komunitatearen bilakaera izanda ere, nola ahaztu haren barnean eta harekin elkarrekintzan dauden errealitate politikoan,

ekonomikoen eta kulturalen eragin baldintzatzailea? Antzeko ikuspuntua gizartetik edo taldetik baino banakoengandik abiatzen den azterketak zilegitzen du. Baina, ez da hori gure planteamendua. Aitzitik, gizakien mailara etorrira, uste dugu gizakiak bilbe sozialean txertaturik dauden bezala, egiturazko harremanetan ainguratutako habitus linguistikoen jabe izaten direla hiztun gisa ere. Hartara, egiten dituzten aukerak eta hartzen dituzten erabakiak testuinguru sozial batean kokatu behar dira. Askeak eta aktiboak dira hiztunak, bai, baina gizarte arauk –linguistikoek tartean– moldaturiko askatasuna izan ohi da beti haiena.

Bigarrenik, hizkuntza komunitatearen barnera begira, azpimarratu gura dugu hizkuntza komunitatea ez dela barne homogeneotasunak ezaugarritutako talde soziala. Une jakin batean indarrean dauden gizarte bereizgarri, harreman eta hierarkiek sailkaturiko kideak daude haren barnean; kide horiek, bestalde, era askotako gizarte taldeak osatzen dituzte. Talde batzuk egoera pribilegiatuan egon ohi dira, besteak beste, hizkuntza eta kultura baliabideen kontrolari dagokienez. Kulturgileak horien parte izaten dira. Jakina, kulturgileek ez dute osatzen hizkuntza komunitatea. Hortaz, haien azterketa hutsak ezin ditu hizkuntza komunitateak hizkuntzari buruz garatzen dituen jokamoldeak erabat azaldu –adibidez, hizkuntzari buruzko atxikimendua edo hizkuntza aldaketa zenbait mintzaira ukipen egoeran daudenean–.

Halarik ere, kulturgileek badaukate maiz hizkuntza/gizarte binomioari buruzko irudikapenak sortzeko ahalmena eta, euren aginte soziala –botere sinbolikoa– baliatuta, irudikapen horiek hikuntza komunitatean zabaltzeko gaitasuna. Bestalde, hizkuntzaren corpusa bera aldatzeko saioak ere oso arruntak izan ohi dira gure gizarteetan. Modu batean zein bestean aritzean kulturgileek hitzunen hizkuntza habitusean eragiteko xedearekin jarduten dute –hizkuntza-ukipen egoeran, eragiketa hori hizkuntza nagusiaren nahiz mendekoaren alde lerratzen da–⁶⁷. Mendeko kulturgileen diskurtsoak, halaz ere, ahultasun egoera batetik abiatzen dira beti.

Adierazitako guztiarekin esan nahi dugu, hizkuntza komunitate baten jokamolde linguistikoak ulertzeko, bereziki komunitate minorizatuen egoeran, berebiziko garrantzia daukala kultura eliteek –beste elite batzuekin batera– sortzen eta hedatzen dituzten irudikapenak aztertzea. Izan ere, hizkuntza taldeen arteko gatazka orok adierazpenak izaten ditu mintzaira praktiken mailan, baina baita maila sinbolikoan ere. Hartara, hizkuntza gatazka gatazka sinboliko mota bat

da, non hizkuntzei buruzko askotariko definizio sozialak lehiatzen diren legitimazio bila. Lehia sinbolikoen testuinguruan, kulturpile batzuk aintzindari izan dira hizkuntza gutxituen aldeko gizarte mugimenduak bultzatzen; beste batzuek, aldiz, mendeko hizkuntzen aurkako politika formal nahiz ez-formalen aldeko zerbitzu sinbolikoak eskaini dituzte. Horrenbestez, Aro Modernoan behinik behin, eztabaida intelektuala hizkuntza gatazka gehienetan presente dagoen elementua da.

Hirugarrenik, gure interpretazioan nabarmendu nahi dugu hizkuntza komunitate gutxituek eskura dauzkaten kultura tresnak eta baliabide sinbolikoak erabiltzen dituztela euren erresistentzia kognitiboa eratzeko. Xede horrekin garaian garaiko ideia nagusi, arrazoibide eta ezagutza legitimoak baliatzen dituzte –hizkuntza komunitate menderatzaileen eragile intelektualek bezala⁶⁸. Ildo horretan, gauza agerikoa da Aro Modernoan ezagutza zientifikoa ezinbesteko erreminta bilakatu dela edozein eginbehar intelektualetan.

Zer adierazten du garaian garaian dagozkion kultura tresnen erabilerak? Argi eta garbi, Aro Modernoan erresistentzia kognitiboa agertzen duten hizkuntza komunitate gutxiuak ez direla berez hizkuntza aurremoderno, herri hizkuntza (*vernáculo* deritzotena) edo antzeko erlikiaren jabe. Baina ezta ustezko “urrezko aro” batetik jasotako kultura sistema baten jagole garbizaleak ere, hainbatetan mendeko kulturpilek aurkeztu duten bezala. Kultura jatortasuna eta bereizkuntzaren izenean ezin da dagoeneko komunitate euskaldunaren kultura garaikidea Mendebaldeko kulturaren logikatik at kokatu. Zorionez edo zoritxarrez, euskal komunitateak eta bere inguruko erdal komunitateek, –jakina, botere egoera desberdinetatik abiatuta– arrazoi mendebaldar eta “eurozentrikoaren” mende jokutzen dute⁶⁹. Logika horretan sortzen dira gaur egun nagusi diren menderapen moldeak eta logika horretan utzi daitezke agerian molde horien funtzionamendu mekanismoak. Hartara, menderatuak eta menderatzaileak, lehenengoak euren txikitetasunari aurre egin nahian eta bigarrenak euren nagusitasuna mantentzeko ahaleginetan, zur bereko ezpalak dira mundu sozialean garatzen den lehia sinbolikoari dagokionez. Euren desberdintasuna botere tresnen kontrolean datza.

Aipatu ditugun argibide horietatik abiatuz, euskararen hizkuntza komunitatearen eta euskararen beraren bilakaera garaikidea ulertzeko funtsezkotzat jotzen dugu hizkuntza/gizarteari buruz euskal elite kulturalak egin duten sorkuntza sinbolikoa eta haren ondorioak aztertzea.

Kulturgileen diskurtso legitimatzaileak bi norabidetan zuzendu dira: hizkuntza komunitatetik at –ezin da ahaztu euskal gizartean erdal komunitateak ere badaudela– eta hizkuntza komunitatearen baitara. Bi sail horietan buruturiko sorkuntza diskurtsibo hori erabakigarria izan da gure ustetan. Izan ere, hiltunen eta hizkuntzaren arteko harremana gutxitan izaten da zuzena edo “berezkoa” –are gutxiago gure aroan–. Oro har, gauza bera gertatzen da gizartekidearen eta gizartearen arteko harremanarekin berarekin ere. Bien artean hizkuntzari buruzko –edo gizarteari buruzko– irudikapen sozial jakin batzuk tartekatzen dira, alegia, gizarte errealitatearen interpretazio irudiak⁷⁰. Orain arte ikusi dugunez, irudikapengintza horretan kulturgileak eragile –ez bakarrak baina bai– garrantzitsuak izan ohi dira.

Irudikapen sozialez eta haien sorkuntza prozesuez ari garelarik, berriz ekarri behar ditugu gogora gizarte errealitatearen izaera eta funtzionamendua. Dakigunez, gizarte errealitatearen konbentzionaltasuna haren jatorri gizatiarrean oinarritzen da. Izan ere, errealitate fisikoa ez bezala, aktore sozialen definizioetatik abiatuta eraikitzen da errealitate mota hori. Hartara, Austinen terminologiari jarraiki, aktore sozialek errealitate bat definitzen dutenean, jarduera predikatibo bat betetzen dute –zerbait definitzen dute– eta, aldi berean, jarduera performatibo bat ere⁷¹ –definitzen ari diren hori, definitzearekin batera, sortu ere egiten baitute–. Prozesu horretan, halaz ere, gizarte egoera orotan eragiten duen boterearen faktoreari erreparatu behar zaio, hau da, aintzat hartu behar dira definitzaile direnek egitura sozialean daukaten kokapena, baita hitz egiteko eta esanahia sortzeko ere haien onartu zaien aginte sozialaren maila –botere sinbolikoa–.

Boterearen faktorea kontuan hartuz gero ulertzen da, eraikitako errealitatea izanda ere, mundu soziala errealitate fisikoa bezain irmo agertu daitekeela gure begien aurrean. Horrela, gehienetan, errealitateari buruz dauzkagun irudiak eztabaidea ezinezko nabaritasunetan oinarriturik egoten dira; sozialki sortzen eta birsortzen diren ebidentzia horiek errealitatea dira gizakientzat, zalantzarik gabe. Boterez kutsatutako gizarte harremanek tautologia bat ezkutatzen dute –ezkutatzen ahalegintzen dira, behinik behin–: “horrelakoa da errealitatea horrelakoa delako” diosku gure mundu sozialak. Kito. Ildo horretatik, Berger eta Luckmanek ongi adierazi zuten bezala, errealitatearen irudikapenak eta, maila orokorragoan, unibertso sinbolikoak ez dira baliozkoagoak objektiboago diren neurrian –adibidez, zientifikoki frogagarriak–; haien balioa, eta ondorengo gizarte eraginkortasuna, nor-

baitek ebidentzia gisa inposatzeko daukan gaitasunean oinarritzen da. Argi dago, beraz, munduaren ikusmoldeak –bi gutxienik– lehian ari direnean, haien eraginkortasun soziala ez datzala objektibotasun zientifikoan edo arrazoiketean, ikusmoldeek oinarriean daukaten indar sozialean baizik –besteak beste, daukaten plausibilitate egituran eta talde bakoitzaren botere mailan–. Horiek horrela, Durkheimek gizarte errealtateari esleitu zion arbitrariotasuna bi alderditan interpretatu daiteke: lehenik eta behin, errealtate arbitrarioa da giza eraikuntza bat izatearren; bigarrenik, errealtate arbitrarioa da ez dagoelako arrazoiaren mende, indarraren mende eraikita baizik.

Halaz ere, eta horixe azpimarratu gura dugu hemen, arrazoiak izan dezake garrantzia indar sozial modura ulertuta. Esan nahi baita, Beranduko Modernitateko gizarteetan, irudikapen sozialen usteko zientifikotasuna eta arrazoiaren erabilera, gizarte irudikapen horien eraginkortasun sozialaren baldintzetako bat bilakatu da. Horrenbestez, baliabide kognitibo legitimoen erabilera, baita kulturgile- eta intelektual-taldeen jarduera ere, ezinbestekoak dira sineste eta irudikapen sozialen sorkuntzan. Bada, tresna horien bitartez erdiesten dira gero eta gehiago ebidentzia sozialak gaur egun.

Hartara, mendeko definitzaileak ere, hau da, gizarte errealtatearen definizio jardunean botere sozial gutxien daukaten aktoreak ere, behartuta daude aldi bakoitzean eskura dauden tresnak erabiltzera, hala nola, ezagutza legitimoak, baliabide kognitiboak eta arrazoiketak⁷². Euskal kulturgileak ez dira salbuespena izan. Halatan, garaian garaiko baliabide kognitiboak baliatuta eta garaian garaiko baldintza soziopolitikoek baimendutako aukera egiturara egokituta osatu dute euskal kulturgileek euskalgintza deitzen dugun gune kognitibo hori. Lan nekeza eta korapilatsua izan da gehienetan, mendekotasun kultural eta politikoak ezaugarritutako egoeratik buruturikoa, eta, hainbatetan, frustrazioz eta anbiguotasunez bete beren emaitzetan. Gaur ezagutzen dugun euskalgintza, besteak beste, kapital sinboliko eta kultural baten metaketa historikoaren emaitza da. Bestela adierazita, euskal kulturgileek denboran zehar –bereziki XIX. mende amaieratik aurrera– sortu eta garatutako ideia, irudikapen eta ezagutza multzoaren ondorena.

Beste mendeko hizkuntza komunitate askoren baitan gertatutakoaren antzean, euskaldungoaren gizarte botere eza haren gizarte azpiinstituzionalizazioan islatu da. Beraz, erakunde politiko eraginkorren eta erakunde kultural legitimoen gabeziak gizarte edo herri

ekimenen moldez jantzi ditu luzaroan kultura egintza gehienak. Halatan, euskalgintza denboran zehar gizarte mugimendu modura eratu den harremanezko esparrua ere bada, non era askotako eragile eta instituzioak sortu eta garatu diren, tartean euskal kulturagilezat hartzen ditugun eragile eta tradizioak.

Lehenik, era askotako eragilez eta haien arteko harremanez osaturiko kultura esparrua, bigarrenik, gune kognitibo modura funtzionatzen duen arloa: hortxe gure bi abiaburuak euskalgintzari eta euskalgintzaren partaide diren kulturgileen azterketari heltzeko. Harremanezko esparruan arakaturaz gero, era guztietako kokapenak, mailaketak eta hierarkiak atzeman ahal izango dira haren barnean, bai mugimenduan esku hartzen duten eragile indibidualen artean, bai eragile kolektibo zein erakundeen artean. Bestalde, esparru kognitibo modura, hizkuntzari eta gizarteari buruzko askotariko definizioak eta interpretazio markoak atxikitzeko beta izango du ikertzaileak, historian zehar nahiz denbora berean sorturikoak, elkarren artean osagarriak nahiz gatazkatsuak izan daitezkeenak. Den-denek osatzen dute euskalgintza deritzogun unibertsoa.

1.1. Euskal kulturgileen erresistentzia kognitiboa: kapital simbolikoaren metaketa historikoa Eusko Pizkundearen garaian

“Pentsamendurik gabeko lumak ez du zulatzen gizartearen eguneroko bizitzan. Egoera diglosikoa jasan izan duten hizkuntzen historian zehar, hizkuntza nagusiak beti jan izan dio menpekoari inteligentsiaren esparru pribilegiatua, beti zokoratu izan du etxeko zuloa, gune administratiboetatik aparte utziz. Horixe izan da euskararen kasua, baita herritar gehienen hizkuntza mintzatua izan zen garairik onenean ere” (Iztueta, 1996: 36).

“Una lengua en situación diglósica acaba reduciéndose a los ambientes más populares y a las comarcas más rurales y protegida por el aislamiento puede sobrevivir durante muchísimo tiempo. Pero esta supervivencia por inercia tiene poco que ver con los intentos de recuperación que no en balde se califican de renacimientos y cuyos iniciadores son hombres de inquietudes culturales, para entenderlos, intelectuales” (Siguan, 1988: 66).

Gizarte zientzietan –soziologian, antropologian, eta abar– ohiko *topos* edo diskurtsoa izan da gizarte eta kulturetan bi aro bereiztea: Tradizioa eta Modernitatea, hain zuzen ere. Literatura zientifikoan,

lehendabizi, eta sen oneko ezagutzan gero, errotu da gaur egun ere oso indarrean dagoen tradizionalismoaren eta modernismoaren arteko antitesi mitiko horren irudikapen soziala. Usu egin diren sailkapenen arabera, estaturik gabeko hizkuntza taldeen eta nazioen kulturak eta hizkuntzak tradizioaren sailean sartu dira, desagertze bidea besterik ez zutelakoan. Ondorioz, tradizioa gaingitu beharreko etapatzat hartuta, Tradizio/Modernitate bilakaeran oinarritutako diskurtso ebolutiboak eratu dira; horiek tradizioari lotutako guztia halabeharrez galtzera kondenaturik zegoela baieztatu dute: “herri hizkuntzak”, ohitura “atzeratuak” eta agerpen kultural “etnikotzat” jo izan diren adierazpenak, besteak beste⁷³.

Modernitatearen aroan euskarak eta euskal kulturak ere “tradizioaren” estigma jasan dute gizartean nagusi izan diren interpretazio hegemonikoetan. Estatu baten birsorkuntza instituzioen gabeziak murriztuta utzi zituen euskal hizkuntza komunitatearen sistema kulturaren iraupen aukerak. Izan ere, aldameneko hizkuntza eta kultura nagusiek berenganatu zituzten haren jatorrizko gizarte guneak. Horiek horrela, Tradizioaren eta Modernitatearen arteko dikotomia hori haustea izan zen euskararen aldeko mugimendu etnolinguistikoak eduki zuen desafio nagusietarikoa bere hastapenetan, alegia, XIX. mendearen azken herenean⁷⁴. Aldi horretan, euskal Foruen abolizioarekin batera (1876) Euskal Herri osoan hasi zen mugimendu sozio-kulturalak mugimendu intelektual moderno baten ezaugarriak biltzen ditu. Eusko Pizkunde modura ezagutzen den mugimendu horrek hitzez hitz bete zituen beste mendeko hizkuntza komunitateek garai berean buruturiko “pizkunde” ereduak.

Izan ere, M. Siguanen iritziz, hiru urrats paradigmatico atzematzen dira hainbat intelektualek XIX. mendean bultzatutako pizkundearen eremuan (Siguan, 1988). Lehendabizi, kontzientzia kolektibo baten sorrera egon ohi da non, hizkuntza komunitateak –hastapenetan, haren kide batzuek– elkartasun edo nortasun ikurtzat hartzen duen hizkuntza. XIX. mendeko Europan aski nabarmena da “historiak bazter utzitako” hizkuntzen eta kulturen aldeko interesa eta kezka. Ildo horretatik, Alemaniako pentsamendu erromantikoak izan zuen eraginik zenbait herrialdetan bizi izandako pizkunde literario eta kulturaletan. Elkartasun kontzientzia hori, dena den, “besteari” buruzko harremanetan eratzen da. Siguanen hitzetan:

“Estoy hablando de lenguas minorizadas y por tanto de situaciones en las que coexisten dos lenguas relacionadas a su vez con estruc-

turas de poder y de prestigio. Por tanto, la conciencia de solidaridad entre los que hablan o se sienten responsables por la lengua minoritaria será una solidaridad en relación con estas estructuras de poder. Y dado que las estructuras son distintas en cada caso también lo serán las formas concretas de esta toma de conciencia” (Siguan, 1988: 67).

Kontzientzia kolektiboak desberdintasunaren egitatea hartzen du oinarritzat. Baina, publikoki adierazi behar den heinean, kontzientzia hori ideologia bilakatzen da pentsamenduaren esparruan eta proiektu politiko egintzaren esparruan. Horixe da Siguanek aipatzen duen bigarren urratsa. Pizkundek, hartara, ideologia eta proiektu politiko jakin bati lotuta agertu ziren. Ideologiari dagokionez, XIX. mendean fase horretara heldu ziren mugimendu aldarrikatzaile guztiek partekatu zuten antzeko justifikazio ideologikoa: alemaniar ilustraziotik ekarritako nazioaren ideia. Ideia horrek espazio geografiko berean finkaturiko komunitate gisa irudikatzen zuen nazioa: komunitate nazionalak iragan historiko eta kultura komunak zeuzkan eta kultura hori adierazten zuen hizkuntzaren jabe zen. Funtsean, nazio-estatuak euren barnean hizkuntza batasuna oinarritzeko baliaturiko hizkuntza nazionalismoaren teoria bera erabili zuten estaturik gabeko komunitateek ere.

Azkenik, pizkunderen hirugarren osagarria hizkuntza politika da, hizkuntza gutxiaren iraupenak beraren gaineko egintza planifikatua eskatzen baitu Modernitatearen baldintzetan. Politika horrek bi egintza atal hartzen ditu barnean. Bata linguistikoa, adiera hertsian esanda; horrek hizkuntza arauaren definizioa dauka helburutzat, hots, hizkuntzaren kodifikazioa eta batasuna. Bestea, gizartera bideratzen da eta hizkuntzaren erabilera sustatzea eta “normalizatzea” du xede. (Gerora interbentzio eredu horiek “corpus planning” eta “status planning” izenez ezagutu dira).

Eusko Pizkundek aipatu ditugun osagarri tipiko horiek erakusten ditu, hau da elite kulturalak eratutako mugimendu soziokulturala zen funtsean eta euskararen gaineko interbentzioa proposatzen zuen; halaz ere, lotura politiko agerikoak zeuzkan. Mugimenduaren sorreraren testuinguru soziopolitikoak zerikusia izan zuen ezaugarritze horretan. Bada, euskal hizkuntza eta kulturari buruzko kezka intelektuala eta kontzientzi hartzea gizarte aldaketa eta eraso politiko bortitzen testuinguruan sortu eta garatu zen Euskal Herrian, Frantses Iraultzaren ondorengo Iparraldean eta Foruen abolizioaren osteko

Hegoaldean, hain zuzen ere. Azken lurralde horretako zenbait gunetan, gainera, industrializazioak eta urbanizazioak, baita haiek ekarritako inmigrazio oldeak ere, errotik astindu zituzten ohiko gizarte egitura eta bizimodu tradizionalak. Industrializazio horren ondorioak era askotakoak izan ziren, ekonomikoak, politikoak, baita kulturalak ere.

“Resumiendo, podemos decir que sobre la sociedad precapitalista vasca la revolución industrial provoca una serie de fenómenos dispares. En la vertiente septentrional, y sin que la parte Continental sea afectada, se crea una crisis del sistema agrario, con la consiguiente despoblación relativa de los campos. Esta oposición civilización urbana-civilización rural se dobla de una realidad particular: que el campo es vasco-parlante y con estructuras que en lo fundamental son anteriores a la unidad política de España, mientras la ciudad es castellano-parlante, y con unas nuevas estructuras capitalistas ligadas en lo sustancial a la unidad de mercado española. La tradicional oposición carlistas-liberales se va a transformar; el campo pasará en buena parte a apoyar al nacionalismo. En éste, hay factores ligados a la resistencia ciega al capitalismo desintegrador; pero hay también factores más progresivos. En efecto, en el campesinado y en la industria se diferencian sectores más prósperos, que crecen con la revolución industrial sin perder por ello sus ataduras sólidas al sistema social vasco: hemos de buscar en ellos a grupos sociales con una dinámica distinta a la resistencia de los grupos vascos que sufren el nuevo sistema de un modo destructivo exclusivo. Esa dinámica nueva podría identificarse al nacionalismo” (Lopez Adan “Beltza”, 1974: 64-65).

Bestalde, euskal lurraldeen alde batean eta bestean, estatuek zentralizazio administratiboa eta uniformizazio kulturala xede zuten politikak zorrotzen zituzten etengabe. Aldaketa sozioekonomikoen eta zentralizazio politikoaren ondorioz, hizkuntza komunitatearen ohiko sistema etnokulturala –bizimodu tradizionalari lotutakoa– dislokazio prozesuan murgilduta zegoen eta deseuskalduntzea aurrera zihoan geroago eta martxa bizkorragoan⁷⁵. Fishmanen hitzetan adierazita, “jatortasun etnokulturalaren” gainbehera nabarmendu zen oso denbora laburrean.

Egoera horri aurre egin nahian, Eusko Pizkundea deritzogun mugimenduaren egintza soziokulturala gizartea nahiz kultura erreformatzeko asmoekin sortu zen. P. Iztuetak agerrarazten duenez, antzekotasun handiak zeuden euskal mugimenduaren eta garai bereko

Espainiako erregenerazionismoaren artean (Iztueta, 1996: 313, 319). Haren ustez, Eusko Pizkundea eta 1898ko belaunaldiaren inguruan Espainian eratu zen espainiar erregenerazionismoa paraleloan doazen bi bide dira, baina kontrako norabideetan; lehenengoak Euskal Herria onera ekartzeko jardun zuen, mugimendu foruzale eta nazionalistaren inguruan; bigarrenak, aldiz, Espainia indarberritzearen alde egin zuen hark indar koloniala izateari utzi ondoren.

“[Espainiak], koloni lurraldeak galtzean, barruko nazionalitateak bederen ziurtatu nahi ditu. Honela, Estatu espainola koloni arazoetatik nazio arazoetara pasatzen da. Une horretan ekiten dio Espainiak nazio-estatu moderno gisa sendo eraikitzeari. Egungo egoera politikoaren giltza, ez bakarria baina bai nagusia, foruak abolitu ondoko koiuntura historiko honetan dago” (Iztueta, 1996: 319).

Nortzuek bultzatu zuten mugimendua? Argi eta garbi garaiko kultura eliteen sektore batzuek, besteak beste B. Weinsteinek *language strategists* deitzen dituen kulturgileek⁷⁶. Euskararen galeraren aurka agertu zirenen artean hiru herritar multzo bereizten ditu M. Zalbidetik (Zalbide, 1988: 394). Lehendabizi, foru aginpidearen galeraz eta modernizazio prozeduraz sortzen ari zen gizarte molde berria beren interesen kontrakoa sentitzen zuten tradiziozaleak zeuden. Bigarrenik, modernizazio alaketaren aldeko apostua egin izan ondoren hartatik jasotzen ari ziren ondasun emaitzak, bai ordain sistemari dagokionez (gorako gizarte mobilitateaz) eta bai beren taldeko nortasun galeraz, apostu egiterakoan uste izandakoak baino eskasagoak zirela konturaturatuko aurrerazaleak. Eta, azkenik, bertako burujantzien arteko elite protoabertzaleak, gizarte aitzinamendua ezinbestean herritasuna galduz eskuratu beharra ez dagoela pentsatzen zutenak⁷⁷.

Argi dago elite horien artean, kulturgileez gain, hainbat erakunde lokaletan agintea zeukaten elite politikoak ere bazeudela⁷⁸. Talde politiko horiek politika zentralisten kalteak jasaten ari ziren erakundeetan kokatuta zeuden batik bat. Halatan, elite kulturelek eta politikoek eratu zuten euskararen eta herri nortasunaren aldeko pizkunde mugimendua: hizkuntza eta etnizitatea elkartuz, euskal gizartean gertatzen ari zen dislokazio egoerari aurre egin nahian, euskal komunitatearen osagai etnolinguistikoak bere onera ekartzeko ahalegin saiatuan abiatu ziren lanketa eta formulazio sinboliko berriztatzaileen bidez. Formulazio horien egite prozesuan, bestalde, berezko ezaugarri osaturiko elite berriaren sorrera bideratu zuten, hau da, bestelako tradizio

politiko eta tradizio intelektualen osaketarako oinarriak jarri zituzten Euskal Herrian.

“Hor legoke, itxura osoz, gorespen eta adinbat gaitzerizte jaso ohi duen XIX. mendeko euskal protoelitearen sorrera. Foru-galeraz “zigortua”, Restaurazioko agintekerek bere herrian nor izateko eta herritarrengan eragiteko itxaropen-leihoak geroz eta itxiagotzen zizkiola oharturik, sustrai bila abiatu zen protoelite hori, bere ordurainoko indar solteak elkarturik, Euskal Herriaren aldeko xede-helburuak zaharberrituz eta “revival and rebirth movement” (Fishman, 1985) modukoa osatuz: euskal Pizkundearen lehen uhina osatzera iritsi zen horrela. Protoelite honi zor zaio, neurri handi batean, gaur eun indarrean dagoen euskal nortasun etnokulturalaren jakinarene gaineko formulazioa eta elaborazio sinbolikoa” (Zalbide, 1988: 394).

Euskararen galerari aurre egiteko burutu ziren kultura egintzen bitartez euskal esparru intelektual bat osatzeko lehen urratsak jarri ziren abian: era askotako kultura aldizkariak sortu ziren, eta haien inguruan intelektualen mintegiak eta harreman sareak moldatu ziren. Euskaltzaletasuna herritartzeko moduak asmatu nahian hizkuntzaren aldeko Euskal Jaiak eta Lore Jokoak antolatu ziren han-hemenka. Kultura ekimenen bor-borra adierazteko, aski bekigu esatea 1876-1939ko pizkundearen epealdian, Bizkaian bakarrik 225etik gora aldizkari eta egunkari argitaratu zirela⁷⁹.

Sortutako argitalpenak erabakigarriak izan ziren ez soilik garaiko intelektualak harreman bilbeetan biltzeko eta esparru intelektuala trinkotzeko, baita gune kognitibo garrantzitsuak eratzeko ere. Gune horietan landu ziren lehenbizikoz ezagutza berriak eta haietan hornitu zen euskal protoelite kulturala erreminta siboliko funtsezkoek euskal kulturaren eta hizkuntzaren legitimazio lanetarako. Ildo horretatik, gertakari aipagarriak daude, esate baterako, Gipuzkoako Diputazioaren babesean, 1907an Julio Urkijok RIEV aldizkaria (*Revista Internacional de Estudios Vascos*) sortu zueneko, bertan adituek euskal filologiako alor desberdinak metodo zientifikoz landu zituzten. Iztueta hitzetan, atzerriko kolaborazioetara irekita zegoen aldizkari horrekin eremu egiazki berria zabaldu zitzaion euskal filologiaren lan-ketari (Iztueta, 1996: 323). Adibide bat besterik ez da. Izan ere, argitalpen horren ondoan heziketadun euskaltzale sakabanatuak elkar-lanean biltzeko eta euskararen aldeko egintzak sustatzeko xedearekin

makina bat aldizkari jaio zen Pizkunde garaian (berbarako, *Euskal-Esnalea* 1908an Campionen zuzendaritzapean sortua eta beste asko).

Aldizkarien sorrera premiak aditzera ematen du euskal esparru kulturalak, esparru izateko, erakunde kulturalen beharrian larria zeukala. Kulturgileek aski ongi zekiten hori. Esparrua taxutzeko eta egituratzeko instituzioak sortu beharra zegoen ezinbestean. Eta sortu ziren. Eragin handiena izan zuenetarikoa *Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos* elkarte dugu: Hego Euskal Herriko lau Diputazioen onarpenarekin jaiorik, hezur-haragizko erakunde bilakatu zen 1918ko Oñatiko Biltzarrean. Eusko Ikaskuntzaren funtsezkotasuna berak zuzenean buruturiko kultura egintzetan ez ezik euskal kultura esparruan bultzatu zuen erakundetze ahaleginean dago. Saio horren emaitza dugu 1919 urtean gauzatutako *Euskaltzaindia*, euskara jagon eta euskarari buruz ikerketa zientifikoak egiteko sortu zen erakundea, geroago, hizkuntza minorizatuaren corpusa arautzeko hain erabakigarria izan dena. Bestalde, unibertsitatetik ez izatean *Eusko Ikaskuntzak* ordezkatu zuen gabezia hori. Izan ere zientziaren sailei dagozkien euskal gai funtsezkoenak eta larrienak elkarte horrek landu zituen 1918-1936 epealdian egindako zazpi Batzarreetan (Iztueta, 1996: 330).

Oro har, gaurko euskalgintzaren “programan” dauden gai nagusiak Pizkunde mugimenduaren kulturgileek eta erakundeek formulatu eta plazaraturikoak dira, hein handi batean. Ezaguna da hizkuntza estandar bateratuaren gabeziak jadanik sortzen zuen kezka kulturgileen artean. Gai horren karietara, Iparraldeko nahiz Hegoaldeko euskaltzaleak Hendaian elkartu ziren 1901ean lehen aldiz eta Hondarribian, 1902an, bigarrenez, hizkuntzaren batasunerako ortografia arautzeko helburuarekin, nahiz eta ez zuten adostasunik lortu.

Bestalde, 1918ko Oñatiko Biltzarrean Euskal Herriaren konfigurazio etnokulturalaz gogoeta-lan sakon eta emankorra bideratu zen. Besteak beste, Luis de Eleizaldek hantxe urratutako bideak ondorio biziak izan ditu harrezkeroztik euskalgintzak jarritako helmugetan. *Corpus planning* eta *status planning* kontzeptuak, beste hitzekin adierazita ere, garbi agertzen ziren Eleizaldek Biltzarrean aurkezturiko lanean; halaber, ezarrita zeuden bertan helburu horietara iristeko abia-buru eragingarriak. Ildo horretatik, Urkijok eta Eleizaldek Oñatiko Biltzarrean erabilitako arrazoibideek gaurkotasun handia daukate. Ikuspegi linguistikotik, euskara –zioten– ez da “primitiboegia” zibilizazio hizkuntza izatera iristeko. Euskararen arazoa luzaroan pentsamendu zientifikoaren, literaturaren, merkataritzaren eta artearen

esparruetatik at egotetik dator. Horregatik –argudiatzen zuten euskaltzaleok– behar zuten babes instituzionala eta eskola irakaskuntza; horrexegatik zegoen, hain zuzen ere, tresna berri baten, estandarren, premia larrian.

Eguno euskalgintzaren esparru kognitiboan ainguraturik dau-den hamaika gogoeta eta ideia nagusiren iturriak atzematen dira orduko lan intelektualetan. 1922an euskara batuari buruz egindako txostenean A. Campion eta P. Broussain euskaltzainek euskararen atzerapenaren kausak zerrendatu zituztenean –goi-klaseek euskararen aurrean adierazten zuten mesprezua, Espainiako hezkuntza sistema orokortzeak ereindako gaztelaniaren hazia, euskalkien ugaritasuna eta gainontzeko hizkuntza modernoan aldean euskarak zeukan hiztegi pobrezia aipatzen ziren beste faktore batzuen artean– geroko azterketa soziolinguistikoen aurrekariak ezarri zituzten.

Hortaz, pizkundearen hainbat lanketa intelektualetan zirribor-ratuta azaltzen dira –sarritan asmo gisa besterik ez bada ere– geroko euskalgintzaren eginbeharrak. Hain zuzen ere, lanketa horien bitartez mugimenduaren gune kognitiboa arian-arian osatu zen heinean, gizarte egintzan baliatzeko moduko ezagutzazko kapitala metatu zuen mugimenduak. Dakigunez, kapital kognitiboa baliabide eraginkorra izan daiteke gizarte modernoetan. Bide horretan, kultura baliabideek baliabide politiko gisa erabili nahi zituzten Pizkunde garaiko intelektualek, gizarte aldaketa sustatzeko eta, bereziki, euskaldungoaren egoe-ra linguistikoari errotik buelta emateko. Halaz ere, kultura baliabideen eraginkortasun politikoa ezin zen praktikan hezurramitu ezelango botere soziopolitikoren sostengurik gabe. Eusko Pizkundearen proiektu kulturalak herrigintza egitasmo zabal baten atala ziren, eta egitasmo horrek adierazpen politiko jakinak izan zituen.

Pizkundearen mugimendu soziokulturalaren sorrera neoforalismo politikoari lotuta agertu bazen, haren garapena gero eta indar handiagoa hartzen ari zen euskal nazionalismoarekin elkaturik burutu zen⁸⁰. Izan ere, Pizkundearen asmoek –euskal gizartearen sozio-kulturazko oinarri berriak jartzea– eta Aranak sortu berri zuten nazio-berreraikuntza proiektua bat zetozen euren filosofian eta ildo nagusietan. Pizkunderan, hartara, kultura eta politika, hizkuntza eta identitatea uztartuta zeuden modu estuan. Elite intelektualek sortutako interpretazio markoa eta Aranaren formulazioak eskainitakoa –arrazaz gain euskara zen herri nortasunaren iturri eta zeinu bereizgarri– sintonia berean kokatu ziren eta horrek euren indarra areagotu zuen. Nazio

eraikuntzaren bide beretik, mugimendu kulturalak desagertzen ari zen gizarte molde zaharraren hondakinetatik etnokulturazko osagai jator guztiak jaso eta bildu nahi zituen. Eta, horrekin batera, gizarte modernoan taxutu beharreko elementu berriak “euskal erara” sortzea eta egokitzea zeukan helburutzat⁸¹.

Nazionalismoaren eta kultura mugimenduaren uztarketak indartu egin zuen euskal protoelitearen komunitate egituraketa⁸². Halaber, artean kulturgileen eta pentsalariaren adierazpen akademikoak eta gogeta teorikoak zirenak herritar askoren sen oneko ezagutzan txertatu ziren abertzaletasunaren hedapenarekin batera. Horrenbestez, planteamendu nazionalisten zabalkundea aldi berean euskal gizartea, hizkuntza eta identitateari buruzko ezagutza multzo baten hedapena izan zen, bestela esanda, elite kulturalak eta politikoezko formulaturiko intepretazio marko berriaren finkapen soziala euskal gizarteko hainbat sektoretan.

“Aurreko protoeliteek ez bezala arrakasta izan zuen Aranak, partez edo osoz, uste-sinesmen, ikuskera eta jokamolde horiek ordurainoko “euskal” inteligentsiaren zirkulu itxietatik atera eta kalejende arruntei (eta gero baserritarrei) komunikatzen eta jendea herrigintzan jartzen: hortik datorkio Aranari, bere formulazio nagusien berritasunetik baino areago, euskal abertzaletasunaren aitapontekoaitomena. Estatuaren soberania talde etnikoen autonomiarekin nola uztartu asmatzeko arazo politikoa hain bizirik zegoen aldiaren bete-betean sartu zuen Aranak Euskal herria jakinaren gaineko nazionalitatearen sailean. Euskal Pizkundeak berak bigarren fase bat ezagutuko zuen handik aurrera, aurreko saioaren jarraipen huts edo berezko garapen gisa ezin esplikatuzkoa” (Zalbide, 1988: 397).⁸³

Bestalde, arnabar nazionalismoak, bere ahuldadean, irauteko eta garatzeko aukera politikorako gutxieneko egitura bat (*Political Opportunity Structure*) eskaini zion mugimendu kulturalari. Hegoaldean, estatuaren administrazio gune nagusiak euskal nazionalismoaren kontrolerik at bazeuden ere, ez zen gauza bera gertatu hainbat erakunde lokaletan –udaldiru zein diputazioetan–. Horrela, euskal nazionalismoa sendotu zen neurrian, indar-koerlazio mesedegarriez baliatuz, proiektu berriak bideratu izan ahal ziren politikan nahiz kulturalan. Hazkunde horren eragina nabarmena izan zen kultura eremuan, bereziki indar nazionalista hegemonikoa izan zen instituzioetan. Adibide modura, 1917ko Bizkaiko Diputazio hauteskundeetan nazionalismoa irabazle izan ondoren, aurrera atera ziren egitasmo kultural

garrantzitsuak: hezkuntza mailakoak –Auzo-eskolen antolakuntza bultzatu zen– eta hizkuntzaren garapenari zegozkionak, besteak beste –abian jarri zen *Eusko Ikaskuntza* sortzeko prozesua–.

1.1.1. Hizkuntza kontzientziaren sorrera eta hizkuntzari buruzko lehen teorizazio nazionalista. Campion eta Arana

Pizkunde kulturalak bi gune geografiko eta kronologikotan erakutsi zituen bere emaitzarik interesgarrienak. Guneetariko bat Nafarroan kokatu zen, bestea Bizkaian –zehazkiago esanda, Bilbon–. Lehenengoa Arturo Campionen buruzagitzapeko *Asociación Euskara de Nabarra* elkartearen inguruan bildutako intelektualek osatu zuten. Bigarrena, Arana buru zuen mugimendu etnonazionalistaren barnean elkartzuriko kulturgile eta politikariek. Gune horiek hizkuntzaren eta kulturaren inguruko jorraketa-ildo desberdinak ekarri zituzten.

Lopez Adanen ustetan, nafar kulturgileen artean lehen aranisten gainetik dagoen kalitate zientifikoa eta literarioa aurkitu daiteke. Bestalde, nabarmena zen nafar kulturgileek definituriko euskal nortasunaren kontzientzia hizkuntzan oinarrituta zegoela arrazan baino gehiago. Halaz ere, “euskaroek” ez bezala, mugimendu politiko gisa jokatzean, aranismoaren interpretazioak eragin sozial handiagoa erdietsi zuen. Areago, hura bilakatu zen erreferentzi marko nagusia luzaroan. Aipatu autoreak dioskunez, hastapenetako definizioen desberdintasunaren arrazoiak Nafarroa eta Bizkaiko egitura sozialetan atzematen dira. Izan ere, Nafarroako gizarte egonkorragoari hobeto egokitzen zitzaion aintzinako bizimoduei lotutako baskismo kulturala. Aldiz, nazionalismo aranistak aurrera egin zuen tradizioaren aldeko erresistentziarekin bat egin zutelako klase burges modernoagoek (López Adán, 1974: 69)⁸⁴.

Zenbait azterketen arabera, Campionen ekarpena (proto)nazionalismo kulturalaren ildoan kokatu izan da, eta aranismoaren ikuspegi, berriz, nazionalismo politikoaren koordinadei lotu zaie batik bat (Amezaga, 1995: 40, 47)⁸⁵. Bada, Campionen ikusmoldean, euskal identitatearen kultura osagaiei ematen zaie garrantzirik handiena, euskarari bereziki. Campion eta inguruko kulturgileen ikusmoldea, bestalde, kulturgintzaren eremuan jorratu izan zen, ez praktika politikoaren alorrean. *Euskara* elkartearen inguruan bildutako mugimenduak mesfidantza handia zeukan joko politikoaren aurrean, eta kulturaren esparruan garatu zuen bere borroka sinbolikoa.

Campion herriaren ideiatik abiatu zen bere idazkietan eta ez nazioaren kontzeptutik. Haren pentsamenduan Euskal Herriak ez du nazio bakarra osatzen. Areago, bere nortasunari heltzeko gauza den heinean, Euskal aberriaren errealtatea bateragarria izan daiteke Frantziako nahiz Espainiako aberriekin. Herria kontzeptu etniko-kulturala da haren teorizazioan; nazioak, aldiz, kontzeptu juridiko-politikoak ordezkatzeko du. Ikuspegi horretan funtsatuta, Campionen ahaleginak euskaltasunaren indarrak sendotzera zuzendu ziren eta ez nazio politikoa erdiestera. Bestalde, Campionen aburuz, herria herri egiten duen ezaugarria ez da arraza, kultura komunitatea baizik. Herria, osagai etnikoek taxututa dago eta haren substratua arraza izan daiteke, bai; baina, horrez gain, herria historian zehar beste herri edo nazioekin harremanetan eraikitzen den nortasun baten emaitza da. Ildo horretatik hartzen du garrantzia historian eratutako kulturak; azken finean, herria kultura komunitatea baita. Eta hizkuntzak osatzen du kultura komunitatearen ardatza Campionen ikuskeran.

Horiek horrela, Campionen pentsamenduak etorkizuneko nazionalismo eraberrituak hizkuntzari buruz geroago –1960ko hamarraldian– egin zuen formulazio berrirako oinarriak jarri zituen: hain zuzen ere, herri nortasunaren ardatza euskara zela esanez eta arrazaren faktore bereizgarria baztertuz⁸⁶. Abiapuntu horiek aintzat hartuta, Campionek euskararen gainbeheraren zioak aztertzeari ekin zion.

Hainbat faktore azpimarratu zituen hizkuntzaren galeraren eragile modura: bertako goi mailako klaseek euskarari buruz adierazten zuten gutxiespena, irakaskuntza sistema arrotzaren eragina –garaiko maisu-maistren lana barne–, Aro Modernoak ekarritako komunikazioen ugalketa, hizkuntzaren beraren pobretzea eta bizitza modernora ez egokitzea, dialekto eta hizkuntza aldaeren aniztasuna, eta, azkenik, herri xeheko talde garrantzitsuek euskal hizkuntzaz zeukaten estimu eskasa. Den-denak agertzen dira aipatuta Campionen idazlan eta diskurtsoetan⁸⁷.

Baina, Campionen eginkizuna ez zen amaitu euskararen egoeraren salaketan. Campionen eta *Asociación Euskara de Navarra* delako elkartearen ekarpena kultura pizkundean bi mailatan burutu zen: batetik, haiei zor zaie euskararen ordezkapena bultzatzen zuten eragileei buruzko lehen gogoeta teorikoa –hizkuntzazko barne faktoreena nahiz kanpotik ziharduten prozesu sozialena–. Bestetik, maila praktikagoan, hizkuntza ordezkapenaren aldeko joera geldiaraztera zuzen-

dutako jarduera soziokultural anitzen sustatzaile izan ziren; eginbide horretan ere euren kontzientziatze-lanari jarraipena eman zioten. Halatan, euskal jaiak, literatura sariak, herri kiroletako txapelketak eta ekitaldi folklorikoak antolatu zituzten nonahi. Ildo berean, literaturaren lerro erromantikoei lotutako tradizioan, jorraketa berezia izan zuten literaturak eta kontakizun historikoeak. Eleberri moduan konatatutako elezaharrak, ipuin mitologikoak eta eleberri epikoak, besteak beste, ugaldtu egin ziren izugarri garaiko literaturagintzan. Horiek guztiek literaturaren susperraldian eduki zezaketen eraginaz gain, ikuspegi soziologikotik, euskal tradizioaren berrirakurketan eta egokitzapenean izan zuten ondorioa nabarmendu behar da. Izan ere, haien benetako ekarpena, literarioa edo zientifikoa baino gehiago, bestelakoa izan zen: herri irudimenean tradizioaren irudikapenak txertatzea, kontzientzia kolektibo bat sortzeko xedez.

Arestian adierazi den bezala, Campion buru zuen kultura mugimenduak ez zuen adierazpen politiko arrakastatsurik lortu. Lotuegi zeuden foruzaletasunarekin eta euren ideiak, hein handi batean, krisiak jota zegoen Antzinako Erregimenaren oinordeko ziren. Euskal Herriaren zati batean gertatu ziren gizarte eraldaketan ondorioz, baina, testuinguru sozial berria jaiotzen ari zen –bereziki Bizkaiko gizartean–. Campioneak eta bere mugimenduak ezin izan zuten edo ez zuten jakin bestelako ingurune horretara moldatzen. Ondoren sortutako teorizazioak aintzat hartuz gero –lehen euskal nazionalismoarenak, alegia–, jarraitasunak eta hausturak aurki daitezke Campionen pentsamenduaren eta geroko interpretazio horien artean. Jarraitasuna hizkuntzari euskal nortasun kolektiboaren muin modura esleitzen zaion garrantzian legoke. Hizkuntza eta arrazaren kontzeptuak baliatuz bai Aranak eta bai Campioneak euskal herriaren berezitasun etnikoa eta politikoa indartu gura zuten. Bada, S. Aranek ere hizkuntzaren funtsezkotasuna onartzen du –beste faktore definitzaile batzuekin batera– euskal nazioaren elementu bereizgarri gisa eta, ildo horretan, berreskuratze kulturalaren jarraitzaile adoretua izan zen. Alta, haustura bat ere jazotzen da bien artean: oinarri biologikoa daukan berezitasun etnikoaren argudioaren mende geratzen baita hizkuntza Aranaren teorizazioan.

Izatez, Aranaren gogoeta teorikoan euskal naziotasuna bost ezau-garritan funtsatzen da: arraza, hizkuntza, gobernua eta legeak, herri izaera eta ohiturak eta nortasun historikoa dira, hurrenez hurren, haren osagaiak. Bereizgarri guztiek, ordea, ez daukate garrantzi bera;

halatan, hierarkia bat ezartzen da bosten artean. Denen artetik lehena oso argi zehaztuta dago Aranaren aburuz. Euskal naziotasunaren ezaugarri nagusia haren muina osatzen duen elementuan dago oinarritua: arrazan. Beraz, ezaugarri etnikoen ikuspegitik, euskaldunek besteengandik bereizitako arraza osatzen dute.

“Los euskerianos debemos saber que la Patria se mide por la raza, la historia, las leyes, las costumbres, el carácter y la lengua, y que esta Euskeria nuestra podría ser tan Euskeria, asentada en las estribaciones occidentales del Pirineo y en el Golfo de Bizcaya, como trasladada a una isla del Pacífico o a las costas de los Grandes Lagos africanos; así como no sería tal Euskeria, la que, si las cosas siguen como hasta ahora, habría de resultar, andando el tiempo, constituida por la raza maketa en esta tierra” (Arana, 1894)⁸⁸.

Bai historia bai hizkuntza sen nazionalaren izaera dinamiko eta sortzailearen adierazpenak dira. Euskaldunen ohiturak eta izaerak ere arrazak baldintzatzen ditu. Banakoen borondatek at dagoen ezaugarri naturala izanda, arrazak ezartzen du bereizgarritasuna euskal herria nazio desberdin modura definituz⁸⁹. Halaz ere, arrazazko berezitasun horretan irauteko moduetako bat hizkuntza berezitasuna gordetzea litzateke. Ildo horretatik, hizkuntza gizarte integrazioa eta kohesioa lortzeko tresna da eta, aldi berean, bereizketa etnikoa zedarritzen duen bitartekoa. –“El euskera es elemento de nuestra nacionalidad, timbre de nuestra no interrumpida independencia de las edades pasadas y sello de nuestra raza” (Arana, 1899)⁹⁰–. Lurrean berean bizi den gizaki taldea, arraza ezaugarriez bereizia eta komunikazio kode bera –euskara– darabilena: horra hor euskal herriaren jarraitasunaren bermeak historian zehar.

Euskararen jarraitoko arreta ez datza hizkuntzaren berezko balioetan, ezpada mintzairak arrazaren iraupenerako daukan garrantzian. Izan ere, hizkuntza erabili eta mantendu egin behar da arrazaren garbitasuna gordetzeko; hala, hizkuntza arraza babesteko ezinbesteko baldintza da.

“No el hablar este u el otro idioma, sino la diferencia del lenguaje es el gran medio de preservarnos del contagio de los españoles y evitar el cruzamiento de las dos razas. Si nuestros invasores aprendieran el euskera, tendríamos que abandonar éste, archivando cuidadosamente su gramática y su diccionario, y dedicarnos a hablar el ruso, el noruego o cualquier otro idioma desconocido para ellos (Arana, 1894)⁹¹.

No cabe decir lo mismo de la raza, porque es evidente que, extinguida ésta, queda extinguida su sociedad para ser reemplazada por otra” (Arana, 1897)⁹².

Aranak hizkuntzari egotzitako tokia bigarren mailakoa izan zen arren, haren diskurtsoaren arrakasta politikoak eta, azken finean, euskara eta euskal kultura nazio sentimenduari lotuta ulertu izanak, eragin baikorrak izan zituzten Pizkunde kulturalean. Horrela, mugimenduaren bigarren aroan aranazaleek euskararen ezagutza berreskuratze eta zabaltzeko hainbat ekimen bultzatu zuten. Era berean, bai Aranak eta bai bere jarraitzaileek euskararen inguruko azterketa asko burutu zituzten. Orogen gainetik, baina, Aranaren teorizazio arrakastatsuek mende erdi baino gehiago iraungo zuen interpretazio marko berriaren oinarriak jarri zituen, hizkuntza/kultura eta nazioari buruzko harremanen ulermenari dagokionez. Campionen ikusmolde kulturala baztertuta geratu zen bitartean, Aranaren nazio politikoaren interpretazioa –arrazaren kontzeptua zokoratu ostean ere– gailendu zen hark sorturiko nazio mugimenduaren barnean.

1.1.2. Pizkundearen modernotasuna

Jatortasuna eta modernotasuna –*authenticity and modernity*, Fishmanen hitzetan– bildu eta bateragarri egin nahi izan zituen Eusko Pizkundeak, beste mugimendu etnolinguistiko askok bezala. Bi irizpide horiek gidaturik, alde batetik, galtzar zegoen jatortasun etnokulturala jasotzera eta berreskuratzeraz bideraturik egon ziren garaiko kulturagileen ahaleginak. Saio horiek emaitza oparoa utzi zuten filologian, historiaurrean, antropologian, musikagintzan, ahozko literaturan, arkitekturan, folkloean eta beste hainbat arlotan egindako bilketa eta azterketetan. Bestetik, baina, modernizazio zurrunbiloaren barnebarnean sartuta zegoen mugimendu soziokulturala, ez hizkuntzaren eremuan soilik, Euskal Herriaren konfigurazio soziokulturalaz ziharduen ekinbide orotan baizik. Izan ere, herri berreraikuntzan murgildurik, garaiko gizarte berrikuntzaren oldearekin bat egiten zuen euskal elite kulturalak egintza erreformatzaileak eta gizarte interbentzioak proposatzen zituenean: euskararen kodifikazioa eta sustapena –*language planning* delakoa–, hezkuntza euskalduna edo euskal gizartearen kokaturiko euskal unibertsitatea, berbarako.

1918an *Eusko Ikaskuntza* sortu zenean, gizartearen gidaritza intelektualera bideratutako elkarte zientifiko moduan eratu zen.

Halatan, elkartearen lehen Biltzar historikoan kideek adierazten zuten iritsia zela unea euskaldunek “beren iragan ikaragarria eta orainaldi bikaina zientziaren argipean azter zitzaaten, beraien etorkizuna hobetzeko helburuarekin”⁹³. Erregulazio zientifiko hori beharrezkotzat jotzen zen oparotasun ekonomikoa, egonkortasun soziala eta berezitasun kulturala bermatzeko. Ildo horretan ulertzen da elkarteak *Euskaltzaindia* sortzean egin zuen apustua ere: hizkuntzaren Akademiak bere gain hartu behar zuen ez soilik mintzairaren corpusaren zaintza; horrez gainera, adituek egitasmo razional bat landu behar zuten euskararen kokapena eta prestigio soziala hobetzeko.

Eusko Ikaskuntzak eta garaiko kulturgileek hizkuntzaren praktikak erregulatzeko metodoen garapenean adierazitako interesa ez zen kezka bitxia sasoiko mundu intelektualean. Izan ere, Europako herrialde garatu guztietan bultzatzen ari ziren gizarte-erreforma proiektuak XIX. mendeko eraldaketa sozial eta ekonomikoen testuinguruan: osasun publikoaren esparruan, hezkuntzaren esparruan eta lan munduan, besteak beste. Hala, euskararen inguruko proiektuak ere aro horretako ikusmolde intelektualean sustraituriko sineste eta usteetan funtsaturik zeuden, zalantzarik gabe. Bestalde, garai horretan gizarte zientzien aurrerapenak legitimatu egin zuen gizartea bera aztergai hartzea eta, maila politikoan, hura giza interbentziorako prest zegoen artefaktu modura hautematea. Ondorioz, orientazio intelektual berri horrek era guztietako praktikak aldatzeko eta egokitzeko tresnak eskaini zituen, bai hizkuntzaren esparruan bai bestelako gizarte eremuetan⁹⁴.

Harrezkero, orientazio zientifiko eta soziologiko horrek ezaugarritu du euskal hizuntza-mugimendua. Hasieran gutxiengo intelektual batek landutako ikusmoldeak hizkuntza komunitatean eta, oro har, euskal gizarteko sektore zabaletan sustraitu dira, gero sen oneko kontzientzia bihurtu arte: hizkuntza plangintzaren premia, alegia, nahita eta kontzienteki bultzaturiko hizkuntza erabilera zuzendu eta erregulatu beharra gizarte harremanetan, ezagutza legitimoen laguntzaz. Oinarri horiek ebidentzia soziala izatera iritsi dira euskal gizartearen herri kulturaren. Hartara, hizkuntza praktikak ikuspegi berri batetik hautematen dira hiztunen eguneroko bizitzan.

“(…) We can see that the Basque battle for cultural sovereignty is one in which the social sciences play a key role as authoritative discourse. In looking at how activists have appropriated social scientific theories and techniques of knowledge, I want to stress that I am

not simply arguing that they have utilized social science for political ends. Rather, the examples taken from language planning discourse and practices are intended to bring attention to changes taking place at the level of Basque subjectivity (...) Basques in the 20th century have come to understand themselves as a sociological population and to approach their problems of cultural revival utilizing the rationale and many of the techniques of intervention that we associate with the management of social welfare. This is very clearly evidenced in the efforts to preserve Basque, a core aspect of the cultural movement. In the course of this language movement, preexisting notions of the link between language and identity have been reaffirmed and recast in the language of science. In addition, Basques have come to understand their language as embedded in and influenced by social factors (e.g., class, the political and social prestige of its speakers, demographics). They have, as a result, come to interpret language practices and history in a new light. This has led to an unprecedented monitoring and awareness of language use in everyday life and its relationship to social power” (Urla, 1988b: 388)⁹⁵.

Ezagutza legitimoen erabilera gutxiengo etnikoaren erresistentzia tresna modura nabarmena da Pizkundeko kulturgileek eta elite politikoek arraza, hizkuntza eta nortasunaren arteko harremani buruz eraiki zituzten diskurtsoetan. Azken horietan, Euskal Herria zientifikoki deskribatu eta bereizi zitekeen entitatea bilakatu zen, ezaugarri sozial neurgarri eta egiaztagarriez hornitua⁹⁶. Aro Modernoan, haren etorkizuna ezin zen jadanik ausazko gertakarien mende edo kanpoko politiken arabera erabaki. Hain zuzen ere, Eusko Pizkundeko elite kulturalak eta sortzen ari ziren elite politiko nazionalistek euren erantzukizunpean hartu nahi zuten herri garapenaren aitzindaritzaren bertsioak kulturalaren mekanismoak eta horien gaineko kontrola ahalbidetzen zuten tresna politikoak.

Gorago aipatu den bezala, Pizkunde mugimenduak aldarrikatu-tako soberania kulturalak eta soberania politikoak jatorrizko tradizioa berreskuratzea eta hura testuinguru modernora aldatzea planteatzen zuten desafio modura. Hastapenetako euskal mugimendu kulturalaren egintza orotan goiargi hori atzematen da. Halatan, Tradizioak eta Modernitateak osatzen dituzten eraikuntza sinbolikoak berriz interpretatzen dira Pizkunde mugimenduan (Urla, 1993). Izan ere, bien berrirakurketa funtsezkoa da nortasun kultural berriak eratzeko eta Modernitateari buruzko diskurtso hegemonikoari aurre egiteko.

Besteak beste, Modernitate garaileak desberdintasunaren desagerepena ekarri zuen berarekin batera⁹⁷. Luzaroan, Mendebaldez kanpoko herrien nahiz barneko “beste” etnikoen bereizketa nahiak izaera modernotik at geratutako ekimen gisa ulertu dira mendebaldar pentsamoldean. Mendebaldeko kultura nagusiak bere diskurtsoan beste errealitate horiekin jarritako distantzia denbora terminoetan hezurramitu da gehienetan. Horrela, gutxiengoen –edo mendebaldarra ez denaren– irudikapena “iraganean” kokatu da sinbolikoki. Beraz, “beste kulturala” ez da onartu garaikide modura garaikide izan arren, ez-moderno gisara baizik.

Europako estaturik gabeko nazioen pizkunde kulturalak estatu garaileek ezarritako bazterketa kulturala gainditzen saiatu ziren, ustez kontrajarrita zeuden bi printzipioak bateragarri eginez. Bestela adierazita, sistema kultural desberdin eta aldi berean modernoek jabe zirela erakustera bideratu zen mendeko kulturgileen estrategia. Lan horrek borroka kognitibo batean murgildu zituen kulturgileok. Horiek, eza-gutzazko baliabide legitimoak erabiliz, mendeko hizkuntzak eta kulturak erreformatzen eta egokitzen jardun dute gaur egunera arte, menderapen sinbolikoari aurre egiteko. Pizkundearen garaian hasitako euskararen kodifikazio eta arautze lanak, baita kultura tradizioaren berreskuratze eta egokitze zereginak ere, Tradizio/Modernitate binomioaren interpretazio berri horren testuinguruan irakurri behar dira. Kulturgileen irudiz, euskarak museo edo arkeologia aztergai modura geratu nahi ez bazuen, bere prestigio soziala handitu eta boterearen esparru instituzionaletan sartu beharra zeukan. Horrela, euskararen zaindari izendatu berrien ustez, hau da, *Euskaltzaindiaren* akademikoen ustez, estandar literario bateratua euskarari esparru publikoan boterea emateko ezinbesteko erreminta zen, Modernitatearen sarrera giltza. Ahalegin horretan Eusko Pizkundeko kulturgileek aldaketa soziala bultzatu zuten eta errealitate sozial berria eraikitzeko lehen urratsak egin zituzten.

“It is important to recognize that in the elaboration of new ideas about the relationship between language and society, in the gathering of knowledge about language use and in the propagation of these ideas through language campaigns, language reformers are not just describing the social reality of language use, they are, in the very process of attempting to invent a new one” (Urla, 1988a).

1.1.3. Eusko Pizkundearen argi-ilunak

Ezin da ukatu Eusko Pizkundeak euskal kultura esparruaren osaketarako oinarriak formulatu zituela, are gehiago, pauso garrantzizkoak eman zituela hainbat kultura erreformatan. M. Zalbideren iritzitan, hiru alorretan burutu zituen mugimenduak bere asmoak (Zalbide, 1988: 402). Lehendabizi, Hendaia eta Hondarribiko saioek huts egin zuten arren, *corpus planning* delakoari dagokionez bilkura horietatik aitzina geroz eta irtenbide zentzuzkoagoak aurkitu zitzaizkion hizkuntzaren batasun bideari: adibidez, grafizazioaren alorrean aski finkapen-maila jasoa eskuratu zen 1920tik aurrera; eta hitz altxorrenen berrikuntzaz zein hizkuntza bateratuaz denaz bezainbestean, gerorako emankorrak gertatu diren irizpideak landu ziren berebat. Beste alde batetik, egia da euskararen egokitzapenean ez ezik literatura esparruaren osaketan ere aurrerapen handiak egin zirela. “Euskal letrek”, kopuruz zein kalitatez, gorakada nabarmena izan zuten: esaterako, eliz gaiez kanpoko idazlanak ez ziren orduratekoan bezala oleriti esparrura mugatu. Eta, ondorioz, hitz lauko idazgintzan, eleberrietan, kazetaritzan zein antzerkigintzan ekoizpen jasorik eskuratu zen. Azkenik, irakaskuntzaren alorrean ere, irakasteredu elebidunen zehaztapenean eta luze-zabaleko berrikuntza pedagogikoan, ikasmaterialgintzan eta ikastetxeak sortzen nahiz kudeatzen luzarora emankorra izan den bide urratze sakona zehaztu zen.

Jakina, mugimenduak erdietsitako aurrerapenak, oro har, nabarmenagoak izan ziren formulazio mailan burutzapen praktikoetan baino. Testuinguru soziopolitikoak –mugimenduaren aukera politikorako egiturak– jarritako marjina estuak eta mugimenduak berak euskal gizartean zeukan ainguraleku ahulak daude euskal pizkundeak bere egitasmoak garatzeko eduki zituen eragozpenen artean. Ildo horretatik, M. Zalbidek kanpo eta barne arrazoiei eragozten dizkie euskal kultura mugimenduaren emaitza ahulak (Zalbide, 1988: 403-404).

Kanpo arrazoen artean bi bereizten ditu. Nazioarteko egoera politikoa dago, batetik: XX. mende hasierako European, nazio eskubideak, lehen Mundu Gerran auzigai bihurturiko Erdi- eta Ekialdeko Europako kasu jakinetara aplikatu ziren ia soil-soilik, gatazka belikoaren ostean aplikatu ziren neurrian. Versaillesko Tratatuaekin amaiera eman zitzaion, *de facto*, mugaberritze lan horri. Pizkundeko indar nazionalistak indartsuen agertzen ziren Hego Euskal Herrian, Espainiako estatu mailako egoera politikoa dago, bestetik. Estatuak,

bere barneko nazioei autonomi aginpide sendo bat emateaz atzera egin zuen 1919tik aurrera, eta izoztaldi latza etorri zen 1923an. Gerra zibila hasi ondoren baino ez zen autonomia politikoa lortu, eta ez lurralde osoan.

Mugimenduari berari dagozkion barne arrazoen artean, beste bi hartzen ditu aintzat Zalbidek. Batetik, etnokulturazko ezaugarri galdu edo galbidekoei eutsi nahiaren eutsi nahiaz euskaltzaletasunezko egintza eta egitasmo desberdinen egingarritasun mailak eta lehentasunak behar bezain zehatz bereizten jakin ez izana leporatzen dio kultura mugimenduari. Bestetik, uste du hizkuntza plangintzaren mailan ezarritako xedeak ez zirela betetzen batere errazak. Eta ez hizkuntza aldetiko eragozpenengatik bakarrik. Areago, hizkuntza alorraz kanpokoak ziren, itxuraz, traba larrienak: euskal abertzaletasunak –bere zentzurik zabalenean hartuta ere– ez zuen behar adinbateko gizarte indarririk ez *language planning* hura, eta ez *identity planning* osoa ere, hezurmamitu ahal izateko.

Bere adierazpen kulturallean, XX. mende hasierako Pizkunde mugimendua gutxiengo kulturadunek osaturiko ekimena izan zen. Abertzaletasun politikoa gizartean zabaltzen zegoen arren, hizkuntza komunitate gutxitu eta alfabetatugabearen baitan ez zegoen oraindino masa sozial nahikorik Pizkundearen proiekturik mamitsuenak bere egiteko eta gizarteratzeko. Bestalde, beste eredu batzuen aurrean gailendu zen Aranaren hizkuntza molde garbizaleak, ohiko ahozko mintzairatik zeukan aldea kontutan hartuta, ez zuen bidea batere erraztu. Hartara, elite kulturalen formulazioak ez ziren gorpuztu herri mugimendu zabal baten eraketan, denborak aurrera egin ahala geroagoko testuinguru soziohistoriko batean gertatu zen moduan. Eta kulturgileen egitasmoak ez ziren hezurmamitu erakunde kultural sendoetan ere. Garaiko marko politikoak eta kulturalak galarazi zuten halako lorpenik.

Neurri batean, beraz, etsipengarriak dira Pizkundearen berehalako emaitza praktikoei buruz egiten diren balorazioak. Izan ere, ez zitzaion bueltarik eman hizkuntza-ordezkapen prozesuari –*language shift* delakoari–. Aitzitik, aurrera egin zuen mintzaldatze prozesuak. Hein berean, atzeraka egin zuten orobat euskaldun askoren hizkuntza gaitasunak eta ezin izan zen euskaldundu Pizkundearen garaian gizarte aldaketaren muina izan den hiri giroa. Bestalde, hizkuntza komunitatearen egoera larriaren ispilu modura, sortzen ari zen euskal intelektualeriaren hizkuntza habitusak ere kontraesanez josita agertzen

zaizkigu, euskararen aldarrikapena erdaraz egin baitzen nagusiki⁹⁸. Azkenik, kulturgileek beraiek ez zuten lortu behar besteko adostasunik funtsezko gaietan. Besteak beste, arantar jarraitzaileen hizkuntza garbizaletasunak ez zuen guztien babesik bildu eta euskararen modernizazioaren eta normalizazioaren inguruko auzian ere argiro eragin zuten intelektualen jarrerara soziopolitikoek⁹⁹. Hartara, sortzen ari zen kultura esparruan hasiera hasieratik nabarmendu ziren kulturgileen kokapen kontrajarrietatik etorritako gatatzak.

Bestalde, mugimendu kulturalarekin batera garatu zen hastapeneta euskal nazionalismoak bazterrean utzi zituen planteamendu kulturalistak nazioaren eraikuntzari zegokionean. Arestian aipatu den bezala, 1936ko gerrara bitarteko nazionalismoan eragin handiagoa izan zuen Aranaren ikusmolde politikoak Campionen ikuskera kultural euskaltzaleak baino. Hartara, Aranaren teorizazioetan oinarrituriko interpretazio markoa nagusitu zen unibertso nazionalistan. Azken buruan, Amezagak dioenez, euskal arraza gainerako herrietatik bereizi beharrak, garbizaletasunaren goraipamena erakarri zuen hizkuntzari dagokionez; eta folklokeriaren garapena kulturari dagokionez. Ildo beretik, nazio mugimenduaren buruan agertzen zen burgesia ez zen gauza izan bere nazio kultura propiorik garatzeko, beste leku batzuetan bezala (Amezaga, 1995: 56-57). Hortaz, arantar nazionalismoak osagai politikoak lehenetsi zituen bere proiektuan osagai kulturalen gaitetik.

“En esta reconstrucción no tomó parte la clase media vasca (como tal clase). Aunque la nueva situación se basaba en una burguesía dinámica surgida de la industrialización, esa clase burguesa se interesó solamente por los aspectos políticos del movimiento (...) Mucho menos aún podía desarrollarse en euskera esa cultura hipotética, puesto que a esa burguesía, no vasca en cuanto a la lengua, le era imposible utilizar un idioma que no era el suyo para crearse una cultura autónoma. Además, en la estrategia del Partido Nacionalista Vasco se dio, desde sus mismos principios, prioridad a los objetivos políticos; una vez alcanzados éstos, se obtendrían por sí solos los que tenían que ver con la lengua y la cultura” (Sarasola, 1976: 79).

Haatik, Pizkunde garaiko kulturgileek zirriborratuta utzi zituzten geroko euskalgintzaren oinarritzko xedeak. Hori izan zen euren ekarpen nagusienetariko bat. Izan ere, Pizkundearen proposamenek askoz ere beranduago eman zituzten fruituak, hastapeneta euskal mugimenduaren helburuak eta euskal esparru kultural eta intelektual

bat eratzeko asmoak etenda geratu baitziren Espainiako gerra zibilarekin. Eten horren arrazoiak ezagunak dira. Frankismoak Espainiako II. Errepublikako konstituzioan eta Euskal Autonomi Estatutuan jasotako eskubide demokratikoak¹⁰⁰ oro indargabetzeko aginduak eman zituen dekretuen bidez bere agintaldia hasi bezain laster. Zapalkuntza baimentzen zuten neurri juridikoek gizarte eremu guztiak hartu zituzten barnean: politika, irakaskuntza, komunikabideak eta bizitza soziala bere osotasunean hartuta. Euskarari zegokionez, espreski debekatu zen hizkuntza horretan mintzatzea. Baita nonahi debekatu ere: bizitza publikoan, ofizialean, hirian, elizan, komunikabide eta argitalpenetan. Hitzunen arteko transmisio bideak bezala, ordurarte eraturiko euskal kulturaren birsorkuntza mekanismoak, zer esanik ez, ezabatuta geratu ziren¹⁰¹.

Erabateko hizkuntza zapalkuntza horrek lurpean sartu zuen euskarazko kultura adierazpen oro. Gerraurreko kultura plataforma osoa hautsita geratu zen eta, handik aurrera, 150.000 euskaldunen emigrazio politikoarekin batera (Intxausti, 1992:162)¹⁰², euskal kultura erbestean kokatu zen (Iztueta, 1996: 335)¹⁰³. Gerrak eta gerraosteko erregimen frankistak, hartara, egiazko parentesi kronologikoa ekarri zuen euskal kultura produkzioari dagokionez Hego Euskal Herrian¹⁰⁴. Baina, etenaldi bortxatu horrek ez du esan nahi pentsaera mailan aldaketarik ekarri zuenik (Iztueta, 1996: 347). Belaunaldi beretsua da gerraurrean nahiz gerraoste garaian euskal kulturgintzan diharduena idazten, XX. mendeko bigarren hamarralditik aurrera hasi zen belaunaldi huraxe, hain zuzen.

“Eusko Pizkundea “continuum ideologicum” baten gisa ulertu behar da, 24 orduko egunaren antzera, bere egunargi eta ilunpearekin, XIX. mende-bukaeran hasi eta 1960. hamarkada arte luzatzen dena. Orduan sortzen da euskal pentsamenduan modernitatea, narratiban (...), poesia sozialean (...) eta poesia lirikoan, eta politikan ETAREN sorrerak (1959) pentsakera-mailan dakarren errotiko aldaketarekin. Eten ideologikoaz, bada, 1960. urtetik aurrera has gintezke mintzatzen, ez lehenago” (Iztueta, 1996: 347).

Erbesteeko euskal gobernuaren eta EAJ alderdi nazionalista nagusiaren estrategia politikoak huts egin bazuen ere –1950eko hamarraldian jadanik argi geratu zen haien nazioarte mailako ekimenaren porrota–, erbesteak egindako ekarpenak berebiziko garrantzia izan zuen gerraosteko euskal gizartean. Ekarpen hori maila politikoan nahiz kul-

turalean hezurmamitu zen. Politikari dagokionez, esparru politikoan legeria errepublikarrari eta autonomia estatutuari eustean, euskal erbeste politikoa oroimen historikoaren sostengu eta gordailu bilakatu zen. Hori eginez, kapital historiko eta sinbolikoaren erabateko hondamena saihestu zuen. Halaber, kulturari dagokionez ere, kultura esparruan aurreko gizaldietan metaturiko kultura oinordetza belaunaldi berriei ematea zuen helburu, horrela, euskararen erabateko desagertpenari itzuri ahal izateko (Gurrutxaga, 1985: 187).

Hartara, erbestean egindako ekimenak apalak izan ziren arren, euskal gizartean ezarri zen zapalkuntza kulturala kontuan hartuta, euskal kulturaren biziraupena bermatzea egokitu zitzaion erbesteratuko kulturgile taldeari. Hala, belaunaldien arteko katebegi lana egin zuten erbesteko intelektualek. 40ko epealdi latzaren ostean, Iztueta-aren ustez, euskararen aldeko ekimenen susperraldia bideratuta zegoen 50eko hamarkadan zehar bai erbestean bai barnealdean (Iztueta, 1996: 340). Horren adibide argia da, besteak beste, argitalpenen ugaltzea: *Euzko Gogoia*, *Egan* eta *Jakin*. Bestalde, 1950eko hamarkadaren erditik aurrera, euskararen aldeko gogoeta kolektiboak agertu ziren, esparru politikoan nahiz linguistikoan. Ildo horretatik, adierazgarriak dira Euskal Gobernuak Parisen antolaturiko Euskal Batzar Orokorra eta *Euskaltzaindiaren* Arantzazuko Biltzarra, biak 1956an eginak. J.A Agirre lehendakariak sarrerako hitzaldian adierazi bezala, honako lau kezka hauek eraman zituzten euskal politikari eta kulturgile euskaltzaleak Parisen elkartzera: euskal gobernuaren porrota nazioarteko politikan, barruko eta erbesteratuen arteko harremanik eza, beste belaunaldi baten sorrera eta, azkenik, plangintza politiko berriaren beharra¹⁰⁵. Arantzazun, berriz, gerraz geroztik lehen aldiz bildu ziren euskaltzaleak leku publiko batean euskararen egoeraz –batasunaz bereziki– gogoeta kolektiboa egiteko xedearekin. Gertakari horiek guztiek euskal politikagintza eta kulturagintza aro berriaren atarian sartzen ari zirela iragartzen zuten eta, belaunaldi gaztearen eskutik, ekimen politiko-kulturalak erbestetik barnealdera zetozela berriz ere¹⁰⁶.

1.2. Euskal kulturgileen erresistentzia kognitiboa: kapital sinbolikoaren metaketa historikoa 1960ko hamarraldiko kultura susperraldian

“El escritor vasco no es, pues, un literato (...) Es un militante de la “résistance” espiritual” (Azurmendi, 1977: 59).

Kultura aldaketak inoiz gutxitan azaltzen dira modu isolatuan, ez esparru kultural osatua daukaten gizarteetan –hau da, botere politiko-sozialez hornituta dauden horietan– ezta esparru ahula edo osatugabea daukaten mendeko gizarteetan ere. Bada, kultura esparrua estu lotzen zaio gizarte egitura orokorrari, halako moldez non, azken horretan gertaturiko eraldaketek zuzenean eragiten duten era guztietako kultura adierazpenetan¹⁰⁷. Horrenbestez, gizarte egitura astintzen duten errotiko aldaketa ekonomiko, sozial edo politikoak kultura esparruan ere azaleratu ohi dira bizkortasun handiz. Aldaketa horiek esparruko behinolako orekak hautsi eta indarrean zeuden jokamoldeak eta arauak beste berri batzuekin ordezkatzeko dituzte¹⁰⁸.

1960ko euskal gizarteak antzekotasun gutxi zeukan Eusko Pizkundeko kulturagileek ezagutu zutenarekin. Besteak beste, 1950/1960 hamarraldietan hizkuntzaren egoeran eragin zuzena izan zuten sako-neko eraldaketa sozioekonomikoak ezagutu zituen Hego Euskal Herriak (Tejerina, 1992: 115). Aldaketa horiek jarduera industrialaren zabal-kundeari loturik egon ziren. Izan ere, garai horretan Estatu Batuen laguntza ekonomikoei esker, Francoren erregimen politikoak abian jarri ahal izan zituen hazkunde ekonomikoa bultzatzeko neurri babesleak. Hala, “gerra hotzaren” garapenarekin batera, erregimenaren lehenengo une autarkikoaren ostean, frankismoak nazioarteko isolamendua hautsi zuen atzerrian Hartara, izugarritzko metaketa kapitalista gertatu ondoren, bigarren industrializazio prozesua deritzona garatu zen Espainiako estatuko hainbat lurraldeetan. Aldaketa berrien karietara, epealdi teknokratiko eta modernizatzaileari hasiera eman zitzaion.

Industrializazio oldarraren ondorioz Euskal Herriko gune zabalen urbanizazioa eta hazkunde demografikoa gertatu zen¹⁰⁹. Barne migrazioen mugimenduak ez ezik Espainiako nekazaritza-guneetako etorkinen bertaratzeak berebiziko garrantzia izan zuen hazkunde horretan. Immigranteen etorrera ez zen fenomeno berria; halaz ere, horren denbora laburrean eta horren kopuru handian gertatu izanak beste dimentsio bat eman zioten gertakariari¹¹⁰. Aldaketa demografiko, ekonomiko eta sozialek burutzapen desberdina izan zuten euskal lurraldean, baina, hizkuntzari dagokionez, oro har, erdalguneen hedapena bultzatu zuten jadanik birsorkuntza ahalmenik gabe eta ahulduta zegoen euskararen kaltetan¹¹¹.

Batetik, jazarpen politikoaren ondorioz eta, bestetik, aipaturiko aldaketa soziodemografikoaren eraginez, euskararen erabileraren galera prozesua areagotu egin zen frankismoaren sasoian. Alta, horren

ordainez, hizkuntzak pairatutako zapalkuntzak haren balio sinbolikoa emendatu zuen, bereziki belaunaldi berrien artean (Pérez-Agote, 1984: 90; Tejerina, 1992: 128). Halatan, funtzio sozialak galdu zituen hein berean irabazi zuen funtzio “politikoa” euskarak, eta hizkuntza euskal identitate kolektiboaren funtsezko osagai bilakatu zen. Hizkuntzari buruzko pertzepzio gero eta indartsuago horrek ahalbide-tu zuen, aldi berean, hizkuntzaren funtzio sozialen berreskuratze prozesu sendoagoari hasiera ematea.

Frankismoaren mendeko euskal gizartean sorturiko bigarren pizkunde kulturalaren hastapenak oso apalak izan ziren. “Isiltasunaren euskal gizartean” (Gurrutxaga, 1985: 127) nabarmentzekoa da apaiz kulturgileek izan zuten parte-hartzea euskararen zaintzan eta euskarazko produkzio idatzian. Hain zuzen ere, Eliza katolikoaren babesean sortu ziren 50eko hamarraldiaren erdialdetik aurrera euskarazko zenbait argitarapen –*Egan*, *Anaitasuna* eta *Jakin* aldizkariak, esate baterako–. Garai horretan barneko kulturgile berriei esker eta erbesteraturik zeuden zenbait euskal idazleren itzulerarekin batera, bertako euskarazko liburuen produkzioa biderkatu egin zen (Torreal-dai, 1977: 308-309). Horrela, hainbat eragozpenekin izan arren, euskara adierazpen publikoa eskuratzen hasi zen poliki-poliki eta arlo politikoan ezin gauza zitekeen ahalegin asko eremu kulturalera bideratu ziren. Testuinguru horretan, aipatu jardun kulturalaren eragileetako bat izateaz gain, Eliza Katolikoa –ez haren nagusien borondatez, ezpada euskal apaizgo xehearren ekimenez– euskal kontzientzia kolekti-boaren gordailu ere bilakatu zen (Pérez-Agote, 1984: 99-105).

Euskal kultura produkzioaren azaleratze publiko horrek bere-biziko garrantzia zeukan bere apaltasunean. Bada, euskararen erabilera eta euskarazko adierazpen kultural orentzat ezarritako espazio publi-koaren itxiera izan zen lehen frankismoaren bereizgarrietako bat. Gune hartatik egotzia izan zen euskal identitatearen oroigarri izan zite-keen guztia. Halatan, euskararen transmisioa, euskal nortasunaren kontzientziarena bezala, familian, lagun taldean eta Elizaren gune sozialetan kokatu zen, eta horietan ere traba handiekin. Esparru publi-koa –eta berezkoak dituen gizarte birproduktzioarako instituzioak– itxi-ta egotean, aipaturiko horietan izan ziren euskalduntasunaren –eta nazionalismoaren– birsortze eta sozializazio gune nagusiak denbora luzean (Gurrutxaga, 1985: 129-134). Baina, iraupenerako gune sozialen murrizketa horrek izan zuen bestelako ondorio funtsezkorik: arlo publikotik egotzi izanak euskararen, nazionalismoaren eta senti-

mendu antifrankistaren arteko uztarketa sendoa ahalbidetu zuen, halako moldez non, zail egiten baitzen hiru osagai horien arteko bereizketarik egitea (Mateos, 2000: 305).—“La lengua a recuperar era también la patria de las libertades soñadas” (Intxausti, 1992: 168)—. Hartara, euskararen aldeko aldarrikapena, nazio aldarrikapena eta eskubide demokratikoen defentsa bateraturik agertu ziren frankismoaren bigarren aldian euskal gizartean zabaldu zen interpretazio marko nagusian.

Euskaltzaletasunaren eta nazionalismoaren birsorkuntza gunehoriek eragin erabakigarria izan zuten gerraosteko belaunaldiaren sozializazio politiko-kulturallean. Haietan hezi eta politizatu ziren bizi politikoaren eta euskal kulturaren susperraldia bultzatuko zuten gazteak¹¹². Belaunaldi gaztearen protagonismo gero eta handiagoak ezaugarritu zuen 50eko trantsizio aldia. Izan ere, trantsizio garaia zen erregimen frankistarentzat —gerraondoko ezegonkortasunetik behin betiko instituzionalizaziorako iraganbidea burutu zuen hark—, trantsizioaldia bizi zuen euskal gizartearen egitura sozioekonomikoak —azpigarapen industrialetik industrializazio masiborako bidea eginez—, eta, azkenik, trantsizioaldia gertatu zen euskal erresistentzia politiko-kulturalaren barnean ere, —erbesteko munduaren hegemoniatik barneko gizartearen nagusitasunerako bilakabidea gauzatu zen—. Ikus daitekeenez, gizarte aldaketa askoren zurrunbiloan harrapatu eta erbeste politikoaren estrategiaren porrotaren eraginpean jardun zuen gerraostean sozializaturiko belaunaldi gazteak. Hartara, aurreko belaunaldiaren ondare historikoa jaso zuen arren, auzi kultural eta politikoei buruz egin zuen irakurketa eta proposatu zituen jardunbideak bestelakoak izan ziren, halaberharrez. Labur esanda, gerraosteko belaunaldiak errealitatea interpretatzeko bestelako erreferentzi markoa ezarri zuen eta, haren arabera, bestelako estrategia ildoak eta eginkizunak jarri zituen abian jadanik uztartuta zeuden nazio gintzan eta kultur gintzan.

1.2.1. Euskara eta nazioari buruzko interpretazio marko berria

“La nueva educación sólo agita a los que están “preparados” para ella, es decir, estructuralmente disponibles y culturalmente a tono. Alimenta una clase de nacionalistas “extravertidos”, sólo después de la revolución copernicana de ideas, intereses y percepciones de status. Y esta revolución implica necesariamente un conflicto ante todo interno, en contra de los padres y, más importante, la tradición y sus

defensores, en contra de todos aquellos con intereses creados en el *status quo*” (Smith, 1976: 193).

“Un nuevo planteamiento del nacionalismo con bases científicas, primero deberá dar el valor que merece a la lengua nacional, exigir de sus seguidores la aprendan y dominen (...) El futuro nacionalismo ha de ser euskerista, ya que es justamente la lengua vasca el vehículo de la transmisión y conservación de los ideales comunitarios que representan la subestructura cultural de nuestro pueblo, que es la base sobre la que se debe realizar la revolución social de acuerdo con el desarrollo histórico de nuestra entidad étnica, humana, geográfica y económica. Negar o desatender al factor primordial de nuestra entidad nacional es negar la entidad y personalidad propia y descartar el desarrollo histórico que en torno a ella ha de efectuarse. Así pues, sin euskara (su empleo y cultivo) resulta imposible la personalidad y el desarrollo histórico y futuro de nuestra etnia. Sin el euskara, el desarrollo económico, técnico y social, será a la fuerza francés o español (...) El principal factor que personaliza la evolución propia de la sociedad vasca es su idioma. Él es el factor discriminante. Los demás factores se unen en torno a él y aumentan la personalidad vasca que adquiere así su idiosincrasia óptica, tanto en lo social como en lo cultural, político y económico” (Sarrailh de Ihartza [F. Krutwig], 1979: 12; 309-310).

1960ko hamarraldian burututako kultura susperraldia estu uztartuta azaldu zen euskal nazioaren bestelako ikusmoldea zekarren definizioarekin. Ezin dugu pentsatu urte horietan gauzaturiko euskal nazionalismoaren eraberritze ideologiko hori fenomeno bakartua izan zenik, hurbileko testuinguru sozialari erreparatzen badiogu behinik behin. Garai berean –Espainiako lurraldeei gagozkielarik– Galizian, Katalunian eta Euskal Herrian eraberritu zen nazionalismoa, hain zuzen ere, gizarte egituraren sakoneko aldaketei lotuta zegoelako birmoldatze hori. Ildo horretatik, erregimen frankistapean bizi izandako modernizazio ekonomikoak, industrializazioa, immigrazioa, nekazari munduaren gainbehera eta antzeko eragin sozioekonomikoak ez ezik ondorio kulturalak ere ekarri zituen berarekin, sekularizazioa eta balio tradizionalen krisia, esaterako. Ondorioz, etengabeko aldaketaren oldarrean murgilduriko gizarteetan, kapitalismo monopolistaren ezarrerak eragindako gizarte desegituraketaren testuinguruan, pauta ideologiko eta kosmoikusmolde berriak finkatu ziren ezinbestean. Aipatu lurraldeetan zeuden mugimendu nazionalistak ere ez ziren era-

gin horietatik at gelditu, eta korronte berrien norabidean –berriz– interpretatu zituzten euren identitate ezaugarriak.

Ezaguna da nazionalismoaren azterketan “modernizazioaren ikuspegia” deritzan azterketa ildoak. Hark eskaintzen duen azalpenaren arabera, errealitate aldakorrek aspaldiko identitate prozesuak desegituratzen dituzte. Hartara, modernizazio aldaketek sorturiko eraso politiko-ekonomikoen diskurtso ideologiko berriaren baldintza proposak jartzen dituzte. 1960ko aldaketa urteetan, hain zuzen, azkar eta erraz eraiki ziren bestelako diskurtso nazionalistak estaturik gabeko hainbat lurraldetan. Konfigurazio ideologiko horiek garrantzi handikoak izan ziren. Hain zuzen ere, mugimendu nazionalisten barnean diskurtso ideologikoen –erakundearen eta mobilizazioaren gainetik– eduki duten inportantzia intrintsekoa aipatzen du Rubiralta. Baina, horrez gain beste faktore batek ere azaltzen du aspektu ideologikoen mugimendu nazionalistetan sortutako ardura: presezki, frankismoak praxi politikoari ezarritako debekua. Azken horren ondorioz, esparru nazionalistetako indar politikoak ez ezik frankismoaren oposizioan kokaturiko indar guztiak ere, hiperideologismoaren joera berean kokatu ziren aztertzen ari garen garaian (Rubiralta, 1997: 273-274).

Sorkuntza ideologikoen eskuratu zuen protagonismo handia kontuan hartuta, ez zen txikiagoa izan intelektualleriak errealitate berrien interpretazioan eta, hartara, mugimendu nazionalisten birdefinizio lanetan edukitako eragina. Baina, langintza sinbolikoan aritutako eragileak ez ziren oraingoan ohiko intelektual finkatuak izan, baldintza berrietan unibertsitateetan eta goi mailako hezkuntzan sortzen ari ziren protointelektual gazteak baizik.

Para conseguir (...) explicar en toda su globalidad el proceso de elaboración del nuevo discurso ideológico, resulta imprescindible referirse también a otro tipo de agentes de producción ideológica, relacionados de forma directa y agrupados alrededor de los ambientes de la universidad, cuando no simples estudiantes de las mismas. Se trata de una juventud inquieta y con verdaderas ansias de pasar a la acción que, respondiendo a la voz de alarma dada en primera instancia por unos pocos intelectuales, será la encargada de empezar a elaborar y conseguir difundir los contenidos iniciales, todavía algo balbucientes y contradictorios, de este nuevo discurso nacionalista” (Rubiralta, 1997: 274).

Hala eta guztiz, “finkatutako intelektual”/”intelektualgai” dikotomiatik aparte, beste prozesu sozial bat ere ezkututzen da errealitate

berri horren atzean. Izatez, XX. mendearen erdialdeko modernizazio prozesuen itzalean Mendebaldeko intelektuakeriak talde modura jasantako errotiko aldetaren aztarnak atzeman daitezke kulturgile gazteen protagonismoan. Zalantzarik gabe, kulturgilearen rol tradizionalen gainbeherarekin batera, garai horretan intelektuaren ohiko estatusaren goitik beherako aldaketa gertatu zen intelektualgaien ugaltze eta proletarizatzeko erlatiboaren ondorioz. Izan ere, industrializazioaren eraginez, XX. mendean zehar klase berriak goi mailako hezkuntza sistemara iritsi ziren gero eta kopuru handiagoan; hartara, goi klasetik at eraturiko “proletalgo intelektuaren” sorrera nabarmendu zen, bereziki, 60ko hamarkadatik aurrera sozializaturiko belau-naldi gazteen artean.

Kulturgile berriek euren garaiari eta egoerari egokitutako agertoki sozialetan eraiki eta definitu zituzten bestelako rol eta eginkizun intelektuak. Ildo horretatik, intelektuakeriaren jatorri eta kokapen soziopolitikoak –botere ezak eta mendekotasun politikoak, alde batetik, eta mendeko kokapenak kultura esparruan, bestetik– itun berriak egiteko erraztasuna eman zion berarengandik hurbil hauteman zituen sektoreekin, bereziki, mendeko gizarte taldeekin¹¹³.

“La asalarización de la intelectualidad y, más en concreto, de los agentes productores de este discurso ideológico, permitirá el acercamiento y contacto de estos sectores con la clase obrera y, en general, con las reivindicaciones de carácter popular y, en este caso, antifranquista, facilitando a no dudar la asunción de los referentes radicales y utopistas del nuevo corpus ideológico nacionalista” (Rubiralta, 1997: 276).

Bestalde, goi mailako hezkuntza erakundeetatik igaro izanak ideia eta pentsamendu abangoardistak eskuratzeko prest jarri zituen protokulturgileak. Horrela, intelektuakeria berriaren kontzientzia moderno, urbanoa eta abangoardista nazionalismo berriaren eta nazio kulturaren definizioetan islatu zen, J. Mirak azpimarratzen duen bezala¹¹⁴. Hortaz, nazio kultura berriak kultura urbanoak ziren, nazionalismoak gizarte propioak nork bere irizpideekin modernizatzeko sorturiko mugimenduak baitira –ez besteek definitu eta inposaturiko irizpideekin– (Mira, 1985:160).

Jakina denez, estaturik gabeko nazioen elite politiko-kulturalek aurre egin zioten modernizazio ekonomikoak eta politikoak ezarritako uniformizazioari. Ildo horretatik, berriz interpretatu zituzten euren

kulturen eduki etnistak eta kultura horien esanahiak eguneratu zituzten baldintza berrien aurrean. Diskurtso nazionalistetan hain ohikoa den etnizitatearen erabilera hori ez zen gauza arbitrarioa edo irrazionala izan, zenbaitetan kritikatu den bezala. Anthony D. Smithek esaten duenaren arabera, modernizazioak eta industrializazioak sentimendu etnikoak eta mugimendu nazionalistak sortzen dituzte baldin eta, aldez aurretiko diskriminazio kulturalak egonik, diskriminazio horiek azkartzen badituzte. Hori gertatzen denean, zinez, faktore etnikoen pizgarri modura jarduten dute modernizazio prozesuek (Smith, 1976). Egoera horretan, Smithen iritiz, *intelligentsiak* eduki ohi du gatazkan dagoen komunitatearen irudikapen soziala berriz sortzeko eta eraikitzeko erantzukizuna. Halatan, intelektualek mendeko gutxiengoaren izenean jarduten dute, areago, haren interprete bilakatzen dira egoera berrian. Smithek deskribaturiko ildo beretik, 60ko urteetan Katalunia, Galizia nahiz Euskal Herriko protointeltualek ere diskurtso nazionalista berriaren lanketari ekin zioten eta, jardun horretan, tokian tokiko gutxiengo nazionala osatzen zuen nukleoa definitzen ahalegindu ziren.

Beraien lanketan etnizitatea ez da dagoeneko tradizioari lotutako adierazpena, ezpada Aro Modernoan nazio taldearen bizitza objektibatzen duen baliabide soziala. Horrela, elementu etnikoaren formulazio berriak talde identitatearen definizio gaurkotua ahalbidetzen du. Zalantzarik gabe, 60ko urteetan Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko egoeran –aspaldiko bazterketa linguistiko-kulturala jasaten duten gizarteotan frankismoaren jazarpen politikoak eta abian dagoen modernizazio ekonomikoak desegituratu egin dituzte dagoeneko jatorrizko sistema etnokulturalaren iraupen baldintzak– gutxiengo nazionalaren identitate kosmoikuspegia osatzen duten ezaugarri etnikoen artean hizkuntza izango da osagairik nabarmen eta ikusgarriena. Hala islatzen da nazioari buruzko diskurtso berrietan. Hizkuntzari esleituriko zentraltasunaren ondorioz, hari lotuta dauden adierazpen kultural guztiak ere, maila batean edo bestean, esanahi politikoz kutsaturik egongo dira aurrerantzean.

Esandakoaren haritik, 1960ko hamarraldian Euskal Herrian gertaturiko berpizkunde kulturala euskal nazioaren ikuspegi berria zekarren formulazioarekin batera hezurmamitu zen. Definizio berri hori ETA mugimenduaren barnean landu zen eta haren eraginez zabaldu zen euskal gizartean, bereziki komunitate nazionalistaren baitan. Izan

ere, ETA mugimenduak maila politikoan zekarren alternatibarekin goitik behera irauli zuen garai hartatik aurrerantzako eremu soziopolitiko, bere nazioaren definizio berriaren eskutik (Mateos, 2000: 307). Baina, eremu politikoa ez ezik esparru kulturala ere errotik astindu zuen haren nazio kulturalaren proposamenak.

Lehen aipatutako ildotik, ETAk euskal hizkuntza, euskara, hartu zuen euskal nazioaren funtsatzat, eta hori egitean arraza lehenesten zuen nazionalismo aranistaren erreferentzi markoa baztertu zuen behin betiko. Jadanik 1950eko hamarraldian ETAREN aintzindari izan zen EKIN taldearen prestakuntza koadernoetan argi geratu zen planteamendu aldaketa hori¹¹⁵. EKIN-ETAREN lehenengo idazkietan arrazaren kontzeptu biologikoa hizkuntzak eta kulturak ordezkatzeko dute¹¹⁶. Halatan, hizkuntza naziotasunaren osagai funtsezko bilakatu ondoren, euskararen aldeko ekimenek berebiziko garrantzia hartu zuten, esanahi politikoz beteriko ekimenak baitziren.

“Nuestros quehaceres patrióticos en el plano público se presentan en tres frentes: uno –el euskera, lengua oficial; dos –el euskera, lengua actual; tres –el euskera, lengua unificada”¹¹⁷.

Bestalde, EKINen koadernoan azterketa batek nabarmen uzten du taldekide ziren gazte intelektual haiek hasiera-hasieratik euskal kulturaz zeukaten kezka larria¹¹⁸. –“Euskera y Patriotismo Vasco” lanaz gain, hainbat gai kultural jorratu zuten euren prestakuntza materiale-tan, besteak beste, “Literatura Vasca”, “La Universidad Vasca”, eta “Democratización de la Cultura” dokumentuetan jasota daudenak–.

Jakina, ez zen kultura arlokoa izan ETAk esparru sinboliko nazionalistara ekarri zuen aldaketa bakarra. Bada, 60ko hamarraldiko nazionalismoak eragin handia jaso zuen Europar erakitzen ari ziren egitura berriei buruzko ideietatik –Europako Merkatu Bateratua, esaterako– eta itxaropentsu agertu zen marko hark eskain zitzakeen aukerez. Ondoren, ETAREN diskurtso politikoak Hirugarren Munduan garaturiko prozesu deskolonizatzaileen eragina ere jaso zuen, eta kolonia ohietako mugimenduek erabilitako ideiez hornitu zen –“gerra iraultzailearena” besteak beste¹¹⁹. Geroago, erakundeak egindako biltzarretan zehar marxismoari atxikitu zitzaion eta, ari-arian, Hego Euskal Herriak jasandako aldaketa sozialak aintzat hartu ondoren, borroka nazionala eta borroka soziala elkartzera iritsi zen. Hainbat dira, beraz, ETAk aurreko euskal nazionalismoarekin azaltzen dituen hausturak: mugimendu ezkertiarra eta ez-klerikala da, egintza armatua

darabil helburu politikoak erdiesteko eta nazioa funts kulturalen gainean definitzen du.

Aipatutako ideietariko batzuk –besteak beste lehenagoko nazionalismoaren euskarri ideologikoen kritika sutua: arrazismoa, klerikalismoa, kontserbadurismoa eta paktismoa– *Vasconia* liburuan agertzen dira azalduta, alegia, ETArek hastapenetako pentsaeraren osatze prozesuan berebiziko eragina izan zuen F. Krutwigen lanean. Lan horren ekarpenak oinarritzkoak izan ziren ETArek armazoi ideologikoa eratzeko (Jauregui, 1981: 464).

“Esta obra, escrita con un estilo vehemente y algo descoyuntado, condensa y cristaliza por una parte, llevándonos a sus expresiones extremas, el espíritu Jagi-jagi radical, la “moral de resistencia”, y la visión mítica de la hisotira vasca propios de los Cuadernos de EKIN y de la primera ETA; por otra parte, introduce tres novedades (...): la ruptura del tabú anticomunista; la sistematización del etnismo; y la exposición de los principios de la “guerra revolucionaria” ” (Letamendia, 1999: 281-282).

Krutwigekek berak aitortzen duen bezala, *Vasconia* lanak kontzeptu etniko baten gainean oinarriturik dagoen Nazioaren ideia berria aurkeztu nahi zion euskal herriari. Bada, haren ustez, nazioa bere buruaz kontzientzia daukan talde etnikoa da¹²⁰. Abiapuntu horiek ezarrita, *Vasconian* gauzatu zen ahalegina garai berriko eraldaketa sozio-ekonomikoekin bat zetorren nazionalismo urbano eraberritua- ren premia azpimarratzera zuzenduta zegoen. Hartara, lan horrek garaiko ideologia aurrerakoiak eta iraultzaileak zihoazen norabide berean jarri nahi zuen nazionalismoa. Areago, nazionalismoa etorki- zun ikuskera daukan indar dinamiko modura azaltzen da bertan. Ildo horretan, garaiko elite intelektualek nazionalismoarekin bat egin zezaten buruturiko lana da (Jauregui, 1981: 185).

Krutwigekek nazioaren ikusmolde dinamikoa irudikatzen du lehenengo, alegia, eraikitzen den giza errealitate modura:

“Al examinar las naciones y los nacionalismos no se deberá nunca considerarlos como algo estático, bien delimitado y determinado, con fronteras y extensiones exactas (...) La Nación es un ente vivo, tiene personalidad. Al igual que todo ser humano, como todo ente viviente, está siempre en un continuo hacerse y deshacerse, destruyéndose y construyéndose” (Sarrailh de Ihartza, 1979: 207).

Horiek horrela, haren ikuspegian nazio ezaugarriak ez dira ezinbestean egonkorrak izaten. Hartara, etniaren bizitza ordezkatzeko duten faktoreak ere dinamikoak dira, etengabeko aldatze prozesuan daude. Horregatik, nazionalismoak geroari begira jardun behar du beti; ildo beretik, mugimendu ezkertiarra izan beharra dauka. Bestalde, etorkizuneko euskal nazionalismoari etorkinak integratzeko gaitasuna eskatzen zaio. Horrenbestez, etnizitate ezkertiarra eta integratzailea definitzen da formulazio berrian.

Hainbat dira Krutwigen ustez etnia bat osatzen duten elementuak. Halaz ere, *Vasconian* egindako planteamenduetan hizkuntza da nazioaren osagarriarik erabakigarriena, beste osagai etniko guztiak taxutzen dituena.

“La Nacionalidad es (...) un ritmo general, derivado sin duda de una sinfonía de los ritmos particulares, en los que se enlazan las diferentes notas para formar una nueva personalidad, que justamente es lo que llamamos la Nación. Esta sinfonía es el producto armónico de esos factores, que hemos llamado idioma, raza, mentalidad, cultura intereses espirituales, intereses sociológicos, intereses materiales, etc. Como ritmo principal destaca casi siempre el idioma propio (...) Él es algo más que un simple factor, casi podríamos decir que es la batuta del director, que reúne y dirige a los instrumentos o factores de la nacionalidad. No se trata de un músico más, es el “primus inter pares” de los factores nacionales” (Sarrailh de Ihartza, 1979: 207).

Hizkuntza nazioaren osagarriarik oinarritzakoa izanda, horren ondorio logikoa da nazionalismoa jarduera kultural modura irudikatzea. Nazio mugimenduaren zeregina izango da, hortaz, nazioaren ezaugarriak –bereziki euskara– eguneratzea eta garai berrietara egokitzea; areago, garaiko ezagutzak bereganatzeaz batera, euskal kultura berriztatzeaz eta modernotzeaz arduratu behar da mugimendua.

“El nacionalismo es, primordialmente, una tarea cultural (...) El nacionalismo vasco deberá impulsar a sus seguidores a que adquieran toda clase de conocimientos empezando por el de la propia lengua. Deberá pues ser un nacionalismo vasco, una tendencia de renovación nacional, una re-vasquización del propio ser, un enriquecimiento de todas las ramas posibles de la cultura moderna europea” (Sarrailh de Ihartza, 1979: 266).

Intelektualen eragin prozesuetan askotan gertatu ohi den bezala, ETAk bere egin zuen Krutwigen teorizazioa, nahiz eta idazlea ez zen

erakundeko kidea lana egindako garaian¹²¹. Halatan, ordutik aurrera, euskara euskal nazioaren funtsatzat hartu zuen bere diskurtso teorikoan: hura desagertuz gero, zentzurik gabekoa zatekeen Euskal Herriaren independentzia politikoa bera.

“El Euskera es la única lengua nacional de todos los vascos. El euskera genera los atributos y características de la nacionalidad. El euskera es la expresión más genuina del alma vasca. Es, simultáneamente, la estructura y el estructurador del hecho vasco. El euskera es, por consiguiente, la quintaesencia de nuestra nacionalidad y personalidad vascas. El euskera es, en suma, la razón de ser del nacionalismo vasco. Sin euskera no hay nación vasca. Sin euskera la Independencia de Euskadi es un sarcasmo. Sin euskera, las persecuciones, sacrificios, torturas y muertes de tantos patriotas no tienen sentido, son un absurdo”¹²².

Ikusitakoaren arabera, euskarari eta jarduera kulturalari nazio mugimenduak eskaini beharreko lehentasuna aski agerian zegoen nazionalismoaren formulazio berrietan. Hastapenetan mugimendu gisa definiturik zegoen ETA¹²³. 1964ko III. Biltzarretik aurrera erakundearen eta masa mugimenduaren arteko bereizketa egiten hasi zen. Izan ere, militante liberatuekin batera mugimenduaren oinarria osatu behar zuen antolakuntza paraleloa aurreikusten zuen gizarte zibilean, jarraitzailez eta profesionalz hornitua. 1964an argitaraturiko “Carta a los Intelectuales” izenburuko dokumentuan adierazi zen publikoki asmo hori. Dokumentua “hierarkia zibil paraleloak” sortzeko lehen proiektua izango litzateke, baita berreraikuntza nazionalera zuzendutako ETAREN lehen egitasmoa ere (Letamendia, 1994a: 293). Frantz Fanonen eta Jorge Oteizaren eragin nabarmena jaso zuen idazlanean, dei egiten zitzaien “intelektualei”, adiera zabalean hartuta (“a los intelectuales vascos, poetas, profesores, escultores, músicos, sacerdotes, novelistas, periodistas, técnicos, investigadores, filósofos, dramaturgos, actores, cineastas, ensayistas, profesionales liberales...”). Oro har, gizarte zibilari egiten zitzaion deiadar ez soilik ETAREN berri emateko, baita “euskal iraultza integralean” parte hartzeko ere. Iraultza integral horretan, hain zuzen ere, berebiziko garrantzia hartu zuen iraultza kulturalak. Besteak beste, euskararen berreskurapena proposatzen zen euskaldun guztien hizkuntza izan zedin, eta, euskal kultura esparruaren osaketari buruzko kezka adierazten zuten. Euskal Unibertsitatea eta Estetika Institutu baten sorrera ere planteatzen ziren (Oteizaren *Quosque Tandemen* ildotik)¹²⁴.

60ko urteetan hezurmamitutako euskal kulturaren berpizte eta berriztatze prozesua, hein handi batean, euskal nazionalismoaren definizio berriarekin harremanetan dago. Areago, aurreko belaunaldiaren ikusmolde kontserbadorea eta immobilista gainditu nahian, kultura diferentziatuaren defentsa borroka politikoaren erreferentzi markoan kokatu zen interpretazio eraberrituan. Marko horretan, immobilismoa ez ezik ordura arteko kultura elitismoa ere kritikatu zen, kulturaren hedapen orokorrean jarduteko premia nabarmentzen baitzen¹²⁵. Egitekorik garrantzizkoena nazio komunitatearen partaidetza sentimendua lantzea baldin bazen, euskararen alde egiteak garbi ahalbidetzen zuen helburu horren erdiespena. Halatan, politikak eta kulturak bat egin zuten interpretazio berrian: euskal nortasun kolektiboaren defentsa eta hizkuntza/kulturaren berreskurapena norabide berean zihoazen eta elkar elikatzen zuten eginkizunak ziren.

“Lo importante es que en la medida que se recupera la lengua se extiende también la identidad colectiva nacional vasca pero, al mismo tiempo, dicha identidad adquirirá mayor difusión si se potencian las actividades a favor de la recuperación de la lengua. En realidad, estamos ante dos dimensiones, complementarias, de un mismo problema. Por ello, no tiene sentido emprender una tarea de recuperación lingüística que no vaya acompañada de una identidad colectiva nacional” (Tejerina, 1992: 125).

Beraz, hizkuntzari esleituriko lehentasunaren ondorioz, erroretik astindu zen 60ko hamarraldian ez soilik nazionalismoaren erreferentzi marko tradizionala, baita euskal kulturaren interpretazio markoa bera ere. Bada, hizkuntzari aitortzen zitzaion garrantziak bat egin zuen garai horretan loratzen hasi zen kultura-berpizte mugimendurekin.

“Laburtuz, esan daiteke, 1960eko hamarkadatik aurrera euskal kulturaren bilakabidea gehien ezaugarritzen duen elementua herrimugimenduak ezartzen duen dinamika-erritmo bizia dela, kasurik gehienetan oinarritzko kultur azpiegiturak herritarren militantismoari esker burutuak izan zirelarik. Lege-babesik gabe eta askotan mota bateko nahiz besteko zapalkuntzaren menpe, euskal kulturari frankismoaren errailetan har zezakeen arnasbide bakarra herriaren ekimenetik zetorkion” (Iztueta, 1996: 342).

Horrela, euskalgintzak beste esanahi bat bereganatu zuen, hiztun komunitatean ez ezik euskal gizartean apurka-apurka txertaturiko

mugimendu sozio-kultural zabal gisa. Testuinguru politiko eta kulturak irudikaturiko aukera egituran hartu ziren berriro euskara batu arautua taxutzeko lanak, euskal hizkuntza zientzia eta literatura modernorako gaitasunaz hornitu guran. Ugaldu egin ziren ostera ere euskarazko argitarapenak; berriztatu ziren halaber eleberrri eta poesia arloak. Izan ere, proiektu etnolinguitikoaren eta politikoaren helburu argia zen gizarte moderno industrializatu eta garaturako komunikazio tresna baliagarri bilakatzea euskal hizkuntza. G. Jaureguik dioenez, ETAk itzelezko eragina izan zuen euskal kulturaren berpizte-mugimendu orokor horretan, batetik, euskara modernizatzeko ahaleginei erabateko atxikimendua eskaini zielako eta, bestetik, euskal kulturaren biziraupenerako berezko instituzioen premia aldarrikatu zuelako. Haren iritzi, erakundearen zeregina bi mailatan hezurramitu zen. Lehendabizi, bultzatu zituen kontzientziatze jarduerak ondorio zuzena eragin izan zuten euskara eta euskal kulturaren aldeko oldar sozialean, eta, bigarrenik, babes esplizitua eskaini zien kultura mailako saio guztiei (Jauregui, 1981: 271-272).

1.2.2. 1960ko hamarraldiko kultura berpizkundea

“La reformulación teórica del discurso nacionalista que se produce en la década de los sesenta tiene una doble influencia sobre la situación de la lengua. Por un lado, la lengua se convertirá en el elemento de mayor significación social para la construcción de la diferencialidad de la identidad colectiva vasca, como correlato empírico de la existencia de una comunidad diferenciada; y la adhesión afectiva a la lengua refuerza su función participativa, como símbolo de pertenencia a la comunidad. Por otro lado, esta adhesión afectiva a la lengua, como símbolo de pertenencia a un grupo social que posee una identidad colectiva diferenciada, mueve a los individuos que nunca la han poseído o que la han perdido a aprenderla, incrementando su función comunicativa” (Tejerina, 1992: 127).

Jaureguiren ustetan hirurogeiko hamarraldiko berpizkunde kulturalak bost adierazpen-eremu nagusi izan zituen: 1. Hizkuntzaren alorrean, euskararen batasuna, modernizazioa eta normalizazioa erdiesteko funtsezko oinarriak jarri ziren. 2. Euskara komunikazio tresna gisa erabiliko zuen euskal eskola sortzeko proiektua bultzatu zen; alegia, euskararen eta eskolaren arteko mendeetako banaketa hautsiz, ikastolen eskola eredu bideratu zen. 3. 1966tik aurrera helduak

euskaraz alfabetatzeko mugimendua sortu zen, bi helbururekin: euskal hiztunak alfabetatzea eta euskararen irakaskuntza abian jartzea erdal hiztunen artean. 4. Hizkuntza-berreskuratze prozesuak eragin handia izan zuen euskarazko literaturaren alor guztien garapenean eta berrikuntzan. 5. Azkenik, hizkuntza gizarte industrial moderno eta urbanora egokitzeko saioak azterketa-esparru zabalen atea ireki zizkion euskarari; horrela sarbidea lortu zuen ordura arte galarazitako ezagutza zientifikoaren eremuetan: ekonomian, soziologian, historian, filosofian, zientzia zehazketan, fisikan, eta abar (Jauregui, 1981: 267-271). Oronen buruan, euskal kulturaren alor guztietan –kantagintza eta arteak barnean hartuta– eragin sakoneko berrikuntza kulturala izan zen.

1918-1922 urteetako saio antzuen ostean, euskara batuaren oinarriak 1968ko udazkenean Arantzazun egindako Batzarrean finkatu zituen *Euskaltzaindiak*. Frankismoaren etenaz geroztik 1951-1952ra arte itxaron behar izan zen –Krutwig eta Villasanteren eskuetik– batuaren kezka lehenengo zantzei erreparatzeko. Euskaltzaindiaren erabakiak, dena den, ez ziren berez instituzioaren beraren eta haren partaide ziren kultur gile “tradizionalen” ekimenez sortu. 1960ko hamarraldian bazegoen jadanik belaualdi berriko gazteen artean batuaren bilaketan grinatsu zebilen euskaltzale multzo esanguratsua –Hegoaldean *Anaitasuna*, *Jakin* eta *Zeruko Argia* aldizkarien inguruan eta Iparraldean *Euskal Idazkaritza* elkartearen bildutakoak–. 1963-1964 urteetan, Txillardegiren zuzendaritzapean, Baionako *Euskal Idazkaritza* hizkuntza batuaren oinarriak aztertze asmoa mamitzen hasi zen. Horretarako, euskalki guztiak ordezkatzen zituen Batzorde berezi bat hautatu zen eta hiru gai nagusi arakatu zituzten: izenaren deklinabidea, aditz laguntzailea eta Euskal Herriko toponimia, hurrenez hurren. Halatan, 1964an proposamen batzuk onartu eta argitara eman ziren, *Euskaltzaindiari* bere iritzia eskatuz. Erantzun hori, ezaguna denez, lau urtez luzatu zen oraindino ere. Bitartean, *Jakin*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak bere egin zituzten erabakiak. Idazle gazteak Ermuan bildu ziren berriz ere 1968ko ekainean presio egiteko asmoz. Bertan idatz arauak zegozkien erabakiak eta hiru txostengile nagusien lanak onartu ziren. Hartara, *Euskaltzaindiak* Arantzazuko bilerara deitu zuenean, ekarpen horiek jasota zeuden Mitxelena idatzitako txosten nagusian (Alvarez Enparanza, 1993: 18-21). Modu horretan, idazle gazteek hizkuntzalari legitimatuak eta erakunde aintzatetsiaren eskuetan utzi zuten proze-

suaren ondorengo garapena, alegia, kapital sinboliko tradizionala onarturik zutenen eskuetan, horrela mesfidati agertzen ziren sektore soziopolitikoak –bereziki, EAJren ingurukoak– abian zegoen jardunera erakarriko zituztelakoan (Kintana, 1993: 31)¹²⁶. Alta, tentsioak eta irizpide kontrajarriak gorabehera, batasunaren prozesua geldiezina izan zen; apurka-apurka arau bateratzailea aplikatu egin zen ez soilik aldizkari nagusietan, bai eta literatura lan gehienetan ere, bereziki, irakaskuntzan.

Bada, euskara gizarte industrializatu eta urbanorako komunikazio-tresna egokia izan zedin, hizkuntzaren batasunarekin batera beharrezkotzat jo zen, besteak beste, euskara eskola hizkuntza bilakatzea. Aro Modernoan hizkuntza gutxituaren iraupen baldintza izanik, heziketa formalaren esparrua –alegia, historian zehar ukatu zitzaion sozializazio gune garrantzitsua– bereganatu beharra zeukan euskarak. Dagoeneko esana dugu gerra osteko nazionalismoaren ekarpenek euskal kulturaren eta euskararen geraldian eduki zuten eragina. Ikastolen sorrera ere ez zen eragin horretatik at geratu. Halatan, ikastolen sorrera ezin daiteke hartu euskararen aldeko ekimen kultural sinple modura. Aitzitik, euskarazko eskola edo ikastolaren proiektua, 60ko hamarkadako bestelako kultura ekimenen antzera, zuzenean edo zeharka nazionalismo eraberrituaren ekinbide politikoari lotzen zaio:

“Hau funtsezkoa da ikastolen mugimendua ulertu ahal izateko, alegia, ikastola ez da soilik euskaraz egiten den eskola bat, baizik eta herri nortasuna eta nazioa oinarritzeko eta finkatzeko sortu egiten den baliabide bat; ikastolan parte hartzea, euskal eraikuntzan aritzearen sinonimoa da, eta argi daude honek dituen inplikazio politikoak” (Fernandez, 1994: 105).

Euskal kulturaren modernizazioaren testuinguruan, mugimendu zabalago baten atal garrantzitsua –agian maila praktikokoan nahiz sinbolikoan garrantzitsuena– osatu zuten ikastolek. Garrantzi hori, besteak beste, ekarri zuten jauzi kualitatiboan hezurmamitu zen. Izan ere, I. Fernandezek azpimarratzen duen moduan, ordura arteko hizkuntzaren gordetze funtzioak, hau da, euskal hizkuntza komunitateak euskara gal ez zedin egindako jarduera guztiak –elebitasunezko saiakerak–, beste dimentsio batera igarotzen dira, eta hizkuntzaren berreskuratze funtzioa nagusitzen da ikastolen sorrerarekin batera (Fernandez, 1994: 122). Bestalde, heziketa soilaz gain, ikastolak hizkuntza komu-

nitatean integratzeko bidea ematen du, hizkuntzaren transmisioa ez ezik hiztun komunitatearen zabalkunde bermatuz. Sozializazio eta zabalkunde lan horiek euskara batuaren eredupean hezurmamitu zituzten gehien bat ikastolek.

Ikastolak indarrean zegoen hezkuntza ofizialetik kanpo eratu ziren, areago, hezkuntza ofizialak ezarritako eskola eredu erdaldunari aurre egiteko. Horiek horrela, garai hartako kultura ekimen gehienak bezala, gizarte mugimenduaren izaera hartu zuten ikastolek¹²⁷. Ikastolaren hastapenetan, beraz, eskola komunitatea osatzen zuten estamentu guztien partaidetza bultzatu zen proiektuaren garapenean, hots, guraso, irakasle, ikasle eta laguntzaileena. Erakunderu gabeko egoera parte-hartzaile horretan, eskolaren beharrian guztiei erantzuna eman beharrean egokitu ziren ikastolak. Horrela, finantzabideak bermatu eta azpiegiturak eraiki behar izan zituzten, irakasleria berria trebatu eta pedagogiaz hausnartu, baliabide didaktikoak sortu eta, horrez gain, egitasmoa gizarteratu eta legitimatu.

Ildo horretatik, zinez esan daiteke sortzen ari zen kultura esparru berriaren oinarri izan zela ikastola. Izan ere, 60ko hamarraldiko kultura mugimenduaren ikur proiektu modura irudikatu zen hasieratik¹²⁸, argi baitzegoen euskararen birsorkuntza eta transmisioa –eta, hartara, haren berreskurapena– ezin zirela bermatu eskolarik gabe gizarte modernoan. Euskarazko eskolaren ezinbestekotasuna ez zegoen zalantzatan. Baina, ikusi dugunez, helburu horrek kultura azpiesparru bereizi baten eraikuntza eskatzen zuen: hizkuntza bateratu eta eraberritua, irakasle prestatuak, euskarazko liburuak eta pedagogia egokia, besteak beste. Hortaz, baliabide horien eskaria kultura esparruaren atal askoren garapenerako motore bihurtu zen, hainbesteko bihurtu ere, non ikastolaren eraginez sortu ziren 60/70eko urteetan jarduera kultural espezializatuak eta kulturgile espezializatuak. Horrela, irakaskuntzari lotutako rol kultural berrien iturburu izan ziren euskarazko eskolak –irakasleak, pedagogian adituak– eta euskarazko kultura merkatuaren sustatzaileak –argialetxeak, liburugintza, literaturgintza–.

Belaunaldi berriak euskararen berreskurapenari emandako lehen-tasunaren ondorio izan zen 60ko hamarraldian martxan jarritako euskalduntze eta alfabetatze prozesuen abiada ere. P. Iztuetak era askotako alfabetatze motak bereizten ditu garai horretan, hala nola, zenbait ordena erlijiosoek bideratutakoa –frantziskotarrek eta beneditarrek, hain zuzen ere–, *Kili-Kili* mugimenduaren hezkuntza sistemaz kan-

poko haur alfabetatzea eta, azkenik, *Euskaltzaindiak* sustatutakoa (Iztueta, 1993c: 74).

Komentu jatorria zeukaten arren, ordena erlijiosoek ahalbide-turiko alfabetatze saioek –bai komentuko ikaslegoa helburu zeukatenek, frantziskotarren kasuan bezala, bai gizarte hedapen zabalagoa bilatzen zutenek, beneditarren alfabetatze lanari zegokienez– eragin handia izan zuten euskal kultura esparruaren eraketan, euskal kultur-gile kualifikatu berriak ordena horien sozializazio jardunaren emaitza izan baitziren, hein handi batean. Bestalde, *Kili-Kili* mugimenduaren esperientziak euskaraz eskolatzen ez ziren 7-15 urte bitarteko haur eta gazte euskaldunekin jardun zuen lanean. Mugimendu hori Euskal Herri osora zabaldu zen eta, 1967-1977 epealdian, 40.000 haur eta gazte baino gehiagok parte hartu zuten alfabetatze ez-formal horretan¹²⁹. Azkenik, *Euskaltzaindiaren* alfabetatze instituzionalak –horrela deitua alfabetatzearen aldeko kanpaina erakunde horren babes ofizialaren mendean hasi zelako 1966an– jauzi kualitatiboa ekarri zuen, bereziki bi arrazoiengatik: lehenik, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Arabako herrialdeetan aurretik garatu ziren ekimen isolatuak plataforma bateratzailean koordinatzea lortu zelako lehen aldiz; bigarrenik, *Euskaltzaindiaren* barnean orduantxe sortu zelako Alfa-betatze Batzordea, helburu espezifikotzat zeukana helburu estrategikoak zehaztea eta gai didaktikoak antolatzea (Iztueta, 1993c: 75-76).

Hizkuntza normalizazioaren barruan kokaturik zegoen alfabetatzearen azken helburua, prozesua bultzatu zuen Rikardo Arregiren asmatan, euskara berreskuratzea zen. Horregatik, hurbileko helburuen artean, bi alfabetatze maila zeuden jarrita: batetik, oinarrizko mailak irakurketa eta idazketaren erabilera zuzenerako gutxienezko gaitasuna lortzea zeukan xedetzat; bestetik, bigarren maila, alegia, maila akademiko eta landua, hizkuntzaren modernizazioa lortzera zuzenduta zegoen. Horretarako, euskaraz dibulgazioko saiakerak, itzulpenak eta literatura lanak argitaratuko zituen argitaletxea sortzea aurreikusten zen. Asmo horri erantzuteko helburuarekin gauzatu ziren, hain zuzen, lehen argitaletxeak 1969az gero, hala nola *Lur*, *Irakur Sail*, *Gordailu*, eta abar.

Alfabetatze zereginetan parte hartutako gizarte eragileak zehazteko orduan, Iztuetak hiru bereizten ditu. Maila desberdinetan jardun zuten arren, hasieran isolatua zen hezkuntza fenomenoak gertakari kolektibo bihurtzeko prozesuan eragina izan zuten, bere ustez (Iztueta, 1993c: 76-77). Lehenik, 1960az geroztik, nazionalismo

iraultzailea gizarteratzearekin batera sortu zen dinamika politiko-soziala eta kulturala aipatzen du. Izan ere, aurreko hamarraldian era isolatu eta mugatuan agertutako kultura berpiztearen lehen urratsak, 60koan, adierazpen asko zituen herri mugimendu sendo bilakatu ziren (ikastolak, bertsojaritza, literatura eta euskal kanta berria, argitalpenak eta abar). Alfabetatze eta euskaldutzearen hezkuntza gertakaria ere gizarte testiguru orokor horren barnean sortu eta garatu zen. Funtsean, herri mugimenduaren ondorio izan zen. Hartara, herri mugimendua zen alfabetatze-euskaldutzearen lehen eragilea. Bigarren eragilea, Iztuetaren ustetan, erakundeak izan ziren. *Euskaltzaindiak* eskainitako babes ofizialaz gain, garrantzizkoa izan zen, arestian aipatu den bezala, Eliza Katolikoaren zenbait apaiz talde eta ordena erlijiosoek burutu zuten eginkizuna (Iztueta, 1981)¹³⁰. Azkenik, alfabetatze eta euskaldutzearen zuzeneko eragilea prozesu horretan aritutako irakasleria izan zen. Hastapenetako euskaldutze eta alfabetatze lanetan metaturiko kapital kulturala eta aintzatespen sinbolikoa zirela medio, irakasle jardunean ibilitako asko eratzen ari zen euskal kultura esparruko funtsezko kulturgile bilakatu ziren ondorengo urteetan. Batetik, euren prestakuntza formalak eta, bestetik, kultura esparruaren sorreran izandako funtzio garrantzitsuak horretarako bideak zabaldu zizkien, alegia, euskarazko kultura esparruan kulturgile legitimo gisa jarduteko¹³¹.

Hurrengo hamarraldian, hau da, 1970eko urteetan, euskaldutze-alfabetatze zereginetan ziharduten taldeak sendotu egin ziren eta, ondorioz, erakundetze prozesu bizkorrari eman zitzaion hasiera esparru horretan. Bilakaeraren emaitzetako bat AEK¹³² koordinakundearen sorrera izan zen, 1975ean. Instituzionalizazioarekin batera, urrats handiak egin ziren irakaskuntza metodo eta material pedagogikoaren sor-kuntzan ere. Bestela esanda, euskalgintzaren alor hori premiazko eza-gutzaz hornitu zen. Bestalde, euskararen modernizazioak eskatzen zituen premiazko egokitzapenak burutzeko alfabetatze tekniko-zientifikorako lehen neurriak bideratu ziren. Horien artean, ezin da utzi aipatu barik funtsezko hiru kultura erakunderen sorrera: *UEU (Udako Euskal Unibertsitatea)* 1973an, *Elhuyar* taldea 1974an eta *UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea)* 1977an. Den-denak lehen euskaldutze-alfabetatze mugimenduaren ondorio logikoa izan ziren.

Izan ere, garai berrietan bizitzeko egokitu behar zen euskara, bi-zitza arrunteko askotariko eremuetan garatu behar zen, hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan, literaturan, filosofian, baita zientzietan

ere; hitz batez, ordura arte itxita izan zituen esparruetan erabiltzeko gai bilakatu behar zuten euskal kulturgileek euren hizkuntza. Jende anitz aritu zen gaurkotze eta modernizatze prozesu horretan, euskara batua sortu-berriaren gidaritzapean. Lan horretan, –eratzen zeuden kultura esparruaren azpiesparruetan– hainbat kulturgile motaren rolak definitu eta eraiki ziren. 70eko hamarraldiaren hasieran abiatuak zeuden jadanik ikastolak, nahiz eta oraindik heziketa prozesuaren lehenengo mailetan soilik jardun. Baina, prozesu horri jarraipena eman behar zitzaion ikasketa formalen gailurrean dagoen unibertsitate proiektuak mamituz. Urte haietan hizkuntza eta kultura gutxitudun beste zenbait herrialdetan “udako unibertsitateak” antolatzen hasita zeudenez –horien artean ezaguna zen Kataluniako *Universitat d’Estiu*–, eredu hori hartu zen aintzat *Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)* sortzeko. Zientziaren arloko euskararen garapena sustatzeko eta lehen zientzialari taldeen arteko elkarkidetzak finkatzeko erabakigarria izan zen *UEU* erakundea.

Esan bezala, haren sorreran itzelezko eragina izan zuen ikastoletatik sortzen ari ziren premiei aurre egin beharrak (Etxebarria, 1993: 100). Bada, hasierako ikastoletako arazo handienetarikoa, ekonomikoaz gainera, irakas materialaren prestakuntza eta irakasleen heziketa eta koordinazioa ziren. Material eskari eta heziketa premia horietatik abiatu ziren zientzi arloko lehendabiziko ikastaroak eta liburuak; garaian garaiko baldintzak zirelarik, lan horretan zihardutenen arteko bilgune bihurtu zen *UEU*. Euskarazko unibertsitate formalik ezean, bertan trebatu ziren zientzialari berriak euskararentzat artean ezezagunak ziren arlo zientifiko guztietan; bertan sortu zen lehen material idatzia, eta bertan eztabaidatu eta erabaki ziren hizkuntza-aldaera zientifikoa lantzean sortzen ziren arazoak. Hartara, berebiziko garrantzia izan zuen *UEU* euskal esparru zientifikoa eraketan eta zientzialari-ikertzailearen tradizioaren finkapenean, halako moldez non, gaur egungo Euskal Herriko akademiko asko han egindako jardunaren emaitza zuzena diren. Ez da gehiegikeria esatea, bada, euskalgintza mugimenduaren fruitu dela kulturgile tradizio horren sorkuntza eta sendotzea gure gizartean, eta gaurko euskarazko irakaskuntza eta ikerkuntza unibertsitarioa nekez ulertu daitezkeela *UEU*ren barnean egindako lehen kapital kulturalaren metaketari ezker ez bada.

“Giro egokia sortu da UEUn irakasle euskaldunen prestakuntzari bultzada emateko, izan ere, aukera berezia eskaintzen bait du, hango ikastaldietan irakasle-gisako saio praktikoak egiteko. Horrela,

gaur egunean unibertsitate ofizialetan (UPV/EHUn batez ere) eta pribatuetan euskaraz irakasten ari diren irakasle askok (gehienak direla esatera ausartuko nintzateke), UEUn eman dituzte beren lehenengo pausoak. Ikasleei dagokienez ere bertatik abiatu dira hainbeste, bai ikasle modura zein oraindik ikasle izanik beren lanak bertan irakasle modura aurkeztuz (...) Irakasleen prestakuntzarako ekimen horrekin batera, liburugintzarako azpiegituraren garrantzia ere aipatu behar da (...) Ikerkuntzari bultzada emanez (...) bai Kimikan zein Fisikan eta Natur Zientzietan, lehenengo ikerkuntza-kongresuak burutu izan dira UEUn (...) Ene ustez, UEUren lanari esker, gaur egunean komunitate zientifiko euskalduna jadanik existitu egiten dela esan dezakegu, tamaina txikian bada ere” (Etxebarria, 1993: 108).

Euskarazko materialari dagokionez, *UEU*ren eginkizun berean jardun zuen *Elhuyar* taldeak –1972an Donostiako Ingeniarrien Eskolako *Euskal Kultura Talde*tik (*EKT*) eratua, talde hori euskarazko lehenengo ikerkuntzazko aldizkari zientifikoaren sortzaile izan zen–, eta *UZEI* –hiztegi berezituak jorratzeko ahaleginean zenbait ezagutza arlotako kulturgileen elkargune izan zen luzaroan–. Oro har, euskalgintzan eraturiko plataforma instituzional horien laguntzarekin tradizio sendo bat osatu da euskararen azpiesparru zientifikoan azken hogeita hamar urteotan. Tradizio hori osagai berria da euskararen historian.

Hizkuntzaren batasuna eta modernizazioa abian zela, testuinguru sozial berriak euskal literatura berriztatzeko baldintzak jarri zituen. Sarasolaren ustez, 60ko hamarraldiko literatura pizkundean erabakigarria izan zen irakurle potentzialen hazkundera (Sarasola, 1976: 106), garai horretan agertu baitzen benetan euskal irakurleria modernoa. Izan ere, populazio euskaldunaren ikasketa- eta, oro har, kulturamailak, trabak jarri zizkioten artean euskarazko literaturaren garapenari. Eusko Pizkundearen garaiko literatura, adibidez, nekazariei zuzenduta –eta, hartara, baserriarren mundua erreferentziatzen hartuta– sortu zen. Haatik, populazio sektore horren alfabetatze-mailak eta irakurtzaletasun eskasak murriztu egin zituen nabarmen haren garapen ahalmenak XX. mendearen hasieran¹³³. Bestalde, ordudanik erabilitako hizkuntza eredu nagusia –garbizaletasuna oinarritzat zeukan eredu, alegia– ez zen araurik egokiena izan herri literaturaren kodetzat hartzeko. Bide horretan egindako ahalegin gehienek, beraz, porrota izan zuten emaitza modura.

Aldiz, hezkuntzaren hedapenaren ondorioz bestelako publikoa agertu zen gerra osteko belaunaldien artean. Publiko irakurle horrek, jakina, beste irakur premia batzuk zituen. Industrializazio prozesuaren eraginez osatutako klase ertain urbanoetan zeukanez oinarri soziala, arrotz egiten zitzaion lehenagotik nagusi zen literatura eredu, haren molde soilak eta gai bukolikoak. Hartara, idazle gazteen aldetik etorri zen berrikuntzarekin bat egin zuen hasieratik. Arestiren lana eredutzat hartuz Sarasolak egiten duen planteamenduari jarraiki, literatura aldaketak lau mailatan hezurmamitu ziren: literatura berriak gaien aldaketa ekarri zuen lehenik –gizaki urbanoen eguneroko errealitateari loturik zeuden gaiak jorratu ziren, auzi sozialak besteak beste–; bigarrenik, XX. mende aurretiko literatura tradizioari lotzean, garbizaletasun/arrunkeria binomioa saihestuz, herri literaturaren oinarriak ezarri zituen; hirugarrenik, edukietan ez ezik estiloan ere eguneratu zen literatura, horrela, literatura korronte garaikideekin bat eginez; azkenik, literatura laikoa nagusitu zen; hala, “euskaldun-fededun” betiereko identifikazioa eta ondorengo aurreritzi itogarriak baztertu zituen eredu berriak (Sarasola, 1976: 108-109).

Eraldaketa horiek ordura arteko euskal kultura esparruaren ohiko ikusmolde nagusia eta barne homogeneotasuna hautsi eta itzulezinezko pitzadurak ireki zituzten pentsamendu tradizionalen. Iztuetak dioenez, aski izan ziren hamabost urte (1957-1972) euskal kulturak homogeneo izateari utz ziezaion. Horrela, pentsaera joera asko txertatu ziren euskal intelektualleriaren pentsamenduaren aldaketa prozesuan: existentzialismoa, sozialismoa, marxismoa, sekulartasuna eta besterik (Iztueta, 1996: 359). Zalantza barik, aro hartako kultura pentsaerak arazo sozial eta nazionalen kezka jaso zuen gogoeta mailan bezala estetikoan. Euskal gizarteak unean bizi zituen gizarte gatazken –eta belaunaldien arteko lehen– isla ditugu orduko literatura eta saiakera.

Azkenik, 60ko urteetan osaturiko kultura fronte zabalaren adierazpen ikusgarrienetako bat euskal kantagintza berria izan zen. X. Letek dioenez, euskal kanta berriaren fenomenoan –eta bereziki haren protagonista nagusi izan zen *Ez Dok Amairu* taldearen sorreran– era askotako jarrera ildoak gurutzatu eta elkartu ziren: euskal kulturaren berreskurapen gisa ulertzen zutenena, batetik; nazio-berreskurapen politikoa modura hartzen zutenena, bestetik; eta kantagintza euskal estetikaren alderdi garrantzitsutzat jotzen zutenena, azkenik –horretan Oteizaren jarrera kokatzen zen–¹³⁴. Oro har, baina, Euskal Herriaren, euskararen eta euskal kulturaren galeraren sentipenak eragindako

erreakzioa izan zen. Hartara, kantagintza berriak, tradizioaren berreskurapen lana egiteaz batera, garaiko gizarte arazoak eta musika molde berriak eraman zituen lehenbizikoz agertoki publikoetara. Kantaldietan erakutsi zen euskara eta euskal kultura etnikoa gizarte modernorako tresna egokiak zirela. Hori erakustean, bestalde, herri nortasunaren kontzientzia zabaltzen zen. Euskal kanta berriak herri musikaren esparruaren gutxieneko azpiegituraren eraketa ahalbidetu zuen: disketxeak, musika merkatua –nahiz eta murriztua izan– eta kantaldien antolaketak.

1.2.3. 1960ko hamarraldiko kultura pizkundearen ondarea. Euskalgintzaren oinarri berriak

Arestian esan dugunez, 1960/70eko hamarraldietan gertaturiko kultura susperraldia euskal nazioaren bestelako ikusmoldea zekarren definizioarekin batera eta, hartara, euskal nazionalismoaren pizkundearekin batera gauzatu zen. Uztardura horrek, zalantzarik gabe, gaur egunera arte euskalgintzan ainguraturik egon den erreferentzi markoaren oinarri nagusiak jarri zituen. Sortzen ari ziren euskal elite kultural eta politiko gazteek irudikaturiko definizio berrian euskaldunen zapalkuntza kulturalak jatorri politikoak zeuzkan; ondorioz, mendekotasun horretatik askatzeko jarduera kulturala lan politikoaren barnean kokatu behar zen. Euskara euskal nortasun kolektiboaren –eta nazioaren– osagai bilakatu izanak, ondorio nabarmenak izan zituen euskal hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapen eta modernizazio lanetan. Areago, esanahi berria eman zien egintza horiei, esanahi politikoa bere zentzurik zabalenean. Halatan, interpretazio marko horretan, euskararen eta euskal kulturaren aldeko egintza oro jarduera politikoaren arloan jarri izan zen. Horrenbestez, 1960ko aldaketa kultural eta politikoek abian jarri zuten, zalantzarik gabe, mugimendu zabalaren egintzaren ondorioz euskal mundu abertzalean sustraitu zen erreferentzi marko berriaren sorrera prozesua –Benford, Snow eta Huntsek landutako *framing process* delakoa (Snow, Benford, 1988; 1992; Hunt, Benford, Snow, 1994)–.

Bestalde, frankismoaren azken garaiko euskal gizartearen erresistentzia nazionalistak ezkutuan burutzen zuen politikagintzak oso adierazpen mugatuak zituen. Izan ere, egintza politiko nazionalista ez zen gizarte bizitzaren gunetatik bereizita zegoen esparru publiko batean kokatzen. Halatan, erregimenak ezarritako debekuen ondorioz,

ez zegoen ageriko jarduera politiko legitimorik bideratzeko aukera handirik. Testuinguru horretan, frankismoak 60ko hamarkadan baimendutako ekonomi eta gizarte aldaketek zabalduriko egoera berrian, kulturgintzak berebiziko garrantzia eskuratu zuen, ez soilik kulturaren adierazpen soil gisa, baita euskal erresistentzia nazionalistaren jarduera ere esparru kultural horretara bideratu zelako hein handi batean. Kulturaren protagonismo horren kariatara, estrategia eta jardun politikoa bera, formulazio mailan bederen, ezin zitezkeen jadanik ulertu proiektu kultural batean funtsaturik egon gabe.

Halatan, euskal kultura eta euskal politika, euskalgintza eta euskal nazionalismoa, hertsiki lotuta geratu ziren. Dena den, uztardura hori onartuta ere, zehaztapenak egin behar zaizkio euskalgintza/euskal nazionalismoaren arteko berehalako identifikazioari. Bi fiabardura behintzat aipatu behar dira. Lehenik, azpimarratzekoa da bai euskararen eta bai euskal kulturaren defentsa, frankismoaren aurkako borroka orokorrean txertatuta egonik, azken horren logikaren barnean ulertu zirela gizarteko sektore zabalen artean. Bestela adierazita, euskararen aldeko jarduera eta euskalgintza, oro har, diktaturak eskubide demokratikoen alde sorturiko erresistentzia mugimenduaren sintonia berean jarrita zeuden. Euskalgintzaren aldarrikapenak frankismoaren aurkako borrokan kokatu izanak, euskaltzale konbentzituoen jarrera ez ezik bestelako gizartekide askorena ere mugimenduaren aldekoa izatea erraztu zuen. Horrela, *frame alignment* horri esker¹³⁵, euskal nazionalismotik at zeuden talde sozial askoz ere zabalagoen atxikimendu formala –beraz, legitimazioa– atzeman zuen euskalgintzak frankismoaren garaian.

Bigarrenik, 60ko hamarkadako nazionalismoaren birdefinizioak etena sortu zuen nazionalismo berriaren eta lehenagoko nazionalismoaren artean. Ikusi dugunez, interpretazio berriaren arabera zalanztatan jarri ziren bigarren horren mundu ikusmoldearen oinarriak: garbizaletasuna hizkuntza erduan, nekazarien gizartearen erreferentzialtasun kulturala eta soziala, arrazaren goraipamena euskal desberdintasunaren ikurren artean, ikuspegi klerikala eta kontserbadorea gizarte ohiturei zegokienez eta egitasmo politikoaren nagusitasuna kultura proiektuen gainetik. Osagai horiek zeuzkan unibertso tradizionalari, gizarte baldintza industrializatu eta urbano berrietara hobeto egokitzen zen beste ikuspegi bat kontrajarri zitzaion; azken ikuspegi horretan, bestelako gaiak eta balioak aldarrikatu ziren: hizkuntzaren nagusitasuna euskal nortasun kolektiboaren definitzaile

gisa, euskararen modernizazioa, estandarizazioa eta berreskurapena, proiektu politikoaren eta kulturalaren uztardura, munduaren ikuspegi sekularra, eta euskal gizarte industrializatuaren onespina, egokitzapen horrek zeuzkan ondorio guztiekin –nazionalismo integratzailea hizkuntzaren bitartez, auzi nazionalaren eta sozialaren elkarketa, eta ideologia berrien eskurapena (sozialismoa, marxismoa)–. Bi interpretazioen arteko etenak, era askotako adierazpenak izan zituen. Adierazpen batzuk maila ideologikoan azaleratu ziren. Horren lekuko dira ikusmolde batean eta bestean sortutako diskurtsoak. Beste batzuk, berriz, belaunaldien arteko oposizio modura agertu ziren: gerraurreko belaunaldia *versus* gerraosteko belaunaldi berria, “zaharren” zapuztutako proiektuak eta haien ondorengo geldotasuna *versus* gazteen dinamismoa eta “egin beharra”¹³⁶. Nolanahi ere, interpretazio marko berriaren ezarrerak, abertzaletasun eraberrituaren hegemonia ekarri zuen berarekin kulturalaren arlora. Harrezkero, euskalgintza eta euskarazko kulturgintza, nazionalismoaren mugimendu orokorrari ez ezik bereziki ezkerreko abertzaletasunari lotuta geratu dira maila sinbolikoan.

Interpretazio marko berriaren sorrera-prozesua herri mugimendu zabal baten eraketarekin batera etorri zen. Izan ere, euskararen arloan eta, orokorrean, euskal kulturgintzan buruturiko ekimenak gizarteko instituzio-bilbe ofizialetik kanpo bideratu ziren. Are gehiago, testuinguru legalak eta instituzionalak ezarrirako murriztapenen ondorioz, aukera politikorako egitura –*political opportunity structure*– nahiz aukera kulturalerako egitura estuak ziren oso. Hain zuzen ere, aukera horiek zabaltzen ahalegindu zen mugimendua, erregimen politikoak zeukan legitimitate eskasa eta gizartearen aldaketa sozioekonomikoek irekitako aukerak baliatuz. Hartara, mendeko kultura komunitate –eta mendeko komunitate politiko– baten erresistentzi mugimendu gisara irudikatu zen euskalgintza: euskararen eta kulturalaren berreskurapena nazio eraikuntzaren barruan kokatu ziren.

Horiek horrela, erresistentzi mugimendu horren zereginak jar-duera politikoetara eta kulturaletara bideratu ziren. Erresistentzi kulturalari zegokionez, gutxiengo kulturadunek lideratu zuten euskararen modernizazio eta berreskurapen lana eta euskal kultura esparruaren eraikuntza nahiz eta, arestian adierazi den bezala, asko izan ziren modu batean edo bestean prozesu horietan parte hartu zutenak¹³⁷. Gutxi garatutako kultura esparru bati dagokionez, –gerraosteko– idazleek heldu zioten lehendabizi esparruaren hasierako eraikuntza premiari. Asmoa ez zen makala. Bada, mende hasierako Eusko Pizkundearen

gariaian sortutako instituzioak –*Euskaltzaindia*, kasu– eta ordudunik metaturiko baliabide kognitiboak bazeuden ere, esparrua erakundetu gabe zegoen. Horregatik, 60ko hamarraldiko protokulturgileen buruzagitzapean, kultura mugimenduak bere egintzen bitartez erakundetze edo instituzionalizazio prozesu –hasieran– apala jarri zuen abian. Halatan, prozesu horretan premiazkoak ziren eginkizunak betetzeko erakundeak sortu ziren: euskal eskolak, euskara modernizatzeko elkar-teak, helduak euskaraz alfabetatzeko eta euskalduntzeko erakundeak, argitaletxeak, disketxeak, elkarte zientifikoak eta besterik. Halaber, eginkizunak zabaldu eta bereizi egin ziren neurrian, sortutako instituzioak gero eta ugariagoak eta espezializatuagoak izan ziren.

Halaz ere, kultura esparruaren hornitze prozesu hori ez zen erakundeen sorreran soilik hezurmamitu. Bada, dakigunez, bi mota-tako eragilek osatzen dute edozein kultura esparru: batetik, kultura erakundeek, bestetik, kulturgileek. Horrenbestez, euskal kultura esparruaren eraikuntzak, eragile instituzionalen eraketa ez ezik kulturgile rol berrien eraikuntza ere hartu zuen barnean. Hain zuzen ere, euskalgintzaren garapenak berak sortu zuen agertoki historiko egokia ordura arte euskal kulturgintzan ezezagunak ziren kulturgile rolak definitzeko eta eraikitzeko. Horrela, 1960ko hamarkadako kultura pizkundetik aurrera, mugimendua indartu ahala, kulturgile espezializatuak sortu ziren arian-arian. Modu horretan eratu zen geroko euskal intelektualleriaren hozia.

Mugimenduaren kultura egintzak, hartara, harremanezko gune gero eta saretuagoa osatu zuen, non instituzio eta kulturgile gero eta prestatuagoak eta espezializatuagoak bildu ziren bilbe trinko batean. Mugimenduaren jardunak, haatik, esparruaren giza azpiegitura eta azpiegitura instituzionala ezartzeaz gain, lortu zuen bestelako eraikuntzarik ere. Bada, euskalgintzaren mugimendua giza eragilez eta eragile instituzionalez eratutako harremanezko esparru modura irudikatzeak, besterik gabe, alde bakarreko ikuspegia eman diezaguke, hau da, mugimenduaren antolaketa ikuspegi hutsa. Eta, ooren gainetik, euskalgintza eragile anitzez osaturiko gune kognitibo gisa sortu zen bere hastapenetatik. Haren barnean, era askotako gizaki, giza talde eta erakundeek esparru kontzeptual eta intelektual berriak eraiki zituzten, indarrean zeuden errealitatearen definizioen ordezkoi interpretazio markoak sortzeko asmoz. Ildo horretatik, euskalgintza eta euskal kulturgintza gizarte aldaketara –euskal hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapenera eta normalizaziora– bideratutako ezagutza ekoizleak

izan dira. Ikusi dugun bezala, bere bilakaera historikoan euskalgintzak baliabide sinboliko franko mobilizatu eta metatu ditu ekoizpen kognitiboaren ahaleaginean. Baliabide horien artean, kulturgileek sortutako era guztietako ideiak, ezagutzak eta proiektu kulturalak egon dira, guztiak beharrezkoak mendeko hizkuntza eta kultura komunitateek menderatzaileekin garatu behar dituzten lehia sinbolikoetan iraun ahal izateko.

Hartara, XIX. mende amaierako Pizkundean lehenik eta, bereziki 1960/70eko urteetan gero, euskalgintzak ezagutza corpus bat osatu eta metatu zuen bere bilakabidean. Mugimenduaren xedeen artean hizkuntzaren berreskurapenak eta modernizazioak jaso zuten arreta kontuan hartuta, berebiziko garrantzia hartu zuten hizkuntzalaritza eta literaturaren garapenak aipatu corpusean. Hain zuzen ere, 60-70eko hamarkadetako berpizkundean urrats handiak egin ziren ildo horretan. Horrez gain, garaiko mugimenduak bere lehentasunen artean jarri zituen euskarazko eskolen sorrera –eta hartarako premiazkoak ziren baliabide kognitibo guztiak– eta azpiesparru zientifiko eta unibertsitarioen eraketa. Horrela, arian-arian, itzelezko aniztasunez hornitutako esparru kognitiboa osatu zen mugimenduaren barnean.

Mugimenduak sorturiko baliabide kognitiboek bi motatako ondorioak izan zituzten. Batetik, ondorio kulturalak, adiera hertsian hartuta. Esan nahi baita, metaketa kognitiboak euskararen batasuna eta modernizazioa ahalbidetu zituen eta azpigaraturik zegoen euskarazko kultura esparruaren eraketari hasiera emateko oinarriak jarri zituen. Bestetik, baina, ondorio politiko nabarmenak ekarri zituen. Izan ere, aspalditik zetorren –eta frankismoak indartu zuen– diskurtso nagusiak euskara euskal baserriar ezjakinen hizkuntza modura irudikatzen zuen: euskal kultura adierazpen murrizteko errealitatea zen, nekazaritza munduko folklokeriari lotutakoa. Bai euskara bai euskal kultura “berez” desagertzeaz zeuden fenomeno aurremodernoak ziren herri iruditerian. Bestalde, politikoki menderatu behar zen komunitate baten identitatearen adierazpenak izanik, erregimen frankistak ez zuen haien agerpen publikorik, are gutxiago, sustapen ofizialik baimendu luzaroan. Horiek horrela, euskalgintzak buruturiko kultura horniketak eta metaketa kognitiboak ageri-agerian utzi zuten historian zehar euskal kultura eta hizkuntzaren gain ezarritako biolentzia sinbolikoa. Mendekotasun sinboliko horri erantsi behar zitzaion, erregimen frankistak indarrean jarritako jazarpen politikoa. Hartara, euskalgintza dominazio sinbolikoaren eta politikoen aurkako erre-

sistentzi mugimendu gisa garatu zen, alegia, eginkizun kulturalak ez ezik esanahi politiko oso nabarmenak zeuzkan egintza kolektibo modura.

Hain zuzen ere, euskara eta euskal kultura gizarte modernoak jarritako baldintzetara egokitzeko gai zirela erakustean, euskalgintzaren eragileek azpikoz gora jarri nahi zituzten behinolako interpretazio nagusiaren arrazoibideak. Halatan, euskalgintzaren jarduera kulturalaren zeharkako ondorioa guztiz politikoa izan zen. Bada, baliabide kognitiboak zirela medio, euskara modernizatu eta euskal kultura sustatu zituen heinean, mugimenduak aurre egin nahi izan zion indarrean zegoen erreferentzi marko nagusiari, hau da, bai euskal hiztunek euren buruaz bai bestiek euskaldunez zeukaten irudikapen dominanteari. Horrela, lan kulturala burutzean, sakoneko esanahi politikoa zeukan borroka kognitiboaren garrantzizko eragile bilakatu zen kultura mugimendua. Egiazki, haren egintza euskal kulturaren eta inguruko erdal kultura nagusien artean ezarritako botere harremanak iraultzera zuzendurik zegoen.

60-70eko hamarkadetako euskalgintzak eta mugimendu politikoak sortu nahi zuten interpretazio marko berriak ez zeukan soilik euskal gizartetik at legitimazioa bilatzeko xedea; aitzitik, euskal gizarteko euskal hiztun komunitatearen baitan nahiz erdal komunitatearen baitan eragin gura zuen bereziki, euskarari buruzko bi taldeen jarrerak eta praktikak aldatzeko asmoz. Ildo horretatik, mugimendua-
ren erronka bi komunitateek euskararekin zeukaten harremana eraldatzea zen; hartarako, hizkuntzaren eta hiztunen arteko bitartekaritza egiten duten bestelako irudikapenak zabaldu zituen, hizkuntzari buruzko definizio berriak landuz. Modu horretan, hizkuntza kontzientzia berriaren hazia erein zen. Alde batetik, euskarari mendeetako gutxiespen sozialaren ikurra kendu nahi zion kontzientzia zen eta, bestetik, hizkuntzaren erabilerari –euskal hiztunen kasuan– eta euskararen ikasketari –erdal hiztunei zegokienez– esanahi politiko-kultural berria eman zien kontzientzia. Garaiko euskal gazte kulturadunek –geroko euskal protokulturgileek– sustaturiko kontzientzia berria, hitz batean, euskararen ordezkapena gelditzera zuzendurik zegoen –*reversing language shift*– eta, hartara, hiztunen eta hiztungaien habitus linguistikoa aldatzera euskararen alde.

Euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren jarduerak ongi erakusten digunez, gizarte planifikaziora eta aldaketara bideraturiko estrategiak dominazioaren interesei lotuta ez ezik erresistentziakoei ere

elkarturik agertzen dira Aro Modernoan. Horrela, aldaketa legalak eta instituzionalak ezinezkoak ziren garaian, kultura mugimenduak eta mugimendu kulturgileek hartu zituzten beren gain hizkuntza arautzeko eta planifikatzeko ardurak –politikoki eraturiko hizkuntza komunitateetan, aldiz, eginkizun horiek estatuek burutu izan dituzte Modernitatean–. Horrenbestez, mugimenduak hizkuntza gutxituaren transmisio eta erabilera prozesuetan eragiteko estrategiak garatu zituen; besteak beste, lehen mailako hezkuntza eta hizkuntza estandarizazioa bultzatu zituen. Jakina, euskalgintzaren botere formalaren gabeziari zegokionez, behin-behinekotasun eta estutasun handiekin burutu zituen mugimenduak proiektu horiek guztiak. Eta, jakina, helburu asko ezin izan ziren hezurmamitu –batez ere hizkuntzaren erabilerari buruzkoak–. Baina, mugimenduaren eta haren kulturgileen etengabeko jardunaren ondorioz, hizkuntzaren gaineko planifikazioa eta interbentzioaren ideiak, baita mugimenduak erabilitako baliabide kognitiboei lotutakoak ere, euskal gizartekide arrunten sen oneko ezagutzan barneraturik geratu ziren luze gabe. Are gehiago, ideia horiek gizartekideok hizkuntzarekin izandako harremana baldintzatu zuten aurrerantzean.

Halaz ere, orain arte esandakoak ez gaitu bultzatu behar euskalgintzak eraikitako gune kontzeptualaren eraikuntza prozesua barne homogeneotasunez eta adostasunez betetako jardunbide modura hautematera. Aitzitik, gune horren osaketa prozesua eta ondorengo bilakaera etengabeko tentsioez eta gatazkez josita egon ziren hasieratik. Bada, euskalgintzaren eragile zirenen proposamenak –kulturgileenak barne– ez ziren beti bat etorri euskararen eta euskal kulturaren modernizazioari zegokionez. Aldiz, era askotako definizio eta proposamenak aritu ziren lehian esparrua eratzerakoan. Askok izan ziren gatazka horien adierazpenak, gatazka kognitibo modura azaldu arren oinarri politikoa ere bazeukatenak. Halatan, euskararen batasun prozesua, esaterako, gorabehera frankoren ondoren burutu zen, besteak beste, *Euskaltzaindiako* hainbat kulturgilek adierazitako erresistentziagatik eta eztabaidan zeuden proposamen kontrajarriengatik. Izan ere, hizkuntza araua ezartzeko orduan bazegoen joera garbizalea azaltzen zutenen iritzia, alde batetik, eta erderatik eta sustrai greko-latinotik maileruak hartzearen aldekoa zena, bestetik. Bi jarrera horiek konponezin azaldu ziren behin baino gehiagotan; are gehiago, elkartezintasuna kulturaren beste arlo guztietara hedatu zen. Jakina, proposamenen arteko eztabaidak ez ziren hizkuntzalaritzaren inguruko auzi

hutsak. Jarrera kontrajarriak hasierako nazionalismoaren eta nazionalismo berriaren ikusmoldeen isla ziren, eta, ondorioz, jarrera politikoekin nahasirik zeuden. Hortaz, berriz ere eztabaida kognitiboa eta politikoa bateraturik agertu ziren erabat¹³⁸. Antzeko polemikak kutsatu zituen literaturgintza berriaren hastapenak ere, euskararen batasun prozesuan bezala, literatura, hizkuntza eta kulturari buruzko ikuspegi desberdintasunak, belaunaldien arteko desberdintasun eta eztabaida politikoen batera azaleratu baitziren¹³⁹. Mota horretako eztabaidek behin eta berriro adierazten zuten euskal kulturagintza esparruan lehian ari ziren bi munduikusmoldeen arteko borroka sinbolikoa.

Euskalgintzaren barnean 60ko hamarkadatik aurrera hezurmami-tu ziren gatazkak edozein kultura esparrutan burutzen diren lehen testuinguruan txertatu behar ditugu. Kultura esparruetako lehia horietan ohikoa izaten da kulturagileek harreman bilbean dauzkaten kokapenak irizpide kulturalen eta soziopolitikoaren arabera definituta egotea, ohikoa den bezala, belaunaldi berrien etorrerak –ikusmolde eta proposamen eraberritzaileekin– behinolako hierarkia kulturaletan astindua sortzea horretarako baldintza sozialak gertatzen direnean. Sarritan, –euskalgintzan 60-70eko hamarraldietan gertatu zen moduan– baldintza sozial berriei egokituriko bestelako ikusmoldeen indarrak kolokan jartzen ditu ordura arte metatuta eta indarrean zeuden planteamendu soziokulturalak eta, horrekin batera, bideak zabaltzen ditu beste hierarkia intelektual batzuk ezarri daitezten esparruan¹⁴⁰. Halatan, kultura esparruaren krisiak ohiko ikusmolde kultural –eta politikoen– ordezkapena ekarri ohi du¹⁴¹, baita kulturagile eta intelektual berrien kontsakrazioa ere esparruan eta gizartearen.

Dena den, 60-70eko hamarkadetako urte horietan euskal kulturaren gertatutako sakoneko eraldaketek kultura esparrua ez ezik euskal gizarte eta, bereziki, euskal hiztun komunitatearen barne egitura ere errotik irauli zuten. Esan nahi baita, euskararen estandarizazioak, abian jarritako euskalduntze eta alfabetatze prozesuek eta hizkuntzari esleitutako esanahiek kategoria sozial berriak eta hizkuntza taldeen inguruko bestelako definizioak ekarri zituzten beraiekin batera. Hori dela eta, zenbait hizkuntza aldaeraren prestigio sozialarekin zerikusia zeukan gizarte mailaketari eman zitzaion hasiera: harrezkero, gizarte definizioetan bereizita agertu ziren euskara batutik hurbil zeuden euskalkien hiztunak –gipuzkoarrak bereziki– eta hartatik urrun zeuden euskalkien hiztunak –bizkaitarrak, nafarrak, eta abar–; era berean,

bereizitako kategoriak osatu zituzten arau berriari alfabetaturik zeudenek eta alfabetatugabeek; azkenik, artean sailkapen sozialetan existitzen ez zen “euskaldun berriaren” kategoria ere sortu zen. Hartara, hizkuntzaren batasunak eta modernizazioak, euskara literarioa balioztatzearekin batera, gainontzeko euskara aldaeren deslegitimazio erlatibo eragin zuen praktikan. Halaber, irakaskuntzak eta alfabetatzeak bidea eman zuten bestelako hierarkia sozial eta linguistikoak sorzitezen hiztun komunitatearen baitan –eta, euskarak zeukan balio sinbolikoa zela medio, euskal gizartean oro har–. Ildo horretatik, hizkuntza estandarizatuaren ezagutzak kapital sinboliko baten modura jokatu zuen euskal gizarteko ondasun sinbolikoen unibertsoan eta gizarte desberdintasunen egiturek –hezkuntza mailak, klaseak eta abar– eragina izan zuten haren eskurapenean eta metaketan. Kultura aldatetaren ondorioz sorturiko desberdintasun kulturalak eta intelektualak, horrela, kultura esparruan ez ezik mendeko hiztun komunitatearen barnean ere nabarmendu ziren; azken horretan kapital kultural berriak desberdintasun sozial gero eta zehatzagoak ezartzeko aukera zabaldu zuen.

2. Euskal kultur gileak frankismo osteko euskalgintzaren erai-kuntzan: Kultura esparruaren autonomia gauzatzen, kultur gileen tradizioak sortzen

“Egoera honen aurrean ezinbestekoa da ahalik eta akordio politiko eta sozial handiena lortzea. Oinarrizko adostasunik zabalena lortu eta euskara borrokarako tresna izatetik jaregitea lortzen ez bada, nekez gaindituko dugu egungo egoera zatikatua eta askotan kontrajarria. Egoera honetan alde guztietatik distentsioa bultzatu eta hizkuntzaren balio kulturalaren autonomia aldarrikatu beharra daukagu” (Mendiguren Bereziartu, 2000)¹⁴².

“Hizkuntza gatazka politikoan ez nahastea, bilinguismoak normalizatzea, euskara denon patrimonioa izatea litzateke hoberena. Baina errealitatea egoskorra da, euskara ez da egundo egon borroka politikotik aparte, arazo politiko hein handi batean arazo kulturala da, eta arazo kulturala, hein handi batean, arazo politikoa. Eta abertzaleen aldetik ergelkeria da euskara abertzaleen gauza dela esatea, abertzaleen helburua euskara denon hizkuntza izatea delako, baina demagogia eta injenuitate handia da euskara denon gauza dela esatea, askorentzat kontrarioaren identitate ezaugarria delako. Euskara

borroka politikoaren erdigunean dago eta gauzak konplexuak dira, eta ez dira sinplifikatu behar, baina argi dagoena da hizkuntza horixe dagoela gatazkaren erdian, eta gatazkaren soluzioaren parte dela gainera” (Sarrionandia, 2002)¹⁴³.

2.1. Hego Euskal Herriko marko politikoaren eraldaketa. Instituzionalizazio autonomikoa eta euskal nazionalismoaren zatiketa

Zalantzarik gabe, Hegoaldeko euskal gizarteak Francoren heriotzarekin ezagutu zituen aldaketa soziopolitikoek berebiziko eragina eduki dute azken hogeita hamar urteotan euskalgintzak bizi izandako bilakaeran. Ez, haatik, frankismoaren ostean erabateko haustura politikoa gertatu zelako. Bai, aldiz, Espainiako estatuaren birmoldaketak ekarritako instituzionalizazio berriak bestelako testuinguru sozial eta politikoa sortu zuelako Hego Euskal Herrian. Azaldu ditzagun zehazkiago bi baieztapen horiek.

Espainiako “trantsizio politiko” izenarekin ezagutu den prozesua elite politikoen arteko itunaren ondorioa izan zen; esan nahi baita, erregimen frankista ez zen errotik suntsitu, ez zen haustura batez desegin. Horren ordez, Espainiako estatuaren demokraziarako bilakaera elite frankistek hitzartu zuten oposizioko agintari nagusiekin batera. Eliteen protagonismo hori zenbait faktorek erraztu zuten: besteak beste, erregimen zaharreko indar faktikoek bildutako botere handiak eta frankismoaren garaitik zetorren kultura politikoak, azken horrek Espainiako gizartearen desmobilizazioa eta despolitizazioa baitzeuzkan oinarritzat (Sastre García, 1997: 43-44). Hitzarmenaren emaitza nagusia sistema politiko demokratikoaren lege markoa ezarri zuen 1978ko Konstituzioa izan zen. Hego Euskal Herriko indar nazionalistak, jakina denez, itunetik at geratu ziren lehen unean.

Espainiako 1978ko Konstituzioa aspaldiko auziari irtenbidea emateko tresna gisa ulertu zuten haren sortzaileek. Izan ere, Espainiako nazio-estatuaren eraketa burutu gabe zegoen artean, eta zabalitzen ari zen epealdian prozesu horri amaiera eman nahi zitzaion estatuaren nazionalizazio demokratikoa abian jarrita¹⁴⁴. Horretarako, beharrezkoa zen, besteak beste, gizarte klaseen arteko eta erregio/nazionalitateen arteko desberdintasunak estatu antolaketan integratzea. Ildo horretatik, Konstituzioak “Autonomien Estatu” izenez ezaguturiko estatu deszentralizatu definitu zuen, hamazazpi erkidego autonomoz

osatua; tartean zeuden “nazionalitate historikotzat” jo zirenak, hau da, gerraurrean autonomia estatutua eduki zuten lurraldeak. Erregioei zein nazioei, guztiei onartu zitzairen oraingoan autonomiarako esku-bidea¹⁴⁵. Baina, deszentralizazioaren aldeko definizioa gorabehera, Konstituzioak ez zuen biderik eskaintzen ohiko aldarrikapen nazionalistak erdiesteko: bada, soberania espainiar nazioaren barnean datzala eta nazio horren batasuna eztabaida ezina dela jasotzen da haren testuan. Ez hori bakarrik; euskal nazionalismoari dagokionez, Espainiako Konstituzioak Nafarroa bereizi zuen erkidego gisa, Hegoaldeko gainerako hiru lurraldeekin batzeko aukera aurreikusten bazuen ere.

Horiek horrela, indar nazionalisten –nazionalismo kontserbadorearen nahiz ezkerrekoaren– jarrera kontrakoa izanik, euskal gizartearen gehiengoak uko egin zion konstituzio berriari. Ez, haatik, haren ondorioa izan zen Autonomia Estatutuari. Bada, Estatutua eta Foru Hobekuntza izan ziren frankismo osteko sistema politikoaren legitimazio partzialaren bideak Hego Euskal Herrian¹⁴⁶. Estatutuaren abia-burua da Euskal Herria –Euskadi modura definituta–, nazionalitate den neurrian, autogobernuaz hornitzen dela, eta Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen dela, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrialdeekin, baita Nafarroarekin ere, beronek, konstituzioak ezarritako aukera baliatuz gero, halaxe erabakiko balu –Nafarroaren kasuan, baina, hobetsi zen prozedura Foruaren Hobekuntza izan zen eta ez zen erreferendumik egin. Foru Hobekuntzan esplizituki baieztatu da Nafarroa espainiar nazioaren zati bat dela eta ez da inolako aipurik azaltzen gainerako hiru herrialdeekin bat egiteko aukeraz–. Estatutuaren eta ondorengo instituzionalizazio soziopolitikoaren inguruan sortutako jarrera kontrajarriek arrail sakona zabaldu zuten euskalgintzaren oinarri soziala izandako nazionalismoaren barnean, zehazki esateko, autonomiaren aldeko nazionalismo kontserbadorearen eta haren aurkako ezkerreko nazionalismoaren artean. Bestalde, bi erkidegoen eskumenen kudeaketak eta horrek zuzenean eragindako instituzionalizazioak ondorio eskergak eduki zituzten euskal kultura esparruaren eraketa hasi-berrian. Beraz, aztertzen ari garen aldaketa politikoan leudekeen askotariko dimentsioak alde batera utzita, eraikuntza autonomikoak instituzio/mugimendu dialektikan eragindako gorabeheretan jarriko dugu arreta hemendik aurrerako gogoetan.

Estatutua onartu ondoren eta nazionalismo kontserbadorearen hegemoniaren gidaritzapean, estatuak transferitutako eskumenen kudeaketa bideratu asmoz zenbait gizarte arlotan sortutako eraketa

administratiboak instituzionalizazio autonomikoa jarri zuen abian. Prozesu orokor modura hartuta, instituzionalizazio politikoak bi alderdi izan ohi ditu. Lehenik, azpiegituraren ikuspegitik, gizarte bizitzako jardun esparruak barnean hartzen dituzten burokrazia oso razionalizatuen sorrera ekarri ohi du. Bestela adierazita, instituzionalizazio politikoaren prozesuak martxan daudenean, burokrazia berriek berenganatzen dituzte gizarte bizitzako jardun esparruei dagozkien auzien eztabaida, kudeaketa eta ebazpena. Gizarte auziei buruzko eztabaida esparru instituzionaletan kokatuta egonik, gizarte bizitza eta gizarte harremanak despolitizatu egiten dira; horrela, gero eta gehiago aldentzen da gizarte bizitzatik bereizitako politikagintzaren esparru autonomoa. Bigarrenik, gizabanakoaren kontzientziaren ikuspegitik, politikagintzak bere ezaugarri publikoak galtzen ditu hein handi batean, eta arlo pribatuko auzi bilakatzen da. Esan nahi baita, politika lehentasun edo hautu pertsonalen arloan hautematen dute gizakiek. Horrela, gizartekideek botere publikoetan eduki zitzaizketen partaidetza aukerak murriztuta ikustean, auzi kolektiboak eguneroko kezketatik urrundu eta bizitzaren esparru pribatuan ezartzen dituzte euren jomugak: familiarren ongizatean, lanbide arrakastan, kontsumoan, eta abar¹⁴⁷. Ezaguna denez, bizitza sozialaren despolitizazioa eta pribatizazioa gizarte garatuetan indarrez gauzatutako joera osagarriak eta, neurri batean, orokorrak izan dira XX. mende erdialdetik hona.

Ildo horretatik, modernizazioaren berezko bilakabidearen ondorioz gizarteko entitate zentralen, legalen eta administratiboaren boterea areagotu egin dela azpimarratzen du Eisenstadttek (Eisenstadt, 1972: 15). Horrekin batera, gizarte esparruen kudeaketa eta administrazioa bermatzen duen funtzionarioen kidegoa sortu da. Nola antolatzen dira egoera horretan esparru politikoaren eta gizartearen arteko harremanak? Estatu modernoaren legitimazioa legala eta inpersonala denez, gobernariak gobernatuaren eskarien aurrean daukaten erantzukizuna bitartekaritza mekanismoen bidez hezurramitzen da politikoki instituzionalizaturik dauden gizarteetan. Horrela, esparru politikotik aldentuta geratu diren gizartekideen eskari politikoak bideratzeko interes taldeak, gizarte mugimenduak eta alderdi politikoak sortzen dira (Eisenstadt, 1972: 29-30). Azken hiru horien artean alderdi politikoak izan ohi dira, zalantza izpirik gabe, antolakuntza politiko modernoaren adierazpenik eratuena. “Gizarte despolitizatueta”, hau da, politikagintza eguneroko bizitzatik at kokatuta dagoen gizarteetan,

alderdi politikoen esku uzten dute gizartekideek euren erantzukizun politikoa, alderdiek esparru politikoan joka dezaten.

Gizartearen gainean sortutako egitura administratibo-instituzionalak, behin ezarrita dagoenean, izugarritzko ahalmena dauka gizarte errealitatea sortzeko eta gizarte harremanak bere irizpideetara moldatzeko. Horretarako, arauak eta legeak ebazten ditu, errealitatea definitu eta ordenatzeko asmoz. Hartara, instituzio politikoen jardueraren esparruak eta edukinak legalki definituta eta zedarrituta egon ohi dira –indarrean dagoen legeriak babesten ditu–. Instituzio politikoek gizartean daukaten kokapen hegemonikoa bide dela¹⁴⁸, haien jardunek eta diskurtsoek errealitatea definitu ez ezik sortu ere egiten dute.

“La Administración construye e impone un mundo simbólico en gran medida responsable de la configuración del orden social y, por tanto, de la determinación de las relaciones sociales; pero, al construirlo, ella misma se distancia y aísla de la realidad-real al esforzarse en definirla, simplificarla y ordenarla y reducir su incertidumbre y ambigüedad, refugiándose en un bosque de textos y de normas (...) Una forma instrumental y subordinada del discurso político es lo que podríamos llamar el “discurso administrativo”: obviamente, lo que dice la Administración sobre la realidad social es extremadamente importante, ya que produce efectos sociales. No sólo porque obliga a los funcionarios y a los ciudadanos a seguir determinados comportamientos, de suerte que si no se atienen a la pauta establecida corren el riesgo de ser sancionados por la propia Administración o por los Tribunales; sino porque lo que dice la Administración sobre la realidad constituye una definición de dicha realidad que contribuye de manera decisiva a su construcción o configuración” (Beltrán, 1991a: 163; 166).

Instituzionalizazio prozesu orok dakartzan ondorioak –errealitate sozial berriaren eraikuntza legitimatzearen aldekoak– botere eta administrazio autonomikoen ezarpenarekin batera ere ezagutu izan dira neurri batean frankismoaren osteko Hego Euskal Herrian. Neurri batean diogu, instituzionalizazio horren aurkako indar sozialek ere jardun dutelako egitura instituzional berria –eta, hartara, haren kudeatzaileen boterea– deslegitimatuta nahian. Gatazka horrek ezaugarritu du, besteak beste, euskal gizartearen azken hiru hamarraldietako bizitza sozio-politikoak. Ondorioz, instituzionalizazio autonomikoaren emaitzak eztabaidaezinak diren arren, tartean erresistentzia handiak direla gauzatu dira euskal gizartean.

Arestian aipatu dugun ildotik, sistema demokratiko postfrankistaren eta instituzionalizazio autonomikoaren ondorio nabarmen-tarikoak euskal gizartearen desmobilizazioan eta despolitizazioan gauzatu dira. Prozesu horiek ez dira erabatekoak izan baina bai garrantzitsuak. Frankismoaren azken urteetako eta “trantsizio aldiko” masa mobilizazioak eta gizarteko esparru guztietan txertaturiko politikagintza ahuldu egin dira poliki-poliki. Aldi berean, gizarteko jardun esparru guztiak bere gain hartu eta arautu dituen esparru instituzionalizatu gero eta osatuagoa sortu da. Horrela, apurka-apurka, bai administrazio autonomikoak bai politikagintza konbentzionaleko aktore kolektibo nagusiak diren alderdi politikoez kultura mugimenduaren behinolako eginkizunak eurenganatu dituzte –baita bestelako mugimenduenak ere, jakina–.

Autonomia Erkidegoaren instituzionalizazio prozesuaren bila-kaera, dena den, anbiguotasunez beteta burutu da. Era askotako arrazoiak daude tartean. Ezin da ahaztu, batetik, botere autonomikoa estatutik eratorritakoa izateaz gain estatuak ezarritako muga juridiko eta eskumenen araberakoa dela eta, bestetik, mugarri horiekin ados ez dagoen indar nazionalista batek kudeatu duela orain arte botere esparru hori. Abiapuntu horrek itxura kontraesankorra eman dio eraikuntza autonomikoari. Horiek horrela, botere autonomikoaren kudeatzaile izandako nazionalismo kontserbadoreak, muga horiekin jokatu ere, eskuratutako baliabideekin bizitza sozialeko alor guztiak instituzionalizatu nahi izan ditu bere aginte esparruan, eta horrela, bere interesen kontrolpean jarri –emaitza gaininstituzionalizazioa izan da, zenbaiten ustez, estatu bat eratzen ariko bailitzan jardun baitu alderdi hegemonikoak¹⁴⁹. Aipatui instituzionalizazioa goiz-goizdanik jarri zen abian kultura esparruan, hala erakunde berrien sorreraren bitartez –Euskal Irrati-Telebista (ETB), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundea (HABE)–, nola lege eta araudiak bide zirela –Ikastolen Titularitate Publikoaren Arautegia (1979), Euskararen Erabilera Arautzeko Legea (1982)–. Ebazpen horiek kultura eta hizkuntzaren esparrua arautu ez ezik administrazioaren eginkizunaren mende ere jarri zuten hura, halako moldez non, behinola kultura mugimenduak zenbait arlotan zeukan ekimena zapuztu egin zen. Bestalde, euskal nazionalismoa minoritarioa izatean, Nafarroako Foru Erkidegoan autonomiaren kudeatzaile politikoez bultzaturiko instituzionalizazioak ez du inolako alderdi zalantzaririk eduki ez politika orokorrean ezta euskarazko kultura politikari ere dagokionean; argi

eta garbi, euskararen eta euskal kulturaren sustapenaren aurkakoak izan dira.

Halaz ere, bai Autonomia Erkidegoan bai Foru Erkidegoan, indar politiko kudeatzaileen barne kontraesanetatik baino gehiago euskal nazionalismoari lotutako zenbait sektore sozialek –euskal gizartean gutxiengo esanguratsua osatu duten sektoreek, alegia– eraketa autonomikoaren aurka garaturiko estrategiatik etorri dira desadostasunak. Aurkaritza horretan funtsatu dira instituzionalizazio autonomikoaren inguruan –batez ere haren legitimazioan– sortutako gatazka asko. Gatazka horiek adierazpen politiko nabarmena izan dute nazionalismo hegemonikoaren eta ezkerreko nazionalismoaren arteko borroka politiko-sinbolikoan, bigarrenak ez baitzuen onartu frankismo ostean diseinaturiko euskal lurraldeen banaketa administratiboa eta estatu soberaniatik delegaturiko eskuduntza-multzo mugatuaren kudeaketa autonomikoa. Aitzitik, Espainiako marko juridiko berriaren ukazioak eta haren ondorio den eraketa autonomikoaren aurkako jarrerak ezau-garritu dute ezkerreko nazionalismoaren ibilbidea frankismo ostean. Bide beretik jo du ETA erakundeak ere, nahiz eta azken horren jarduerak frankismoaren garaian baino askoz deslegitimazio sozial handiagoa jaso duen testuinguru politiko berrian. Oro har, nazionalismo hegemonikoaren eliteek pragmatismoaren izenean abian jarri zuten instituzionalizazio autonomikoak aurrez aurre aurkitu du ezkerreko nazionalismoak bultzatu duen marko politikoaren deslegitimazio saioa.

Ikertzaile zenbaiten hitzetan, abadagune sozio-politiko berrian irekitako prozesuak euskal nazionalismoaren behinolako “erabateko adostasunaren” amaiera ekarri zuen hala diskurtsoetan nola praktika politikoetan (Gurrutxaga, 1996: 159 eta hur.). Euskal nazionalismoaren barne desberdintasunak frankismoaren azken aldian jadanik zehazturik zeuden arren, erregimenaren aurkako borroka aliantza inplizituak egitera eta, kanpora begira behinik behin, batasuna mantentzera behartu zituen indar politiko nazionalistak. Gero, aldiz, desberdintasunak areagotu egin ziren indar politikoei bestelako ingurune sozio-politikoan aritu beharra egokitu zitzaizenean. Halatan, euskal nazionalismoak estatuaren aurka edukitako “kanpo gatazkari” indar nazionalisten arteko “barne gatazka” gehitu zitzaion trantsizio garaitik aurrera. Barne gatazka horrek, jakina, adierazpen ugari izan ditu zenbait gizarte esparrutan eta, nola ez, euskalgintza/kulturgintzan. T. Mateosen aburuz, taktika politikoak eta ikuskera ideologikoak marrazten dituzte, hurrenez hurren, azken urteotako euskal nazionalismoa

zeharkatu duten banalerro nagusiak. Taktika politikoaren arloan lurralde-aukera estrategikoak, instituzio autonomikoen erabilera eta hobetsitako aliantza politikoak hartzen ditu aintzat aipatu ikertzaileak. Ikuspegi ideologikoaren arloan, berriz, ezker-eskuin dimentsioei dagozkien ezaugarriak, besteak beste, “demokrazia delegatua *versus* demokrazia esku-hartzailea” oposizioan oinarritzen diren desberdintasunak (Mateos, 2000: 394-412).

Desberdintasun horiei jarraiki, instituzio autonomikoei buruz izan duen jarrerarekin bat eginda, ezkerreko nazionalismoak jarduera instituzionala eta “masa borroka” uztartu nahi izan ditu jardun politikoaren ildoetan. Bestalde, ordezkartzan oinarritutako demokrazia gaitzetsi eta, haren ordeztan, demokrazia parte-hartzailearen premia aldarrikatu du bere diskurtso politikoan: alegia, herritarren partaidetza indartu beharra eta herritarren eraketa suspertu beharra gizartean auzitan dauden gaiak ebazteko. Hartara, gizartearen mobilizazioa eta bizitza sozialaren politizazioa helburutzat dauzkan ildoak jorratu ditu ezkerreko nazionalismoak, modu horretan, frankismoaren azken garaian eta trantsizioaldian gizarte mugimenduak zeukan protagonismoari jarraipena eman nahian, batetik, eta instituzionalizazio prozesuak ekarritako ondorioei kontra egin nahian, bestetik. Hainbestean, –estatuari nahiz euskal gizarteari begira– erresistentzia politikoaren eta nazio gatazkaren iraunkortasuna irudikatu eta birsortu ditu sinboliko ki autonomia ondorengo euskal esparru politikoan. Horiek horrela, ulergarria da ezkerreko nazionalismoa –eta hark birsortutako nazio gatazkaren diskurtsoa– era askotako gizarte mugimenduen aterpe sinboliko-ideologiko bilakatu izana azken urteotan.

“Alderdi ezkertiarrek erakutsi ohi duten gehiegizko burokratizazioa eta protagonismo politikoa bazter utzi nahi ditu, eta gizarte arronka berriei erantzuteko erakundearen jardun politikoaren egokipena aldarrikatzen du. Hartarako, funtsezkotzat jotzen du gizarte mugimendu berrien jardunarekin bat egitea, eta euren erabateko gorespena egiten du, horrenbeste non, mota honetako mugimenduak gartsuen defenditzen dituen indar politiko nazionalista dela esan baiditeke” (Mateos, 2000: 412).

Zalantzarik gabe, ezkerreko nazionalismoak luzaroan birsortutako nazio gatazka beste gizarte auzi batzuk definitzeko erabilitako erreferentzi marko nagusia izan da 70eko hamarralditik gaur egunera arte euskal gizartean. Halatan, euskal esparru politikoaren *cleavage* edo

haustura-lerro nagusi gisa jardunez, nazio gatazkak beste era bateko gatazken azaleratze publikoa ahalbidetu du. Esan nahi baita, gatazka nagusiaren iraupenak kultura politikoa baldintzatu du, halako moldez non, haren ildo hegemonikoek –oro har, nazionalismoaren estatuari buruzko aurkakotasunak eta, neurri txikiagoan, ezkerreko nazionalismoaren antiinstituzionalismoak eta gizarte politizazioak– mugimenduen desafio sinbolikorako eta egintza politikorako gune egokiak zabaldu baitituzte¹⁵⁰. Ildo horretatik, behin baino gehiagotan egin dute bat gizarte mugimenduek eta indar nazionalistek –bereziki ezkerreko nazionalismoak– bai diskurtsoan bai interes estrategikoetan.

“68-ko sua, arazo nazionalaren babesean gorde baldin bada, garai honetan (70etik hona) Euskadin piztu diren kezka berriak –zentzu hertsian mugimendu sozial berrien ardura liratekeenak (ekologia, emakumearen eskubideak, antimilitarismoa, bakezaletasuna, etab.)– euskal nazional mugimenduaren barne sortu dira. Edota ENAM-engandik gertu jaioz gero ENAM-ek neurri batean bereganatu egin ditu, ala ENAM-i kontra egiteko soilik eraiki dira. Laburbilduz: arazo nazionala nagusi den gatazka aldi honetan, mugimendu sozial berrien aitzakia diren gaiak, modu batera edo bestera, nazio eskubideen defentsaren edota honek aukeraturiko estrategien menpe egon dira” (Zubiaga, 1995: 132).

Euskararen aldeko mugimenduaren ibilbidea ere ez da deskribatu dugun testuinguru politiko berriaren eraginetatik at gelditu. Alabaina, euskalgintza ezin da besterik gabe frankismo ostean sortutako beste mugimendu batzuen parean kokatu. Aitzitik, euskalgintza eta euskal kulturgintza historia luzeko ekimenak ditugu, frankismoaren garaian heldu eta zaildutako erresistentzia kognitiborako guneak diren arren. Egiazki, Francoren erregimenak ezarritako jazarpen fisikoak eta sinbolikoak ezaugarri bereziak eman zizkion ekimenari –mugimendu zabalaren izaera, atxikimendu afektiboa eta legitimazio sozial handia gizar-tean–. Beraz, euskararen eta euskal kulturaren defentsa nazionalismo hegemonikoaren nahiz ezkerreko nazionalismoaren idearioan ainguratutako aldarrikapenak izan dira, bereziki, 60ko hamarraldiaz gero, euskara euskal identitate kolektiboaren osagai nagusitzat jo zenetik. Euskal gizartearen sustrai sozial sakonak dauzkan mugimenduz ari gara, beraz, eta ez soilik azken urteotako ezkerreko nazionalismoaren strategiaren itzalpean garaturiko ekimen batez.

Horiek horrela, euskalgintzak testuinguru soziopolitiko berrian izan duen bilakaera ezin da ulertu mugimendu horrek aspalditik eduki

dituen oinarrien eta loturen eraldaketa ere aintzat hartu gabe. Historian zehar hizkuntza komunitatea, euskararen aldeko mugimendua eta mugimendu nazionalista errealitate desberdinak izan diren arren, komunitate nazionalistak osatu du luzaroan euskalgintzaren oinarri soziala; are gehiago, luzaroan unibertso sinboliko nazionalistak eman dio esanahia mugimenduaren erreferentzi markoari. Horrengatik, ikusiko dugunez, euskal nazionalismoaren zatiketak, instituzio autonomikoen hizkuntza- nahiz kultura-politikak eta mugimenduaren beraren instituzionalizazio eta profesionalizazio prozesuak euskalgintzaren esparruaren goitik beherako birmoldaketa ekarri dute. Ez hori bakarrik, ordea. Prozesu horiek ziklo berria zabaldu dute hala euskalgintzaren bilakaeran nola mugimenduari lotutako kulturgileen rol sozial eta eginkizunetan.

Instituzionalizazio politikoaren eraginez eraturako gizarte instituzio berrietan euskal kulturgileen rolak garatzeko beste aukera batzuk sortu dira. Euskal kulturaren esparrua instituzionalizatu, finantzatu eta dibertsifikatu den neurri berean ugalduta eta adarkatu da kulturgileen ehundurak osaturiko unibertsoa ere. Era berean, instituzionalizazioak eta ugalketak euskalgintzari buruzko era askotako ikuspegiak sorrera bultzatu dute eragile intelektualean artean. Ildo horretatik, frankismo osteko euskalgintzaren esparruan euskal kulturgileek bai mugimenduan bai kulturgile eginkizunetan hauteman dituzten aldaketan berri emango da ondoren datozen ataletan. Pertzepzio horien azterketak osatuko du batik batik azken urteotako euskalgintzari buruzko bukaerako gogoeta.

2.2. Euskalgintzaren esparru intelektuala euskal kulturgileen pertzepzioan

“Au risque de choquer aussi bien les méthodologues rigoristes que les herméneutes inspirés, je dirais volontiers que l’entretien peut être considéré comme une forme d’exercice spirituel, visant à obtenir, par l’oubli de soi, une véritable conversion du regard que nous portons sur les autres dans les circonstances ordinaires de la vie. La disposition accueillante, qui incline à faire siens les problèmes de l’enquête, l’aptitude à le prendre et à le comprendre tel qu’il est, dans sa nécessité singulière, est une sorte d’amour intellectuel: un regard qui consent à la nécessité, à la manière de l’”amour intellectuel de Dieu”, c’est-à-dire de l’ordre naturel, que Spinoza tenait pour la forme suprême de la connaissance” (Bourdieu, 1993: 912-914).

2.2.1. Euskal kulturgilearen irudikapen ideala: konpromisoaren aldeko intelektuala, nagusi

“Kulturaren autonomiak ez du intelektualaren menpegabetasuna gizon-emakumeen miseriatik eta sufrimendutik esan nahi, eta bai boteretik” (J. Azurmendi, 1997: 128).

Jakina denez, kulturgileek berenganatuta daukate kulturaz eta kultura sortzaileez mintzatzeko zilegitasuna. Ildo horretan, intelektualei buruzko definizioak autodefinizioak izaten dira (Bauman, 1995: 8; Bobbio, 1997: 14). Horrela, modu legitimoan intelektual deitu daitezkeen taldea zehazten dute definitzaileek; areago, funtzio intelektualean nolakotasuna finkatzen dute eredu normatibo zehatzen arabera.

(Auto)definizio guztiek bezala, euskalgintzako kulturgileek intelektualei buruz egindako irudikapenek ere osagai proiektibo nabarmenak daukate. Bada, kulturgileok praktikan mendeko hizkuntza komunitate baten gorabeherei lotuta daudenez, euren eginkizunen eredu normatiboek ere esperientzia historiko jakin batzuen zantzuak islatzen dituzte. Euskalgintzako kulturgileen eginkizunei buruzko definizioak euskalgintzaren esparruaren jardun historikoan osatu dira. Mendekotasunezko harremanetan dagoen hiztun komunitatearekin bat egiten duen lokarria dela medio, euskal kulturgilearen rola ez da eraiki pribilegiozko egoera batean. Horiek horrela, lan honetan jasotako elkarriketetan ematen diren definizioetan ez da sekula planteatzen kulturgileen eginkizuna gizartetik at, esparru neutro batean, ezpada konpromiso etikoaren eta sozialaren esparruan; kulturgileen solasean ikusi ahal izango dugun bezala, zenbaitetan, maila politiko argi batean ere kokatzen da zeregin hori. Zalantzarik gabe, engaiamenduaren aldeko irudikapena aurkitzen dugu behin eta berriro adierazpen horietan islatuta.

“Intelektuala historian zehar beti izan da elite bat eta elite horren esku egon da (...), intelligentsiaren esku egon da herri baten oraina eta etorkizuna, berak markatu izan du historian konfliktua kulturaren bidez eta politikaren bidez eraginez. Eta alde hortatik nere ustez intelektual bat da erresponsabilidade etiko handi bat izan beharko lukeen norbait eta bere jakintza herriaren zerbitzurako pentsatu beharko lukeen norbait. Alde horretatik begiratuta, intelektual baten eginkizunak eskatuko luke: bat, ez bakarrik ezagutza mailako jakintza baita ere jakintza horren erabilera. Hemen sartzen da etikaren dimentsioa, zeinaren ondorioz, intelektual horrek parte hartu behar

duen hirigintzan, herrigintzan, eta modu kontziente batez, moral batez eta etiko batez, herri horren oraina eta geroa hobetuz eta indartuz. Eta hor, niretzako nahiko garbia da, ez dauka bakarrik helburu pedagogikoa betekizun bezala (...) baita ere izaera politikoa, funtsean politikoa. Eta hor ez dut ikusten intelektualen eginkizuna halako esparru neutro batean, objektibo batean, baizik eta baldintzatua da. Segun nolakoa den bere ekarpena, eta nola emana, halakoa izango da baita ere bere egitekoa” (7. elkarrizketa).

Aurkeztutako eredu normatiboaren arabera, kulturgilea behartuta dago gizarteak dauzkan premia, gabezia eta arazoei erantzuna ematera bere jakintza erabiliz. Konpromisoaren irudikapenean, ezinezkoa da neutraltasuna.

“(…) nire ustez jakintza mota guztiak beti gizartearekin izan behar dutela lotura, eta alde hortatik intelektuala, jakintza arlo bateko adituak diren neurrian, jakintza arlo hori intelektual horiek bizi duten errealitatearekin lotu behar dutela. Gizarteak dauzkan premiekin, gizarteak dauzkan gabeziekin eta arazoekin eta, bueno ba intelektualak aditua den neurrian, erantzun bat ematen saiatu behar du ba dagokion maila hortan, ezta? (...) Gizartearekiko denok erantzukizun bat daukagun bezela, ba kulturgileek ere badute berea eta da menperatzen duten jakintza arlo horretatik erantzun bat ematen saiatzea, ezta? (...) Nire ikuspuntutik konpromisoa ezinbestekoa da (...) Neutraltasunaz eta nik uste garai hauetan hitz egiterik ez daukala lekurik eta hori horrela ikusita, konpromisoa, nerretzat, ezinbestekoa da. Uste dut, konpromiso maila bat gizartearekin eta ideia batzuekin beharrezkoa da, bestela, itsu-itsuan, ideologia eta botere eta planteamendu batzuen menpe jartzen zara, nahiz eta horren berri izaterik nahi ez izatea. Baina, bueno, ordun, argi eduki behar dugu non gabiltzan; gero, norberak erabakiko du dabilen horretan egoki den ala ez (...) Bestela, itsuki jokatzeko da eta ustez libre edo modu neutralean jardutea da, baina, hori, nerretzat, faltsua da” (3. elkarrizketa).

Pauso bat haratago, intelektualaren eginkizuna, teoriatik abiatuta egintzarako marko bat, alegia, errealitatea eraldatzeko marko bat eskaintzea izango litzateke.

“Ondorioa baldin bada ekintzarik gabeko teoria antzua dela ta teoriarik gabeko ekintza itsua dela, intelektualari legokioke, batez ere, teoriaren esparrua. Eta horrek esan nahi du hausnarketa bat, errealidadetik abiatutako hausnarketa bat, eta errealidade hori, nere ikuspegitik behintzat, errealidade hori eraldatzeko marko bat eskaini

behar duela, baliabideak eman behar dituela gero, praktika, kasu hontan kultur praktika, kokatzeko” (6. elkarrizketa).

Teoria eta praktika, kultura eta politika, intelektualei buruzko azterketa klasikoetan agertu diren gogoetaguneak izan dira. Euskal kultura esparruaren eraketaz ari garela ere ezin dugu saihestu auzi politikoak. Kultura esparruaren osaketaz hitz egiten denean, estatu gizarteetan modu “normalizatuan” eta berme instituzionalekin garaturiko eremu autonomia aipatu ohi da. Euskarazko kultura esparrua ez da baldintza horiekin osatu. Paradoxikoki, kulturaren autonomia egitura politikoaren babesean eta hari esker garatzen da, erakunde politikoek ipintzen baitituzte kulturaren birsorkuntzarako oinarritzko bermeak. Hala, estatu gizartei dagokienez, kulturgintza esparrua beste gizarte atal batzuetatik bereizi duen emantzipazio kolektiboa ez da gertatu inolako babesik gabe, ezpada botere politikoaren zaintzari esker, hizkuntza eta kultura legitimoak dagoeneko finkatuta egon diren unean. Kulturaren garapena, horrez gain, bilbe instituzional sendoa eratzen denean egiten da bideragarri, erakunde multzo batek ziurtatu behar duelako ekoizpen sinboliko sistematikoa, alde batetik, eta kultura ondasunen transmisio eta hedapen egokia, bestetik. Hala, oinarritzko babes politikoak jarrita egon direnean izan da bidezkoa kulturaren autonomia, ez lehenago. Estatu gizarteetan bezala, euskarazko kulturgintza esparrua politikagintzari lotuta garatu da historian zehar, baina, estatuaren bermerik lortu ezinean, euskararen auzia euskal nazionalismoaren aldarrikapenari itsatsita agertu da gaurdaino. Kulturaren eta politikaren arteko uztardura hori ohikoa izan da botere politikorik ezean birsorkuntza kulturala eragotzita izan duten kultura taldeen aldarrikapenean: mugimendu etnonazionalista modernoak izan dira horren adierazpenik ikusgarrienak. Horiek horrela, azken urteotan hizkuntzaren eta kulturaren esparruek esparru politikoari buruzko autonomia irabazi duten arren, euskal kulturari eta euskal kulturgileari dagozkien egintzak ez daude politikoki eta sozialki normalizaturiko gizarteetan leudekeen maila berean. Aitzitik, hizkuntzaren egoera botere politikoaren auziari lotuago dago eta, gainera, modu ageriagoan. Auzi kulturalak ez daude hain desberdinduta politikoetatik. Kulturgileen jardunei ere gizarte “normalizatu” batean baino kutsu politikoagoa darie. Hartara, kultura eta politika ezin dira hain ongi bereizi euskal kulturgileen iduriko.

“(…) kultura eta politikaren arteko mugak non dauden oso nekeza dala bereiztea eta ezartzea. Gutxi gorabehera eta akademiko munduan gabiltzanok, gutxi gorabehera ulertzen degu zer dan kultura ta zer dan politika esparru autonomo bezela (...) Baina dire muga batzuk errealtatean mugak ez direnak, zeren kultura non bukatzen da eta politika eta konpromiso politikoa non hasten dan oso nekeza da ikustea. Inklusio esango nuke antropologia bere zentzu zabalean hartuko bagenu ba kulturaren sartuko litzateke dana, konpromiso politikoa ere bai, orduan dana. Orduan horrek ..., edo alderantziz ere esan dezakegu, konpromiso politikoan sartzen da dana, kulturarekin zerikusia duena zuzenean eta kulturarekin horren zuzenean ikusi ez duena ere. Orduan nik uste det direla kontzeptu batzuk beraien artean englobanteak direnak” (1. elkarrizketa).

Kulturari eta politikari buruzko iritzi horiek ulertzeko euskal intelektuaren sorrera moduari ere erreparatu behar diogu. Dakigunez, intelektuaren ideia –gizarte eragile bereizi gisa– modu historikoan eraikitzen da beti, gizarteari eta testuingururi atxikita. Intelektuala, hitz batean, gune instituzionalei loturik sortzen da. Ildo horretatik, kulturgileek agertoki instituzional jakin batzuetan definitzen dituzte beraien rolak eta nortasunak, bai modu indibidualean bai kolektiboki. Euskalgintzako kulturgile askok mugimenduan eraiki eta osatu dituzte kulturgile gisa dauzkaten rol eta nortasun horiek, ez bestelako instituzio kulturaletan. Izan ere, erakunde legitimoen gabeziak gizarte edo herri ekimenen moldez jantzi ditu luzaroan euskarazko kultura egintza gehienak. Hala, gehienbat euskalgintzan jaso dute euskal kulturgileek kulturgile modura daukaten legitimitatea. Ondorengo elkarrizketan ikusi daitekeen bezala, praxi horrek baldintzatu egin du erabat kulturgileari buruz batzuek daukaten ikuspegi antielitista. Elkarrizketatuak dioenaren haritik, kulturgilearen dohain eta gaitasun indibidualak ez dira gizartean estatus berezi bat lortzeko baliabideak, gizartearen zerbitzura jarri beharreko tresnak baizik: horrela, kulturgileak bere baitan uztartu behar ditu “artista eta aktibista”, alegia, sormena eta diziplina, ezagutza eta konpromisoa.

“[Kulturgilea] gizartean estatus berezi bat lortuko ez duen pertsona bat, hau da, gizarteko gogoetagile harroputz bat ez izatea eta etengabe bere ingurumeneko kezka eta pentsamenduekin lotuta dagoen pertsona bat (...) pixkat konpromiso bat daukan sortzailearena edo kulturgilearena (...) nik uste det biak uztartu daitezkeela, uztartu behar direla eta uztar daitezkeela (...) Nik ez det ulertzen

artea edo artista, sortzailea, kulturgilea, gauza arraro, o sea, dohai bereziak dauzkan pertsona baten moduan, ez dakit nondik dator-kionak dohai horiek. Baizikan nik uste det horren adibideak uni-bertsalak direla eta horregatik idatzi izan dut artista baino gorago artisau zentzua behar dugula guk, ez? O sea, egiten duguna askoz gauza arruntagoa dela, gizartetik datorrela eta gizarterako dela, ez? Ez garela pertsona berezi, espezzialak, beste orbita baten gaude-nak. Orduan, nik uste det gure egitekoa gizartetik dator eta gizar-tean zerbait, balio bat aportatzen duen neurrian bakarrik dauka, nik uste det, balioa, ez? (...) Eta hor kokatuta, nik uste ba kulturgilea bere gizarteari zor zaiola eta, zentzu horretan, gizarte konpromiso bat dagokiola eta, edozein kasutan ere, iruditzen zait konpromiso hori ematen ez bada alde batera, de facto ari dela beste gauza batzuk legiti-matzen edo beste ... Ordun, de facto beti dagoela konpromiso bat. Klaro, gure esperientzia, eta nire esperientzia izan da, gainera, ia-ia esperientzia, neretzako militante hitza ez zait gustatzen, ez? Baina eduki du, alde batetik nolabaiteko bi aurpegi: alde batetik, bertsolari nintzen, eta bertsolari moduan artista libre behar nuen, ez? Pla-zetan, azkenean, ez zegoen konsigna politikorik, nik zer kantatu behar nuen, zer sortu behar nuen..., baina, bestetik, Bertsozale Elkarteko organoetan nengoen apur bat aktibista, ez? Orduan, artis-ta-aktibista binomio horretan, ez? Eta nik uste, niretzat oso aberatsa izan da hori, oso oso aberatsa. Baina, baita ere kontuan hartuta alde aktibista horrek ez zuela ito behar artistaren sortzaile sena (...) Nik uste oso aberatsa izan zan neretzat, alde artistikoa eta alde aktibista nola konbinatu, ze artistak askatasuna behar du eta aktibistak behar du, baita ere, disziplina kolektibo bat. Eta bi horiek uztartu daitez-ke, nik uste det uztartu ditugula” (2. elkarrizketa).

Intelektuala, azken finean, beti da, nahitaez, bere gizartekoa, bere kulturakoa, eta bere garaikoa. Eta ezin dio testuinguru historiko horrek ezarritako baldintzen hertsapenari ihes egin bere rolari dagozkion betekizunak eta nortasunak zehazterakoan.

“Pertsona guztiak gara gure garaikoak eta gure ingurumenekoak, ezta? Zama hori ez daukagu kentzerik. Eta mundura sortzen garen kultura, hizkuntza, testuinguru jakin batean; beste nonbaiten sor-tuak izango bagina horren erangipean geundekeen eta garaian. Eta garaian garaikoak eta tokian tokikoak gara. Gero, hori horrela izan-da, bakoitzak jarduera hauetan hartzen duen jarrera inguruarekiko, inguru hurbilarekiko edo gai sozialekiko eta... Nik uste dut deneta-tik egon dela eta egon behar duela, eta bakoitzak ikusi behar du. Ni konpromisoaren aldekoa naiz, ba pertsonaren garapenerako ingu-

ruari ez begiratzea eta zer gertatzen den ez begiratzea... Nik uste dut, oro har, guztiok edo guztiok segitzen dugula inguruari begira. Eta jarrera horrek gizartearekiko bere alde onak eta bere alde txarrak baditu. Alde onak esaterakoan, horrek marko bat ematen dizu eta jarduerarako irizpide batzuk. Eta alde txarra hori berori izaten da. Askotan muga jartzen dizu, ezta? Konpromisoak markatu egiten dizu noraino iritsi zintezkeen eta zer modu daukazun harago... Eta gero gizartearen edo inguruko taldearen presioa hor dago. Intelektual organikoa hor, alegia, konpromisoari eutsi egiten dion intelektuala dago presiopean. Eta konpromiso zehatzik hartzen ez duen intelektuala beti bere barrenari begira egon liteke eta, itxuraz, askeago izan liteke. Baina, itxuraz bakarrik. Zeren bere garaian garai-koa izango da” (8. elkarrizketa).

Testuinguru sozio-historikoak ez ezik tradizio intelektualek ere aukera marko bat ezarri diote kulturgilearen jardunari. Tradizio intelektualek bereizi egiten dituzte kulturgileak kulturaren esparru barruan. Izan ere, tradizio horiek sailkatu egiten dituzte kulturgileak hierarkia sistema batean. Horrez gain, eragin handia daukate kulturgileek gizarteari buruz dauzkaten ikuspegietan eta egiten dituzten lerradura sozialetan. Bestela adierazita, intelektualaren ideal ilustratua era askotara hezurmamitzen da praktikan, kultura eragileek tradizioek ezarritako moldeen arabera baliatzen baitute beraien kapital espezifikoak. Gizarte bakoitzean jarduera intelektualaren eredu normatiboa ematen duten tradizio intelektual bereziak egon ohi dira: tradizio horiek osagarri kognitiboak, teknikoak edo akademikoak edukitzen dituzte, baita politikaren alorrekoak ere. Euskalgintzan diharduten kulturgilerik gehienak –jakina, hemen elkarrizketatu direnak ere– giza- eta gizarte-zientzietan aritutakoak dira. Euskalgintzaz gain kulturaren esparruan daukaten kokapen horrek kezka sozialetik hurbilago jarri ditu, beraien lanaren erreferenteak giza eta gizarte arazoak baitira. Gizartean kokatuta egoteko modu horrek etengabeko hausnarketara behartzen ditu euskalgintzako kulturgileak, ezinbestean behartu ere, zeinahi delarik gero “arazoen” aurrean hartutako jarrera.

“Nik materialekin lan egingo banu, estilista bat, margoak, harria, ez dakit zer, seguraski izango nuke ikusmolde edo pentsamendu tipo bat. Eta zailagoa izango nuke hori lotzea konpromiso batekin, askoz, esan dezagun, “puruago” bezala edo izango litzateke. Nik pertsonekin lan egiten baldin badut, taldeekin, komunitateekin, hor berehala sortzen dira arazo, arazo sozialak, arazo pertsonalak, identitate ara-

zoak (...) premiak. Maila horretako gauzak segituan sortzen dira, orduan hor konpromisoak segituan ikusten da, nolabaiteko konpromiso edo erantzun baten premia. Ezinbestean (...) Nik argi daukat: kultur eragile batek pertsonekin lan egiten duen neurrian derrigor konpromiso batzuk hartzen dituela, jokatzeko duela rol bat, eta orduan berak nolabait gutxienez horri buruzko hausnarketa bat egin behar duela. Gero berak zer posizio hartzen duen hor barruan libre da eta bere esku dago, noski. Baina, gutxienez hausnarketa bat egitera behartuta dagoela kultur eragilea baldin bada (...) Egia da natur zientzietan ari denak ere segituan egiten duela topo. Segituan egingo du topo problematika sozialekin. Gaur egun bai, ez? Beraz. Antropologoak baita ere, noski. Baldin bada matematikari, fisiko, estilo hortakoa, eta ari dena zientzia exaktoen oinarrizko ikerketa maila horretan eta abar, ba seguraski pertsonak eta askoz urrunago izango ditu. Nahiz eta beti ere izango du bere lan horren ondorioak eta erabilerak eta, horri buruzko hausnarketa izango du. Baina, beno, seguraski askoz urrunago gelditzen zaio horren ondorioak eta abar, beste batzuen esku gelditzen da eta hor ja kate horretan; (...) seguraski ez zaio tokatzen hainbeste hausnartu beharra arlo horretan. Baina, beste arloetan ari direnak, ekonomia arloan berdin, ni ari naizen arloan esaterako (...) derrigor, derrigor (...) Orduan tokatu beharko zaio ariketa intelektual hori egitea eta pertsonalki posizio batzuk hartzea” (4. elkarrizketa).

2.2.2. Euskal kulturgileen eta euskal kultura esparruaren berezitasunak kulturgileen pertzepzioan: mendekotasunaren zantzuak

Aipatu ditugu orain arte elkarrizketatuko kulturgileek rol eta eginkizun intelektualei buruz dauzkaten irudikapen idealak. Intelektualaren konpromiso soziala modu nabarmenean azpimarratzen duten irudikapen horiek euskalgintzako kulturgileen rola eta euskalgintzako esparrua bera eraiki diren aldi berean osatu dira, zalantzarik gabe. Izan ere, kulturgileek baldintzapean sozio-historiko jakin batzuetan erakitzen dituzte beraien eredu normatiboak. Baldintzapean horiek gabe ezin dira ulertu euskal kulturgileek euren ustezko eginkizunari buruz barneratu dituzten habitusak edo disposizio praktikoak. Hain zuzen ere, euskarazko kultura esparruaren osaketa prozesuaren kontaketa egiten zaigu ondorengo elkarrizketan; solaskidearen ustez, beharrezkoa da sustrai historiko horietara jotzea gaurko esparruaren –eta bertako eragileen– berezitasunak argitu ahal izateko. Berezitasunak nabarmenak izan dira Modernitatearen hastapenetatik, oso goiz hasi baitzen

euskararen eta euskal kulturaren mendekotasuna inguruko hizkuntzei buruz. Hala, mendeetan zehar sorterriko elite kulturadunek erdaraz joratu zituzten gehienbat euren literatura- eta, oro har, kultura-lanak¹⁵¹.

“Ez gara ari maila berean lanean. (...) Historiak beti du bere lehena, oraina eta geroa, eta guk jaso izan dugun herentzia intelektuala Euskal Herrian izan da herentzia erdalduna, funtsean erdalduna (...). Baldin eta ulertzen bada euskal intelektuala euskaraz ari dena, euskaraz pentsatzen duena, eta bere emaitzak euskaraz ematen dituen, esan behar duguna da euskal pentsamendua eta euskal intelligentsia landu izan dela gehien bat erderaz, eta jadanik eta behintzat erromatarren garaitik erromatarren kolonizazioaren ondorioz, ba euskal pentsamendua landu izan da erderetan, latinez eta hainbat hizkuntzatan, ez bakarrik espainolez, baita frantsesez, biarnesez eta beste hizkuntzetan, hebraieraz ere bai. Arabieraz ere bai. Hizkuntza asko nahastu dira. Eta orduandanik etorri izan zaiguna da nolabait kultura, euskal kultura ere, euskararen kultura ere, eta euskal gaiak ere, erderaz emanak. Eta herentzia hori luzea izan da, Erdi Arotik aurrera datorkiguna, eta gainera erro luzeak bota ditu. Euskal Herriko pentsalari eta intelektual asko izan dira irakasleak eta profeso-
re handiak atzerriko unibertsitateetan, Frantzia bezala Italian eta Salamancan, Espainian, baina euskara ez den beste hizkuntza batean landu izan dute. Alde horretatik esan dezakedana da maila literarioan nolabait euskara landu duten literario horiek hartzen badira literaturatzat (...) sortzen dira XVI. mendean, eta orduandanik dela nolabait euskal kulturaren aldeko ekintza kontzientea, kolektiboa (...)” (7. elkarrizketa).

Herrian errotutako elite kulturadunen gabeziak, euskara idatzia-
ren urritasunak eta ahozko tradizioaren nagusitasunak, ez zuten euskarazko kultura bateragarri egiten Modernitatearekin. Gero eta desartikulatuago zegoen hizkuntza komunitateak, bestalde, ez zeukan berezko politika kulturala garatzeko baliabide politiko egokirik. Beraz, euskarazko kultura esparrua berandu eratzen hasi zen eta eraketa hori baldintza kultural eta soziopolitiko kaltegarrietan garatu zen. Alde batetik, euskarazko kultura esparruaren osaketa Tradizioarekiko haustura gisa burutu zen –gizarte tradizionala, tradizio politikoa eta tradizio kulturalaren berrirakurketa zeuden nahasirik prozesu berean–. Hartara, haustura hori, aldaketa sozial orokorragoen barnean egin zen. Bestetik, fase asko izan zituen, eta ez zen kontraesanik gabe gauzatu. Pizkunde garaian Euskal Herrian ordena tradizionala astindu zuen krisialdi sozio-politiko sakonak jarri zuen kultura esparru horren lehen

oinarria. Hortik aurrera euskal kulturgileak baliotsuak ziren baliabide kognitiboak metatzen eta euskarazko kultura modernizatzeko ahalegi-
nak egiten hasi ziren. Euskal Herriak bizi izandako gorabehera his-
torikoek, baina, zaildu eta oztopatu egin zuten behin eta berriro saio
hori. Haatik, kulturaren barnetik ere, hizkuntza idatzia kultura hiz-
kuntza modura hedatzeko erresistentzia politiko eta kultural handiak
gañditu behar izan ziren Euskal Herriko elite politiko eta kultur-
dunen artean. Honela laburbiltzen ditu elkarrizketatuak prozesu horren
faseetako batzuk.

“Eta gero XIX. mendea sortzen denean beste fase historiko berri
bat ematen da, eta orduan sortzen da nolabait euskal kultura salba-
tu nahia, aurreratu nahia, nola ja gizarte zaharra ere amilduz doan,
neurri horretan euskal kultura ere, jakina, gizarte zaharrari atxikirik
dagoen euskal kultura zahar hori ere, gizartearekin batera behera joa-
ten hasten da (...) XIX. mendean bereziki sortzen den kultur mugimendu
hori, deitu ezazu Pizkundea edo nahi duzuna, hor ematen da
bigarren kulturizazio maila. Hori, seinalea bera ja, salbatu nahi da
euskal kultura bere osotasunean eta horren barnean hizkuntza ere
bai (...) Bitan banatu ditzakegu autore horiek, euskaltzale handiak
eta horiek danak ari dira euskara salbatu nahirik baina gehien bat
ematen erdaraz (...). Eta, nere ustez, hirugarren fase bat bai ematen
da, baina hori sektore batean da, eta sortzen da euskal nazionalismo
historikoaren barruan sektore hori, nolabait ematen dena ja euskara
kulturbide bezala, kultur tresna egiazkoa. Eta apostu historiko hori
egiten da (...) eskola jesuitikoan Zaitegirekin batera eta Olabi-
derekin (...). [Euskara] literaturatik harago behar da, hau da, inte-
lektualek bere hizkuntzan sortu behar dute beren kultura, herri
horrek ezagutu dezan bere burua eta garatu bere nortasuna. Bere hiz-
kuntzan. Baina maila guztietan. Hortaz, nik uste dut gerra aurrean
ematen da fase hori (...) Gutxiengoa den sektore bat da PNV barru-
koa, ez oro, gutxi dira, baina sektore horrek egiten du apostua. Eta
egiten du erbestean, baina klaro (...) esan beharra dago porrota era-
batekoa izan zuela, zeren erreibindikazio horrek, intelektual horiek,
hemen ari naiz zuzendaritza mailan PNVn eta, ez zuten behar adi-
nako laguntzarik izan, hasteko ekonomikorik, eta Agirre zena hil
zenean ezereztu zen eta horri ematen zion egitura guztia jarri zuten
hankaz gora. Eta orduan hasten da beste historia bat” (7. elkarrizketa).

Esparrua osatzeko azken fasea, benetako modernizazio unea,
euskarazko kulturaren eta unibertsitatearen arteko lotura ezarri zenean
agertu zen. Orduan ekin zitzaion azken eraikuntza prozesuari.

“Laugarren fase historiko bat ematen da, eta da nolabait bidea hasia zen jadanik UEUrekin 1973an (...) orduan euskal intelektualei ja eman behar zaie esparru bat kolektiboa, (...) eta Jakinekin... Hor pentsatzen da ja euskal intelektualen lotura unibertsitarioaren proiektuan, katalanen unibertsitatea ikusi, eta hor sortzen da udakoa. Eta hori beste salto kualitatibo ikaragarria da (...) Orduan badago ja euskal unibertsitatearen irudia egina (...) ja da euskalduna (...) euskal pentsamendua garatuko da mundu zabaleko kulturekin batera, baina hemendik eta honakoari begira” (7. elkarrizketa).

Dena den, esparruaren osaketa ezin da erabatekoa izan botere politikorik ezean. Nahiz eta ezagutza unibertsalaren sortzaile eta transmititzaile den, unibertsitateak kultura zehatzaren bidez betetzen du bere eginkizuna. Zehazkiago esanda, estatuak ofizialdutako kultura eta hizkuntza nagusiak baliatzen ditu unibertsaltasunaren izenean. Ildo horretatik, elkarrizketatuaren ustetan, botere autonomikoak estatua- ren delegazioz ezarri duen elebitasuna oztipoa da euskarazko kultura esparrua garatzeko eta, ondorioz, esparru intelektuala osatzeko. Izan ere, botere harremanen logikan sistema elebidunak bigarren mailako estatusa eman dio euskarari gizarte esparruan eta, hartara, unibertsitate sisteman ere. Alabaina, elebitasunaren muga objektiboak azpimarratu arren, onartzen ditu azken urteotan sare akademikoaren eraketan egin diren urratsak.

“UEU indar sinbolikoa da gehiago, eta gero plasmazio erreala izan da Euskal Herriko Unibertsitate elebiduna (EHU). Nola gizarte euskalduna erabakia dagoen elebiduna izatea, klaro, orduan daukagu kontraesan intrintsekoa zeinaren arabera hori zabaldu beharrean, hezkuntza izaten da elebiduna ez elebarketako. Hau da, estadia ez da inoiz izan elebidun (...) Eta gure drama hori da. (...) Nere hipotesia da (...) ezin dela egin irakurketa kultural bat ez bada botereari buruzko teoria egiten. Eta alde horretatik ni boteretik abiatzen naiz eta boterea irakurtzeko garrantzi handia ematen diot Max Weberri, berak (...) nola deskribatzen duen estadia, eta bortxazko erabilera (...) Deskripzio horrek hala funtzionatzen du, eta horren baitan nik irakurtzen dut garapen kultural baten eboluzio bat historian zehar. Orduan, baldintzatu niretzat asko baldintzatzen du politikak. (...) Guk eskuartearen daukaguna da botere autonomiko bat, zeina baitago koexistentzian botere zentralarekin. Eta alde horretatik baldintza ez da erabatekoa ehuneko ehun, baina baldintza handi bat da. Orduan, horren ondorioak dira kontraesankorrak. Alegia, zalantzarik ez da azken 25 urte hauetan emaitza positiboak eman

direla, euskaraz inoiz eman ez diren pausoak eman direla, ez bakarrik kuantitatiboki, kualitatiboki ere, sortu delako sare akademiko bat, sortu delako interesa eta corpus on bat. Zalantzarik gabe euskal unibertsitatean badaudela irakasleak, idazleak eta guzti hortaz pentsatzen dutenak. Eta guzti hori ez dago konparatzerik duela 30 urteko egoerarekin, aurerapauso ikaragarri bat da. Orduan hemen hasi behar gara hizketan ez ja bakarrik literaturak aurrera egin duela eta zera hori, ez, orain parean eta proportzioan askoz gehiago garatu da nere ustez, hainbeste garatu da corpus akademikoa eta aditu zientifikoa. Baina, muga ikaragarriak ditu eta horiek bai dira proportzioan elebitasuna, hau da, euskara elebitasunaren eredu barru honetan euskararen erabilera askoz ere txikiagoa da erderaren konparazioz (...) Alde horretatik baldintzak badaude (...) Baina, zalantzarik gabe, bidea hori da, geroz eta gehiago egiten da, esparruak hartzea eta lortzea momentu honetan euskal intelektualek euskal kultura sortu, euskal pentsamendua garatu, gero eta esparru zabalagoak hartzea. Bideetan egon daitezke desberdintasunak, aukera txarragoak eta besteak asmatuagoak, baina nik uste dut hortik dihoala. Baina jadanik eman diren pausoak handiak dira. Kapaz gara gure tesiak eta hola-koak euskaraz egiteko eta kapaz gara edozein alorretan euskaraz pentsatzeko” (7. elkarrizketa).

Elkarrizketetan euskarazko kulturari buruz behin eta berriro aipatzen diren bi alderdi daude: batetik orain dela gutxiko iraganetik hona emandako aurrerapausoak, eskuratutako lorpenak eta burutu-tako aldaketak; eta, bestetik, euskal kultura esparruan, esparru “normala” izan dadin, falta diren osagaiak, esparruan ageri diren hutsu-neak, oraindik gaur egun betetzeke dauden erronkak. Hala, aurreko elkarrizketan mundu akademikoan emandako pausoak nabarmendu badira ere, hurrengoan ezohikotzat jotzen da euskarazko kultura esparruaren eta, ondorioz, euskal kulturagileen zereginaren nolakotasuna. Modu adierazgarrian, euskal kulturaren ezohikotasunaren kontrapuntua irudikatzeke harekin kontaktuan dagoen espainiar kulturaren “normaltasuna” erabiltzen da. Beraz, biak alderatzen dira harremanezko ikuspegian, harreman objektiboen bitartez elkarloturik baitaude. Auzi horrek harremanetan dauden kultura esparruen gogoetara garamatza.

Izan ere, esparru kontzeptuaren bidez behatu dugun harremanezko ikuspegia baliagarri egiten zaigu kultura baten barneko harremanak ez ezik kulturen artekoak ere aztertzeke. Halatan, ikusi dugunez, esparru bat kokapenen arteko harreman objektiboez osatu-

tako sare edo konfigurazioa da¹⁵². Eragile eta instituzioen kokapen horiek zenbait botere motaren –edo kapitalen– banaketa asimetrikoak eragindakoak izaten dira. Gerta liteke banaketa asimetrikoak eta mendekotasun harremanak gizarte berean ukipen egoeran dauden hizkuntza/kulturen artean ere gauzatzea, eta ez soilik kultura bakoitzaren barnean: batzuetan, hizkuntza kapitala –zeharka, kapital politikoari lotuta dagoen kapital kultural mota bat– kultura esparru desberdinen arteko harreman objektiboak neurtzeko baliabide esanguratsu bilakatzen da. Horrela, A hizkuntza eroale duen kulturari kapital legitimoaren ikurra egozten dion irizpide bereizgarria, B hizkuntzaren kulturari kapital ez legitimoarena egozten dion irizpidea izan ohi da behin baino gehiagotan. Hizkuntza baliabide horiek eraginkortasunez jarduten dute bereizirik dauden –baina, aldi berean, menderatzailearen eta menderatuaren harremanez loturik– gizarte bereko kultura esparruetan. Ondorioz, definizio horien arabera neurtzen dira bi hizkuntzetan egindako adierazpen kultural guztiak eta bi kulturetako kulturgileen lanak ere. Horrela, baliabideen –alegia, hizkuntzen– zilegitasunaren arabera eraikitzen dira kulturgileen hierarkiak eta ezartzen dira kultura lanen balorazioak. Bestalde, mendeko esparruetan dauden baliabideak, “balio edo zilegitasun gutxikoak” izateaz gain, urriak ere izan ohi dira. Horrenbestez, euskarazko kultura esparruan gertatzen den bezala, kulturaren birsorkuntza eta ohiko garapena oztopatzen duten oinarri oinarritzko instituzioen gabezia atzematen da esparruetan –elkarrizketatuak ezohiko egoera gisa ezauzgarritu duen abagunea dugu hori–. Prozesu historiko baten emaitza izan den azpiinstituzionalizazioaren ondorioz, kulturgileak, ohiko betekizunez arduratzeaz gain, behartuta egoten dira “ezohiko zereginetara” ere aurre egitera.

“Batzuk daukate egoera natural bat eta besteek daukate egoera extraordinario bat. Eta ez da berdina... (...) Ba egoera extraordinarioa dagoelako alde batetik, gure egoera..., egoera normaldu batean ez dagoelako (...) Orduan, egoera normala ez izanda, eginkizunak dire ez bakarrik ordinararioak baizik ezordinarioak ere bai, orduan ez da berdina. Hemen kultura espainola, edo eginkizun espainola, edo egin nahi dutenentzako gauzak dire askoz errezago, ba Zamoran edo Jaenen gertatuko liren modukoak, pixka bat nekezago ere bai agian. Baina askoz ere errezago eta normalago eta egoera ordinarario batean egin daitezkeenak, baina euskerarekiko, eta euskal kulturarekiko, eta euskal politikarekiko, eta... (...) ba gauzak dire

askoz ere nekezagoak. Nekezagoak egoerak normalak ez direlako. Orduan daude ordinarioak egin behar da gehi extraordinarioak. Orduan da..., beti pulso bat dago esfortzuan, eginbeharrekoan eta abar” (1. elkarrizketa).

Elkarrizketatuen ustetan, beraz, ezohikoak dira euskarazko kultura esparruaren egoera eta euskal kulturgilearen betekizunak. Hurrengo elkarrizketatuaren aburuz, euskal kulturgileak eta erdal kulturgileak bereizten dituzten ezaugarriak euskal hizkuntza komunitatearen tamaina eta hark pairatzen duen konfrontazio politikoa dira, hurrenez hurren. Ezaugarri kuantitatiboa izanik, lehenengo bereizgarriak ez luke, itxuraz, eraginik izan behar kulturgileak bere komunitatearekin dauzkan harremanetan. Halaz ere, elkarrizketatuak onartzen du tamainak mugatu egiten dituela kulturgileak lor ditzakeen merkatu baliabideak eta, ondorioz, eragina daukala aintzatespen sozialean eta estatusetan. Bestalde, Aro Modernoan zehar mugimendu etnonazionalistek uztartu egin dituzte jatorrizko hizkuntzaren berreskurapena eta nazio komunitatearen botere politikoaren aldarrikapena. Euskal Herrian ere, gatazka politikoak bete-betean harrapatu ditu euskal kulturgileak. Esparru politikoak eta euskarazko kultura esparruak luzaroan izan duten lotura zuzenak, eta kultura kutsatu duen gatazka politikoak eragozpenak jarri dizkiote behin baino gehiagotan kulturgileek amestu duten autonomiari.

“Nik uste det, batetik, bereiztu behar dela asko hizkuntza komunitate honen tamaina, eta nik uste det asko mugatu behar duela, ez? (...) Komunitate txikia gara eta, orduan, komunitate horrek igual ez ditu onartzen lujo batzuk. Bai autore moduan bizi ahal izateko... eta orduan, zentzu hortan, ba gazteleraren komunitatean nik erderaz zerbait egiten baldin badut, eta ona baldin bada, potentzialki izan daiteke... bere merkatuan miloi asko ditu, ezta? Eta euskaraz, berriz, ni zor natsaio hizkuntza komunitate txiki bati, eta zentzu horretan, ba uste det horrek bere mugak dituela, eta momentu batetik aurrera ez duela ematen ez dakit zenbat musika talde bizitzeko, ez dakit zenbat edo ez dakit zein estatus ekonomiko eta sozial lortzeko, ez? Nik uste det hori ez dala negatiboa, hori uste det ona dala, bueno, behintzat guk hola bizi izan degu eta ona da. Eta, gero, aparte, gure hitzun komunitatea da..., politikoki oso konbultsionatutako herri baten bizi gara, ez? Eta konbultsio horrek ekartzen ditu, baita ere, konfrontazioan dauden diskurtso asko daudela, kulturgileak, nolabait, askotan ezin diola horri ihes egin eta ez diola egin behar eta, ba

bueno, ba behar bada ez dauka erdal sortzaile batek eduki dezakeen distantzia, patxada, ezta ere posibilidade ekonomikoak. En fin, bueno, baldintzak ezberdinak dira” (2. elkarrizketa).

Normaltasun ezak badauka kultura esparruaren azpigeruza sozialarekin lotuta dagoen dimentsio oso garrantzitsua. Izan ere, kultura esparru bat ezohiko egoeran dagoela esaten ari garenean onartzen ari gara kultura eta hizkuntza ez ezik gizartea bera ere aparteko baldintzetan bizi dela birsorkuntza sozialari dagokionez. Ondorengo elkarrizketan adierazten zaigunez, euskarazko hizkuntza komunitatea bera eratu gabe dago. Bada, horretarako ezinbestekoak diren oinarritzko baliabideak –hizkuntza estandarra, instituzio kulturalak, eguneroko hedabide idatziak– sortu berriak dira edo sortzen ari dira oraindino. Aldiz, erdarazko kultura esparrua tradizio luzekoa dela eta baliabide ugari dituela gogorarazten zaigu, besteak beste, instituzio kultural sendoak eta legitimoak –hau da, inork zalantzatzen jartzen ez dituenak–. Ezberdintasun horiek erakusten digute, berriz ere, zenbaterainokoa den bi esparruen arteko aldea. Bestalde, hizkuntza hegemonikoaren inguruan sortutako diskurtsoak unibertsaltasunaren ikur gisa aurkezten du hura mendeko hizkuntzak bere birsorkuntzarako baliabideak garatu nahi dituenean –“euskal kulturgileen komunitatean, berriz, baliabideren batzuk sortzen direnean, beti estigma batekin sortzen dira, ezta? Propio komunitate horrentzat sortuak direlakoan eta kutsu diskriminatzailea eta...” (8. elkarrizketa)–. Ikusten dugunez, ukipen egoeretan, hizkuntzek –hizkuntza komunitateek– baliabide bereizgarriekin jarduten dute bai gizartean bai kultura esparruan. Hartara, hizkuntzak eurak kapital bereizgarri dira bai hiztunentzat gizarte bizitzan –hizketakide arrunt gisa dihardutenean eguneroko bizimoduan– bai kulturgileentzat kultura esparruan. Azken horien kultura lanak, eta, ondorioz esparruan daukaten kokapena eta aintzatespen soziala, besteak beste, erabilitako hizkuntzaren arabera epaitzen dira.

“Orokorrean hor dago arazo bat: hizkuntza bera erreminta bezala. Normalean kulturgileak beti komunitate baten barruan izaten dira, hau da, sortzaile egiten dira komunitate barruan. Eta euskararen hizkuntza komunitatea bada? Nire iritziz oraindino eratu gabe dago. Orduan, aitzindariak esaten da, ezta? Euskararen eta gure autoritateak aipatu izan dira garai batean, izen-abizen propioak daude. Belaunaldi berruz oso gutxi aipatu izan da euskal kultur-gintzan. Aroak bereiztu izan dira, eta garaiak eta hori, baina belaunaldiak eta integrazioa eta harremanak, hori oso gutxi, zeren gutxi

izan dira. Eta hizkuntza funtsezko tresna da sormenerako. (...) Euskara batuaren sorrera oso mantsoa da, nik uste orain ari direla belaunaldi berriekin holako gauzak agertzen, trukea sortzen ari da aspaldiko partez, harremanak, pentsamolde desberdinak belaunaldi desberdinetakoan artean. Horiek dira sortze lanak aberastu egiten dituenak, nolabaiteko oinarri bat behar izaten da. Hori ez dago. Beraz, ez dut uste erdal kulturgilea eta euskal kulturgilea pareko egoeretan daudenik. Eta gero beste kontu bat da baliabideak. Horretan ere ez. Erdal kulturgileen komunitatea tradizio luzeko komunitatea da, beraz, egituratua. Jaso egiten dituenak... inplizitua da gizartean errotutako komunitate bat da berez. Niri sortzen zait hor Instituto Cervantes edo La Real Academia de la Lengua Española edo..., beti zeharbidez hainbat gauza jaso egiten dituzte berez. Eta euskal kulturgileen komunitatean, berriz, baliabideren batzuk sortzen direnean beti estigma batekin sortzen dira, ezta? Propio komunitate horrentzat sortuak direlakoan eta kutsu diskriminatzailea eta... Baina, bizirauteko, izaten hasteko, eta bizirauteko tresna dira, eta gero naturaltasunez Egunkaria sortu izan zenean izan den eztabida garai horietan eta, gerora, orain Berriarekin, bere lekua hartzen doanean, hasten da normaltasuez ikusten. Euskararen hizkuntza komunitateak hedabide idatzia izatea, eguneroko hedabide idatzia izatea normaltasunez hartzen den momentutik, gauzak aldatu egiten dira. Baina argi dago hori lortzeko ordaina garestia ordaindu behar izan dela. Eta fase horretan gaude. Momentu jakin batean hedatu egiten denean eta bizi [hizkuntza komunitatea], sortu eta birsortzea lortzen denean, ba antzeko egoera batera joango gara. Bien bitartean ba... Gero, badago tamaina. Bizirauteko 600.000 pertsonak osatzen duten hizkuntza komunitate bat edo ez dakit zenbat milioitako pertsona eta aniztasun oso zabal batean bizi direnak, haien elkarren artean beti aukerak eta desberdinak izango dira (...) Orduan, askotan lehia txikiagoa bada ere, gordinagoa da eta zorrotzagoa, zeren apur-apurrengatik borrokatu behar da. Eta, berriz, handian ez dira apurrak, gauza handiak daude eta leku gehiago dago. Orduan, eskalatze bat egiten baldin badugu, beti esaten da, ezta? euskal literatura literatura txarra dela. Bueno! Nik ez nuke esango ona denik, orokorrean, bere osotasunean, baina klaro, erdal literaturan ere txar asko dago, normala denez. Oso zabala da eta denetarik izaten da. Eta behar bada hori da hemen Euskal Herrian ez dagoena, denetarik. Hemen maila jakin batetik aurrera plazaratu ahal izateko, maila jakin batetik gorakoak. Orduan hemen oso txarra, bere txikitasunean, oso txarra ez dago izaterik. Txikitasunak ez du biderik ematen oso txarra izateko. Baina, erdal kulturgileen artean badago

lekua. Hemen oso ona izanda, oso ona dena, txikia geratzen zaio. Adibiderik ez dut jarriko, guztiok ezagutzen dugu. Oso onak diren horientzat txikitasunak itolarria sortzen du. Orduan, mugitzen gara oso espektro murriztago batean” (8. elkarrizketa).

Hainbat elkarrizketetan mintzatu izan zaizkigu kulturgileak hizkuntza komunitatearen tamaina txikiaz eta euskararen egoera minorizatuaren ondorioez. Bi kontzeptuek ukipen egoeretan hartzen dute euren esanahi osoa. Tamainak, lehenago azaldu dugun bezala, badauka kulturaren merkatu potentziala –irakurleria, entzuleria, publikoa, oro har– zeharo murrizten duen alderdi kuantitatibo bat. Txikitasuna, halaz ere, konparazioz definitzen da. Minorizazioak, aldiz, bigarren adiera bat –kualitatiboa– agertzen du. Izan ere, Sánchez Carriónék azaltzen duen ildotik, gehiengo/gutxiengo erlazioak alderdi kuantitatibo bat erakusten digun bitartean (demografikoa), minorizazioak alderdi kualitatiboa edo funtzionala hartzen du tartean¹⁵³. Hala, ukipen egoeran, hizkuntza batek galdutako funtzio sozialak beste batek eskuratzen ditu beretzat. Ohikoa izaten da, galdutako –edo desjabetutako– funtzio horien artean, goi-mailako kultura sorkuntzari lotutakoak egotea. Beraz, kultura eta hizkuntza gutxituek ez dute kulturgingintza esparru garatua izaten, ezta kulturgile multzo garrantzitsua ere. Aitzitik, hizkuntza gutxituetan diharduten kulturgileek balio gutxiago daukan kapital batekin jokatzeko dute eta, oro har, aintzatespen eskasa jasotzen dute gizartean –“euskaraz diharduenak eta gazte-leraz diharduenak ez dauka estatus bera” (4. elkarrizketa)–.

Horiek horrela, hizkuntzen arteko ukipen egoeretan, inplizituki edo esplizituki, modu kontzientean edo inkontzientean, mendeko kulturgileek hizkuntza aukera batzuk egiten dituzte beraien kultura ibilbidean. Batzuetan, egindako aukera horiek oharkabea edo “naturaltasunez” bizi izaten dira, habitusak, hau da, sozializazioaren bidez barneraturiko disposizio inkontzienteak eta gizarte eskakizunak bat datozelako. Beste batzuetan, barneratutako habitusak eta eskakizunak modu gatazkatsuagoan hautematen direnean, hautuak kontzienteagoak izan ohi dira. Nolanahi ere, ukipen egoeretan, hizkuntzaren hautaketak, –sorkuntza lanetan, argitalpenetan, ikerketetan– kulturgilearen estrategia baldintzatzen du, bai kultura esparruan izango duen kokapenari dagokionez, bai gizartean izango duenari dagokionez.

“Hor badago minori izatearen eta minorizatua izatearen ondorioa, hau da, prozesu baten ondorioa, urteetako prozesu baten ondo-

ria, eta gutxiago izatearen ondorioa. Eta baliabideak inondik ere ez dira berberak (...) Baliabideak edukitzea eskura, ba nolabait euskaraz egiten dituzten baliabideak, maila guztietakoak, bibliografikoak zein teknikoak, zein bestelakoak. Bestea da estatusa. Ez dauka estatus berbera hizkuntza batean zein bestean diharduen intelektualak. Euskaraz diharduenak eta gazteleraz diharduenak ez dauka estatus bera. Prestigio mailan eta errekonozimenduan eta abar. Gauza bera, gazteleraz ari denak edo ingelesez ari denak ez dauka prestigio bera. Gero norberak bilatuko du ere zer prestigio maila edo nolabait hor non kokatu nahi duen bere burua. Estatus maila batera iritsi nahi duenak, ingelesez dauka atera beharra, publikatu beharra, eta gauza hoiek denak, en fin, hor kokatu beharra bere burua. Eta halako tokietara joan beharra, halako unibertsitateetara... Euskaraz diharduenak ez dauka hori. Oso mugatua da hizkuntzaren estatusa. Gero kontua da berak zer nahi duen, zer bilatzen duen. Horren arabera. Bai, ba beno, garbi dago tokian tokiko jardun intelektualak, tokian tokiko sustapena, lana eta egiteko, jardun intelektualak ere lotuta egon behar du tokian tokiko ezaugarrietara. Beste tema bat da gero erabiltzea beste hizkuntzak nolabait gehigarriren bat jasotzeko, jasotzeko hor dauden beste aportazio teoriko praktikoak eta zeurea zabaltzeko, zeure aportazioak egiteko (...) Euskal intelektualak seguraski bai hautu bat egiten du. Joxe Azurmendik (...) bere aportazioa euskaraz egin du eta aportazio mundiala dena eta nire ustez oso-oso goi mailakoa izanik, berak egiten duen hautu horretan ba euskaraz egiten du (...) Zeri begira ari da lanean Joxe Azurmendi bat, Odriozola bat edo Etxenike bat? Etxenikek egiten duen aportazioa izanik ere euskal kulturari begira, berak egiten duen lana ba seguraski lan hori ingelesez egin beharko du, hein handi batean, ez seguru asko egunero hemen egiten ari direna, baina nolabait produktu aplikatuekin egiten dituzten produktuak edo ingelesez egiten ari dira. Hautu bat dago hor? (...) Seguraski behartuta egongo da bera, esan nahi dut bere arloaren ezaugarriengatik eta egin beharko du seguraski (...) Gero egiten ditu artikuluak, gazteleraz, euskaraz. Baina, behartuta dago. Azurmendi batek egiten duen aportazioa? Hor igual badago bai marjen handiagoa esateko... Gero hautaketa horiek? Ba ez dakit. Gero ja beste maila batean sartzen gara; norberaren izate eta tradizioarekin eta nondik datorren eta horrekin guztiarekin ere lotuta dago. Joxe Azurmendi nondik dator, ni nondik nator? Es ke hemendik nator (...) Ba nolabait naturaltasunez bezala esatea, ba hala egiten dut ez da ere holako bidegurutze bat, zer egin behar dut, hau ala bestea, euskaraz ala erderaz, ez? Izan leike, baten batek igual eduki du eta pentsatu du baina pentsatzen dut hemen gehientsuenek,

egonik ere hautuaren zera, normaltasun batekin erantzun duela (...) Edozein idazlek behar dituen zabalkundeak eta sosak, noski, ze bizi behar du. Beraz, nik uste dut hor badaudela hiru elementu horiek: naturaltasunarena, eta hala behar du eta hemen ari naiz eta honi erantzun nahi diot, eta nire historia eta nire izatea eta hori guztia. Badago hautuaren marjen bat. Eta gero, beste aldetik ere, segun eta nola eta zein arlotan eta abar, behartuta ere, beren bideak ere eginak daude. Orduan hor kokatu behar da” (4. elkarrizketa).

Txikitasunak badauzka abantailak kulturgilearen zereginetarako. Izan ere, tamaina txikiko hizkuntza komunitatean kulturgileak taldearen barnean eragina sortzeko aukera handiagoak izan ditzake. Haatik, esan dugunez, euskaraz sortutako kultura, kultura txikia izateaz gain, kultura gutxitua dugu; bizikidetzat asimetrikoan dago gizarte bereko erdal kulturekin. Euskal kulturgileentzat minorizazioak dauzkan ondorioetako batzuk aipatzen dira ondorengo elkarrizketan: hizkuntzen arteko ukipen egoeran, erdarazko kultura esparruan ez dago euskal kulturgileen –zehazki, idazle nagusien– berririk. Aitzitik, erdal kulturgile nagusiak ezagunak dira euskaldunen artean. Euskal kulturgileen ikusezintasuna ustezko “gizarte elebidunean”, euskaraz egindako kulturaren estatusaren adierazle bilakatzen da, hartara.

“Gu kultura minoritario baten partaide gara, hizkuntza minoritario baten partaide gara, eta minoritarioa eta minorizatuak garen neurrian ere gaingitu behar degun mugak dira era guztietakoak. Baditu bere abantailak, ta abantailak ditu momentu batzuetan gure komunitatean eragiteko aukerak ere, behar bada, gehiago, handiagoak direla hemen, ez? Baina oro har ikusita, ikusi besterik ez dago oso progresista [diren]... kulturgile erdaldunen artean ez dago euskal kulturgileen berri, eta euskarazko kulturgileen artean ez da alderantziz gertatzen, horrek ematen du neurria. Gu ez gara existitzen erdal kulturgile gehienentzat. (...) Gure komunitatearen barne konsumorako ekoizpenaren neurrian ez du baldintzatzen euskerak, baina, behar bada bai daukagu mugak gure komunitatetik kanpora pasatzeko, ez? Esate baterako, nik uste det egon direla kasu batzuk oso nabarmenak, eta bat aipatuko nuke: Hasier Etxeberriaren gure bost idazle nagusietakoei buruz egindako euskarazko liburuak izan zuen oihartzuna eta arrakasta eta, gero, horren itzulpenak zer oihartzun gutxi eta espezialki erdal giroetan, ez? (...) Hor muga bat daukagu” (6. Elkarrizketa).

Txikitasunak muga batzuk jartzen baldin badizkio intelektualek euren eragin lanerako berez behar duten zabalkundeari, hizkuntza minorizazioak areagotu egiten ditu ondorio horiek. Horren adibide

bat hizkuntzek eskaintzen dituzten komunikazio egitura publikoetan aurkitzen dugu. Nahiz eta gure gizartean komunikazio esparru asko gainezarrira dauden, gaur egun, enpresa mediatiko erraldoiek osatzen dute batik bat esparru publiko nagusia, ofiziala, erdalduna. Are gehiago, modu monopolistikoan kontrolatzen dute interes politiko-ekonomiko handien mendeko enpresa horiek komunikazio esparrurako sarbidea. Esparru hegemoniko horren ondoan, euskarazko komunikazio esparrua sortzen ari da apurka-apurka, eguneroko prentsa idatziaren bultzadarekin eta telebistarekin. Halaz ere, oraindino ahula da oso. Baina, nagusi den esparru publikoan, hau da, erdarazko komunikabideek osatzen duten komunikazio esparruan, euskarazko kulturak eta kulturgileek izan duten trataera oso marjinala izan da. Euskal kulturari buruz erabilitako estrategia politiko-kulturala argia izan da. Batetik, euskarazko kultura adierazpenei buruzko isiltasuna eta axolagabetasuna izan dira nagusi, baita euskal kulturgileen bazterreko presentzia ere. Bestetik, kulturgile bakan batzuen kontsakrazio bereizgarria bermatu da. Baina, erdal esparru kulturean legitimatutako kulturgile horiek salbuespen modura agertu dira. Haatik, eurok metatutako kapital sinbolikoa euskal esparruaren garapenerako –bereziki, literatura eta halako zenbait azpiesparruren autonomiarako¹⁵⁴– baliabide indartsu bilakatu da zenbait kasutan, hainbestearainokoa da kultura nagusiaren instituzioen legitimazio ahalmena.

“Joxe Azurmendi bat ez dute ateratzen Diario Vasco kuaderniloak egiten. Sekula ez. Beste batzuk aterako diuzte kuaderniloak egiten, eurok aspertzera. Atxaga bat izan daiteke, igual berak nahi duena baino gehiago (...) Baina hari galdetu egiten diote eta Joxeri ez diote ezer galdetu ere egiten. Orduan nik uste dut eraldatzeko pentsamendua den neurrian horri, behintzat peligroso direnei, ezizusiarena egiten zaiela (...) Batzuk askoz ere zabalkunde handiagoa daukate. Badakigu zer monopolio eta zer zera ari diren bihurtzen. Hor, beno, aldian behin ere ezingo dituzte beti berdinak erabili. Orduan, hori ere elikatu egin beharko dituzte. Baina beti azoka berezik elikatuko dituzte” (10. elkarrizketa).

Komunikazio esparru nagusian euskal kulturgileei ezarritako ikusezintasun publikoak kontsakrazio bide garrantzitsu bat itxi dizkie euskaraz aritu diren kultura eragileei, euren lanak zabaltzeko eta aintzatespen soziala lortzeko. Minorizazioak, halaz ere, bestelako murriztapenak ere ezarri dizkie kulturgileen kontsakrazio ahalmenei. Izan ere, euskarazko kultura esparruaren azpiinstituzionalizazioak, zehaz-

kiago, oraintsu arte unibertsitaterik eduki ez izanak, baldintzatu egin du kulturgileen prestakuntza prozesua. Halatan, bai sozializazio prozesua, bai ondorengo rolaren eraikuntza eta kontsakrazioa, akademiatik kanpo egin da hainbat eta hainbat alditan –batez ere azken belau-naldietakoak ez diren kulturgileen kasuetan–. Beraz, kultura nagusi-etan ohikoak diren kultura-instituzio legitimoetan eraiki ordeztu, eliza katolikoaren instituzioetan, esparru politikoaren erakundeetan, gizarte mugimenduek sortutako kultura erakundeetan eta beste gune sozial batzuetan eraiki dituzte beraien rolak eta nortasunak belaualdi zaharretako euskal kulturgile askok.

“Askotan intelektualak lotzen dira akademiko munduan dagoen jendearekin, baina bai daude (...) akademitikan kanpo zenbait intelektuala daudena gutxienez gurea bezalako egoerako herrietan. Gure kasuan badaude zenbat intelektuala akademitikan kanpo daudenak eta askotan akademian bertan daudenak baino gauza interesanteagoak esaten dituztenak gure egoerako errealitatea esplikatzeko” (1. elkarrizketa).

Ikusten ari garenez, euskararen minorizazioak bi motatako ondorioak izan ditu: batzuk kultura esparruaren eraketan gauzatu direnak, beste batzuk kulturgileen eraketan eragina izan dutenak. Batetik, minorizazioak eragindako baliabide urritasunak euskalgintzako esparrua eratzeko modua baldintzatu du. Dударik gabe, instituzio politikoaren gabeziak eta haien ekimen ezak ordainetan ekarri du herri ekimenaren sustapena. Horrenbestez, elkarrizketan azaltzen den bezala, baliabide ezak eta premiak zabaldu egin ditu, besteak beste, sorkuntzarako eta egintzarako bideak.

“Bat batean iruditzen zait bi zentzutan behintzat baldintza deza-keela. Bata minorizatuta dagoen gauza bat, hizkuntzarena kasu, dan heinean, normalean baliabide gutxiago... denetik gutxiago izaten da eta, alde horretatik, zailtasun bat, zailtasun gehitu bat da, eta, alde horretatik esaten zaiguna baliabideetan gutxiago da, ezta? Beste hizkuntza batzuekin edo kultura normalizatuago batzuekin konparatzen denean. Faktore hori, uste det, baiezta daitekeela. Beste bat izango litzake hau, baita ere datu intuitiboa da, baina positiboa izango litzake: iruditzen zait, beste gauza askokin bezala, beharrak suspertu egiten duela, ez? Superbiblezia instintoa ateratzen zaigula eta, superbiblezia instinto hori, ba janaria bilatzekoa bezala, hizkuntza bat zuretzako, ez zerbait osagarria baizik eta, ia-ia, existentziala baldin bada, ba..., horrek areagotu egiten duela, bai sozialki eta bai

pertsona konkretu batzuetan ba gai edo arazo, edo horrekiko pentsatzera, sortzera eta irtenbide edo lanketa bat egitera, ez? Ordun, kasu horretan, baliabide gutxiago izan daiteke eta posiblea da, baina ba egoera horrek, batzutan zirikatu egiten du eta suspertu egiten du lan hori. Hori iruditzen zait” (5. Elkarrizketa).

Bestetik, minorizazioak, euskal kulturgilearen rola erakuntza baldintzatu du. Jakina denez, kulturgileek ez dute euren rola senetz betetzen. Aitzitik, kultura eragileek gizartearen, alegia, testuinguru historiko eta instituzional jakinetan, garatzen dituzte beraien rolak eta nortasunak. Hain zuzen ere, aipatu instituzio historikoekin sortutako elkarrekintzan ematen diote esanahia beraien eginkizunari, zeinahi dela normatiboki definitutako eginbearra. Orain arte adierazi diren euskal kultura esparruaren ezaugarriek –euskarazko hizkuntza komunitatearen tamaina eta egituraketa eskasa, euskarazko kultura baliabideen urritasuna, esparruaren azpiinstituzionalizazioa eta lan intelektualaren zabalkunderako mugak– ez bairik gabe, euskal kulturgilearen egintzarako marko objektibo bat eratu dute eta hala hauteman dute kulturgileek beraien. Euskalgintzako kulturgileari bere eginkizunean marko horrek ezarri dizkion baldintzapenek bere zeregina lan profesional modura ez ezik militantziaren eginbear gisa irudikatzen ere bultzatu dute kulturgilea. Halatan, oraindik gaur egun, instituzionalizazio politikoak eta gizarte mugimenduaren ahultzeak militantismoaren gainbehera ekarri duten une honetan, profesionaltasuna eta militantzia uztartzen dituen kultura eragilearen eredu normatiboa da nagusi euskalgintzako kulturgileen ahotan

“Kulturgile profesional batek, eta gure errealidade konkretuan, behar du profesionaltasuna baino, askotan aipatu baldin bada ere militantismoaren garaia bukatu dela eta orain profesionaltasunaren garaia sartu direla, uste det profesionala izan behar duela baino eutsi behar diola militantsimo puntu bati. Nik uste det bere lanean profesionala izan behar duela, lanean profesionala, baina, izpirituz, militantismo bat mantendu beharrean daudela momentu honetan” (6. elkarrizketa).

2.2.3. Euskal kulturgileei esleitutako eginkizuna euskalgintzaren esparru kognitiboaren osaketan

Mendeko kulturetako kulturgileek burututako eginkizunak era askotakoak izaten dira. Halaz ere, aparteko garrantzia izaten dute

hizkuntzaren berreskuratze lanei loturik dauden egintzak, jardungune horien inguruan bildutako baliabide kognitiboek eta sinbolikoek eratzen baitute oraindik guztiz osatu barik dagoen kultura esparruaren nukleoa bera. Bestalde, ezin da gutxietsi jardun horrek kulturgilearentzat daukan interesa. Bada, bazterturiko kulturaren eta hizkuntzaren egoerak erabat nahasten du kulturgilea bera: haren estatusa eta, oro har, kulturgile gisa daukan eginkizuna hizkuntzaren eta kulturaren ibilbideari hertsiki loturik egon ohi dira. Hori dela eta, gutxitutako hizkuntzaren “normalizazioaren” alde egitean, mendeko kulturgileak aldi berean bere estatus intelektualaren normalizazioa eta onespena aldarrikatzen ditu.

Horiek horrela, birsorkuntza sozialerako izan dituen eragozpen sozialen ondorioz, hizkuntza gutxituaren corpus ahuldua eta “pobretua” gaurkotzea eta arautzea izan ohi da mendeko intelektualen lehen-dabiziko zeregina. Ildo horretatik, gizarte modernorako egokitutako euskara estandarra azken hamarkadetan euskal kulturgileen laguntzaz hezurramitu den proiektua izan da, kulturgileek beraiek aitortzen duten bezala.

“[Euskeraren berreskurapenean euskal kulturgileek egindako ekarpena] nik uste det handia dela. Nik uste det handia zeren euskeraren normalizazioan, tradizionalki, bereiztu ohi dire bi alderdi. Bat izango litzateke corpusaren alderdia, hizkuntza bera batu, modernatu, egokitu, gaurkotu, eta... egiten den alderdia. Eta bigarren alderdia izango litzateke euskeraren erabilerarekin, edo funtzionamendurarekin, edo funtzionaltasunarekin lotzen den alderdia. Bietan dago, nik esango nuke, esfortzu handia, ez? Egin dire bietan. Corpusari buruz ba danok dakigu 60. hamarkadan hasi zala bultzada handi bat ematen euskeraren batasuna eta modernotasunaren eta prozesuan. Da prozesu bat Euskaltzaindik lidergoa hartu zuena eta Euskaltzaindiaren baitan gehienbat egin dena. Eta nahiz eta hasieran gehiago orain baino eztabaidak egon, ba badirudi lortu dala nahiko kontsentsu handia Euskaltzaindiaren inguruan Euskaltzaindiak lidergoa izateko euskeraren normalizazioaren prozesuan. Bainan norma batzuk ematea eta gomendio batzuk ematea eta horiek, gero gizartean ez balirateke zabaldu, onartu eta erabili izango, ba ezertako izango litzazteke. Izango litzateke euskerarekin egin ba latinarekin egiten dan moduko zerbait bakarrik. Orduan, hor, nik uste det kulturgingintza izan dala oso garrantzitsua Euskaltzaindian egin diren lanak zabaltzeko, onartzeko, erabiltzeko, sozializatzeke, areagotzeko eta, gainera, nola esango nuke nik? Fama onarekin, ikusmira onare-

kin onartzeko eta bultzatzeko. Eta hor daude hedabideak, adibidez; hedabideak ba ETB, ta irratiak, ta daude idazleak, idatziz hori erabili dutenak; dago hezkuntza sistema, hezkuntzak ere erabili dituelako Euskaltzaindiaren normatibak (...) Orduan nik uste det hor kulturegintza alderdi hortatikan egin dala lan asko, lan bat kontsentsuatua, bide bat ia-ia bakarrik jarraituz eta helburu amankomun batzuk, argiak lortu nahian eta, nik uste det izan dala esfortzu ikaragarri handia (...) Konzienteak izan behar degu ekintza extraordinario bat dala, baina extraordinarioa, nahiz eta hala izan, ari gera jarraitzen. Ni uste det alde hortatikan egiten ari garena eta, gainera, horren belozidade handiarekin, zeren uste det egiten ari gerala oso belozidade handiarekin, suposatzen duen esfortzuarekin, sozializazioarekin, globaltasunarekin, eh?, populazioarekiko, zer belozidadean egiten ari dan, da, soziolinguistikan pixkat eredu gurean gertatzen ari dana, eredu bat; ta gainera soziolinguistika munduan hala hartzen da gainera, o sea ke ez da nik asmatzen detan zerbait, baizikan hala jasota dago” (1. elkarrizketa).

Hizkuntzari buruzko interbentzioaz ari garela, kulturegileek hizkuntzaren corpusa eta estatusa bereizten dute –*corpus planning* eta *status planning* delakoa, hain zuzen ere–. Lehenengoak auzi gramatikalak arautzera garamatza, bigarrenak hizkuntza politikaren auzietara. Alabaina, biak daude harreman estuan. Hizkuntza moderno baten iraupena bie esker baino ez da bermatzen. Euskararen modernizatzeko prozesuari hasiera eman zitzaionean ez zegoen botere politikoaren zaintzarik prozesua zuzentzeko. *Euskaltzaindiaz* gain, euskalgintzaren gizarte mugimenduaren barruan sortutako hainbat erakunde jardun zuten aitzindari gisa euskararen corpusaren modernizazioan. Erakunde horietan luzaroan instituzio akademiko eta politiko ofizialetan euskal kulturari ukatutako babesa aurkitu zuten euskal kulturegileek. Gero, erakunde politiko autonomikoen eraketaren ostean, Hego Euskal herriko bi administrazioen eskuetan geratu zen hizkuntza politiken garapena eta finantzaketa. Kultura politika horiek –bereziki, indar nazionalista baten kudeaketapean egon den Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioak burututako politika– kulturegileen arteko zatiketa iturri izan dira ordutik aurrera. Hala, esparru intelektualaren barruan lerrokadura kulturalak eta politikoak eragin dituzte euskal intelektualeriaren baitan.

“Nik uste dut euskarari dagokionean, corpus eta estatusaren araber berezi behar ditugu (...) Nik uste dut ba aurrerapauso handiak

eman direla azken aldi honetan corpusari dagokionean (...) horregatik nahiko mirestekoa dela nola landu den prosa akademiko hori. Oraindik ikuspenak handiak dira eta oraindik sortzeko pila bat dago eta norbaitek esaten zuen bezala ba oraindikan (***) lustre pareta eman beharko zaio ezta? euskarari. Klaro, ez da erreza prosa akademikoa egitea. Zaila da. Eta orduan, oraindik egiteko handia dago eta hobetu behar da asko, baina urrats handiak eman direla ebidente da. Eta geroz eta hobeto egiten dela ere, zalantzarik ez dago (...) Eta hemen azpimarratu nahi nuke erakunde bat (...) nik ustedut lan ikaragarria egin zuela hor, hiztegi espezializatuak eta zientifikoak egiten, UZEI dena (...) Hor elkartu ginen hamabost edo hamasei zientzia desberdinetakoak. Zeren hor gaia ez bada ezagutzen hitzak ez dira ezer, hitzen edukia ez bada jakiten. Orduan ba adituen presentzia beharrezkoa da eta gainera maila kolektiboan. Eta orduan segurasko UZEIren ekarpena handiena zen, elkartu zituelako ba-koitzak bere alorretako adituak eta horrela sortu zuen behar bada hobetuko dena baina funtsean hori da. Eta orduan hori, ba nolabait Euskaltzaindiak babestutako guzti hori, ba hor lan handia UZEIk eginga du eta hori sortzaileekin bat gaurko euskal prosa teknikoaren kalidadea ... Hortik aparte problema handiagoak ikusten ditut estatusen (...) Alde batetik euskarak zailtasun handiak dituelako gizartean txertatzeko. Eta gero ez baldin badu euskal gizartean elebidunek, gehiengo batek ez badu, ez bada txertatzen guzti hori, ba zertarako? Eta orduan sartzen gara beste ikuspegi pragmatiko batekin, euskara zertarako? Eta orduan beti ere besteen mirabe eta zerbitzari. Hemen ez da eman urrats handirik. Eta maila honetan, estatusaren mailan, euskarak ez du aurrera egin. Oso gutxi (...) Ez da maila berean joan. Hemengo hizkuntza politika elebiduna da (...) Estatusaren inguruan daude bi korronte: bata erreproduzioarena, zeinetan gizarteko egiturek baldintzatu baitute subjektu historikoaren portaera, errendimendua. Eta, bestetik, gorako abiadura, kultura erresistentziaren emaitza, beraz produkzioarena, produkzio alternatiboarena. Eta hemen, bien arteko gatazka honetan, dialektika honetan, harreman honetan, ene irudiko, indarrak ia lehengoan daude. Eta horren arrazoia da hemen ente autonomikoa ezarri izan denean eta diru publikoak ezarri izan direnean, garai bateko euskal militantismoa kulturaren aldekoa galdu egin dela, herri mugimendurik ez da, euskal kulturaren aldeko mugimendurik ez da. Gaur egun daudenak dira superrestrukturak (...) Orain denak dira ordainduak, superrestrukturak dira, anitz daude, eta gainera ari dira euskararen kontura (...) Eta nik oso plan txar txarrean ikusten dut alde horretatik euskararen etorkizuna⁹ (7. elkarrizketa).

Kulturgileek hizkuntzaren gain egin duten interbentzioak, ezinbestean, baliabide kognitibo eta kontzeptualen mobilizazioa eta metaketa ekarri du berarekin batera. Hala, ugaldtu egin dira hizkuntzaren inguruan landu diren ezagutzak eta jakintzak, baita ezagutza horiei buruz eratu den adituen multzoa ere. Aipatu ezagutzak egintzaren tesuinguruetan sortutakoak izan dira maiz, “praxi kognitibo” modura, akademiaren instituzioetatik at. Bada, euskalgintza, beste gizarte mugimendu batzuen antzera, gune kognitibo alternatibo garrantzitsua izan da bestelako ezagutzak nahiz kulturgileak sortzeko. Era berean, azken urteotako instituzionalizazio prozesuaren ondorioz, administrazio publikoak, unibertsitateak eta kulturgile akademikoak eratu diren heinean, –modu apalean bada ere, – mugimenduan jorratutako ezagutza horietako batzuk instituzionalizatu eta legitimatu egin dira gero akademian¹⁵⁵ eta, aldeaz edo moldez, jantzi egin dute administrazio publikoaren jarduna ere.

“Euskalgintzan zentratuta, duela berrogei bat urte, hizkuntzen funtzionamenduari buruz hemen zegoen jakintza maila oso apala zen. 40 urte edo 30 urte edo 20 urte, ezta? Kontuan izan 81ean egin zela hemen lehenengo zentsua, errolda, eta horretan kokatu zela lehenbiziko aldiz hizkuntza ezberdinen, bueno, gaztelania eta euskeraren inguruko lehenbiziko galdera eta lehenbiziko iker-ildo sendoa, ezta? Zenbat ginen jakiteko. Eta zenbat ginen ez bagenekien ere ba nola jakin hizkuntz egoeren inguruko gorabehera guztiak, eta oso gorabehera korapilatsuak eta poliedrikoak, ikuspuntu askotakoak dira, ezta? Eta, bueno, zenbat ginen ez genekiela jabetuta, gainontzeko planteamenduak ziren oso prekarioak, borondate hutsean oinarritutakoak eta jakintzagabezi izaugarriekin. Bazeuden bakar batzuk, Mitxelena bat edo aditu batzuk, baina oso gutxi eta gainera oihartzun sozial gutxikoak momentu hortan, ezta? Eta bueno, harrez gero, eta boluntarismo eta gizarte honen parte batek izan duen motibazioari esker ahalegin handiak egin dira, jendea jantzi da soziolinguistikaz, hizkuntzaren inguruko gorabeheraz, eta ba izugarri aldatu da egoera, bai kulturgileen aldetik, bai giza mugimenduen aldetik eta, bueno, tartean, ba sortu diren, bai administrazio publikoan, bai ekimen pribatuaren eskutik hainbat talde eta elkarteetan aldetik ere, ezta? Aldaketa izugarria izan da azken 20 urteetan” (3. elkarrizketa).

Corpusean gertatutako aldaketek, zeharka, hizkuntzaren estatusari lotuta dauden beste aldaketa batzuei aukera eman diete. Bada, kulturgileek bultzatutako hizkuntzaren modernizazioak ahalbidetu du

euskara batu egokia izatea irakaskuntzan, literaturan eta, oro har, kulturgintzako jarduera guztietan. Bestalde, modernizatze lan horri esker eta administrazio autonomikoak ezarritako hizkuntza eta hezkuntza politikei esker, gaur egungo belaunaldiek orain urte batzuk pentsaezina zen kultura produkzioa ezagutu ahal izan dute –liburgintzan, musikagintzan–, nahiz eta oraindik ere produkzio hori oso urria den.

“Produkzioa. Produkzio bibliografiko bat, esaterako, ez dut esango normala, baina daukagun neurria kontuan hartuta, ba hainbat arlotan, produkzioa musikan, liburu, nobela..., ez dakit, hainbat zeretan, produkzioa. Produkzio kulturala bera. Beste zenbait arlotan ez dagoena. Beste zenbait kultura arloetan hutsuneak egon badaude, produkzioan oraindikan. Dexente. Ez dakit, zineman edo beste batzuetan. Hola hartuta produkzio bat. Gaur egun gure alabak badauka orain dela 40 urteko bere adinekoek ez zeukatena eta naturaltasunez hartzen dute, eta aukera dute liburutez joan eta ... ez da munduko aukera guztia. Erdaraz edo gaztelez aukera gehiago dago. Baina badute aukera bat guk izan ez duguna” (4. elkarrizketa).

Hizkuntzaren gaineko interbentzioa ez da izan proiektu intelektual hutsa, ezpada aldaketa sozialerako egitasmoa. Ildo horretatik, gizarte aldaketa bat ezin da burutu gizarte sektore zabalen atxikimendurik gabe. Izan ere, partaidetza sozialik ezean, intelektualen edo politikarien ingeniariaritzak lanak amets hutsalak izan ohi dira. Dakigunez, euskal kulturgintza- eta, bereziki, euskalgintza-esparruaren osaketa gizarte mugimendu gisara burutu izan da luzaroan. Areago, euskal kulturgileek mugimenduan eratutako erakundeetan eraiki dituzte beraien rolak ere –haien ekarpena, hein handi batean, mugimenduaren bitartez eta mugimenduaren erakundeetan gauzatu da–. Baina, kulturgileez gain, mugimenduetan egondako partaidetza oso anitza izan da. Hala, mugimenduan metatutako kapitala era askotakoa da: praktika sozialak, ekarpen intelektualak eta etikoak uztartu dira haren barnean. Partaidetza horren emaitza batzuk hain ikusgarriak izanik eta esperientzia bera historian hurbila izanik, kapital historiko hori oso baliotsua da gaur egungo kultura esparruaren nolakotasuna ulertzeko, esparruan bildu diren baliabide materialak zein sinbolikoak garrantzitsuak baitira. Gaur egun gertatutako instituzionalizazio politikoak eta aldaketa sozialek gizarte mugimenduaren ahultzea ekarri dute beraiekin. Halarik ere, kulturgileek metatutako kapital historiko horren eredia aipatzen dute behin eta berriro –ikastolak dira horren

adibiderik argiena— galtzen ari den baina berreskuratu behar den ekarpen intelektual eta etiko gisa.

“Balantza batean jartzeak, agian, ez dauka zentzurik, baino denboran lehenago dalako, eta bai igual gizartea bertatik sortutako pertsona eta taldeen ahalegina izan den heinean, ba gizarte mugimendu horien aportazioa izugarria iruditzen zait. Izugarri hori (...) zertan izan daiteke? Ba, nik uste det, hor intelektualarena ere egon daiteke (...) Nik uste det, igual jaitsi gara pixkat pistoia eta desinflatu da pixkat itsasontzia, ez?, baino atzera begiratuta sinestezina egiten da askotan zer energia eta zer indarrekin izan ziren euskararen aldeko gizarte mugimenduak egin zituen gauzak, eta horiek dira aportazioak. Oso baliabide gutxi zegoen eta ordun, baliabideak faltatzen direnean, dira pertsonak eta ideak indarra ematen dutenak eta pertsona batzuk zeuden, eta gutxi, eta ordun izugarritzko indarra, ezta? Hori askotan jartzen da adibidea, ba ikastolen mugimendua da horren adibide nabarmena: baliabiderik ez eta, gainera, beste kondizionante negatibo pila bat. Ordun, ez dakit nola esan, estadistikoki inprobableak ziren gauza pila bat egin ditu gizarte mugimendu horrek (...) Ekarpena da, programatikoa, esan nahi dut, atera dira gauza asko. Zera horretaz aparte, balore, energia... horietaz aparte, ba ikastolak ikastolak dira, eta hor daude eraikin batzuk, ume batzuk, prozesu batzuk, eta hori izugarria iruditzen zait (...) Eta, bueno, badaude ekarpen intelektualak ere bai, sormen aldetikoak eta, nik uste det, ekarpen etikoak ditugu, ekarpen diskurtsiboa, hizkuntzaren minorizazioa eta, normalean, diskurtsio horiek, batez ere, sortzen dira gizarte mugimenduetatik” (5. elkarrizketa).

Orain arte kulturgileei esleitu zaizkien ezaugarriak beren gaitasun teknikoei lotuta egon dira: zenbait jakintzaren jabe izanik, hizkuntzaren aditu gisa bete dituzte kulturgileek zeregin “tekniko” batzuk euskararen modernizatze prozesuan. Halaz ere, ez dirudi historian zehar betekizun horretara mugatu denik eurek egindakoa. Hizkuntza eraldatzaile ez ezik kontzientzia sortzaile ere izan dira euskal kulturgileak hizkuntza komunitatearen baitan. Horrela, gerra aurretik hasita gaur egunera arte hizkuntzari buruzko atxikimendua lortzeko beharrezkoak diren baliabideideologikoak eman dizkiote hizkuntza komunitateari —“kontzientzia, jarrera, motibazioa” (6. elkarrizketa)—. Ildo horretatik, oso-osoan bete dute ideologo lana ere. Areago, erresistentzia kognitibo baten kontestuan txertatu beharko litzateke beraien ideologo lan hori. Izan ere, mendeko kultura eliteek, corpus aldaketekin batera, hizkuntzari buruzko irudi berriak sortzeko

eta zabaltzeko gaitasuna ere izan ohi dute hizkuntzaren gaineko interbentzioetan. Hala, hizkuntza taldeen arteko gatazka orok izaten ditu adierazpenak mintzaira mailan, baina baita maila sinbolikoan ere. Hartara, hizkuntza gatazka gatazka sinboliko mota bat da, non hizkuntzei buruzko definizio sozialak lehiatzen diren legitimazio bila. Lehia sinboliko horretan, kulturgileek ahalik eta baliabiderik eraginkorrenak –unean uneko legitimitate maila handiena daukatenak– baliatzen dituzte gizarte errealtateen sorkuntza lanean.

“Hor, hizkuntzarekiko kontzientzia minimo bat egon da eta atxikimendu bat egon da eta horrek eusteko balio izan du, kanpoko eragileek edo barruko faktoreek eraginda, erabat desagertzeko prozesua amildegira edo batek daki nora eramaten zuen bitartean. Baina berreskurapenaren prozesua, niretzat galdutako prozesua, berreskuratzeke ezinbestekoa izan da elaborazio tekniko bat, eta bestelako kontzientzia maila bat, eta bestelako aportazioak. Eta hor kulturgileak beti izan dira klabe bat, bai gerra aurretik (...) literaturaren inguruan, irakaskuntzaren inguruan, komunikabideen inguruan, kontzientzia hori sortu zutenak, ez?, baita bertsolariak ere momentu batean maila duinago bat eman ziotenak, ez? arlotearen mailatik maila kultura. Eta gerra ondoren ere bai izan dira, gerra ondoren sozialki bazegoen aldeko jarrera hori baina hori aktibatu zutenak eta dinamizatu zutenak kultur eragileak izan ziren (...) Nik uste det erabakigarria izan dela. Kultur eragilerik gabe, zer? Bestelakorik..., bueno, politikak izan du zerikusia, baina uste dut aspektu politikoak bakarrik ez zuela inondik inora ekarriko gaur egun bizi dugun egoera (...) Eta eragile politikoek eragin oso inportantea izan baldin badute ere kultur eragileen zutabe hori behar izan dutela aldameanean, zutabe indartsu eta garrantzitsu bat, aspektu politiko horiei normalizazioaren etekina emateko, ez? Eta nik uste det hor, gainera, nahiko nabarmena dela, kultur eragile horiek egia da politikoki ere ba normalki ezker abertzalean dabiltzanen esparuan kokatu izan direla (...) Herri txikietan eta abar, kultur eragilerik izan ez den kasuetan galera prozesua aurreratu da, eta hori Iparraldean ikusten da, ez? Kultur eragileek eragina zutenean herrian iraun du atxikimendu horrek. Ez du izan baliabide, ez dakit, ideologikorik, baliabide handiak, kontzientzia, jarrera, motibazioa, nahi dan bezela deitu, hori bakoitzak ulertuko du nahi duen eta komeni zaion eran, baina badago gauza horiek” (6. elkarrizketa).

Argi dago, beraz, euskal kulturgileei esleitutako rola ez direla ezinbestean adituaren edo teknikari soilaren jardunetara mugatu, zen-

baiten ustetan. Jakintza espezializatuei lotutako zeregin oso garrantzitsuak egin dituzte hizkuntzaren alorrean eta, oro har, euskalgintzan, jakina. Baina, horrez gain, hizkuntza eguneratu eta gaurkotu egiteaz batera, desartikulaturik zegoen euskal hiztunen komunitatearen kohe- sioari eusten lagundu diote. Zuzenean ala zeharka, hizkuntzaren berrikuntzaren eta normalizazioaren alde lan egin dute eta, aldi be- rean, identitate sortzaileak izan dira, hizkuntza taldeari lotutako iden- titate kulturalaren birsorkuntza bideratu dutelako.

“Hizkuntza zer den? Oso fenomeno konplexua da baina, azken buru, hiztunengan datza. Nik uste lehenbizi komunitate baten parta- ideak garelarik ba... (...) hizkuntzari dagozkion funtzioak pertso- nen bitartez, hiztunen bitartez garatzen dira. Eta horietako bat argi dago kulturgileei dagokiela. Hor dago lehenengo eta behin beren produktzioa. Hizkuntza bizitzeko eta biziberritzeko ezinbestekoa dena, ezta? Beraz, hizkuntza lanabes bezala eguneratu eta gaurkotu egiten dutenak dira hein handi batean beste erakunde batzuekin batera. Baina erakunde horien barruan daudenak, unibertsitatea, akademia desberdinak, horiek sostengatzen dute, ezta? Orduan, egu- neratze eta eraberritze prozesua nik uste dut kulturgileek eurek egi- ten dutela (...) Gero, bestetik, kohesio sortzaileak esango nuke dire- la. Kohesioa (...) ez da bakarrik alderdi linguistikoa, hortik harago joaten da. Eta unibertsiterako testuliburu bat euskaraz idazten denean ez da bakarrik egiten euskaldunak direnentzat lanabesak eus- karaz ikasi ahal izateko. Ikuspegi osoa ematen zaio: komunitatearen partaidetasuna. Eta gero badago berrikuntza. Euskararen normaliza- zioaren bidetik beti egiten dugu euskara berria eta horrek esan nahi du garaikidea, horrek esan nahi du garaiko edukin kultural berrie- kin (...) Hori erdal kulturgileen artean ez da gertatzen. Hor izaten da hari bat bai forman, alegia, zer hizkuntza mota erabiltzen duen eta bai edukietan; kontserbadoreagoak dira. Euskaldunen artean, berriz, kondanatuta gaude eraberritze prozesu batean normalizazioa lortu arte. Orduan, eraberritze bat, berritzaileak dira euskal kulturgileak. halabeharrez, ezta? (...) Hemen euskara batua sortu zenean, euskara batua batez ere nik uste dut ekoizpen ideologikoa dela. Eta da herri baten ikuspegi batetik eratoritzen den ondorioetako bat. Orduan, herri baten ikuspegia dago aurretik behar bada. Eta kulturgileak hemen, Euskal Herrian haiek izan dira nik uste neurri handienez, horrela ulerturik, euskararen estandarizazioa bere egin izan duten kolektibo bat (...) Alderdi horretatik kohesio egileak direla esatera- koan eztabaidak egon litezke euskararen ajeak diren edo ez diren baina guztiek ildo berean jarrita daude. (...) Identitate sortzaileak

badira. Kulturgilea, bere ideologia aparte utzita, hizkuntza komunitatean mugitzen den parte bat da. Eta ematen dio identitate horri bere ikuspegia” (8. elkarrizketa).

Euskal kulturgileek sortutako euskal kulturaren adierazpen modernoeri esker, ordezkatzan duten komunitateak galdutako autoestimua eta autokonfiantza berreskuratu ahal izan ditu, batzuen ustetan. Halatan, komunitatearen lidergo karismatikoa egozten zaie eginkizun hori bete dutenei.

“Nik somatzen dut azkenean herri honek behar izan duela halako autoestima erreuperatzea, autokonfiantza erreuperatzea. Eta hor nik uste dut klabeetako bat izan zala, adibidez, Ez Dok Amairuren diskurtsoa, ez? Apur bat esatea, ez euskeraz ez dugu bakarrik egin behar beste kulturen kopia bat, baizik eta egin behar dugu sorkuntza lotsarik gabeko bat eta inkluso abangoardista bat, ez? O sea, egin daiteke euskeraz abangoardia eta, uste det, nolabait, Oteizak planteatu zuena, ez? Holango herriarekin lotuta dagoela gure prehistoriako dibujoa, ez dala modernitatearen letxo hori apur bat erlatibizatuz, eta animatuz komunitate txiki honetako kulturgileak konplejorik gabe kultura puntakoa egiteko, ez? Askorentzat edo gutxirentzat. Eta nik uste det hor, espiritu horrek Ez Dok Amairutik sortu zan, bueno, kalitate sena baita ere: Xabier Lete dala, Benito dala, kantautoreen aldetik eta..., hor nik uste, eragina handia izan zuela. Ez dot uste gaur euskararen garapenean edo normalizazioa deitzen duten horretan faktore kuantitatiboak direnik inportanteenak, ez? Eta ez dakit erakunde publikoek zer..., horiek ere inportanteak dira, ez?, zer, bueno, ze azpiegiturak jarri dituzten eta... baizik eta baita ere, faktore horiek ikusten ez diren kualitatibo horiek, autoestimarena, kultura bat garelako bisualizatzearena, etorkizuna daukagula bisualizatzearena... eta nik uste dut hor kulturgileek lan handia egin dutela, bai Ez Dok Amairu, nolabait, talde eta kultura horrek..., gero baitare ba, bueno Atxagaren banda eta guzti hauek... Uste dut bertsoaritzak ere, batez ere 80. hamarkadatik aurrera, egin duela erakarpen funtzio hori. Bueno..., erakarpen..., batetik, euskal komunitatearen autokonfiantza funtzio hori, ze euskaraz sor daitezkeela gauza orijinalak, beste inon ez daudenak, eta, bueno, sor daitezkeela kultura bat guri balio diguna bizitzeko eta... Eta, bestetik, igual, baita ere erakarpen funtzio bat erdaldunei adierazteko, jo! Hemen zerbait gertatzen da, ez? Hor sortzen dute. Egiten dute... eta nik uste dut bai literaturak, bai kantagintzak, bai bertsoagintzak, hori egin duela. Eta baita ere “rock radical vasco” deitutako horrek neurri batean ere, ez? Nolabait inbidia sortu, erakarpena sortu eta,

inkluso, ikusi hor kultura horretan zerbait gertatzen dala. Horren ekarpena euskalgintzan, nik uste dut, inportantea dala” (2. elkarrizketa).

Nabari denez, era askotakoak izan dira euskalgintzaren esparruko kulturgileei esleituriko rola eta zereginak. Halaber, era askotakoak dira esparruko kulturgileen arteko harremanak zeharkatzen dituzten *cleavage* edo haustura lerroak. Bada, harreman gune horren osaketa, azken urteotan ere, ez da egon definizio eta eredu lehiakorren eraginetik at. Horrela, askotariko definizio eta proposamenak daude lehian gaur egungo euskalgintzan: euskalgintzaren helburuei buruzkoak, kulturgileen eginkizunei buruzkoak, eta hizkuntzaren berreskurapen moduari buruzkoak, besteak beste. Ikusmolde horiek adierazpen gatazkatsuak izan ohi dituzte: gatazka kognitibo modura azaltzen dira zenbaitetan, gatazka politiko gisa beste zenbaitetan. Hain zuzen ere, hemendik aurrera kulturgileen ustezko rol politikoak eta hizkuntzaren beraren ikusmolde politikoak euskalgintzan sortu dituzten barne zatiketak hartuko dira aztergai.

Izan ere, euskalgintza, batik bat frankismoaren garaitik aurrera, esparru politiko nazionalistari lotuta eratu zen. Haatik, trantsizio osteko instituzionalizazio politikoak, nazionalismoaren zatiketak, euskal gizartearen konplexutasun gero eta handiagoak eta euskalgintzaren barne bereizketak aldaketak ekarri dituzte nazionalismoaren eta euskalgintzaren arteko berehalako identifikazio horretara. Hartara, euskalgintzan zabaldutako diskurtso baten arabera, euskara ideologia politikoen gainetik –euskal nazionalismoaren gainetik ere– kokaturiko bilgunea da. Horrela, euskalgintzako ahaleginak –oro har, kulturagintzakoak– hitzunen komunitatea biltzera zuzenduta daude; beraz, politikagintzatik at, autonomia daukan esparru batean kokatzen dira. Nolanahi ere, autonomiaren aldeko diskurtsoek era askotako aldaerak eta moldeak erakutsi dituzte azken urteetan. Aldaera batzuek euskalgintzaren identifikazio partidistaren ukazioa besterik ez dute izan helburu; haratago joan dira beste batzuek hizkuntzaren aldeko egintzaren erabateko despolitizazioa aldarrikatu dutenean. Halaz ere, autonomiaren aldeko diskurtso horiek trabak aurkitu dituzte zenbaitetan, bereziki indarrean den gatazka politikoak hizkuntza eta kulturaren esparrua modu nabarmenean inbaditu duenean, edo hizkuntza nagusiekiko mendekotasun harremanak mozorrorik gabe botere-harreman politikoz jantzita agertu direnean.

“Euskaraz diharduena eta Euskal Herriaren alde dabilena aberzalea da”. Ba zergatik? (...) Nik uste guztiok ezagutzen dugula euskaraz diharduten pertsona bat baino gehiago, eta gero eta normalagoa izango da, abertzaleak ez direnak, euskaltzaleak adiera hertsian ere ez direnak, eta halaz ere euskaraz dihardute eta lan egiten ari dira. Beraien ekarpena Euskal Herriarentzat eta euskararen hizkuntza komunitatearentzat beste edozeinena bezain inportantea izan daitekeela, kalitatearen arabera edo edukien arabera are inportanteagoa izan daiteke (...) gertatzen dena da gatazka bat dagoenean (...), lerratze joera bat dagoenean edo presioak izaten direnean, ba kutsu ideologikoa ematen zaio [hizkuntzari] ezta? (...) Ikuspegi horretatik argi dago (...) nola ikusi gaituzten: Beste kontu bat da gu hori ote garen. Baina, klaro, horrela ikusten gaituzte eta horrek izugarritzko zama dakarkigu” (8. elkarrizketa).

Bigarren diskurtso bat ere atzematen da euskalgintzako kulturgileen artean, hau ere adierazpen eta aldaera bat baino gehiagorekin. Funtsean politika/hizkuntza binomioa uztarturik atxikitzen duen ikuskera batean oinarritzen da, neurri batean ezinbestekotzat jotzen baitu euskalgintzaren politizazioa gaur egungo egoeran. Ikuspegi horretatik, kulturgileak rol politikoan azaltzen dira, ez aktore politiko konbentzionalak direlako, ezpada kulturgintzan dihardute-lako. Agidanez, hizkuntzari buruzko pentsamolde “politizatu” horrek gero eta zailtasun handiagoak ditu gizartearen erabilia izateko arrazoitze legitimo gisa –“gero ez dakit zein lekutan esan dezaket ez, ez, politika ez, hemen euskara egin behar dugu, mezua saltze aldera. Eta hainbat tokitan. Baina gehiago da propagandistikoa (...) noski egiten ari garena politika” (10. elkarrizketa)–, diskurtso nagusia autonomiaren aldekoa baita.

“Nik neuk pentsatzen dut euskalgintzan egiten den guzti-guztia oso-oso politikoa dela eta, are, aurrerantzean, gero eta politikagoa izango dela gainera (...) Egunkarikoa bizitu izan zen euskalgintza egiten ari zelako? Ez, ez, ez proiektu politiko bat dagoelako, politiko bat, herri bati dagokiona. Eta manifestazioa izan zen oso polita: “Zer egin dugu gaizki gu hola tratatzeko?” “Zer egin dugu ondo gu hola trata gaitzaten!”. Ez dakit adibidea den. Iruditzen zait oso polita zeren eztabaida hori egon zen. “Ez, ez, ez, kultura egiten dugu”, ¡No digas tonterías! Nire ustez hola da. Gero, lehen esan dizudana, gero ez dakit zein lekutan esan dezaket ez, ez, politika ez, hemen euskara egin behar dugu, mezua saltze aldera. Eta hainbat tokitan. Baina gehiago da propagandistikoa, horren ostean dagoen sakoneko zera

baino. Eta, bueno, noski egiten ari garena politika. Noski egiten ari garena. Eta unibertsitatean euskarazko lerroak jarrita, eta beste mila tokitan, noski ari garena politika egiten. Ez gara ari kultura eta euskalgintza egiten” (10 Elkarrizketa).

2.3. Autonomialpolitizazio binomioaren aurrean. Bi interpretazio markoren arteko lehia sinbolikoa euskalgintzaren esparruan

“Euskal pentsakera soziolinguistaren eremuan, bestetan bezala, ikuspegi kontrajarriak ageri zaizkigu (...) egoera soziolinguistikoa- ren edukin soziopolitikoak azpimarratuko dira, batzuren aldetik, eta hitzun komunitatearen jarrera-kontzientziak besteen aldetik” (Odriozola, 1992b: 19).

Hizkuntzari buruzko era askotako ikusmolde kulturelek eta estrategia politikoez nabarmen zatitu izan dute euskalgintzaren esparrua bere osaketa unetik beretik. Ildo horretatik, esan daiteke esparrua ez dela inoiz izan barne homogeneotasunak ezaugarritutako gunea. Zatiketa horiek aldaketa politikoez eta soziokulturelek euskal gizartean sortu duten hausturei lotuta egon dira beti. Euskalgintzaren esparrua erro-errotik astindu zuen azken barne bereizketarik garrantzitsuena 1980eko hamarraldian burutu zen, Espainiako trantsizio politikoak Hego Euskal Herrian eragin zuen instituzionalizazio autonomikoaren ondorioz. Urradura horren ondorioek gaur egunera arte iraun dute, aldaketa politikoak sakoneko berregituraketa eragin baitzuen euskal kulturagintzaren gunean. Bizi izandako astinduren eraginpean kulturagileen kokapenak eta harremanak ez ezik esparruan nagusi ziren interpretazio markoak ere sustraitik bestelakotu ziren.

Frankismoaren azken garaitik hizkuntza mugimenduak landutako diskurtsoak koordinatu ardatz jakinen gainean eratuta zeukan egoeraren definizioa –diagnostikoa, iragarpena eta egintza markoa–. Batetik, hizkuntza gatazka auzi nazionalaren adierazpena kontsideratzen zen. Beraz, hizkuntzaren aldeko aldarrikapena diskurtso nazionalistaren barruan integratuta zegoen. Bestetik, hizkuntza arazoaren giltzarria politikoa zela uste zen, hots, hizkuntzaren etorkizuna, besteak beste, botere instituzioen barnean –bereiziki instituzio politikoetan– hartutako erabakien mende zegoela pentsatzen zen. Hartara, hizkuntzaren normalizazioa botere instituzioen kontrolarekin lotuta eta, oro har, proiektu politikoaren markoan kokatuta agertzen zen

–nahiz eta esparru nazionalistako hizkuntza proiektuak, adiera her-
tsian ulertuta, oso lausoak izan diren beti–.

60-70eko hamarkadetako euskararen aldeko gizarte mugimen-
duak euskal nortasun kolektiboaren sinbolotzat definitu zuen euskara;
hori egitean, balio politiko erantsia eman zion berez komunikazio tres-
na den hizkuntzari. Mugimenduak lortu zuen atxikimendu soziala
zabala izan zen, euskalgintzaren diskurtsoak neurri batean bat egin
zuelako garaiko beste mugimendu olde batek erabilitakoarekin; mu-
gimendu nazionalista eta, oro har, Francoren errejimenaren aurkako
mugimenduak sintonia berean zeuden. Hartara, euskal gizartearen
sektore zabalen onespina lortu zuen euskalgintzak, haren eskabideak
interpretazio marko orokorragoan –*master frame* zabal batean– inte-
gratzeko aukera izan baitzuen.

Horiek horrela, frankismoaren azken urteetan baita trantsizioaren
lehen garaian ere, “hizkuntzaren ausia” marko politiko orokorrean
kokatuta –areago, gatazka politikoaren testuinguruan– aurkezten zai-
gu. Kultura egintza egintza politikoaren mende agertzen zen orduan;
hain zuzen ere, gizarte mugimenduaren dinamikan elkarrekin lotuta
zeuden bi esparruak, hala politikoa nola kulturala. Egintza mota
horretan, ondo definiturik azaltzen ziren arerioen eta adiskideen rolak.
Izan ere, gu/haiek binomioaren lehen elementuari dagokionez, pare-
katuta zeuden euskaldunak eta nazionalistak; bigarrenari dagokionez,
berriz, kanpoko etsaia lehenesten zen: menderatzailearen rola estatuari
egozten zitzaion, zehazkiago, estatuaren ordezkarietat agertzen zen
erregimenaren politikariek irudikatzen zuten rol hori. Haien aurka,
zalantzarik gabe, adostasun sozial zabala lortu zuen mugimenduak.

2.3.1. 80ko hamarraldiko instituzionalizazio autonomikoaren ondo- rioak euskalgintzan

Francoren heriotzak beste ziklo politiko eta sozial bati hasiera
eman zion Hego Euskal Herriko gizartearen. Une horretan estatuko elite
politikoez egindako itunek Espainiako estatuaren administrazio
deszentralizazioari bidea eman zioten. Hala, autonomi sistema ezarri
zuten lurralde guztietan. Hego Euskal Herrian Euskadiko Autonomia
Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa osatu ziren prozesu horren
ondorioz. Aldaketa horiekin batera, euskal nazionalismoaren barnean
sortutako haustura –hots, euskalgintzaren “laguntza sistemaren”
zatiketa– erabakigarria izan zen mugimenduaren ondorengo bilakaeran.

Hain zuzen ere, 1978ko Konstituzioaren eta 1979ko Autonomia Estatutuaren ezarrerak, eta instituzionalizazio politikoaren inguruan sortutako era askotako eztabaida eta estrategia politikoez indar nazionalisten arteko urruntzea eragin zuten. Areago, euskal nazionalismoaren oinarri sozialaren etendura sortu zuten.

Testuinguru berri horretan, aurreko urteetan mugimenduak eduki zituen jarduerak eta estrategiak gainbeheratu egin ziren. Alde batetik, gizarte osoa barnean hartu zuen aldaketa orokorra gertatu zen: instituzionalizatze prozesuaren bulkadaren aurrean, desegin egin ziren frankismoaren sasoian eta ondorengo urteetan bizitza soziala dinamizatu zuten era guztietako elkarte-ehun eta sare sozialak. Hitz batean, egintza instituzionalak baztertu egin zuen apurka-apurka egintza kolektiboa, halako moldez non, gizarte zibila, *impasse* egoera batean murgildu zen, politikari profesionalei eta instituzio politikoei protagonismoa utzi ondoren –“politika orojale bihurtu zen (...) mugimendu guztiak hustu egin ziren, ezereza iristeko moduan” (9. elkarrizketa)–. Kulturgintzako mugimenduetan ere, prozesu berdintsua gertatu zen, administrazio autonomikoak eskuratu baitzituen poliki-poliki kultura esparruko eskuduntzak eta, hartara, kultura esparruan modu legitimoan jarduteko diruak eta giza-baliabideak.

“Politika orojale bihurtu zen urte horietan, ezta? Eta, bueno, ba hutsik edo husturik gelditu ziren bestelako lan ildoak. Jende baliagarri gehiena pasatu zen politika arlora, ezta? (...) Garai hartan erai-ki ziren planteamenduak, planteamendu politikoak, kontrajarriak ziren eta, bueno hori ez da larriena, nik uste, ikuspuntu diferenteak izatea oso legitimoa da; larriena da politika munduak erabili nahi izan zuela gizarte mailako dimentsio guztiak esango nituzke, berdin zait ekologia edo feminismoa edo..., eta bueno, ba dena lotuta dagoela onartu behar dugu, baina, aldi berean, ikuspuntu ekologikotik ikusita inportanteena ekologia bada, politikak ez zuen jakin amore eman eta ikuspuntu ekologikotik begiratuta, adibidez, lehentasuna ekologiarri ematea, ezta? Lehentasuna beti politikarena zen eta, horren ondorioz, ba gizarte mugimendu mota guztietan horrek eragina izan zuen, txarrerako esango nuke nik. Eta kulturgintzan ere bai eta euskalgintzan ere bai. Eta gaur egun nik esango nuke gerra hotza dagoela. Ez dago garai bateko enfrontamentua, baina gerra hotzean bizi garela, ez elkarlan ireki eta emankor batean” (3. elkarrizketa).

“Gizarte mugimendu indartsu bat zegoela adierazi beharko genuke (...) Gero, instituzionalizazio prozesu bat etorri zen oso

expantsioa, ikaragarria, oso expantsio handi bat etorri zen erakundeen aldetik. Erakunde horietan partidu batzuen jokabidea da nabaria (...) Alegia, etorri zen oso expantsioa eta orduan mugimendu guztiak hustu egin ziren, ezereza iristeko moduan. Eta hori gertatu da batez ere gizarte mugimenduan, esan dezagun, mugimendu sozialetan, kulturaletan. Eta orduan euskararen eragina izan zuen. Fenomeno hori gertatu zen. Guztion artean. Gero erreakzio bat etorri zen. Eta erreakzio horretan oraintxe gaude. Erreakzioarekin” (9. elkarrizketa).

Administrazio autonomikoaren eta garaiko euskalgintzako mugimenduaren arteko tentsioak era askotara irudikatu ziren. Euskalgintzatik sortutako aldarrikapen taldeen ekimen berriak instituzioek jardun erradikal eta ordenaren hausle gisa interpretatzen zituzten. Horrenbestez, saio horien estigmatizazioari ekin zion botere autonomikoak etengabe. Mugimendu erakundeek, beren aldetik, jarraera antiinstituzionalista elikatu zuten euren jardunean. Instituzioen eta gizarte ekimenaren arteko tentsioa gori-gori zegoen une horretakoak dira EHE (1979) eta EKB (1983) ekimenak; egoera gatazkatuak baldintzatu egin zuen guztiz euren garapena eta arrakastarako bidea (Amonarriz, Arruti, 1998: 161, 163, 165).

Alabaina, euskalgintzak bizi izan zuen krisia ezin da ulertu instituzio/mugimendu binomioaren arteko gatazka huts modura, biak zeharkatzen dituen beste haustura garrantzitsuago bat aintzat ez bada hartzen. Aipatu gatazka horrez gain, instituzionalizazio politikoak lehenagotik zetorren euskal nazionalismoaren zatiketa politikoa sendotu zuen. Izan ere nazionalismo hegemonikoak, Autonomia Estatutuaren eta erreforma politikoaren alde egin ondoren, administrazio autonomikoaren kudeaketa hartu zuen, eta ezkerreko abertzaletasunak, berriz, erreformaren aurka eginez eta egintza instituzionala baztertuz, gizarte mugimenduen bitarteko egintza lehenetsi zuen bere estrategia politikoan. Argi eta garbi, indarrean zegoen marko juridikoaren aldaketa aldarrikatu zuen eta haren kudeatzaileen aurka egin zuen. Horiek horrela, lehenago nazionalismoak eta euskalgintzak kanpoko arerioarekin –estatuarekin– irudikatutako gatazka, nazionalismoaren barnera –hartara, mundu euskaldunera– aldatu zen. Ondorioz, frankismoaren sasoian eta trantsizioaren lehen garaian hizkuntzari buruz zegoen ustezko adostasuna deseginik geratu zen. Aitzitik, areagotu egin ziren zenbait proiektuen arteko aldeak. Instituzio autonomikoek elebitasunean oinarrituriko hizkuntza poli-

tikak eta mugimenduen erakundeak bikoizteko estrategiak martxan jarri zituztenean bi esparruen arteko gatazka areagotu egin zen. Hala, gatazka politikoa indar handiz gainezarri zitzairen kulturagintzari eta euskalgintzari. Garaiko eztabaida batzuek ongi aski islatu zituzten aurkakotasun dikotomikoetan irudikatutako aldeak: hala nola, marko juridiko-politikoaren gaitzespena/onespena eta elebakartasuna/elebitasuna (Amonarriz, Arruti, 1998: 161).

“Garai horretako prozesua nolabaiteko ez dut esango samintasunez, baina bai nolabaiteko porrot historiko baten ondorio gisa (***) Trantsizioan gertatu zen aldaketa politikoa (...) ez da intelektuaren planteamenduarekin ados datorren emaitza politikoa; ez da, baizik eta konfrontazio politiko baten ondorio, zeinetan interes desberdinak baitaude, kontrajarriak, eta bakoitzak badauzka bere interesak, zerikusirik ez dutenak hizkuntzarekin, azken finean, hizkuntzaren arazoak baitira bigarren edo hirugarren mailakoak. Beraz, elebitasunaren politika da Espainiako eta Euskal Herriko alderdien akordio hertsiki eta garbiki konbentzionala, artifiziosoa, artifiziala, zerikusirik ez daukana herri baten kulturaren dinamikarekin (...) Beraz, boterearen emaitza da. Eta hala izaki (...), ezin da kontzerebitasuna ez bada menpekotasunaren ikuspegitik begiratuta bere erredua hartzen. Eta bueltak eman ahal dizkiozu, baina neretzako hala da. Beraz, menpekotasun harremanen barruan ulertu behar da elebitasuna (...) Hala izaki, erabat ulergarri egiten da frankismo garaian hain bizirik zeuden herri mugimenduak kultura mailan, orduan sortuak dira edo garatuak dira ikastolak, AEK alfabetatze mugimendua (...), argitaletxeak eta horiek denak, sekulako lorakuntza egon zen, ezarren truke, eta orduan garatu zen pentsamendua, 60-70. hamarkada guzti horietan. Eta hori ezin da ahaztu, horiek hor daudelako lekuko gisa. Orduan ideiak garbi ziren. Nola ez! Baina, ideia horiek, interes argi horiek lausotzen dira sortzen denean tartean ente autonomiko hori. Eta orduan ja boterea datorrenean, ez dator bakarrik Madrildik baita Euskal Herritik. Eta orduan sortzen dira ja interes konkretuak, esan nahi dut, hiltzen dira herri mugimenduak. Eta hiltze horretan parte-hartzaile aktiboak dira jadanik herri mugimendu horietako gidari izandako batzuk gehi botere autonomikoan ezarritako gidariak. Bien (...) nahasketarik gabe ezin da ulertu inondik inora orduko garapena. Horregatik sortzen ditu euskal erakundeak nola kultur dinamika hori zegoen gehienbat esan dezagun ezker abertzalearen inguruan, eta normala da eta, azken batean da erabili izatea iritzi ideologikoa soilik, –gazteak ziren orduan, unibertsariak, haiek ziren landuak, ez lanean ari zirenak, gerraondokoak–, klaro,

orduan sortzen denean konfrontazio hori ente politikoa gehi dirua, eta hori dinamika hori beren esku ez egotean ente autonomiko horrek bere eskuak hutsik dauzka. Badauka nor agindu baina non ez. Eta orduan sortzen da, eta ez da tontokeria, sortzen ditu ente paraleloak. Banan banan. HABE sortu zen. Eta ikastolak? Sortzen da orduan Irakasleen Elkartea desegiten da, eta indartzen da Gurasoen Elkarte Federazioa. Eta federazioa lotzen da hezkuntzako sistemarekin, banan banan (***) eta diru publikoa. Orduan hor bukatzen da. Orduan, zer ekarri du? Neretzako tristura handi bat. Testuinguru horretan sortzen da, alde batetik, Euskal Herrian Euskaraz (EHE), mugimendu horiek. Nolabait erreibindikazioa da “aizu, Euskal Herria baldin bada, Euskal Herria zer da euskararik gabe?”. Orduan sortzen da EKB, neronek sortua da, egon naiz han, eta eztabaida guzti horiek Mitxelenaekin eta guzti horiekin izan ditut... Euskarazko kulturarik gabe ez da Euskal Herririk, hau da, ezin da intelektualik gabe, euskara intelektualik gabe ez da ezer. EKB hori da. Euskarazko kultur erakunde bat (...) eta hor izan genituen sekulako arazoak eta gaur bihurtu da Kontseilua, diru publikoaren atzean (...). Orduan, galdetzen badidazu ze inpakto izan zuen, ba sekulakoa. Eta nolabait esango nuke bide instituzionalak irabazi duela. Baina, aldi berean, ez da joan maila berean herri mugimenduen dinamika. Nahiz eta gauza asko sortu diren, egunkariak eta (...) aldizkari batzuk eta... Hori hala da. Eta gauza asko hortxe dago eta gauza asko daude. Baina izan ditu bere kontrakargak. Eta hori esan beharra dago. Ez baita dena kolore batekoa. Baina, nik uste dut baten indartzeak bestearen ahultzea ekarri duela” (7. elkarrizketa).

Sortzen ari zen esparru politiko autonomikoak eta haren ku-deatzaileek gogor jokatu zuten euskal kultura esparrua –ordura arte mugimendu politiko-kultural gisa antolatua– mugimendu indarrez hustu arte eta mendean hartu arte. Erabilitako estrategiak –bikoizketak, finantzaketa publikoak, eta instituzionalizazioak berez zekarren desmobilizazioa– helburu horretara zuzenduta egon ziren argi eta garbi. Baina, mugimenduaren desmobilizazio horrek, modu paradokikoan, haren etorkizuneko profesionalizaziorako eta barne dibertsifikaziorako oinarriak ere jarri zituen. Harrezkero esparruan metatu ziren baliabideak ez ziren hain politikoak izan, bai aldiz askoz ere espezializatuagoak. Bestalde, autonomiaren eta heteronomiaren arteko dialektikak bere efektu perbertsoak erakutsi zituen. Izan ere, krisiaren ondorioz, euskal kulturgileak ohartu ziren zenbaterainokoa zen kulturgintzaren mendekotasuna esparru politikoari buruz eta zer eragin

kaltegarri zeukan euskalgintzaren autonomia ezak. Baina, administrazioak beharturiko babesak beste era bateko mendekotasunari ireki zizkion atak aurrerantzean: finantzaketa publikoak sustatutako ekimen kulturalari, hain zuzen ere.

“Seguraski heldutasun prozesu baten barruan pasa beharreko momentua izango zen baina inongo onurarik ekarri ez duena. Hor dago zatiketa politiko bat. zatiketa politiko horrek dakar zatiketa ideologiko bat eragina daukana gizarteko sektore guztietan edo askotan, euskalgintzan, kulturagintzan badu. Euskalgintzan asko. Kulturagintzan igual gutxiago. Euskalgintzan izugarria izan zuen eragina. Eta orduan euskalgintza barruan ez dago esan dezagun autonomia maila bat, pentsamendu eta egite propio bat, hortik aparte. Eta orduan zatiketa hori ere hor gertatzen da. Zatiketa horrek ekartzen du gauzak ezin bideratu behar den bezala eta batez ere ezin aprobetxatu zeuden bitartekoak, eta bitarteko urriak... HABE/AEK... Eta egia da hor izugarritzko ahalegina dagoela alde batetik. Izugarritzko, nola esango nuke, utzikeria, beste alde batetik, gauzak egiteari begira. Eta urratsak, esfortzu handiz egindako urratsak eman zirela instituzioetatik kanpoko arlo horretan. Gaur egun oraindik eragina du. Oraindik badaude flekoak. Asko superatu da, baina oraindik badaude flekoak. Batez ere gero gauzak ulertzeko moduak, ez? Oraindik ez dago sintonian elkarrekin eta sinergiak bilatzeko, parekotasun batean, elkarrekin aritzen, kultura bat. Ez dago. Oraindik ez dago. Eta oraindik mesfidantzak egon badaude” (4. elkarrizketa).

“Transbersalizazio politikoaren ondorioz ba, ez dakit, jardun gehiena (...) kultura arlotik egiten diran jardun ekintzaileak edo bai jardun intelektualeak ere, nik uste det ia denak zeudela transbersalizazio politikoarekin (...) instituzioek eduki zuten zatiketa horrekin, ordun dena (...) gaia zan euskeraren kontuarekin ere elebitasuna eta elebakartasuna eta... zaude legearen alde edo zaude legearen kontra, ez? Eta hori, ba gizartean bizi zan gatazka baten parametro beretsuak ziran, ezta? (...) Hori maila konkretura jaisten dezu euskalgintzan, zertan? Ba, garai hortan ekintza konkretu bat antolatzen dezu eta bere irudiarentzat da berdin dala zer antolatzen zan, inportanteena zan nork antolatzen zuen, orduan nork antolatzearen araberba ba gizartearen zati batentzat ba zan interesgarria edo erakargarria eta abar, eta beste batentzat izan zitekeen gauza bera, eta hori, transbersalizazio edo atomizazio horren adierazle oso-oso garbia da” (5. elkarrizketa).

Instituzio autonomikoen estrategiak, aukera politikorako egitura hertsia eratu zuen euskalgintzarentzat 80ko hamarkadatik aurrera. Alde batetik, botere autonomikoak egitura paraleloak sortu zituen, azken horiek mugimenduen erakundeekin lehia zitezen. Bestetik, egintza kolektibotik sortutako ahaleginak baztertzeko eta eragozteko neurriak hartu zituen etengabe.

Egoera horretan kokatzen da euskararen aldeko mugimenduak garai hartan bizi izandako nortasun krisia: besteak beste, bere organizazioen zatiketa, diskurtso mailan izandako aldaketa, eta planteamendu nazionaletik marko lokalera burututako itzulera. Hala, era askotako mugimendu ereduak sortu ziren hamarkada berean: aurreko zikloko ezaugarri ziren aktibismoa eta aldarrikapen politikoan oinarritutako erakundea (EHE), aro desberdinen arteko zubi lana egin zuen erakundea (EKB) eta aldi berriari egokituriko elkarteak (udal mailako herri elkarteak). Azken horiek, epe ertainera, egoera berriari moldatutako adierazpenik “despolitizatuena” eta espezializatuena, publikoki finantzatu eta baliabide tekniko horitua ekarri zuten.

“Garai haiek gertutik bizitzea tokatu zitzaigun, AEKn geunden eta HABE sortu zen eta herri elkarteak martxan jarri genituen. Eta herri elkarteak sinesgarritasun apurtxo bat lortu bitartean ez dakit zertzuk demostratu behar izan genituen, Ez, ez ginela politikoak, (...) ez ginela euskalgintzan ari ez dakit zeinentzat lan egiten dugulako. Ze euskaldunak garelako ari garelako gainerako euskaldunekin zeozer egin guran eta badakigula gainera hizkuntza baten barruan “extrema deretxatik extrema izkierdara” abaniko guztia dagoela (...) Eta nik politikoki zeini ematen diodan botua beste tema bat da. Ni ez naiz hemen ari honi botua ematen diodalako (...) Esan nahi dut askotan erredukzionismo horietara iritsi izan gara, ezta?” (10. elkarriketa).

60ko hamarkadatik aurrera euskalgintza-politikagintza mugimendu bereiztezinean kapital sinboliko-politiko gehien metatuta zeukan sektore politiko nazionalista ezker abertzalea izan zen. Erreforma politikoaren aurka agertu izanak botere autonomiko berriaren kudeatzaileen, hau da, nazionalismo hegemonikoaren aurkari bilakatu zuen ezker abertzalea. Hartara, administrazio autonomikoak euskalgintzaren mugimenduaren aurka bultzatutako estrategia, arerio politikoa baliabide sinbolikoez eta materialez desjabetzera zuzendurik egon zen. Borroka hori politikak hartuta zeukan kultura esparruan ere hezurmamitu zen indar handiz.

“Ezker abertzalea izan da euskalgintzan eta kulturgintzan esan dezagun sustatzaile ikuspuntu politikotik, sustatzaile nagusia. Eta orduan ideologia oso lotuta egon da, eta eztabaida ideologikoak oso lotuta egon dira hautu politikoarekin, ez horrenbeste euskalgintza edo kulturgintza erdigune bezala hartuta. Orduan hor badago perbertsio bat edo halako zera bat (...) XX-k bi koordenada marrazten zituen, bata zen euskararena (alde eta kontra), bestea politikarena (hausturaren alde eta erreformaren eta instituzioen alde). Biak gurutzatuz lau esparru ateratzen ziren eta hor kokatzen zituen indar politikoak eta indar politiko horien eragin esparrua. Orduan, zer gertatzen zen? Bi ardatz posible egon zitezkeela. Ardatz bat izan zitekeen euskararen alde daudenak egin dezatela lan elkarrekin, indar politiko eta indar soziopolitiko bezala ulertuta. Edo, beste ardatz bat izan zitekeen erreforma, estatutoa eta abar alde daudenak elkartzea gerta daiteke. Eta momentu horretan hori aurreratzen da. Garrantzi handiagoa zeukan eztabaida horrek (estatutua alde/kontra), beste eztabaidak baino (euskararen alde/kontra) baino (...) 80. hamarkadan ez dago elkartzerik. 80. hamarkadan hemen konfliktoa dago. Eta eragin asko duen konfliktoa kulturgintzan eta euskalgintzan, konfliktoaren ardatzak baldintzatzen du eta inposatzen da beste ardatzaren gainetik” (4. elkarrizketa).

Euskalgintzaren esparruan azken urteotan burutu den autonomia/heteronomiari buruzko eztabaidak kulturgileen iritzi eta kokapenak nahasi ditu. Areago, kokapen horiek esparrua bera egituratzen lagundu dute. Adibidez, euskara estrategia politikoen mende egon izanak argi utzi zien kulturgile batzuei euskarak eta kulturak beste zentralitate bat irabazi behar zutela esparru politikotik at eta horren inguruko bestelako diskurtsoa sortu behar zela. Ondorengo elkarrizketetako adierazpenek erakusten duten bezala, kulturgileek egiten dituzten interpretazioek esparruan dauzkaten kokapenak eta harremanak baldintzatzen dituzte. Hain zuzen ere, gu/besteak binomioa aipatzen da “besteei” buruzko posizio desberdin horiek zehazteko. Hala, elkarrizketan aditzera ematen denez, esparru berean hizkuntza ulertzeko ikusmolde “politikoak” eta “kulturalak” egon dira lehian, baita administrazioari buruzko ikusmolde kontsentsualagoak eta gatazkatsuagoak ere, batzuk autonomiaren aldekoak eta besteak kultura eta politika –edo kultura eta botere– binomioa lotuago ikusi dituztenak eta, horien artean, bat gailendu da denboran zehar.

“Nik uste ez zela positiboa izan, batez ere bisualizatzen duelako kulturaren eta euskararen garapena estrategia politiko batzuei lotu-

tako apendizetako bat edo sektore bat balitz moduan, ez? Eta nik uste dut zatiketa horren azpian beti egon dela sektore bat, 80. hamarkadan ez ziren asko entzuten, baino poliki-poliki nagusitu dena bere diskurtsoa eta dela ezetz, o sea, horren gainetik dagoela, horren gainetik dagoela estrategia kultural bat eta diskurtsoaren garapena zatiketa politiko koiuntural estrategiko horien gainetik dagoela, ez? Eta biltzen gaituena gehiago dela. Ni pertsonalki (...) oso gaztetxutatik beti egon naz intuitiboki diskurtso horretan (...) Diskurtso hori, kuriosamente ez zana entzuten, ze azkenean altzabozatu zen diskurtsoa besteak ziren –eta hor zegoen EKB eta horko mugimendua, AEK..., eta bazirudien zenbait mugimendu beti zeudela, azkenean, ezker abertzaleko egitura inbisible horiek kontrolatuak eta bestea zela bide ofiziala, ez?-. Baina egon dira errealitate batzuk, eta nik hori aldarrikatzen dut, egon dira beste errealitate batzuk beti beste diskurtso autonomo bat mantendu dutenak (...) Nik uste dut poliki-poliki ikuspegi hori gailendu dala, ez? Igual baita ere ikuspegi, ez dakit, konfrontatu horiek ere, bueno suabeago konfrontatu direlako, baina hori dala azkenean, kulturak gehiago elkartzen gaituela estrategia politikoei sentiarazten gaituztena baino (...) Kulturaren sensibilitateak beti elkartu behar gaituela zatiketa politiko koiuntural horren gainetik, ez? Nik hola ikusi det beti. (...) gauza bat da zuk ahots bat edukitzea, ahots politiko konkretu bat edukitzea, eta bestetik zu parte hartzen ari zaren proiektu kolektibo hori konturatzea horren gainetik egon behar zela, ez?” (2. elkarrizketa).

2.3.2. 1987-1995: Euskaingintza gune kognitibo gisa berrantolatzen. Mugimendu intelektualaren eredu arketipikoa jardunean

“Eten horrek, indarrak metatu baino, esango nuke, anulatu egin zituela. Horrek sortu du eztabaida asko, burruka asko... Orduan hain egoera ahulean zegoen hizkuntza bati horrelako borroka esparru bat zabaltzen baldin bazaio, normalean indarrak enfrentatu baino anulatu egiten dira. Eta hori, horren ondorioak oraindik ere pairatzen ari gara. Euskararen normalizazio prozesua aurrerago egon zitekeen, seguruenik, gauzak gertatu izan ziren bezela gertatu ez baziren. Bikoiztasuna, e..., orduan bai bitan banatzen da kasu guztietan (...) xahutu dira lanak, xahutu da dirua (...) Eta horren antidoto gisa edo ukendu miragarri gisa askotan etorri zan Txepetxen teoria” (6. elkarrizketa).

1987. urtean, euskaingintza urteetako krisialdi larrian murgildurik zegoela, mugimenduaren barruan askok mugarriztat jotzen duten lan

bat argitaratu zen: Jose Ma^a Sánchez Carrión (Txepetx) ikertzailearen *Un Futuro para Nuestro Pasado* liburua. Soziolinguistikaren arloan ordura arte egindako saio gehienek ikerketa aplikatua jorratu baldin bazuten¹⁵⁶, Txepetxek gogoeta teoriko bat plazaratu zuen bere tesian: hizkuntzen ikaskuntzaren teoriatik abiatuz euskararen berreskurapenaren teoria soziolinguistikoa aurkeztu zuen. Inolako zalantzarik gabe, euskalgintzaren barruan berrikuntza modura jaso zen haren ekarpena. Lanari emandako garrantziaren adibide adierazgarria da urte berean *Jakin* aldizkariak ale monografikoa eskaini ziola. Bertan soziolinguista eta intelektual ezagunek –I. Larrañaga, L. Oihartzabal, D. Amundarain, P. Agirrebaltzategi, J. Azurmendi eta Ll. Aracilek– Txepetxek ekarpenari buruzko iruzkinak idatzi zituzten¹⁵⁷. Garai hartako euskalgintzan oihartzun handiko soziolinguista zen I. Larrañagak zioenez, “Txepetxek bere tesian egin duen azalpen teorikoa kontutan harturik, soziolinguistikaren alorrean diskurtso eta kontzeptualizazio berri bat jarri du martxan” (Larrañaga, 1987: 26). Aldizkari bereko beste artikulu baten izenburuak ere argi uzten zuen Sánchez Carriónen lanketaren berritasuna azpimarratzeko asmoa: “Diskurtso berria mintzaira zaharraren baitatik” (Azurmendi, 1987: 120). Ildo beretik, antzeko ideia nabarmendu zuten hurrengo urteetan euskalgintzan sortu ziren gogoeta zilegituek; hala, “berri” kalifikatzailea maiz aipatu zen euskalgintzan sortutako hainbat testutan, orduko une hori eta aurrekoak bereizi nahian. Horrela, ugari izan ziren euskalgintzaren barnean zenbait ekinaldi bereizi ondoren, Txepetxek lanari azken aro berri bat ireki izana egotzi zioten azterketak: “diskurtso eta praktika berriaz” hitz egin zen (Muniozguren, 1992), “mugimendu sozial euskaltzale berriaren sorreraz”, “aro berriaz” (Amonarriz, 1993), edo “euskalgintza berriaz” (Amonarriz eta Arruti, 1998), besteak beste. Modu inplizituan edo esplizituan, era horietako adierazpenen bitartez euskalgintzak berak amaitutzat eman nahi izan zuen ziklo bat –krisiarena, zatiketa politikoena, geldiunearena– eta hasiera eman nahi izan zion beste bati. Kulturgileek aitortzen dutenez, ziklo horren faktore eragileetariko bat, ez bakarra, baina bai oso garrantzizkoa, Txepetxek euskalgintzan sortutako paradigma teorikoa izan zen.

“Uste dut horrek eduki duela bai eragina. Txepetxek eragina bistan da, Txepetx ez zegoela lerratuta dikotomia horietako ez batean ez bestean, nahiz eta gero norbaitzuentzako izango zen ez dakit zein multzoren pentsalaria, ezta? Ez politikoki sekula hor egon delako, eta hori ez da nire iritzia, hori ikusi egin daiteke Txepetxek ibilbidea

zein izan den, baizik eta Txepetxek esaten zituen ereduak eta gauzak igual gertuago egokitu zaizkiolako multzo baten zeretik bestetik baino. Baina, hor, bai, nik uste dut, eragin handia izan dela” (10. elkarrizketa).

Zinez, Txepetxek lanak euskalgintzaren barnean jaso zuen harrera ez zen nolana hikoia izan. Batetik, erakunde autonomikoen ezarritako instituzionalizazio politikoaren ondorioz hizkuntzaren aldeko egintza politikagintzari –zehazki esparru politiko nazionalistari– lotzen zion erreferentzi markoak agortuta zirudien. Euskalgintzaren zatiketa eta mugimenduaren eta instituzio autonomikoen arteko etena ziren horren adierazpenik agerikoenak. Sánchez Carriónék proposaturiko jarduera ereduak, hiztun komunitatea hartzean abiaburu gisa, aukerak eman zituen korapilo politikoaren mataza euskalgintzaren barruan askatzen hasteko. Izan ere, gero eta onartuago zegoen euskaldungoaren barnean era guztietako lerrokadura politikoak zeudela, nahiz eta euskaldun gehienak euskal nazionalismoaren unibertsoan kokatuta egon¹⁵⁸. Hartara, euskalgintzak frankismoaren garaitik jasotako erreferentzi markoa egoera berrira egokitzeko premia larria zeukan; hain zuzen ere, lanketa teoriko berriak instituzio autonomikoen ezarritako aukera politikorako egitura (*Political Opportunity Structure*) hertsian jokatzeko bideak eman zizkion egintza kolektiboari.

Halaz ere, bestelako beharrek ere bultzatu zuten mugimendua aldaketen bila joatera. Jakina denez, euskalgintzak luzaroan lehenetsitako helburua euskararen corpusaren modernizazioa eta estandarizazioa bultzatzea izan zen. Halatan, 1960ko hamarralditik aurrera euskara batuaren prestakuntzara eta hedapenera zuzendu ziren eragile gehienek ahaleginak, kultur gileenak nahiz erakundeenak. Baina, euskara batuaren ezarrierak bat egin behar zuen hizkuntzaren estatusaren planifikazioarekin, *corpus planning* eta *status planning* deritzoten prozesuek ez baitaukate zentzurik elkarloturik burutzen ez badira. Bestela adierazita, euskararen berreskurapena erdiesteko ezinbestekoa zen hizkuntza praktikak aldatzea eta erabilera bultzatzea eguneroko gizarte bizitzako guneetan. Ildo horretatik, Espainiako trantsizio politikoaren ostean administrazio autonomikoen jasotako eskuduntzek botere publikoen esku utzi zuten lehenengoz hizkuntza politikak abian jartzeko aukera. Alta, Euskadiko Erkidegoan ezarritako politika publikoek gizarteko eremu formalak arautu zituzten bereziki, alegia, hezkuntza sistema eta administrazioaren zenbait alor. Aldiz, gizarte

bizitzako esparru ez-formalak politika horien eraginetik at geratu ziren. Egintza kolektiboaren jardun eremuak osatzen zituzten esparruok, dudarik gabe. Bestalde, euskalgintzak baliabide kognitibo ugari zeukan metatuta bere barnean, eta gero eta prestakuntza handiagoko eragileak¹⁵⁹, baina ez zeukan bere egoera zehatzera moldatu zitekeen egintzarako eredu teorikorik. Mugimenduak bildutako esperientziak ere asko ziren, eta jadanik Txepetxek bere lana argitara eman baino lehenago AED (*Arrasate Euskaldun Dezagun*) herri elkartearen gogoetak eta ibilbideak adierazten zuen euskalgintzaren baitan bide berriak urratzeko saioak hasiak zirela euskaldunen arteko eguneroko harreman guneak suspertzeko. Labur esanda, batetik euskalgintza paralizaturik zeukan aukera politikoaren egitura itxiak, eta, bestetik, euskararen erabilera sozialaren desafioak bultzatutako premia kognitiboek, aldaketaren aldeko haztegia eragin zuten euskalgintzaren barnean. Hein batean, faktore objektibo horiek aurrez ezarri zuten aldaketaren norabidea ere. Eta aldaketak, esparru intelektualari dagokionez, kulturgileen arteko indar harremani buelta eman zien.

“Lehenengo faktorea zen pertsonak, orduan, pertsonen aldetikan, euskalgintzan oro har nahi baldin badezu, (...) esperientziak baita bere pisua hartzen du. Orduan, zu dinamika horretan eragile bezela ibil zitezke, toki batean, bestean..., baina, bueno, ba zure esperientzia horrek, ikuspegi horrek, daukazun infomazioak, irakurtzen dezunak, bizitzen dezunak ba konklusio batzutara eraman zaitzake behintzat, ezta? Eta, orduan, nolabait, pertsona horien, uste det, hausnarketa bat edo “hola ez goaz ondo” edo holako autokritika edo autobalorazio bat egindako bideari buruzkoa (...) Bigarrena, oinarri teorikoena, hizkuntzaren kontuan, nik ezagutzen deten eremuan euskeraren berreskurapenari buruzko oinarri teorikoetan oso flojo geunden (...) corpusak estatusak baino gehiago agindu du hemen urte pila batean. Inportantea zan, eta borrokak kristonak egiten zituzten, h-a non jarri behar zan erabakitzeke, ezta? Eta hori, nik uste det, hizkuntzaren normalizazioari buruzko horretan, ba hizkuntzaren estandarizazioa, eta horixe, batua sozializatzea... Gai horiek, corpusarekin lotuagoak diranak, bueno bere garrantzia dute eta eske ma horretan bere tokia dute, baina hori ez da motorra. Motorra organizatzen degun diskurtso horretatik askozaz gertuago dauden osagien erabilera, gaitasuna orokortu beharra, planifikazioa estatusarena... gauza horiek, ez? (...) Garai horietan hortatik zero (...) Hizkuntzaren normalkuntza parekatzen zan corpusaren gaiarekin eta, orduan hor da, estatusak ia-ia tokirik ez zuen, ez ?” (5. elkarrizketa).

Horiek horrela, abagune berrian euskalgintzak zeuzkan premia kognitiboei erantzun egokia eman zien Txepetxan planteamendu teorikoak. Alde batetik, zentzua eman zien hiztun askok euskaldun gisa zeuzkan bizipenei, ordura arte oharkabean bizi izanda, estatus teorikora ez ezik maila erreflexibora ere iristen ez ziren bizipenei, alegia. Era berean, mugimenduaren egintza kolektiboaren bitartez buruturiko esperientziak kode berrien arabera interpretatzeko oinarri teorikoak eskaini zituen. Hain zuzen ere, Txepetxan lanean artean ezezagunak ziren hizkuntzari buruzko prozesu asko kontzeptu “razionalen” bidez argitara azaldu zela hauteman zuten euskalgintzako eragileek; sentipen hori areagotu egin zen ustez ezagutza legitimoaren kodeetan kontzeptualizaturik zegoelako haren azterketa. Oro har, Sánchez Carriónen lanak “aurkikuntzaren” irudia hartu zuen euskalgintzako kide askoren begien aurrean *-eureka-*, une berean bat egin baitzuten aukera objektiboak, mugimendukideen itxaropenak eta aurkitutako ereduak –“zeuden pertsona batzuk hortan ari diranak eta daukate esperientzi maila urte batzuetakoa, jaten dute oinarri teoriko batzuetatik, eta oinarri teoriko horiek eta beraien bizipenak oso konkordantzia handia daukate: ostia!, es ke hau da nik sentitzen detena, hau da nik egin nahi detena, ez?. Orduan horrek izugarritzko energia du” (5. elkarrizketa)–.

Bestetik, luze gabe, ekarpen kognitibo berriak lehenagotik zetorren euskalgintzaren esparruaren birmoldaketa garrantzitsua azkartu zuen. Bada, mugimendu esparruaren barruko erakunde batzuek euskararen birsorkuntzari lotutako baldintza politikoen aldarrikapena egiten jarraitu bazuten ere, mugimenduan gailentzen ari ziren helburuak hiztun komunitatearen harremanak trinkotzera bideratu ziren. Beraz, alde batera utzi ziren esparru politikoen jardunguneak eta, aldiz, lehenetsi egin ziren eguneroko bizitzako gune sozialak mugimenduaren egintza burutzeko toki pribilegiatu gisa. Bira estrategiko horrek goitik behera aldatu zuen esparrua, bai erakundeei dagokienez, bai eragileei eta haien arteko harremanei dagokienez baita mugimenduak aurrerantzean burutuko zuen egintzaren nolakotasunari ere dagokienez. Hala, bestelako orekak sortu ziren esparruan, bertan ziharduten eragile nahiz kulturgileen artean¹⁶⁰.

“Orduan (...) zeuden pertsona batzuk hortan ari diranak eta daukate esperientzi maila urte batzuetakoa, jaten dute oinarri teoriko batzuetatik, eta oinarri teoriko horiek eta beraien bizipenak oso

konkordantzia handia daukate: “ostial, es ke hau da nik sentitzen detena, hau da nik egin nahi detena!, ez?” Orduan horrek izugarriko energia du, ez? Eta gero, bueno, jarri ahal dira horri adibideak. Eta hor hobiena da pixka bat bizipena, ondo, eta bestea, teoria, baina behar izaten ditugu ereduak, ez? Eta ereduak, ba nik uste det, zorionez bazeudela eta, orduan, horrek eman zion izugarriko sinesgarritasuna pixka bat dinamika berri horiei, ez? Eredua, zein zegon? Ba eredua ikastolak ziran hezkuntza alorrean (...) Eta hori, gainera, hizkuntza komunitatea artikulatzeko balio izan du, iritzi politiko diferenteetako jendea aritzeko toki izan da eta abar, ez? (...) Eta nik uste det horren mimetismo bat izan zirala euskara elkarteak, ez? Bizipen hori badaukagu baino gizarte mugimenduen norabide horrekin ez da nahikoa, hor izan ziren oinarri [teoriko] horiek oso ondo enkajutzen dira egin nahi degun horrekin eta, kasu hortan “Arrasate Euskaldun Dezagun” dago, badakizu, eredu historikoa bere txikian edo bere tamainan, ez?” (5. elkarrizketa).

Aintzat hartuta bere lanak euskalgintzan izan zuen zabalkunde prozesua eta ondorengo eragina, Txepetxek modu oso egokian irudikatzen du mugimendu intelektualaren tradizioak une jakin batean izan dezakeen garrantzia¹⁶¹. Dakigunez, kulturgile bat testuinguru sozial eta instituzionaletan eratzen da intelektual gisa. Mugimendu intelektualek, hain zuzen ere, mugimenduaren testuinguruan eratzen dute beren eginkizuna, nahiz eta zenbaitetan ez duten batere legitimitaterik lortzen beste esparru intelektual batzuetan. Hala, Txepetxek esaterako, euskalgintzako ezagutza interesei erantzun zien une berean eraiki zuen bere nortasun kognitiboa ere, euskalgintzan eta ez beste kultura esparruko instituzio legitimoetan osatu baitzen haren intelektual rola. Ildo horretatik, euskalgintzak agertoki publiko egokia eskaini zion soziolinguistari, ez soilik lana adituei aurkezteko¹⁶², baita haren proposamenak modu zabal batean ezagutzera emateko eta mugimenduaren bitartez egintza bihurtu ahal izateko ere. Horrenbestez, mugimenduak haren lanaz egindako dibulgazioari esker kontsakrazio intelektualerako aukera bermatu zion.

“Bere garaian bere teoriak zabaltzeko nukleo bat sortu zen, momentu horretan deitu zena “Adorez eta Atseginenez””(9. elkarrizketa).

Izan ere, euskalgintza eta antzeko gizarte mugimenduak sozializazio gune garrantzitsuak izan ohi dira. Txepetxek bere lana argitaratu bezain laster eman zion hasiera mugimenduak haren planteaa-

menduen dibulgazio jarduerari. Soziolinguistaren pentsamendua ezagutarazteko berariaz sortu zen lan talde bat, *Adorez eta Atseginez* izeneko mintegia. Zabalkunde ahaleginean, bestalde, era askotako baliabideak erabili ziren: liburu aurkezpenak, bideoak, ikastaroak, aldizkariak –Arrasateko *Jazten* aldizkariak egindako lana azpimarratzekoa da– eta beste batzuk. Burututako sozializazio saioa handia izan zen, ezbairik gabe.

Dibulgazio jardunean prozesu kulturalak eta politikoak agertzen dira nahasirik. Batetik, dibulgazioak erakusten digu era askotako eragile kulturelek parte hartzen dutela mugimendu esparruan, besteak beste sortzaile izan barik zabalkunde lana egiten duten kulturagileek. Azken horiek, bestelako intelektualengandik jasotako kontzeptualizazio teorikoak ezagutzera emateaz arduratzen dira, ezagutza espezializatuak kultura arrunta –ebidentzia sozial– bihurtu daitezzen. Jakintsuen eta ezjakinen arteko zubiak eraikitzeko helburuarekin sortzen den arren, dibulgazio lan horrek aldaketak eragiten ditu beti hasierako mezuan. Horren arrazoiak, lehenik, kulturalak dira, zabalkundeak eskatzen duen sinplifikazioa ia ezinbestekoa izaten baita.

Bestetik, baina, mugimenduetan egindako dibulgazioak dimentsio politikoa ere badauka. Bada, diskurtsoa mugimenduak burutu nahi duen egintzan integratzea izaten da dibulgazioaren azken helburua, azken batean egintza hori arrazoiz elikatzeko eta legitimatzeko. Hain zuzen ere, prozesu horretan txertatzen da dibulгатzailearen lana, dibulгатzaileak itzulpen kognitibo bat egiten baitu ezagutza espezializatutik kulturara, gero mugimenduak praktika sozialen eraldaketa proposatu dezan. Haatik, teoriatik egintzarako bide hori ez da oztoporik gabe betetzen. Ustez abiaburutzat hartu diren printzipio teorikoak ez dira beti bat etortzen mugimenduaren aukera politikorako egiturak, haren unean uneko premiek eta interes estrategikoek ezarritako beste baldintza batzuekin. Hainbat intelektualen proposamenak eta lanketak interpretatu eta egokitu egiten dira mugimenduen jarduera kognitiboan, eguneroko egintza politikoei hala eskatzen dutenean. Sarritan, intelektualaren hasierako proposamen teorikoak mugimenduan “desitxuratutako” oinarri estrategiko gisa itzulita agertzen direnean, intelektualak ezin izaten du bere etsipena ezkatatu. Txepetx dugu horren adibide¹⁶³.

Dibulgazioaren dimentsio politikoa argi geratu zen euskalgingtzaren sektore garrantzitsu batek izan zuen aldaketan. Txepetxen teoriak

euskal komunitatean eta haren trinkotasunean jarritako arretak mugimenduaren orientazioa aldarazi zuen luze gabe: herri elkartearen dinamikan islatu zen inon baino gehiago euskalgintzaren estrategia despolitizatu berria. Haren teoriaren arrakastaren itzalean, tokian tokiko erkidego euskalduna biltzera eta hari zerbitzuak eskaintzera zuzenduriko elkarteak ugaldtu ziren hainbat herritan. Elkarre horiek Gipuzkoa eta Bizkaiko udalerrri ertainetan sortu ziren batik bat, hau da, kontuan hartzeko moduko euskal komunitateak barnean hartzen zituzten herrietan. Hainbatetan, udal administrazioaren aukera politikoa aldekoa zenean, udaletako euskara-zerbitzu sortu berrien bultzadaz edo udaletako euskara teknikarien ekimenez ere eratu ziren. Ia beti, haien laguntzaz jardun zuten eta finantzaketa publikoa eskuratzen zuten¹⁶⁴.

Nolanahi ere, Txepetxeren proposamen teorikoek ondorio praktikoa izan zituzten. Egia da esperientzia praktikoa horiek aukera politikorako egitura baten barruan jardun behar izan zutela. Baina, aldi berean, sortutako interpretazio marko berriak hasierako egitura zurrun hori kulturalki moldatzen eta egokitzen lagundu zuen.

“Horrek eragin ditu elkarte asko (...) Bi bidetatik egin izan dira elkarteak. Bide bat izan da (...) erakunde hauek euskaraz guk egingo ditugu. (...) Baina baita ere gertatzen zen buruz jantzi eta gero sortzen zirela elkarteak” (9. elkarrizketa).

80ko hamarkadako krisialdi osteko euskalgintza azpiesparru gero eta bereziago bilakatu zen euskal kulturagintzaren barruan. Txepetxeren proposamen teorikoek izandako dibulgazio moduak eta udalerrietako euskara elkartearen sorrera prozesuak erakutsi zuten zenbaterainoko ziren garrantzitsuak mugimenduko parte-hartzaileek metatuta zeuzkaten baliabide kulturalak.

Hezkuntza mailan islatutako habitus kulturala gizarte mugimenduen berrietako aktibismoa baldintzatzen duen faktore erabakigarria da. Ildo horretan, azken urteotako euskalgintzan aktibismoa jaitsi egin da jende kopuruaren partaidetzari dagokionez; baina, giza baliabideak kopuruz urritu egin diren neurri berean ugaldtu dira kualitatiboki partaideen gaitasun kognitiboak. Txepetxeren teoriaren argitalpenaren ostean mugimenduak martxan jarritako sozializazio zabalak gaitasun kognitiboak zeuzkan parte-hartzaileen ezinbesteko jarduna eskatu zuten. Era berean, herri elkartearen sorrera prozesuak ere, gizarteko talde prestatuen partaidetza utzi zuen agerian. Batetik, herri elkarteak

prestakuntza intelektuala zeukaten taldeen ekimenez osatu ziren. Bestetik, taldeok “prestigidun eliteak” baliatu zituzten osatze unean, eliteek gizartearen aurrean zeukaten “izen ona” –kapital sinbolikoa– hiztun komunitateari eta mugimenduari berari transferitu ziezaieten. Halatan, euskalgintza Txepetxen aroaz eta herri elkartearen aroaz geroztik, inoiz baino gehiago irudikatu da gune kognitibo gisa, bere oinarrizko parte-hartzaileen ezaugarriei dagokienez ere.

“Euskera elkarte bat, ba kasura gure herrikoa, sortzen ari ginen pertsona gutxi batzuk. Pertsona horiek ezaugarri batzuk bagenituen, eta beste edozeinek egin zezakeen? Ba igual bai, baina niri oso zaila iruditzen zait hori horrela gertatzea. Daude hor zirkunstantzia batzuk: inor ez da inpreszindiblea (...) baina osagai batzuk juntatzen ez badira, nik uste det, ez duela horrek indar nahikoarekin... (...) Bata zen esperientzia. Bi, zera, oinarri teoriko batzuk, hausnarketarako bide bat, formazioa, ez dakit, maila kulturala deitu. Edo maila kulturala baino, gai horren inguruan hausnartzeko eta... jardun bat egin izana. Eta hirugarrena, nik uste det energia, ez? Nahi izatea, baloreak... Nik uste det, e..., segun zer pertsona klase zaren, kezka batzuk ez direla sortzen zure barnean, o sea, behar dutela, ez dakit genetikoak dan, ez dut hainbeste esango, baino, bueno, ba pertsona batzuk, gai batzuen inguruan aurrera joateko aukerarik ez dute ikusi izango, eta beste batzuk, berriz, kezka soziala beti izango dute, ezta? Klaro, hori egon daiteke gauza askorekin lotuta, baina hiru osagai horiek nik uste det baietz, eh? Energia bat, nahi izate indartsu bat barnean, esperientzia bat eta oinarri teoriko batzuk, hausnarketarako joera bat batez ere” (5. elkarrizketa).

Orain arte ikusi denez, euskalgintza historian zehar osatu den gune kognitibo garrantzitsua izan da; bertan aldaketa soziala –euskararen berreskurapena– bultzatzeko prest zeuden eragileak bildu dira eta horiek aldaketara zuzendutako ezagutzazko balia bideak sortu eta moldatu dituzte. Bestela adierazita, euskalgintzan egintza eta ezagutza uztartu dira.

Euskalgintzaren oinarrizko dimentsio kognitiboa etengabe islatu da bere jardueran. Haatik, mugimenduaren esparruan errealitatearen interpretazio markoak eraberritu diren uneetan –hau da, krisialdietan– nabarmenago ikusi da ezagutzaren kategoriaren funtsezkotasuna eraikuntza lan horretan. Sarritan, ezagutzaren kontzeptua akademian edo esparru zientifikoan sortutako ezagutza legitimoarekin parekatu izan da, eta harekin soilik; ildo beretik, kulturgilea, akademian

kontsaktururiko profesionalarekin identifikatu da behin baino gehiagotan. Halaz ere, euskalgintza eta antzeko mugimenduek abian jarritako “praxi kognitiboak” aukerak eman ditu akademiatik kanpo landutako pentsamenduak zabaldu eta mugimenduaren barneko intelektual rolak garatu daitezten¹⁶⁵. Izan ere, beste mendeko mugimendu etno-kulturalen antzera, instituzio kultural legitimoen tokia hartu behar izan du beretzat mugimenduak. Hartara, euskal gizarteko bilbe instituzionalaren behin-behinekotasuna kontuan hartuta, euskalgintza behartuta egon da bere ondare kognitiboa egintza kolektiboaren tesuinguruan metatzera eta ez ohiko instituzio kultural legitimoen barnean. Era berean, mugimenduaren egintza kolektiboari lotuta eratu behar izan ditu oraintsu arte premiazkoak ziren intelektual rolak ere.

“Zenbat prestakuntza egiten da ekinetan? Ez da bakarrik prestakuntza bat ekimenetik kanpo egiten dana, akademikoki adibidez, unibertsitatearen bitartez egiten diren prestakuntzak, baizik gero daude zenbat prestakuntza ekimenetan bertan eginez lortzen direnak. Praktikan egiten direnak, hori da. Eta gure egoera extraordinario honetan bigarren bide hau da ezinbestekoa, zeren guk, akademikoki, soziolinguistika, adibidez, euskararekiko egoerarekiko ikasketak, gure unibertsitatean ez daude oso presente esango nuke, soziolinguistika ikasgaia non dago? Zer titulazio barrutan? Oso gutxi, oso eskas. Hori da paradoxa bat, nik uste det gure unibertsitatean daudela paradoxa batzuk, eta horien artean da nola EHU izan eta Euskal Herriko problematika berezi batzuekiko daukan isiltasuna. Nik uste det dala paradoxikoa. Horregatik eskerrak ez dan bakarrik bide akademikoa posible prestakuntza lortzeko, eta ekimenetan sartuz, eta ekimenetan eginez, eta praktikaren bitartez zenbat prestakuntza lortzen da, zeren bestela gurekikoa jota zegoen aspaldidanik nere ustez, zoritxarrez. Esaten det..., penarekin esaten det, zeren ni mundu akademikoan nago, nere lan nagusia, gutxienez kuantitatiboki, dago unibertsitatean sartuta eta nik uste det unibertsitatean halako ikasgaiak, adibidez, exenplu konkretu bat jartzeagatik, halako ikasgaiak daude gehiago ausente presente baino (...) Orduan eskerrak daudela beste bide batzuk prestakuntza hori lortzeko, zeren egilerik gabe ez legoke ekintzarik” (1. elkarrizketa).

Ezagutza egintza kolektiboaren guneetan sortu izanak erakusten digu zein modu trinkoan lotu diren euskalgintzaren barnean egintzarako joera eta ezagutzaren erabilerarako premia. Beranduko Modernitateko beste gizarte mugimenduetan bezala, dagoeneko ez da

ulertzen ezagutzarik gabeko egintzarik, ezta egintzarik eskatzen ez duen ezagutzarik ere. Ezagutza/egintza zirkularitatea gizarte-praktika garaikide guztietan txertatuta agertzen baldin bada ere, bereziki adierazgarria da gizarte mugimenduetan.

Alde batetik, euskalgintzako eragileek era guztietako baliabide kognitiboak baliatu dituzte egintzara –zehazki, gizarte aldaketara– zuzendurik dauden errealitatearen interpretazio markoak eraikitzeko. Ildo horretan, tradizio askotako kultur-gileak egon dira euskalgintzari lotuta, unean uneko ezagutzak moldatzen mugimenduaren alde¹⁶⁶. Baina, haratago joan dira euskalgintzaren eragileen ahaleginak. Izan ere, mugimenduaren parte-hartzaileen praxi-kognitiboa ezagutza sozial berriak praktika sozialetan txertatzera bideratu da. Beste modu batean adierazita, hizkuntza praktikak aldatzea izan da euskalgintzaren azken helburua. Hartako, mugimendua bera laborategi sozial gisa eratu da: azken urteetan, hain zuzen ere, hiztun komunitatearen esparru txikiko jarduera guneak osatu ditu herrietako euskara elkarten bitartez, eta komunitatea trinkotzeko baliagarriak izan daitezkeen era guztietako zerbitzuak eskaini ditu. Ezagutzatik egintzara eta egintzatik ezagutzara doan ibilbide horretan atzeraelikaduran oinarritutako ohiko sistema bat atzematen dugu.

2.3.2.1. Autonomiaren aldeko diskurtsoa

“Lo euskaldun aún no ha alcanzado una formulación política independiente. Construirlo es la llave maestra de la salida de la situación. Y para construirlo los euskaldunes deben abandonar las falsas perspectivas de formulaciones políticas que los atomizan, los disuelven y los suplantán, y unirse en una nueva perspectiva que antepone a cualquier objetivo el restablecimiento de la nación Euskaldun. Sólo a partir de él, y ya desde el euskara es posible para los euskaldunes desdoblarse en opciones políticas diferentes, del signo que sea, pero siempre con la conciencia firme de la unidad en lo euskaldun (...) Para el euskara el problema no es de alternativas (estado vasco/estado español), sino de prioridades (vivir/no vivir). El euskara necesita vivir, garantizar su supervivencia. Y para ello por el momento la única alternativa consiste en que los euskaldunes, compactándose de nuevo, conduzcan a su euskara desde la sub-vivencia a la vivencia más plena” (Sánchez Carrión, 1987a: 272).

90eko hamarraldian Txepetxen ekarpenen inguruan euskalgintza zabaltzen hasi zen diskurtsoa mugimenduaren interpretazio marko

berriaren oinarria izan zen. Txepetxek euskararen berreskurapenerako eskaintzen duen eredu teorikoa konplexua den arren, oinarrizko ideia batzuetan funtsatzen da. Lehenbiziko ideia da berreskurapenerako ezinbestekoa dela hizkuntza komunitatearen kohesioa erdiestea, zehazkiago, komunitate horren oinarrizko nukleoa eratzea. Hizkuntzaren nukleoa –edo “espazio sinbolikoa”, Txepetxen terminologian– hitzun osoek osatzen dute, hau da, jatorrizko kultuek eta heldu jatorrizkotuek. Nukleo horren osasunaren pentzudan dago, haren ustez, hizkuntzaren bizitasuna eta garapena historiako une jakin batean (Sánchez Carrión, 1987a: 65; 1987b: 42). Hartara, ezein desberdintasun eta barne zatiketaren gainerik nukleo hori egituratzea eta trinkotzea izan behar du berreskurapen prozesuaren lehen urratsa.

“Euskarazko komunitatearen edo erkidegoa sortzeko konplementua Txepetxek garatu zuen. Hori nik beste inon ez dut irakurri. Eta horren egile dira euskara elkarteak, egileak, ez bakarrik, noski (...) Hor dugu, zentzu horretan, sektore edo nukleo edo euskarazko komunitatearena (...) Bi gauza diferente dira oso (...) Euskal Herria lurralde modura eta euskaldungo erkidegoa (...) Txepetxek adierazi zuen bere teoriarekin (...) nukleoa non zegoen, euskarazkoa” (9. elkarrizketa).

Autorearen hizkuntzen ikaskuntzaren teoria izango litzateke bigarren puntu garrantzitsu bat. Hein handi batean, hizkuntza ikaskuntzaren prozesu naturala etenda dagoenez, aipatu nukleoa osatuko duten hitzun osoak lortzeko bi bide aurreikusten ditu Txepetxek. Bata, ahulduta dagoen bide naturala, erabileratik ezagutzara eta motibazio-ra doana. Bestea, prozesu kulturala, motibaziotik abiatuta, ezagutzara eta erabilerara daramana. Hartara, Txepetxek hizkuntzaren normalizaziorako proposatzen duen ibilbidea, ibilbide kulturala da, batik bat. Izan ere, motibazioaren eta ezagutzaren suspertze horrek lan intelektualaren eta interbentzio sozialaren premia eskatzen du.

“Motibazioa, ezagutza eta erabilera, sekuentzia horretan eta, hori, Txepetxen eskemetan, ez da ibilbide naturala, da ibilbide kulturala, eta hizkuntza baten normalizazio prozesua, inpulso hori, intelektualki ere, kulturala da, ez da naturala, ez da, praktikaren poderioz bultzatzen da eta praktikak ere eratortzen ditu beste guzti horiek. Prozesua kulturala da, nahi kontziente bat behar da, hori argumentazio eta oinarri batzuekin egin behar da eta, gero egin egin behar da” (5. elkarrizketa).

Aurreko planteamenduei lotutako hirugarren ideia nagusi bat ere atzematzen da Txepetxen planteamenduetan, nahiz eta ideia hori ez den beti esplizituki formulatuta agertzen. Oro har, esan daiteke hizkuntzaren bizitzan eragiten duten faktore objektiboak bazter utzita, hizkuntza gauzaten duen hiztunaren kontzientziazte lanek merezi dutela arreta haren kontzeptualizazioan. Hartara, gizabanakoa eta bere kontzientzia dira Txepetxen abiapuntuak hizkuntza aldaketa ulertzeko unean, eta ez gizarteko makroegiturazko faktoreak, boterearen egiturak barne. Ildo horretan, haren ustez, hizkuntza baten minorizazioa eragiten duen diskriminazioa ez da izaten batez ere legeak dakarren diskriminazioa, buruko diskriminazioa izan ohi da oroz gain. Horregatik, haren ustez, ez du zentzurik ezta eragin praktikorik ere, hizkuntza bat legearen aldetik beste baten pareko egiteak, –euskalgintzako zenbait eragilek marko juridikoaren aldaketa eskatzean egiten zutenaren ildotik– baldin eta bere hiztunak ez badira adimenez aldatzen¹⁶⁷. Gizabanakoen, alegia, hiztunen kontzientzia aldaketa dago gizarte aldaketa prozesuaren abiaburuan. Txepetxen hitzetan, “abiapuntua indibiduo da ailegapuntua, euskara, eta ukipen-puntua, berriz, hizkuntz-komunitate euskalduna” (Sánchez Carrión, 1987b: 63).

Nola gertatzen da prozesua Txepetxen azalpenean? Haren aburuz, gizabanako baten arrazoizko motibazioa hiztun talde handiago batek hartzen du: motibazio horren bitartez zirrara eragiten dien beren buruen pertzepzio bat hartzen dute euskaldun osoek. Haren ondorioz, hiztunen nuklearizazioa edo trinkotzea sortzen da, alegia, berregin egiten da hizkuntza komunitatearen “espazio sinbolikoa” deritzona. Eta espazio sinbolikoa berregitean, hizkuntza komunitatea aglutinatu egiten da; prozesu horrek, benetako “ekintza- eta erabaki-botere” bihurtzen du komunitatea, eta “bizirik irauteko gogo” batez hornitzen ditu hiztunak (Sánchez Carrión, 1987b: 63).

Euskarazko hiztun osoen nuklearizazioa eragin behar duen faktorea ideien mailan kokatzen du Txepetxek, zalantza barik. Ildo horretatik, uste du bere paradigma aurkeztu artean ez dela hiztun komunitatearen trinkotzea probokatzeko gauza izan den euskarari buruzko arrazoizko motibazio bat ere sortu. Hain zuzen ere, uste osoa dauka berak proposaturiko diskurso berriak falta zen motibazio sendo hori eskaintzen duela euskaldunen komunitatea behingoz egitura dadin, funtsean, hizkuntzen arteko berdintasunen arrazoiak eta hizkuntzen garapenaren printzipioak agerian uzten dituelako (Sánchez Carrión, 1987b: 64 eta hur.).

Horraingo Txepetxek esandakoa. Mugimenduaren baitako adituek eta, bereziki, sortzen ari ziren profesional gehienek, abegi onez hartu zituzten haren eskaintzak egintza kolektiboaren euskarri teoriko razional gisa. Ahots kritikiko batzuek boterearen abstrakzioa egiten zuen eredu idealista eta indibidualistatzat jo zuten arren haren proposamena¹⁶⁸, ñabardurak ñabardura, Txepetxek lanak sortu zituen iritziak, orokorrean, oso aldekoak izan ziren, nabarmenki euskalgintzaren barruan zeregin “praktiko” gero eta garrantzitsuagoak berenganatzen ari ziren eta tresna eraginkorren bila ziharduten aditu berrien artean, alegia, euskara teknikarien artean¹⁶⁹. Euskara teknikariek eta, oro har, profesionalen taldeek gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari ziren euskalgintzan. Hartara, euren interes kognitiboak ere, gero eta definituagoak ziren. Garrantzi progresibo horrek kulturgileen arteko oreka aldaketa bat adierazten zuen esparruan, baita profesionalizazio prozesu bat ere. Hala, Txepetxek proposamena tresna ezin egokiagoa izan zen udal esparruan hiztun komunitateari begira jardun behar zuten administrazioko profesionalentzat. Luze gabe, Txepetxek lanak euskalgintzaren egintza bideratzeko euskarri teoriko-ideologiko bihurtu ziren. Bestela adierazita, mugimenduaren ezagutzazko dimentsioa osatzen lagundu zuten aurrerantzean. Txepetxek hizkuntzen ikusmolde ekologikoa eta hizkuntzen arteko berdintasunaren printzipioa hartu zituen abiapuntutzat mugimenduak, eta hiztun komunitatearen berreraikuntzan jarri zituen hizkuntzaren berreskurapenaren aldeko indarrak –hizkuntza hiztun komunitatearen baitako praktikan ez beste inon gauzatzen dela gogoan hartuta–. Helburu hori lortzeko, komunitateko partaideen borondatea sustatzeko premia sortu zen. Hizkuntza gaitasun osoa eta hizkuntza kontzientzia zutenek osatu behar zuten sustapen prozesuaren nukleo dinamizatzailea –“gune simbolikoa”–. Gutxiengo militantearen eguneroko praktikaren bitartez gizarteko gainontzeko kideen hizkuntza kontzientzia eta jarreraren aldaketa sorrarazi gura zen, hizkuntza komunikaziozko funtzioak berreskuratzearekin batera –hizkuntza testuinguru sortzaile eta produktiboetan erabiltzean– gizarte arau eta baldintzapen objektiboak gaindituko zirelakoan.

Baina, hiztun komunitatea berreraikitzekeo hiztunek euskara bil-gune bihurtu behar zuten ezin desberdintasunen gainetik. Esan nahi baita, adostasunak eraiki behar zituzten hizkuntzaren inguruan. Hartako, “hizkuntzaren auzia” marko ez politiko batean kokatzeko ahalegina egin beharra zegoen egoera berriak eskatzen zuen praktika

bideragarria izan zedin. Horrenbestez, bai instituzionalizazio politikoak mugimenduari ezarritako aukera politikorako egitura objektiboak bai Txepetxek eskaini zuen diskurtsoak bat egin zuten euskalgintzak jorratuko zuen erreferentzi marko berriaren barnean. Mugimenduak landu zuen ikusmolde eraberrituan, hizkuntzaren inguruko diskurtsoa despolitizatu egin zen erabat. Proiektu politikoetatik at dagoen kultura esparru autonomoa eratu gura izan zen euskara ardatzat hartuta, uste baitzen beronen inguruan estrategia politikoen gaintetik dagoen adostasun sozial emankorra lortu zitekeela normalizazioaren bidean. Hizkuntzaren “politizazioak” zekarren salaketa politikoak –legediaren mugak, instituzio politikoen erantzukizuna...– eta adierazpen erreibindikatzailleak alde batera utzirik, moderaziora jo zuen mugimenduaren diskurtso nagusiak (Larrinaga, 1996: 164). Hitzunei zegokienez, hizkuntzaren berreskurapena proiektu soziopolitikoetatik bereizita zegoen prozesua zela onartuz, hizkuntzaren eta nazioaren arteko loturaren abstrakzioa ere egin zen, jarrera alderdikoiak lortu beharreko adostasun sozialaren kaltetan joan ez zitezen. Bide horretatik, ikusmolde berriak hurbilago jarri zuen euskalgintzaren praktika administrazio autonomoaren estrategiatik.

“Hor joan ziren askatzen ba... puntu potolo bat, helduen euskalduntze-alfabetatzearena, orduan ba, urte haien inguruan jende asko ibili ginenez be klabea elkarlana izan zen, ez? Gizartean eragiteko hain txikiak izanik, perspektiba horretatik ere, aizue, edo gizarte mugimenduak eta instituzionalak norabide berean lan egiten degu, elkarlanean, eta hala ere, oso zaila da gaur estadistikoki planteatzen degun helburua inprobablea da, nik beti hori esaten det (...) Ta hor nire ustez (...) askatu zirala beste bi puntu potolo, ezta? Bata helduen euskalduntze-alfabetatzean, ba bueno, mahai batean eseri ziran, akordio bat egin zuten, plan estrategikoak urte batzuen inguruan ba beraien ba zituzten arazoak konpontzeko. Eta bestea zan egunkariarena... Helduen euskalduntzean bezela, urte batzuk lehena, ba bi proiektu zeuden, nola ez, bata instituzionala, bestea ez... Hain gutxi gera, ez da saltzen nahiko egunkari, baino egingo ditugu. Eta orduan bueno, hori ere, ez dakit askatu, bueno bai, ba beste bide bat hartu zuen eta, bueno, ba elkar onartze batzuk egin ziran eta orduan, ba bueno, nik uste det 90. urtean zai gaude, ezta? Egoera politikoarekin ere lotuta. Ematen du bestela, horrek askatu egiten duela beste guztia, ta nik uste det lortu degula ta oraindik asko falta zaigula, ez? Lortu degula esan nahi dizut hizkuntzaren berreskurapena alderdikieretatik kentzen; parentesi bat egin behar da, alderdiek

zeregin handia daukate hizuntzaren berreskurapenean, eh? Baina ez norberaren protagonismotzat hartuz (...) Alderdikerietatik kenduta gauza asko lortu da. Lortu da diskurtso horiek pixka bat..., diskurtso eta praktika horiek bereiztea (...) Eta bueno, hor aurrerapausoak eman ziran baino ez erabatekoak, ta hor 90. hamarkadan nabarmenduz, ja hasieran, oso argi dago, oso bisuala da, egoera baretzen zanean, harreman instituzional eta gizarte mugimenduarenak positiboagoak eta sinergia gehiago lortzen ziran” (5. elkarrizketa).

Bestalde, aurreko garaiko diskurtso politikoaren barruan hizkuntzari egotzi zitzaion balio politiko-sinbolikoaren ondoan, hizkuntza erabileraren garrantzia azpimarratzen zuen diskurtso berriak. Hizkuntzari ezin baitzaio ikur gisa sinbolikoki eutsi, hura ez bada birtsortzen eguneroko bizitzan garatzen diren mintzamen egintzetan. Hortaz, diskurtso berriaren arabera ez zen nahikoa atxikimendu sinbolikoa, hiztun gisa burututako praktika baino.

Horiek horrela, erreferentzi marko berrian ezagutzatik erabilerara eta corpusetik estatuserako jauzia egin zuen mugimenduak hizkuntzari dagokionez. Ildo horretan, mintzamen egintzak gauzatzen diren gune pribilegiatuak jaso zuten mugimenduaren egintza kolektiboaren arreta: hain zuzen ere, mintzamen egintza horiek gizakien egunerokotasuneko bizitzarekin batera burutzen dira, hiztunaren harreman sozialak hezurramitzen diren gunetan. Hartara, hiztunaren bizileku hurbila, herria, izan zen harrezkero euskalgintzarentzat hizkuntza berreskurapenaren barrutia, mintzatzaileak bertan burutzen baitu eguneroko bizitza. Herria hiztunen elkarrekintza gunea izanik, euskara elkarteentzat hizkuntza arau nagusiaren aldaketarako laborategi sozial bihurtu zen bertan garatzen den eguneroko bizitza. Hala, tokian tokiko taldeek eguneroko elkarrekintza sareetan eragina izateko ahaleginetan hasi ziren, “hitzarmenen” formula eta beste batzuk erabiliz.

Ildo berean, bigarren jauzi bat ere nabarmentzen da euskalgintzak sortutako erreferentzi marko berrian: hain zuzen ere, mugimenduaren egitasmoa makroproiektuetatik egunerokotasunaren mikroesparruetara jaitsi zen, handixek abiatzeko tokian tokiko euskaldungoaren artikulaziorantz eta batasunerantz. Izan ere, interpretazio horren arabera, hizkuntzaren normalizazioaren erantzukizun nagusia hiztun komunitateari dagokio (paradoxikoki, areriorik gabeko mugimendua dugu¹⁷⁰). Horrenbestez, hizkuntza komunitatea da, egintza kolektiboaren bitartez, hizkuntzaren egoeraren ardura hartu behar duena. Ez da aski instituzio politikoaren interbentzioa; normalizazioaren lehen

urratsak emateko aurrebaldintza, euskaldungoa trinkotzea eta konzientziaztea da, euskaldunen komunitatea artikulatzea eta eraikitzea. Tokian tokiko harreman xumeetatik hasiz. Tokian tokiko komunitateak osatuz. Euskarari eta euskalgintzari esparru politikotik aparteko autonomia aitortuz.

“Nik uste eragin..., ekarpen printzipala Txepetxena. Txepetxen kasua kuriosoa da, nolabait izan dalako, zelabait, diskurtso bat ez dana inoiz aitortu, behar bada Txepetxen zirkunstantzia pertsonalagatik, bera ez izatea euskal herritarra eta, nolabait, euskal herritartutako pertsona bat izatea eta, bueno, eta beste arrazoi konpleju batzuegatik igual aitortu zaiona baino eragin gehiago eduki du modu inplizituan, ez? Txepetxek. Eta nik uste dut bere diskurtsoa oso diskurtso sendoa izan dala, eta ikusarazi duela beti apur bat euskalgintzaren autonomia eta estrategia propio baten beharra, ez? Eta nik uste horrek eragin duela euskara elkarteen, AEDren sorreran nabarmen, gero euskara elkarteen mugimenduan ere nabarmen eta gero, poliki-poliki, nik uste, zelabait, euskara elkarteen mugimendua, Bertsozale Elkartea, ez dakit... sortu zirela bi polo horien erdian nolabait esanda; polo... ezker abertzaleko egitura inbisible horiek kontrolatuko poloaren eta, nolabait, lana instituzionalizatzer eta publikatzer eta, nolabait kontrolatzer zeraman polo horren artean sortu zirela. Eta nik uste dut, poliki-poliki ba horien diskurtsoa nagusitu dela, ez? Baita ere, ba igual, biek, beste bi poleok ikusi dutelako, noski PNV konturatu dela baita ere, bueno publikatzearen bidea oso laburra zala, ez zeukala..., osea, gizarreak hartu dezala protagonismoa gauza hauetan, ez? Eta beste poloa ere konturatu dela ba ez dela posible ez badu diskurtso politiko hertsia batek kontrolatuko, zera, hortik euskalgintzari heltzea ez zela posible; ez dakit zenbateraino benetako borondatez, beraien artean diskurtso aldaketa egon dalako edo halabeharrez, ez? Eta ordun, nik uste dut esanahi oso interesantea daukala, eta da bere lekura, autonomiaren lekura, nere ustez behintzat, lekura etorri dala apur bat euskalgintza. Hala ere, nire irakurketa da oraindik ez dutela lortu garai bateko diskurtsoak gainditzea. Uste dut oraindik ez duela lortu benetan autonomiadun bisio bat, ez dakit, gauzak egiteko modu bat..., eta zentzu hortan nik beti izan dut..., orduan Kontseiluak lastre gehiegi dituela (...) Nire irakurketa hori da, bueno, barrutik apur bat, barruan egon nintzen Kontseiluaren sorreran eta, pixka bat hori ikusi nuen, ez? Ez nuen ikusten benetan, bueno, ba gauzak egiteko modu berri bat nagusitzen zenik eta, bueno, apur bat Lizarra-Garaziren garaian etorri zen euskalgintza, baina nolabait hor ere ba, bueno, Lizarra-

Garazira etorri zen euskalgintza ere oso mimetismoz, ez? Giro politikoak hartzen zuenarekiko mimetismoz eta ez benetan autonomia beregain batekin, ez? Baina, bueno, igual denbora behar da, denbora behar da...” (2. elkarrizketa).

2.3.3. Mugimendu esparruaren zatiketaren adierazpenak

“Hor ibili dira pertsona batzuk elaborazio batekin eta esperientzia batekin. Hor sortu da nolabaiteko pentsamendu bat, sortu zen euskara elkarteen inguruan, Txepex eta abar. Txepetxena izan zen ahalegin bat nolabait hizkuntza hartuta pentsamendu autonomo eta propio bat hizkuntzaren inguruan sortzeko, nik uste dut ahalegin handi bat izan zela alde horretatik. Gero seguraski gauza askotan kale egin duena (...) Hor, dudarik ez, badago elaborazio bat, hor badira pertsona batzuk horretan ari direnak, esperientzia dutenak. Edozein kasutan, konfliktu ideologikoa ere hor dago, segitzen du. Zeren gertatzen da ba nolabait momento batean desideologizazioaren akusazioa (...), hau da, mugimendu horiek, Txepetxenguztiak, euskara elkarteak eta horiek guztiak, ba nolabait desideologizatutako mugimenduak bezala kontsideratuak izatera pasatzen dira beste batzuen aldetik. Orduan konfliktu hori ere ez da erabat superatzen. Hor segitzen du. Nik uste dut 80. hamarkadan eta 90. hamarkadan, oraindik konfliktu hori gertatzen da eta egia da oraindino eragina daukala. Oraindik eragina dauka. Gaur egun ere eragina dauka” (4. elkarrizketa).

Arestian esanenez, 80ko hamarraldiaren bukaeratik aurrera beste ziklo bat zabaldu zen euskalgintzan. Halaz ere, aro horretan ez zitzaion amaiera eman aldaketa politikoak euskalgintzan sortutako banaketari. Txepetxenguztiarekin batera mugimenduan gailendu zen interpretazio markoaren nagusitasunak ez zuen ekarri hizkuntzaren ikusmolde “politikoaren” desagerpena. Bi ikusmoldeek iraun zuten esparruan, bata eta bestea indar desberdinez horniturik egon arren. Hala, euskalgintzaren esparrua zatitu egin zen maila kognitiboan eta (politiko)ideologikoan, bereizi egin zen maila estrategikoan eta dibertsifikatu egintza moldeetan ere. Hori guztia, azken urteetan, kultur gileen arteko eztabaida eta adierazpenetan adierazi da, baita erakunde eta elkarte askotariko helburu, egintza molde eta estrategietan ere. Funtsean, euskalgintzaren nolakotasun politikoa eta kulturala –hartara, bere autonomia– ulertzeko hainbat modu egon dira lehian.

“Hor badago betikoa, ezta? Bata, euskara ez da politika, euskara ez da politikarekin nahastu behar. Euskara ez da partidismoarekin nahastu behar. Euskara oso tema politikoa da eta kultura eta kultur-gintzan diharduena nahiz eta nahigabe politikagintzan ari dela, polisaren hitzik zabalenean (...) “Ez, ez, ezin da politikarekin nahastu, politikarekin nahastea ez zaigu komeni”. Erabat kontrara. Beste gauza bat gero nik (...) hori esan behar dudan edo hori esanda jendea erakarri ordez uxatu egingo dudan eta ixildu egingo naizen. Nik neuk pentsatzen dut euskalgintzan egiten den guztia oso-oso politikoa dela eta, are, aurrerantzean, gero eta politikoagoa izango dela gainera. Hori oso oso garbi daukat. Beste gauza bat da betikoa, partiduak eta (...) gure Euskal Herri honetan dagoen zera, ezta? Ba partidu politikoei askotan dena zeharkatzen dute, eta orduan zailtasun ikaragarria dago partiduetatik edo partiduen unean uneko konsignetatik aparte proiektuak aurrera ateratzeko. Hori nik bizi izan dut eta jarraitzen dut bizitzen. Baina horrek eta horrenbestez esatea kulturari aritu ahal zarela ikutu gabe politika uste dut falazia bat dela” (10. elkarrizketa).

Nolanahi ere, euskalgintzak ezin izan du kulturako beste azpiesparru batzuek, literaturak esaterako, azken urteetan lortu duten autonomia maila erdietsi. Izan ere, euskal literaturaren esparruak “arazo linguistikoa” gaingitu duen heinean atzeman du bere beregain-tasuna. Baina, euskalgintza zuzenean lotuta dago hizkuntzaren auziari. Eta hizkuntzaren bizitza interbentzio politikoaren –edo interbentzio ezaren– mende dago. Horiek horrela, Euskal Herriak bizi duen egoera politikoak erabateko eragina dauka hizkuntzaren gorabeheretan, besteak beste, euskalgintzaren delako autonomian. Hala, kulturaren autonomia zalantzatan geratzen da gatazka politikoak esparruaren mugak igarotzen dituen uneetan. Eta hori oso sarri jazo ohi da euskalgintzaren barnean. Autonomi urratzea ohikoa izan da euskal esparru politiko autonomikoan burututako barneko gatazkek hizkuntzaren eta kulturaren eremura jauzi egin dutenean. Euskal nazionalismoaren zatiketak eta indar politiko abertzaleen eta espainiarren arteko liskarrek eragotzi egin dute kulturari buruzko adostasuna –bereziki hizkuntza politikan¹⁷¹. Beste alde batetik, ikusgarriagoak izan dira estatu esparrutik sortutako konfliktu politikoek euskalgintzan eragin dituzten astinaldi puntualak. Izan ere, euskara eta euskal kultura nazionalismoaren ondareztat ez ezik ETaren adierazpentzat ere hartuak izan ondoren, trantsizioaren ostean ere estatu politikak zigor politiko modura erabili du behin baino gehiagotan euskal

kulturaren aurkako zigorra. Esan nahi baita, gatazka politikoak euskararen eta euskal kulturaren aurkako jazarpen moldea hartu du halakoetan. Bada, kulturaren ustezko autonomia erabat hautsita geratu da, harreman politikoak euren gordintasunean –biolentziaz hornituta– agertu baitira kulturgileen eta kultura erakundeen aurka. Hartara, autonomia nahia kulturgileen artean zabaldua egon den arren, mendekotasunezko harremanek eta konpondu gabeko gatazka politikoek zaildu egin dute behin eta berriro esparruaren beregaintasunezko eraikuntza.

“Bai, tentsio hori [80ko haustura politikoak euskalgintzan sortutakoa] mantentzen da. Egia da tentsio hori 80. hamarkadan konfliktu gordina zela eta orain tentsio moduan mantentzen dela. Gero azken urte hauetan ba bueno beste gertaera batzuk ere laguntzen ari dira. Egunkariarena adibiderik argiena. Egunkariaren sorreran egondako konfliktua, nik esango nuke gero hamar urteren buruan edo ba, Madrilek ixten duela (...) Erasoa horrek ekartzen duena da batze bat, batze bital bat. Zeren Egunkariaren sorreran ibilitako pertsonak dira gero hamar urteren buruan daudenak. Torrealdeai eta halakoak (...) Jendea batu egiten da. Zergatik? Zeren erasoa ardatz honetara pasa da [euskararen ardatzera elkarrizketatuak egindako marrazkian]. Zeren erasoa egon denean bakarrik ardatz honetan [ardatz politikoan], beno, ez da mugimendu handirik egon zentzu honetan: Gara edo Egin, Egin Irratia eta abar. Baina erasoa etorri denean ja ardatz honetara, AEK dela, bestea dela, Ikastolak ere, je, je, je, hau eta bestea, orduan elkartu beharra dago” (4. elkarrizketa).

Esparru politikoari buruzko autonomia eraiki nahia eta autonomia eraikitzeke ezintasuna, bada, euskalgintzaren esparruaren eta, neurri txikiagoan, euskal kulturaren bereizgarri izan dira luzaroan. Izan ere, baliabide kultural hutsez aritzeko ahalmenak botere egituren bermea behar du. Bestela adierazita, kultura esparruarekin batera hura babestuko duen esparru politikoa osatu behar da, bere eragile eta osagai guztiekin. Baldintza hori gaur egun erdizka betetzen delarik –administrazio autonomikoen esparru zatituek sortzen dituzten desadostasunekin eta estatuek ezarritako hertsapenekin–, egoera soziopolitiko gatazkatsuan, mugimenduaren gune kognitiboa ere zatituta agertzen zaigu boterearekiko ikuspegi dagokionez. Hartara, askotariko definizioak atzematen ditugu lehian esparru barruan. Nagusiki, bi muturretan polarizatzen dira esparruko kulturgileek landu dituzten interpretazio markoak. Batean, hizkuntzaren aldeko ekimen autono-

moari lehenasuna ematen dion ikusmolde kulturalista nagusitzen da. Bestean, hizkuntzaren dimentsio politikoa aldarrikatzen duen ikuspegi-a, alegia, hizkuntza botereari eta naziotasunari itsatsirik uzten duen definizioa. Euskal kultur-gileek kultur-gintzan dauzkaten kokapenek marko horiei –eta azpian dauzkaten estrategiei– loturik daude¹⁷².

“Nik neukan diferentzia Txepetxekin (...) batez ere ez nengoen konforme euskal politikan eman daitekeen estrategian. Hor nago deskonforme. Eta baita bere paradigmatiko puntu batean, nik pentsatzen baitut “hemen azken batean ez da botere asuntua baizik eta hiritarren borondatea eta hortik abiatu behar da politika”. Eta hori bai, dikotomia horretan ez nago konforme. Ez nago konforme, biak direlako ez baztergarriak, eskusiboak, bazik eta bateragarriak. Eta hau diot zeren eta berak momentu batean esaten baitu: “Berdin da zeren orain zain baldin bagaude euskal estatua izateko euskara salbatzeko hori dugu”. Arrazoi du. Gerta liteke gainera biharko euskal estatu hori izatea euskararentzako aurkaria. Izan liteke. Arrazoi du. Baina, absolutoa da berak dioena zeren nik esango diot ez da hezkuntza nazionalik estatuturik gabe izan (...) Esango dit Irlandakoa, han zer gertatu den, Mitxelenak bezala. Ekarki banan banan Europako estatuak eta kanpokoak ea hezkuntza nazionalik gabe, ze ez dago (***)”. Orduan zalantzarik ez daukat estatuaren eta boterearen presentzia ezinbestekoa dela, hain baldintzagarria, hori gabe ezin dela pentsatu hizkuntzaren estrategian. Ezin da. (...) Orain, esaten bazait estatua bakarrik nahikoa dela ipso facto, aingeruki, herri oso bat egiteko, hizkuntza bat nazionala egiteko, aingeruki, zozokeria da, nola eta ez den parte hartzen aktiboki, kontzienteki hiritarrek. Hau da, nola eta ez den garatzen herritarren artean” (7. elkarrizketa).

Eusalgintzako kultur-gileek hizkuntzari buruz sortutako diskurtso nagusiek banalerro argi bat ezarri dute esparruaren eraketan. Beste maila batean, gauza bera gertatu da eusalgintzako erakundeek azken urteetan garatu dituzten estrategiekin. Erakunde batzuek indarrean dagoen marko juridiko-politikoaren gaitzespena bultzatu zuten hasieratik. Hartara, aurre egin zieten erakunde autonomiko sortu berriei eta horiek bultzaturiko hizkuntza politika elebidunari. Harrezkero, protesta ekitaldi aktiboan oinarritutako estrategia bideratu dute instituzio autonomikoek hiztunen hizkuntza eskubideak errespetatzen ez dituzten uneetan, bereziki lege hausteak gertatzen diren administrazio esparruetan. Beste mugimendu erakunde batzuek, aldiz, administrazioarekin lankidetzan bilatu dute, batik bat, udal mailan. Herri elkar-

teak dira gehien bat azken horiek; zerbitzuak eskaintzera zuzendu dira eta publikoki finantzaturik daude.

“Eta gaur ere bi lerro daude. Batzuk dira aldarrikapenean lerrata daudenak, norabideak erakusten dituztenak: hau egin behar da, ez dakit zer egin behar da... Ados. Hori dena. Eta gero, hurbileko laneko, eguneroko, euskaldunok euskaraz behar ditugun zerbitzuen garapenean... (...) Hori beste gauza bat da. Hor badago beste nukleo bat gorpuzten ari dena edo gorpuztu dena (...) Problema da lehentasunak non jartzen dituzun. Eta zuk lehentasunak jartzen badituzu eskatzean, eskatzen denei (...) eskakizunean jartzen baldin baduzu lehentasuna, orduan klaro horrek jende bat erakartzen du (...) Beste gauza bat da norabide hori eta helburu hori hartu gabe zu ari zara egiten eta ez diozu eskatzen “hau egin ezazu” baizik eta “zuk eta nik egingo dugu” (...) Eta euskalgintzan askotan ahaztu egiten zaigu gauzak ez direla egiten eskatuz bakarrik” (9. elkarrizketa).

Denboran zehar adarkatu egin den mugimendu beretik sortutako erakundeak dira den-denak. Dibertsifikatze horren ondorioz, lan banaketa bat ezarri da esparruaren barruan. Batetik, administrazio autonomoarekin gatazkaren estrategia bultzatzen duten erakundeak daude. Horiak esanahi politikoa esleitzen diote hizkuntzari. Areago, hizkuntza euskal nortasun nazionalaren osagaitzat daukate. Horrenbestez, egintza politikoa eta kulturala parekatuta daude euren ikusmoldean. Bestetik, administrazio autonomikoarekin lankidetzara estrategia bultzatzen duten erakundeak daude. Hizkuntzaren ulermena marko politikotik marko kulturalera eraman dute. Hartara, esparru kulturalan kokatzen dute euren egintza, argi eta garbi.

“Gu AEDn hasi ginenean (...) beti esango dugu, halaxe delako, ba Arrasaten sortu zela AED baina sortu zela Euskal Herrian Euskarazetik. Eta hori nik esan dezaket bertan izan nintzelako. Eta badakit nik Euskal Herrian Euskarazetik zeudenak izan zirela AED martxan jarri zutenak. Nahiz eta gero AED martxan jarri zenean ba izen puntan agertu zirenak ba ez ziren eurak izango. Baina AEDren ideia sortzea Euskal Herrian Euskarazetik etorri zela Arrasaten nik hori baieztatu dezaket. Beraz, alde horretatik nik ez ditut sekula antagonikotzat jo, nahiz eta hainbat jende antagonikotzat jo nahi izan dituen, ezta?” (10. elkarrizketa).

“Okerkeriak egin gabe, formalak izanda, lortuko dugu”. Ba lortuko ditugu gauza batzuk, beste batzuk ez. Eta gainera, azken batean, menpekoagoa izanik erakundeekiko, orduan eta lotuago eduki-

ko gaituzte, eta eurok jotzen diguten soinuan egingo dugu dantzan. Orain, berriz diotsut, Euskal Herrian Euskarazekin eta politikaren eta egiten duen..., nire ustez gaindimentsionatu egiten du euskara eta horretara... Bestela, praktikan eta konfliktuaren zerean daukan eragina bistan da. Orduan ezer ez da mugitzen justiziarekin, jende hau serio jartzen den arte. Eta Hizkuntza Politikako eta Osakidetza zerak ez da martxan jartzen hauek, baten batzuk defenditzen dituzten arte, sartzen direnean azterketak egiten ari direla ez dakit ze bronka armatzen, ezta? Orduan, "mal que les pese", ba bai (...), holako jendea oso beharrezkoa da. Eta bejondeiela ze batzuk ari dira larrua hor jartzen eta askotan multak eta badakigu zelako historiak izaten dituen horrek oraindik ere. Orain nik uste dut abanikoa zabaltzeak azkenean nahi duenak leku gehiago eduki dezan lan egiteko ba oso ondo dagoela hori. Eta herri elkarteen lana horixe da, ezta? Zerbitzuak ugaritu ahala, bakoitzak bere portzioan, eta portzio horretatik aurrera egiten jarraitzen duela. Ba bidea ematen du... Euskal Herrian Euskarazek egingo duen oposizioak izan daitezela askoz ere ideologikoagoak, askoz ere dedikazio handiagoa eskatzen dutenak denbora epe laburragoan... Beraz, nik osagarri ikusten ditut, eta parte delakoan egiten ari diren lana, behintzat batzuk egiten dute" (10. elkarrizketa).

"80. hamarkadaren hasieran dena zan helburu; bueno hastera goaz, eta klaro, baino (...) ba EHEko horrek ez dakit nun, edo Osakidetza ez dakit zerekin folloi bat montatu duenak, horrek ze estrategia du, ez? Jartzen da besteren tokian eta horrek esaten zuena Euskeraren Legearen garapenarekin ez dakit zer egingo degu, 25 urte pasa dira eta hemen medikuek oraindik ez daukate hizkuntza eskakizunik, ze estrategia izango da horrena, ez? Klaro, horrek interpretatzen du bestearekiko esanaz, joe, horrek esan egiten du baino egin ez, o sea koherentzia falta da" (5. elkarrizketa).

Politika/kultura ikusmoldeak eta gatazka/lankidetzak estrategiak. Horra hor mugimendua osatzen duten elkarteen bereizgarriak. Ezaugarri horiek badauzkate, noski, abantailak eta eragozpenak. EHE edo antzeko erakunde baten aktibismo motak partaidetzak jendetsua mugatzen du. Izan ere, mugimendu horrek zalantzatan jartzen du hizkuntza politika ofiziala. Ildo horretatik, eskakizun zehatzak eta zorrotzak egiten dizkie botere publikoei. Haren eragin esparruak erakunde publikoekin harreman zuzena duten administrazioaren arloak izan ohi dira: osasuna, justizia, administrazioa eta irakaskuntza, batik bat. Presio soziala eta salaketa erabiltzen ditu ohiko egintza

molde gisa. Egintza horiek instituzio politikoaren aurka zuzentzean, agintarien zigorrak jasan behar izaten dituzte taldeko partaideek. Hartara, aukera politikorako egitura itxia izaten dute aktibistek. Halaz ere, “botere estrategía”¹⁷³ duen mota horretako mugimendu baten lorpena gatazkak eta kontraesanak nabarmentzea eta botere publikoak legeak betetzera behartzea izan ohi da.

“Nik jarraitzen dut pentsatzen Euskal Herrian Euskaraz lan ezinbestekoa dela herri honetan. Eta ez dakit zergatik gainera herri elkarteak sentsibilizazioaren eta zera horretan, ez diren ba batzutan konfliktoa saihesteko, “konfliktoa izango dut hemen”... Inor ez baldin badoa Osakidetzara esaten, eta inor ez baldin badoa Gernikako Epaitegira esaten hau hola nahi genuke... (...) Eta gauza asko horrelaxe aurreratu direlako (...) Orain, aktibismoa eta, uste dut horiek datoz “políticamente correcto” horretan: herri elkarteak. Bai, hori egin behar da, ez naiz esaten ari ezetz. Ez hainbeste sektore batzuk erakartzeko edo, ez, ez, ez, behar delako. Kohesiorik ez badago noizean behin edo gai batzuen inguruan, baina dena baldin bada “lege barruan” eta “legea beteko dugu” eta legean “un cuarto de cms más” beharko genuke edo “un cuarto y medio de subvención menos”, horretara mugatzen baldin bagara, eta askotan elkarteak, bere liberatuak eta bere zerak ordaindu ahal izateko askotan tragatu behar izaten dugu gauza asko. Eta hori hor dago. Eta orduan menpekotasunik ez daukaten elkarte horien..., exajeratuak direla, ez direla? Gehiegi eskatzen ari direla? Formak eta ez dakit zer? Bueno ba igual izan daiteke eztabaidagarri (...) [Elkarteak] Bai, kulturgintzara eta zerbitzuak ematera eta hor. Herri elkartei esker lortu ditugu aisialdi taldeak Bizkaiko herri mordo batean, eta hortxe egon dira eskola euskaldun guztiak, zinez, mordo bat, baina kapazak izan ez direnak aisialdi zerbitzuak euskaraz emateko. Eta beste batzuk herri mailan elkartu diren arte eta zerbitzu hori eskolaz kanpo martxan jarri duten arte ez dira egon. Edo aldizkariak. Hainbat zerbitzu, euskal komunitate batek behar dituenak ba ez dira etorri aktibismoaren eta zera- ren horretatik” (10. elkarrizketa).

Beste muturrean daude, I. Agoteren terminologian “kultura estrategia” daukaten mugimenduak (Agote, 1995). Euskalgintzan herri elkarteek betetzen dute eredu hori. Herri elkarteen egintza motak, konfrontazio estrategiarik ez bultzatzean, aukera handiagoak ematen dizkio partaidetza zabalari. Hala, pentsakera eta ideologia askotako herritarrak bildu nahi dituzte elkarteok, adostasuna ardatz dutela jokatzeko baitute. Egunerokotasunean oinarrituta, euskal hizkuntza

komunitatea egituratzea dute helburu. Alabaina, aukera politikorako egitura irekia izan arren, aginte politikoari buruzko mendekotasuna handiagoa da administrazioak emandako dirulaguntzetatik elikatzen direlako hein handi batean. Finantzaketa mota horrek, jakina, burutu ditzaketen egintzen nolakotasuna baldintzatzen du: herri elkarteak ez dira kontraesanak nabarmentzera bideratuta dauden mugimenduak. Hartara, batzuk mugimenduaren berezko ezaugarriak galdu eta administrazioaren atal bihurtu direlakoan daude.

“Bai, ondo dago euskararen inguruan sortzea korporazioak, sortzea enteak, bederen (...) Txepetx garatu zen udaletan, dirua zegoen lekuetan, non euskara teknikaria zegoen lekuetan, profesibideetan, eta non geratu da? Non geratu da? Hasi gaitezen banan-banan egiten (...) horien garapena, horien subjektu historikoa non geratu den (...) Nire irakurketa da urrats kualitatiboak eman direla (...) Txepetx ezinbesteko erreferentzia da alde horretatik. Orduan, lehen ez ziren espazio batzuk agertu dira, lehen ez ziren kultur espazio batzuk agertu dira euskararen inguruan, esparruan. Nola deitu ez dakit. Zeren esan dizut borroka dagoela erakunde paraleloen eta beste erakundeen artean eta horietako bat da (...) Mugimenduaren kontzeptua beste bat dela uste dut. Beste bat da. Gehiago iruditzen zait elkarte, elkarte subentzionatuak dira sortu direnak (...), gune instituzionalak edo gune subentzionatuak edo ez dakit nola deitu. Herri mugimenduetatik gutxi. Ez, arrazoi batengatik, ez dagoelako jendearen inplikazio nazionalik(?), gehiago delako diru askoz subentzionatutako modu –diru asko edo gutxi subentzionatutako– kreditu baten partaidetza udalean. Muga hor dago. Nola bataiatu ez dakit, hitz zientifikoan, elkarte edo ez dakit zer. Eta, orduan, alde horretatik diferentzia handia dago” (7. elkarrizketa).

Interpretazio marko berriaren barnean garatu diren hizkuntzaren inguruko diskurtso “despolitizatzaileek” eta “desideologizatzaileek” era askotako gogoetak sortu dituzte euskalgintzako kultur gileen artean azken urteetan. Izan ere diskurtso horiek adarkadura eta ondorio asko dauzkate: sozialak, politikoak, linguistikoak eta estetikoak, besteak beste. Horien guztien inguruan daude etengabeko eztabaidak eta desadostasunak.

“Gero eta gehiago irakurtzen dena da lehenengo despolitizatu egin behar da euskara. Euskara ez da egin behar kontzientziagatik, baina kontzientziarik ez daukanak, euskarari ezin zaio... Bueno, ez da egin behar kontzientziagatik, baina kontzientziarik ez daukanak

ez du euskara egiten. Orain, saldu behar ote dugun produktua hor ere, ez baldin bazara euskararen kontzientea eta... Aukera hori egiten ez duenak, eta hori da, aukera da beste askoren artean, aukera horri heltzen diozu, ahal duzun neurrian, gura duzun neurrian, baina aukera kontziente bat da. Eta gero eta gehiago izango da euskaraz egitearena. Orduan esatea, “ez, ez, ez, gazteei ezin zaie, gazteei gauza erakargarriak eman behar zaizkie horrekin kontura daitezen”. Eta beste dimentsio hori, motibazioaren dimentsio hori eta kontzientziaren dimentsio hori gurea bezalako egoeran kentzen baldin baduzu, eta gainera desager dadin nahi baldin baduzu ustez hobeto joango delako... Gogoratzen ari naiz Fermin Etxegoienen “Estetika” eta, oso polita, baina estetikak esplikatzen ditu esplikatzen dituen gauzak eta ez dituenak esplikatzen ez ditu esplikatzen. Gauza bat da zu maitemindu zinelako neska batekin eta neska hori euskalduna zelako zu ere euskalduna izatera iritsiko zinela... Oso ondo dago. Baina pentsatzea herri honetan ezelango erabaki politikorik gabe, ezelako zerik gabe, estetika hutsez, domeka gauetan restaurantean elkartuta, edo sala de fiestas batean, euskaldunduko duzunik herri hau... Orduan horiek ere nahiko tribialak egiten zaizkit batzutan mezu horiek, ezta? Eta orduan nik ez dut esaten berriro ere joan behar dugunik esaten politika egiten ari garela, eta gainera kontzientzia salbatu behar dugula eta bestela pikutara goazela. Igual mezu horrek ez dauka gaur egun erakargarritasun handirik. Baina de facto gutxi dira (...) euskaraz egiten dutenak erdaraz baino hobeto, eta ez daukatenak pentsatu beharrik euskaraz egiteko, hobeto egiten dutelako berez. Horiek gero eta gutxiago izanda, eta azken batean ja gutxi falta zaigu, gero eta gehiago izango da alderdi kontzientea. Eta iruditzen zait gaur egun kulturgintzaren barruan urte hauetako bilakaeran mezu subliminal hori –“ez, ez, ez hori [hizuntza auzi politikoa dela, euskaraz egitea kontzientziaren eraginez egiten den hautua dela] ez dugu esan behar, ez digu batere mesederik egiten, ez irakaskuntzan, ez inon”–... Beste gauza bat da euskaraz egin euskalduna zarelako eta ez dakit zer... Ez! Ez naiz hori esaten ari, baina azkenean “Ez, euskaraz egin behar duzu euskara munduari begiratzeko modu bat delako” (...) Mezu hori, Kirmen batek esan dezakeena, hola hutsala dirudiena eta estetikoa besterik gabe ba... Ez, ez, horrek gaur egun de facto dauka karga ideologiko eta karga politiko handia, ezta? (...) Hori erabat politikoa da! Nik hala bizi dut” (10. elkarrizketa).

2.4. Instituzionalizazioaren ondorioak. Mugimendutik sortutako kultura esparruak eratzen eta tradizio intelektualak moldatzen

2.4.1. Mugimendutik unibertsitatera: tradizio akademikoa osatzeko zailtasunak

Euskalgintza era askotako jarduera intelektual eta kognitiboen esparru izan da bere bilakaeran, haren barnean txertatu baitira kultura jarduera nahiz egintza politiko-intelektual ugari. Mendeko hizkuntza eta kultura baten egoerari zegokion bazterketaren ondorioz, mugimendu ekimenez sortu zen euskarazko kulturgintza esparrua eta mugimendu ekimenez sortu ziren kultura eragileak euskararen munduan, bulkada instituzionalerik baino gehiago. Beraz, hasiera batean mugimendu kulturgileak izan ziren gehien bat euskarazko kulturari lotutako kultura eragileak eta ez kulturgile profesionalak. Baina, beste gizarte mugimendu batzuetan gertatu bezala, hasierako kulturgile ereduak sortzeko ez ezik eredu intelektual horiek aldatzeko eta birdefinitzeko aukerak ere sortu dituzte euskal kulturgileek euskalgintzaren barnean. Hala, baldintza soziopolitiko egokiak agertu bezain laster mugimenduaren instituzionalizazioak ateak ireki dizkie tradizio berriei, besteak beste, ikusiko dugunez, tradizio akademikoari.

Euskalgintzaren mugimendu ekimena ekimen politiko instituzionalaren eginbeharrekoa ordeztzeko ahalegin bat izan da, alegia, botere soziopolitikorik gabeko giza talde batean kultura esparrua sortzeko saio bat. Halaz ere, ordezkapena ez da guztiz eraginkorra izan euskarazko kultura esparruaren osaketan. Ildo horretatik, zenbait kultura instituzioren gabezia, bereziki euskal unibertsitaterik eza, oztopo bilakatu da euskarazko kulturaren iraupena bermatu ahal izateko. Jakina denez, bere historian zehar euskal hizkuntza komunitateak ez ditu eduki giza elkarte batek birsorkuntza sinbolikorako beharrezkoak dituen tresna egokiak, ez instituzio sozialak ezta gizarte eragile gaituak ere. Izan ere, Aro Modernoan, politikoki eratutako elkarrekin eskaini dituzten giza birsorkuntzarako tresna eraginkorrenak. Zalantzarik gabe, Modernitatearen baldintzetan estatua izan da iraupen soziala ziurtatu duen erakunderik funtsezkoena, haren bermepan hezurramitzen baitira sozializazio instituziorik garrantzitsuenak, besteak beste, kultura esparru modernoa osatzen duten oinarrizko erakundeak. Horien artean dago unibertsitate modernoa ere. Hala, politikoki egituratu ez

diren mendeko kultura taldeentzat azpiinstituzionalizazio politikoak berarekin ekarri du ez soilik botere politiko eza, baita kultura esparrua normaltasunez osatzeko ezintasuna eta taldearen kultura instituzio legitimoen bitartez birsortzeko eta transmititzeko gauzaeza ere. Egoera horretan egon da euskal hizkuntza komunitatea eta testuinguru horretan ulertu behar da euskarazko unibertsitatea eratzeke ezgaitasuna ere.

Botere politikoaren eta errealitate kulturalaren instituzionalizazioaren arteko lotura estu hori oso nabarmen agertzen da astindu soziopolitikoak burutzen diren une historiko guztietan. Hala gertatu zen frankismoaren osteko instituzionalizazio autonomikoari hasiera eman zitzaion garaian, orduan oso argi ikusi baitzen aldaketa politikoekin batera berehalakoan gertatuko zirela kultura eraldakuntzak ere. Hain zuzen, aldi hartan sortutako itxaropen giroan, kulturaren munduan eztabaida publiko handia piztu zen unibertsitate publikoak hartu beharreko aldoaz eta, bereziki, euskarak bertan bete beharreko tokiaz. Azken gai horren inguruan era askotako jarrerak eta iritziaik sortu ziren¹⁷⁴. Baina, jakina, euskarazko unibertsitatearen aldeko indar sozialek ez zuten une hartan baliabide politiko eta sozial nahikorik beraien aldarrikapena gauzatu ahal izateko. Horrela, polemikak polemika, indarrean zegoen unibertsitate egituraren txertatu beste biderik ez zuten izan euskaraz jardun nahian zebiltzan kultura eragileek eta euskaraz ikastea eskatzen zuten ikasleek ere.

Euskararen erabileraren inguruko eztabaidak ez zuten unibertsitatean ondorio praktiko zuzenik izan eztabaida gertatu zen unean –hirurogeita hamarreko hamarraldiaren amaieran– baina bai hurrengo urteetan. Izan ere, gizarte eskaria handitzearekin batera irakasle kopuruak ere gora egin zuten eta Espainiako unibertsitate tradizionalaren egiturak hainbat birmoldaketan onartu behar izan zituen bere barnean (Aizpuru, 2003: 100). Irakasle eta ikasle berriek trantsizio garaiko kezka eta eztabaidak zabaldu zituzten unibertsitate esparruan, besteak beste, euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzaren aldarrikapena. Ia ezinbestean, euskarazko lehen eta bigarren hezkuntzaren garapenak euskarazko unibertsitate irakaskuntzaren aldarria ekarri zuten gero eta indar handiagoarekin unibertsitate irakaskuntzaren esparrura. Eta, apurka apurka, bigarren hezkuntzak bultzatuta, irakasleria euskaldunaren premia sortu zen unibertsitatean. Tradizio akademikoa, baina, garatu gabe zegoen euskarazko kulturaren.

Gizarte eskaria handitzearekin batera, erdi- eta behe-mailako klaseetako kulturagileak ere iritsi ziren lehenengoz trantsizio osteko

espainiar unibertsitatera. Besteak beste, Hego Euskal Herriko unibertsitateetara irakasle euskaldun batzuk ere heldu ziren. Horietako asko euskalgintzaren mintegietan sozializatutako kulturgile gazteak ziren: UEU, EKTak (euskal kultur taldeak), Gau Eskolak, Euskaltegiak eta antzeko guneetan hezitako kultura eragileak, hain zuzen ere. Harrezkero, haien kopurua handitu egin da apurka-apurka. Esan bezala, hein batean, euskalgintzak hezi eta elikatu ditu kulturgileok. Ildo horretan, azken urteetan euskalgintzak bizi izandako profesionalizazio prozesuaren ondorioz, mugimenduaren erakundeetan militantzian lanetan trebatutako hainbat kulturgilek administraziora nahiz unibertsitatera joateko aukera izan dute beraien lanbidea sustatzera. Iraganbide hori oso ohikoa izan da akademiko euskaldunen ustetan, elkarriketatu batek nabarmentzen duen bezala.

“Orduan hemendik izan beharrean salto bat norberaren garapen pertsonalean salto bat, eta orduan hemendik banoa unibertsitate batera edo ez dakit nora (...) Beraz, nik uste dut badagoela jende mordoxka egin duena ibilbide hori eta gero unibertsitatera pasa edo instituzioetara, udaletxe, diputazio edo holako tokietara” (4. elkarriketa).

Hartara, 1980ko hamarraldiaz geroztik zabaldu egin zaizkio euskarari unibertsitateari dagozkion goi-mailako pentsamenduaren eta ezagutza zientifikoaren eremuak. Izan ere, lehenago euskarazko esparruan existitzen ez zen goi-mailako sozializazioa eta goi-mailako sorkuntza intelektuala agertu dira akademian instituzionalizaturik. Aldaketa hori, zalantza barik, berrikuntza historiko handia izan da euskal kulturaren.

“Nik uste dut (...) Euskal Unibertsitatea, nahiz eta ez izan euskarazko unibertsitatea, nik uste dut azken urte hauetan behintzat nik eboluzio handi bat ikusi dut. Neure baitan eta inguruan ere. Gure departamentuak euskaraz funtzionatzen du gehien bat. Eta nik uste dut izan ez balitz, egon ez bagina hemen euskal unibertsitatean gaur dagoen euskal pentsamenduari buruzko produktiorik ez zen egongo. Beraz, positiboki, asko dago eginda jada. Gure egoera honek berak behartu gaitu gure burua pentsatzera eta nolabait gure ikuspegiak lantzerako gero eta gehiago, ezta? Eta orduan iruditzen zait, bai pauso handiak eman direla, gaur ikerketak egin direla, tesi asko egin direla eta gauza pila bat ateratzen direla (...) Gertatzen dena da ez daukagula oraindik aski distantzia egina izan dena ebaluatzeko nik uste (...) Eta ni nago sektore desberdinetan, nola giza hala gizarte zien-

tzietan, ekarpen baliotsuak egon direla. Zoritzarrez ez dira liburu handi horretan, hor egongo haien argazkiak, oraindino hemen, gainera, hainbat kasutan gainera publikatu gabe, baina beste asko publikatuta ere bai (...) “Uztaro” ikustea nahikoa da, pentsamendua landu dela zalantzarik ez, eta tesiak eta publikazioak pilo bat daudela (...) Eta esango nuke gainera Espainiako eta Frantziako beste inguru horien aldean inongo zorrik ez diola hemengo intelektuaren pentsamenduak. Agian formulaketan egon dira desberdintasunak, hizkuntzan, baina pentsamenduaren zorrotasunean ez. Horren arrazoa ia bakarra da besteen artean, baina nagusia eta da bat beharrean dagoenean, bizi duenak eta beharrean dagoenak bakarrik daki zer gertatzen den. Ikusi dut kongresuetan kanpoan ibili naizenean. Nik uste dut horien gainera gaudela maila askotan. Eta gauza garestuak, kapaz garestuak kritikatzeko haien teoriak modu askotan eta, gainera, eleganteki, bai boterean, bai soziologian, eta maila askotan. Zergatik? Bizi dugulako eta hau laborategi bat delako eta behartzen gaituztelako horretaz pentsatzera (...) Eta nik uste dut alde horretatik Euskal Herriak eta euskal intelektual denak, bereziki euskaraz sortzen dena, niretzako maila zientifikoa aberatsagoa da, baliagarriagoa da beste askorena ta gehiena baino. Nire iritzia pertsonala da (...) Sortu berri dira taldeak, eskolak sortu berri dira gai hauen inguruan, pentsamendua garatzen joango direnak (...) Inportantea da euskara zabaltzen joatea eta hor talde lana egin behar da, bazterrak zabaltzen” (7. elkarrizketa).

Goi-mailako irakaskuntzan zein sorkuntzan gertaturiko aldaketak unibertsitateen erabaki politiko-instituzionalen eskutik etorri diren arren, Euskal Herriko unibertsitateetan apurka-apurka sartutako akademiko euskaldunen parte-hartzearekin gauzatu ahal izan dira. Argi dago, beraz, azken hogeitau urteetan unibertsitateek irakasle euskaldun berriak onartu behar izan dituztela beraien hizkuntza politikak bultzatzeko eta horiek euskarazko goi-mailako kulturaren aldaketa kualitatiboa eragin dutela. Halaz ere, unibertsitate irakasleriaren eraketa argi-ilunez beteta agertzen zaigu. Alde batetik, euskalduntze prozesuaren makaltasuna eta unibertsitatearen egitura partitua kontuan hartuta, euskarazko irakasleen integrazioa unibertsitatean modu sakanatua burutu da. Eta hala gertatu da prozesu hori kuantitatiboki garrantzitsua izan denean ere, esaterako, Euskal Herriko Unibertsitate publikoan. Azken horretan ikasketak ez dira euren osotasunean euskaratu, ondorioz, irakasleria euskalduna ezin izan da modu osatuan eratu sailka, diziplinaka, eta ikasketaka. Horrek irakasleen kopuru

osoa handitu du baina ez die beti diziplina eta jakintza arloen arabera-ko talde egitura bat eman instituzioko kide bihurtu diren akademiko euskaldunei. Bestalde, onenera jota ere, ezin da ahaztu irakasle euskaldunentzat irakaskuntza elebidunaren eredia nagusitu dela unibertsitatean. Hala, profesional elebidunak ditugu akademiko euskaradunak, gazteleraz ere irakatsi eta ikertzeko gai direnak. Euren jarduera ez da ezinbestean euskara hutsean burutuzen. Aitzitik, aurrerago ikusiko dugunez, unibertsitate esparruaren egiturazko joerek ikerkuntza eta argitalpenak erdaraz egitearen aldekoak izan dira. Faktore horiek zaildu egin dute euskarazko tradizio akademikoaren garapen osorako oinarriak jarri ahal izatea, bereziki giza eta gizarte zientzien arloetan.

2.4.1.1. Unibertsitatearen eta euskal kulturaren arteko etenaren pertzepzioa

Oro har, gizartean gertatzen den bezala, euskararen egoera urrun dago normalizaziotik Hego Euskal Herriko unibertsitateetan. Euskalduntzearen aldeko lehen urratsak egin zirenetik hainbat urte igaro den arren, emaitzak oso bestelakoak izan dira unibertsitate desberdinetan eta horien barruan ere alde handiak daude ikastexeen artean. Konparazioz, bere publikotasuna eta tamaina kontuan hartuta, oso nabarmentzekoa da EHUⁿ burututako prozesua, beste unibertsitate batzuetan, Mondragon Unibertsitatean salbu, ezer gutxi aurreratu delako. Halaz ere, EHUⁿ ez da euskara gazteleraren parean jarri, ez baitira ikasketa guztiak euskaraz eskaintzen. Euskal irakasleria ere ez da erdal irakasleriaren tamaina berekoa izatera iritsi. Euskarazko eskaria gaztelaniazkoari hurbiltzen ari zaion arren, hizkuntzen arteko eskaintza berdintasuna urrun dago oraindik lortzetik eta jarraitu egingen du euskararen egoera minorizatuak termino kuantitatiboetan eta kualitatiboetan –zenbat eta gorago joan unibertsitate ikasketetako mailan (bigarren zikloak, masterrak, doktoretzak eta abar), nabarmenago gutxitzen da euskararen presentzia–. Elkarrizketa batzuetan honela irudikatzen da euskararen mendekotasun egoera unibertsitatean:

“Hau erantzun daiteke modu ezberdinetan. Alde batetik, bat, noraino euskera integratuta dagoen hizkuntza normala bezela unibertsitatean euskeraz ikasi ahal izateko edozein gai. Bueno, ba Euskal Herri osoa hartzen baldin badegu, EHU izeneko kanpotik beste unibertsitateetan euskera ez dago presente, dago salbuespen gisa, dago

presentzia txiki batekin, baino horren txikia da ke ni ausaruko nintzateke esaten ez dagoela ia ezer, dago unibertsitate ia bakarra, EHU izenekoa. Eta hor danok dakigu euskeraren presentzia eta espainieraren presentzia ez direla berdinak. Hori, historikoki, euskeraren presentzia indartzen joan da ikasle euskaldunaren presentziaren handitzearekin batera. Egun hauetan, gure unibertsitateko errektoreak esanda dakigu, euskeraz matrikulatzen diren ikasleak direla % 45 (...) Eta joaten baldin bagera irakaslego multzora, ikusten degu irakaslego euskaldunak direla, gutxi gorabehera, heren bat. Orduan hor dago desoreka bat. Orduan, hori da esenplu bat, baino, badaude beste esenplu batzuk ere bai” (1. elkarrizketa).

“Unibersidadeak ari dira atzetik eta gazteek eskatu izan ez balute euskeraz ikasi nahi dutela ez zen egongo unibersidadean, ez dakit zenbat dagoen, baina hainbestearainoko eskaintzarik ez” (10. elkarrizketa).

Irakasleria/ikasleria euskaldunen proportzioetan ez ezik euskaraz eskaintzen diren irakasgaietan ere nabarmenak dira hutsuneak. Aipatu desoreka hori dela eta, oraindik gaur egun unibertsitate ikasketen zati bat ezin da euskaraz eskaini Hego Euskal Herriko unibertsitate publikorik handienez, ezta enborrezko gai guztietan ere. Are gutxiago hautazkoetan. Bestalde, elkarrizketaturiko kulturgile batek nabarmentzen duenez, dauden unibertsitateek ez dute beraien ustezko autonomia baliatu euskarazko hizkuntza komunitateak eta euskal kulturak izan ditzaketen interesak eta premia kognitiboak curriculumean txertatzeko.

“Oraindikan titulazioetako ikasgai guztiak ez daude euskeraz (...) Orduan eskaintza ez da berdina hizkuntza aldetikan, hori da gauza bat. Beste gauza bat eduki aldetikan, zeren (...) Euskal Herrian dauden unibertsitateak daude Euskal Herriko beharrak erantzuteko (...) eta daude behar batzuk direla behar unibertsal, eta behar unibertsal horiek gure titulazioetan jasotzen dire gutxi gorabehera, ikasgai tronkaletan (...) baina gero unibertsitate guztiek daukate beren autonomi eskasaren, nere ustez eskasa, autonomi eskasaren baitan posibilitatea aukera batzuk egiteko eta, hor, gutxienez, hor kokatu beharko lirateke unibertsitate bakoitzak egiten dituen, eduki mailan ere, aukerak. Eta eduki mailan euskerarekin lotzen diren edukiak ez dire erantzuten, neurri handi batean, gure unibertsitatean ta, inkluso, EHU honetan ere ez. Adibidez, Sikolinguistika asko irakasten da? Soziolinguistika asko? Antropolinguistika asko? Euskerarekin zuzenean lotu daitezken..., Politika

Linguistika ikasgaia badago? Politika Linguistika eta Plangintza Linguistikoa ikasgaiak badaude? Ba ez daude. Horregatik euskera-
rekiko beharrak, eduki mailan, erantzunak ez ditu gure unibertsita-
te honek ematen, eta besteek oraindikan gutxiago, beste unibertsita-
teek oraindikan gutxiago. Eta hori da paradoxa bat, zeren unibertsita-
teak, beraien artean, bereiztu beharko lirateke, neurriren batean,
aukerazko gaiaren arabera eta aukerazko gai horiek, ez det nik esaten
nahi eta nahi ez danak euskerarekin, euskal kulturgintzarekin lotu
beharko liratekeenak, baina horiekin ere, eta ez dire gehiegi lotzen”
(1. elkarrizketa).

Hezkuntza sistema orokorrean bezala, unibertsitate esparruan ere
curriculumak ikasketa planetan islatutako goi-mailako sozializazio for-
malaren ardatza osatzen du. Curriculuma da hezkuntza sistemaren
muin sinbolikoa, bertan esplizitatzen baita –ageriko curriculumean,
batik bat– gizarte transmisio formalaren ezagutza multzoa. Horren-
bestez, botere harremanez osatutako esparruan, garrantzi handia izan
ohi du nork daukan eduki horiek ikasketa egitarauetan ezartzeko ahal-
mena. Bestalde, jakina da, modu konbentzional batean bederen,
zientzia puru eta jakintza teknikoen arloetako edukiak unibertsal-
ak kontsideratzen direla. Aldiz, ez da gauza bera gertatzen giza- eta gizarte-
zientzien arloetan, non kultura eta hizkuntza espezifikoen adierazpenak
funtsezkoak diren euren bilakaeran. Hartara, zientzia horien garapena
ezin da ulertu hizkuntza eta kultura espezifikoaren garapenetik be-
reizita. Horra hor, gure unibertsitateetan giza eta gizarte zientziek
hartzen duten garrantzia eta elkarrizketatuek azpimarratzen duten hu-
tsunea. Euskarari eta euskal kulturari lotutako gaiak unibertsitateko
curriculumean izan duten eragin eskasak gauza bat adierazten du: hain
zuzen ere, euskal kulturaren ahulezia sinbolikoa Euskal Herrian dauden
unibertsitate ikasketetan, alegia, euskal munduaren arrotasuna unib-
rsitate esparruan. Bada, unibertsitateak eskainitako curriculum ofi-
zialak ez ditu asetzen ez euskalgintzaren ez euskal kulturarekin identi-
fikaturiko kulturgile akademiko euskaldunen interes kognitiboak. Hala,
behin eta berriro nabarmentzen dute elkarrizketatuek unibertsitateak
eskainitako edukien eta gizarte euskaldunean atzematen diren premien
artean dagoen aldea. Minorizazioak, beraz, kuantitatiboki ez ezik kuali-
tatiboki ere erakusten du mendekotasun sinbolikoaren ondorioa.

“Planteamendua nik uste okerra dela bai ikasketa planetatik hasi-
ta, bai unibertsitatea ulertzeko modutik beretik hasita ere, ezta? Eta,
ordun, nik uste beharko lukeela ba bestelako planteamendu bat,

gizartea ikuspuntu inportante bezela hartzen duena eta jomuga hartzen duena eta, ordun, ikasketa planak eta ikerketa bera ere horra zuzenduta egon beharko lukeela neurri handian, ezta? Eta horrek eskatzen du aldaketa oso sakona, ze ez da bakarrik plan bat itxuratztea edo..., ez, ez; da hausnarketa oso bat egitea, ezta? Hori burutu ezker oso lagungarri izango litzateke eragile kulturalaren formaziorako, unibertsitateak daukan potentzialidadea handia delako, ezta? Hori gertatu bitartean, bueno, ba, unibertsitateak nahi gabe eskaintzen dituenak, nahi gabe eta inkontzienteki eskaintzen dituen aukerak, ba irakasle batzuk, ikasle batzuk... aprobeztatzen duten neurrian baliagarria da gero euskalgintzan edo eragiteko, gizarte mugimenduan eragiteko, ezta? Baina, kasualidadez eta ia nahi gabe, ez planteamendu sendo batetik abiatuta edo... salbuespenak dira. Ordun, bueno, ba dagoena lagungarria da, eragiten du, besteak beste ikasleek euskeraz, neurri batean, euskeraz ikasi ahal izatea oso lagungarria da, bueno, trebatzen direlako hizkuntza hortan, jakintza arlo diferenteak hizkuntza horretan lantzen dutelako, eta hori inportantea da, hizkuntza baten corpuserako eta baita prestigio sozialerako, ezta? Eta, bueno. Gainera, hortik, pentsatzekoa da euskerazko ekoizpen zientifikoa ere areagotuko dela, ordun, arrazoi askogatik dagoenak ere laguntzen du. Baina, bueno, nik uste, kasualitatez, ez? Ez, ez nahita eta behar bezela pentsatuta” (3. elkarrizketa).

“Nik uste instituzio bezala, hemen gauden unibertsitateak euskalgintzari eta hizkuntzaren komunitateari bizkar emanda ari direla (...) Erakundea, instituzio bezala, ez dio ekarpen handirik egin (...), ez dio ekarpen handirik, ez dago. Eta oso gauza kurioso da, ezta? Batetik, hemen gizartea, Euskal Herriko gizartea, oso zabala da. Euskaldunak gutxiengo bat gara, kasurik onenean heren bat, eta nik uste dut horrek bere eragina izaten duela eta instituzioa [unibertsitate] gehiengoari begira jarrita dago, gutxiengoa bazter utzita. Hori pentsatzen dut nik, ekimenetan eta, eta gero, barrura begira, euskararen normalkuntza planak direla eta, hor, oso mantso. Orain, berriz ere, aldaketa prozesu batean sartu gara unibertsitatean, Europako unibertsitate esparrua dela eta, berriz, hizkuntza, kasu honetan euskararena, zerbait marjinala da. Gerora egokituko den zerbait. Ez da planteatzen ikuspegi integral batetik” (8. elkarrizketa).

Euskal gizartearen ustezko premiak eta bertan dauden unibertsitateek ordezkatzen dituztenak ez datoz bat, elkarrizketetan agertzen denaren arabera. Unibertsitatearen barnetik ez ezik euskalgintzaren ikuspegitik begiratuta ere, unibertsitatearen eta euskal kulturaren arteko zirkulazio kognitibo falta nabarmentzen da euskalgintzako kul-

turgileen artean. Euskal kultura, kultura ez normalizatua izan den heinean, bulkada ez instituzionalez elikatu da luzaroan. Euskalgintza gisa ezagutzen den mugimendua ere mota horretako ekimena du. Euskalgintza esparru kognitibo bat da, eta, garrantzitsua da ez soilik bere iraupenerako baizik ordezkaten duen kulturaren jarraipenerako ere unibertsitatearekin, alegia, Aro Modernoan ezagutza legitimoaren ekoizpena eta birsorkuntza sinbolikoa bermatzen duen instituzioarekin harremanetan egotea.

“Orain arte, nik uste dut, oso [komunikazio] gutxi [egon dela]. Eta hori izan da gure kezketako bat, ni ibili naizen mugimendueta-ko kezketako bat (...) gustatuko litzaiguke honetaz jendiak tesiak egiten egotea, baina ez daukagu akzesorik..., eta gainera, bueno ba, ez dakit, askotan defentsa modun, unibertsitatean dabilen jendea, asko ez da euskaltzalea, urrun gelditzen zaigu... Orduan, hor inkomunikazio bat egon dala. Ahalegin batzuk egin dira (...) Baina, nik uste dut inkomunikazio handia egon dala urte askotan. Eta askotan esaten det (...), guk euskalgintzan dauzkagu galdera hauek eta premia hauek eta, ez dakit, eta tesiak egiten ari dira batzuk, zer? “sobre el románico en el siglo no sé cuántos”, ez dakit, ez? Esaten duzu, joe! Segurasko ikusiko bagenu unibertsitatean egin den tesien zerrenda eta euskalgintzan eta kulturaren dauden galderen zerrenda ba, igual urruti samar egon dira, ez?” (2. elkarrizketa).

Euskalgintzako kulturgileen pertzepzioa da euskal kulturaren eta euskalgintzan estrategikotzat jotzen diren gaiak ez daudela behar bezala jasota unibertsitateko ikerketa ildoetan.

“Zenbat ikerketa lerro daude interes handiko edo (...) interes handiko ikerketak edo holakoak, sostengu iraunkor bat eta dutenak, ez ikerketa urteko, puntualak, ja sendotuak, kulturaren, hizkuntzaren ingurukoak? Egongo da baten bat Filologian edo holakoren bat agian egongo da, baina nik ezagutzen dudana arloetan eta hemen (...) ez dago” (4. elkarrizketa).

“Ezagutzaren transferentziak unibertsitatetik, nik uste det ez dirala egon, oso eskasak (...) Guk euskeraren aldeko, ba nere kasuan mugimendu bat edo elkarte bat sortu genuenean ere, Txepetxen lanari heldu genion. Hori unibertsitatetzat hartzen badezu, klaro unibertsitateko tesi bat da baino (...) unibertsitatetik kanpo egindako gauza bat, ez? Eta iruditzen zait gaur egun lan instituzionalak egiteko ere ez dagoela modu egituratu batean hori ondo eginik. Eta, klaro, iruditzen zait lehen esandako gabeziak baldin baditugu baino

estrukturalak, hala diralako, hizkuntza bat gutxiagotua dagoenean eta normalizatu nahi dezunean falta zaizun zerbaiten bila ibili behar dezu, ezta? Eta hor energia eta beste gauza guzti horiek inportanteak diran bezala, ezagutza editatu egin behar da (...) Unibertsitatean egongo dira atal batzuk, fakultade batzuk hortaz arduratu behar dutenak. Horrek elikatzen du jarduna Hizkuntza Politikarena, baino inkluso klabe positiboan, esan nahi dizut, Jaurlaritzarena bera, bere erakunde bat danean unibertsitatea, edo berak lagundutakoa, eta abar. Nik uste det oso eskas, gabezia fuerte fuertetako bat [dela] ikerketa, lanerako, sormenerako bide nagusietako bat (...) inertiak ez digulako balio, inertiak beste alde bat gidatzen duelako, ez?” (5. elkarrizketa).

Euskal kulturaren eta Euskal Herriko unibertsitateen artean sortutako amildegia egia eztabaiaezina da elkarriztatuen iritzitan. Bai euskalgintzako kulturgileen aldetik bai unibertsitateko akademiko euskaldunen aldetik zubiak eraikitzekeo premia ere azpimarratzen da, eta horretarako formulak aipatzen dira. Formula horien artean, alde batetik, erakunde unibertsitarioak eta mugimendu erakundeak elkar-tzeko bilguneak agertzen dira, bestetik, erakunde politiko autonomikoez garatu beharreko kultura politikak.

“Nik ikusten ditut bi bide, ezta? Bueno, ba elkar-teak adiago ego-tea irakasleekin, osea, unibertsitateko kulturgileak bilatzen egotea, harreman pertsonala gehiago lantzea. Eta, gero, nik, egia esanda, beti, beti edo noizbait, aipatu izan dugu Euskal Herriak behar duela ikerketa lana. Eta Euskal Herriak, Eusko Jaurlaritzak, erakunde poli-tikoez, EHUK... egin behar dutela. Beno, zein dira herri honen lehentasunak, ez? Eta lehentasun horiek markatzera aglutinatu beharko lirakekeela gizarte eragileak, ez? Kasu hontan euskalgintza. Zer behar du euskalgintzak? Euskalgintza, euskararen garapena da gizarte honen desafio inportanteenetako bat, bai? Zein dira aurkitu ditugun galderak? Eta gure ikertzaileek, uste dut, hor egin behar dute. Eta nik beti bota izan dut faltan hori: Jaurlaritzak, iruditzen zait Eusko Jaurlaritzak hizkuntza gaian ez duela inoiz eduki gauza hauetan irizpiderik. Ordun, ba, alde batetik uste dut badela irizpi-deak markatzeko ordua eta, bestetik, ba bueno, ba harremanak bil-tzeko ordua, bai unibertsitateko..., joan gizarte erakundeetara eta gizarte erakundeak etortzea unibertsitatera, eskatzera, galdetzer...” (2. elkarrizketa).

Zenbaiten ustez, euskalgintzaren eta unibertsitatearen arteko eza-gutzazko trukea ikerketaren eta praktiken esparruan gauzatu beharko litzateke bereziki.

“Topiko bat da unibertsitateek behar dutela gizartearekin harremanak izan, ez harremanak izateagatik, baizik praktikorako baliagarria izan behar duelako unibertsitateak gizarteko beharrei erantzuteko. Baina, teorian hori askotan esaten baldin badago eta askotan azpimarratzen baldin bada ere, gero praktikan ez da gehiegi egiten. Erruak non daude? Ba nik uste det erruak egon daitezkeela toki guztietan, bai unibertsitatean eta bai herrigintzan ere bai. Unibertsitateek gehiago begiratu beharko luteke herrigintzan dauden gauzak zeintzuk diren, horiekin harremanak egin eta horiekin lanean jartzeko; eta lanean jartzeko ikerketa mailan eta, ez bakarrik ikerketa mailan, baizik praktika mailan ere bai. Ikerketa maila da errezena, eta gehien egiten dana da maila hortan, baino praktika mailan ere egin daitezkeen gauzak dire, adibidez, unibertsitateetik kanpo praktika errealak egiten dira zenbait esparrutan, adibidez ekonomia edo enpresa esparrutan, egitazko praktika, baino ez dago ohiturarik halako praktikak egiteko kulturgintzan adibidez, eta badaude zenbat titulazio kulturgintzarekin zuzenean lotu daitezkeenak, ez bakarrik ikerketa mailan baita praktika mailan, baina ez da egiten” (1. elkarriketa).

Halaz ere, akademiko batzuek egiturazko ezintasun bat ikusten dute egungo unibertsitateek bilgune gisa jardun dezaten eta euskal kulturaren eta euskalgintzan sortutako eskari kognitiboei erantzun egokia eman diezaieten. Institutuzio unibertsitarioan osatu diren botere interesei lotuta, zehazkiago esanda, esparru horretan diharduten indarren konfigurazioari lotuta ulertu behar da ezintasun hori.

“Euskalgintzan dagoen potentzialidadea izugarria da, izugarria. Eta potentzialidadea praktikan, ez hipotetiko batean, nik ez dakit zenbat urtetara, ez, gaur egun, ezta? Hor, lehen aipatu bezela, koordinazioa falta da, bilguneak falta dira, bueno, horretarako badakizu ekimen batzuk ere abian jarri dira ezta? (...) baina, bueno abiatu zen Soziolinguistika Klusterra, ezta? Eta ideia hori gizarteratzen hasi ginenean alde guztietatik oso erantzun baikorra eta aldekoa eman ziguten, ezta? (...) Gainera, kuriooa da baina diziplina diferentetan adituak edo formazio sendoa duten pertsonak parte hartu izan dute, ezta? Eta ez unibertsitateak eskainitako baldintzei esker, baizik eta justu... [barreak] hori justu horrela izanda ere, unibertsitateko baldintzak horren eskasak izanda ere, gauza asko lortu izan da eta,

bueno, unibertsitatearen baldintzez ari naizenean ez dut bakarrik aipatzen irakaslego euskaldunaren egoera edo ez dakit zer. Edo karre-
ra guztiek euskeraz burutu ez izana edo.... Bueno, hori ere bai,
baina, nik uste, gabezi sakonagoak edo estrukturalagoak badaudela,
ezta? Euskarak, eta Euskal Filologia salbu, euskarak ez du lekurik
izan maila akademikoan. Oso adibide simple bat, gure artean ondo
ulertzen duguna, zer ekarpen dagoen Soziologiaren ikuspuntutik.
Edo Zientzia Politikoen ikuspuntutik. Zer ekarpen dago euskararen
mundurako? Zer egilek landu du zerbait? Bueno, ba Txepetek,
baina ez unibertsitateari esker. Txillardegik, bai, baina ez unibertsitate
honi esker. Bueno, ordun, hizkuntzen mundua, diziplinarteko-
tasunaren premia daukan neurrian, unibertsitateak ez zaio erantzun,
eta justu Euskal Filologiak, eta Soziologiak, adibidez, badu zeresan
handia, edo Gizarte Sikologiak edo Antropologiak edo Zuzenbideak
(...) Eta unibertsitateak paso egin du. Zergatik? Segurasko unibertsitatearen
baita botere egoeran zeudenak, eta ez bakarrik errektoreak eta gobernu
organoek, baita botere egoera akademikoan, katedradunak (...) segurasko
katedradunek sentsibilitaterik izan ez dutelako eta, azken finean, horiek
erabaki dute formazio akademiko mota guztiak eta planak eta dena, ezta?
Eta ikerkuntza lan ildoak eta, bueno, ordun, horiek paso egin dute eta
unibertsitate, ez honek bakarrik, ez publikoak bakarrik, baita Deustukoak
beste horrenbeste, ez du garrantzi handirik eman, ezta? Ordun, meritu
handiagoa du oraindik kulturgileek lortu duten profesionalizazioa eta
gaitasuna hizkuntzaren munduan jarduteko, unibertsitateak eskaintzen
edo eskaintzen ez dituen baldintzak kontuan hartuta” (3. elkarrizketa).

Akademiko batzuen ustez, gizartearen ekimena beharrezkoa da botere konfigurazio hori aldatu ahal izateko. Besteak beste, botere konfigurazio horien aurrean irakasleria euskaldunaren merituak aintzat hartzeko gauza izango liratekeen ebaluazio instituzioen premia azpimarratzen da, gaur egun ez baitzaio balio handirik ematen euskaraz egindako lanari. Bestela adierazita, euskarazko kultura baloratzeko tresna instituzionalak jarri beharko litzuzke unibertsitateak. Euskal gizartearen eskaerak eta instituzio unibertsitarioaren barnean diharduen komunitate zientifikoaren lanak bide berean jartzeko modu bat litzateke proposatutakoa.

“Ordun gizarteak eskaera bat planteatu beharko du, gizarte edo, bueno, jende aurrean esan beharko du zer premiak dauden eta unibertsitateak bizkarra ematen diola. Eta hori salatu beharko du seguru asko, ezta? Komunitate akademikoak eta zientifikoak eta bere

ahalegina egin beharko du unibertsitate botere organoek beste plan-
teamendu baterantz bidera dezatela beraien lan guztia, ezta?
Adibidez, orain, sortzear dago Ebaluaketa eta Kalitatearen Agentzia
eta hori. Agentzia horren baitan sortuko diren ebaluaziorako taldeek
planteatzen dituzten irizpideak oso inportanteak izango dira. Eta,
bueno, hori ez da zuzen-zuzenean errektore edo errektore taldearen
eraginpeko kontu bat izango. Hor izendun, itzal handiko pertsonak,
akademikoek, hartuko dute parte talde horietan, eta haiek ezarriko
dituzte irizpideak. Ordun, horrek eragin handia izan dezake uni-
bertsitatearen norabideak gizarterantz jarri daitezen, ezta?” (3. elka-
rriketa).

Oro har, elkarrizketatuen adierazpenei antzematen zaienez,
akademiak euskal gizartearekin daukan etena gaudituz ahal izateko
bide bat unibertsitatearen eta euskal kulturako erakundeen arteko har-
reman instituzionalak estutzea litzateke. Izan ere, behin eta berriro
aipatzen da unibertsitateek euskal kulturaren eragileekin –hau da,
euskalgintzarekin eta abar– dauzkaten harremanak eta loturak maila
pertsonalean garatu direla, hainbat kulturagile eta akademikoren lanari
esker eta ez unibertsitateen ekimen instituzionalari esker. Hartara,
elkarrizketatutako akademikoek bereizi egiten dute maila pertsonalean
euskal kulturaren alde akademiko askok egindako lan eskerga baina
sakabanatua eta unibertsitateek instituzionalki egin beharrekoa. Azken
hori, alegia, Euskal Herriko unibertsitateek euskal gizartearekin
daukaten erantzukizuna, betetzeke dago oraindik.

“Orduan unibertsitatean nik uste dut kulturagintzarekin (...) loturak ez dira. Instituzio bezala ez dago. Eta inkluso profesionalen aldetik, unibertsitatean dauden ikerlari eta pertsonen aldetik ez dago, ez dago loturarik. Gero dira pertsonak eta batzuk gaude hemen, eta beste ez dakit zertan, eta abar. Baina, oro har hartuta... Orduan, hemen egin dira lanak, hainbat lan egin da, egiten ari da, baina horiek gero ez dute lotura, ez dute behar bezalako lotura” (4. elkarrizketa).

“Beste gauza ezberdina da pertsonalki. Pertsonalki bai daude akademiarekin lotzen diren pertsonak, irakasleak, irakasle unibertsitariak, beraiek pertsonalki lotura dutenak zenbait herrigintzan egiten diren euskerarekiko edo kulturagintzan egiten diren gauzarekin. Adibidez, zenbat erakundetan, zuzendariak, edo..., holako pertsonak dire akademikoak, baina lotura horiek dire pertsonalki egiten direnak, pertsona mailan, ez erakunde bezela, unibertsitateko per-

tsona bezela egiten direnak. Ni neu ere kulturgintzan, praktikan, egiten ditut lana batzuk bainan pertsona arrunta, bueno unibertsitateko irakasle naizelako ere bai, bainan ez unibertsitateko irakasle moduan, baizikan pertsona moduan, pertsonalki erabaki dutalako egiten dutana. Orduan, nik uste det kulturgintzan eta herrigintzan eta euskalgintzan dauden mugimenduak eta bai saiatzen direla akademian edo unibertsitatean dauden jendea aprobetxatzen; gehiago alderantziz baino; gehiago unibertsitatetikan, unibertsitate bezela, funtzionatuz kulturgintzara ateraz, kulturgintzan, praktikan harremanak izatea baino, zoritxarrez; honela litzateke biak indartsu, behar hori sentitzea erantzun hori egiteko, baina, nere ustez, gehiago da herrigintzatik unibertsitateranzko bidea alderantzizko bidea baino (...) Nik uste det maila guztiak erabili beharko liriatekeela (...) Nik uste det gure egoera larrian danak direla baliagarriak eta danak egin behar direla aprobetxatu, bai erakunde bitartez etortzen direnak eta bai pertsonalki ematen direnak ere, danak. Eta bai unibertsitatetik, akademi mundutikan, kulturgintzaranzko bidean eta alderantzizko bidean ere bai, nik uste det danak eman beharko liriateke. Hori izango litzateke onena, ideala hori litzateke. Bainan gure egoeran, nik uste det, gehien failatzen duena da, erakunde mailan, erakunde bezela, funtzionamendu mailak, erakunde bezela ezer gutxi dagoelako, ezer gutxi, ia ezer, esango nuke” (1. elkarrizketa).

2.4.1.2. Akademiko euskaldunak: mendeko kulturgileak unibertsitate esparruan

Unibertsitate esparrua, beste esparru sozial batzuk bezala, harreman objektiboz osatutako gunea da. Harremanezko gune horretan, askotariko eragileek dauzkaten baliabideen arabera definitzen dute euren kokapena. Izan ere, esparru bakoitzak baliabide legitimo batzuk erabiltzen eta metatzen ditu. Baliabideok kapital gisa funtzionatzen dute gune horretan. Bestela adierazita, esparru batean baliabide jakin batzuen erabilerak asimetriak eragiten ditu esparruan diharduten eragileen artean. Unibertsitate esparrua ere, lehia esparru bat da, harremanezko esparru objektibo bat; bertan, unibertsitario euskaldunak kokapenik ahulenetan txertatuta daude hizkuntza kapitalari dagokionez. Elkarrizketetan gogorarazten denez, euskararen egoerari buruz ikusten dituzten hutsuneak nabarmenak izan arren, akademiko euskaldunak botere harremanezko baldintza desegokietan bizi dira eta behartuta egoten dira, behin baino gehiagotan, unibertsitate egituretara makurtzera.

“Klaro, tartean daudenak irakasleak gara, ikerlariak eta guzti horiek, ezta? Bueno, badugu ahots bat ere. Igual ez nahi bezain potentea edo, baina bueno, erantzukizuna ere badugu. Baina, aldi berean, gehienek bizi egin behar dugu eta, ordun, burua makurtu beharko dugu baldintzen aurrean aurrera egin ahal izateko edo bizi ahal izateko edo duin ibili ahal izateko, ezta?” (3. elkarrizketa).

Elkarrizketatuek esandakoaren haritik, akademiko euskaldunaren egoera zeharo paradoxikoa da, gizartean pribilegioz hornitutako eragile soziala den arren, unibertsitatean mendeko egoera nozitzen duelako kokapen sinbolikoari dagokionez. Hala, alde batetik, akademikoa kontzientea da bere lanak habitus berezi bat eskatzen duela eta bere lanbideak kokapen berezia daukala gizartean. Are gehiago, jakitun dago kultura esparruko kide gisa estatus pribilegiatua egotzen zaiola kulturagile akademikoari, ekonomikoki aparteko saririk jasotzen ez badu ere. Hartara, badaki bere ordaina guztiz sinbolikoa dela.

“Unibertsitarioa, unibertsitarioa izateagatik, nire ustez, lanbide berezia da. Bere buruarekiko konpromisoa hartzen du bere gaitasuna ahalik eta goren mailaraino eramateko. Ez dakit hori konsagrazioa den edo beste motatako ekitaldi mistiko erlijiosoa den (...) Unibertsitario izateagatik (...) hemen sozialki oso estimatuak gara, baina gero ekonomikoki eta hori ba hutsaren hurrengoa gara (...) Jende askok unibertsitatean sartu nahi du horregatik. Niri behintzat hori iruditzen zait. Ez da nire kasua, ni beste kasualitate batzuk ekarri ninduten unibertsitatera. Baina ikusi izan dut batzuetan unibertsitario izaerak badakarrela hori (...) Unibertsitarioak geletatik edo laborategietatik ateratzen denean gizartearen aurrean hori badu, beraz, konsagratua dago (...) Formalki esaterakoan, gizartearen aurrean unibertsitateko kidea izateak estatusa badauka, estatus soziala. Beraz, badu” (8. Elkarrizketa).

Bestalde, akademikoak badaki unibertsitate esparruari dagokionez instituzioaren barne hierarkiek zuzendutako irizpideek eta karrera akademikoaren arauak definitzen dutela bere posizioa harremanezko esparruan.

“Hortik aurrera unibertsitarioen artean, daudenen artean... Bueno hor badago oso egitura hierarkikoa, funtzionaritzak ekarri izan duena, zeren azkenean klub bat dago, doktoreak direnak eta ez direnak, ja badago lehenbiziko bereizketa. Klub bat, ezta? Goren mailako bereizketa hori estandarizatua dago. Goren mailako formazio akademikoa tesia egin arte luatzen da. Horretaz aparte, sexe-

nioak, ikerkuntza, ikertzaile izatea, titular izatea, ikertzaile izateko doktore izan behar da, katedraduna... eta gero, bueno, institutu bateko buru izatea edo ez dakit. Ba, hor, alderdi formala edo krema-tistikoa aparte utzita, ze hor bere bidea egiten du, eta batzutan guk curriculum-a egin behar dugunean, formalismo batzuk eskatzen digute: kanpoko aldizkarietan eta honelako sarrera edo zabalkuntza duten aldizkari horietan idatzi izateak honenbeste dakarkizu, ikerketa zigilua betetzen baduzu honenbeste. Eta gero gure bizibidea dena, eskolak ematea, ba ez da puntuatzen, ezta?” (8. elkarrizketa).

Horrenbestez, lehiazko esparru batean jokatu behar du unibertsitarioak, esparruak jarritako arauekin eta esparruak onetsitako baliabide legitimoekin. Arau horien arabera, Euskal Herriko unibertsitateetan ezarrita dauden karrera akademikoaren erabideek eta ebaluazio irizpideek baliabide kultural batzuk lehenesten dituzte, hau da, unibertsitate horietan dauden bikaintasun kulturalaren ikurrak hizkuntza –kultura– baten markoan hartzen dute zentzua. Horrela, gizartean nagusi den hizkuntza bera atzematen dugu gailen unibertsitate sisteman ere. Hala gizartean nola unibertsitatean hizkuntza nagusiak bideratzen ditu jardun kulturalaren adierazpen gehienak. Hartara, unibertsitate irakaskuntzaren atal batzuek hizkuntza minorizatuari ateak itxi ez badizkiote ere, hizkuntzen arteko hierarkiak bere horretan dirau unibertsitatearen jardun orokorrean. Gizarte bizitzan bezala, mundu akademikoan –irakaskuntzan ez ezik ikerkuntzan, sorkuntzan, argitalpenetan– euskarazko curriculum akademikoaren erabideak eredu nagusiaren mende makurtu dira. Ildo horretatik, euskaraz jardunez gero, akademiko euskaldunak beste unibertsitarioek baino eragozpen handiagoak dauzka bere lanean ezinbestekoa den sustapena lortzeko. Hortaz, elkarrizketatuen adierazpenek erakusten duten bezala, hizkuntzaren erabilerari dagokionez hautu pertsonala egitera behartuta sentitzen da bat baino gehiago, jakinda curriculum-a erdaraz osatuz gero –hau da, erdaraz ikertuz eta publikatuz– onura sinboliko gehiago lortuko duela sistema unibertsitariotik, hura euskaraz eginez baino. Dilema horrek eta karrera akademikoa ongi garatzeko beste estrategia batzuen inguruko gogoetek etengabe baldintzatzen dute akademiko euskaldunaren jarduna. Unibertsitate esparruaren egiturazko “arau ikusezinak” dagoeneko pitzadurak sortzen ari da irakasleria euskaldunak ustez euskaraz sortzeko izango lukeen ahalmenean¹⁷⁵.

“Gaur gaurkoz egungo euskal unibertsitate honetan intelektual gehienak, hainbat intelektual edo irakasle unibertsitate bizi dire-

nak, euskaraz ari direnak, sartuta daude nire ustez corpus organiko batean, akademikoan, harremanetan, hau azken batean da Espainiako unibertsitate bat, horko egituretan. Eta hor egiten diren kongresuetan eta horietan guztetan, hor (...) Eta orduan bizi dira sartuta horko curriculumean (...), curriculumea ere bete egin behar da eta, “curriculumea egin behar dut” (...) Nik uste behartu egiten zaituztela, zeren kostu hori badago eta bakoitzak bere goseak ditu eta bere bideak. Eta nik uste dut gehiago direla hortik dihoazenak euskaldunen artean. Euskararen kontrako zerik gabe baina ...” (7. elkarrizketa).

Esparruak ezarritako funtzionamendu arauak ikusezinak dira –ez daude inon idatzita– baina eraginkorrak. Arauek ezartzen duten herztapena esparruaren logikaren barruan kokatzen da beti –unibertsitateari dagokionez, ebaluazio “zientifikoak” egiten dira, “merituak” neurtzen dira...–. Hainbat elkarrizketetan adierazitakoaren arabera, pentsamendua eta lan zientifikoa euskaraz sortzea erabaki dutenen artean minberatasun handia somatzen da unibertsitate publikoan karrera akademikoa eta ikerkuntza ebaluatzeko indarrean dauden organoek euskaraz egindakoa epaitzeko daukaten ezgaitasunaz eta ezjakintasunaz, eta azpimarratzen dituzte hizkuntza gutxituan lan egiteak eragiten dituen trabak.

“Gaur bertan jaso dut ikerketa baterako eskaera bati eman dioten erantzuna¹⁷⁶ (...), gehien bat euskeraz eginda dago eta erabiltzen den bibliografia ia erabat euskerazkoa da eta hori muga bezela edo balorazio aldetik gutxien baloratzen den planteamendua, ezta? Bueno, ba horrek ondo adierazten du ja hasteko zer desoreka dagoen nagusi den hizkuntza eta kultura baten kasuan eta menpekotasun egoeran dauden hizkuntza eta kultura baten kasuan, ezta? Eta, bueno, nik hauek [txostenaren egileek] planteatutako argumentuari buelta emango nioke. Are zailagoa gertatzen da euskeraz lan egitea eta funtzionatzea, ba hasiera hasieratik, kasu askotan, ba norberaren formazioa erderaz burutu delako txikitatik, eta ordun erderaz eta euskeraz baloratutako abildadeak berdina ez direlako, eta baita ere, ba hizkuntza batean funtzionatzeko edo bestean funtzionatzeko baliabideak eta aukerak eta ... oso-oso desorekatuta daudelako, oso diferenteak direlako. Eta alde hortatik, nire ikuspuntutik begiratuta, egoera gutxituan dagoen kultura eta hizkuntza baten alde lan egiteak garrantzia handiagoa izan beharko lukeela, errezin daukan hizkuntza hortan lantzea edo lan egitea baino, ezta? Baina, bueno, gauzak horiek dira eta, gainera, hori ez da ba erantzun kapritxoso bat, hori

da, nere ustez, talde zientifiko baten balorazioa, ezta? Ordun, hor desoreka izugarria eta, gainera, ez da berria eta ez da sorpresa ere, zoritxarrez, ezta? Eta, ordun, euskal kulturaren, oro har, lan egiteak traba askoz gehiago dauzka, nekezagoa da eta zailagoa. Eta, bueno, ba hori ikuspuntu zientifikotik ere eta balorazio maila hortan dabil-tzanek ere gabezi horiek eta zailtasun horiek eta oztopo horiek kon-tuan hartu beharko lituzketela uste dut, eta ez justu kontrakoa, ezta? (...) Proiektu horri egiten zaizkion kritika horiek kezagarriak dira gizarte mugimenduen ikuspuntutik, gizartearen premien ikuspuntu-tik eta kultur eragileek (...) egin dezaketen ekarpenaren ikuspuntu-tik; ze, klaro, ordun, unibertsitate mailako irakasleek eta ikertzaileek behartuta daude halako planteamenduak alde batera uztera, beraien karrera profesionalean aurrera egin nahi badute” (3. elkarrizketa).

Era guztietako tradizio intelektualekin gertatzen den bezala, akademikoaren zereginaren eraginkortasuna haren lanaren zabalkun-deari lotuta dago. Unibertsitate akademikoari dagokionez, oso ga-rrantzizkoa da argitalpen zirkuitoen hedadura, faktore horrek eragina baitauka pentsamenduaren eta ezagutza zientifikoaren komunikazioan eta komunitate zientifikoaren sarearen eraketan. Hedapenaren auzia, baina, oztopo objektibo latza dugu hizkuntza minorizatuaren kasuan. Batetik, euskararen hiztun komunitatea txikia izatean, haren berezko kultura merkatua murrizta delako. Bestetik, elkarrizketetan adierazi-takoaren arabera, indarrean dagoen unibertsitate sistemaren barnean diharduen akademiko euskaldunari ez zaiolako merezimendurik aitortzen euskaraz argitaratzen duenean. Are gehiago, ez zaio aintzat hartzen euskaraz argitaratzeak askotan dakarren lan bikoizketa: zuzen-ketak, itzulpenak, eta abar.

“Ordun, klaro, gainera egiten den planteamenduaren arabera, ba boteretsuenen hizkuntzek bakarrik balioko dute, hau da, ingelesez argitaratzea edo frantsesez edo alemanez edo gaztelaniaz argitaratzea, hori bai, horrek kontaktzen du. Eta diskurtsu gutxituetan lan egiteak, argitaratzeak edo funtzionatzeak, horrek ez du baliorik. Bueno, ba ordun itxi dezagun behin betiko hizkuntza gutxituen kontua edo, bestela, planteamendu horiek hankaz gora jarri behar direla, ezta?” (3. elkarrizketa).

“Beti bikoizten ibili behar duzu, gauza gehienak euskaraz eta erdaraz, bietan aurkeztzen kasu askotan. Euskeraz bakarrik aurkeztu ezker dardarka zaude horren itzulpenik egiten duena nork egingo duen eta nola egingo duen ez dakizulako eta, bueno, ikerketa horren

balorazioan argi eta garbi agertzen zena: erreferentzi gehienak euskeraz daudela, argitaratutako lan guztiak edo gehienak euskeraz daudela, ordun, hori gutxiesten dela argi eta garbi” (3. elkarrizketa).

Oro har, elkarrizketatuen artean zabaldutako ustea da euskaraz eta euskal kulturari aritu direnek ez dutela onespene handirik lortu unibertsitatean. Unibertsitatean ari diren akademikoen hasierako prestakuntza ere handik kanpo lortutakoa da sarritan –adibidez, UEU eta antzeko euskalgintzako sozializazio guneetan–. Euskalgintzako gune horien jarraipenak aukera eman die akademikoei unibertsitate ofiziletatik at jardun kulturala zabaltzeko: euskarazko argitalpenak, ikastaroak, eta abar baliatu dituzte, hain zuzen ere. Zenbaiten iritziz, euskal kulturgileen kontsakrazioa Euskal Herriko unibertsitateen esparru barruan ez da existitu gaur egunera arte. Hori horrela izanda, bat baino gehiago kontziente da euskarazko curriculum profesionala garatzeak desabantaila besterik ez dakarkiola karrera akademikoan.

“Eta gero gertatu da askok eta askok bere etxean, unibersidade ofizialean egin ez zezaketen hainbat gauza egin ahal izateko UEUren zera hori hor euki dutela. Eta hor formatu dira. Eta gure unibersidaderako irakasle asko. Eta hori uste dot izan dela eta jarraitu duela izaten gainera hurrengo baterako harrobia (...) Uste dot [UEUk] oso rol inportantea euki duela (...) Eta euskal materialen topaketekin” (10. elkarrizketa).

“Hemen itzal dexente bat lortzera iritsi den guztia ba unibertsitatetik kanpo izan da eta, gehien bat, itzal handirik ere ez da lortu Euskal Herriko gizartean (...) Salbuespen batzuk, bueno, Mitxelena bat edo Txillardegia bat edo... baina nik uste dut Txillardegia bera unibertsitatetik kanpo izan da ospetsuagoa edo unibertsitatean bertan baino, esandakoagatik: unibertsitateak ez du gizartearekiko sentsibilitaterik, berdin euskalgintzan edo beste arlotan..., bueno, guk, gizarte zientzietatik begiratuta, esan bezela ez dakit ingenieritza edo osasun ikasketak nola ibiliko diren (...) Oso komunitate diferentek daudela hizkuntzaren ikuspuntutik, ezta? Euskeraren inguruan mugitzen direnak (...) Eta ja erdaldunak, bueno, ba horiek salbuespenak daude, batzuk euskaltzaleak direlako eta, bueno, ba jantzita daudelako neurri batean, baina, gehien bat, intelektual edo, bueno, kulturgile batek lortu duen errekonozimendu hori unibertsitatetik kanpo izan behar du. Unibertsitatean bere lan ildoak, segurasko, oztupoak baino ez ditu eduki (...) Ordun, nik askotan pentsatu izan dut estatuko curriculum unibertsitario bat lantzea. Ba, ez, nahiago

dut euskeraz lan egitea... Kriston argitalpenak eta ez egitea, egin dezakedan ekarpena beste maila batean egitea, nahiz eta horrek guztiak curriculum akademikorako kontatzen ez duen. Baina, bueno, zorionez edo, ez dut horren premiarik, ezta? Baina gogoeta hori egiterakoan oso kontzientea nintzen unibertsitatea ez dela bat etortzen kulturgileek behar duten errekonozimendu horrekin” (3. elkarrizketa).

Bizi duten mendekotasun sinbolikoaren kontzientziak akademiko konbentzionalek euren lanbideaz izan dezaketen ohiko ikuspegi profesionala zalantzatan jartzera bultzatzen ditu akademiko euskaldunak. Bestela adierazita, unibertsitateko profesionalismoaren gainetik euskaraz lan egitea erabaki duten unibertsitario euskaldunek zentzua –balioa– eman behar diote egiten dutenari, ez baitituzte jasotzen lan-kide erdaldunek lan beragatik jasotako sari sinboliko ofizialak. Ikusi dugunez, akademiko euskaldunen hizkuntza kapitala debaluatuta dago unibertsitate esparruan, ez da kapital legitimo bat beste akademi-koekin lehiatzeko. Bestalde, baina, eragile sozial orok zentzua egotzi behar dio egiten duen egintzari. Areago, eragile sozial orok besteen onespén soziala jaso behar du bere egintzetan bai bere bizitza sozialari esanahia eman ahal izateko, bai bere identitate soziala berresteko.

Horiek horrela, nola ematen dio irtenbidea dilema horri akademiko euskaldunak? Nondik sortzen du unibertsitate esparruan debaluatuta dagoen jarduera bati zentzua emateko indarra? Bada, unibertsitatean nagusi den ekonomia sinbolikoaren arabera euskaraz ikertzeak eta argitaratzeak ez dauka erdaraz –gazteleraz, frantsesez edo ingelesez– egiteak daukan errentagarritasun sinboliko berbera. Hartara, euskaraz sortzea erabakitzen duen akademiko euskaldunak beste arau sinboliko bat hartu behar du ordezeko erreferentzia nagusizat, hau da, nolabaiteko errekonozimendua eskainiko dion eredu egoki bat bilatu behar du. Hain zuzen ere, euskalgintzari lotutako zenbait akademikoren artean, badirudi euskal komunitatearekiko lotura, euskal kulturarekiko atxikimendua eta konpromisoaren zentzua garrantzizko osagarri direla euskararen aldeko hautua egiteko unean. Horrela, mendeko euskal kulturarekiko konpromisoarekin –eta konpromiso horrek euskaldungotik dakartzan balizko ordainsari sinboliko paraleloekin– berdindu dituzte unibertsitate esparruak zenbaitetan gutxietsitako lanak.

“Hemen gogoratzen dut Richard Bourhisekin izandako elkarrizketa batean, Richard Bourhis Kanadako soziolinguista ezaguna da,

eta berarekin hizkuntza askatasunaren aldeko diskurtsoa egin behar genuela euskararen berreskurapenerako eta, ba, oso ondo. Orduan nik esan nion:

- Bale, horrek esan nahi du nire curriculumaren garapenerako hizkuntza handietara saltoa egin beharko nukeela, batez ere ingelesera eta utzi euskara.

- Ez, ez, ez.

- Nola ezetz? Hizkuntza askatasuna baldin bada guztiontzat?

- Ez, batzuk euskaraz landu behar dute.

- Ah! Orduan bakan batzuk, horiek hizkuntza askatasunari uko egin behar diote beren hizkuntza komunitateak behar duelako, eta, orduan, zertaz ari gara?. Zergatik ez dugu partitzen zama hori? Hau da, batzuk euskaraz egiten duguna, errekonozimenduaren bitartez, beste batzuk beste hizkuntzatan egiten dutena kideztat hartu? Zeren ez dago parekidetasunik, nolabait curriculuma egin ahal izateko.

Bai, egia da, nik egindako hautua dela, baina azken buruan gizar-te bateko partaide bat besterik ez naiz egindako hautuarengatik. Eta esaten dudanean nik kanpora joateko edo inpakto handiko aldizkarietan argitaratzeko, eta nik idazten dut euskaraz, argitaratzen dut euskaraz eta gero egindako lanagatik, azken buru, ona zein txarra izan (...) Eta ez daukat nire maila eta nire egoera berean dauden kide batek ingelesez egin duenaren ondoan, ez daukat errekonozimendurik. Baina gero zerbitzu sozial bat egiten ari naiz. Eta uste dut norbanakoaren garapenerako. Hor dago diferentzia. Nik egindako hautua dela? Bai, baina neurri batean ere. Zeren uko egiten baldin badiot hori egiteari, nire interesak, nire hazkuntza pertsonalerako beste bidetik onuragarriagoa izan daitekeelako, ba bueno... Orduan komunitatea galtzen dut. Zeren (...) hori pentsatzen dut nik. Ataka horretan izaten gara askotan (...) Euskararen komunitatea pobregoa dela eta... Horretan nik ez dut errurik, baina nire konpromisoa da hori hobetzea (...) Nik esango nuke batenaz beste orokorrean behartuta gaudela emakumei gertatzen zaien moduan erkaketa erlatibo horiek egiten direnean, ba gizonezkoak/emakumezkoak; egoera berean ere emakumezkoek beti plus bat eman behar dute. Ba nik uste dut euskaldunoi hori berori gertatzen zaigula. Pareko egoera horretan euskaldunak/erdaldunak, eta euskaldunok beti plus bat egin behar dugu besteekiko, zeren asimetria dago ...” (8. elkarrizketa).

Halatan, oso ohikoa dugu euskararen aldeko hautua egin duten akademiko euskaldunen baitan habitus espezifiko bat aurkitzea, hau da, lan kulturala eta komunitateari buruzko konpromisoa estu uztartzen dituen disposizio multzoa. Hartara, hainbat akademiko

euskaldunen artean halabeharrez barneratutako mugimendu intelektualaren irudikapena aurkitzen dugu. Intelektual eredu horren barnean, unibertsitateko hertsapen instituzionalen gainera dagoen euskalgintza eta euskal kulturari buruzko konpromiso sendoa adierazten da. Mugimendu intelektualaren atxikimendu horrek zentzua ematen dio lan intelektualari eta zuzendu egiten du haren ildoak, nonahi burutzen dela eginkizun kulturala, nola mugimenduan hala unibertsitatean. Mendeko egoeratik eta bizipenetatik sortutako habitusak, hartara, militantziari lotuta utzi du euskal kulturaren burututako lan intelektuala, bai hasiera batean mugimenduan egindakoa bai gero unibertsitatean garatutakoa.

“(…) nik pentsatzen dut pertsona osotuago egiteko eta ingurune gertuetan murgilduta egotea unibertsitarioei eskatu behar zaien gauzetariko bat da. Ikertzailea baldin bada ere bere ikerketen berri emateko atera laborategitik eta hedakuntza ekimenetan parte hartu eta herriz herri ibili eta... Nik uste beraz hori ona dela nahiz eta iker-tzailearentzat kriston zama suposatu. Baina berak landutakoa ibiltzen denean, fisikan edo nanoteknologiari buruzko ezagupideak gizarteratzea, hori unibertsitarioen funtzioa berezkoa da. Euskaraz arituz berdin. Gero, herrigintzan jardun eta euskararen hizkuntza komunitatearen eraketa konpromisoa hartu, ba hor bai ikusten dut egon daitekeela hautua. Zama dela? Dударik ez. Goxoago baino mingotsa dela? Dударik ez daukat. Baina, asko ikasten da. Orduan, ikuspegi horretatik nik hautua egina daukat eta damurik ez daukat, nekea askotan. Oso nekagarria da. Baina nik nire lanbidearekin uztargarria eta uztartua ikusten dut, eta orduan naturaltasunez, horrela jardun maila akademikoan eta hori egin Beste batzuk egiten dute beste horrenbeste beste alorretan baina beste izen bat emango diote. Idazten duen unibertsitarioa eta ez dakit nongo elkar-tean erroldatuta dagoena, eta askotan ez dakit ba ekologian edo gobernuz kanpoko erakunde batean, horrek denak dira merituak. Eta gurean, berriz, demerituak, ezta? Bueno, ba, eraman behar izaten da, nekeak eta abar. Gero, demerituak direlako testuinguru batean, hor bai behar dela konpromiso hori ondo ulertzea. Beti zerbaiten hobe beharrez, ni behintzat horretan sinestuta nago, zerbaiten hobe beharrez eta ez ezeren kontra, baizik eta zerbait ekarri, eraikitzeke eta emateko. Eta ez dagoen zerbait desegiteko edo zerbaiten kontra jarduteko. Nik ez daukat holako sentipenik eta pentsamolde-rik. Bueno [uste dut] hor badagoela lan esparru zabal bat oso aberasgarria izan daitekeena, baina, bai, oso gogorra. Eta oso gogorra

den neurrian, nik jendeari errespetu osoa zor diot eta bakoitzak ikusiko du parte hartzen duen eginkizun horietan edo ez duen parte hartzen” (8. elkarrizketa).

2.4.2. Mugimendutik administraziora: hizkuntza arloko teknikariak

Gizarte mugimenduek era askotako zikloak bizi izaten dituzte sortzen diren unetik aurrera. Luzaroan irauten dutenean, instituzionalizatu eta profesionalizatu egiten dituzte beraien jarduerak eraginkortasun handiagoa lortzeko. Euskalgintza ez da salbuespena izan ibilbide horretan. Gizarte aldaketek, jakina, eragina izaten dute mugimenduen bilakaeran. Euskalgintzaren instituzionalizazioa botere autonomikoaren eraketaren osteko zikloan egiturazko aldaketek bultzaturiko egoitzapen horren adibide argia dugu.

“Gizarte mugimenduetaz hitz egiten degunean (...) 75ean zegoen energia eta 95ean zegoen gizarte energia nik uste det oso diferentek dirala, hizkuntzaren inguruan ere. Ta hor tartean batzuk pittindu ziran, beste batzuk nekatu, generazio berriak sartu, balore sistemak aldatu..., eta ba orain jendeak 4 ordu eta erdi ikusten baditu egunero telebista, bueno, ba gazteon balore eta gauza batzuen ondorioz...” (5. elkarrizketa).

70eko hamarraldiko gizartea eta 90ekoa ez ziren berberak, ezta gaurkoa ere. Belaunaldi berrien gizarte balioak eta kultura arauak aldatu egin dira. Bizi baldintzak eta esperientziak beste batzuk dira. Gaur egungo gizarte ereduaz zalantzan jarri dira duela 30 urteko mugimenduen aktibismoari lotutako oinarritzko kontzeptuak, militantziarena esaterako. Euskalgintzak –orduko beste mugimendu batzuek bezala– oinarritzko parte-hartzaile asko galdu ditu, nahiz eta erakunde eta eragile espezializatuagoak eta prestakuntza handiagokoak irabazi dituen.

“Militantziaren kontzeptua egon da hemen eta seguruenik oraindik ere badagoela holako zera bat, ez? Eragin handia izan duena, hau da, bazirudien nolabait kulturagintzan, herrigintzan, holako gauzetan ari zenak militantea behar zuela izan, eta militantea izan behar zuela kasik-kasik zilizioa jantzita. Nik izan ditut eztabaidak (...) Kontzeptua (...) da ezin duzu kobratu. Hori dator errealitate bate-tik. Bat, baliabide gutxi eta orduan militantziaz egin dira gauzak. Bere ohiko lanetik kanpo. Gero hor lanean arituz baina kobratu gabe edo gutxi kobratuz, eta abar, eta abar. Premia ekonomikoa. Bi, mili-

tantziari buruzko ikusmolde politikoa, oso lotuta dagoena marxismoarekin eta iraultzarekin, pixka bat hortik datorrena. Nola ezkerak eragin handia izan duen euskalgintzan eta kulturagintzan ba horrek nolabait ... Eta, bestetik, nik esango nuke hemendik nahi gabe ere, tradizio judeo kristauaren aztarna nabarmenak, inkontzienteki ere: militanteak izan behar dugu, sufritu egin behar dugu. Ezin gara hemen egon ondo pasatzen. Holako kontuak. Akusazio grabeenetakoa zen zure interes pertsonalaren bila zabiltzala, akusazio grabeneetako bat, historikoki egon dena eta gaur oraindik ere bada-goena: lotu nahi dut hau, en fin, bizitzeko baliabideekin, soldata edo bitarteko batzuekin, edo lotu nahi dut hau nire bestelako proiektzio pertsonal eta interesekin. Beraz, horrek seguraski zer ekarri du? Zerebro fuga bat. Hein handi batean, nire ustez hemen zerebro fuga bat egon da. Hemen jende baliagarri asko urte batzuk hemen eman ditu, baina gero ikusten ez zituenez baldintzak aurrera egiteko, oso markatuta zegoelako militantziaren kontzeptu hori, eta orduan joan dena beste toki batzuetara. Eta ez bakarrik joan dela beste toki batzuetara, baizik eta beste tokietara joan denean moztu egin du [harremana]" (4. elkarrizketa).

Mugimenduaren barnean gertatzen den militantziaren jaitsiera-ekin batera, profesionalizazio prozesua areagotu egiten da. Profesionalizazioak askotariko ondorioak inplikatzeko ditu. Mugimenduaren erakundeen burokratizazioa dakar, alde batetik. Eta, bestetik, erakundeen barruan, adituek eta teknikariek bereganatzen dituzte zeregin gero eta espezializatuagoak. Halatan, burokraziek eta adituek hartzen dute lehenago mugimenduak eta egintza kolektiboak betetzen zituzten jardura esparruak. Ildo horretan, 90eko hamarraldiaz geroztik egitura berriak sortu ziren euskalgintzaren barnean, funtzioetan geroz eta espezializatuagoak, profesionalerik geroz eta hornituagoak. Kontseilua dugu egitura bereizi horietako bat¹⁷⁷.

"Euskalgintzak urte hauetan sortu du baita ere, ez dakit nola esan, corpus tekniko bat. Eta nik uste det beraiek posibilitatea dutela kulturgilerik gabe [aritzeko] (...) hor urte askotan ibili direnak (...) aparatu kulturaletan ez? Ez dut esango aparatu politikoetan baina, bueno, apur bat ba manejatzen estrategiak, taktikak... (...) Kudeatzaile. Azkenean izan dira kudeatzaileak. Eta nik uste pisu handia izan dutela euskalgintzaren kudeatzaileak, adibidez ba... Kontseiluaren sorreran (...) Nik zentzu hortan noizbait pentsatu izan dut, adibidez, pentsatzen badut Kontseiluaren sorreran, ni kulturgile, ni ez naiz kudeatzaile bat, ni kulturgilea izan naz, ez? Eta,

bueno, ni ere hor egon nintzen, egia da. Utzidazu pentsatzen, idazleak? Bueno, beste batzuk ere bai, ez? Baina, gehiago, pisu gehiago izan zuten kudeatzaileek, ez? Zentzu horretan apur bat nik egin dezakedan kritika bat da euskal kulturgileek azken pare bat hamarkadatan, edo igual gehiago, nik espero nuena baino aportazio gutxiago egin dutela, aportazio intelektual gutxiago (...) Nik bota izan dut faltan..., nik uste det kulturgileek aportatu beharko luketela apur bat gehiago bisio aldetik, ez? Bisio aldetik (...) Nora joan nahi dugu (...) zer harreman eredu botere publikoekin, herriarekin..., baina ez dut uste kulturaren, oro har, hori egin dugunik, hori egin dutenik” (2. elkarrizketa).

Baina, hizkuntzaren alorreko burokratizazioak, mugimenduaren barnean ez ezik administrazio autonomikoaren sorkuntzan ere izan zuen bere adierazpenik agerikoena. Arestian aipatu denez, botere autonomikoaren eraketak instituzionalizazio eta burokratizazio prozesua ekarri zuen berarekin batera, baita ofizialdu berri zen hizkuntza minorizatuaren esparrura ere. Beste esparru batzuetan gertatu bezala, ordura arte gizarte ekimenez eta mugimendu ekimenez egindakoa, adiministrazioak hartu nahi izan zuen bere gain. Halatan, osatu bezain laster, botere horrek eskuduntza berriak bereganatu eta aplikatu zituen, besteak beste, hizkuntza politikari zegozkionak. Modu horretan sortu ziren administrazio autonomikoan nahiz udal administrazioetan euskararen normalizazioaz arduratu ziren euskara zerbitzuak. Bulego tekniko horiek zuzentzeko azken erantzukizuna politikariaren eskuetan zegoen –eta dagoen– arren, *de facto*, profesional berrien baitan geratu da harrezkeroztik lan tekniko guztia: hain zuzen ere, euskara teknikariak izan dira –euskara irakasleekin batera– euskararen munduaren profesionalizazioaren eredurik arketipikoena. Eurengan jarriko dugu, beraz, gure arreta, mugimendutik sortutako tradizio tekniko baten hastapenak irudikatzen dituztelako modurik nabarmenenean.

Dena den, ondorengo elkarrizketatuak nabarmentzen duen bezala, zehaztu beharra dago bai hizkuntza normalizazioaren esparruan burututako burokratizazioa bai haren profesionalizazioa, prozesu erlatiboak izan zirela luzaroan botere politiko autonomikoek –eskuduntzak eduki arren– hizkuntzaren auzia auzi periferikotzat hartu zutelako administrazioaren barruan.

“(…) nik uste dut euskera teknikariak eta euskera zerbitzuek ekarri dutela hizkuntza normalizazio prozesuaren profesionalizazio bat

eta egonkortasun bat, eta ofizializazio bat. Eta hori urrats garrantzitsua izan da, historian lehenengo aldiz izan degu, seguraski ez da inoiz egon egitura tekniko bat administrazio boterearen eskuetan hizkuntza-normalizazio prozesua aurrera eramateko. Eta hori urrats garrantzitsua eta positiboa da. Baina, beti daude bainak. Baina galdera igual beste era batera formulatu behar izaten da, eta ba..., urte guzti hauetan eduki dugun egitura edukita eta erabili ditugun aurrekontuak erabilia, lortu ditugun emaitzak nola baloratzen ditugu? Eta seguraski, galderak bigarrena behar du, O sea ke, nere lekutik aurrera egitea ez da zaila, hori askotan esaten det; aurrera egingo dugu, joder! Ze atzerago ja ezin zara joan! (...) Beraz, ahalegin pixkat egin eta aurrera egitea ez zen zaila. Bai, galdera ez da aurrera egin den edo ez, da egin duguna baino gehiago egin zitekeen. Eta hor ere erantzuna da askoz gehiago egin zitekeen. Eta non egon da akatsik nabarmenena kasu hortan? Eta euskera zerbitzuei eta teknikariei dagokienez, hor, nik uste det, gabeziarik handiena izan da administrazioak, administrazio gisa, eta hor sartzen det eragile politiko, alderdiak, sindikatuak...., hor dagoen botere gune horrek, hizkuntza-normalizazio prozesua prozesu periferiko gisa hartu duela. Alegia, hizkuntza-normalizazio prozesua ez da hartu ardatz nagusi gisa; ez alderdien politikatan, gehientsuenetan, eta hor diferentziak badaude, eta PPtik joango bagina azken muturrean Batasuna jarriko bagenu ba, seguru asko diferentziak eta inplikazioak handiak dira, baino irakurketa orokor bat eginez esango genuke herri honetan administrazioak hizkuntza normalizazio prozesua onartu duela, baino onartu du maila periferikoan, esango nuke diglosikoan (...) Eta hau esaten dut jakinda, hor barruan, jende askok lan asko eta borondate asko jarri duela (...) Eta orduan hori ikusten da; ikusten da oso argi azken Plangintzaren porrotean (...) ez delako egon inplikazio politiko administratiborik, ez da egon. Hor Hizkuntza Politikan dabilzanak bai, baina es ke horiek ez dira inportanteenak historia honetan, askoz ere inportanteagoak dira Ekonomian daudenak, Industrian daudenak, Barne Sailean daudenak (...) Ordun horrek porrot egin du eta hori ikusten da bestelako politika sektorialetan. Eta "Harry Potter"en azken zifrak ikusi besterik ez dago" (6. elkarrizketa).

Administrazioa lehen unean iritsi ziren teknikarietako asko euskalgintzaren harrobietatik zetozen. Ezin da ahaztu, mugimenduek ere premia teknikoak garatzen dituztela eta adituaren tradizioa mugimenduaren barne aktibismoari atxikirik egon ohi dela. Halaz ere, administrazio sortu berrian egokitutako hainbat langile prestakuntza egokirik gabe zeuden eta baliabide gutxirekin abiatu ziren adminis-

trazio lanetan. Baina, hasierako eragozpen horiek ez eze, hizkuntza politikaren “periferikotasunak” berak administrazioaren esparruan –azken batean, hizkuntza politikaren bazterreko egoerak esparru politikoa– zaildu egin zuen teknikarien lana. Izan ere, badirudi euskara teknikariek oso nabarmen islatuta aurkitu zutela euskararen normalizazio-plangintzen garrantzirik eza bai irizpide politikorik ezean bai agintaritzan politiko faltan –bereziki, hasierako urteetan–. Horrekin batera, aurre egin behar izan zioten baliabide gabeziari ere. Hartara, ezerezetik hasiera behartuta egonik, beraiek sortu behar izan zituzten oinarri oinarritzko ekimenak eta lanabesak ere. Elkarrizketatuen esperientziaren arabera, hein handi batean, teknikarien lan kemenaren eta borondatearen mende egon da geroztik teknikarien trebakuntza, areago, zerbitzu teknikoaren eraginkortasuna. Bestela adierazita, adituen aktibismoari esker lortutakoak izan dira emaitza asko, eta ez irizpide politikoen edo profesionalismo hutsaren ondorio.

“Nere alboan baldin bazegoen gizarte zerbitzuetakoa edo baldin bazegoen harunzkaldeago kontu hartzaile garai hartako teknikaria, haiek askoz ere baliabide gehiago zeuzkaten. Haiek zeukaten eskuliburu bat, edo haiek zeukaten programa bat ja ez dakit zer gestionatzeko eta nerea zan paper txuria eta udalekuetako umeei txokolatea ematea, bueno, udalekuak antolatzea orduan zala lortu behar zena, ez? Orduan, horren ondorioa zein da? Bat, ilusio handiagorekin hasigina. Bi, ba segun nolakoa zeran ba horrek berak, ea nola esaten dizudan, sormenerako eta zure errekurso propioak sortarazteko beste indar bat, behar batek eragindako zerbait, ez? Ta bueno, hor bere emaitzatxuek izango ziren, ez?” (5. elkarrizketa).

Botere esparru orok bere aginduak betearazteko tresna modura erabiltzen du administrazioa. Administrazioaren azpiesparruren batean irizpide politiko eza edo azpiinstituzionalizazioa gailentzen baldin badira arlo horren garrantziaren gabezia adierazten ari da botera politikoa. Horrelako egoera batek baldintza paradoxikoa sortzen du administrazio horretako langilearentzat, alegia, teknikariarentzat, ildo zehatz barik utzi ditzakeelako administrazio zerbitzaria. Dakigunez, intelektualei buruzko literaturan oso argi zehazten da teknikariaren tradizioari egotzitako betekizuna: hain zuzen ere politikariek edo agintariek erabakitako egitasmoetan bildutako helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean landu eta moldatu behar ditu teknikariak. Horretarako bere jakintzan funtsatutako argibideak jorratzea eskatzen

zaio, botereguneetan adierazitako ildo zehatzak bultza ditzan. Ohiko ikuspegi horretan, administrazioko teknikariak ez du erabateko askatasunez eta sormenez jokatzeko bere lanean, lan intelektuala bete arren.

Ildo horretatik, oso deigarria da euskarak administrazioan daukan egoerak –elkarrizketatu batek “periferizazioa” deitu duen egoera horrek– euskara teknikariei dagokienez sortu duen lan baldintza berezia: funtzionarioen askatasun erlatiboa, hain zuzen ere. Batetik, lan baldintza bereziak langile modura daukaten askatasun esparrua zabaldu du, lan asko egin dezaketelako edo batere ez, borondatearen arabera. Hala, administrazioko funtzionario bilakatzeko aukera izan dute teknikariek, funtzionario kontzeptuaren adierarik txarrean. Bestetik, askatasun horrek euren sormenerako esparrua ireki du –“sortzen dira, hortaz, pentsatzera behartuta dauden pertsona batzuk” (5. elkarrizketa)–. Beste funtzionario askok ez bezala, intelektual lanean jarduteko esparru egokia atzeman dute administrazioan, intelektual kontzeptuak daukan adiera sortzaileari lotzen bagatzaizkio. Hartara, elkarrizketatuak aitortu bezala, teknikarien eskarmentua kontuan hartuta, agintearen eta baliabideen gabeziak ez du ezinbestean orain arte egindako lana zapuztu. Aitzitik, baliabideen eskasia borondatearekin eta militantziaren nolabaiteko ideiarekin ordezkatu dira sarritan, batez ere lehenengo garaietan. Halatan, egindako esfortzua funtzionarioari legez agindutako betebeharraren emaitza baino militantziaren habitusari lotutako disposizioen ondorioa izan da. Disposizio horiek garai jakin batean euskalgintzaren mugimenduan garatutako gaitasunak izan dira, diskriminazio bizipenei lotutakoak, gizarte eragileek praktika ez-kontziente modura barneratu dituztenak eta nonahi, alegia, hizkuntza praktikak gauzatzen diren gizarte esparruetan, birsortzen direnak. Baita, euskara teknikarien kasuan gertatu bezala, ordaindutako lanbide bat betetzen den testuinguru profesionalean ere. Hala, administrazioan euskararen alde egindako lan sinbolikoki “periferiko” horretan ere mugimenduan buruturiko praktiken transposizioa aurkitzen dugu, bai teknikariaren jarrera pertsonalean bai haren jardun profesionalean. Bigarren horretan ere oso nabarmen ikusten du elkarrizketatuak mugimenduaren eta administrazioaren helburuak ildo berean jartzeko premia, interes politikoen gainetik –“ez dakit zer egin beharko zenukeen, zuk nahi dezun edo zuri iruditzen zaizun hori, ala zure jefek egitea esan dizun hori (...) Bueno, ba, hortan, nik uste det oso indiziplinatuak izan gara hasieratik” (5. elkarrizketa)–. Tradizio teknikoan kokatzen den arren, mugimenduan ditu

begiak jarrita, eta bere lanean bi mundu desberdin uztartzen saiatzen da: instituzionala (adibidez, kasu honetan udala, haren errekurtsioak) eta elkarteetako (mugimenduak).

“Sortzen dira, hortaz, pentsatzera behartuta dauden pertsona batzuk (...) pagatuta, ordainduta daudenak, eta zeregin hori badaukate berez, hizkuntzaren normalkuntzarakoa. Bestela ba hori egin dezakezu zuk etxean zure ordu libreetan eta, bestela, berriz, ba astelehenean 8etan bazaude mahaian eserita eta gaia hori da (...) Zer da hobe? Jardun instituzionala edo gizarte mugimendua? Edo bien sinergiak sortutako elkarlan bat hizkuntza komunitatea artikulatzera bideratua..., ba hortara jartzen zera, ez? Eta esaten duzu ba izugarritzko indarra dauka eta gero, gainera hori joan-etorriko pelota da. Ze zuk energia jar dezakezu baina nik hola boteprontoan nonbaite-ra joan beharko banu euskera teknikari bezela lan egitera, ba holako gela itxi batean bakar-bakarrik egotea baino dinamika sozial handia, ikastetxeak, euskaltegiak, euskera elkarteak, eta komunikabideak eta ez dakit zer dagoen herri baten aritzea askoz aberasgarriagoa, indargarriagoa litzateke. Beraz, hori ondo artikulatzen asmatu ezkerore zure lana ondo egiten ere ari zera. Hori perspektiba (...) intelektual baten ikuspegitik. Beste gauza bat da zuk instituzio konkretu bateko eta gidaritzako politiko konkretu bateko langile ordaindua zarela. Orduan, hasiera batean, ez dakit zer egin beharko zenukeen, zuk nahi dezun edo zuri iruditzen zaizun hori, ala zure jefek egitea esan dizun hori. Seguruenik bigarrena, ezta? Bueno, ba, hortan, nik uste det oso indiziplinatuak izan gara hasieratik. Askotan zorionez eta, askotan, ba baita ere, sozialki dagoen gabezia baten ondorioz. Hirigintzara sartzen dan zinegotzi batek egin beharrekoari buruz eta interesa handiagoa badu eta gehiago daki, ta badaki oso ondo arau subsidiarioak zer diran eta, orduan, gainera hori interesatzen zaio eta inspiratzen bazera interesen bat ere edukiko du ba han etxeak egitearekin edo ez egitearekin edo..., gaia beretzako askoz gertuagokoa da, eta hori, salbuespenak salbuespen, orokortu daiteke. Eta hizkuntza normalkuntzako teknikariei gertatu zaiguna da aldrebeskoa: papela zurian eta jeferik ez, jefe operatiborik ez, orduan, zer egin behar degu? Ba asmatu. Eta, bueno, ba horrek eduki du kasu askotan, jokatzeko askatasun gehiago baina indefinizio gehiago ere bai eta, ordun, ba bueno, horren ondorioak, ba, batzutan, nik askotan komentatu izandu det, segun zer euskera zerbitzutako lanpostu, zara funtzionario, bere zentzurik despektiboenean izateko lanposturik onenetakoa. Alegia, esplikatuta, kontu hartzaile bati alkateak erreklamatu egingo dizkio bere lanak eta aurrekontuak atera egin behar dira, onartu egin

behar dira, gestionatu egin behar dira eta ebaluatu egin behar dira. Euskera teknikariarenak egin behar dira? Ba, sistema beraren arabera bai. Egiten dira? Ba, segun, baino normalean ez agintaritzak hala gidatuta, ezta? Eta, orduan, ba ez baduzu ezer egin nahi euskara zerbitzu batean ba, normalean, ez dezu inor edukiko espediente bat jarriko dizula esanaz segituan, ez? Ordun, ba oso gure baitakoa izan da” (5. elkarrizketa).

Administrazioaren eta mugimenduaren munduak uztartu nahi horretan, udal mailako teknikarien eginkizuna herriko hiztunen komunitate bizitzako arloak suspertzera bideratu da behin baino gehiagotan. Ildo horretatik, udaletako euskara teknikari asko udal elkarteetan sortzaile eta eragile aktibo izan dira udal mailako euskalgintzan. Hartara, administrazioko ohiko funtzionarioen lana baino askoz harago joan da zenbaitetan beraien zeregina. Batzuen eragina ezaguna eta errekonozitua izan da, elkarrizketatu batek aitortzen duen bezala.

“Instituzioen inguruan euskararenganako eta euskal kulturarekiko ilusioa sortu duen proiekturik nik ez dakit kapaz izango nintzatekeen bi, hiru, errekonoziteko oraintxe bertan. Ez dakit. Eta herrietako euskara taldeen zerean, hor igual bai gertatu da, herri askotan bai gertatu da ba Txepetx eta zera, eta euskara teknikariak izan zirela aldi berean ba herrian ere euskara taldeak martxan jartzen aritu direnak. Lasarte hor egongo da. Eibar hor egongo da. Tolosa hor egongo da, eta hor izen propioak daude. Ez zen egongo Ttakun-ik Lasarten Iñaki Arruti bat egon izan ez balitz, eta ez zen egongo Jardun bat Bergaran Plazaola egon izan ez balitz. Eta horiek udal txeko euskara teknikariak dira bakarrik. Eta Fernando Muniozguren barik ezin da ulertu Gasteizko Eta Kitto-n egin diren gauzak, ezta? Eta baten batek esango du igual partziala naizela ezta? Bueno, esan gura dut, ez dute hori egin udalak eskatuta eta udalaren politikaren baitan baizik eta euskaldun kontziente diren aldetik eta euskal komunitatearen garrantziaz ohartuta, ba konturatu dira euron lana batez ere hori dela. Eta ez kultur eragile askok egiten duen moduan udaletxeetan ezta?” (10. elkarrizketa).

Halaz ere, esandakoaren haritik, gizarte aldaketekin batera bestelakotu egiten ari da egoera. Urteak joan ahala, bai hasierako teknika-riak bai administrazioa bera profesionalizatu egin dira. Ondorioz, hastapenetako euskara teknikarien habitusa, alegia, jarduera profesionala eta mugimendu militantzia uztartzeko gai zen disposizioa, ahuldu egin da bestelako sozializazioa daukaten belaunaldiak adminis-

traziora iritsi diren neurrian. Halatan, gero eta baliabide tekniko eta material ugariago eskaintzen duen administrazioan gero eta euskara teknikari gehiago dago. Horrekin batera, baina, hasierako eragile multzo txikiaren militantziaren ikuspegia desagertu egin da: norberak jarri beharreko esfortzua eta energia “plus” hori disolbatu egin da egungo aniztasunean. Belaunaldi aldaketarekin funtzionarioen prestakuntza handitu egin da, norberak jarri beharreko ahalegina eta energia, aldiz, gutxitu.

“Hor, ba (...) profesionalizazioa, formazioa eta gu sortu ginenean ez zegoen horren inguruan ezer norbera janzteko. Orduan, bueno, gutxi dago, eta soziologia alorrean ere eskas gabilta nere iritziz, hortan batez ere, ikasketa tronkal eta abarretan, herri hontako gai nagusietako bat dala iruditzen zaidalako niri behintzat, baino bueno, posgraduak badaude, Hiznet hor dago, Linguanet... Ez dakit, beste dimentsio bat da. Orduan, profesionalizazioa gehitu da izugarri, erraztu egin da, hori ona da, baino horrekin baita ere, beste gauza askorekin pasatzen dan bezala, ba pasa gera kantitate handietara. Orduan ba, lehen ginan 30 euskera teknikari eta orain izango gera 300. Orduan, hor sartu diran pertsonen interesak, bizipenak, esperientziak..., ba baita ere diferenteak izango dira. Etorriko dira beste ikasketa batzuekin, ez? Baina baita ere diferenteak izango dira energia aldetik, papel txuririk ez dute edukiko, ordun gimnasia horiek ez dituzte egin beharko, horrek bere zati txarra ere badauka..., eta gero, baita ere, bueno ba, ez dakit, militantziaren ikuspegia, zentzu positibo batean, nolabait lan hau soilik profesionalki bizitzea oso zaila da. Norberak jarri behar du plus bat, zera aldetik, ba bizipoz aldetikan esango diot nik ondo egiten ahalegindu behar dela. Eta beste toki batzutan ondo egiten dezu sistemak berak gauzak ondo egitera eramaten zaituelako, eta hemen zuk jarri behar dezu. Eta hori, (?) esperientzia hori bizitu ez duen jendeak, ba ez du zeregina hola bizituko; esango du, bueno, ni hor naiz, pum, pum, hau, pum, pum, orduan, bakoitzak ez badu nahi ba ni hor geldituko naiz, eta hori, gure kasuan, ba gutxiago eman zan. Nik nahiago dut guk egin genuena. Gehiago kostatu zitzaigun, energia gehiago jarri genuen, baina, nik uste det, gehiago jaso degula baita ere, ez? Gehiago emango zigula. Hor sartzen ziran norberaren helburu eta norberaren bizipen, balore eta abar” (5. elkarrizketa).

Militantziaren jaitsiera horrek, areago, militantziaren aurkako diskurso sozial nagusiak, kezka sortzen du elkarrizketatutako teknikari batengan. Izan ere, bere lanaz haratago, borondatezko ahalegin

kontzientek euskararen iraupenerako daukan garrantzia azpimarratu nahi du. Euskal kulturgileen adierazpenek, oro har, euskal komunitatean azaleratzen diren hainbat kontraesanen berri ematen digute. Aurreko elkarrizketa batzuetan bezala, beste behin ere, mendeko hizkuntzaren aldeko diskurtso sozial nagusiak baliatzen dituen argudioak aipatzen dira adierazpen honetan. Gizartean konbentzionalki –ustez konbentzitzeko– erabilitako argudio horiek, baina, ez zaizkio guztiz sinesgarriak iruditzen elkarrizketatuari. Non dago kontraesana? Orain arte ikusi dugunez, biolentzia sinbolikoaren mekanismoek nagusi denaren indarraren arrazoia gordetzen dute ezkutuan eta mendekoa deslegitimatzen dute indarraren arrazoi berbera erabiltzeko. Esaterako, mendeko hizkuntzak eleaniztasunaren onurak eta argumentu historikoak erakutsi behar ditu bere existentzia justifikatzeko; aldiz, ez du inoiz aipatu behar “beharrezkotasunaren” auzia. Alabaina, hizkuntza nagusia beharrezkoa da gizartean diskurtso legitimatzailearen premiarik gabe. Elkarrizketatuak gogoratzen duenez, beharrezkotasunik ezean, hizkuntzari buruzko “motibazioa” landu behar du hizkuntza txikiak, mendeko hiztunak bere hizkuntzaren aldeko ahalegin kontzientea egiteko premia baitauka, hura birsortu nahi baldin badu. Halaz ere, ahalegin hori –“militantzia”, “sakarfitzio” edo “plus” delako izenpean gure elkarrizketatuen diskurtsoetan etengabe aipatzen den hori– ez da berez nahikoa izaten eta egoera agonikoan jartzen du hizkuntzaren gizarte birsorkuntza.

“Nik uste det..., bueno militantzia egia da hitz oso denostatua dela bolada honetan (...) Militantziaren aldeko jarrera bat ia ia gaizki ikusita dago, ez? Eta nik defenditzen dut, defenditzen dut nire (?) profesionalidadea baina defenditzen dut militantzia maila bat eta iruditzen zait momentu hauetan (...) euskerak diskriminatu behar duela pertsona batentzat lor dezakeen botere adkisitibo maila, horretarako balio badu euskerak aurrera egingo du, eta horretarako balio ez badu atzera egingo du. Alegia, zuk euskera jakinik, jakinda pentsatzen baldin badezu euskera jakin gabe baino hobeto biziko zarela, euskera ikasten saiatuko zara. Eta hori produkzio katearen atal guztietan. Unibertsidadean zuk pentsatzen baldin badezu, kontxo!, euskera jakinda, seguraski, leku hobea izango det, postu hobea lortuko det... ba saiatuko zara. Baina, horra iritsi bitartean, alegia, beharrezkotasuna lortzen baldin bada, motibazioaren garantzia ja oso maila normalean gelditzen da. Nire alabean kasuan ez zait burutik asko pasatzen erdera ikasteko motibatuta egongo diren edo ez, badakit

ikasiko dutela, zeren eta derrigortuta daude, sobrebibituko dute erdera ikasten badute, sobrebibituko dute. Are gehiago, inglesa ikasi beharko dute sobrebibituko badute hemendik 20 urteko. Beraz, nik nahiko nukeena da Euskal Herriak sobrebibitzeko euskera jakin behar izatea. Hori lortzen ez degun neurrian ez da egongo motibaziorik. Baina, nola hori ez dugun, izan behar dugu motibazioa, ez? Ta motibazioa exijitzen baldin badugu, hori militantzia horrekin lotzen da, azken batean, egoera berdintsu batean diskurtsoa izatea hori lujo bat da (...) Guk diskurtsoetan esango dugu aberastasun bat dala, historia, eta bestea, eta nahi degun guztia... baina hori Madrilen ez dute oso ondo ulertzen eta New Yorken gutxiago (...) Beraz, orduan, ia, ba, ondo datorkigu, ta historia, ta eleaniztasuna, ta..., oso ongi ikusten ditut, baina, edo euskera beharrezko bihurtzen dugu esparru batzuetan edo honek ez dauka irtenbide askorik. Baina hori lortu bitartean behar dugu militantzia puntu bat. Eta, orduan, hizkuntzaren balio plus hori, eta militantzia esaten dudanean ez dut esaten itsu-itsuan, ez, ez, ez. Ez dut hori esan nahi. Baina bai esan nahi dut plus bat izan behar duela, alegia, jendeari esan behar diogula liburu bat euskeraz idaztea edo erderaz idaztea ez dala gauza bera, liburu bat euskeraz egitea ez dala gauza bera (...) askoz ahalegin handiagoa eskatzen duela, hortan gabiltzanok, ekonomiko-ki ere, diru gutxiago irabazten dugula, hori esan behar diogu jende-ari. Eta jendeari esango diogu, bueno (...) ahalegin bat egin behar duela, ez sakrifizio bat, baino bai ahalegina. Ez nago sakrifizioen alde, baino bai ahalegin kontzientearen alde. Hori galtzen baldin badugu, dana berdin baldin bada, dana galtzeko daukagu. Kontzientzia sozial hori indartu behar dugu, ze bestela jai gara, zaila da eutsi ahal izatea” (6. elkarrizketa).

Oro har, geroz eta tradizio intelektual profesionalizatuagoetan murgilduta agertzen badira ere, euskalgintzako kulturgileek, mendeko hizkuntza baten hiztun gisa duten esperientziak bultzatuta, militantziari lotutako habitus espezifikoa erakusten dute. Habitus horrek mugimendu jarретatik hurbil jartzen ditu eta mugimendu intelektualen ereduen konpromisoetara bultzatzen ditu, hemen bildutako adierazpenetan nabarmentzen den bezala. Horrela, jarduera profesionala mugimenduz kanpoko beste gune instituzional batzuetan burutzen denean ere, disposizio hori azaleratzeko prest dago behin eta berriro –“Euskera beharrezko bihurtzen dugu esparru batzuetan edo honek ez dauka irtenbide askorik. Baina hori lortu bitartean behar dugu militantzia puntu bat. Eta, orduan, hizkuntzaren balio plus hori, eta mili-

tantzia esaten dudanean ez dut esaten itsu itsuan, ez, ez, ez. Ez dut hori esan nahi. Baina bai esan nahi dut plus bat izan behar duela (...) askoz ahalegin handiagoa eskatzen duela, hortan gabiltzanok, ekonomikoki ere, diru gutxiago irabazten dugula, hori esan behar diogu jendeari. Eta jendeari esango diogu, bueno (...) ahalegin bat egin behar duela, ez sakrifizio bat, baino bai ahalegina (...) Hori galtzen baldin badugu, dana berdin baldin bada, dana galtzeko daukagu” (6. elkarrizketa)–.

Hartara, egia da, alde batetik, profesionalizazioak eta gizarte aldaketek militantziaren jaitsiera eragin dutela eta, ildo horretatik, tradizio intelektual gero eta profesionalizatuagoak sortzeko aukerak daudela. Baina, beste alde batetik, euskararen egoera normalizatu barik dago, eta kulturgileek beste hiztun batzuek baino kontzientzia handiagoarekin pairatzen dute mendekotasunezko esperientzia hori. Hala, hizkuntzaren mendekotasun sinbolikoak habitus espeziifiko bat eragiten du euskal kulturgileengan; habitusa osatzen duen dispozizio multzoak uztartu egiten ditu lan kulturala eta hiztun komunitateari buruzko konpromisoa, eta hurbildu egiten ditu edozein mota eta lan-bidetako kulturgileak mugimendu intelektualaren figurara.

Oharrak

- ⁶⁶ Uste dugu horrelako planteamendua atzematen dela Erizeren zenbait adierazpenetan: “Nire asmoa (...) euskararen historia atzerritarren zapalkuntzaren, bertakoen utzikeria edo saldukeriaren, euskaltzaleen ahaleginen eta baldintza sozio-politiko “objektiboen” muturren artean kokatzen duen, maiz biktimismo kutsua duen eta azentua atzerakadan ipintzen duen programa gainditu eta molde berrietan abiatzen da” (Erize, 1997: 33).
- ⁶⁷ Hauxe dio J. Azurmendik mintzairi buruzko diskurtsoen inguruan: “Kontua da, aro bakoitzak eta guztiek diskurtso-modu bat baino gehiago izaten dutela. Eta bi, beti, zapaltzailearen eta zapalduaren diskurtsoak izaten direla” (Azurmendi, 1987: 131).
- ⁶⁸ J. Azurmendik gogorarazten duen bezala, “gizaldi bakoitzak bere egoeratik arrazoitzen du. (...) Begiratzen badugu XVI. mendeaz gero euskararen alde nola arrazoitzen izan den, herri hau kaskarra da, baina batek ezin du harrirituta geratu besterik, zein ongi egokitu diren jeneralean aldiari aldiko mentalitatearekin” (Azurmendi, 1987: 130-131).
- ⁶⁹ Erizek, esate baterako, bereizi egiten ditu XIX. mendera arteko euskal kultura eta harrez gerokoa. Haren ustez, XIX. mendera arte euskal kultura Mendebaldearen iraupen logikaz at zegoen: “Kulturen historia egiterakoan bi ikuspegi desberdin erabil daitezke Bertrand Badieren ustez: iraupenaren kontzepzio bakarra duen eta denei ezartzen zaien ikuspegi eurozentriko edo mendebaldarra, bata, eta kulturen

aniztasuna aintzat hartu eta bakoitzari bere izaera berezia aitortzen dion ikuspegia, bestea. Horren arabera, Mendebaldez kanpoko kulturak egoera bikoitzean aurkitzen dira gaur egun (...) Gure kasuan (...) kultura bat euskal kultura litzateke eta bestea, eurozentrismoaren parametroetan oinarritutakoa, erdal kultura. Euskal Herriko aldi asinkronikoa, hau da, besteen gurgpilean irentsia izan gabe berezko bilakaera eraman zueneko, oso ezaguna zaigu, Antzin arotik harremanetan egon da-eta kultura indoeuroparrekin. Geroztik Mendebaldeko kultura nagusiekiko aldi sinkronikoan bizi izan dela esan daiteke, nahiz eta euskararen historia azaltzerakoan esanguratsuak diren gorabehera handiak –Erromatar inperioa hondatu zenekoa, esate baterako– izan. Sinkronia/asinkronia irizpideen arabera, mailaketa bat egin daiteke erdal kulturaren esku hartzeari dagokionez: XIX. mendera arteko gizartea, alde batetik, eta bestetik, industri gizartea” (Erize, 1997: 35).

⁷⁰ Lionel Joly ikertzaileak hizkuntzari buruzko gizarte irudikapenen garrantziaren berri ematen digu. Berak euskararen ezagutza eta erabileraren eta euskarari buruzko jarrearen irudikapenak aipatzen ditu.; horiek guztiak hartzun pertzepzioan daukaten eragina azpimarratzen du. Ikus Joly, 2005.

⁷¹ Ikus Austin, 1982.

⁷² Zenbait pentsalarik, hala ere, ahuldade sozialetik –botere gabeziatik– abiatuta egingdako arrazoiak frustrazioa adierazten dute: “Orduan, gure eskubidea (gure arrazoiak) demostrazio historiko eta filosofiko eztabaiaezinekin, razionalki nahiko genuke ziurtatu, modu objektibo zientifikoa eta absolutuki alegia, gure argumendu biribilei etsaiek ere deus ezin objektatu ahal izan liezaieketen moduan, goitik beheraino burdinazko logika hertsiz lotu-lotua dena (...) gero deskubritzen den arte pretensio hori, burujope hori, razionalki ezinezkoa izateaz gain, sozialki eta politikoki alfer-alferrikakoa ere bazela (...) Nondik datorrik niri gurariok inori arrazoiitu eta justifikatu behararen sentimendu horixe bera, premia hori, ezpada gizartearen gaurko eraketak haiek nigan ukatzen eta zanpatzen eta nolabait moraliki “debekatzen” dizkidalako faktotik? (...) Asko ez du balio (...), baina –gizon-emakumeon joko hauean– kulturgintzaren aportazio apala, onenean ere, horretan txerakarik datza: egin, bai lanak, borrokak, poesiak, zuzenbideak, ekonomiak nahiz politikak egiten diharduten proiektuaren soinean, berak arrazoizkotasun diskurtsoa jostean. Beldur naiz, alabaina, gutxi horixe ere gaur egun ezin dela egin Euskal Herrian” (Azurmendi, 1997: 130-131; 133-134).

⁷³ Modu oso adierazkorrean azaltzen du P. Iztueta errealitate hori: “Ilustrazioa argindegiaren sinonimo zen, zientziaren mezulari, zorionaren ekarte, aurrerapenaren misiolari, unibertsalismoaren profeta. Tradizioa, aldiz, ilundegiaren pareko genuen, mitoen berritzaile, gizarte teokratikoaren esklabu, lokalismoaren gordailu. Herri aurreratu eta atzeratuen, kultura landu eta agrafoen, hizkuntza nagusi eta basen arteko antitesi hau nagusitu izan da komunitate intelektualean, baita Antropologian bertan ere, oso berandu arte” (Iztueta, 1996: 24). Fishmanek ongi erakusten duen moduan, Mendebaldeko pentsamendu moderno eta raziionalean ohikoa izan da hizkuntza gutxituen aldeko ekimenak atzerakoitzat, irrazionaltzat eta modernizazioaren aurkakotzat jotzea, auzi “etniko” guztiak bezalaxe: “Again and again, ethnicity has been delegitimized in the West (by both secular and Church spokesmen) as anti-modern, anti-intellectual, irrational, anti-progressive and anti-civil” (Fishman, 1991: 383). Tradizio/Modernitate dikotomiaren funtzio deslegitimatzaile berarekin erabili izan dira oposizio modura “Frantses Ilustrazioa” eta “Alemaniar

Erromantizismoa” ere; hala, bigarrenetik eratorri dira, ustez, bai mendeko kultura-eta hizkuntza-komunitateen nortasunari bai estatutik gabeko mugimendu nazionalistei diskurtso nagusian egotzitako ezaugarriak. Ildo horretatik, binomioaren lehen kontzeptuari dagozkion ezaugarriak –ilustrazioa, unibertsalismoa, raziotaltasuna– bereizgarri negatibo bilakatzen dira –erromantizismoa, partikularismoa, irrazionaltasuna– bigarreanean. J.Azurmendik nazionalismoa deslegitimatzeko erabilitako bi kontzeptuon sorrera historikoa aztertu du baita haien arteko oposizioaren oinarririk eza ere: “Ilustración y Romanticismo no pueden ser pensados como fenómenos nacionales, sino europeos comunes. Ni movimientos contrapuestos, sino complementarios. Otra cosa ha sido cuando la teoría de la nación ha sido desarrollada al servicio de la dominación, fuese a favor o en contra del status quo, no de la libertad (...) No hay ruptura de la Ilustración al Romanticismo, de Montesquieu a Herder (...) Hay continuidad” (Azurmendi, 1992: 208, 218).

⁷⁴ Jakina da euskararen aldeko aldarrikapenak eta apologiak XIX. mendea baino askoz lehenagoak direla. Dena den, XIX. mendearen azken urteetara arte ez dugu aurkitzen mugimendu soziokultural eratua Euskal Herrian.

⁷⁵ Fishmanek argiro ohartarazten du hizkuntza baten galera ez dela inoiz hizkuntza aldaketa soila. Aitzitik, holako aldaketa egoeretan azpikoz gora jartzen dira gizar-tearen jatorrizko funts edo oinarriak. Horrela, hizkuntzatik haratago dauden “dislokazio” fisiko eta demografikoak gertatu ohi dira, dislokazio sozialak eta kulturalak (Fishman, 1991: 57-65).

⁷⁶ Weinsteinen hitzetan: “It seems that in the history of every language community a (...) group of artisans of language innovate in language form in order to change the way their societies identify themselves from others or in order to change patterns of access to power (...) Who are the strategists? They are poets, prose writers, dictionary makers, grammarians, linguists, journalists and translators. Most often they come from within the society and are part of the educated middle classes (...) They are bilingual or bidialectal and could succeed in their careers without proposing changes” (Weinstein, 1988: 175).

⁷⁷ Elite protoabertzale hori, hasierako foruzaletasun tradizionalista ez bezala, burgesia txiki eta urbanoaren sektoreek osatu zuten: “En su origen, el nacionalismo aramista se centra alrededor de Bilbao, y se apoya en una clase urbana: la pequeña burguesía de intelectuales, de empleados de banca y de comercio, de empleados públicos (de las Diputaciones, que alimentaban a una burocracia foral bastante importante)” (Lopez Adan “Beltza”, 1974: 82-83).

⁷⁸ Haien laguntzak zabaldutako aukera politikorako egitura erabakigarria izan zen pizkunde kulturalaren garapenean. “A partir de la abolición foral, sobre todo en las dos últimas décadas, asistimos a un pujante renacimiento cultural en una actividad conjuntada que abarca la totalidad del País Vasco en su parte peninsular y continental. Esta época que (...) corresponde a la fiebre neoforalista de reacción contra el centralismo y afirmación del particularismo vasco, es realmente exuberante en la creación de plataformas culturales apoyadas, rica en aportaciones folklóricas, subvencionadas, la mayoría de ellas, por las instituciones locales. En este sentido, obligado es confesar la labor realizada por las corporaciones oficiales, los Consistorios de Juegos Florales, las Juntas generales, las asambleas pedagógicas de maestros, los establecimientos privados de enseñanza, la aportación literaria del clero, los particulares, las asociaciones euskeristas, como la Asociación Eúskara de Navarra (1879),

Eskual Esnalea y Eskualzaleen Biltzarra (1891) y las revistas que tímidamente comenzaban a apuntar anhelos renacentistas, como Euskal-Erria, Revista Euskara, Euskal-Esnalea, El Basko, etc.” (V. Garmendia (1984): *Ideología Carlista (1868-1876)*. En *los Orígenes del Nacionalismo Vasco*. Caja de Ahorros Municipal. San Sebastián, 428 or. [P. Iztuetak aipatua; Iztueta, 1996: 311]).

⁷⁹ P. Iztuetak aipaturiko kopurua (Iztueta, 1996: 320).

⁸⁰ Euskal foruzaleetasunetik nazionalismorako iraganbideak Espainiako estatuak zentralizazioaren alde hartutako neurrietan izan zuen bere sorburua: “Tras las leyes abolicionistas del régimen foral, se inicia en las Provincias Vascongadas y en Navarra un movimiento de resistencia que es también un replanteamiento del problema vasco. Mientras en la España del Antiguo Régimen la existencia de un País vasco autónomo fue compatible con la naturaleza del Estado Español, la pertenencia a España del País (en su parte Peninsular) no ofreció ninguna duda para los escritores fueristas; pero al tomar el Estado Español su nueva faceta centralista y antiforal, un replanteamiento de la cuestión se hizo necesario para aquellos intelectuales que se identificaban con un pueblo vasco peculiar y distinto. La salvaguardia de esa particularidad se hacía incompatible, al menos en alto grado, con la pertenencia del País a España” (Lopez Adan “Beltza”, 1974: 67). Euskal nazionalismoaren sorrerak ondorio politikoak ez ezik kulturalak ere izan zituen: “Eusko Pizkundez hitz egitean Sabino Aranaren aurreko eta ondoko aldia bereizi ohi dira, honekin aditzera emanez Abandokoaren planteamendu nazionalistak foru-ikuspegiarekiko etena inplikatzan zuela eta, ez bakarrik maila politikoan, baita kulturean ere. Honen frogarik nabariena da berebiziko mungimendua sortu zuela. Eta sortzen du, hain zuzen, euskal kulturagintza eta nazio-proiektua barne-inplikatzan dituelako” (Iztueta, 1996: 325).

⁸¹ “Nationalist proto-élites form an increasingly coherent **intellectual community** activated by the ideal of a culturally united and socially solidary national society (...) These proto-élites are the essential synthesizers, separators, popularizers, and organizers on whom the spread of nationalism depends” (Fishman, 1989: 120-121).

⁸² Kontuan hartu behar da euskal elitea eratze prozesuan zegoela. Gai horren harira, interesgarria da gogoratzea gizarte batean holako aldaketa soziopolitikoak proposatzen direnean, lehendabizi, elite aldaketa bat azaltzen dela. Fishmanen hitzak dira nazio mugimenduez: “Nationalism was not only a movement of the masses and for the masses, but, rather, also a movement to replace one elite with another, one sociocultural philosophy with another and one political-operational system with another” (Fishman, 1989).

⁸³ Zentzu berean mintzatzen da Mitxelena ere: “La cuestión de la ortografía, el impulso que da al euskera y, sobre todo, al hecho de que al colocar al euskera en el centro de la vida vasca nos ha obligado a tomar decisiones para adaptarla a las nuevas necesidades, son para mí razones definitivas (...) El sólo ganó para el euskera un número mayor de lectores que todos los que había tenido hasta entonces (...) y es verdad. Sabino se vió obligado a aceptar que la lengua tenía que ser un elemento central en la nacionalidad” (E. Ibarzabal (1977): *Koldo Mitxelena*. Erein. Donostia, 28, 26-27 or. [P. Iztuetak aipatua; Iztueta, 1996: 325]).

⁸⁴ Arrazoibide bera darabil Amezagak ere, Larronderi jarraiki (Amezaga, 1995: 48).

- 85 Amezagak nazionalismo kulturalaz hitz egiten du Campionen pentsamendua ezau-garritzen duenean. Guk, berriz, nahiago dugu protonazionalismo kulturalaz mintzatzea, Campionek bateragarri ikusten baitzituen indarrean zeuden estatuen soberania politikoa eta euskal herri kulturalaren iraupena.
- 86 Honela zioen Campionek: “El pueblo vasco no tomó el nombre ni del territorio ni de los rasgos físicos o morales, sino del idioma. El habla es epónima del grupo étnico. Así es que si denominó euskaldún, es decir, euskara-dun, al que posee el bascuense, la conciencia colectiva de dicho pueblo estimó que con el lenguaje a una se evaporaba el baskonismo, o sea, la nota distintiva y característica de la raza”. Campión, 1903ko diskurtsoa, in Campion, (1985) *Obras Completas (XIII)*. Min-tzoa. Iruñea, 186 or. [J. Amezagak aipatua. Ikus Amezaga, 1995:50].
- 87 “El tipo euskaro pierde terreno. La marea sube; el agua corruptora de la asimilación empuja su limo hasta las cumbres de las altas montañas. Todo conspira contra él; la facilidad de comunicaciones; la proscripción oficial de la lengua; el utilitarismo; la emigración a América; ese necio impulso de hombres y monos que se llama imitación; el abominable ejemplo de las clases elevadas que sacrifican a la moda y a lo que denominan buen tono los hábitos sencillos y el idioma admirable de sus abuelos”. Campión, 1877 [A. Elorzak aipatua. Ikus Elorza, 1978: 44].
- 88 In S. Arana (1894): *Vulgaridades. Bizkaitarra* (1894-12-31) [J. Amezagak aipatua. Ikus Amezaga, 1995: 43].
- 89 Honela uelertzen du arraza Aranak: “Hablamos de raza en el sentido de conjunto de familias que proceden de un mismo origen más o menos remoto. En este sentido concreto, raza es lo mismo que nación, gente o pueblo; designa a una gran familia, y expresa un objeto natural, que existe independientemente de la voluntad de los hombres”, In S. Arana (1903): Fe de erratas de “La Gaceta del Norte” (1903-5-10) [J. Amezagak aipatua. Ikus Amezaga, 1995:43].
- 90 In Sabino Arana: *Obras Completas*. Sabindiar Batza. Buenos Aires 1965, 1713 or. [B. Tejerinak aipatua. Ikus, Tejerina, 1992: 106].
- 91 In Sabino Arana, *Obras Escogidas. Antología Política*. Ediciones Haranburu. Donostia, 1978, 188 or. [J. Apalategik aipatua. Ikus Apalategi, 1985: 90].
- 92 In Sabino Arana Goiri, *Obras Escogidas, Antología Política*. Ediciones Haranburu. Donostia, 1978, 71 or. [J. Apalategik aipatua. Ikus Apalategi, 1985: 88].
- 93 In Sociedad de Estudios Vascos, *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo, 1918: 20 or. [J. Urlak aipatua. Ikus Urla, 1988b: 382].
- 94 Hobsbawm ongi ohartzen da hizkuntzak, esaterako, Aro Modernoko ingeniari-tza sozialaren praktika kontzientearen emaitza direla batez ere XIX. mendetik aurrera, baita estatua dela praktika horien eragile nagusia ere. “De hecho, las lenguas se vuelven ejercicios más conscientes de ingeniería social de forma proporcionada en la medida en que su importancia simbólica predomina sobre su uso real (...) Sin embargo, sea cual fuere la causa de la construcción y la manipulación planificadas de la lengua, y con independencia del grado de transformación que se prevea, el poder del estado es esencial para ello” (Hobsbawm, 1992: 122). Ildo beretik, Anthony D. Smithek “Estatu zientifikoaz” hitz egiten digu. Estatu zientifikoaren interbentzio esparruen artean, hizkuntzarena izan da garrantzizkoenatarikoa: “La clave de mi análisis es el concepto de “Estado científico”. Se trata de una politeya que intenta homogeneizar a la población situada dentro de sus confines con fines

administrativos, utilizando las técnicas y los métodos científicos más avanzados en aras de la “eficiencia”. Los gobernantes usan la máquina burocrática y los frutos de la investigación científica y de las aplicaciones tecnológicas con objeto de procurarse recursos y movilizar a la población de su territorio (...) Lo que importa es el nuevo papel intervencionista del Estado (...) La eficiencia se medía cada vez más por la extensión del territorio y el tamaño de la población dominada y mediante la utilización de todos los recursos de que disponían los gobernantes. Uno de estos recursos era la homogeneidad lingüística” (Smith, 1976: 320; 324).

- ⁹⁵ Ideia bera aurkitzen dugu J. Urlaren beste lan batzuetan ere: “What we have now is the unequivocal triumph of a social-historical view of language and an attempt, not just to defend the language or praise its beauty, but an effort to develop a science of language management, akin to other forms of social management. In fact, one can find interesting parallels between the discourse on language reform and that of other projects of social reform at this time (...) Speaking Basque, like these other social phenomena, comes to be seen as a problem which needs to be scientifically studied and regulated” (Urta, 1988a: 142). Ikus Urta, 1987: 65 eta hur.
- ⁹⁶ Arraza bereizgarritasunaren faktore modura jasotzean, hastapenetako euskal nazionalismoak ez zuen inolako zentzugabekeriarik egin garaiko ezagutza legitimoak zioena kontuan hartuz gero. Hobsbawmek baieztan duen bezala, XIX. mendeko azken urteetako nazionalismoak sasoi hartako gizarte zientzietan oinarritzkoa zen kontzeptua hartu zuen abiapuntutzat, arraza, hain zuzen ere (Hobsbawm, 1992: 117).
- ⁹⁷ Honela azaltzen du Azurmendik Modernitate garailearen prozesua: “Izan ere, modernitatearen prozesua desberezitzailea da, ugaritasun eta diferentzia oro zapalduz eta BAT absolutuan hurrupatuz doana, pertsonak, taldeak, eskualdeak, azkenean denak sistema abstraktuarekin bat-bat egiten duen arte” (Azurmendi, 1998: 106).
- ⁹⁸ Iztuetaren hitzetan: “Eusko Pizkunde honek, meritu eta konkista eskergaitzen ondoan, bistaratzen zuen hutsune nabarmenik ere, gaurko ikuspegi soziologikotik begiratuta bederen, nahiz eta garai hartako testuinguru intelektualean ulergarriak izan. Hutsunerik larriena, iruditzen zaidanez, da Eusko Pizkundeak euskararen defentsarako darabilen hizkuntza nagusia erdara dela, gaztelania eta frantsesa. Euskara hutsean egindako aldizkariak, gutxi izateaz gain, soilki herri xehearentzat egindakoak dira. Euskarak ez du sarrerarik kultura landuan (...) Jokabide kontraesankor horren azpian iritzi oker hau zetzan: alegia, gai akademikoez –euskal gaiez eta berdin euskarari buruz– lan zientifikoak burutzeko, erdarara jo beharra zegoela, lehenik, bezeria espezializatuak euskara ulertzen ez zuelako eta, bigarrenik, euskara gaitua ez zegoelako kultur tratamendurako. Geroak frogatuko du supostu horren faltsua. Baina aurkikuntz hau gerrateondoko belaunaldiak egingo du” (Iztueta, 1996: 333-334). Kontraesan horretan beste artikulua batean ere sakontzen du Iztuetak (Iztueta, 1993b).
- ⁹⁹ Sortzen ari zen esparru intelektualean interes eta kokapen soziopolitiko eta kultural askotatik abiatzen ziren kultur gileak. Horietako batzuek, jakina, ez zuten bat egiten nazionalismoaren planteamendu politiko-kulturalekin. Zalbidetik dioenez: “Oñatiko Biltzarrean erdara (eta erdal nortasun-jokamoldeak) zenbait alorretan “consensually unacceptable” egitearen aldeko pauso sendorik eman nahi izan zen arren ez orduan eta ez, batez ere, gero lortu zen gutxienezko adostasun-mailarik: P. Baroja honegatik, G. Balparda horregatik eta T. Meabe hargatik, askotxo ziren etxe-

koen artean ere horrelako “institutional support” emateko prest ez zeudenak. Dela “triangulazio politikoa” edo dela ezker-eskuindarren elkar hartuzko antivizcaitarrismoa, bildur zitzaion plano politikoa erdara hutsean oinarrituko ez zen edozein formulaziori” (Zalbide, 1988: 404). Aranar jarraitzaileek, bestalde, oztopatu egin zuten euskararen batasuna bideratzeko egindako lehen ahalegina: “La primera manifestación de intransigencia lingüística de los aranistas se dió en el congreso de Fuenterrabía: este congreso se reunió en 1902 con el propósito de unificar el sistema ortográfico de todos los escritores vascos (...) Los asistentes se vieron confrontados a los aranistas, que trajeron 320 personas, no muy preparadas pero ciegos seguidores del “Maestro”, y se mostraron especialmente intransigentes. El congreso fracasó, y la unidad ortográfica no se hizo” (Lopez Adan “Belta”, 1974: 132).

¹⁰⁰ Besteak beste 1936ko Estatutuan ofizialtasuna aitortzen zitzaion euskarari (Intxausti, 1992: 160).

¹⁰¹ Modu honetan laburbiltzen du Intxaustik jazarpenak sortu zuen egoera: “A las instituciones levantadas con tantos esfuerzos por los euskeristas se les privó de todo futuro: la mayoría desaparecieron, algunas se acallaron en un largo letargo y a todas se les negó la protección legal y/o económica necesarias para una vida normal. Naturalmente, las vinculadas a los partidos políticos fueron tratadas de forma aún más implacable, apagando también las instituciones culturales de los organismos oficiales... Existen muchos ejemplos de esta política: La Sociedad de Estudios Vascos desapareció bajo las aguas, asfixiada por la Administración, y sus trabajos a favor del idioma quedaron interrumpidos. Los concursos y fiestas populares carecían en adelante de toda ayuda y permiso para su celebración. Pasaron unos diez o quince años hasta que la Academia de la Lengua Vasca, pudiese poco a poco, comenzar otra vez con su trabajo. Y su revista no pudo editarse realmente hasta los años 1954-56. Durante los 40 no se les permitió publicar nada a Euskaltzaleak, Zabalkundea, Jaungoikozale y a otras editoriales (...) Toda la prensa aparecía íntegramente en castellano. Las publicaciones vascológicas de antes de la guerra habían muerto: La RIEV de Urquijo, la revista Yakintza de Aitzol, y también los periódicos Argia y Eguna, muy difundidos entre las capas más populares de lectores. Pero, además de la cultura escrita, era la propia vida vasca de los hablantes la que se encontraba amenazada, a veces de la manera política más rastrea y siempre bajo la losa de la oficialidad unilingüe. En aquella situación bien asentada por la fuerza, los maestros y maestras castellanos, y ciudadanos con un rol social cualificado (curas, veterinarios, médicos, farmacéuticos, incluso a pesar suyo), concurrieron también a reafirmar la política oficial en contra de una comunidad vascoarlarante debilitada y sin amparo legal” (Intxausti, 1992: 161-162).

¹⁰² J. Apalategik 150.000 eta 200.000ren artean zenbatzen ditu gerra osteko erbestearatuak (Apalategi, 1985: 155).

¹⁰³ Erbestean zenbait aldizkariren inguruan bildu zen euskal kulturgileen idatzizko produkzio kulturala. Garrantzitsuenetarikoa Jokin Zaitegik Guatemalatik zuzendu zuen *Euzko Gogoa* (1950-1960) izan zen: aldizkari horrek gai akademikoak, literatura, hizkuntza eta filosofia jorratu zituen euskaraz (Intxausti, 1992: 164-165).

¹⁰⁴ Iztuetak nabarmentzen duenez, Iparraldean ez zen kultura plangintza komunik gauzatu ahal izan alde bietako euskaltzaleen artean (Iztueta, 1996: 335).

¹⁰⁵ 1956ko Euskal Mundu Biltzarrean azaleratutako kezka horiek belaunaldi berriaren agerpenaren eta haren eskakizunen –eskakizun politikoa zein kulturalen– ondo-

rio nabarmena izan ziren. Belaunaldi horren planteamendu kritikoen plazaratze publikoa gero eta modu kementsuagoan burutu zen 50eko azken urteetan. “El franquismo iba consolidándose con el beneplácito de los aliados, mientras que en las relaciones políticas se hacía sentir ya la impaciencia de veteranos militantes y de la nueva generación. Uno de esos momentos ocurrió en París, con las declaraciones de Monzón en el Congreso Vasco Mundial: la política vasca del exilio debía dar una más clara prioridad al euskera (1956). La cultura vasca había comenzado a moverse, allí donde podía. Los más apasionados de entre los nuevos euskaltzales sentían la necesidad de denunciar el genocidio idiomático que sufría Euskal Herria: una de esas voces fue la de F. Krutwig, al atacar, con motivo del ingreso de Villasante en Euskaltzaindia, el pernicioso criterio de la Iglesia oficial con respecto al idioma. Como consecuencia de ello se vio obligado a refugiarse en el extranjero (1952)”. (Intxausti, 1992:166-167).

¹⁰⁶ “A partir de la década de los cincuenta (...) el cambio es progresivo. La actividad pasa al interior (...) El fracaso político de la estrategia del nacionalismo tradicional, el cambio social acelerado del País Vasco y la entrada en escena de la joven generación que no ha luchado en la guerra civil, permite replantear la realidad política y cultural del País Vasco. La sociedad comienza a expresarse en actividades cuyo denominador es el conflicto” (Gurrutxaga, 1996: 103).

¹⁰⁷ Gai honi dagokionez bat gatoz P. Iztuetak azalduko ikuspegiarekin: “Literaturak bere autonomia baduela, bego esana eta, neurri batean, halaxe aitortua. Ez pentsa, halere, “l’art pour l’art” famatu hura bere horretantxe onartzeko axioma ukiezina denik! Marx eta Durkheim-*ez* geroztik, kultura (...) gizarte-fenomeno bat gehiago da, beste gizarte-fenomenoen katean bere autonomia duena, hori bai, baina,aldi berean, gizarte-prozesu zabalago eta orokorrago batean inplikaturik dagoena, zeinetan norberaren iharduerak, izpiritualak nahiz materialak, gizarte-egituren aurrez-aurre aurkitzen baitira. Gizarteko harremanetan eragina duten faktore guztiak –ekonomikoak, politikoak kulturalak, ideologikoak, etab.– daude inplikaturik, eta inplikaturik, gainera, neutraltasunari lekurik uzten ez zaion harreman kontraesankorrez” (Iztueta, 1996: 449-450).

¹⁰⁸ I. Sarasola ere ongi aski ohartzen da aldaketa soziopolitiko eta kulturalen uztarduraz euskal literaturaren bilakabidea aztertzen duenean: “Dos fechas capitales en la literatura vasca, 1901 y 1964, se vinculan de un modo u otro a dos acontecimientos políticos. En el caso de 1901, al auge del Partido Nacionalista Vasco, en el de 1964, a las nuevas ideas que por entonces empiezan a surgir en torno a la cuestión vasca” (Sarasola, 1976: 75).

¹⁰⁹ Egitura ekonomikoa erabat aldatu zen: nekazari populazioaren jaitsierarekin batera lan industrialaren eta soldatapekoen kopuruaren hazkunde nabarmena gertatu zen. Adibidez, 1962an, ekonomiaren bigarren sektoreak Hego Euskal Herriko populazio aktiboaren % 48,06 hartzen zuen barnean, eta % 53,66ra eta % 52,42ra iristen zen Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. Bestalde, soldatapeko langileak sektore horretan % 92,30 ziren. Ikus Lopez Adan “Beltza”, 1977: 87-88.

¹¹⁰ Gerra eta gerraosteko sasoi jakinetan izan ezik, 1910etik aurrera populazioaren hazkundeari zegokion immigrazio tasa % 8a izan zen, baina 1950etik 1960ra bitarteko urteetan, biztanle berrien % 40a euskal lurraldetik kanpotik etorria zen (Lopez Adan “Beltza”, 1977: 87).

- ¹¹¹ Bigarren industrializazio eta emigrazio prozesuaren ondorio linguistikoak zehazten ditu B. Tejerinak: “Desde el punto de vista espacial se van configurando, si no lo estaban ya, ámbitos territoriales de dominio lingüístico claramente diferenciados. Las zonas más industrializadas y urbanizadas donde el euskara es inexistente o tiene una presencia simbólica, y unas zonas que quedan al margen de estos procesos en las que el euskara tiene mayor presencia, pero, incluso en ellas, su expresión queda reducida al ámbito familiar ya que la calle y la escuela se convierten en los ámbitos de máxima represión política de la lengua” (Tejerina, 1992: 118).
- ¹¹² Intxaustiri jarraituz: “Tras la primera postguerra (1937-1956), la comunidad vascohablante vió perder en el horizonte la imagen disuasoria de la guerra, ya más lejana, y percibió que una nueva generación llamaba a la puerta. La juventud (...) llegaba con ánimo de pasar de recuerdos penosos o heroicos a acciones más positivas. Cada joven euskaltzale –muchas veces educado en centros eclesiásticos superiores– se prestaba al trabajo (...) de la resistencia lingüística” (Intxausti, 1992: 168). Eliza katolikoaren zenbait erakundek berebiziko eragina eduki zuten kultur gile berrien sozializazio politiko-kulturalean. Hainbestearinokoa eduki ere, non belau-naldi berriko euskal kultur gile asko apaizgaitegi eta nobiziatuetatik igarotakoak ziren: “Los “exclaustrados” parecen constituir en cierta medida un grupo social, informal naturalmente, en el País Vasco (...) [Del 53,1% de los escritores vascos que son laicos –período 1971-73–, el 20,6% han pasado por el seminario o noviciado (Sarasola)]. Este indicador pone de relieve no solamente la importancia de los que vulgarmente se llaman “ex-curas” en el mundo cultural sino también la importancia que estas instituciones eclesiásticas han tenido en el mundo de la cultura. La lengua y cultura vascas han vivido y evolucionado al margen de la Universidad y, lo que es más importante, al margen de la Universidad Pública. Y en general, al margen de la enseñanza pública (...) Los colegios de órdenes religiosas incorporados a los noviciados constituían “la posibilidad de estudiar” sobre todo en el medio rural; posteriormente el noviciado constituía la continuación de esta “posibilidad de estudiar” (Pérez-Agote, 1984: 101-102).
- ¹¹³ Bourdieuk dioen bezala, intelektualaren balizko itunak posizioaren identitatean edo posizioaren homologian oinarritzen dira. Hemen, bigarren ereduaren aurrean egongo ginateteke. Ikus Bourdieu, 1988: 148.
- ¹¹⁴ Joan F. Mirak –aldaketa sozialekin batera– ezinbestekotat jotzen du elite intelektualen partaidetza nazionalismo berrien sorreran: “L’aparició, en aquest estat de canvi, d’élits intel·lectuals i polítiques que es consideren intèrprets de l’autenticitat amenaçada, i que es consideren alhora privades de poder i d’influència sobre el propi àmbit nacional pel fet d’estar aquest subordinat a un altre”. Elite horien berezko tokia hiria da, gune urbanoa. Mundu urbanoa izanik –fisikoki edo metafisikoki– eliteen egintza gunea, haiek lantzen duten kultura nazional berria ere urbanoa da (Mira, 1985: 159).
- ¹¹⁵ “En los primeros escritos de EGIN-ETA, el concepto biológico de la raza propio del aranismo queda sustituido por el lingüístico y cultural. La raza deja de ser el elemento clave de la nacionalidad (...) para pasar a ser vista como uno más de los componentes de la etnia vasca” (Letamendia, 1994a: 255).
- ¹¹⁶ Honela zioten EGIN taldekoek euren koadernoetan: “El euskera es la quintaesencia de Euskadi, mientras el euskera viva, vivirá Euskadi”. Cuaderno de ETA, “Moral de Resistencia Nacional”. Documentos. II Liburukia. Hordago, 1979,

129. or. [F. Letamendiak aipatua (Letamendia, 1994a: 256)]. Euskara salbatzeko modu bakarra, idazki horietan argudiatzen denez, Euskadiren independentzia politikoa lortzea izango litzateke. Ondorioz hauxe baieztan da: “Las lenguas hechas nacionales por el autogobierno político subsisten vigorosas. Las otras mueren”. Cuaderno de ETA, “Euskera y Patriotismo Vasco”. Documentos, op. cit., II Liburukia, 139. or. [F. Letamendiak aipatua (Letamendia, 1994a: 256)].
- 117 Cuaderno de ETA, “Euskera y Patriotismo Vasco”, Documentos, op. cit. II Liburukia, 139-144 or. [F. Letamendiak aipatua (Letamendia, 1994a: 256)].
- 118 Izan ere, ETArein aintzindari izan zen EKIN taldeak gazte kulturadunek sorturiko ikasketa eta prestakuntzarako talde modura funtzionatu zuen. Ildo horretatik, EKINek zubi lana egin zuen gerraurreko eta gerraosteko belaunaldien artean, bai maila kulturaleran bai politikoan. Txillardegik bere oroitzapenetan aitortzen duenez: “Eta orduan, pare bat urtez, 1951-1952an barrena, irakurri eta ikasi egin genuen gehienik: existenzialismoa bereziki, euskal foruak xehe-xehe eta herrialdez-herrialde, euskal kondaira (Bizkaiko Diputazioko liburutegian, adibidez). Eta, ahal izan genuen neurrian, liburu abertzale zaharrak (ia-ia ordurako ahaztuak) irakurtzeari ekin genion (...) Arturo Campion ere irakurri genuen (...) Eta, horrekin batera, euskaraz ikasteari ekin genion (...) Gerra aurreko abertzaleak ezagutu nahi genituen” (Alvarez Enparanza, 1994: 183).
- 119 Eragin horiek –europar federalismoaren ideia, Hirugarren Munduko esperientzia anticolonialisten eredu– ETako kideek “Enbata” Iparraldeko Mugimendu Abertzalearekin izandako harremanen bitartez sendotu ziren 1960ko hamarkadaren lehen urteetan, Letamendiaren ustez (Letamendia, 1994a: 263-266).
- 120 *Vasconia* lanaren lehen argitalpena 1963koa bada ere, guk erabili dugun testua 1979an *La Nueva Vasconia* izenpean plazaratutako berrargitalpena da. Azken horretan hitzaurre modura egileak egindako iruzkinetan oinarritu gara, beraz. Ikus Sarrailh de Ihartza, 1979: I-CXXI.
- 121 G. Jaureguik honako hau dio *Vasconiaren* eraginaren inguruan: “Lo importante en la historia no son las ideas en sí mismas, ni tampoco las intenciones de sus autores, sino el contexto político y social en que circulan, y la utilización que hacen de ellas aquellos que las leen y asimilan (...) En el caso presente, la intención del autor resulta plenamente coincidente con la utilización de sus ideas por parte de ETA” (Jauregui, 1981: 464).
- 122 Ikus, adibidez, Documentos, “*ETA y el Euskera*”. *Goazen*, 2. zk. Caracas 1965, 191. or. [J. Apalategik aipatua (Apalategi, 1985: 248)].
- 123 “Moral de Resistencia Nacional” izeneko dokumentuan agertzen denez, politikagintzara bideraturiko zeregina baino nazio askapenerako mugimendu lana zegokion ETARI. Horrela, mugimendu gisa ezaugarritzen zen: “Creemos interesante incluir algunos conceptos sobre lo que es organización y lo que es movimiento. Organización es una institución que recluta gente alrededor de un programa y de unas ideas. En toda organización sólo se desmitifica una selección. Las organizaciones normalmente acaban cerrándose, petrificándose y muriéndose. El movimiento, por el contrario, se podría definir como una fuerza que influye en la masa y la dirige hacia un objetivo dado (...) El movimiento no es para unos pocos sino para la masa. El movimiento no saca a las personas de su ambiente, sino que les influye allí donde están, allí donde vivan”. *Libro Blanco*, in Documentos, I.

Liburukia (“Métodos de Acción”), 183. or. [F. Letamendiak aipatua (Letamendia, 1994a: 257)].

¹²⁴ Ikus Letamendia, 1994a: 292-296.

¹²⁵ Horrelako kritikak logikoak ziren ohiko hierarkia kulturaletatik at zeuden gazte kultur-gilegaien artean. Rubiralitari jarraituz: “La lengua se configura (...) como el componente más tangible de esta realidad amenazada (...) la nueva intelectualidad (...) no dudará en situar la defensa de la cultura propia diferenciada en el terreno mucho más abierto del combate político (...) empezarán a repudiar el elitismo de los círculos que han monopolizado en exclusiva el cultivo de la cultura autóctona hasta ese momento, por lo que se extenderá una vocación de apertura y generalización de los canales de difusión cultural” (Rubiralta, 1997: 289, 291).

¹²⁶ Kintanaren hitzetan: “Txillardegi eta Gabriel [Aresti] idazleak ziren, autore onak gainera, baina ez bata ez eta bestea ziren hizkuntzalari. Batasunaren lerro nagusiak –egia da– haiei esker jadanik ezarriak ziren Baionan urte batzuk lehenago. Baina akordio haiei pertsona ospetsuagoek egin beharko zioten bedeinkazioa. Eta hartarako Mitxelena aukeratu zen (...) Berak, lehen unetik, argi eta garbi adierazi zuen Baionako urratsei jarraitu beharra zegoela (...) eta neurri praktikoko haiek aparatu kritikoz eta apailaketa linguistikoaz hornitu ere bai. Arantzazuko akordioak plazaratu zirenean, ia-ia Mitxelena agertu zen haien egile bakartzat. Prentsak eta propagandak ere hortitxek jo zuen. Bazen horretarako arrazoirik. Batetik, noski, Mitxelenaren duda gabeko prestigioa zegoen (...) Bestetik, mundu guztiak zekienez, Koldo, garai hartan, PNVkoa zen. Batasunaren gidaritzaren kide nabaria zen Mitxelenaren eskuetan uztean, guztiok uste genuen PNV aukera paregabe hartaz baliatuko zela, batasuna “beraren lorpena”, edo orduan esaten zen bezala, “baza” edo merezimendu politiko propioa balitz bezala agertuz, eta batasuna, horrexegatik besterik ez balitz ere, onartuko zuela. Ezkerra, beraz, prest egon zen bere protagonismoa alde batera uzteko, batasunaren onerako” (Kintana, 1993: 31).

¹²⁷ Mugimendu gisa ezaugarritu dituzte lehen garaiko ikastolak Torrealdaik (Torrealdaik, 1977: 464) eta Fernandezek ere (Fernandez, 1994: 123).

¹²⁸ Ikastolen ikur funtzio hori ez zen garrantzi gutxiagokoa maila sinboliko-politikoan, ikastolen funtzio linguistiko-kulturalaren bitartez euskal nortasun kolektibotzat definituta zeuden osagaiak birstortzen baitziren. Gurrutxagari jarraituz: “En la densa vida social del País Vasco, la ikastola y sus miembros son un centro referencial, donde los sectores nacionalistas acuden o miran, e incluso las organizaciones políticas captan algunos de sus militantes. Es un signo de afirmación, frente a la agresión a los símbolos vascos, y un enlace para la comunicación de experiencias e información socialmente significativa sólo para “Nosotros” (Gurrutxaga, 1985: 260). “Si la lengua es simbólicamente la base de la nacionalidad vasca y la ikastola la institución que trata de salvaguardar la lengua y, por tanto, la cultura, parece lógico que ésta se transforme en el eje vertebrador de la recuperación cultural” (Gurrutxaga, 1996: 115).

¹²⁹ Kopuru hori aski handia da, baldin eta kontuan hartzen bada ikastoletan eskolaturiko ikasleria, 1976-1977 ikasturtean, oso antzekoa zela: 41.065 ikaslez osatua, alegia. Ikus Izuetza, 1993c: 76.

¹³⁰ Zehazki, alfabetatze mugimenduak, orotara hartuta eta antolakuntza mailan, batez ere Gizpuzkoa eta Bizkaian aski sendo erroturik zegoen eliz mugimenduari eta elizaren azpiegiturari esker funtzionatu zuen. Bestalde, irakasleen artean gehienak

jadanik seminario eta komentuetan alfabetatutakoak ziren: % 32,3 guztira; euskarazko produkzio idatziaren mailan, apaizek gehiengoa izaten jarraitzen zuten artean, 1962-63 epean % 75a osatzen zutelarik; oreka hurrengo hamarraldian, 1972-73 epealdian alegia, iristen da, laikoek aurrea ozta-ozta hartzen dutelarik % 53,1arekin. Ikus, Iztueta, 1981, 1993c; eta Sarasola, 1976.

¹³¹ 1960-79 epean alfabetatze-euskalduntzean aritutako irakasleriaren fisionomia soziologikoa honako hau zen: joera nagusi gisa, gehienak (% 68,7) Gipuzkoatik zetozen, gizezkoak (% 70,7), gazteak, hau da, 1960ko hamarraldian 20 urte inguru zeukatenak (% 53,5), goi mailako ikasketak (% 36,4) eta erdikoak (% 28,3) eginda zituztenak (P. Arregi (koord.) (1992): *Euskal Alfabetatzearen Azterketarako Lehen Urratsak: 1940-1990*. I-II. Pedagogiako Hezkuntz Teoria eta Historia Saila. Letrakit. Donostia. Argitaragabea) [P. Iztuetak aipatua; Iztueta, 1993c: 77].

¹³² *Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea*.

¹³³ 1916. urtean, esaterako, honako analfabetismo tasak zeuden: % 32,37 Araban, % 40,68 Gipuzkoan, % 43, 41 Nafarroan eta % 40, 79 Bizkaian (Lopez Adan “Beltza”, 1974: 134).

¹³⁴ X. Lete (1977): “Kanta berria, erresistentzi abestia”. *Jakin*, 4. zk., 16. or. [J. Amezagak aipatua (Amezaga, 1995: 217)].

¹³⁵ Hari berari jarraiki, gizarte mugimenduak euren proiektua legitimatuko duen munduikusmoldea proposatzen saiatzen dira beti. Ikusmolde horren arrakasta, besteak beste, lortu dezaketen oihartzun kulturalaren arabera izan ohi da. Hartara, mugimenduetako buruak euren aldarrikapenak gizartean nagusi diren auziekin letratzen ahalegintzen dira, modu horretan aritzean sektore sozial zabalen atxikimendua lor dezaketelako.

¹³⁶ Edozein modutan, belaunaldien arteko liskarrak hainbat adinetako kulturgileen desbedintasuna baino gehiago adierazten zuen. Sakonean, talde batzuen balioen eta bizi proiektu nahiz proiektu politikoaren arteko aurkaritza ezkututzen zuen. Ildo horretatik, Iztuetak, adibidez, ez du egoki jotzen belaunaldiaren paradigma literaturaren edo kulturaren esparruko periodizazioa adierazteko tresna metodologikoa gisa. Ikus Iztueta, 2005.

¹³⁷ Frakismoaren jazarpenak sortu zuen euskal mundu paraleloak, batetik, eta euskalgintza –baita euskal nazionalismoaren politikagintza ere– herri mugimendu gisa eratu izanak, bestetik, gizarte esparruen arteko ohiko mugak lausotu zituen: kulturagintza, politikagintza eta eguneroko bizitza aski nahasirik agertzen ziren euskal gizartean, garapen maila bereko beste gizarte industrializatu batzuen aldean, behinik behin. Ondorioz, rol espezializatuak ere –kulturgile eta politikarientzat, esaterako–, hein handi batean, ikusgaitz bihurtu ziren egintza kolektiboaren eta elkarrekin bizitza trinkoaren barnean, haietan disolbatu geratzen baitzen protagonismo oro. Aztertzaila batzuek “gabezia” hori azpimarratzen dute: “La fuerte densidad social, en el sentido de gran intensidad de relaciones intersubjetivas y vida asociativa, es una de las características fundamentales del País Vasco y quizá la clave para comprender la escasez de liderazgo intelectual y político (...) La falta de referencia en las biografías sociales tanto a literatura científica o política como a intelectuales y líderes políticos no es sino uno de los aspectos de la imbricación de la política en la vida cotidiana” (Pérez-Agote, 1984: 86-87). Halaz ere, uste dugu eguneroko bizitzan ainguratutako mugimendu trinko horren barruan kulturgile –eta elite poli-

tikoen– mailakako sorrera gauzatu zela, mugimendua bera zabaldu, dibertsifikatu eta espezializatu egin zen neurrian.

- ¹³⁸ Txillardegik horrela azaltzen ditu euskara batuaren inguruan sorturiko bi jarreren nondik-norakoa: “Arantzazun nabaritu ziren bi joerak, gero eta nabarmenago agertu zirenez, Euskal Herriari buruzko bi ideia desberdin zeramaten hondoan: Batuaren aldekoa bata, euskalkien aldekoa bestea; gaurko gizartean euskara sartzearen aldekoa bata, euskara “garbi” hura antzineko gizarte “garbiari” (?) lotuta utztearen aldekoa bestea; aurrerazalea bata, atzerazalea bestea. Nahiz 25 urte hauetan, puntuzko bat edo beste “bandoz” aldatu badira ere” (Alvarez Enparanza, 1984: 45).
- ¹³⁹ Txillardegiren hitzetan deskribatzen zaigu idazle-belaunaldi gazteen lanak izan zuen harrera finkatutako idazle “tradizionalen” artean: “Euskal literatura berria hasi zenean, nobelan eta poesian batez ere (Txillardegi eta Arestiren inguruan), euskal kulturaren “establishment” guztia, Orixe buru, kontra jarri zen: “erri baten erikeriak” aurkitu ziren nobela berrien ideietan, edo, Orixe-ren hitzak gogoratzeko: “Barrenak ez dit agintzen ixilik egotea, liburu onek (“Peru Leartzako”-z ari da) gazte-jendearen artean egin dezaken kaltearengatik”. Ondoren etorri ziren idazleek harrera bera izan zuten. Eta Euskara Batuaren aldeko prozesua bera, “komunisten” jokia izan delakoan (eta joko horretan extremistek Aita Villasante bera salatu dutelarik!), gaizki hartua izan zen” (Alvarez Enparanza, 1984: 47). Maila berean, idazle berriek erabateko haustura planteatzen zuten ordura arteko euskal literaturarekin –eta hark islatzen zuen mundu ikuspegiarekin–, Joxe Azurmendik Orixeren lanari buruzko iruzkinean erakusten duen bezala: “Nosotros difícilmente podremos comprender ese País Vasco bucólico (dicho sea sin malicia) que apenas hemos conocido y en el que nunca hemos vivido. El poema “Euskaldunak” por ejemplo, será por desdicha nuestra, pero si hemos de confesar la verdad hay que decir que a muchos, a la mayoría creo, nos parece casi tan remoto... como la China. No he visto en mi vida esas ceremonias de boda, ni esas romerías populares que allí se describen, ni esos sacerdotes tan mesurados en la defensa de lo sacro; tampoco he visto nunca a una hilandera, ni me he encontrado con ningún palankari en nuestras fiestas... Así que cuando oigo que “en este poema está retratado nuestro pueblo de cuerpo entero” uno no tiene más remedio que quedarse perplejo” (J. Azurmendi: “Mitxelenaren poesiak tematika ezpalak”, in *Jakin Sorta*, 37-38 or. [I. Sarasolak aipatua; Sarasola, 1976: 107]).
- ¹⁴⁰ Hierarkia aldaketak egon baziren ere, kulturgileen belaunaldi berriaren sorrerak ez zuen iraultza sakonik ekarri euskal kultura esparrura bestelako aspektuetan, kulturgile berrien generoen arteko botere harremanetan, esaterako. Ildo horretatik, emakumezko kulturgileen urritasunak kulturaren izanbertsoan –garaiko goimailako hezkuntzan gertatzen zen bezala– nabarmena izaten jarraitu zuen eta, horrekin batera, emakumezkoen kokapena esparruaren behe mailetan –ikusgaitasun sozial eta botere sinboliko gutxidunetan– eta ohiko transmisio funtzioetan sorkuntza lanetan baino: ikastoletako andereño modura, euskara irakasle modura, eta abar. Euskal esparru kultural eta esparru politiko nazionalistaren antolaketa generizatua aztertzeke –bai Pizkundearen garaian, bai ondorengo nazionalismoaren marko berrian– ikus, Amurrio, 2003: 195 eta hurr. Literaturgintzaren azpiesparruan aztertu da gehien bat gaur egun ere indarrean dirauen euskal emakume idazleen ikusezintasun historikoa eta kokapen marjinala. “Euskal literaturan diharduten emakume idazleak ez dira oso ezagunak jende gehienarentzat, kalean galdetuko bagenu ez genuke emaitza itxaropentsurik lortuko. Periferian egon dira eta daude,

nahiz eta mende aldaketarekin batera euskal literaturaren kanonaren oinarrietan arrakalak agertzen hasi diren” (Alvarez Uribe, 2005: 37). “Euskal literaturaren historian emakumezkoak ez dira existitu” (Olaziregi, 2003: 203).

¹⁴¹ Rikardo Arregik ongi adierazi zuen euskal kultura tradizionalaren krisia gizarte industrializatuaren testuinguruan eta kultur gile berriek eskatutako errotiko aldaketaren aldarrikapen sutsua oihartzun handiko lanean (“Euskaltzaleen Jainkoa Hil Behar Dugu” izenburu esanguratsua eta tonu hauslea zeuzkan artikuluan): “Euskaltzaleatasunean, beraz, euskaldunen eta baseritarren arteko identifikazio gisa bat izango da. Eta errealidade guzti hortan bildua Jainkoa? Zein Jainko ordea? Benetako euskal izaera ta gizartea nekazaritzan edo igarotako garaietan dagoela usteko da. Garai horiek erabat idealizatuak izango dira noski. Gizarte hori horrelakoa izatea Jainko batek nahi izandakoa dela. Jainko hori izango da gizarte hori horrela izatearen esplikazioa. Gizarte era honen kontra joatea Jainkoaren kontra joatea. Eta aldrebasean berdin. Euskeraren eta erlijioaren burruka berdinak. Euskeraren atzera joatea erlijioaren atzera egitea. Gauza berriak pekatagarriak. Lotuan dantza egitea, soinu berrietan dantzatzea, pekatu. Maketoen gauzak, esango da, maketo hitzarekin adierazi nahi den desprezio guztiarekin. Gure ohiturak, “garbiak”. Kanpotik datozenak, sortzen ari diren berriak, lizunkeriz beteak eta zikinak. “Gure ohitura garbiak” izango da idazle eta hizlarien esanetan ugariena azalduko direnak. Euskaldunak zergatik geran galdetzerakoan, Jainkoak horrela nahi izandu duelako erantzungo da. Ta Jainkoaren nahi hori betetzea besterik ez zaigu tokatzen (...) Postura honek ez du batere sentidurik gaurko euskal gazterietzat. Lehenago esan den bezala hau erabat industrietako gizartearen bizi da ta honelakoetan izaten den mentalitatearen kide da (...) Euskaltzale berria gizon erreboltatua izango da. Euskaldungoa ber-asmatu beharko da. Euskaldunaren gizon gintza ez da izango lehengo gizartearen gisara moldatzea, sortu eta izateratu beharko dena baizik (...) Euskal Herria noski, herri erreboltatu bat gara. Bizi garen kondizioetan Herri erreboltatu bat izateko ahalmenik ez badaukagu, gureak egin du. Amorrazioak, gizatiarrak direnez eta ez makinarenak, arrazoiz beroak dira. Amorrazio bizian bizi beharko genuke. Horretxek bakarrik eman lezaiguke, egin behar dugun borroka-rentzat derrigorreko dugun ausardia eta zaletasuna (...) Lotsarik gabe azaldu behar da, amorrazioan bizi garena. Gure arrabioak ez digula sosegurik ematen. Eta arrabio horren berotasunean egiten dugula borroka, berotasun horregaz jaso nahi dugula mundu berri bat. Horregaz Euskal Herria berregin nahi dugula” (R. Arregi: “Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu”, in Torrealda (arg.), 1971: 123-124).

¹⁴² X. Mendiguren Bereziartu (2000): “Euskararen Paradoxak”. *Talaita* 6 zbk., 47 or. [J.M. Odriozolak aipatua. Odriozola, 2004: 127].

¹⁴³ Hasier Etxeberriak egindako elkarrizketatik hartuta (*Bost Idazle. Hasier Etxeberriarekin Berbetan*, 309. or.).

¹⁴⁴ Horixe da C. Moyak frankismo osteko Espainiako estatuaren berregituraketari buruz dioena, alegia, nazionalizatu beharra zeukala estatu moderno gisa iraun ahal izateko: “Todo Estado nacional, en Occidente, se ha fundado y constituido desde la victoria militar que decidió la guerra civil enfrentando a esa sociedad. Todo moderno Estado industrial sólo llega a ser definitivamente Estado nacional cuando en otra forma es la propia organización institucional que hace posible la identificación de un pueblo con el Estado que delimita su propio territorio como nación. Cuando esa identidad se organiza como libertad objetiva es cuando propiamente ese Estado

llega a ser plenamente un Estado nacional de derecho y, así, una democracia (...) la operación institucional que ahora se cataliza y acelera es la propia nacionalización del Estado nacional: su propia democratización nacional como institución objetiva de la libertad de todos los españoles (...) la realización institucional de esa unidad nacional (...) es el imperativo categórico que la muerte de Franco impone a sus sucesores” (C. Moya (1972): *Burocracia y Sociedad Industrial*, Edicusa, Madrid, 178. or.).

¹⁴⁵ Letamendiaren aburuz, bi helburu zituen planteamendu horrek. Batetik, estatua bere aspaldiko zentralizazioa biguntzera eta eskumenak banatzera behartuta zegoen. Bestetik, autonomia errebindikazio nazionalistatik urrundu gura zuen, bereziki nazionalismo katalana eta euskalduna desaktibatzea bilatzen baitzen (Letamendia, 1994b: 135 eta hur.).

¹⁴⁶ Gurrutxagaren hitzetan: “Lo que se produce es el retraso en el proceso de legitimidad democrática que sanciona la Constitución. En el País Vasco hay que esperar al referéndum del Estatuto de Autonomía para que este proceso se consolide, con lo que la legitimación se consigue no por la vía prevista, pero sí por la paralela de la consolidación autonómica y, sobre todo, por el irrefrenable proceso de institucionalización y racionalización política” (Gurrutxaga, 1996: 138). Legitimazio partzial hori Erkidego Autonomoaren kudeaketa bere gain hartu zuen nazionalismo kontserbadorearen eskutik etorri zen: “Lo específico de la objetividad democrática vasca viene dada por su paradoja fundacional: son los sectores sociales y políticos que rechazan la Constitución quienes dirigen el proceso de construcción democrática, es decir, aquellos que cuestionan la forma política que adopta la legalidad democrática son encargados de gestionar esta legalidad” (Gurrutxaga, 1996: 137).

¹⁴⁷ Horrela azaltzen du Habermasek prozesua: “Las instituciones y los procedimientos de la democracia formal han sido diseñados para que las decisiones del gobierno puedan adoptarse con suficiente independencia de motivos definidos de los ciudadanos. Esto se logra con un proceso de legitimación que provee motivos generalizados (una lealtad de masa difusa en su contenido), pero evita la participación. El cambio estructural de lo que aparece como “público” (...) crea, para las instituciones y procedimientos de la democracia formal, condiciones de aplicación por las cuales los ciudadanos, en medio de una sociedad que en sí es política, adquieren el estatus de ciudadanos pasivos con derecho a la aprobación y al rechazo en bloque de los hechos consumados. (...) Dentro de ese ámbito de lo público despolitizado estructuralmente, las urgencias de legitimación se reducen a dos necesidades residuales. El privatismo político, es decir la indiferencia política unida con el interés dominante por la carrera, el tiempo libre y el consumo, promueve la expectativa de recompensas adecuadas, conformes al sistema (en la forma de dinero, tiempo de ocio y seguridad)” (Habermas, 1986b: 53-54).

¹⁴⁸ Beltranen hitzek gogora dakarkigute instituzio guztiek ez dutela ahalmen bera gizarte errealitatea definitzeko unean: “Por supuesto, no todas las instituciones ni todos los sujetos colectivos tienen la capacidad de definir la realidad para todo el mundo: requieren para ello una posición de dominación o de hegemonía que les permita decir cómo son las cosas, imponiendo tal definición al conjunto de la sociedad” (Beltrán, 1991a: 164). Gizarteko esparru politiko-administratiboak, hain zuzen ere, metatzen dituen balabideak direla medio-ekonomikoak, indarrezkoak eta sinbolikoak- kokapen pribilegiatua eduki ohi du gizarte errealitatearen eraikuntza ahalmenari dagokionez.

- 149 Horixe da A. Gurrutxagaren tesia: “Por razones institucionales, por razones económicas y por razones ideológicas, la construcción autonómica sobreinstitucionaliza la vida social y política vasca. El pragmatismo del partido mayoritario (PNV), así como su concepción del País Vasco, derivado de la tradición que protege, identifica la construcción nacional con la sobreinstitucionalización y con el hecho de que con la institucionalización se construye el País Vasco, de igual modo que si se estuviera levantando la estructura administrativa de un nuevo estado (...) La estructura institucional refleja los intereses del partido hegemónico así como la necesidad de sostener las clientelas que disfrutaban de los bienes particulares que la estructura política puede trasladarles” (Gurrutxaga, 1996: 157; 158).
- 150 Nazio gatazkak beste mugimendu batzuentzat sortutako marko nagusi hori, Snow eta Benford aztertzaileek “Master Frame” modura definitzen duten errealitate gisara ulertu daiteke: “What we call master frames perform the same functions as movement-specific collective action frames, but they do so on a larger scale. In other words, they are also modes of punctuation, attribution, and articulation, but their punctuations, attributions, articulations may color and constrain those of any number of movement organizations. Master frames are to movement-specific collective action frames as paradigms are to finely tuned theories. Master frames are generic; specific collective action frames are derivative. So conceived, master frames can be construed as functioning in a manner analogous to linguistic codes in that they provide a grammar that punctuates and syntactically connects patterns or happenings in the World” (Snow, Benford, 1992:138). Euskal nazio gatazkaren eta gatazka ekologistaren uztarduraren lehen adierazpenak euskal mugimendu antinuklearrean atzematen dira (Ikus Jauréguiberry, 1983: 324-332). Ondorengo mugimendu ekologista nabarmen kokatzen da erreferentzi marko horretan, nahiz eta gero autonomizatze eta dibertsifikatze prozesuak gertatzen diren haren barnean (Ikus Barcena, 1995: 61-62; Ibarra, 1995: 84-94; Zubiaga, 1995: 131-132). Gauza bera gertatzen da mugimendu antimilitaristarekin ere (Ikus Casquette, 2001: 58).
- 151 Halaz ere, Juan Perez Lazarragakoaren izkribuen aurkikuntzak bestelako euskal Ernazimendu literarioa egon zitekeelako susmoak piztu ditu azkenaldi honetan. Ikus P. Gartzia, 2005.
- 152 Kultura esparruaren kontzeptuak gizarteko atal bereizi baten existentzia adierazten du. Gune hori historian zehar autonomia eta funtzionamendu propioa irabaziz joan da. Bertan, baliabide jakin batzuk hartu dute balioa. Bestalde, kultura esparrua harreman objektiboz osatutako gunea da. Hain zuzen ere, baliabideen banaketa asimetrikoak baldintzatzen ditu esparruko barne harremanak: hala, metatutako baliabideen araberakoak izan ohi dira esparruko eragileek harremanen barruan dauzkaten kokapenak. Esparruaren kontzeptu teorikoan sakontzeko, ikus Bourdieu, Wacquant, 1992.
- 153 “La minorización/mayorización se refiere al aspecto cualitativo (funcional). La minoría/mayoría se refiere al aspecto cuantitativo (demográfico). Con respecto a una comunidad lingüística natural, la minorización es siempre la causa de quedar en minoría. Esto es muy importante tenerlo en cuenta, pues a partir de cierto momento (del momento en que se ha consumado la inferioridad demográfica de la comunidad lingüística minorizada) al Sistema le gusta presentar la condición minorizada como idéntica a la condición minoritaria, o presentar a la condición minoritaria como causa de la condición minorizada” (Sánchez Carrión, 1999: 53).

- ¹⁵⁴ Apalategi Idirinek nabarmentzen duen bezala, adibidez Atxagak espainiar kultura-
ren barnean jasotako kontsakrazioak eraginak izan zituen euskarazko literatura
esparruak euskal esparru politikoari buruz izandako autonomizatze prozesuan.
Halaz ere, ondorioak anbiguoak izan ziren, irabazitako autonomiak espainiar legiti-
mazio-instituzioei buruzko heteronomia harremanak ekarri zituelako berarekin ba-
tera: “Le champ littéraire basque se trouve donc dans une situation hautement para-
doxale dans laquelle la reconnaissance de sa participation à l’enrichissement du pa-
trimoine littéraire universel –reconnaissance qui garantit, par ailleurs, l’autonomie
du fait littéraire basque à l’intérieur de l’espace social basque et notamment par
rapport à l’emprise éventuelle du champ politique basque– devient simultanément
le facteur principal d’une hétéronomie nouvelle que le champ subit par rapport à
des instances de légitimation spécifiquement littéraires mais appartenant à un vaste
espace social espagnol, considéré dans sa globalité et sa puissance” (Apalategi Idirin,
2000: 237). Ikus Apalategi Idirin ere, 1998: 80.
- ¹⁵⁵ Ikus, adibidez, soziolinguistikaren jakintza esparruak –hasiera batean, unibertsita-
tetetik kanpo landua, batik bat– izan duen instituzionalizazioa akademiaren ba-
rruan, irakasgai espezifikoak unibertsitate ikasketetako programetan ezarriz joan
diren heinean (Jausoro, 2000).
- ¹⁵⁶ Batez ere Siadeco enpresaren inguruan egindakoek.
- ¹⁵⁷ Ikus *Jakin* 42/43: “Euskararen Soziolinguistika” (1987).
- ¹⁵⁸ Ildo horretan, hizkuntzaren eta nazionalismoaren arteko harreman korapilatsuei
buruzko bestelako gogoetak atzematzen ditugu gaur egun euskal nazionalismoari
buruzko azterketa teorikoan. J. Zabalok dioena gogoratu behar dugu: “Gaur egun-
go nazionalismoak euskara dauka nazioaren erreferente nagusi eta horrela egin eta
egiten dute beste nazionalismo askok ere, baina hortik ez da bilatu behar hizkunt-
zaren eta nazionalismoaren arteko identifikazio osorik. Hizkuntzak paper bat
betetzen du nazionalismoan, baina ez beti. Hau da, posible da hizkuntza bereizirik
egon arren nazionalismorik ez sortzea edo hizkuntzari berebiziko garrantzirik ez
ematea; eta posible da, jakina, hizkuntza bereizirik egon gabe nazionalismoa
sendotzea. Eta hemendik ondorioztatzen da: a) hizkuntza berreskuratzea ez dela
nazionalismoaren helburu bakarra, beste batzuen arteko bat baizik; eta b)
hizkuntzaren berreskurapenaren alde jotzeko ez dela nazionalista izan behar. Euskal
Herriko kasuan, euskaldun guztiak ez dira euskal nazionalista, eta euskal naziona-
lista guztiak ez dira euskaldun” (Zabalo, 2000: 132).
- ¹⁵⁹ Mugimenduak bezala, administrazio autonomikoak ere iturri intelektual jakinak
erabili zituen bere politikak hornitzeko: “Oinarri batzuk, jatorri batzuk... horiek
elikatu ziran toki batzuetatik, ba seguruenik eragiketa bat izango dira, eta gizarte
mugimenduen inguruan eta gehiago, nik uste det, soziolinguistika katalanaren
pisua da, ez dakit, Aracil eta. Horrek eduki zituen eta hemen ere intelektual batzuk,
nahi baldin badezu, eta horien bidez garatu zan euskeraren inguruko diskurtso
soziala. Eta gero, neretzako, mugarri nagusietako bat, bueno ba instituzionalki,
hori, berandago etorri dan jatorri intelektuala, teorikoa, ba gehiago da Fishman,
Bourhis eta konpainiarena, eta gizarte mugimenduetan ba, nik uste det puntu bat
jarri behar dana, bereizgarri bat izan dana, “Un Futuro para Nuestro Pasado”
1986an, ez? Liburua bera. Beste gauza bat da liburu horren sozializazioa eta sociali-
zazio hori pixka bat geroxeagokoa da, ez? 88, 89, 90... Eta hori, ba, adibidez,
udalerrri mailako euskeraren inguruko normalkuntza mugimenduekin ba oso lotua
dago” (5. elkarrizketa).

160 Euskalgintzaren interpretazio marko nagusiaren aldaketa eta esparru barneko eragileen arteko indar koerlazioaren aldaketa adierazi zuten mugarri esanguratsuak EKBren autodisoluzioa (1999) eta Kontseiluaren osaketa izan ziren. Ez kasualitatez, beste ziklo politiko baten kontestuan gertatu ziren biak. Dena den, EKBren krisia 10 urte lehenagotik zetorren. Autodisoluzio horren berri ematen zen *Bat* aldizkariaren alean, koordinakundearen ekarpenekin batera, honako balorazio kritikoa hau egiten zuen F. Muniozgurenek erakundearen bilakabidea ikusmolde “berritik” neur-tuz: “Ordurako ibilbidean, EKBk, Herri erakundeei dagokienez, hainbat gabezia eta oker atzeman zituen: alde batetik, Herri mugimenduaren indarreko larregizko konfidantza eta instituzio eta erakunde ofizialekiko aurkari jarrera eta, ondorioz, inkomunikazioa harreman urria dela medio; beste aldetik, ostera, konpaktazio eta koordinazio eza zela eta, euskarak abertzale aduratsuen afera bilakatzen ziharduela ikusten zen (...) Azaldutako kontestu horrek euskalgintzaren herri mugimenduaren baitan joera bi markatuko ditu: bata kontrabotere joerakoa (politikagintzako sekto-re batekiko lerratze politikoduna, bertako kide zenbaiten militantzia bikoitza erakutsiz, presioaren eta salaketaren bidetik abangardiaren joerari eusten dio) eta, bestea, integratzailea (diskurtso propioa, osagarritasunaren kontzeptua barne-ratua duena, euskal komunitatea subjektutzat hartzen duena eta gizarte harreman- tan interbenituz, euskarari behar duen “tornua” ematen saiatu dena) (...) Balorazioa egiteari ekin aurretik, beste edozein azterketa egin behar denean lez, kasu honetan ere, EKB sortu zeneko sasoi eta kontestuari erreparatu behar diogu lehenengoz. Alde batetik, giro politikoa eta horrek eskatzen zuen morrontza (...) Transbertsalizazio politikoak, estiloak eta jokabide ezintegratzaileak, atomizazioa, euskal komunitatea artikulatu beharrean segmentarizatzea, inkomunikazioa eta zubi-premia gorria, denboraren bektorean inpasaren luzamendua, “Bateginik” “Batezinik” bihurtzea... lirakeke ondorio kaltegarri nagusiak” (Muniozguren, 1999: 40, 41, 42).

161 Irudikapen hori indartu egin zen bere obrak erakusten zituen ezaugarriengatik. Izan ere, ez zen ohiko azterketa zientifikoan antzera, neutraltasunari lotutako lan bat, konpromiso esplizitua aldarrikatzen zuen lana baizik. Ildo horretan, J. Azurmendik euskararen aldezkarien tradizioan kokatzen du egilea: “Txepetx tradizioaren modurik klasikoenean, tankera guztiz nabarmenki “ideologiko” (are militante) batekin egiten ausartu da bere planteamendua. Disimulatzen ezer ahalegindu baino (ikertzaille zientifiko moderno neutralari legokiokenez), bere “alderdikeria” exhibitu egiten du propio” (Azurmendi, 1987: 136).

162 Publikotasun modernoaren definizio idealak eskatzen duenaren ildotik, euskalgintza edo antzeko gizarte mugimendu batek baliabide kulturalak dituen publikoak eskaintzen ditu, eskolatuak, intelektualaren rolarren eraikuntzan ezinbestekoak direnak.

163 Adierazgarriak dira urteak igaro ondoren bere teoriaren dibulgazioari buruz egin dituen gogoetak: “La seua transmissió directa, (bere pentsamenduarena) (...) ha patit torpedinaments sense treva. I la seua aplicació, obstacles de tota mena (...) Vam crear un col·lectiu per a garantir la transmissió de les idees. Aquest col·lectiu tenia alhora com a finalitat formar les persones que haurien de dur-ne l’aplicació al terreny local (...) Dos anys després el procés estava exhaurit. Després d’haver conegut el silenciament més ominós, la teoria estava a punt de morir a causa del seu mateix èxit. El que passa és que l’èxit poc tenia a veure amb la seua escrupulosa dis-pensació. Pel camí, els continguts s’havien anat buidant, o adulterant, i una nova

fraseologia havia estat adoptada i adaptada per a reproduir, en molts casos, els mateixos comportaments que es volien reemplaçar” (Sánchez Carrión, 1998: 318-319). Nahigabea eragiten dio berak proposaturiko ildoetatik desbideratu diren herrietako euskara elkarteen bilakaerak ere. Autonomia irabazteko eraturako elkar-teok, diru-laguntzen politikaren eraginez, administrazioen mende geratu dira bere ustez. Hartara, pentsamendu librea izateko sortu zena, “subentzionaturiko pentsamendu” bilakatu da euskalgintzaren barnean: “Sorgiren multitud d’euskara taldeak que van conèixer dos moments: un moment d’expansió (fins al 92-94, aproximadament) i un moment d’impasse (...) Segons la meua opinió els euskara taldeak van viure una fase de revitalització, o si es vol, d’energia positiva de restabliment, de sobtada milloria, mentre estigueren associats a una forma de pensament lliure, que proposava alternatives en un doble pla teòric i concret, dins de la societat civil, i al marge de l’entramat polític i ideològic dels partits, d’un signe i d’un altre. I quedaren reduïts, trivialitzats, caricaturitzats com a succedanis de societats gastronòmiques amb les quals en algun cas arribaren a compartir el seu estatus ambigu, domesticats per les estructures vigents de poder i contrapoder (...) A través de la dependència per al seu funcionament de l’aixeta institucional de la subvenció perderen autonomia i llibertat, és a dir, mobilitat i creativitat, i quedaren engolits com a part o partícula d’un discurs institucional que, a canvi dels diners que els atorgava per a garantir-ne el funcionament, els presentava públicament com una de les expressions de l’èxit de la política i la planificació lingüístiques que les institucions no havien contribuït a crear i que els grups havien vingut inicialment a reemplaçar (...) vaig arribar a la conclusió que un dels grans obstacles per a l’expansió del pensament lliure és el pensament subvencionat” (Sánchez Carrión, 1998: 319-320). Ildo beretik, hedatu ahala, bere teoriari erantsi zaizkion desbideraketak eta oker ulertzeak argitzen saiatu da autorea beste artikuluko batzuetan ere. Ikus, adibidez, Sánchez Carrión 1996: 17-21.

¹⁶⁴ 1996 urtean ia hirurogeita hamar euskara elkarte zeuden Hego Euskal Herrian: 24 Bizkaian, 27 Gipuzkoan, 12 Nafarroan eta 5 Araban. Urte berean, hirurogei ziren abian jarritako udal euskara zerbitzuak: 13 Bizkaian, 31 Gipuzkoan, 14 Nafarroan eta 2 Araban. Euskara elkarteen eta euskara zerbitzuen garapena aldi berean gertatu zen.

¹⁶⁵ Txepetxen ekarpina adibide bat gehiago baino ez da izan, nahiz eta oso garrantzitsua, frankismo osteko euskalgintzaren marko berriaren osaketan haren proposamenak izan duen eragin erabakigarria kontuan hartuta. Baina, akademiak kanpoko beste kultur gile askoren lana atzematzen dugu euskalgintzan: Txepetxen antzera, beste hainbat kultur gilek ere mugimenduan eraiki dituzte beren rol intelektualak eta ez unibertsitatean edo kulturaren instituzio legitimoetan.

¹⁶⁶ Teoria eta egintza inoiz baino argiago agertu ziren elkarturik Txepetxen lanean, izan ere, deskripzioa eta preskripzioa nahasirik daude haren teorian. Zalantzarik gabe, egintzara zuzendurik dagoen proposamen kontzeptuala da Txepetxena, areago, mugimenduaren egintza kolektiboari zuzendutako gogoeta, egileak berak bere lanean behin eta berriro aitortu duen bezala (Sánchez Carrión, 1987a: 394; 1987b: 64-68). Halaz ere, laborategi sozialek ez dute inoiz funtzionatzen batek espero duen bezala. Honela zioen 1997an Jon Sarasuarekin egindako solasaldi liburuan: “Baldintza moduko bat jarri nion nire buruari. Nik azaltzen nuena espermentatu egin behar zen. espermentatzen bazen, gehiago azal zitekeen. Izan ere, gure gai honetan informazioa praktikatu ezean ezin da informazio gehiago ulertu. Beraz,

nire betebeharra da indigestioa ekiditea. Gauzak kontzeptuetan gelditzea da arriskua. Kontzeptuak gorpuztu egin behar dira, hau da, proiektuetan gauzatu. Transmisio prozesua gelditu egin zen. Eta ezin izan dut informazio gehiago eman. Besteak beste, informazio gehiago eman izan dudanean ez delako ulertu. Soziolinguistikatzat hartu dira, edo inozokeria mistikotzat” (Sarasua, 1997: 68).

167 Honela zioen Sánchez Carriónek “La Realidad y la Ley” izenburuko artikuluan: “Lo que a la postre cambia la realidad no es la ley, sino la creencia en la REALIDAD DE LA LEY. Y esta creencia depende de dos elementos: la ignorancia y el miedo. Miedo a quedar socialmente postergado y ser objeto de “sanción”, de castigo. E ignorancia de lo que es justo e injusto (...) El miedo y la ignorancia cimentan la inconsciencia. La inconsciencia permite la manipulación colectiva. Y la colectividad manipulada queda a merced de lo que quieran hacer de ella aquellos que rizando el rizo de la tergiversación dicen representarla. Esta es la trampa, y por eso para deshacer la trampa no basta con cambiar o suprimir la ley. Es preciso, en cambio, ir a su núcleo, a la creencia (...) La ley por sí sola no garantiza nada (...) Es conciencia lo que nos falta. Y como parte de ella, conciencia lingüística. Y es conciencia lo que necesitamos recuperar (...) Me parece un equívoco el desplazar el problema desde la conciencia lingüística hacia el cambio de marco jurídico existente: eso sí, perfectamente subsanable si subordina el segundo a la primera o, por lo menos, no hace depender del logro del segundo el inicio del esfuerzo de concienciación” (Sánchez Carrión, 1991: III,IV,V).

168 Ildo horretan egindako kritikarik osatuena P. Iztuetarena izan zen. Iztuetak zioenez: “Hizkuntz galera ez da soilki hizkuntz komunitatearen arazo pribatua, hots, gutxiengo-talde baten erantzukizun historikoa. Hori ere bada, baina, maila sakonagoan, gizarte egiturek eragindako faktore baldintzaileetan datza, zeinaren arauera, norberaren borondatearen at, beste muga bat baitago bortxaz ezarria. Azalpen mikrosoziologikoak marko makrosoziologikoa ere behar du (...) Eredu horretan ez da batere garbi ikusten nola eraiki dezaketen hiztunen ekintza isolatuek –nahiz eta beren artean oso elkarturik egon–, hizkuntz komunitatea, gizarte-egiturak aldatzeke edo, bederen, kontuan hartzeke. Hemen datza kontraesan nabaria: euskal hiztunen hizkuntz komunitatea nola haziko da barrutik kanpora, bera kokaturik dagoen gizarte hedatuagoaren egiturak ere aldatzen ez badira? Ameskeria besterik ez da. Gizarte-errealitatearen alderdi subjektiboa eta objektiboa ez lotzearen ondorio ezinbestekoa. Areago oraindik: nola lor daiteke hizkuntzaren inguruan elkartasuna baldin gizarteko beste sektoreetan interes kontrajarriak tartekatzen badira? (...) Ez da batere garbi ageri gizartearen alderdi estrukturalaren eta indibidualaren arteko katebegiak nola lotuta dauden (...) Nola eta nondik sortzen da inbokatzen duen hizkuntz boterea –norberaren hizkuntz kontzientziari soilki lotua legokeena–, gizarte-baldintzetatik at? (...) Hizkuntza apolitizatzea eta –apolitizatuz gero, hizkuntz mugimendu asozial bilakatu nahi izatea–, ez bakarrik irreal, benetan arriskugarria ere bada, hizkuntz planteamendua funtsean bertan ez bideratua geratzen baita (...) Nire hipotesia da, hizkuntz gatazken erdi-erdian boterea aurkituko dugula eta, boterearekin batera, nazio- eta hizkuntz-kausak elkarri eragink” (Iztueta, 1998: 93, 94, 95). Iñaki Larrañagak berak puntu eztabaidagarriak aurkitu zituen Txepetxen proposamenetan: “Hizkuntz Plangintza eta Normalizazioaren arazoa [Txepetxen planteamenduan] ez ote da boluntarismo baten baitan ipintzen eta ez ote den behar adina kontutan hartzen (...) hizkuntza minorizatua, zapaldua eta menpean daukan aginte politikoaren eragina ere kontutan hartu behar direla,

ezin bait da hizkuntza bezalako gertaera sozial bat aginte politikoaren eraginetik kanpo pentsatu ere” (Larrañaga, 1987: 21).

169 Adierazgarriak dira ildo horretan egindako balorazio batzuk: “*Un Futuro para Nuestro Pasado* liburuan, bestek beste, euskalgintzan ziharduen hainbat euskaltzaleri bere ezintasunean zergatikoak azaltzeaz gain, hartu beharreko norabide berria formulatzen dio. Euskal gizarte-hizkuntzalaritzak urrats kualitatibo emateaz gain, herri-ekimenari bere erantzukizuna (bigarren axioma), bere nolakotasuna eta bere egunerokotasuna argitzen dizkio. Gero eta gizarte-eragin nabarmenagoa bereganatzen ari den tesi honek, euskararen galera-prozesua eta normalizazio-urratsak arrazionalizatu eta esplikatzen egiten ditu. Hizkuntzen bizitzaren teoria oso bat da. Lan honek, beraz, herri-ekimenaren eta, oro har, euskalgintzaren egoera arrazionalizatu egiten du. Herri ekimenaren zati garrantzitsu batek intuitiboki sentitzen zuena era logiko eta koherente baten bidez azaldua ikusten du eta beronekin identifikatu egiten da” (Arruti, 1995: 38). Ildo beretik: “Nik esango nuke, noraeza dela eta, garrantzitsuen, egina gutxietsi gabe, zera dela hain zuzen ere, hizkuntz berreskurapenerako enpirismoan oinarritutako teoria soziala finkatu eta esperimentatu dela. Hau izan liteke datozen urteotan indar berriz lanean segitzeko daukagun euskarririk garrantzitsuenetako bat. Txepetxi esker (...) Gehiago esaten ausartuko naiz. Teoria honek praktikan bere emaitzak ematen dihardu. Han-hemenka herri-taldeak sortu dira eta sortzen diharduten ilusioa, ezinbestekoa zaiguna, zabalduz” (Muniozguren, 1992: 48).

170 Interpretazio marko berriak irudikatzen zuen aurkaritzarik gabeko mugimenduak aurreko aukera politikorako egitura hertsia gainditu nahi zuen. Egitura berriak, berriz, administrazio erakundeekin –bereziki udal mailako euskara zerbitzuekin– lankidetzeta eta erakunde horietatik jasotako finantzaketa publikoa ahalbidetu behar zuen mugimenduarentzat –hau da, jadanik haren eragile nagusi ziren euskara elkar-teentzat–.

171 1995ean honako hau zioten Tejerinak, Fernández Sobradok eta Aierdik, hizkuntzaren auziari buruz: “La progresiva politización de la esfera lingüística durante la década de los 80 desencadenó una espiral de conflictos entre diversos sectores nacionalistas con planteamientos ideológicos divergentes (PNV, EA, EE versus HB) así como una confrontación directa entre el movimiento social (AEK, EHE, EKB) y el Gobierno Vasco. En los últimos años, asistimos a una transformación radical de esta situación de conflicto que está conduciendo hacia una lenta pero progresiva estructura de colaboración entre los distintos sectores sociales implicados en la recuperación lingüística, al tiempo que las relaciones entre Instituciones Públicas y movimiento social se hacen más fluidas. Paradójicamente, a medida que este conflicto, que ha sido central en el mundo lingüístico, se traslada a un segundo plano, emerge un motivo de disputa política entre sectores sociales que se identifican con el nacionalismo vasco y los que no, entre organizaciones políticas que impulsan de manera decidida el establecimiento de una sociedad vasca bilingüe y organizaciones políticas que entienden que este proceso debe ralentizarse” (Tejerina, Fernández Sobrado, Aierdi, 1995: 157).

172 J. Sarasua eta J.M Odriozola izan daitezke esparruan ageri diren bi jarrerara intelektual horien adierazle paradigmaticoak. Hauxe dio Sarasuak: “Baina gure kultur-gintza da eta egunotan dabilkit buruan zenbat aldiz entzun izan dugun Arestiren “aitaren etxea” rena. Nik aitaren etxea herri honen egituraketa politikoari deitzen

diot eta batzu edo denok egituraketa horri buruz gatazka eta eztabaidan ari diren, ari garen bitartean, guri amaren suari, amonaren sukaldeari eustea dagokigu. Amaren su-kaldea gure hizkuntz komunitatearen ezaugarri da. Aitaren etxea herri-egitura da; hori edukiko dugu ala ez. Historian zehar ez dugu eduki. Sartu gaituzte txabolatan, blokeetan, palazio baten zati... baina suak beti iraun du. Milaka urtean hizkuntza batek lotu gaitu lur honetan. Nire lehentasuna suari eustea da eta baita hizkuntza komunitate honena ere. Ahal bada etxe baten barruan eta etxe hori eraiki behar bada eraikiko dugu. Eta gaur ez guretzat bakarrik, beste hizkuntza komunitate batzu ere bai baititugu inguruan. Baina etxearen gorabeherakin suaren perspektiba galdu gabe” (J. Sarasua (1996): “Helburuak eta epeak jartzea ona da, antsietatea ez ordea”. *Elkarri* 17 zbk., 27 or. [J.: Odriozolak aipatua. Odriozola, 2002: 78-79]). J.M. Odriozolak, berriz: “Euskalgintzaren autonomia ari gara aldarrikatzen modu gogaikarrian euskaltzaleok, hizkuntzaren autonomia-izaera gure esku balego bezala. Euskalgintzaren beregaintasuneko diskurtso eta estrategia propioaren beharra bihurtu zaigu amets politika-eremuko kontraesanak eta izanak ekidin asmotan. Ez dugu nonbait konturatu nahi hizkuntzaren izari edo dimentsio politiko-ideologikoa, hots, hizkuntzaren naziotasun-izaera, azken mendeotan nazionalismo orobateratzaileak ezarritako monopolio-jarduna dela munduko herri-rik gehien-gehienetan” (J.M. Odriozola, 2002: 120).

¹⁷³ Era askotako erakundeen estrategiak ezaugarritzeko, I. Agotek erabilitako terminologiari jarraitu diogu. Hain zuzen ere, berak “botere estrategia” daukaten taldeak eta “kultura estrategia” daukatenak bereizten ditu Euskararen aldeko Mugimendu Sozialaren barruan (Agote, 1995: 83-88).

¹⁷⁴ Euskarak unibertsitatean izan behar zuen tokiaz agertu ziren jarrerak aztertzeke, ikus Aizpuru, 2003: 97: 100 eta Aizpuru, 2002: 12-24. Unibertsitateak izan behar zuen izaeraz eta karakterizazioaz sortutako iritzien arteko eztabaida aztertzeke, ikus 1977ko *Jakin* aldizkariaren 1. zenbakian argitaraturiko K. Mitxelenaren eta K. Santamariaren artikulua.

¹⁷⁵ Kontuan hartuta irakasleriaren heren bat euskalduna dela, joera modura hartuta, oso datu adierazgarria da EHU azken urteetan euskaraz egindako tesien kopuru urria: 12 tesi 2000-2001 ikasturtean (219 gazteleraz), 14 tesi 2001-2002 ikasturtean (228 gazteleraz), 15 tesi 2002-2003 ikasturtean (202 gazteleaz), 15 tesi 2003-2004 ikasturtean (234 gazteleraz), 12 tesi 2004-2005 ikasturtean (217 gazteleraz). Horrek erakusten du irakasle euskaldun gehienek gazteleraz egiten dituztela beraien tesiak, hau da, beraien lehen ikerkuntza-lan garrantzitsua. Ez dago, inondik ere, goranzko joerarik. Adierazgarriak dira argitalpenen kopuruak ere. Adibidez, 2004an EHUko aldizkariaren %18,8 besterik ez zen euskaraz argitaratu eta liburuaren % 44,1 [EHUk 2006an eskainitako datuak].

¹⁷⁶ [Elkarrizketatu den irakasleak euskaraz aurkeztutako ikerketa proiektu baten eskariari emandako ezezko erantzuna jaso berri du. Ikertzeke proposatu zuen gaiak euskararen normalizazioarekin zerikusia bazeukan ere, ebaluazio txostenean bibliografiaren zati handi bat euskaraz egotea akats modura agertzen da].

¹⁷⁷ Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua 1997an sortu zen “Euskararen Unibertsoa” ekimenaren ostean, euskalgintzan ziharduten erakundeak biltzeko eta euskararen normalizazio bidean Plan Estrategiko bat garatzeko. Euskalgintza 54 elkarteren partaidetzarekin hasi zen abian.

AZKEN HITZAK

Beranduko Modernitatean intelektual modernoaren ideala bultzatu zuen Ilustrazioaren proiektua krisiak jota geratu da, gaur egun gizarte zientzietan nagusi diren kontzeptualizazio teorikoen arabera. Hartara, kulturgile ilustratuari itsatsita egondako ohiko tradizioak eta agertoki instituzionalak, baita kulturgilearen ohiko estatutua bera ere gainbehera doaz poliki-poliki. Halaz ere, aro guztietan gertatu den bezala, kulturgileek euren rolak eta nortasunak berreraikitzeke bestelako agertoki instituzionalak atzeman dituzte. Hala, gizarte mugimendu berriek emantzipazioari lotutako tradizio intelektualak berriz asmatzeko gune egokia eskaini dute. Izan ere, Beranduko Modernitateko mobilizazio gune horiek zerikusia dute aro horretan sortu diren bestelako menderatze moduekin.

Luzaroan gizarte mugimenduen azterketan antolakuntzaren eta mobilizazioaren ikuspegiak gailendu badira ere, gure analisisian mugimenduen dimentsio sinbolikoak eta kognitiboak azpimarratu ditugu. Izan ere, nabarmenak diren alderdietatik harago arakaturaz gero, gizarte mugimenduak eragile anitzez osaturiko gune kognitiboak direla ulertu dugu. Era askotako gizaki, talde eta erakundeek eraikitako esparru kontzeptual eta intelektual horietan indarrean dauden errealitatearen definizioen ordezkotako markoak artikulatzen dira. Hartara, zalantzarik gabe, gizarte mugimenduak ezagutza ekoizle garrantzitsuak dira. Eta ezagutza ekoizle izanik, baliabide sinboliko asko sortzen eta mobilizatzen dute euren helburua betetzeko, alegia, errealitatearen interpretazio marko alternatiboak eraikitzeke. Baliabide horien artean gizarte garatuetakotako lehia sinbolikoetan ezinbestekoak diren era guztietako kulturgileak eta kultura bitartekoak egon ohi dira. Beraz, gune horietan

hainbat tradizio intelektualetan txertaturik dauden kulturgileek parte hartzen dute baita mugimenduen interes kognitiboei erantzuteko sortutako berariazko intelektualek ere. Azken horiei mugimendu intelektualek deritzegu. Horrenbestez, Modernitatean beste mugimendu batzuek egin zuten bezala, emantzipazioaren aldeko tradizio intelektualaren birsorkuntza bideratu dute gizarte mugimendu berriek Beranduko Modernitatean, haien barnean kultura eta politika uztartzeko modu berriak asmatu baitira.

tan, mendeko hizkuntzen eroale diren hizkuntza komunitateak –haien eliteen ekimenez– gizarte mugimendu gisa antolatu dira Mendebaldeko historia modernoan zehar euren hizkuntzak eta kulturak aldarrikatzeko eta berreskuratzeko asmoz. Askotan, mugimendu horiek izaera politikoa eduki dute kulturala baino gehiago.

Hizkuntza/kulturaren aldeko mugimenduak rol intelektual berrien eraikuntzarako gune egokiak dira gizarte garaikideetan, bereziki azpiinstituzionalizaturik dauden kultura esparruetan. Kultura batzuek Modernitatearen garaian nozitzen duten azpi-instituzionalizazioa mendekotasun harremanen ondorioa izan da. Esparru kultural autonomo propiorik osatu ezin izan duten mendeko kulturei dagokienez, gizarte mugimenduek kultura instituzioen tokia hartu dute eskuarki. Halatan, instituzio politikoen ekimenik ezean, eliteek bultzaturiko mugimenduen ekimenez sortu dira sozializazio erakundeak –eskolak, akademiak, hedabideak–, eta mugimenduen inguruan hezi dira mendeko kulturaren kulturgile berriak ere. Bestelako erakunde ofizialen gabezia, mugimenduek sortutako gune kultural alternatiβοetan kontsakratu dira intelektualek holakoetan. Aldi berean, elite kultural horiek hizkuntza eta kultura gutxitua berreskuratzeko egitasmoen lidergoa bereganatu dute.

Eguno ezagutzaren gizarteak baliabide kognitibo eraginkorrak eskaini dizkie mugimendu horiei. Ildo horretatik, mugimenduen eta haien buruzagien eskura daude era askotako ezagutzak eta jakintza berezituak, egintza kolektiboa eratzeko eta mobilizatzeko lanabes modura. Bitarteko kognitibo horien erabilera dela medio, gaur egungo ezagutza legitimoen zilegitasuna mugimenduei –eta haien xedei– transferitzen zaie. Gauza bera gertatzen da mugimendu horietan parte hartzen duten kulturgileen zilegitasun sozialarekin. Izan ere, kulturgileen botere sinbolikoa baliatzen dute mugimendu kulturelek. Alabaina, aipatu botere sinbolikoa erlatibizatu egin behar da mendeko

kulturez eta hizkuntzez ari garela. Izan ere, bi esparruk definitzen dute mendeko intelektualen kokapen sinbolikoa. Batetik, barnera begira, bere jatorrizko kultura/hizkuntzaren esparruan nagusi diren indar harremanak hartu behar dira aintzat mendeko kulturgilearen definizioa egiteko; dakigunez, esparru hori guztiz hornitu gabe egon ohi da. Bestetik, kanpora begira, kontuan eduki behar dira mendeko kulturaren eta kultura nagusiaren artean ezarrita dauden harremanak, kultura esparru nagusiaren eraginak eta arauak mendeko esparrura zabaltzen baitira era askotara. Izan ere, mendeko kultura/hizkuntzaren esparru intelektualean kokatzen den kulturgilearen botere sinbolikoa, hau da, gizartean aginte kulturalarekin eragiteko ahalmen legitimoa, mendeko kulturaren indarraren arabera izan ohi da. Bestela adierazita, egoera sozial gatazkatsuan ohikoa denez, kultura esparru hegemonikoaren logikak zalantzan jaten ditu –erlatibizatuz– bai mendeko kultura adierazpenen balioa bai mendeko kulturgileen botere sinbolikoa.

Horregatik, mendeko kulturetako kulturgileek halako mugimenduetan pate hartzen dutenean, “plus” bat eransten diote euren partaidetza intelektualari. Izan ere, bazterturiko kulturaren eta hizkuntza gutxiaren egoerak erabat nahasten du kulturgilearen rola bera: haren estatusa eta, oro har, intelektual gisa daukan eginkizuna lotu-loturik daude hizkuntzaren eta kulturaren ibilbideari. Hori dela eta, gutxitutako kulturaren eta hizkuntzaren estatus normalizatu aldarrikatzean, mendeko kulturgileak aldi berean bere estatus intelektualaren normalizazioa eta onespina aldarrikatzen ditu. Horrela, partaidetza horren asmoen artean esparru intelektualen arteko hierarkiak aspikoz gora jartzea egoten da –esparru nagusiaren eta mendekoaren artekoak, batik bat–. Hala, gatazka sozial nahiz politikoen parekoak izan ohi diren borroka sinbolikoen inon baino adierazpen bortitzagoak izaten dituzte kultura esparruetan, eta mendeko kultura esparruak eta mendeko intelektualak nahasirik daudenean borroka horietan, haien jarduna mendeko kultura eta hizkuntzaren aldeko erresistentzia kognitibo gisa gauzatzen da.

Ildo horretan, kulturaren eta hizkuntzaren aldeko gizarte mugimenduek mendeko intelektualek eduki duten –eta daukaten– garrantzia berebizikoa da. Esparru intelektual normalizatu batean sortzen den kulturgileak eskura izaten ditu sozializazio erakunde egokiak eta gune intelektual ganorazkoak bere prestakuntzan –eskolak, unibertsitateak, liburutegiak–. Ordea, mendeko kulturgileak osatu eta instituzionalizatu gabeko kultura esparrua eduki ohi du eta,

askotan, garatu bako hizkuntza ere. Kultura gutxitua berreskuratzeko mugimendu bat osatzen denean asmoa izaten da kultura esparrua eratuko duten instituzioak mugimendu ekimenez sortzea. Instituzio horiek izan ohi dira mendeko kulturgilearen bitarteko nagusiak. Halatan, mugimenduak sortutako kultura guneen inguruan definitzen dituzte mendeko kulturgileek euren tradizio intelektualak beste agertoki instituzionalik ezean. Mugimendua bera gune kognitibo bat da eta ohiko kultura esparruaren funtzioak betetzen ditu.

Historian zehar euskararen alde osatu den euskalgintza izeneko gizarte mugimendua ikuspegi askotatik aztertu izan da. Guk, abiapuntutzat hartu dugun proposamen teorikoari jarraiki, gune kognitibo gisa funtzionatzen duen esparrutzat hartu dugu. Abiaturu horrek, batetik, mugimenduaren barnean gertatutako sorkuntza intelektualaz jabetzeko aukera eman digu; bestetik, euskalgintzaren partaide diren kulturgileek egindako lanari erreparatzeko parada ezin hobea ere eskaini digu. Ildo horretatik, ohartu gara, mendeko egoeran dauden beste hizkuntza komunitate askotan gertatu den bezala, euskalgintzak ohiko kultura erakundeen tokia hartu duela: hiztun komunitateak beharrezkoak dituen funtzio kulturalak bete dituela eta kulturgileek euren rolak eraikitzeko premiazkoak dituzten agertokiak ere sortu dituela, besteak beste. Horrela, erakunde politiko eta erakunde kultural legitimoen gabeziak herri ekimenaren moldez jantzi ditu luzaroan kultura egintza gehienak.

Izan ere, esparru politikoaren –alegia, estatuaren– eta kultura esparruaren garapena lotu-loturik egon ohi dira. Ildo horretatik, euskal kulturak Modernitatearen garaian nozitu zuen azpiinstituzionalizazioaren arrazoa hiztun komunitatearen gorabehera politikoetan bilatu behar da. Zehazki esanda, euskararen eta haren kulturaren azpi-garapen kulturala euskaldunen mendekotasun politikoaren ondorio zuzena izan da. Halatan, instituzio politikoek ekimenik ezean, mugimenduaren ekimenez sortu izan dira sozializazio erakundeak euskal kulturaren –eskolak, akademiak, hedabideak– eta haren inguruan hezi dira mendeko kulturaren –hau da, euskal kulturaren– eliteak ere. Bestelako erakunde ofizialen gabezi egoeran, euskalgintzak sortutako gune kultural alternatiboetan kotsakratu dira euskal kulturgileak hainbat belaunalditan. Hitz batean, euskararen eta euskal kulturaren birsorkuntza mugimenduaren eta mugimendu kulturgileen baitan egon da, hein handi batean. Mugimendu izaera horrek esanahi politikoak bete ditu euskal kulturaren kultura egintzak eta, oro har,

mendeko euskal kulturgileen lanak; azken horien zereginetako bat izan da hizkuntzaren aldeko erresistentzia kognitiboa lantzea.

Lan horrek arreta berezia jaso du gure azterketan. Bada, aitortu zaien aginte soziala dela medio, euskal kulturgileek hizkuntzari buruzko irudikapenak sortzeko eta irudikapen horiek hiztun komunitatean zabaltzeko ahalmena erabili dute etengabe. Halaber, hizkuntzaren corpusa eta estatusa aldatzeko hainbat interbentzio proiektu landu dituzte. Gutxitan izan dute erabateko arrakasta. Baina, modu batean zein bestean aritzean, kulturgileek hiztunen hizkuntza habitusean eragiteko xedearekin jardun dute. Bestela adierazita, gizarte aldaketa izan dute helburu. Hartara, ikusi dugunez, hizkuntza komunitate baten jokamolde linguistikoak ulertzeko, bereziki komunitate minorizatuen egoeran, berebiziko garrantzia dauka kultura eliteek –beste elite batzuekin batera– sortzen eta hedatzen dituzten irudikapenak aztertzea. Izan ere, hizkuntza taldeen arteko gatazka guztiek adierazpenak izaten dituzte mintzaira praktiken arloan, baina baita arlo sinbolikoan ere. Horrenbestez, hizkuntza gatazka gatazka sinbolikoa ere izaten da, ezinbestean. Auzi sinboliko horietan hizkuntzei buruzko zenbait definizio sozial lehiatzen dira legitimazio bila. Lehia sinbolikoen testuinguruan, hizkuntza gutxituen aldeko gizarte mugimenduak bultzatzen dituzte kulturgile batzuek, eta beste batzuek, aldiz, mendeko hizkuntzen aurkako politika formalak nahiz ez-formalak elikatzeko zerbitzu sinbolikoak eskaintzen dituzte. Aro Modernoan eta Beranduko Modernitatean behinik behin, eztabaida intelektuala agerian egon ohi da hizkuntza gatazka gehienetan.

Garaian garaiko baliabide kognitiboak baliatuta eta garaian garaiko baldintza soziopolitikoek baimendutako aukera egiturara egokituta osatu dute euskal kulturgileek euskalgintza deitzen dugun gune kognitibo hori. Gehienetan egoera politiko eta kultural desegokian burutu dela kontuan hartuta, zeregin nekeza eta korapilatsua bete dute kulturgile horiek. Gaur ezagutzen dugun euskalgintza, besteak beste, kapital kultural eta sinboliko baten metaketa historikoaren emaitza da. Bestela adierazita, euskal kulturgileek denboran zehar –bereziki XIX. mende amaieratik aurrera– euskarari buruz sortu eta garatutako ideia, irudikapen, proiektu eta ezagutza multzoaren ondorena da.

Euskalgintzaren esparrura ekarri dituzten berrikuntza politiko, intelektual eta kognitiboak aintzat hartuta, hiru une historiko nabarmendu dira kapital kulturalaren metaketa prozesu horretan: Eusko

Pizkundearen garaia lehena, 1960/70eko hamarraldietako kultura pizkundera bigarrena eta 1980ko hamarraldiko instituzionalizazio autonomikoaren garaia hirugarrena. Horietako bakoitzaren azterketak erakutsi digunez, euskal kultura esparruan gertatutako aldaketak beti etorri dira euskal gizarteak bizi izan dituen bestelako egiturazko aldaketekin batera. Hartara, kultura esparruaren autonomia onartzen bada ere, argi geratu da eraldaketa politikoek eta sozioekonomikoek astinduak eragin dituztela euskalgintzan nagusi izan diren interpretazio markoetan. Aldaketa uneetan, intelektualen sorkuntza lana areagotu egin da eta iraultza sinboliko garrantzitsuak gauzatu dira hizkuntzari dagokion arloan ere.

Frantses Iraultzaren ondorengo Ipar Euskal Herrian eta Foruen abolizioaren osteko Hegoalde gero eta industrializatuagoan sortu zen Eusko Pizkunde deritzan mugimendua. Sasoi bereko beste mugimendu etnolinguistikoko askok bezala, jatorria eta modernotasuna –*authenticity and modernity*, Fishmanen hitzetan– bildu nahi izan zituen. Izan ere, Europako estaturik gabeko nazio taldeen pizkunde kulturalak estatu garaileek ezarritako bazterketa kulturala gainditzen saiatu ziren. Hartako, Mendebaldeko kultura nagusian ustez kontrajarrita zeuden bi printzipio –Tradizioa eta Modernitatea– bateragarri zirela erakutsi nahi izan zuten. Ildo horretan kokatzen da Eusko Pizkundera ere. Modernitatea berriro interpretatzeko lanak borroka kognitibo batean murgildu zituen Pizkundearen inguruan elkartutako intelektualak. Ezagutzazko baliabide legitimoak erabiliz, euskal protokulturgileek euskara eta euskal kultura erreformatzen eta egokitzen jardun zuten Modernitate garaileak ekarritako menderatze sinbolikoari aurre egiteko asmoz. Hartara, Pizkundearen garaian hasitako euskararen kodifikazio- eta arautze-lanak, baita kultura tradizioaren berreskuratze- eta egokitze-zereginak ere, Tradizio/Modernitate binomioaren interpretazio berri horren testuinguruan irakurri behar dira.

Jakina denez, mugimendu kulturalarekin batera garatu zen hastapenetako euskal nazionalismoak bazterrean utzi zituen nazio erai-kuntzan hizkuntzari garrantzia ematen zioten planteamendu kulturalistak. Halaz ere, Pizkunde garaiko kulturgileek zirriborratuta utzi zituzten geroko euskalgintzaren oinarrizko xedeak. Hori izan zen euren ekarpen handienetako bat.

1960/70eko hamarraldietan gertaturiko kultura susperraldia euskal nazioaren bestelako ikusmoldea zekarren definizioarekin batera

eta, hartara, euskal nazionalismoaren pizkundeari lotuta burutu zen. Ikusmolde berri horretan euskara hartu zen euskal nortasunaren oinarritzat. Kulturaren eta politikaren arteko uztardura horrek, zalantzarik gabe, gaur egunera arte euskalgintzan ainguraturik egon den erreferentzi markoaren oinarri nagusiak jarri zituen. Sortzen ari ziren euskal elite kultural eta politiko gazteek irudikaturiko definizioan euskaldunen zapalkuntza kulturalak jatorri politikoak zeuzkan. Ondorioz, mendekotasun horretatik askatzeak jarduera kulturala lan politikoaren barnean kokatzea eskatzen zuen. Euskara euskal nortasun kolektiboaren osagai bilakatu izanak ondorio nabarmenak izan zituen euskal hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapen- eta modernizazio-lanetan. Areago, beste esanahi bat eman zien egintza horiei, esanahi politikoa zentzurik zabalenean.

Hartara, mendeko kultura komunitate –eta komunitate politiko– baten erresistentzi mugimendu gisa irudikatu zen euskalgintza, eta euskararen eta kulturaren berreskurapena nazio eraikuntzaren barruan kokatu ziren. Horiek horrela, erresistentzi mugimenduaren zereginak jarduera politikoetara eta kulturaletara bideratu ziren. Erresistentzi kulturalari dagokionez, bi eginkizun bete zuten elite kulturadunek euskal kultura esparruaren osaketa prozesuan. Lehenik, 60ko hamarraldiko protokulturgileen buruzagitzapean kultura mugimenduak instituzionalizazio prozesua jarri zuen abian. Halatan, euskararen eta euskal kulturaren birsorkuntzarako kultura erakundeak sortu ziren: euskal eskolak, euskara modernizatzeko elkarteak, helduak euskaraz alfabetatzeko eta euskalduntzeko erakundeak, argitaletxeak, disketxeak, elkarte zientifikoak eta besterik. Eginkizunak zabaldu eta berezitu egin ziren neurrian, sortutako instituzioak gero eta ugariagoak eta espezializatuagoak izan ziren. Bigarrenik, euskal kultura esparruaren eraikuntzak eragile instituzionalen sorkuntza ez ezik bestelako kulturgile rolen eraikuntza ere hartu zuen barnean. Hain zuzen ere, euskalgintzaren garapenak berak sortu zuen agertoki historiko egokia ordura arte euskal kulturgintzan ezezagunak ziren kulturgile rola definitzeko. Horrela, mugimendua indartu ahala, kulturgile berezituak sortzeko aukera zabaldu zen. Modu horretan eratu zen geroko euskal intelektualiaren hobia.

Mugimenduaren kultura egintzak, hartara, harremanezko gune gero eta saretuagoa osatu zuen, instituzio eta kulturgile gero eta prestatuagoak bildu baitzituen bilbe trinko batean. Haatik, esparruaren giza azpiegitura eta azpiegitura instituzionala ezartzeaz gain,

euskalgintzaren jardunak lortu zuen bestelako eraikuntzarik ere. Bada, euskalgintza gune kognitibo gisa sortu zen bere hastapenetatik. Haren barnean, hainbat kulturgile, giza talde eta erakundek esparru kontzeptual eta intelektual berriak eraiki zituzten, indarrean zeuden errealtatearen definizioen ordezko interpretazio markoak sortzeko. Ildo horretatik, euskalgintza eta euskal kulturagintza gizarte aldaketara –euskal hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapenera eta normalizaziora– bideratutako ezagutza ekoizleak izan dira. Hala, bere bilakaera historikoan euskalgintzak baliabide sinboliko franko mobilizatu eta metatu ditu ekoizpen kognitiboaren ahaleginean. 60/70eko hamarraldietan mugimenduak sortutako baliabide kognitiboek bi motatako ondorioak izan zituzten. Batetik, ondorio kulturalak, adiera hertsian hartuta. Esan nahi baita, metaketa kognitiboak euskararen batasuna eta modernizazioa ahalbidetu zituen eta azpigaraturik zegoen euskarazko kultura esparruaren eraketari hasiera emateko oinarriak jarri zituen. Bestetik, baina, ondorio politiko nabarmenak ekarri zituen.

Izan ere, aspalditik zetorren –eta frankismoak indartu zuen– diskurtso nagusiak euskara euskal baserriar ezjakinen hizkuntza modura irudikatzen zuen: euskal kultura adierazpen murrizteko errealtatea zen, nekazaritza munduko folklorekeriari lotutakoa. Bai euskara bai euskal kultura “berez” desagertzeaz zeuden fenomeno aurremodernoak ziren herri iruditerian. Bestalde, politikoki menderatu behar zen komunitate baten identitatearen adierazpenak izanik, erregimen frankistak ez zuen haien agerpen publikorik, are gutxiago sustapen ofizialik, baimendu luzaroan. Horiek horrela, euskalgintzak egindako kultura horniketak eta metaketa kognitiboak ageri-agerian utzi zuten historian zehar euskal kultura eta hizkuntzaren gain ezarritako biolentzia sinbolikoa. Hain zuzen ere, euskara eta euskal kultura gizarte modernoak jarritako baldintzetara egokitzeko gai zirela erakustean, euskalgintzaren eragileek azpikoz gora jarri nahi izan zituzten behin-lako interpretazio nagusiaren arrazoibideak. Halatan, euskalgintzaren jardura kulturalaren zeharkako ondorioa guztiz politikoa izan zen.

Espainiako “trantsizio politikoak” Hego Euskal Herrira ekarritako instituzionalizazio autonomikoak zedarrizten du euskalgintza aztertzeo hartutako hirugarren aldia. Euskalgintzaren oinarri izan den nazionalismoaren zatiketak eta gizarte despolitizazioak ezaugarritzen dute batik bat ziklo hori. Historian zehar, euskal hiztunen komunitatea, euskararen aldeko mugimendua eta mugimendu nazionalista bat etorri ez diren arren, arantar nazionalismoaren garaitik unibertso

nazionalistak osatu du euskalgintzaren erreferente nagusia. Horregatik, euskal nazionalismoaren zatiketak, instituzio autonomikoek buruturiko politika kulturalen inguruan sortutako eztabaidak eta mugimenduaren beraren instituzionalizazio- eta profesionalizazio-prozesuak goitik beherako birmoldaketa ekarri zuten euskalgintzaren esparrura 80ko hamarralditik aurrera. Ez hori bakarrik, ordea. Prozesu horiek beste fase bat zabaldu zuten hala euskalgintzaren bilakaeran nola mugimenduari lotutako kulturgileen rol sozial eta eginkizunetan.

Sortzen ari zen esparru politiko autonomikoaren kudeatzaileek gogor jokatu zuten euskal kultura esparrua –ordura arte mugimendu politiko-kultural gisa antolatua– mugimendu indarrez hustu eta mendea hartu arte. Erabilitako estrategiak –bikoizketak, finantzaketa publikoak eta instituzionalizazioak berez dakarren desmobilizazioa– helburu horretara zuzenduta egon ziren, argi eta garbi. Modu paradoxikoan, mugimenduaren desmobilizazio horrek haren etorkizuneko profesionalizatorako eta barne dibertsifikatorako oinarriak ere jarri zituen. Instituzio autonomikoen estrategiak aukera politikorako egitura hertsia eratu zuen euskalgintzarentzat 80ko hamarralditik aurrera. Egoera horretan kokatzen da euskararen aldeko mugimenduak garai hartan bizi izandako nortasun krisia: besteak beste, bere organizazioen zatiketa, diskurtso mailan izandako aldaketa, eta planteamendu nazionaletik maila lokalera burututako itzulera. Ildo beretik, euskalgintzaren autonomiaren eta heteronomiaren arteko auzia indar handiz piztu zen mugimenduko kulturgileen artean.

Testuinguru horretan, 1987. urtean mugarriztat jotzen den lan teoriko batek, Txepetxen proposamenak hain zuzen ere, egoera berriari hobeto egokitutako interpretazio markoari atek zabaldu zizkion euskalgintzaren barnean. Txepetxek modu arketipikoan irudikatzen du teorikoki aztertu dugun mugimendu intelektualaren kategoria. Ikusi dugunez, kulturgilea testuinguru sozial eta instituzionaletan eratzen da intelektual gisa. Mugimendu intelektualek, hain zuzen ere, gizarte mugimenduetan eratzen dute beren eginkizun intelektuala, nahiz eta zenbaitetan ez duten batere legitimitaterik lortzen beste instituzio kultural batzuetan. Hala, Txepetxek ere euskalgintzako interesei erantzun zien une berean eraiki zuen bere nortasun kognitiboa, euskalgintzan eta ez beste kultura esparruko instituzio legitimoetan osatu baitzen haren intelektual rola. Ildo horretatik, euskalgintzak agertoki publiko egokia eskaini zion soziolinguistari, ez soilik lana adituei aurkezteko, baita haren proposamenak modu zabal batean

ezagutzera emateko eta mugimenduaren bitartez egintza bihurtu ahal izateko ere. Horrenbestez, mugimenduak haren lanaz egindako dibulgazioari esker kontsakrazio intelektualerako aukera bermatu zion.

Euskalgintzako kulturgileen adierazpenetan nabarmentzen denez, Txepetxen ekarpen kognitiboak lehenagotik zetorren esparruaren bir-moldaketa azkartu zuen. Bada, mugimendu esparruaren barruko erakunde batzuek euskararen birsorkuntzari lotutako baldintza politiko-aldarrikapena egiten jarraitu bazuten ere, euskalgintzan gailentzen ari ziren helburuak hitzun komunitatearen harremanak trinkotzera bideratu ziren. Bira estrategiko hori ulertzeko ezin da alde batera utzi euskalgintzaren esparru intelektualean gertaturiko indar harremanen aldaketa; izan ere, esparru hori osatzen zuten kulturgileen artean garrantzi gero eta handiagoa hartzen ari ziren euskara teknikariak eta profesionalak. Administrazio sortu berrian zeregin “praktikoak” bete behar zituzten aditu horiek tresna eraginkorren bila ziharduten eta Txepetxen proposamenak, bide horretatik, euskalgintzaren egintza bide-ratzeko euskarri teoriko-ideologiko bihurtu ziren ondorengo urteetan.

Hartara, euskalgintzako kulturgileek sortu dituzten diskurtsoek —eta mugimendu erakundeek bultzatutako ondorengo estrategiek— banalerro argi bat ezarri dute gaur egungo esparruaren eraketan. Funtsean, bi interpretazio marko daude lehia sinbolikoan euskalgintzaren barruan. Lehehengoa, hein handi batean, 60ko hamarralditik jarauntsitakoa da. Funtsean, lehen ikusmoldeak esanahi politikoa esleitzen dio hizkuntzari. Areago, euskal nortasun kolektiboaren osagaitzat dauka hizkuntza. Horrenbestez, egintza kulturala eta politikoa lotuta agertzen dira interpretazio horretan, eta ez dira saihesten hizkuntza/botere binomioari dagozkion harreman gatazkatsuak. Esan bezala, bigarren interpretazio markoak euskalgintzaren 80ko hamarraldiko krisian dauka bere sorrera unea. Orduan landutako interpretazio hori Txepetxen proposamen teorikoetatik eta zenbait udalerritan abian jarritako euskara elkarteen esperientzietatik elikatu zen. Hitzun komunitatearen ideia hartu zuen abiaburu. Hura berreraikitzeke, hiztunek euskara bilgune bihurtu behar zuten beste edozein desberdintasunen gaintetik. Esan nahi baita, adostasunak eraiki behar zituzten hizkuntzaren inguruan. Hartako, “hizkuntzaren auzia” marko ez politiko batean kokatzeko ahalegin intelektuala egin zuten mugimenduaren hainbat sektorek. Horrenbestez, euskalgintzako talde esanguratsuek landu zuten ikusmolde eraberrituan, hizkuntzari buruzko diskurtsoa despolitizatu egin zen erabat. Proiektu politikoetatik at

dagoen kultura esparru autonomoa eratu gura izan zen euskara ardatzat hartuta, uste baitzen beronen inguruan estrategia politikoen gainetik dagoen adostasun sozial emankorra lortu zitekeela normalizazioaren bidean. Hala, hizkuntzaren “politizazioak” zekarren salaketa politikoak –legediaren mugak, instituzio politikoen erantzukizuna...– eta adierazpen erreibindikatuak alde batera utzirik, moderaziora jo zuen mugimenduaren diskurtso nagusiak. Ondorioz, estrategia mailan ere, instituzio politikoeekin gatazka bultzatu duten mugimendu erakundeak eta lankidetzak bultzatu dutenak dauzkagu esparruaren barruan.

Beste mugimendu askoren ibilbidean ohikoak diren instituzionalizazio eta profesionalizazio prozesuak ere islatu dira euskalgintzaren bilakaeran. Esan denez, mugimendu ekimenez sortu zen euskarazko kulturgintza esparrua eta mugimendu ekimenez sortu eta kontsakratu ahal izan ziren kultura eragileak euskararen munduan, bulkada instituzionalez baino gehiago. Baina, hasierako kulturgile ereduak –mugimendu intelektualak– sortzeko ez ezik, eredu intelektual horiek aldatzeko eta berriro definitzeko aukerak ere sortu dituzte euskal kulturgileek euskalgintzaren barnean. Hala, baldintza soziopolitiko egokiak agertu direnean mugimenduaren instituzionalizazioak beste-lako tradizio intelektualak garatzeko bidea eman du testuinguru instituzional desberdinetan –unibertsitatean, administrazioan, eta abar–. Euskal tradizio akademikoak eta euskara arloko administrazio teknikarien tradizioak, esaterako, euskalgintzaren haztegian daukate lehen jatorria.

Tradizio horien sorrerak ez du ekarri, hala ere, euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa testuinguru instituzional horietara. Kulturgileen adierazpenek erakusten digutenez, akademiko euskaldunek mendeko kokapenak daukate unibertsitate esparruan, euskarak ez baitu eskuratu balia bide legitimoaren estatusa esparruan lehiatzeko. Esparruaren arau nagusiak gaztelaniaren alde jokatu du. Hartara, lehiatzeko sistema meritukratikoaren barruan arau horren araberrako karrera akademikoak saritzen dira. Administrazioan, berriz, euskara arloko teknikariek “esparru periferiko” batean dihardute. Esan nahi baita, administrazio bestelako esparruetan ez bezala, behin baino gehiagotan irizpide politiko argirik gabe aritu behar izan dute; onean ere, teknikari horiek borondatearekin orekatu dute politikarien erantzukizun eza. Hartara, bi tradizioetako kulturgileek euskal kulturarako atxikimendurekin eta konpromisoaren ideiarekin bete dituzte

unibertitate esparruaren nahiz administrazio esparruaren ekonomia sinbolikoan –hizkuntza ikuspegitik– balio gutxikoak ziren jarduerak. Bestela adierazita, ohiko mugimendu intelektualari atxikita doazen disposizioen jabe dira mugimenduz kanpoko testuinguru instituzionaletan euskararen aldeko lana egiten duten kulturgileak ere. Hala, euskararen egoera normalizatzen ez den bitartean, mendeko bizipenetatik sortutako habitusa ezinbestean itsatsiko zaio euskal kulturaren burututako lanari, zeinahi instituziotan egiten dela lan hori. Beraz, egia da, alde batetik, profesionalizazioak eta gizarte aldatetek militantziaren jaitsiera eragin dutela, eta, ildo horretatik tradizio intelektual gero eta profesionalizatuagoak sortzeko aukerak daudela baina, beste alde batetik, horrekin batera ezin da ukatu euskaraz ari diren kulturgileek mendekotasunezko esperientzietan sortutako habitus espezifikoa bat daukatela. Hizkuntzaren mendekotasun sinbolikoa abiapuntu hartuta, habitusa osatzen duen disposizio multzoak uztartu egiten ditu lan kulturala eta hiztun komunitateari buruzko konpromisoa, eta hurbildu egiten ditu edozein mota eta lanbidetako kulturgileak mugimendu intelektualaren figurara. Ildo beretik, nabarmentzekoa da elkarrizketatuen autopertzepzioan nagusitu den ideala intelektual engaiatuarena izan dela.

BIBLIOGRAFIA

- AGOTE, I. (1995): “Euskararen aldeko Mugimendu Soziala”, *Bat*, 16, 83-88 or.
- AIZPURU, M. (2002): “Euskal Unibertsitatea Eginkizun. Aldarrikapen Baten Bilakaera Historikoa”, *Jakin*, 130/131, 11-31 or.
- (2003): *Udako Euskal Unibertsitatea Euskal Kulturagintzan. Hasierako Urteak (1973-1984)*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- ALBERTINI, J. M., BÉLISTE, C. (1988): “Les Fonctions de la Vulgarisation Scientifique et Technique”, in JACOBI, D., SCHIÈLE, B. (eds.), 225-245 or.
- ALVAREZ ENPARANZA, J.L. “TXILLARDEGI” (1984): *Euskal Kulturaren Zapalketa. 1956-1981*, Elkar-AEK.
- (1993): “Euskara Batuaren Hastapenak”, *Ele*, 11/12, 15-21 or.
- (1994): *Euskal Herria Helburu*, Txalaparta, Tafalla.
- ÁLVAREZ JUNCO, J. (1994): “Movimientos Sociales en España: del Modelo Tradicional a la Modernidad Postfranquista”, in LARAÑA, E. GUSFIELD, J. (comp.), 413-442 or.
- ALVAREZ URIA, A. (2005): “Euskal Emakume Idazleen Lekua Literaturaren Historian. Dorrearen Arrakalak Agerian Uzten”, *Jakin*, 148, 37-74 or.
- AMEZAGA, J. (1995): *Herri Kultura: Euskal Kultura eta Kultura Popularrak*, UPV-EHU, Bilbo.
- AMONARRIZ, K. (1993): “Euskararen aldeko Mugimendu Sozialak Gaur Egun”, *Jazten*, 8, 5-11 or.

- ARRUTI I. (1998): “Euskararen aldeko Mugimendu Sozialak Gaur Egun”, in ITXAUSTI, J. (zuz.), 147-183 or.
- AMURRIO, M. (2003): *Genero, Nazio eta Nazio Hezkuntza: Ikastolekako Irakasleria*, UPV-EHU, Bilbo.
- APALATEGI, J. (1985): *Los Vascos, de la Autonomía a la Independencia. Formación y desarrollo del Concepto de la Nación Vasca*, Txertoa, Donostia.
- (ed.) (1999): *La Anticipación de la Sociedad: Psicología Social de los Movimientos Sociales*, Promolibro, Valencia.
- (1999a): “Las Principales Teorías Sociológicas sobre los Movimientos Sociales”, in APALATEGI, J. (ed.), 101-139 or.
- APALATEGI IDIRIN, U. (1998): “Atxaga Post-Obabarra edo Literatura Autonomoaren Heteronomizazioa”, *Uztaro*, 27, 63-82 or.
- (2000): *La Naissance de L’Écrivain Basque. L’Évolution de la Problématique Littéraire de Bernardo Atxaga*, L’Harmattan, Paris.
- ARIÑO, A. (1997): *Sociología de la Cultura. La Constitución Simbólica de la Sociedad*, Ariel, Barcelona.
- ARRUTI, I. (1995): “Euskara Elkartek: Jatorria eta Norabidea”, *Bat*, 16, 31-47 or.
- AUSTIN, J.L. (1982): *Cómo Hacer Cosas con Palabras. Palabras y Acciones*, Paidós, Barcelona.
- AZURMENDI, J. (1977): “Euskaldunari”, “Prólogo”, in J. M. TORREALDAI (1977), 39-49 or. eta 51-63 or.
- (1987): “Diskurtso Berria Mintzaira Zaharraren baitatik”, *Jakin*, 42/43, 119-142 or.
- (1992): “Esencia y Esencialismo: Análisis de un Concepto. Notas para una Relectura de Herder”, in PALACIOS, X., (comp.), 163-220 or.
- (1997): *Demokratak eta Biolentoak*, Elkar, Donostia.
- (1998): *Oraingo Gazte Eroak. Gogoetak ETAre Sorrera inguruko Kultur Giroaz eta Gaurkoaz*, Luma, Irun.
- (zuz.) (1998): *Hizkuntza eta Talde-Nortasuna*, Donostiako Udako XII. Ikastaroak, UPV-EHU, Bilbo.
- BÁRCENA, I., IBARRA, P., ZUBIAGA, M. (1995): *Nacionalismo y Ecología. Conflicto e Institucionalización en el Movimiento Ecologista Vasco*, La Catarata, Madrid.

- (1995): “La Evolución del Movimiento Ecologista Vasco a Través del Espejo Nacionalista”, in BÁRCENA, I., IBARRA, P., ZUBIAGA, M., 13-66 or.
- BEAUNE, J.C. (1988): “La Vulgarisation Scientifique: L’Ombre des Techniques”, in JACOBI, D., SCHIÈLE, B. (eds.), 47-76 or.
- BECK, U., GIDDENS, A., LASH, S. (1997): *Modernización Reflexiva. Política, Tradición y Estética en el Orden Social Moderno*, Alianza, Madrid.
- (1997): “La Reinención de la Política: hacia una Teoría de la Modernización Reflexiva”, in BECK, U., GIDDENS, A., LASH, S., 13-73 or.
- BELTRÁN, M. (1991): *La Realidad Social*, Tecnos, Madrid.
- (2004): *La Estructura Social*, Ariel, Barcelona.
- BENEDICTO, J., REINARES, F. (eds.) (1992): *Las Transformaciones de lo Político*, Alianza, Madrid.
- BERGER, P., LUCKMANN, T. (1979): *La Construcción Social de la Realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- BERIAIN, J., FERNÁNDEZ UBIETA, R. (coord.) (1999): *La Cuestión Vasca. Claves de un Conflicto Cultural y Político*, Proyecto A Ediciones, Barcelona.
- BLUME, S. et al. (1987): *The Social Direction of the Public Sciences. (Causes and Consequences of Co-operation between Scientists and Non-scientific Groups)*, Reidel, Dordrecht.
- BOUDON, R. (ed.) (1992): *Traité de Sociologie*, PUF, Paris.
- BOURDIEU, P. (1988): *Cosas Dichas*, Gedisa, Buenos Aires.
- WACQUANT, L. (1992): *Réponses. Pour une Anthropologie Réflexive*, Seuil, Paris.
- et al. (1993): *La Misère du Monde*, Seuil, Paris.
- (1997): *Razones Prácticas. Sobre la Teoría de la Acción*, Anagrama, Barcelona.
- et al. (1998): *Les Perspectives de la Protestation*, Syllepse, Paris.
- BRAND, K.W. (1992): “Aspectos Cíclicos de los Nuevos Movimientos Sociales: Fases de Crítica Cultural y Ciclos de Movilización del Nuevo Radicalismo de Clases Medias”, in DALTON, R.J., KUECHLER, M. (comp.), 45-69 or.

- CALVET, L.J. (1981): *Lingüística y Colonialismo*, Júcar, Madrid.
- CASQUETTE, J. (1998): *Política, Cultura y Movimientos Sociales*, Bakeaz, Bilbo.
- (2001): *Acción Colectiva y Sociedad de Movimientos. El Movimiento Antimilitarista en el País Vasco-Navarro*, Soziologiazko Euskal Koadernoak, 7, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- CHAZEL, F. (1992): “Mouvements Sociaux”, in BOUDON, R. (ed.), 263-312 or.
- COHEN, J. (1985): “Strategy or Identity: New Theoretical Paradigms and Contemporary Social Movements”, *Social Research*, 52, 603-716 or.
- COHEN, M. (1974): *Manual para una Sociología del Lenguaje*, Fundamentos, Madrid.
- CRAMER, J., EYERMAN, R., JAMISON, A. (1987): “The Knowledge Interests of the Environmental Movement and its Potential for Influencing the Development of Science”, in BLUME, S. *et al*, 89-115 or.
- CRUZ, R., PÉREZ LEDESMA, M. (eds.) (1997): *Cultura y Movilización en la España Contemporánea*, Alianza, Madrid.
- (1997): “La Cultura Regresa al Primer Plano”, in R. CRUZ, M., PÉREZ LEDESMA (eds.), 13-34 or.
- DALTON, R. J., KUECHLER, M. (comp.) (1992): *Los Nuevos Movimientos Sociales*, Alfons el Magnànim, Valencia.
- BÜRKLIN, W. (1992a): “El Reto de los Nuevos Movimientos”, in DALTON, R.J., KUECHLER, M. (comp.), 19-42 or.
- DARNOVSKY, M., EPSTEIN, B., FLACKS, R., (eds.) (1995): *Cultural Politics and Social Movements*, Temple University Press, Philadelphia.
- DEZALAY, Y. (2003): “Las ONG y la Dominación Simbólica”, in VIDAL BENEYTO, J. (ed.), 347-371 or.
- DÍEZ RODRÍGUEZ, A. (2002): “Las ONG como Campo de Relaciones Sociales”, in REVILLA, M. (ed.), 120-171 or.
- DURÁN, M.A. (ed.) (1996): *Mujeres y Hombres en la Formación de la Teoría Sociológica*, CIS, Madrid.
- (1996): “Mujeres y Hombres en el Futuro de la Ciencia”, in DURAN, M.A. (ed.), 1-36 or.

- DURKHEIM, E. (1977): *Las Reglas del Método Sociológico*, La Pléyade, Buenos Aires.
- EDER, K. (1985): "The New Social Movements: Moral Crusades, Political Pressure Groups, or Social Movements?", in *Social Research* 52, 869-889 or.
- EISENSTADT, S.N. (1972): *Modernización, Movimientos de Protesta y Cambio Social*, Amorrortu, Buenos Aires.
- ELORZA, A. (1978): *Ideologías del Nacionalismo Vasco 1876-1937 (De los "Euskaros" a Jagi-Jagi)*, Aranburu, Donostia.
- EPSTEIN, B. (1995): "Political Correctness and Colective Powerlessness", in DARNOVSKY, M., EPSTEIN, B., FLACKS, R., (eds.), 3-19 or.
- ERIZE, X. (1997): *Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa. 1863-1936*, Nafarroako Gobernua, Iruña.
- ERRO, J. (2003): *Gizarte Komunikazioaren Arloko Prozesuak Aurkitu eta Eratu. GGKEetan Komunikazio Politikak, Estrategiak eta Egiturak Diseinatzeko zenbait Ideia*, Hegoa, Bilbo.
- ESCOFFIER, J. (1995): "Community and Academic Intellectuals: The Conquest for Cultural Authority in Identity Politics", in DARNOSKY, EPSTEIN, FLACKS (eds.), 20-33 or.
- ETXEBARRIA, J.R. (1993): "Zientziaren Arloko Euskararen Batasunaz", *Ele*, 11/12, 99-112 or.
- ETXEBERRIA, H. (2002): *Bost Idazle (Hasier Etxeberriarekin Berbetan)*, Alberdania, Irun.
- EYERMAN, R., JAMISON, A. (1991): *Social Movements. A Cognitive Approach*, The Pennsylvania State University Press, Pennsylvania.
- (1994): *Between Culture and Politics. Intellectuals in Modern Society*, Polity Press, Cambridge.
- (1998): "La Praxis Cultural de los Movimientos Sociales", in IBARRA, P., TEJERINA, B. (comp.), 139-163 or.
- FERNANDEZ, I. (1994): *Oroimenaren Hitza: Ikastolen Historia 1960-1975*, UEU, Bilbo.
- FILLIEULE, O., PECHU, C. (1993): *Lutter Ensemble. Les Théories de l'Action Collective*, L'Harmattan, Paris.

- FINE, G.A. (1995): "Public Narration and Group Culture: Discerning Discourse in Social Movements", in JOHNSTON, H., KLANDERMANS, B. (eds.), 127-143 or.
- FISHMAN, J. A. (1982): *Sociología del Lenguaje*, Cátedra, Madrid.
- (1989): *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*, Multilingual Matters, Clevedon-Philadelphia.
- (1991): *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*, Multilingual Matters, Clevedon.
- FOUCAULT, M. (1980): *The History of Sexuality*, Vintage Books, New York.
- GAMSON, W.A. (1992): "The Social Psychology of Collective Action", in MORRIS, A.D., MUELLER, C.M. (eds.), 53-73 or.
- (1995): "Constructing Social Protest", in JOHNSTON, H., KLANDERMANS, B. (eds.), 85-106 or.
- MEYER, D.S. (1999): "Marcos Interpretativos de la Oportunidad Política", in McADAM, D., McARTHUR, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 389-412 or.
- GARTZIA, P. (2005): *Lazarraga. Ernazimentua Euskaraz*, Pamiela.
- GERHARDS, J. (1995): "Framing Dimensions and Framing Strategies Contrasting Ideal -and Real- Type Frames", *Social Science Information* 34, 2, 225-248 or.
- GIBBONS, M. et al. (1997): *La Nueva Producción del Conocimiento. La Dinámica de la Ciencia y la Investigación en las Sociedades Contemporáneas*, Pomares-Corredor, Barcelona.
- GOFFMAN, E. (1986): *Frame Analysis. An Essay on the Organization of Experience*, Northeastern University Press, Boston.
- GURRUTXAGA, A. (1985): *El Código Nacionalista durante el Franquismo*, Anthropos, Barcelona.
- (1996): *Transformación del Nacionalismo Vasco. Del PNV a ETA*, Haranburu, Donostia.
- GUSFIELD, J. (1994): "La Reflexividad de los Movimientos Sociales: Revisión de las Teorías sobre la Sociedad de Masas y el Comportamiento Colectivo", in LARAÑA, E., GUSFIELD, J. (eds.), 93-117 or.

- H.A.A.: (2003): *Los Intelectuales y la Política*, Pablo Iglesias, Madrid.
- HABERMAS, J. (1986): *Problemas de Legitimación en el Capitalismo Tardío*, Amorrortu, Buenos Aires.
- HOBSBAWM, E.J. (1992): *Naciones y Nacionalismo desde 1780*, Crítica, Barcelona.
- HUNT, S., BENFORD, R., SNOW, D. (1994): “Marcos de Acción Colectiva y Campos de Identidad en la Construcción Social de los Movimientos”, in LARAÑA, E., GUSFIELD J. (eds.), 221-249 or.
- IBARRA, P. (1995): “El Discurso Medioambiental”, in BÁRCENA, I., IBARRA, P., ZUBIAGA, M., 67-127 or.
- TEJERINA, B. (comp.) (1998): *Los Movimientos Sociales. Transformaciones Políticas y Cambio Cultural*, Trotta, Madrid.
- INGLEHART, R. (1991): *El Cambio Cultural en las Sociedades Industriales Avanzadas*, CIS, Madrid.
- (1992): “Valores, Ideología y Movilización Cognitiva en los Nuevos Movimientos Sociales”, in DALTON, R.J., KUECHLER, M. (comp.), 71-99 or.
- INTXAUSTI, J. (1992): *Euskera. La Lengua de los Vascos*, Elkar, Donostia.
- (zuz.) (1998): *Hizkuntzen aldeko Mugimendu Sozialak*, Donostiako Udako XII. Ikastaroak, UPV-EHU, Bilbo.
- IZTUETA, P. (1981): *Sociología del Fenómeno Contestatario del Clero Vasco: 1940-1975*, Elkar, Donostia.
- (1993a): “Hizkuntza eta Boterea”, *Bat*, 9, 45-55 or.
- (1993b): “Euskal Kulturaren Kontraesanak: Teoria eta Praxia”, *Uztaro* 9, 119-152 or.
- (1993c): “Alfabetatze eta Euskalduntzearen Prozesua Hizkuntz Normalkuntzaren Ildotik (1940-1992)”, *Ele*, 11/12, 65-89 or.
- (1996): *Intelligentsia Kimaturan Orbelak*, Kutxa Fundazioa, Donostia.
- (1998): “Euskal Nortasunaren bila: Topaketa Kritikoa”, in AZURMENDI, J. (zuz.), 17-95 or.
- (2005): *Euskal Idazleen Belaunaldiez*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- JACOBI, D. (1986): *Diffusion et Vulgarisation. Itinéraires du Texte Scientifique*, Annales Littéraires de l’Université de Franche-Comté, Paris.

- SCHIÈLE, B. (bil.) (1988): *Vulgariser La Science. Le Procès de l'Ignorance*, Champ Vallon, Seyssel.
- JAUREGUI, G. (1981): *Ideología y Estrategia Política de ETA*, Siglo XXI, Madrid.
- JAURÉGUIBERRY, F. (1983): *Question Nationale et Mouvements Sociaux en Pays Basque Sud*, École des Hautes Études en Sciences Sociales, Paris.
- JAUSORO, N. (2000): “Soziolinguistika Euskal Herrian: Esperientziak, Erronkak. Soziolinguistika Akademikoa”, *Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen Sinposiuma*, Ponentzia.
- JAVALOY, F., RODRIGUEZ, A., ESPELT, E. (2001): *Comportamiento Colectivo y Movimientos Sociales*, Prentice Hall, Madrid.
- JENKINS, J.C. (1994): “La Teoría de la Movilización de Recursos y el Estudio de los Movimientos Sociales”, *Zona Abierta*, 69, 5-49 or.
- JOHNSTON, H., KLANDERMANS, B. (eds.) (1995): *Social Movements and Culture*, UCL Press, London.
- (1995a): “The Cultural Analysis of Social Movements”, in JOHNSTON, H., KLANDERMANS, B. (eds.), 3-24 or.
- (1995): “A Methodology for Frame Analysis: From Discours to Cognitive Schemata”, in JOHNSTON, H., KLANDERMANS, B. (eds.), 217-246 or.
- JOLY, L. (2005): “Errepresentazioen Garrantzia Euskal Herriko Egoera Soziolinguistikoaren Azterketan”, *Azpeitiko Euskara Patronatua* (erabili.com 2005-06-17).
- KINTANA, X. (1993): “Batasunerako Pausoak Gogoratzuz”, *Ele*, 11/12, 23-49 or.
- KLANDERMANS, B., KRIESI, H., TARROW, S. (eds.) (1988): *From Structure to Action: Comparing Social Movement Research across Cultures*, International Social Movement Research I, JAI Press, Greenwich.
- TARROW, S. (1988a): “Mobilization into Social Movements: Syntheszing European and American Approaches”, in KLANDERMANS, B., KRIESI, H., TARROW, S. (eds.), 1-38 or.
- (1988b): “The Formation and Mobilization of Consensus”, in KLANDERMANS, B., KRIESI, H., TARROWS, S. (eds.), 173-197 or.

- (1992): “La Unión de lo “Viejo” con lo “Nuevo”: el Entramado de los Movimientos Sociales en los Países Bajos”, in DALTON, R.J., KUECHLER, M. (comp.), 173-191 or.
- (1994): “La Construcción Social de la Protesta y los Campos Pluriorganizativos”, in LARAÑA E., GUSFIELD, J. (eds.), 183-219 or.
- KORNHAUSER, W. (1969): *Aspectos Políticos de la Sociedad de Masas*, Amorrortu, Buenos Aires.
- KRIESI, H. (1988): “The Interdependence of Structure and Action: Some Reflections on the State of the Art”, in KLANDERMANS, B., KRIESI, H., TARROW, S. (eds.).
- (1992): “El Contexto Político de los Nuevos Movimientos Sociales en Europa Occidental”, in BENEDICTO, J., REINARES, F. (eds.), 115-157 or.
- LAMO DE ESPINOSA, E. (1996): *Sociedades de Cultura, Sociedades de Ciencia. Ensayos sobre la Condición Moderna*, Nobel, Oviedo.
- LARAÑA, E., GUSFIELD J. (comp.) (1994): *Los Nuevos Movimientos Sociales. De la Ideología a la Identidad*, CIS, Madrid.
- (1996): “La Actualidad de los Clásicos y las Teorías del Comportamiento Colectivo”, *REIS*, 74, 15-43 or.
- (1999): *La Construcción de los Movimientos Sociales*, Alianza, Madrid.
- LARRAÑAGA, I. (1987): “Euskal Soziolinguistikaren Egoera eta Bide Berriak”, *Jakin*, 42/43, 7-29 or.
- LARRINAGA, A. (1996): “Diskurtsoaren Interpretazio Markoak”, *Inguruak*, 15, 155-178 or.
- (2004): “Zoon-aren Esparrua: Giza Aberea Saroe Publiko Aldakorrean”, *Uztaro*, 48, 25-59 or.
- LE BON, G. (1995): *Psicología de las Masas*, Morata, Madrid.
- LENEVEU, C., VAKALOULIS, M. (1998): *Faire Mouvement*, Presses Universitaires de France, Paris.
- LETAMENDIA, F. (1994a): *Historia del Nacionalismo Vasco y de ETA. ETA en el Franquismo (1951-1976)*, R&B Ediciones, Donostia.
- (1994b): *Historia del Nacionalismo Vasco y de ETA. ETA en la Transición*, R&B Ediciones, Donostia.
- (1999): “Los Movimientos Nacionalistas”, in BERIAIN J., FERNÁNDEZ UBIETA, R. (coord.), 231-243 or.

- LOFLAND, J. (1995): “Charting Degrees of Movement Culture: Tasks of the Cultural Cartographer”, in JOHNSTON, H., KLANDERMAN, B. (eds.), 188-216 or.
- LOPEZ ADAN, E. “BELTZA” (1974): *El Nacionalismo Vasco (De 1876 a 1936)*, Mugalde, Hendaia.
- (1977): *El Nacionalismo Vasco en el Exilio, 1937-1960*, Txertoa, Donostia.
- LÓPEZ CERREZO, J., LUJÁN, J.L. (2000): *Ciencia y Política del Riesgo*, Alianza Editorial, Madrid.
- LLOBERA, J.R. (2001): “La Força de la Llengua en la Identitat Nacional. L’Experiència de l’Europa Occidental”, in MOLLÀ, T. (ed.), 57-90 or.
- MAIZ, R. (2003): “La Construcción Mediática de la Nación: Marcos Interpretativos Identitarios en la Prensa Gallega (1977-1981)”, in V. SAMPEDRO (ed.), 105-123 or.
- MANN, P. (1991): *L’Action Collective. Mobilisation et Organisation des Minorités Actives*, Armand Colin, Paris.
- MARDONES, J.M. (dir.) (1996): *Diez Palabras Clave en Movimientos Sociales*, Verbo Divino, Lizarra.
- (1996a): “Los Nuevos Movimientos Sociales y la Sociedad Moderna”, in MARDONES, J.M. (dir.), 13-43 or.
- MARINA, J.A. (2003): “El Intelectual y el Poder”, in H.A.A. (2003), 23-41 or.
- MATEOS, S. (2000): *Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa: Ikastolen Publikazioa*, UPV-EHU, Bilbo.
- McADAM, D. (1988): “Micro Mobilization Contexts and Recruitment to Activism”, in KLANDERMAN, B., KRIESI, H., TARRROW, S., (eds.), 125-155 or.
- (1994): “Cultura y Movimientos Sociales”, in LARAÑA, E., GUSFIELD, J., (eds.), 43-67 or.
- (1998): “Orígenes Conceptuales, Problemas Actuales, Direcciones Futuras”, in IBARRA, P., eta TEJERINA, B., (eds.), 89-107 or.
- (1999a): “Oportunidades Políticas. Orígenes Terminológicos, Problemas Actuales, Futuras Líneas de Investigación”, in McADAM, D., McARTHUR, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 49-70 or.

- (1999b): “Marcos Interpretativos y Tácticas utilizadas por los Movimientos: Dramaturgia Estratégica en el Movimiento Americano Pro-Derechos Civiles”, in McADAM, D., McARTHY, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 475-496 or.
- McARTHY, J.D., ZALD, M.N. (eds.) (1999): *Movimientos Sociales: Perspectivas Comparadas*, Istmo, Madrid.
- McARTHY, J.D., SMITH, J., ZALD, M.N. (1999): “El Acceso a la Agenda Pública y a la Agenda del Gobierno: Medios de Comunicación y Sistema Electoral”, in McADAM, D., McARTHY, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 413-441 or.
- MELUCCI, A. (1985): “The Symbolic Challenge of Contemporary Movements”, *Social Research*, 52, 789-816 or.
- (1989): *Nomads of the Present*, Temple University Press, London, Hutchinson, Philadelphia.
- (1994a): “¿Qué hay de Nuevo en los Nuevos Movimientos Sociales?”, in LARAÑA E., GUSFIELD J. (eds.), 119-149 or.
- (1994b): “Asumir un Compromiso: Identidad y Movilización en los Movimientos Sociales”, *Zona Abierta*, 69, 153-180 or.
- (1995): “The Process of Collective Identity”, in JOHNSTON, H., KLANDERMANS, B. (eds.), 41-63 or.
- (1998): “Raíces para Hoy y para Mañana: los Movimientos Etnonacionalistas en las Sociedades Complejas”, *Inguruak*, 2, 25-46 or.
- (2001): *Vivencia y Convivencia. Teoría Social para una Era de la Información (Edición de Jesús Casquette)*, Trotta, Madrid.
- MIRA, J. (1985): *Crítica de la Nació Pura*, Edicions Tres i Quatre-Eliseu Climent, Valencia.
- MIRANDA, B. (1988): *La Lengua. Representación y Práctica*, Tesis Doctoral, Universidad Complutense, Madrid.
- MOLLÀ, T. (ed.) (1998): *La Política Lingüística a la Societat de la Informació*, Edicions Bromera, Alzira.
- (ed.) (2001): *Ideologia i Conflictes Lingüístics*, Edicions Bromera, Alzira.
- MORRIS, A.D., MUELLER, C.M.(eds.) (1992): *Frontiers in Social Movement Theory*, Yale University Press, New Haven & London.
- (1992): “Political Consciousness and Collective Action”, in MORRIS, A.D., MUELLER, C.M. (eds.), 351-373 or.

- MOSCOVICI, S. (1976): *La Psychanalyse, son Image et son Public*, PUF, Paris.
- MUNIOZGUREN, F. (1992): “Herriaren Eskuhartzeaz Euskararen Berreskurapenean”, *Bat*, 6, 43-51 or.
- (1999): “EKBren Ibilbidetik bada Zer Ikasia”, *Bat*, 31, 39-44 or.
- NEVEU, E. (2002): *Sociología de los Movimientos Sociales*, Hacer, Barcelona.
- OBERSCHALL, A. (1999): “Oportunidades y Creación de Marcos en las Revueltas de 1989 en el Este de Europa”, in McADAM, D., McARTHY, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 143-181 or.
- ODRIOZOLA, J. M. (1992a): “Euskararen aldeko Herri Mugimenduak: Praktika eta Teoriaren arteko Uztardura”, *Bat*, 6, 25-41 or.
- (1992b): “Normalizazioaren Filosofiaz: Euskal Pentsakera Soziolinguistikari Ohar Kritikoak”, *Larrun*, 14, 19-28 or.
- (2002): *Euskal Intelligentsiaren Ideologia Zantzuak*, Pamiela, Iruña.
- (2004): *Euskalgintzaren Lekukoak*, Elkar, Donostia.
- OFFE, C. (1988): *Partidos Políticos y Nuevos Movimientos Sociales*, Sistema, Madrid.
- OLAZIREGI, M.J. (2003): “Bizenta Mogel (1788-1854) edo Euskal Tradizio Literario Androzentrikoa Pitzatu Zenekoa”, in H.A.A., Pierre Lafitteren Sortzearen Mendemugako Biltzarra, Euskaltzaindia.
- PALACIOS, X. (comp.) (1992): *Ética y Nacionalismo*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Gasteiz.
- PÉREZ-AGOTE, A. (1984): *La Reproducción del Nacionalismo. El Caso Vasco*, CIS, Madrid.
- (1987): *El Nacionalismo Vasco a la salida del Franquismo*, CIS, Madrid.
- PÉREZ LEDESMA, M. (1994): “Cuando lleguen los Días de la Cólera (Movimientos Sociales, Teoría e Historia)”, *Zona Abierta*, 69, 51-120 or.
- PINARD, M., HAMILTON, R. (1989): “Intellectuals and the Leadership of Social Movements: some Comparative Perspectives”, *Research in Social Movements, Conflict and Change*, 11, 73-107 or.

- PONT VIDAL, J. (2004): *La Ciudadanía se Moviliza. Los Movimientos Sociales y la Globalización en España*, Flor del Viento, Barcelona.
- PORTA della, D. (1999): “Movimientos Sociales y Estado: Algunas Ideas en torno a la Represión Policial de la Protesta”, in McADAM, D., McARTHY, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 100-142 or.
- REVILLA, M. (1994): “El Concepto de Movimiento Social: Acción, Identidad y Sentido”, *Zona Abierta*, 69, 181-213 or.
- (arg.) (2002): *Las ONG y la Política*, Istmo, Madrid.
- (2002a): “Zona Peatonal: las ONG como Mecanismos de Participación Política”, in REVILLA, M. (ed.), 15-65 or.
- RIECHMANN, J., FERNANDEZ BUEY, F. (1994): *Redes que dan Libertad. (Introducción a los Nuevos Movimientos Sociales)*, Paidós, Barcelona.
- (1994): “Una Nueva Radicalidad Emancipatoria: Las Luchas por la Supervivencia y la Emancipación en el Ciclo de Protesta post-68”, in RIECHMANN, J., FERNANDEZ BUEY, F., 47-102 or.
- (2003): *Cuidar la T(t)ierra. Políticas Agrarias y Alimentarias Sostenibles para Entrar en el Siglo XXI*, Icaria, Barcelona.
- RIFKIN, J. (2000): *La Era del Acceso. La Revolución de la Nueva Economía*, Paidós, Barcelona.
- RIVAS, A. (1998): “El Análisis de Marcos: una Metodología para el Estudio de los Movimientos Sociales”, in IBARRA, P., TEJERINA, B. (comp.), 181-215 or.
- (1999): *Un Modelo para el Análisis de la Dimensión Ideática de los Movimientos Sociales. El Discurso del Movimiento Ecologista Vasco*, UPV-EHU, Bilbo.
- ROQUEPLO, P. (1983): *El Reparto del Saber: Ciencia, Cultura, Divulgación*, Gedisa, Barcelona.
- RUBIRALTA, F. (1997): *El Nuevo Nacionalismo Radical. Los Casos Gallego, Catalán y Vasco (1959-1973)*, Hirugarren Prentsa, Donostia.
- RUCHT, D. (1988): “Themes, Logics, and Arenas of Social Movements: A Structural Approach”, in KLANDERMANS, B., KRIESI, H., TARROW, S. (eds.), 305-329 or.
- (1992): “Estrategias y Formas de Acción de los Nuevos Movimientos”, in DALTON, R.J., KUECHLER, M. (comp.), 219-243 or.

- SAMPEDRO, V., JEREZ, A., LÓPEZ, J. (2002): “ONG, Medios de Comunicación y Visibilidad Pública. La Ciudadanía ante la Mediatización de los Mensajes Sociales”, in REVILLA, M. (ed.), 251-285 or.
- (ed.) (2003): *La Pantalla de las Identidades. Medios de Comunicación, Políticas y Mercados de Identidad*, Icaria, Barcelona.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. “TXEPETX” (1987a): *Un Futuro para Nuestro Pasado. Claves de la Recuperación del Euskara y Teoría Social de las Lenguas*, Sánchez Carrión arg., Donostia.
- (1987b): “Euskararen Berreskurapenaren Teoria Soziolinguistikoa eta Hizkuntzen Teoria Soziala”, *Jakin*, 42/43, 31-71 or.
- (1991): “La Realidad y la Ley”, *Imprecor*, 81 (Tema), I-XVI or.
- (1996): “*Un Futuro para Nuestro Pasado* Idazlaneko Ideiei buruzko Jarrera Intelektualak”, *Bat*, 19, 17-22 or.
- (1998): “Les Llengües del Territori y el Territori de les Llengües”, in MOLLÀ, T. (ed.), 299-360 or.
- (1999): *Márgenes de Encuentro. Bilbao y el Euskara. Aplicación Sociolingüística de la Territorialidad*, Bilboko Udala.
- SARASOLA, I. (1976): *Historia Social de la Literatura Vasca*, Akal, Madrid.
- SARASUA, J.(1997): *Biziaren Hizkuntzaz. Txepetxekin Solasean*, Gara, Bilbo.
- SARRAILH DE IHARTZA, F. (1979): *La Nueva Vasconia*, Ediciones Vascas, Donostia.
- SASTRE GARCIA, C. (1997): “La Transición Política en España: una Sociedad Desmovilizada”, *REIS*, 80, 33-68 or.
- SCHIÈLE, B., JACOBI, D. (1988): “La Vulgarisation Scientifique: Thèmes de Recherche”, in JACOBI, D., SCHIÈLE, B. (eds.), 12-46 or.
- SERRANO OÑATE, M. (2002): “Las ONGD en la Encrucijada: del Estado del Bienestar a la Franquicia del Estado”, in REVILLA (ed.), 66-94 or.
- SIGUAN, M. (1988): “Posibilidades y Límites del Proceso de Recuperación de una Lengua: el Caso Catalán”, II Euskal Mundu-Biltzarra, Euskara Biltzarra, II alea, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 65-73 or.

- SMELSER, N. (1989): *Teoría del Comportamiento Colectivo*, Fondo de Cultura Económica, México.
- SMITH, A.D. (1976): *Las Teorías del Nacionalismo*, Península, Barcelona.
- (1997a): *La Identidad Nacional*, Trama, Madrid.
- (1997b): “¿Resurgimiento del Nacionalismo? Mito y Memoria en la Renovación de las Naciones”, *Inguruak* 19, 37-70 or.
- SNOW, D., BENFORD, R. (1988): “Ideology, Frame Resonance and Participant Mobilization”, in KLANDERMANS, B., KRIESI, H., TARROW, S. (eds.), 197-207 or.
- (1992): “Master Frames and Cycles of Protest”, in MORRIS, A.D., MUELLER, C.M. (eds.), 133-155 or.
- SWIDLER, A. (1995): “Cultural Power and Social Movements”, in JOHNSTON, H., KLANDERMANS, B. (eds.), 25-40 or.
- TARROW, S. (1997): *El Poder en Movimiento. Los Movimientos Sociales, la Acción Colectiva y la Política*, Alianza, Madrid.
- (1999): “Estado y Oportunidades: la Estructuración Política de los Movimientos Sociales”, in McADAM, D., McARTHUR, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 71-99 or.
- TEJERINA, B. (1992): *Nacionalismo y Lengua*, CIS, Madrid.
- FERNANDEZ SOBRADO, J.M., AIERDI, X. (1995): *Sociedad Civil, Protesta y Movimientos Sociales en el País Vasco*, Eusko Jaur-laritz, Gasteiz.
- TILLY, CH. (1978): *From Mobilization to Revolution*, McGraw-Hill, New York.
- TORREALDAI, J.M. (1971): “Kulturgintza eta Rikardo”, in TORREALDAI, J.M. (arg.): *Rikardo Arregi*, Jakin Sorta 3, Oñati.
- (1977): *Euskal Idazleak Gaur. Historia Social de la Lengua y la Literatura Vascas*, Jakin, Donostia.
- TOURAINÉ, A. (dir.) (1982): *Mouvements Sociaux d’Aujourd’hui. Acteurs et Analystes*, Les Editions Ouvrières, Paris.
- URLA, J. (1987): *Being Basque, Speaking Basque: The Politics of Language and Identity in the Basque Country*, Argitaratu gabeko Doktore Tesia, University of California, Berkeley.

- (1988a): “Language Planning: Inventing New Realities”, II Euskal Mundu-Biltzarra, Euskara Biltzarra, II alea, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 139-144 or.
 - (1988b): “Ethnic Protest and Social Planning: a Look at Basque Language Revival”. *Cultural Anthropology*, 3:4, 379-394 or.
 - (1993): “Contesting Modernities: Language Standardization and the Production an Ancient/Modern Basque Culture”, *Critique of Anthropology* 13 (2), 101-118 or.
- URTEAGA, E. (1995): “Mobilizazioaren Teoria Soziologiko Berri baten Zirriborroa”, *Uztaro*, 15, 109-140 or.
- VIDAL BENEYTO, J. (ed.) (2003): *Hacia una Sociedad Civil Global*, Taurus, Madrid.
- WEINSTEIN, B. (1988): “Language Strategists and Political Identities”, II Euskal Mundu-Biltzarra, Euskara Biltzarra, II alea, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 173-184 or.
- ZABALO, J. (2000): *Abertzaleak eta Ezkertiarrak*, Elkarlanean, Donostia.
- ZALBIDE, M. (1988): “Mende-hasierako Euskalgintza: Urratsak eta Hutsuneak”, II Euskal Mundu-Biltzarra, Euskara Biltzarra, II alea, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 389-412 or.
- (2004a): “Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE (I)”, Azpeitiko Euskara Patronatua (erabili.com 2004-04-27).
 - (2004b): “Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE (II)”, Azpeitiko Euskara Patronatua (erabili.com 2004-05-04).
 - (2004c): “Joshua. A. Fishman-en RLS edo HINBE (III)”, Azpeitiko Euskara Patronatua (erabili.com 2004-05-11).
- ZALD, M.N. (1992): “Looking Backward to Look Forward. Reflections on the Past and Future of the Resource Mobilization Research Program”, in MORRIS, A.D., MUELLER, C. M. (eds.), 326-348 or.
- (1999): “Cultura, Ideología y Creación de Marcos Estratégicos”, in McADAM, D., McARTHY, J.D., ZALD, M.N. (eds.), 369-412 or.
- ZAMORA, J.A. (coord.) (2001): *Radicalizar la Democracia*, Verbo Divino, Lizarra.

- ZUBERO, I. (1996): *Movimientos Sociales y Alternativas de Sociedad*, HOAC, Madrid.
- (2001): “Movimientos Sociales y Alternativas de Sociedad”, in ZAMORA, J.A. (coord.), 95-136 or.
- ZUBIAGA, M. (1992): “ENAM-en Aukera Politikorako Egitura”, *Inguruak*, 7, 119-140 or.
- (1995): “Euskal Herriko Mugimendu Ekologistaren Ingurune Politikoa”, in BÁRCENA, I., IBARRA, P., ZUBIAGA, M., 129-186 or.

BILA

BILDUMA

1. Paulo Iztueta: *Euskal irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, 2000
2. Paulo Iztueta: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, 2000
3. Paulo Iztueta: *Erbesteke euskal pentsamendua*, 2001
4. Ander Iturriotz: *Boterea gizarte homerikoan*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Orixe saiogilea*, 2003
6. Paulo Iztueta: *Orixe auzitan*, 2003
7. Paulo Iztueta: *Orixe gaitzesia*, 2003
8. Txomin Peillen (koord.): *Euskal etorkinak Ameriketean*, 2003
9. Begoña Bilbao: *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*, 2003
10. Karmele Perez: *Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian*, 2004
11. Josu Amezaga: *Satelite bidezko nortasunak*, 2004
12. Gurutze Ezkurdia: *Curriculum eta ingurunea Euskal Herrian*, 2004
13. Begoña Bilbao; Gurutze Ezkurdia; Karmele Perez: *Euskal curriculum ala euskal dimentsioa curriculumean*, 2004
14. Pello Jauregi; Asier Huegun: *Sentitu*, 2005
15. Jose Inazio Imaz Bengoetxea: *Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005*, 2006
16. Joxe Garmendia Larrañaga: *Azkoitiko bailaretako eskolak, 1824-1977*, 2006
17. M. Jaione Apalategi: *Ikastetxeen egitura intelektuala*, 2006
18. Ane Larrinaga; Mila Amurrio (biltzaileak): *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai hurbilketa soziologikoa*, 2006
19. Ane Larrinaga: *Kulturugileak eta kulturaren esparrua. I. Tradizio intelektualak beranduko modernitatean*, 2007
20. Ane Larrinaga: *Kulturugileak eta kulturaren esparrua. II. Euskal kulturugileak euskalgintza mugimenduaren eraikuntzan*, 2007